

Jose Ignazio Gerriko

**KRISTAU DOKTRIÑA
GUZTIAREN
ESPLIKAZIOAREN
SAIAKERA
(II)**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Cristau doctriña guztiaren esplikazioaren
sayaquera (Bigarren liburua edo tomoa)*, José Ygnacio
de Guerrico. Mendizabalen alargunaren moldiztegia,
1858.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=731>

KRISTAU DOKTRIÑA GUZTIAREN ESPLIKAZIOAREN SAIAKERA

EUSKARAZKO PLATIKA
EDO DOKTRIÑETAN PARTITURIK

DON JOSE IGNAZIO DE GERRIKO,
MUTILOAKO BENEFIZIADUAK EGIÑA

*Desolatione desolata est omnis terra:
quia nullus est qui recogitet corde.*
Jerem. Cap. 12. v. II.

IRUÑEKO OBISPO JAUNAREN BAIMENAREKIN

BIGARREN LIBURUA EDO TOMOA

TOLOSAN.

Mendizabalen alargunaren moldiztegian
1858garren urtean.

**DOTRIÑAKO
IRUGARREN PARTEA,
EDO ZATIA**

LENENGO DOTRIÑA

Aditzera emateko

*1. Kristauaren bizimoduak nolako
izan bear duen: eta*

*2. Pekatua zer dan, eta zenbat modutan izan oi dan:
eta 3. Pekatu mortala zer dan, eta zein iguigarria,
eta kaltegarria dan: eta pekatu mortalean
erori ezkeru, nola luzatu bage
kontriziozko aktoa egin bear dan.*

Jesu-Kristo gure Jaunak guziori esaten digu: betiko bizitza iritsi nai badezu, mandamentuak gorde itzatzu: eta lenago esan zigun Dabid Errege Santuaren aotik: betiko pakea iritsi nai badezu, pekatutik alde egizu: eta obra onak egin itzatzu: «*declina a malo, et fac bonum*» eta ala eztegu asko Zerura joateko, eta betiko Infernutik libratzeko, fedea, eta esperanza edukitzea edo zer sinistu bear degun, eta zer, eta nola eskatu edo nola orazio egin bear degun jakitea. Fedea, eta esperanza nai ta ez lagundu bear ditugu karidadearekin edo Jaungoikoaren guzieren gañeko amorioarekin, eta gure lagun urko edo proximoaren

egiazko amoriarekin: eta ori agertu bear degu gure bizimodu onarekin, edo gure obra onakin: eta orregatik gure dotriñako liburutxoak, zer sinistu, eta zer eskatu bear degun erakutsi ezkeru, galdetzen du: Kristauak, arrazoiaren argira eltzen danean, jakin bear duen irugarren gauza zein da? Eta eranzuten du: Jakin bear du, zer obratu bear duen. Eta nola jakingo du, zer obratu bear duen? Jakiñarekin Jaungoikoaren legeko amar mandamentuak edo aginteak: eta Eliza Ama Santaren bostak: eta miserikordiazko obrak. Baña amar mandamentuetan gure Jaungoikoak zer agintzen digun, eta zer eragozten digun obeto ezagutu eragiteko, lenago esan bear dizuet laburtxo: 1. Kristauaren bizimoduak nolakoa izan bear duen: 2. Pekatua zer dan, eta zenbat modutan dan. Eta 3. Pekatu mortala zer dan, zein iguigarria, eta kaltegarria dan: eta nola, pekatu mortalean erori ezkeru, luzatu bage kontriziozko aktoa egin bear dan: eta orra gaurko hitz aldia: Jaungoikoari nai dakiola, guzion probetxurako izatea. Eskatu dezagun bada aurretik orretako Espiritu Santuaren argia, eta grazia: Ama Birjiña Santisima bitarteko arturik. Abe Maria.

1. **G.** Mundu onetan kristauok nolako bizimodua egin bear degu, gure obligazioak osatzeko, eta betiko

ondasunak iristeko? **E.** Jesu-Kristo gure Maisu edo erakusle Soberanoak bere dotriña, eta ejemploakin erakutsi zigun bizimodua egin bear degu: eta ori Jesu-Kristoren Ebanjelio Santuan ondo argiro agerturik, eta azaldurik edo explikatorik dago.

G. Jesu-Kristok gure bizimodurako erakutsi zizkigun dotriñak, eta ejemploak zertara batez ere bitzen dira? **E.** Bi gauzatarra: lenengoa da, gure biotzak munduaren amoriotik apartatzea, askatzea edo eraniztzea: eta bigarrena da, Jaungoikoarekin gure biotzak unitzea edo batutzea. San Juan Ebanjelistak esaten digu: Mundua, eta munduko gauzak eztitzatzula maitatu: au da, orietan zure biotza eztezazula ipiñi: bada mundua maite duenagan Jaungoikoaren amoriorik arkitzen ezta. Eta Jesu-Kristok Apostoluai esan zien, eta aetan Kristau guzioi: zuek ya munduarenak etzerate: Nik mundutik esleitu, eta atera zaituet. Esango balie bezela: Zeruan daukazue zuen Aita, eta zuen herentzia Zeruko Erreinua da: Zerurako bada bizi bear dezue: billa ezazue lenbizian Jaungoikoaren erreinua, eta bere justizia: au da, justuen bizimodua egitea, eta zeruan dagoan zuen Aitak, munduan bear dituzuen gauzak, azigarri bezela emango dizkitzue: eta aurretik esan zien: jabe bi batetan ezin serbituko dituzue:

munduari, eta Jaungoikoari ezin gusto emango diezue: eta Zeruko erreinua iristeko, amatu bear dezue zuen Jaungoikoa zuen biotz guziarekin, zuen anima guziarekin, eta zuen adimentu, eta indar guziarekin. Oek Jesu-Kristoren hitzak dira: eta nola zekusen aren Majestadeak, Jaungoikoa biotz guztitik amatzeko daukagun inpedimenturik edo eragozgarririk andiena dala gure buruaren, eta aragiaren erabageko amorio itxua; eta ortik datozkigun pasio, griña edo inklinazio gaiztoak; esan zigun guziori «nere ondoren iñork etorri nai badu, uka beza bere burua: ar beza bere gurutzea, eta niri jarrai bekit». Zertan ordea jarraio bear diogu? Berak esaten digu: nigandik ikasi bear dezue, zuen buruak humillatzen; zerren naizan humilla, eta mansoa: eta pakea zuen animenzat arkituko dezue: eta arrezkero nere legearen ustarrria biguiña, eta ariña izango dezue: ala ikusten da: Kristau humillak, naiz aberatsak, naiz pobreak, Jaungoikoa biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik maite duenak, pakean bizi dira; zerren eren nai edo borondatea gertakari guzietan, ala pozgarri, nola penagarrietan Jaungoikoaren borondatearekin konformatzeko alegin guziak egiten dituen: baña Kristau arroak, honrazale, intereszale, eta atseginzale erabageak, eren biotzak, eta amorioa

ipiñirik dauzkate munduko estimazio, ondasun, eta gustoetan: eta ezin logratu baditue, naigabeturik, eta tristaturik daude: eta erabage gozaten baditue, Jaungoikoa ofenditzen due: eta eren konzienziako arrak ortxikatzen edo erreprenditzen ditu: eta pakerik iñundik eztue: eta nai ta ez penaturik egon bear due. Eta ala zenzatu gaitezen arren guziok, eta erabaki dezagun, Jesu-Kristok erakutsi zigun bizimoduari gogotik jarraitzea. Eta ori obeto egiteko, eta pekatutik beti alde egiteko; ikusi dezagun orain pekatua zer dan, eta zenbat modutan izaten dan.

2. **G.** Zer da bada pekatua? **E.** Gure borondate gaiztoa egitea naiago izatea Jaungoikoarena baño: edo orobat dana, Jaungoikoaren lege Santua, bere borondatea aditzera ematen diguna, ausitzea edo ez kunplitzea, gure borondatea kunplitzeagatik edo gure ardurabagetasunagatik.

G. Zenbat pekatu mota dira? **E.** Bi: bata da pekatu orijinala edo jatorrizkoa, guzien lenengo guraso Adanegandik datorkiguna: Bateo Santuan barkatzen zaku-na. Eta askotan aditzera emanik daukaguna, bere ondorengo kalte izugarriakin: bada andik datorkigu ill bearra; pekaturako leia edo griña gaiztoa: onerako pisutasuna, eta nagitasuna: pasioen erabagetasuna,

eta itxumena: eta kondenatu bearra, Jesu-Kristok erremedioa ekarri ezpaligu gure zorrak pagatzeko sufritu zuen eriotzarekin: bere dotriñarekin bere ejemploarekin eta bere graziarekin: eta bigarren pekatu mota da aktuala edo ezaguerara etorri ezkeru gure borondatez egiten deguna: eta au da orain aitatu bear deguna.

G. Zenbat modutan da pekatu ori? **E.** Modu askotan: batzuek dira pensamentu utsezkoak bakarrik: nola dan deshoneskeriako edo loikeriako gauza zikiñetan ezagueraz, gogoz, eta borondatez, atsegiñez pen-satzen egotea bakarrik, pekaturik obraz egiteko asmo edo deseorik ez eduki arren: eta orobat gorrotozko pensamentuak gogoan ezagueraz erabiltea: eta proximoaren onaz damu artzea, eta aren gaitzaz poztutzea edo atsegin artzea, gaitzik egiteko asmorik edo deseorik ez eduki arren. Beste pekatu batzuek dira deseozkoak: au da, pekatu dan gauzaren bat egiteko asmo edo intenzioa artzea: dala lapurreta egitekoa, dala deshonestidade edo loikeriakoa, dala bendekuzkoa; edo beste edozein: eta bere barruan ezaguera osoarekin, eta osoro konsentitu baditu, Jaungoikoaren aurrean pekatu dira, obraz kunplitu ezpaditu ere edo erarik izan eztuelako edo damutu zaiolako. Beste

pekatu batzuek dira hitzezkoak bakarrik: nola juramentuak, batez ere gezurrezkoak; blasfemiak, birau edo maldizioak: hitz loiak: murmurazioak: gezurrak: beste pekatu batzuek dira obrazkoak: nola lapurretak: erabageko joku luze, kaltegarriak: ordikeriak: burrukak: eta beste era askotakoak. Eta azkenik beste pekatu asko dira utsegiñezkoak edo omisiozkoak; bakoitzaren estaduari, karguari, eta bizimoduari dagozkion obligazio jeneralak edo partikularrak, ikasi bagez edo kontuz gorde bagez egiten diranak.

G. Zerk pekatu eragin edo Jaungoikoaren legea ausi eragiten digu? **E.** 1. Batzuetan jakineztasun edo ignoranziak. 2. Beste batzuetan gure argaltasunak, eta gaitzerako griña edo pasio gaiztoak. Eta 3. Beste batzuetan gure maliziak edo gaiztakeriak.

G. Noiz pekatu egiten degu ignoranziaz? **E.** Jakin bear degun edo jakiteko obligazioa degun gauzaren bat, gure kulpaz edo ardurabagetasunaz ezta kigulako, gaitz edo pekatoren bat egiten degunean: edo gure karguko obligazioren bat kunplitzen eztegunean. Eta ori gertatzen da, Kristau guziok ditugun obligazio jeneralak dotriña santuan erakusten diranak, ondo ikasteko alegiñak egin bagez: eta orobat bakoitzak bere estadu, kargu, ofizio edo bizimoduan dituan obli-

gazio edo langai partikularrak ikasi bagez edo ondo ezagutzeko alegiñak egin bagez. Kontu arren obligazio onekin errietako kargudunak: gurasoak: ezkonduak: nagusi, eta etxeakoandreak: eta mirabe edo serbitzariak.

G. Noiz pekatu egiten degu argaltasunaz? **E.** Pekatu eragin nai digunari atzera esateko, eta gogortzeko bear dan indarrik eztegulako, erorten geranean: edo tentazioaren, eta gure griña gaiztoaren erasoari atzera esan ordean, eta menderatu ordean, erraz jarraitzen diogunean. Eta ori gertatzen da gure kulpaz, Jesu-Kristok erakusten digun bezela, ernai ez gaudelako, eta oraziorik estu aldietan egiten eztegulako, indarrak iristeko.

G. Eta noiz maliziaz edo gaiztakeriz pekatu egiten degu? **E.** Ezaguera, eta oarmen osoarekin dakigula zer egiten degun, eta geurk nai degula, gure borondatez pekatu egiten degunean: eta pekatu mota au besteak baño andiagoa da; pekatu gaia berdiña danean.

G. Eta oiturazko pekatua, argaltasunekoa da edo maliziazkoa da? **E.** Pekatu egiteko izan degun oituraz, erraztasunaz edo aztura gaiztoaz benetan damaturik bagaude: eta ori ezitzeko edo menderatzeko egiazko erremedioak, eta alegiñak egiten ari bagera orduan,

ustekabeen bezela, oitura gaiztoak eragiten dizkigun pekatuak edo utsegiteak dirade argaltasunekoak: baña gure oitura giaztoaren egiazko penitenziarik egiten ezpadegu, eta ura goitzeko erremedio eragillerik artzen ezpadegu: eta batez ere gure oitura gaiztoa piztutzen, eta indartzen duen okasio, eta arriskutik alde egiten ezpadegu, al degula, orduan oiturazko pekatua da maliziazkoa, gaiztakerizkoa, kulpadunagoa, zerren borondatea argana etziñago, eta makurtuago dagoan. Eta orrelako pekatariak, batez ere ordikeriara, lapurretara edo deshonestidadera edo gorrotora oiturik daudenak, txit nekez erremediatzen, eta sendatzen dira: ez erremedio eragillerik eztagoalako: baizik humillatu nai eztirialako: eta erremedioak gogotik artu nai eztituelako: eta ala kondenatuak izateko peril edo arrisku guztiz andian daude: Jaungoikoak arren argitu ditzala, eta erremediatzeko indarra diela.

G. Eta bada beste pekatu motarik gure kontuko edo karguko danik? **E.** Bai: eta dira guk bidea edo eskandaloa emanik, besteak egiten dituen pekatuak.

G. Nor dira eskuarkiro besten pekatuak bereak egiten dituenak? **E.** Asko dira. Baña batez ere dira, besteai pekatu egiteko agintzen dienak: konseju ematen dienak: laguntzen dienak: lausonjatzen dituenak:

pekatura tentatzen edo mugitzen dituenak: edo eragozten eztenak, artarako kargua, eta obligazioa duen larik ere: nola gurasoak, nagusi-etxeandreak: eta besten kargua duen guziak: eren mendekoen pekatuak, eragotzi ditzakeala, eragozten ezpaditue, eren kontuko izango ditue.

G. Eta beste pekatu motarik bada? **E.** Bai: eta dira 1. Espiritu Santuaren kontrakoak deitzen diran pekatu banaka batzuek: 2. Zerura deadar egiten duen pekatuak: eta 3. Pekatu Kapitalak edo burudunak, beste pekatu askoren buruak, eta sustrai gaizto diralako.

G. Zein dira Espiritu Santuaren kontrako pekatuak? **E.** Sei oek: 1. Salbazioaz etsitzea edo desespe-razioa: 2. Presunzio arroa, uste duelako berez, eta bere indar edo alegiñakin bakarrik salbatuko dala: 3. Da, egiaz ezagutua ukatzea, eta gezurra dala sinistu eragiteko alegiñak egitea: 4. Besteak duen graziaren enbidia edo damua: 5. Pekatuan ostinatzea edo gogortzea: eta 6. Azken aldirian ere penitentiari ez egitea.

G. Eta zergatik pekatu oek deitzen dira Espiritu Santuaren kontrakoak? **E.** Zergatik diran maliziaz, eta gaiztakeriz egiten diranak: eta dira Espiritu Santuari batez ere dagokion ontasunaren kontrakoak: ara nola

argaltasunezkoak diren Aitari dagokion poderioaren kontrakoak: eta ignoranziazkoak Semeari batez ere dagokion sabiduriaren kontrakoak.

G. Eta zergatik dio Jesu-Kristok, Espiritu Santuaren kontrako pekatuak ez dirala barkatuko, ez mundu onetan, eta ez bestean? **E.** Aditzera emateagatik pekatu orien malizia, eta gaiztakeri arrigarria: eta orien penitenzia egiteko nekeztasuna: baña ala ere barkatu ditezke penitenzia egiazkoarekin, eta konfesio on batekin: ill baño lenago egiten badue.

G. Eta zein dira Zerura deadar egiten duen pekatuak? **E.** Lau oek: 1. Iñor iltzea borondatez edo ala nairik. 2. Sodomio pekatu nazkagarria: edo gizakumeak gizakumeekin edo emakumeak emakumeekin loikeriako pekatuak egitea. 3. Pobreak naigabetzea, eta atsekabetzea. Eta 4. Langiñaren nekea, trabajua edo izardia, arrazoi bage, ez pagatzea edo detenitzea.

G. Eta zein dira pekatu kapitalak edo burudunak, askotan mortalak deitzen diranak? **E.** Dirade zazpi oek: 1. Soberbia: 2. Abarizia edo gutizia: 3. Lujuria edo loikeria: 4. Ira edo kolera gaiztoa: 5. Gula: 6. Enbidia: eta 7. Nagitasuna. Zazpi pekatu oen, eta oek dakazten beste askoren ezaguera argia edukitzea gauza bearra, eta guztiz probetxugarria da gure buruak obeto eza-

gutzeko, eta erremediatzeko; eta argatik oen gañean zazpi dotrina berariazkoak aurrera egingo dizkizuet: eta orien kontrako birtuteak, eta erremedioak ere aditzera emango dizkizuet.

G. Eta orain azkenik esan dezagun gure borondatez egiten degun pekatua zenbat modutan da? **E.** Bitan: bata da pekatu mortala, pisua, grabea edo larria: eta bestea da pekatu beniala, errazago egiten, eta barkatzen dana: ariña edo txikia: ez berez ariña, eta txit kaltegarria ezalako baizik, pekatu mortalaren aldean ariñagoa dalako.

G. Eta zer da pekatu mortala? **E.** Gai andi edo pisuan Jaungoikoaren legea ausitzea ezaguerarekin, eta borondate osoarekin, edo pensamentuz, edo deseoz, edo hitzez edo obraz, edo utsegiñez.

G. Eta zer da pekatu beniala? **E.** Gai edo gauza arin edo txikian Jaungoikoaren lege Santua ausitzea: eta baita gai andian izan arren, ezaguera oso bage, edo borondate oso bage, au da, osoro konsentitu bage edo ondo oartu bage pekatu egiten danean. Pekatu benialaren gañean beste dotriña aldi batean berariaz hitz egingo dizuet.

G. Eta pekatu mortala da, amar mandamentuak ezeze, Elizako mandamentuak, eta gure kargua, eta

kuidadua duen agintarien mandamentuak gai grabean edo pisuan ausitzea? **E.** Bai: orobat da pekatu mortala: zerren Jaungoikoaren eskualdiarekin agintzen digue: eta Jaungoikoaren legeak berak agintzen digu, oriei obedezitzea.

G. Eta zergatik pekatu larri edo pisuari deitzen zaio mortala edo iltzallea? **E.** Zergatik iltzen duen egiten duanaren anima. Kristau justuak ditu bizitza mota bi: bata da naturala, begiz ikusten deguna. Bestea da naturalezaz gañetikoa: graziazko bizitza, Zerutik degun bizitza guztiz preziatua: eta au da pekatu mortalak kentzen diguna: eztigu alabaña bizitza naturala kentzen: bada pekatu mortalean dagoana ere bizi da: baña ikusten ezpada ere begiakin, egiaz illik dago Zerurako: eta orregatik deritza pekatu mortala. Eta orregatik pekatu mortalean dagoan artean, Santu guziak egin dituen penitencia guziak, eta limosna guziak egingo balitu ere, Zerurako ezertxo ere irabazten eztu: zerren dagoan Jaungoikoaren grazia bage, animako bizitza bage: Jaungoikoaren etsai egiñik eta orduan egiten dituan obra onak dira obra illak, meritu bageak: pekatuen zorrik ere pagatzeko gai eztiranak: eta bakarrik serbitu dezake Jaungoikoagandik iristeko bear duen argia, eta laguntasuna penitenziaren bidez

pekatutik irteteko, eta Jaunaren grazia iristeko, eta argatik pekatu mortalean daudenak ere, al dituen obra onak egin bear ditue.

G. Eta ezagutu diteke ondo mundu onetan zein iguigarria, eta kaltegarria dan pekatu mortala, Kristau itxu askok aiñ ardurabage egiten duena? **E.** Ez bear bezela: bada esan al guzia esanda ere, ezin aditzera eman diteke zein arrigarria, eta izugarria dan pekatu mortal baten gaiztakeria. Baña ala ere, nolabait ori ezagutzeko, bada guziori asko inporta digu, gogora ekarri, eta sarri konsideratu ditzakun orain esan degunaz gañera, fedea erakusten dizkigun beste arrazoi batzuek. Eta lenengoa: dakizuen ezkerro pekatu mortala egiten duela, edozein gai grabe edo pisuan Jaungoikoaren lege, eta borondate santua ausitzen duenak, erraz ezagutu dezakezue, nolako injuria, nolako ofensa, nolako desprezioa egiten diozuen Jaungoikoaren Majestadeari, eta aren anditasun infinitoari. Nork, eta nori! Zer zerate, eta zer gera guziok Jaungoikoaren Majestade soberanoaren aldean? ezerezak: munduko arrik txikienak baño ezerezagoak: Eta degunizate guzia, ala animaren aldetik, nola gorputzaren aldetik norena degu? Nori zor diogu? eta nork mantentzen gaitu? Eta gure zorion guzia, oraingoa, eta gero-

koa, edo betikoa? Noren eskuan dago? Eta zer egin degu, pekatu mortala egin degunean? Naiago izan degu gusto zital bat kunplitzeagatik, edo interes labur bat aurreratzeagatik gure Jaungoikoa despreziatu, injuriatu, eta ofenditu: eta aren Majestadearen kontra altxatu, eta beraren aserretasunean, etsaitasunean, eta gorrotoan erori, eta esker gaiztoz eranzun ainbeste mesede egin digun, eta egiten ari dan gure Jaun, eta gure egille, eta mantentzalle, eta ongille guztiz maitagarriari. Ori guzia ondo pensatu ezazue, eta pekatu mortala zein iguigarria dan nolabait ezagutuko dezue: aborrezituko dezue: damutuko zerate: eta aurrera alakorik ez egiteko asmo edo propositu egiazkoak, eta sendoak artuko dituzue: eta are obeto 2. Jaungoikoak zuek merezi bage, egin dizkizuen mesede, edo fabore guztiz andiak banaka gogoratzen, eta konsideratzen badituzue: eta zein esker gaiztoarekin eranzun diozuen, eta ala batez ere oroitu zaitzte sarri: 1. Nola gure Jaungoikoak egin zaituen bera biotz guztitik amatzeko, eta eternidade guzian kaburik izango eztuen gloriaz gozatzeko. 2. Nola bere ezaguerara, eta Zeruko bidera ekarri zaituen. 3. Nola bere Seme maite Jesu-Kristoren odolaren kostuan pekatutik, demonioaren katiberiotik, eta betiko Infernutik libratu

edo atera zaituen: eta Sakramentu santuetan aren eriotza santuaren frutua, pekatuen barkazioa, eta bere grazia eman dizuen: Zeruko herederoak edo jabegaiak, eta deretxodunak egin zaituen: Eta Aita Eternoak artu zaituen bere seme-alabatzat: Jesu-Kristok bere señidetzat: eta Espiritu Santuak bere jarleku, eta tenplotzat: eta bere graziarekin batera bear dituzuen birtute, eta doai guziak eman dizkitzue bizimodu on bat egiteko, eta betiko zoriona iristeko: eta ala ere aiñ ardurabage pekatu mortala egin dezue; izan ditekean eskergabetasunik andienarekin zuen egilleari, eta ongille aiñ andiari eranzun diozue: Deabruaren mendera biurtu zerate: aren antzeko monstroo ikaragarriak egin zerate: Zeruko deretxoa galdu dezue: betiko Infernua merezi izan dezue: eta Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzaren frutua ezertan eduki eztezue: eta berriz Jesu-Kristo gurutzean illerazotzeko diña motibo eman dezue: eta ezerezkeria bategatik askotan galdu dezue: Izan diteke, N.K. zorakeri andiagorik? itxumen arrigarriagorik? Eta gaiztakeri iguigarri, eta nazkagarriagorik? Nor lotsatuko, humillatuko, eta damutuko ezta, zer egin duen, eta Jaungoiko aiñ andi, eta aiñ on bati nolako billaukeriarekin eranzun dion, konsideratzen badu? eta nor jarriko ezta, milla bizitza balitu ere,

guziak ematera, pekatu mortal bat ez egiteagatik, eta bere Jaungoikoa eta bere anima betiko ez galtzeagatik? Bai, N.K., pekatu mortala da izan ditekean gauzarik iguigarriena eta kaltegarriena: eta ori ezagutzeko, zuen fedea piska bat piztutzea baizik bear eztezue: bada pekatu mortalak galdu eragiten dizkizue, munduko tesoro, eta kontentu guziak baño infinitamente geiago balio duen Zeruko ondasun, eta kontentu eternoak: eta pekatu mortalak dakazkitzue beti-beti iraungo duen tormentu edo oñaze izugarriak Infernuko leize izugarrietan sufritu bearrak. Baña noiz artean? Eternidade guzian. Ori ondo pensatu ezazue: Jaungoikoari bere argia, eta grazia eskatu egiozue: eta zuen buruak len baño len, edo bereala pekatu mortaletik libratzeko alegin guziak egin itzatzue: eta baita aurrea Jaungoikoaren grazian beti irauteko ere.

G. Eta pekatu mortala egin duenak bereala konfesatu bear du? **E.** Ondo lizate, bada seguruago Jaunaren grazia arkituko luke: bere konzienziako pake, eta sosegu egiazkoa iritsiko luke; eta ez berriz pekatura biurtzeko indarrak Sakramentuak emango lizkio. Baña eztago ortara bereala bearturik.

G. Zer egin bear du bada? **E.** Artu damu egiazkoa Jaungoikoa ofendituarena, propositu firmearekin ez

berriz pekatu egiteko: eta Eliza Ama Santak agintzen duenean konfesatzeko: au da kontriziozko akto egiazkoa biotzetik egitea.

G. Eta noiz ori egin bear du? **E.** Luzatu bage: eta ori da, dirudienez, eta gizon jakinsu, eta Doktore askok erakusten duenez, gure dotriña laburraren eranzuerak aditzera ematen diguna. 1. Zergatik, pekatu mortala egin ezker kontrizioa egitea luzatzen badu, kondenatzeko perill edo arrisku andian dago: bada ordu segururik eztauka: gutxiena uste duenean ill liteke, eta Infernura betiko jatxi liteke. 2. Zergatik Jaungoikoak beregana deitzen dio bere gogoarki edo pensamentu onakin, eta bere konzienziaren ortxikada, eta atelekakin: eta gogortzen bada, alde batetik Jaungoikoari bere esker gaiztoarekin injuria arrigarri bat egiten dio: eta bere sokorru, eta laguntasun espezialak, eta eragilleak ukatzera edo laburtzera obligatzen du: eta beste aldetik biotzeko penitentzia egiazkoarekin pekatua desegiten ezpadu, pekatu berrietan laster erorteko peligro andian dago: *Abisus abisum invocat*: bada tentazioa edo okasioa datozkioneko bera dago sobra pekatua etziñik edo makurturik. Eta ala edo laster konfesio on bat egin bear dezue edo gutxianez biotzeko damutasun egiazkoa artu, eta akto

kontriziozkoa luzatu bage egin bear dezue, pekatu mortalean erorteko zorigaitzik gertatzen bazazue: eta bestela ere, oitu zaitezte arren iñoiz ere lorik ez artzera, akto kontriziozkoa biotzetik egin bage: eta ori ondo egiteko, gaur aditu dituzuen, pekatu mortala gorrotatzeko edo aborrezitzeko arrazoi andiak ondotxo kon sideratu itzazue: eta Kristauari dagokion bizimodu on bat egiten bertatik asi zaitezte: eta betiko Infernutik libratu, eta betiko gloria iritsiko dezue. Amen.

BIGARREN DOTRIÑA

*Aditzera emateko pekatu beniala zer dan;
eta zer kalte andiak dakatzen.*

Aditzera eman nizuen aurreko dotriña aldian, laburtxo bazan ere, nolako bizimodua Kristauak egin bear duen mundu onetan: munduko gauzen amorio erabagetik bere biotza eranziaz, edo apartatuaz: eta Jaungoikoaren guzien gañeko amorioa bere biotzean beti edukitzeko, eta bere animako salbazioa gogotik billatzeko alegin guziak egiñaz: eta baita pekatua zer dan: zenbat modutan dan: eta pekatu mortala zer dan: zein iguigarria, eta kaltegarria dan: eta pekatu mortala egiteko zorigaitz andia gertatzen danean, luzatu bage, Akto kontriziozkoa egiteko zein premia andia degun. Pekatua mortalik ez egiteko erremediorik egokiena bada gaur erakutsi nai dizuet: eta bide nabar birtutean eta Jaungoikoaren amorioan aurreratzeko guztiz eragillea. Zein da erremedio ori? Pekatua benialaren bildur andi bat, eta iguitasun andi bat gure biotzetan edukitzea. Bada gauza txikietan kontuzkoa dana, gauza andietan eskuarkiro kontuzkoagoa izaten

da. Eta kontrara pekatu txikietan ardurabagea dana, pekatu andietan erraz erorteko, eta kondenatzeko peril, edo arriskuan dago. Eta argatik pekatu beniala zer dan, eta zein kalte andiak dakazkian zeoro erakutsi nai dizuet. Atenzio andi bat eskatzen dizuet: eta guzior onerako izan dedin, erregutu degiogun guziok, Ama Birjiña guztiz santari, iritsi degigula Espiritu Santuaren argia, eta grazia. Abe Maria.

G. Zer da pekatu beniala? **E.** Gai, edo gauza arin edo txiki batean Jaungoikoaren lege santua ausitzea edo pensamentuz edo deseoz edo hitzez edo obraz edo utsegiñez. Eta baita, da pekatu beniala, berez gauza larria edo pisua izan arren, kulpa andi bage uste bazuen, pekatu ariña zala, eta ez mortala, edo larria; eta kontrara gerta diteke, gai arin, edo txiki batean pekatu mortal egitea, zerren uste zuen gai andia edo larria zala: eta alako ustean egin zuen. Eta orobat gai larri, edo grabean pekatu benial baizik ez egitea gertatzen da, osoro konsentitu eztuenean edo ondo oartzeko lekuri izan eztuenean. Nola supitoko aserre bat, gaitz andirik egin gabe, eta benetan deseatu bage, edo pensamentu gaiztoren batzuek burura etortzea, eta gutxi bat buruan erabiltzea, baña osoro konsentitu bage.

G. Eta baldin persona justu edo on bat tentazio guztiz indarsu batekin edo gaitz andiren baten bildurrez, Jaungoikoaren legea gai pisu edo larrian ausitzera instante batean jarri bada, eta bereala damutu bazaio zer pekatu egin du? mortala, ala beniala? **E.** Egiten du pekatu mortala: bada ezaguera bazuen, eta borondatez konsentitu zuen, eta tentazioak, eta bildurrak libertadea kentzen eztue: eta Jaungoikoari estudasunean bere grazia eskatu balio, ukatuko etzion: eta ala bere kulpaz konsentitu zuen, eta pekatu mortala egin zuen.

G. Eta batek pekatu benialik egin dezake, munduko ondasunakgatik, errespetoakgatik edo kalteakgatik? **E.** Ez: eta mundu guzia salbatzeagatik ere. Zergatik ordea ainbeste igui izan bear dio pekatu benialari, gauza ariña, eta erraz barkatzen dana baldin bada? Zergatik pekaturik dan txikiena ere gure Jaungoiko guztiz andi, guztiz poderoso, eta guztiz maitagarriaren ofensa da, eta geiago estimatu bear degu gure Jaungoikoaren borondatea egitea, eta aren Majestadea ez ofenditzea, munduko gauza guziak irabaztea baño.

G. Zergatik deitzen diogu bada pekatu benialari, pekatu ariña, eta txikia? **E.** Zergatik pekatu mortalaren aldean ariñagoa, eta txikiagoa dan, eta errazago

egiten eta barkatzen dan. Baña ezta berez ariña, eta txikia: baizik da gaitz andia, pisua, eta kaltegarria. Egia da pekatu mortalak bezela, eztu anima iltzen: eztio graziaren bizitza kentzen: baña ala ere kalte andiak egiten diozka pekatu benialak: pekatu mortalaren gradora edo mallara allegatzen eztanean ere.

G. Eta pekatu benialaren gaia baizik eztan gauza eldu liteke pekatu mortal izatera? **E.** Bai ori askotan gertatzen da; eta 1. Len esan degun bezela pekatu mortala dalako ustean egiten danean. 2. Pekatu mortala besteari eragiteko gai txikia baizik eztan gauzaz baliatzen diranean edo eskandalo edo pekatu mortalerako bidea besteri ematen zaionean gauza ariña baizik eztan pekatu benialarekin: eta 3. Berez pekatu benial baizik eztan gauza, pekatu mortala ondoren ekarri oi dion arriskua edo okasio gertua baldin bada; nola askorenzat izan oi dan tabernara joatea: diru jokuan urliarekin edo berendiarekin jartea: danza ariñak okasiogarri diran personakin egitea: lapurreta txikiak egitera oitutzeta, erarik balu andiak egiteko peli-groarekin. Bada aurrera ere gutxika-gutxika kantidade andira eltzeko asmoa baldin badu aldi bakoitzean pekatu mortala egiten du: eta orobat pekatu benialaren gaia, berez ariña, ez uzteagatik, pekatu mortala

egiteko prest balego, pekatu mortala egingo luke: nola etxeko seme edo alabak, gurasoak arrazoiak eragozten dion gauzaren bat egin nai balu edo agintzen diona, egin nai ezpalu, gurasoa agitz aserra erazotzeko moduan: bada zor zaion errespetoari, eta obedienciari agitz faltatuko likio. Baña orrelako okasio, eta peligroetatik kanpora ere badakaz pekatu benialak uste degun baño kalte andiakoak, eta oriek orain aita-tu nai dizuet.

G. Zein dira pekatu benialak animari egiten diozkan kalteak? **E.** Beste askoren artean batez ere bi oek: 1. Disponitzen du pekatu mortalean erortera. Eta 2. Edo mundu onetan edo Purgatorioan padezitu edo pagatu bear ditu pekatu benialari dagozkion pena edo kastigu arrigarriak.

G. Nola disponitzen du edo erakarten du pekatu benialak gure anima pekatu mortalean erortera? **E.** Modu askotan eta 1. Pekatua benialak, batez ere eza-gueraz, eta ardurabagetasunez egiten danak, gaxotzen du, argaltzen edo flakatzen du, eta kentzen diozka indarrak tentazio andiai bere denboran kontra egiteko: eta arrisku edo perill andia datorkionean irmo egoteko. 2. Orrelako pekatu benialak gure pasio edo griña gaiztoak azitzen, eta indartzen ditu, eta gaizki

egitera oitutzen gaitu: eta gure animako etsaiari indarrak ematen diozka, gu errazago goitzeko, eta pekatu mortalera erakarteko. Orixen gertatu zitzaion Judas Apostoluari berari: Jesu-Kristoren Apostoluen artean bolsero zan: ematen zizten limosnak gordetzeko kargua zuen: lapurreta txikiak egitera oitu zan: diruzaletu zan, eta Jesu-Kristo bere Maisu, eta Jabe Soberanoa bera ogeita amar dirugatik bere etsaiari saltzeraño eldu zan: eta desesperaturik bere burua urkatu zuen, eta betiko kondenatu zan. Nor arritzen ezta exenplo onekin? Eta orra zein arrigarria dan gauza txikietan gaizki oitutzek dakarren itxumena: eta pekatu andietan erorteko erraztasuna. Bada 3. Ardurabage egiten ditugun pekatu benialak, beste alde batetik, ez gaitue gutxiago disponitzen pekatu mortalean erortera. Nola da ori? Gure ardurabagetasunarekin, Jaungoikoagana-ko gure esker gaiztoarekin; eta batez ere gure banidade, eta presunzioarekin obligatzen degu Jaungoikoa, premi orduan, tentazioko denboran bear ditugun laguntasun edo sokorru espezialak (zor eztigunak) edo ukatzera edo laburtzera: eta nola gerez aiñ argalak, eta itxuak geran, laguntasun andi aen faltaz, erraz erorten gera pekatu andietan: eta seguru egon gaitzke, Jaungoikoarekin leialak bagera gauza txikie-

tan, eta gure indarretan fiatu bage, humiltasunaz bere grazia, eta indarra eskatzen badiogu, gauza larrietan, edo pisuetan ezeze, gauza txikietan ere pekatu ez egiteko, bear ditugun argitasun, eta laguntasun guziak emango dizkigula, pekatu andietan ez erortzeko. Eta orra zenbat inporta digun pekatu benialak, ez gaitz txiki bat bezela, baizik gaitz andi bat bezela, eta beste gaitz andiagoen ekarleak bezela, benetan aborrezitzea; eta batez ere ezaguera, eta ardurabagetasunez pekatu benialik ez egitea. Bada pekatu benialak modu askotan egiten dira: eta batzuek askoz kaltegarriagoak, eta arriskugarriagoak dira beste batzuek baño: ala pekatuaren gaiaren aldetik, nola pekatu egiteko moduaren aldetik: eta baita bakan edo sarri, eta oituraz egitearen aldetik ere. Badira alabaña pekatu benial batzuek gai guztiz txikian egiten diranak: nola hitz alperrak iñoren kalte bage esatea: bear baño lo geitxeago egitea: ustekabeen gezur txiki bat esatea: banidade arin bat edo ergelkeri piska bat erakustea, eta beste onelakoak. Beste batzuek dira gai edo gauza andiagotetan egiten diran pekatu benialak, eta askotan pekatu mortalaren gertukoak: eta aiñ gertukoak batzuek, nun ezin argiro ezagutu ditekean, mortalak edo benialak diran: nola asko birau edo maldizio

mota, aserrealdian erraz botatzen diranak, eta errazago eskusatzen diranak, bereala damutu zaielako: gaitz andirik biotzetik opa eztielako: edo estumenak erasan zielako: eta ori bera gertatzen da hitz lizunak, loiak, kastidade santuaren kontrakoak esaten diranean: pensamentu zikin asko eragiteko gai diranak: eta ala ere olgatzeagatik, far eragiteagatik bakarrik esaten dituelako aitzakiarekin aintzat artzen eztitue: eta askotan pekatu mortalak izan arren, benialak dirala iruitzen zaie: eta ori egiten du pasioaren itxumenak, eta Jaungoikoaren bildur santuaren urritasunak. Eta ori bera ikusten da jostatze mota batzuetan: esamesetan: besteren kontra arrazoi andi bage gai pisuan egiten diran juizio mota askotan: jan-edan geiegietan: joku luze kaltegarrietan, etxe, eta familia askoren ondagarrietan: eta beste gai askotan: eta pekatu benialzat bakarrik dauzkatelako, ondorengo kalte andiai begiratu bagez, itxutzen dira, eta iñoiz ere erre-mediatzan eztira; eta kondenatuak izateko arrisku andian daude. Eta orra nola pekatu benial batzuek peril andiaren gaietan egiten diralako disponitzen, eta erakarten duen txit erraz Kristau ardurabagea pekatu mortalera. Eta ori bera gertatzen da pekatu benialak egiteko moduaren aldetik; bada Kristau onak, Jaungoi-

koaren bildur santuan bizi diranak, eta pekatu benialik, ezaguera osoaz beinzat iñola ere egin nai eztuenak, argaltasunez pekatu ariñak, eta gai ariñetan egin oi ditue: eta ezta iñor munduan utsegite txikirik egiten eztuenik: baña utsegite oriek ondorengo kalte andirik ekarri oi eztue: eta Kristau ona humiltasunean konserbatzeko serbitu oi due. Baña badira beste Kristau batzuek aiñ kontuzkoak eztiranak, eta pekatu benialetan errazago erorten diranak, gaitz andi bageko gezurtxoak motibo gutxirekin esaten dituenak: berriketan denbora askotxo igarotzen duenak: bataren, eta bestearen falta edo utsegite jakiñak erraz darauztenak: asarre aldi txikiak izaten dituenak: baña konturatzen diranean, damutzen zaie, eta konfesatzen dira, ondutzeko asmoarekin, eta eskuarkiro Kristau onak dira: eta ala oriek baño askoz nasaiagoak, eta gaiztoagoak dira, pekatu mortaltzat eztauzken beste gai edo gauzetan, ardurabageak diranak: pekatu benialak ezertan eztauzkenak, eta erremediatzeko egiazko asmorik eztuenak: eta onelakoakgatik batez ere dio San Gregorio andiak: peligro edo arrisku andiangoan daudela askotan, erraz edo ardurabage pekatu benialak egiten dituenak, pekatu andi, ezagutuetan erorten diranak baño: zerren kulpa anditik, zenbat obeto eza-

gutzen dan, anbat lasterrago irteteko edo libratzeko alegiñak egiten dira: baña kulpa txikiak, ezertan eztauzkelako, anbat peligro andigorekin berritzen ditugu, zenbat gutxiagoan dauzkagun; eta ala agitz itxutzen gaitue, eta askotan, gure alpertasunagatik, eta ardurabagetasunagatik pekatu andiak ere txikiak dirala iruitzen zaizkigu: eta orra nolako peligro edo arriskuan dauden pekatu benialak ezertan ez dauzkatenak: bada orrelako Kristauak instanteoro, eta oituzpekatu benialak egiten dituzte: eta alde orretatik ere itxumena geitzen edo azitzen zaie: Jaungoikoaren amorioa oztutzen zaie: eta txit galdutzeko peligro andian daude: eta birtuteari jarraitzeko indar bage gelditzen dira: eta estadu orretan deabruak, munduak, eta aragiak txit erraz menderatzen, eta bereganatzen ditue: eta ala arrazoiarekin gure dotriña laburrak dio: pekatu beniala dala pekatu mortalaren disposizioa, ikusi dezuen bezela. 2. Eta ori bakarrik asko bada ere pekatu benialaren bildur izateko: eta batez ere ezagueraz, eta ardurabagetasunez pekatu benialik ez egiteko: baditugu beste motibo edo arrazoi andi batzuek, pekatu benialak, munduko gaitz guziak baño geiago iguitzeko edo aborrezitzeko. Eta zein dira? Dirade 1. Ain maite gaituan, eta ezin kontatu ala

mesede egin digun, eta beti egiten ari dan gure Jaungoikoari, gure egille, gure jabe, gure ongille, gure Aita, gure adiskide guztiz maitagarriari gustorik eman nai ez izatea, eta gure gustoa egiteagatik gai txikietan ain ardurabage bera ofenditzea: Nola agertuko degu, Jaungoikoa biotz guztitik maite degula, ezerezkeri batzuetan gere nai gaiztoa ukatu nai ezpadegu, bera-ri gusto emateko? Orra nolakoa dan gure esker gaiztoa: bada 2. Esan degun arriskuaz gañera pekatu mortalean erorteko, eta kondenazioko estadu tristean jarteko, bertatik pekatu benialetatik libratzeko indar puska bat egin gabez, Zeruko bidean beti arrastaka, eta txit nekez gabilta, eta birtuteak exerzitanu, gure animak garbitu, eta ondasun andiak Zerurako irabazi ordean (kondenatuak izateko zorigaitz arrigarria izaten ezpadegu ere) kastigu edo pena guztiz andiak gere buruai ekarten dieztegu: bada gure Jaungoikoaren justiziak, ara, nola obra onik dagokion saria bage uzten eztuen, orobat, eztu pekatu rik dan txikiena ere kastigu bage uzten: eta pekatu benialakgatik bakarrik gero purgatorioan ezeze, mundu onetan ere kastigu arrigarriak egin izan ditu. Moises guztiz santu, eta Jaungoikoaren adiskide maiteari, deskonfianza arin bategatik promisioko lurreko sarrera ukatu zion:

Dabid Erregearen banidade bat, bere erreinuko jende guzia kontatu eragin zuelako, kastigatu zuen irurogei, eta amar milla personaren eriotzarekin: eta beste ezin kontatu ala exenplorekin ori probatu liteke: eta Santa Katalina Senakoari Jaungoikoak berak esan zion, munduko pena eta kastigu guziak etzerala asko pekatu benial baten zorra pagatzeko: eta orregatik emen penitenziakin, pazienziarekin, eta obra onakin pagatu eztiran pekatu benialaen zorrak pagatu eragingo dizkigu purgatorioko pena guztiz izugarriakin: bada ezin iñor Zeruan sartu diteke txit garbitu, eta zor guziak Jaungoikoaren justiziarri osoro pagatu artean. Baña nork hitz gutxitan purgatorioko edo garbitoki artako penak zeñ arrigarriak diran aditzera eman lezake? Asko da jakitea mundu onetako pena, neke, oñaze, dolore, eta tormentu guziak utsak edo pintatuak bezela dirala ango tormentuen aldean: ango suak indar geiago du, eta biziroago erretzen du, munduko su guziak alkarri eransirik edo guziak baturik erreko lukean baño. Eta ikaratzen bagaitu aditzeak bakarrik su bizian Martiri Santuak erre zituztela: Zer izango da, ez ikustea bakarrik besteak erretzen, baizik gereburuak kiskaltzen, eta oñazez ler egiten? Orduan eza gutuko da ondo, pekatu beniala nolako kulpa dan, aiñ

garrazkiro, eziñ utsegin dezakean Jaungoikoaren justiziak bere adiskidetan kastigatzen duen ezkerro: eta ori da penarik txikiena, bada oraindio andiagoa da, Zeruko gloriako sarrera, ain biziro deseatzten duena, denbora baterako eragozten zaielakoa. Nork aen naigabeak aditzera eman litzake? Eta orra, N.K., motiborik asko, pekatu benialaen bildur izateko: pekatu benialak txit igui izateko, eta aetatik gere buruak oraiñ alegiñean garbitzeko.

G. Eta zergatik esaten zaio pekatu beniala edo barkakizuna? **E.** Zergatik erraz egiten dan, eta erraz barkatzen dan. Zenbat gauzogatik barkatzen da? Beratzi oekgatik: 1. Meza enzuteagatik; 2. Komulgatzeagatik; 3. Konfesio jenerala edo ni pekataria esateagatik; 4. Obispoaren bendizioagatik; 5. Ur bedeinkatuagatik; 6. Ogi bedeinkatuagatik; 7. Aita gurea esateagatik; 8. Sermoia enzuteagatik; eta 9. Bularra golpatu edo jotzeagatik, damuaren señailean, eta barkazioa Jaungoikoari eskatuaz.

G. Eta pekatu egiñaz damutu bage, eta ontzeko asmorik artu bage, barkatu liteke pekatu beniala esan ditugun erremedio oriekin? **E.** Ez: eta argatik erremedio oriezaz baliatzen geranean, alegiñak egin bear

ditugu, gure pekatu guzien damu egiazkoa berritzeko, eta Jaungoikoari barkazioa eskatzeko.

G. Eta pekatu benialetan, batez ere ezagutuetan, aïñ erraz ez erorteko, zer erremedio artu bear degu?

E. Asko esan litezke: baña prinzipalena dira oek: 1. Pekatu benialak iguitzeko esan ditugun motibo edo arrazoi andiak sarri gogora ekarteko, eta konsideratzeko alegiñak egitea; 2. Humillak izatea, eta Jaungoikoari benetan eskatzea bear degun argia, eta indarra gure buruak ondo ezagutzeko, eta gure griña gaiztoak ezitzeko: eta orretarako sarritxo, eta ondo konfesatzea, eta komulgatzea; eta 3. Pekatu mota guziak desegiteko, eta Zeruko bidean ariñ, eta gustoz ibiltzeko egokiena dan birtutean egunoro, eta geiago aurreratzeko egiazko alegiñak egin bear ditugu: au da, gure Jaungoikoa bera danagatik amatu bear degu gure biotz guztitik, eta gauza guzien gañean eta gure proximoak gure buruak bezela Jaungoikoagatik: eta orrekin gure pekatu guzien sustrai nagusia, au da, gure buruaren, eta munduaren amorio erabagea menderatuko, eta azpiratuko degu: eta arrezkero pekatu mota guziak igui izango ditugu: eta aïñ bearrak ditugun pazientzia: gure gurarien mortifikazioa: eta Jaungoikoaren borondate santuarekin gurearen konformidadea

errazago iritsiko ditugu: pake andi batean gure Jaungoikoarekin eta proximoarekin biziko gera: pekatuen zorrak erraz emen pagatuko ditugu, eta Zerurako txit aberastuko gera: eta iñoiz bukatuko eztiran ondasunak, eta atsegiñak irabaziko ditugu; eta Zeruan gozatuiko ditugu. Amen.

IRUGARREN DOTRIÑA

*Aditzera emateko 1. Pekatu Kapitalak zein diran:
2. Soberbia zer dan: eta 3. Humiltasuna zer dan.*

Pekatua zer dan: zenbat modutan izan oi dan: eta pekatu mortala, eta beniala zer diran: eta nolako kalte arrigarriak dakazkien, aditzera eman nizuen aurreko dotriña bietan. Pekatu guziak sortzen dira gere burua-renzat, eta munduko honra, interes, eta atsegiñenzat degun amorio erabage edo modubagetik. Eta sustrai gaizto onetatik datozkigu batez ere zazpi pekatu mota, beste pekatu asko ondoren dakaztenak: eta deitzen dira pekatu Kapitalak: eta oek ondo ezagutzea, eta oen kontrako birtuteak, eta erremedioak ondo jakitea agitz inporta digu guziori. Badakizue pekatu Kapitalak dirala zazpi oek: 1. Soberbia, au da, andinaia, eta arrotasuna. 2. Abarizia edo gutizia, au da, interes edo ondasunzale erabagea. 3. Lujuria edo gorputzaren atsegin likitsaren gura edo griña gaiztoa. 4. Ira edo kolera edo erabageko aserrekortasuna. 5. Gula edo modubage jateko, eta edateko deseo edo apetitua. 6. Enbidia edo besteren onaz tristatzea edo

besteren gaitzaz poztutzea edo alegratzea. Eta 7. Nagitasuna, au da, obra onak egiteko iguitasuna edo pisutasuna, eta atzerapena, eta ortik datorren birtutearen iguitasuna. Eta zazpi pekatu oen kontra zazpi birtute dira: eta 1. Soberbiaren kontra da humiltasuna. 2. Abariziaren kontra liberaltasuna edo emallea izatea. 3. Lujuriaren kontra animako, eta gorputzeko kastidatea edo garbitasuna. 4. Iraren kontra pazientzia. 5. Gularen kontra tenplanza. 6. Enbidiaren kontra karidatea. Eta 7. Nagitasunaren kontra azkartasuna edo dilijenzia.

G. Zergatik deitzen diegu pekatu kapitalak edo besten buruak eskuarkiro mortalak esaten zaien zazpi pekatu oei? **E.** Zergatik diran aetatik datozen bizio edo pekatuen sustraiak, eta iturburuak: eta eztagokie aĩn ondo mortalak deitzea: bada askotan eztira benialak baizik.

G. Noiz dira pekatu mortalak? **E.** Karidadearen kontra gai pisuan diranean: au da, Jaungoikoaren edo proximoaren amorioaren kontra diranean: hitz batean; Jaungoikoaren lege santua gai pisu edo larrian ezagueraz autsi eragiten diguenean.

Zazpi pekatu kapitalak, eta aen kontako zazpi birtuteak explikatatu nai dizkitzuet bada zazpi dotriñetan

edo erakusaldietan. Eta gaurkoan txit kontuz aditu bear dezue 1. Soberbia zer dan, eta nolako pekatuak sortzen dituan. Eta 2. Humiltasuna zer dan, zein bearra dan, eta nolako frutu edo probetxu andiak daketzen. Eta oriek ugari iristeko, eskatu degiogun kreatura guzien artean humillena, eta andiena edo santuena izan zan Maria Birjiña guztiz miragarriari, alkanzatu digigula Espiritu Santuaren argia, eta grazia. Abe Maria.

G. Zer da bada soberbia? **E.** Besteen gañean gere buruak goratu edo altxatu nai izatea: gere buruak geiegi estimatzea: eta besteak ezertan ez edukitzea: eta ori gertatzen da batzuetan gere barruan bakarrik, kanpora agertu bage: eta beste batzuetan barruan dagoan soberbia kanporatzen da edo ikusi eragiten da.

G. Soberbia zertan batez ere ezagutzen da? **E.** 1. Uste izatean iñori ezer zor eztiola; eta dauzkan doaiak naiz animakoak, naiz gorputzekoak berez dituela pensatzea: edo beinzat bereak edo berezkoak balitu bezela poztutzea, eta arrotzea, guzien emalleari zor zaion eskerrik, eta honrarik eman bage: eta au izan zan Aingeruak kondenatu zituan, eta demonio biurtu zituan soberbia. 2. Ageri da soberbia, uste izatean,

berak merezirik edo irabazirik dauzkala Jaungoikoak egiten diozkan ongiak edo mesedeak: eta ori ere da pekatu guztiz andia, eta beste askoren ekarlea. 3. Da aditzera ematea, eztauzkan birtuteak, doaiak edo talentuak badauzkala, bere burua erabage estima erazotzeko, eta besten gañean jaso erazotzeko. Eta 4. Da besten desprezioarekin erak bakarrik honratuak izatea merezi duela aditzera ematea: eta ori ere pekatu andia izan oi da, gai txikian ezpada edo ezaguera oso bage ezpada.

G. Soberbiak dakazkien aldakaitz edo erru gaiztoak zein dira? **E.** Batez ere zortzi oek: 1. Desobediencia edo agintariai, naiz espiritualai, naiz tenporalai obedezitu nai ez izatea: eta orretako aitzakiak billatzea: 2. Banagloria, eta jaktanzia, au da, bere gauza onak edo gaiztoak egin ditualako banidadea agertzea: pekatu andirik egin duelako banidadea artzea pekatu mortal berria da: eta iñori pekaturik egiteko biderik ematen badio, beste pekatu mortal bat geiago: baña gauza onak egin ditualako banidadea, eta orobat aberatsa dalako, jakinsua dalako, ederra dalako, janzi edo apaindura galantak ditualako, hiztun ederra dalako edo beste bentajaren batzuek ditualako banidadea eskuarkiro pekatu beniala izan oi da; zerren iñoren

kalte bage izan oi dan: baña buru ariñaren señaleara da, eta bere buruaren kaltegarria: 3. Soberbiaren aldakaitz edo erru gaiztoa da ipokresia, au da, gaiztoa izan, eta ona, eta santua dala aditzera ematea fin gaiztorako; au da, zor etzaion eta merezi ez tuen honra, kargua edo enpleoa alkanzatzeko edo iñor engañatzeko: bada bestela gaiztakeria disimulatzea, eta ezkutatzea on da, eskandalorik ez emateagatik. 4. Aldakaitz gaiztoa da, porfia edo disputazalea izatea, eta bere iritzia bakarrik estimatzea; besterenaz kasorik egin bage. 5. Da buru gogorra edo tematikoa edukitzea, eta jakinsuagoaren iritzi edo juiziora jarri nai ez izatea, arrazoiak, eta premiak ala eskatzen duenean. 6. Da enbidia edo besteren onaz, eta aurrerapenaz tristetzea: bada ori eskuarkiro dator, zerren soberbioak beretzako nai du besteari datorkion honra, eta probetxua. 7. Da anbizioa edo kargu edo enpleo andiak, eta honragarriak ansiarekin deseatzeta, eta billatzea: besteak baño geiago izateko, eta besteai agintzeko poza izateagatik: eta ori bide gaiztotik billatzen badu edo artarako gai ez tala, izan oi da pekatu mortala: bestela iñoren kalte bage bada, pekatu beniala berez izan oi da: eta 8. Da presunzioa, au da, gai ez tala, kargu andiak edo arrisku andiak dakazten egitekoak

bere gain artzea: eta ori eskuarkiro pekatu mortala da, dakatzen kalteakgatik: eta orobat da presunzio andia, eta pekatu mortala, bere indarretan edo alegin utsetan fiaturik, pekatu mortala egiteko arrisku, perill edo okasio gertuan edo urrekoan bere borondatez jar-tea edo egotea: eta baita pekatu mortal egitera oitu-rik dagoalarik, zarzarorako edo eriotzako gaitza dator-kioneko penitencia egitea luzatzea: bada zenbat geia-go luzatzen duen, anbat kondenatua izateko arrisku andiagoan jarten da. Eta orra nolako aldakaitzak edo erro gaiztoak dakazkian soberbiaren sustrai pozoa-tuak; eta zein banatua dagoan munduan.

G. Zer egin bear degu bada soberbiari gure biotze-tan lekurik ez emateko, eta izurri gaizto orretatik libra-tzeko? **E.** 1. Gogora sarri ekartea, eta ondo konsidera-tzea soberbiaren ondorengo kalte arrigarriak, eta berekin dakarren itxumen andia.

2. Pensatu bear degu ondo, zein iguigarria dan soberbia gure Jaungoikoarentzat, egin dituan kastigu arrigarrietan erakutsi edo agertu duen bezela. Ainbes-te milloi Aingeru eder biurtu ziran demonio itxusi naz-kagarriak soberbiazko pekatu bategatik: galdu zuen betiko gloria: eta kondenatuak izan ziran betiko Infer-nura: eta gure lenengo gurasoak, Adanek, eta Ebak

soberbiazko pekatuagatik batez ere, au da, Jaungoikoa bera bezela izango zirala, etsaiak esan zielako, eta ziran baño geiago izateko deseoarekin frutu debekatutik jan zuelako, galdu zuen erenzat, eta eren ondorengo guzienzat Jaungoikoaren grazia, eta gloria-rako deretxoa, etorbide, eta tokamentua: eriotzarik ikusi bage Zerura igo bear zuenak, egin ziran ilkorrak; eta ill bearra guziori ekarri ziguen: deabruaren zorigaiztoko katibu edo menpeko billauak egin ziran, eta egin ginduzten; eta ala gorputzeko, nola animako gaitz guziak anditxe etorri zaizkigu: eta guziok betiko kondenatu bearrak giñan, Jesu-Kristo gure Erredentore, Salbadore, eta Maisu dibinoak erremedioa ekarri ezpaligu bere eriotza guztiz preziosoarekin: eta bere guztizko humiltasunarekin eta obedienziarekin. Eta ortik erraz kontu atera dezakezue, zein gauza iguigarria, eta kaltegarria dan soberbia. Eta ala Santuak erakusten digue, kondenatua izango danaren señaletik ageriena, eta ziertuena dala soberbioa izatea: eta kontrara Zerurako esleituaren señaletik klaruena dala biotzez humilla izatea. Bada soberbioak darraio deabruari, eta humillak Jesu-Kristo humiltasunaren Maisu edo erakusleari. Jaungoikoak soberbioak eziñ ikusi ditu, igui ditu, aborrezitzen ditu: eta humillak maite

ditu, eta bere grazia ematen die; eta ain erru gaiztoa, eta pozoï arrigarria du soberbiak, eta arrotasunak, nun Santu andiak ere, arrotasunari eren biotzetan leku eman ziobelako, erori ziran pekatu lotsagarrietan: eren buruak ezagutu, eta eren argaltasuna ikusirik, humillatu zitezten: eta fiatu etzitezten eren alegiñetan, eta indarretan, baizik Jaungoikoaren graziaren laguntasunean: eta justuak erak egiten dituen obra onak ere askotan galdu eragiten die izan bear zuen saria, banidade piskaren bat nastu zaielako edo munduko interes, estimazio edo errespetoa eren obra onetan billatu zuelako. Baña ala ere, San Bernardok erakusten digu, banidadearen bildurrak eztigula obra onak egiten eragotzi bear: baizik gere intenzioa zuzentzeko, eta garbitzeko alegiñak egin bear ditugula. Eta soberbiatik libratzeko edo soberbia gutxianez menderatzeko edo goitzeko zer geiago egin bear degu? Jaungoikoari benetan humiltasunaren doaia sarri eskatu, eta birtute ori iristeko alegin guziak egin bear ditugu. Eta orretarako orain humiltasuna zer dan: zein bearra dan: eta nolako frutu edo probetxu andiak dakatzen, esan bear dizuet.

G. 3. Zer da bada humiltasuna? **E.** Da Zeruko doai edo birtute bat gere buruak, diran bezela ezagutu era-

giten diguna: eta bere barruan humillatu eta beeratu eragiten gaituana: *humilitas est virtus, qua homo verissima sui cognitione sibi ipsi vilescit.*

G. Eta gure buruak ondo ezagutzeko zer egin bear degu? Ona San Bernardo andiak orretako erakusten digun ekiera edo exerzizio guztiz egokia. Eta da, iru gauza oek beti gogoan erabiltea. *Quid fuisti? Quid es? et quid eris?* Zer giñan? zer geran? eta zer izango geran? Orain eun urte zer giñan emen gauden guziok? ezerez: utsa: eta ezerezak edo utsak ezer egin, eta merezi zezakean? Iñola ere ez. Orrela zeran guzia, eta dezun guzia eztezu zerea, ezpada egin zaituanarena? Ala da egia, ezin ukatu dezakegu. Zergatik bada arrotzen zera, zerez baziña bezela, eta zeran guzia Jaungoikoari zor ezpaziño bezela? Eta orain zer gera? Gorputzaren aldetik usteldasuna, eta loikeria alde guzietatik darion onzi bat: ondo estaltzeko, eta apaintzeko alegiñak egin arren. Eta animaren aldetik zer gera? Pekatuan sortuak izan ezkerok: Jaungoikoaren etsaiak eta deabruaren menpeko billabak: eta Jesu-Kristok, guk merezi bage, bere odolaren kostuan erosi edo erredimitu ezpagindu: eta Sakramentu Santuetan bere grazia aplikatu ezpaligu, betiko kondenatu bearrak giñan. Eta arrezkero ere gerez zer gera? Itxu

batzuek: eri batuek: pobre miserable batzuek: guztiz argalak: gaitzera makurtuak: onerako pisuak, eta nagiak: eta Jaungoikoaren miserikordiak errukiz begiratzen ezpadigu, eta argitzen, mugitzen, eta indartzen ezpagaitu, galdu bearrak. Nola bada arrotu gaitezke, ori guzia egia izanik? eta gero zer izango gera? Gorputza auts egiña, eta arraen janaria: Eta anima? gure Jaungoikoak bere graziarekin laguntzen ezpadio, pekatutik alde egiteko, eta obra onak egiten irauteko, betiko kondenatu bearra. Eta orra, N.K., zein arrazoi andiak ditugun, gerez zer geran ondo ezagutzeko, eta gere barruan humillatzeko, eta beeratzeko.

G. Eta badegu beste motiborik humillak izateko?

E. Ezin kontatu ala ditugu: eta batez ere erraz humillatuko gera, alde batetik gure Jaungoikoaren kabubageko anditasunari, eta ontasunari eta egin dizkigun mesede guztiz andiai begiratzen badiegu eta bestetik gure eskergabetasunari, eta gure erabageko arrotasunari ondo begiratu nai badiegu: baña ori da gai bat bakoitzak bere barruan ondo konsideratzeko egokia-goa, dotriña labur batean aditzera emateko baño.

G. Eta gure ezereztasunari, txarkeriari, eta gaitzerako griña, edo inklinazioari begiratu ezkerro, etsi bearko degu orrela gure salbazioaz? **E.** Ez orrelakorik:

bada orduan geiago alaitu, esfortzatu edo animatuko gera falta zakun indarra, gogotik eman nai digunari eskatzera: eta humiltasunarekin eta konfianza osoarekin Jesusen izenean eskatu ezkeru, guk ez merezi arren, gure Jaungoikoaren ontasun neurribageak bere Seme maitearen kabugabeko merezimentuakgatik pozik emango dizkigu bear ditugun argitasun, laguntasun, eta indar guziak, tentazio guziak goitzeko: gure pasioak eskuratzeko, eta birtuteari jarraitzeko, eta salbazioa iristeko. Eta kontrara gauza onak egiten ditugulako pensamentua burura badatorkigu: eta gere barruan poztu, eta arrotasunak betetzen bagaitu; zer egin bear degu? Bereala gogora ekarri bear degu, ezin gauza onik batere egin dezakegula Zerurako Jesu-Kristoren grazia bage, eta ala berari eskerrak eman bear diozkagu, gauza onak egiten lagundu nai izan digulako: eta orobat, besteai egin ezten mesede andiren batzuek guri egin digulako; aek baño obeak geralako edo geiago merezi degulako arrotasunezko pensamentuak badatozkigu, bereala aienatu bear ditugu: konfesatzen degula, batere merezi bage Jaungoikoak bere grazia, eta mesedeak eman nai izan dizkigula: eta ez arrotzeko, baizik humillagoak, eta esker obekoa izateko serbitu bear diguela: eta bearbada, guk ez

ikusi arren, Jaungoikoak besteai guri baño beste mesede andiagoak egin ditzela. Eta gere aldetik danez guziok egiarekin esan dezakegu, eta esan bear degu: Jauna, ni nerez ezereza naiz; ezer balio ezte: ezin gauza onik dagiket: nere pekatuakgatik ezereza baño gaiztoagoa naiz: zure Majestadearen aurrean agertzeko diña ez naiz: nere pekatuakgatik betiko gloria galdu, eta betiko Infernua ondo mereziturik dauket: eta zu aserratzeko, eta ofenditzeko gai izan naiz, eta ausardia izan det: baño zurekin bakeak egiteko, eta egiazko penitziarekin zugana biurtzeko, nerez bakarrik gai ez naiz: zure argia, eta grazia nai ta ez orretarako bear det. Indazu bada arren ezaguera onekin batera, nere burua humillatzeko, beeratzeko, eta nigan ez fiatzeko, eta ez iñola ere arrotzeko: baizik zure ontasun, eta kabugabeko miseriordiagan nere konfianza guzia edukitzeko grazia: eta zure laguntasunarekin egiazko penitzenia, eta bizitza berri bat egiteko: eta orren ondoren betiko zoriona edo gloria iristeko mesede guzien andiena: Ala biz. Orra, N.K., nolako sentimentuak gere barruan eduki bear ditugun, soberbiari, eta arrotasunari lekuri ez emateko, eta humiltasunaren birtutea iristeko, eta konserbatzeko.

G. Eta orrekin bakarrik humillak generala uste dezakegu? **E.** Ez: ori da errazena: Zer geiago egin bear degu bada? Jesu-Kristok erakutsi zigun bezela, eta berak egin zuen bezela, izan bear degu mansoak, biguñak, eta sufrituak. Nundik-nai datozkigun naigabeak, eta desprezioak, pazienziarekin eramateko alegin guziak egin bear ditugu: arrotasunari, aserretasunari, gaitziritzi, bendeku, eta gorrotoari lekuri eman bage: uste degula, gere pekatuakgatik geiago merezirik daukagula: eta orien zorra pagaeragiteko, eta Zeruko ondasun andiak irabazi eragiteko berariaz gure Jaungoikoak ala disponitzen duela: eta guzia gure on geiagorako dala. Eta ori da batez ere egiaz humillak generalako edo izan nai degulako señaletik ziertuena: eta Jesu-Kristo gure Maisuari jarraitzeko, eta Zeruko gloria irabazteko gauza guztiz bearra edo premiazkoa: eta argatik Jesu-Kristok berak birtute guzian artean geiena agindu zigun humiltasuna, eta pazientzia: ara ze, ezin gure Jaungoikoa gauza guziak baño geiago, eta gere buruak baño geiago amatu dezakegu: ez eta gure proximoak gere buruak bezela, egiazko humiltasuna ezpadegu: bada birtute miragarri au da beste birtute guzian zimendua, eta sustraia: eta ori falta bada, egiazko birtuterik ezta: eta orrega-

tik berorregatik Jesu-Kristok bere humiltasuna, eta
pazientzia, geurk eduki bear degunaren ispillutzat, eta
exenplotzat, eman zigun; eta guziori esan zigun:
«Nigandik ikasi ezazue, humillak, eta mansoak izaten:
zeren naizan mansoa edo biguña, eta biotzez humi-
lla»: eta ori obeto ikusi nai badezue, gogora ekarri
ezazue, nolako humiltasuna agertu zuen aren Majes-
tadeak, izanik Santidadea bera, eta Zeruaren, eta
lurraren jabe Soberanoa, bada humillatu zan gure
antzeko gizona egiteraño, eta gure pekatu guzien
zorrak bere gañ artzeraño: Ama pobre baten sabelean
bederatzi illabetean sarturik egoteraño, zalarik, ez
beste aurtxoak bezela jakineza, baizik infinitamente
jakinsua, eta guztiz sentikorra: abere toki batean jaio,
eta aska batean abere artean ezarria izateraño: andik
zortzigarren egunean zirkunzidatua, eta odola zeriola,
humillatua, eta oñazez betea bere burua ikusteraño:
eskualdirik batere ezpalu bezela, Herodesen igesi Ejipt-
tora eraman izateraño: pekatarien artean, aetatik bat
baliz bezela, San Juan Bautistaren eskuz bateatua iz-
teraño: bere Jaunkoikozko eskuakin Apostoluen oñak,
eta batez ere Judas, bere saltzalle, eta traidore billa-
barenak garbitzeraño: eriotza lotsagarri batera konde-
natua izateraño: azotatua, aranzaz koroatua, begiak

trapu zatar batekin estalirik, eta kañebera batekin eta masallako edo belar ondoko gogorrakin eritua, eta despreziatua edo eskarniatua izateraño. Barrabas gaitzkille, eta eralle infamea baño gaiztoagotzat edukia izateraño: eta gurutze batean iltzez josirik lapur biren erdian bere bizia tormentu, eta infamia arrigarrrien artean emateraño: Eta ori guzia, izanik inozentea edo batere kulpabagea, zergatik sufritu zuen Jesu-Kristo gure Jaunak? Soberbiak dakazkigun gure pekatuen zorra pagatzeagatik: eta zor ori, nola humiltasunaz, eta pazienziatz pagatu bear degun guk ere gere alegiñean erakusteagatik: au da, gure andinaia edo soberbia nola goitu bear degun; eta gure pekatuakgatik humillatu bear geran: penitencia egin bear degun: eta Zerura daraman bizimodu nekatua, eta sufritua egin bear degun. Eta orra, N.K., zein bearra degun guziok humiltasunaren birtute miragarri au: azaletik latza, eta samiña gere amorio propio erabagearenzat: baño barrutik guztiz gozoa, eta guztiz probetxugarria: bada laguntzen digu pekatutik alde egiteko: eta birtute mota guziak iristeko, eta konserbatzeko.

G. Eta zein dira birtute au iristeko, eta konserbatzeko berariazko aktoak edo exerzizioak? **E.** Ona banaka batzuek: bada guziak señaletzea edo izenta-

tzea erraz ezta: eta 1. Al degun sarriena gogora ekar-
tea gure ezereza: gerez bakarrik gauza onik Zerurako
ezin egin ala, Jesu-Kristoren grazia bage: eta gure
eskergabetasun arrigarria, Jaungoikoagandik ain
mesede andiak errezibitu ezkeru, ala naturalak, nola
naturalezaz gañekoak edo graziazkoak. Orra konside-
razio bat guztiz egokia gu humillatzeko. 2. Beti esker
onekoak izatea, ala Jaungoikoaren aldera, nola on egi-
ten diguen proximoen aldera. 3. Gure alabanzako
gauzarik premia bage geurk ez esatea. 4. Iñork alaba-
tzen gaituanean ez arrotzea: eta besteak alabatzen
dituenean, ez enbidiarik edukitzea, baizik atsegin
artzea. 5. Gure lan edo obra onak egitea, ez munduko
errespetoz edo estimazioa izateagatik; baizik bakarrik
Jaungoikoagatik edo gure salbazioagatik. 6. Gure agin-
tariai gogo onez beti obedezitzea: eta gure lagunai,
gugandik eskatzen dituen gauza on guzietan, al degu-
la, atsegin ematea. 7. Burura datozkigun banagloriako
edo arrotasunezko pensamentuak bereala kentzera
oitutzea. 8. Iñork erreprenditzen edo lotsagintzen
bagaitu, kolera gaiztoari lekurik ez ematea; baizik
humiltasunarekin sufritzea, eta modu onarekin eran-
zutea. 9. Egiteko andietan, eta dudako gauzetan jakin-
suagoai conseju artzea. Eta 10. Igui ditugun hitzak,

esaten dizkigunean edo agrabioren bat egiten digue-
nean, pazienziarekin sufritzea. Eta onetan iru grado
edo malla dauzkagu zer igo, perfezkziora eldu nai
bagera. 1. Aserratu bage, eta gaitzik esan bage,
pazienziarekin naigabeak eramatea, gure naturalak
sentimentua ezin eskusatu duenean ere: eta grado ori
da premiazkoa guzionzat. 2. Da alaitasunarekin, eta
erraztasunarekin sufritzea. Eta 3. Gogo onarekin, eta
atsegiñarekin sufritzea, Jesu-Kristok, bere Ama Santi-
simak, Apostolu Santuak, eta aen jarraitzalle piñak
egiten zuen, eta orain ere egiten duen bezela. Eta ori
gauza andia, da eta gure buruaren amorio erabagea-
renzat nekeza bada ere, eztiozue mire iritziko fede bizi
batekin konsideratzen badezue, Jaungoikoagatik
padezitzea, dala, al datekean honrarik andiena, eta
emengo nekeak laburrak, eta denbora gutxikoak dira-
la orien orde Jaungoikoak agindurik dauzkan betiko
gloriaren, eta betiko poz, eta kontentuen aldean: eta
zenbat geiago orain humillatzen geran, eta sufritzen
degun, anbat gloria geiago eternidade guzian gozatu-
ko degula.

Jaungoikoak arren digula bada guzioi bere argia,
grazia, eta indarra, gure soberbia bere erro gaiztoakin
goitzeko edo azpiratzeko: eta humiltasunari gogotik

jarraitzeko: bada orrela Jaungoikoarekin, gere burua-
rekin, eta gure proximo guziakin pake andi batean
biziko gera: eta gero betiko pakea, eta gloria Zeruan
gozatuko degu. Amen.

LAUGARREN DOTRIÑA

Aditzera emateko

*1. Abarizia edo gutizia zer dan,
eta nolako kalteak dakazkian.*

*2. Liberaltasuna zer dan,
eta nola exerzitate bear dan.*

*Eta 3. Abarizia iguitzeko,
eta liberaltasuna maitatzeko abisu,
eta konseju egokiak.*

Gure fede santuko egiarik prinzipalenetatik bat da: ez gaituala gure Jaungoikoak egin, mundu triste onetan egiaz zorionekoak izateko: ezpada, emen, gero beti gozatu bear degun betiko zoriona, edo Zeruko erreinua billatzeko, eta Jesu-Kristoren graziarekin eta gure alegiñakin edo obra onakin irabazteko: eta egia andi orri dagokion bezela gure bizimodua zuzentzeko, eztegula ipiñi bear gure biotza edo gure amorioa munduko honra, ondasun, eta atsegiñetan, nai ta ez utzi bear ditugun kontentu labur oetan: baizik betiko honrak, betiko aberastasunak, eta beti iraungo duen atsegiñak seguratzeko alegiñak egin bear ditu-

gula orain: eta orretako pekatu orijinaletik datorkigun gure buruaren amorio itxu erabageari, eta orri darraizkon soberbiari, abarizari, eta lujuriari, munduko anditasunak, aberastasunak, eta aragiaren gusto zikiñak billatzera mugitzen gaituen iru bizio, pasio edo griña gaiztoai beti gerra egin bear diegu: eta oriek menderatzea, goitzea edo azpiratzea izan bear du Kristauren lanik, eta egitekorik andiena: baliatzen gerala humiltasunaren, liberaltasunaren, eta biotzeko edo gogozko pobrezaren, eta karidade santuaren birtute ezaz; Jesu-Kristo gure Jaunak berak, eta ari darraizkan Kristau on guziak bere exemploarekin erakusten diguen bezela. Ikusi zenduen ezkerro bada aurreko erakusaldian zer dan soberbia, eta zein kalte arrigarriak dakazkian: eta zer dan humiltasuna, eta zein premiazkoa, eta probetxugarria dan: gaur txit kontuz aditu bear dezue: 1. Zer dan abarizia, eta nolako kalteak dakazkian: eta 2. Zer dan liberaltasuna, eta aren laguna dan biotzeko edo gogozko pobreza: eta 3. Gutizia gaiztoa igui izateko, eta liberaltasuna maitatzeko ditugun arrazoi edo motibo guztiz andiak. Eta guzion probetxurako izan dedin, eskatu dezagun Ama Birjiña Santisimaren bitartez Espiritu Santuaren argia, eta grazia. Abe Maria.

G. Zer da bada abarizia? **E.** Diruaren edo ondasun denboralaren erabageko ansia, gutizia, deseoa, eta amorioa. Noiz da erabagea edo ordenabagea diruaren edo ondasunaren amorio, eta deseo edo apetitu ori? Gure biotza diruagana edo interesagana josirik edo itxatxirik dagoenean. Zertan ezagun da, diruagana edo ondasunagana gure biotza itxatxirik dagoala? Bost señale oetatik batean: 1. Ondasunaen jabe geraldako poz, atsegin, eta kontentu geiegi daukagunean: eta oriek galtzen baditugu, geiegi, erabage, eta neurribage penatzen, tristatzen edo naigabetzen geranean. 2. Ondasunak biribillatzeko edo gordetzeko edo aurreratzeko bide gaiztotik baliatzen geranean; tratu falsoetan: logrerietan: eta saldu-erosi askotan ikusten dan bezela. 3. Ondasun denboralakgatik ansia andiak, eta arazeri andiak darabiltzegunean animako ondasunen kaltean. 4. Erabageko gauzetarako ondasunak ansiatzen ditugunean: eta premia egiazko bage, eta modubage gastatzen ditugunean: nola banidandezko janzi edo apainduretan: jan-edan andietan: joku luze kaltegarrietan: eta 5. Kontrara dirua ez gastatzeagatik, zekenak edo dollorak, eta errukibageak geranean gure familiarekin: mirabeakin: langiñakin: pobreakin: eta baita askotan gere buruakin ere.

G. Eta zertan ezagun da, gure biotza diruagana edo ondasunagana itxatxirik eztagoala? **E.** 1. Munduko ondasunak gozatzea egiazko zoriontzat, eta ditxa anditzat ez edukitzean: eta aek galtzea edo aek bage izatea zorigaitz edo desditxa anditzat ez edukitzean: au da, aberatsa dalako ezta geiegi poztutzen: eta pobrea dalako ezta geiegi penatzen: 2. Ezagun da, naiago duenean pobre izan, ezenez bide gaiztotik aberastu. 3. Ezagun da, ondasunak enpleatzen baditu gogo onarekin, ez erabageko gurariak kunplitzen, baizik bere personari, bere familiari, eta bere bizimoduari dagozkion obligazioak osatzen. Eta 4. Ezagun da, bere biotza diruarekin josirik eztaukala, bere obligazioekin ondo kunplitu ezkeru, gañerako ondasunak obra onak egiten, eta pobreak sokorritzen enpleatzen baditu. Eta ala argiro ikusten dezue, abariziak edo gutiziak, diruaren edo ondasunaren ansiak edo erabageko deseok Kristaua zenbateraño itxutzen duen: bada diruaren esklabo, katibu edo menpeko billau bat egiten da: ezta bera diruaren jabe, baizik dirua da alako gutizioso dollorraren jabe. Eta kontrara, aberatsa izan edo pobrea izan, Zeruko ondasunetan bere gogoia, bere biotza, bere amorioa ipiñirik daukan Kristaua: eta munduko ondasunak ansia bage billatzen,

eta modu onean enpleatzen dituana, nolako barruko libertade, eta pake andian bizi dan: eta abariziak dakazkian pekatu, eta kalte arrigarrietatik libratzen da.

G. Eta abarizia edo ondasun gura erabagea pekatu andia da? **E.** San Pablo Apostoluak dio, gaitz guzien sustraia abarizia dala. Eta San Gregorio, Elizako doktore, eta erakusle andiak dio, sustrai gaizto orretatik datozela batez ere zazpi pekatu mota. Eta dira 1. Diruagatik edo interesagatik proximoaren sekretoak agertzea: eta eman zaien hitzari faltatzea. 2. Salduerosietan, eta tratuetan proximoak engañatzea. Eta 3. Ondotxo esanaz edo hitz ederraz, baña maliziaz proximoari tratu kaltegarriak eragitea. 4. Gezurrezko juramentuak erraz egitea diruagatik: edo zor dana ez pagatzeagatik. 5. Animako salbazioaren egiteko andiaz aztu eragitea, eta beti irabazi nai andietan azoraturik ibiltea, gero faltatuko zaiolako bildurrez: Jesu-Kristoren esanaz, eta promesa konsolagarri onezaz kasorik egin gabe: etzaitetzela azoratu, eta ansiatu, esanaz: zer jango degu: zer edango degu: zerekin estaliko gera edo zer janziko degu. Billa ezazue lene-na, dio Jesu-Kristok, Zeruko Erreinua, eta arako bidea: eta nere Aitak emango dizue, azigarri bezela, bear

dezuen edo konbeni zatzuen guzia. (*Math. 6.*) Baña diruzale itxuak esperanza geiago dauka diruagan Jaungoikoagan baño: eta orregatik San Pablo andiak esan zuen: abarizia dala Idolatria edo Idoloak serbitzea bezela: eta aetatik bere erremedioa esperatzea bezela. Zer gauza lotsagarriagorik Kristau batentzat! eta ala 6. Dirua amentatzeagatik edo ez gastatzeagatik tranpiaz, eta engañuaz pobreen odola txupatzen due: neke gogorrak eragiten dizte, eta pagua edo luzatu edo ukatu egiten die. Eta 7. Iñoren errukirik eztue: nezesidade estuetan ere karidadea egitea zer dan eztakie: aiñ gogorturik dauzka diruaren amorio itxuak. Orra abariziaren ondorengoak zein kaltegarriak, eta izugarriak diran, biotzaren jabe pasio erabage ori egiten danean.

G. Eta abarizia edo gutizia pekatu mortala edo beniala da? **E.** Batzuetan da pekatu mortala, eta beste aldi askotan beniala. Noiz da pekatu mortala? 1. Bide gaiztotik dirua edo ondasuna billatzen duenean: Nola dan lapurreta ageria edo ixilla egiñaz: edo zor egiazkoa ukatuaz: edo besteren gauza, biurtu dezakeala, ez biurtuaz; edo erarik balu, iñork jakin bage, besteren gauza artzekio asmoa edo deseoak konsentituaz; edo diruagatik beste edozein pekatu mortal egitera

prestaturik egonaz. Eta 2. Abarizia da pekatu mortala, dirua edo ondasuna geitzeagatik, aĩn okupatua, eta azoratua dabillenean, nun Kristauaren premiazko lanak edo egitekoak usten dituan edo gaizki egiten dituan.

G. Eta noiz da abarizia pekatu beniala? **E.** Bear baña diruzaleago, eta ondasunzaleago izan arren, ala ere Jaungoikoari, eta proximoari zor diozkan obligazio larriak osoro kunplitu nai dituanen: edo pekatu mortalzat daukan gauzarik munduko ondasunakgatik iñola ere egin nai eztuenean.

G. Eta ondasunak deseatu ditzakegu, eta billatu ditzakegu, pekaturik ez mortalik, eta benialik egin bage? **E.** Ezta erraz munduko gauzetan gogoa ipiñirik daukanarenzat: baña bai deseatu, eta billatu ditzakegu, griña, eta arazo bage, eta bide onetik, eta ondo enpleatzeko deseaten baditugu: eta Jaungoikoak kendu nai badizkigu, aren borondate santuarekin konformatzen gerala Job Santua bezela.

G. Eta badira aldiak, ondasunak modu onean billatzera obligatzen gaituenak? **E.** Bai: eta da edo gere mantenurako edo gere obligazioak kunplitzeko bear ditugunean: eta ala ezta kondenatzen azkarrak, eta kontuzkoak izatea, ezpada ansia, eta arazeri andia

edukitzea: eta munduko interesagatik salbazioko egiteko andia aztutzea edo bear dan arretarekin ez billatzea: bada au da egiaz zorionekoak egin gaitzakeana: eta ez munduko ondasunak.

G. Eta gure Jaungoikoa ondo serbitzeko, eta gure animako salbazioa iristeko, zein degu obe, aberatsak izatea edo pobreak izatea? **E.** Naiz aberatsak izan, naiz pobreak izan, Jaungoikoaren graziarekin, eta gure alegiñakin guziok salbatu gaitzke: baña pobreak agitz enbarazo gutxiago, eta erraztasun geiago due Zerua irabazteko aberatsak baño: Zergatik ori? Zergatik aberatsak biotzez, eta gogoz humillak, eta espirituz pobreak ezpadira, eskuarkiro era geiago, eta erraztasun geiago due, eren pasio, gurari, edo griña gaiztoak kunplitzeko, pobreak baño: eta ala aberastanunak askorenzat dira eren animen kaltegarriak, eta kondenagarriak. Egia da, pobreza andiak, eta miseriak ere pekatu asko eragin oi dituala: baña ori da, zerren izatez dira pobreak, eta biotzez aberatsak, eta gutizio-soak. Eta ala Zerurako bagera, naiz aberatsak izan, naiz pobreak izan, abariziari, eta erabageko gutiziari guziok gerra egin bear diogu. Aberatsak bagera, eztegu gure biotza ondasunetan josirik edo itxatxirik eduki bear, baizik ondo enpleatu bear ditugu: eta pobreak

bagera, eztegu ansiarik eduki bear aberasteko, baizik gere bizimodua ateratzeko alegin prudente batzuek egin ezkeru, gañerakoan konformatu bear gera Jaungoikoaren borondatearekin: eta pobreak izatea, eta nekeak mundu onetan sufritu eragitea nai badu, alabatu, eta bedekatu bear degu aren probidenzia guziz zuzena: eta munduko ondasunak baño geiago balio duen biotzeko pakea bertatik emango digu: eta gero beti iraungo duen ondasunak, eta kontentuak guretzat daukan Zeruko Erreinuan emango dizkigu. Eta argatik alegin guziak egin bear ditugu Jesu-Kristo Zeruko Maisu Soberanoak erakutsi zigun biotzeko edo gogozko pobreza santua, eta liberaltasunaren birtutea iristeko. Berak argiro esan zigun, zertan dauden gure egiazko zorionak: eta lenengo abiatu zan esaten, zorionekoak edo bienabenturaduak espirituz edo gogoz pobreak diranak, zergatik aena dan Zeruetako Erreinua. Eta orobat esan zigun, zorionekoak miserikordiosoak; zergatik aek alkanzatuko due miserikordia. Eta ortik zer segitzen da? Zorigaiztokoak dirala, ondasunzale edo gutizioso erabageak: eta baita zorigaiztokoak dirala proximoaren errukirik edo miserikordiarik eztuenak: bada ezta orienzat Zeruetako Erreinua: eta alperrik eskatuko due miserikordia, proximo-

akin gogorak izan diranak: edo, al duela eren proximoak premi orduetan sokorritu nai izan eztituenak, au da, liberaltasuna exerzitate ezituenak.

G. Eta zer da liberaltasuna? **E.** Da karidadeari darraion Zeruko birtute bat, gure proximoak sokorritzera, eta alibiatzera mugitzen gaituena, eta ori nola ondo egin erakusten diguna.

G. Eta liberaltasuna obligaziozko edo premiazko birtutea ote da? **E.** Batzuetan da obligaziozkoa: eta beste batzuetan da borondatezkoa edo konseju onezkoa, eta deboziozkoa.

G. Kristau pobreak sokorritzea, eta alibiatzea noiz da obligaziozkoa? **E.** Ori erabakitzeke, distingitu bear dira alde batetik gure proximoaren nezesidadeak edo estutasunak: eta bestetik limosna eman bear duenaren ondasunak edo medioak. Iru modukoak izan oi dira proximoaren nezesidadeak, eta estutasunak: 1. Da estrema edo azkena deitzen diobena: au da, aiñ estua, nun sokorritzen ezpada, bizia galtzeko premian edo arrisku gertuan ipinten duen. 2. Da, alako estutasunik ez izan arren, gaxotzeko peligro andian ipinten duenean edo goseak edo erremedioaren faltak. Eta 3. Nezesidadea da, komuna esaten zaiona: au da, eskeko pobreak, ataritik atari dabiltzanak padezitu oi

duena. Bada orobat limosnagilleak izan oi ditu iru ondasun mota: 1. Batzuek dira, eren egunoroko obligazioai ezeze, eren estaduari, grado edo kondizioari kobru eman ezkeru sobratzen zaienak. 2. Dira, eren bizi bearrari edo mantenuari kobru eman ezkeru, zerbait aurreratzen edo sobratzen duenak: eta 3. Dira, eren mantenurako, eta janzirako doi-doia duenak, eta ezer sobratu oi etzatenak. Diot bada 1. Iltzeko peligrertuan dagoanaren estutasuna sokorritu bear duela, alako estutasunean eztauden beste guziak: bada munduko ondasun guziak baño geiago balio du gizonaren biziak. 2. Diot: eren mantenurako baño geiago daukenak, duela obligazioa sokorritzeko premia estuan daudenak, nola gaxotzeko edo beste naigabe andiren batean jarteko peligrertuan daudenak. Eta 3. Diot eren mantenuari, eta estaduari edo kondizioari kobru emateko baño geiago duenak, obligazio estua duela, nezesidade komunak ere erremediatzeko, eta ez bakarrik pobre ageriak: baita ere, eta motibo andiangoarekin pobre lotsatiak eta eri tristeak sokorritzeko. Bada gure Jaungoikoaren probidenziak guzian Aita danak bezela, eta batzuok karidadearen medioz, eta besteok pazienziaren medioz salbatu nai gaituenak bezela, kondizio orrekin aberatsai ondasunak

eman dizte: eta ala ondo enpleatu ordean, au da, obra onak edo karidadezkoak egin ordean, gastu alperretan, joku erabagetan, banidadetan enpleatzen badi-tue, beste motibo bage kondenatu ditezke.

G. Eta liberaltasuna ondo exerzitzeko zeri begi-ratu bear diogu? **E.** 1. Nori ematen zaion: au da, eman bear zaie egiazko pobre bearsuai, eta batez ere lotsa-tiai: bearrik ezin egin duenai: eta eritasunean edo beste naigabe edo estutasunean daudenai: 2. Eman bear zaie premian daudenai, baña eren animako, eta gorputzeko probetxurako: eta ez eren bizio eta oitura gaiztoetan laguntzeko. 3. Eman bear zaie neurri onean, eta karidadeak eskatzen edo agintzen duen ordena onarekin: eta ala lenago eman bear zaie pre-mia berdiñetan obligazio geiago diegun personai: nola guraso pobrei: emazteari: humeai: aideai: adiskideai, eta pobre ezagunai. 4. Eman bear da banidade bage, eta al bada sekretoan; premian daudenak lotsatu bage: eta obra onaren saria Jaungoikoagandik baka-rikit itxooten degula: eta 5. Jaungoikoak ondasunak ugari ematen badizkigu guk ere premian daudenai ugari eman bear diegu: eta gutxi eman badigu, gutxi orretatik al deguna eman bear degu: baña, naiz asko, naiz gutxi eman arren, gogo onarekin, eta Jaungoiko-

agatik eman bear degu: eta sari txit ugaria izango degu, ala mundu onetan, nola Zeruan. Eta orra laburtxo bada ere, liberalak edo emalle onak izateko erregla prinzipalak.

G. Eta abarizia edo gutizia iguitzeko, eta bizio orretatik gure burua libratzeko, eta liberaltasuna maitatzeko, eta gogotik exerzitzeko, zer erremedio egin bear degu? **E.** Asko ditugu: baña egokienak, eta eragillenak dirade oek: 1. Da, gogoan ondo sarturik edukitzea, gure ondasun guziak nai ta ez emen utzi bear ditugula eta munduko ondasunakgatik gure animak kondentzen baditugu, nolako gose, egarria, eta miseria, nolako zorigaitza, eta nolako desesperazioa eternidade guzian Infernuko su, eta garretan sufritu bearke degun: eta kontrara, orain Jaungoikoagatik espirituko pobrezia, eta liberaltasuna maite badegu, eta gure ondasunak orain ondo enpleatzen baditugu; nolako zoriona, poza, kontentua, eta nolako aberastunak Zeruan beti-beti gozatuko ditugun. Baña geroke sariari ezeze 2. Begiratu degiogun mundu onetan bertan ere, persona liberalak, emalleak, ongilleak gozaten duen honra, eta estimazioari, eta nola guzien biotzak irabazten dituen. Eta kontrara abarizio-soak, zekenak, dollorak, biotz gogorra duenak iñork

ikusi nai eztitu. Eta 3. Orobat pensatu dezagun, nola-ko pake gozoa dauken ondasunen ansiarik, eta griña andirik eztaukan Kristauak; eta kontrara nola guzia turbaturik eta kezkaz beterik bizi oi dan, ondasunetan bere biotza, eta amorioa ipiñirik daukana: eta azkenik

4. Kontsideratu dezagun astiro Jesu-Kristo gure Jaunak berariaz autu zuen pobrezako bizimodua: eta orobat Jesu-Kristori benetan jarraitu izan dioben Santuak, eta Kristau onak; erakusten diguela, gure egiazko zoriona, pakea, eta deskantsua ezin arkituko degula kanpoko ondasunetan; eta oriekin logratu nai ditugun honra, estimazio, eta atseginetan; baizik animako ondasunetan; birtutearen ekieran; eta batez ere Jaungoikoaren eta proximoaren egiazko amorioan: bada orrek dakarkigu bakarrik oraingo pakea, eta geroko betiko gloria, zeña deseatzan dizuedan Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

BOSTGARREN DOTRIÑA

*Lujuriaren gañean:
eta Kastidadearen gañean.*

Gure animako etsaien artean andiena eta indarsuena gere gorputz edo aragi propioa degu, N.K., bere gurari gaiztoakin eta batez ere loikeriako, edo lujuria-ko griña gaizto zikiñarekin beti gerra egiten digu: eta orregatik alegin guziak egin bear ditugu, etsai gaizto au beti mendean edukitzeko: eta orretarako lujuria zer dan, eta nola goitzen dan: eta kastidadea zer dan, eta nola konserbatzen dan gaur esan nai dizuet: atenzioa arren ipiñi ezazue.

G. Zer da lujuria? **E.** Da gorputzaren gusto edo atsegin likits, loi edo zikiñaren apetitu edo erabageko deseo edo griña gaiztoa.

G. Eta zer da orren kontrako birtutea, eta erremedioa dan kastidadea? **E.** Da animaren, eta gorputzaren garbitasuna, eta honestidadea gorde eragiten digun birtutea. Lujuriak dakatzen pekatuak seigarren mandamentu santuan debekaturik edo eragotzirik dauzka gure Jaungoikoak, eta mandamentu santu orren expli-

kazioan berariaz aditzera emango dizkitzuet: ala pensamentuz, eta deseoz, nola hitzez, eta obraz egin oi diranak. Orain bakarrik esan bear dizuet 1. Nundik sortu oi dan eskuarkiro, edo komunkiro lujuriako griña gaiztoa: eta nolako kalteak dakatzen lujuriako bizio zikin iguigarriak: eta ortik libratzeko guziok artu bear ditugun erremedioak. Eta 2. Nolako ondasunak dakazkian kastidade santuak: eta ori gordetzeko nolako ale-giñak egin bear ditugun.

G. Nundik sortu oi da lujuriako edo gorputzaren loikeriako bizioa edo griña gaiztoa? **E.** 1. Jatorrizko pekatutik edo pekatu orijinaletik, sustrai pozoatu batetik bezela, datorkigu guziori gere aragiaren edo gorputzaren erabageko griña zikin ori: bada gure sentidu guziak, eta pasioak pekatu ura izan ezpaliz, egon bear zuen arrazoiaren, eta espirituaren mendean: baña arrezkero, pekatu ura kastigatzeko, eta gizona humillatzeko, altxatu ziran gorputzaren gurariak eta erabageko pasio edo griña gaiztoak arrazoiaren, eta espirituaren kontra: eta ala, geurk nai eztegula ere, askotan gere aragiaren pasio zikiñ edo griña gaizto oek sentitzen ditugu: baña humillaturik, au da, gure argaltasuna ezagaturik, Jaungoikoari bere grazia, eta sokorrua edo indarra eskatzen badiogu, erraz gere

aragiaren erabageko pasio edo griña gaizto oriek eskuratzen, menderatzen, eta goitzen ditugu: eta kontrara 2. Lujuriako edo loikeriako erro gaiztoa gugan piztutzen, indartzen, eta azitzen da soberbiari edo arrotasunari gere biotzean leku ematen badiogu: bada soberbia kastigatzeko, eta humiltasuna guri maita erazotzeko berariaz Jaungoikoak tentazio lotsagarri ori permititzen du. 3. Sortzen da lujuria edo loikeriako griña gaiztoa bizimodu guria, biguña, eta atsegiñetara emana egitetik, eta gorputzari jan-edan geiegi ematetik: eta batez ere ardaba edo beste edari bero indarsuak edatetik: bada sabela bete, eta berotu ezkerro, arrazoia illundu, eta griña gaiztoa piztu, azi, eta nagusitu egiten da. 4. Sortzen da, alperkeriatik: bada gauza onetan edo kontuzkoetan okupaturik eztagoana, erraz pensamentu zikiñetara, hitzketa ariñetara, eta jostatze lizunetara oitutzen da. 5. Sortzen da, erabageko juizioak edo sospetxa gaiztoak proximoaren edo lagun urkoaren kontra egitetik, batez ere gai zikiñ onetan: ikusirik bakoitzak beregan zein argala dan, besteaz errukitu dedin. 6. Sortzen da, lujuriako griña gaiztoa biotz gogorra, eta pobreentzat errukibagea izatetik. 7. Sortu oi da lujuria peligrozko edo sospetxazko lagunakin juntatzetik: eta batez ere gizaku-

meak emakumeakin adiskidetasun, eta libertade geiegi izatetik: eta alkarrekin bakarrik egotetik: eta 8. Sortu oi da lujuria, edo loikeria, begiak, belarriak, eta mingaña ondo gordetzeko alegiñak ez egitetik: au da, bear eztiran gauza likits zikiñak ikustetik: ipui zikiñak aditzetik: eta atsegiñezko hitz loiak esatetik edo gus-toz aditzetik: eta ez gutxiena berso eta kanta zikiñ loiak aditzetik; eta modestia bageko janzi, eta apain-dura ergelak erabiltetik: eta ardurabage edo lotsa bage egiten diran danza eta alkar ukitze peligrozkoetatik: bada deabrua iñoiz ere lo eztago; eta okasio gaiztoan sarturik ikusten bagaitu, berala tentatzen gaitu; eta erraz goitzen gaitu, txit kontuz, esna, eta erne ezpagaude aren tentazioai atzera esateko; eta Jaungoikoari bere sokorrua edo laguntasuna humil-tsunarekin eskatzeko, eta arriskutik alde egiteko.

G. Eta lujuriako edo loikeriako pekatuak beti mortalak ote dira? **E.** Eskuarkiro obrazko pekatuak, naiz osatuak, naiz osatu bageak mortalak izan oi dira gaiaren aldetik; eta bakarrik izaten dira benialak hitz ariñ, eta jostatzeren batzuek, maliziabageak edo asmo gaizto bage arintasunez egiten diranak, oarmen edo adbertenziaren faltaz edo konsentimentu osoaren faltaz; baña guziak arrisku andia oi dakarde.

G. Eta pensamentu zikin loiak zer pekatu izan oi dira? **E.** Ezagutu edo oartu ezkerro biotza edo borondatea atsegin artzen gelditzen bada, aurrerako asmorik ez izan arren; edo kunplitzeko deshea konsentitzen badu, pekatu mortalak dira: baña oartzen danean, bereala atzeratzen baditu, pekaturik batere egiten eztu; baizik asko irabazten du: eta zerbait deskuidatzen edo geratzen bada pensamentuai atzera esan bage, baña ondo oartu ezkerro konsentitzen ezpaditu, pekatu benialak izan oi dira: eta osoro konsentituzuan edo ez dudatzen badu edo ezin ondo ezagutu badu, konfesioan duda ori esan bear du.

G. Eta lujuriako pekatua Kristau guziok txit igui izan bear degu? **E.** Bai, N.K. bada lujuriosoak ezin Zeruko erreinuan sartu ditezke egiazko penitenzia egin bage: eta nekez egiazko penitenzia egin oi due, batez ere loikeriako pekatua oitu diranak.

G. Zergatik ordea lujuriosoak batez ere penitenzia egiazkoa egiteko, eta animako salbazioa iristeko orrenbeste neke, eta enbarazo dauke? **E.** Zergatik lujuriak berez dakaz bertatik ala animarako, nola gorputzerako, orain adituko dituzuen kalte izugarriak. Eta 1. Dakar adimentuaren itxumena: bada loikeriako pasio, edo griña gaiztoak eramaten diozka bere pen-

samentu, eta kuida duak, eta lekuri ematen ezte Zeruko gogarki, eta inspirazioai: eta animako gauzetan edo salbaziorako egin bear dituan konsiderazioetan batere okupatu oi ezta: eta ortik datorkio 2. Bizitzeko gogortasuna. 3. Jaungoikoaren eta bere salbazioaren azmena. 4. Geroko bizitzaren iguitasuna. 5. Arrazoiaren illuntasuna. 6. Bere etxeko lan, edo egitekoen ardurabagetasuna. 7. Bere fama ona, bere ondasunak, eta bere osasuna galtzea; eta azkenik datorkio penitentiari egin bage iltzea, eta Zeruko gloria galdu eta eternidade guzian infernuko su eta garretan bere atsegin zikin likitsen kastigua, tormentu, eta oñaze ikaragarriekin sufritzen egon bearra.

G. Zer erremedio artu bear du bada Kristauak loikeriako pekatutik bere burua libratzeko? **E.** 1. Inoiz pekatu orretan erori ezpada, Jaungoikoari millarezko eskerrak eman bear dio: eta aurrera ere gorde dezan txit sarri eskatu bear dio: baña pekatu orrekin Jaungoikoa ofenditu, eta bere anima galdu badu, konfesio humil batekin erremediatu bear du bere utsegitea. Eta naiz pekataria lenago izan bada edo naiz inozentea gai onetan oraindano izan bada, loikeriako pekatutik aurrera libratzeko erremediorik egokienak dira 1. Bakoitzak bere buruaren argaltasuna, eta aragiaren

griña gaizto onen indarra ezagutu, eta guztiz erne, eta kontuz egotea peligrozko okasioai iges egiteko: bada erremedio au bage beste guziak alperrak izan oi dira: zergatik arriskuan bere nai edo borondatez jarten dana eroriko da. 2. Da orazio humilla, eta batez ere tentazioetako denboran bereala Jaungoikoagana biotza altxatu, eta sokorrua benetan eskatzea, esanaz: Jauna, arren lagun zakizkit, bada bestela galdua naiz: eta beste batzuetan Ama Birjiña Santisimari, Aita San Joseri, Aingeru Guardakoari edo gure izeneko edo debozioko Santuai bere laguntasuna gogotik eskatzea; eta baita da tentazioa benzitzeko, eta etsaiari iges eragiteko arma guztiz indarsua, eta erremedio andia Gurutze Santua debozioz egitea: eta etsaiari esatea: ona Jaunaren gurutzea, nun benziturik gelditu inzan; uba igesi etsai gaizto zikiñ ori.

3. Erremedioa da jan-edan erabegreak kontuz eskusatzea: eta aragiaren griña gaiztoak eskuratzeko, edo goitzeko noizean bein barautzea edo beste mortifikazioren bat gorputzari ematea: eta batez ere begiak, belarriak, eta mingaña, eta eskuak kontuz gordetzea gauza loi zikiñik ez ikusteko, ez aditzeko, eta ez erakusteko, eta ez ikutzeko.

4. Erremedioa da, alpertasunari igui andi bat artzea: eta beti ondo okupaturik egoteko alegiñak egi-tea: eta batez ere al duenak, liburu espiritual batean egunoro zerbait irakortea; pensamentu onakin bere burua ondo betetzeko; eta orrela pensamentu gaizto-ai lekurik ez emateko, edo burura etorten bazaizka, erraz atzeratzeko: eta irakorten ez dakitenak, orobat dotriña santuan ikasirik dauzkaten gure fede santuko egiak sarri gogora ekarri ditzake, eta batez ere gure Jaungoikoak egin dizkigun mesede guztiz andiak, nola diran, bera ezagutzeko, amatzeko, eta eternidade guzian beraz Zeruan gozatzeko egin gaitualako; Kristau egin gaitualako; bere Seme maite Jesu-Kristoren odolaren kostuan pekatutik, eta deabruaren mendetik atera gaitualako; Zeruko herederoak egin gaitualako; arako bidea erakutsi digulako; eta Sakramentu Santuetan bere grazia eman digulako, eta Aldareko Sakramentu Santuan berarekin unitzen, eta juntatzen gaitualako, bera dan guzia, bere anima, gorputza, eta Jaungoikotasuna komunio santuan egiaz ematen digula: eta beste onelako mesedeak: eta orietan Jaungoikoak agertu digun bere ontasuna, eta guganako bere amorioa gogoan ondo sarturik edukitzeko alegiñak guziok egin bear ditugu; eta orrela Jaungoikoaganako

esker ona, eta amorioa gure biotzetan sortuko da, eta aziko da; eta baita pekatuaren iguia, eta Jaungoikoaren bildur santua ere; eta orrek gordeko, eta seguratu-tuko gaitu pekatuan erortetik.

5. Erremedioa da, ondo gogoan sarturik edukitzea

1. Oraingo atsegin labur zikiñ bategatik galtzen degula, eternidade guzian gozatu bear genduan animaren, eta gorputzaren atsegin garbi ederra: eta gure anima, eta gorputza kondenatzen ditugula Infernuko oñaze ikaragarriak, ango su eta garretan beti-beti sufritzen egotera; eta ori da izan al ditekean erakeririk andiena; eta gere buruaren borrero gogorrak geur izatea. Eta 2. Geroko kastigu izugarri orrez gañera ondo pensatzea, nolako kalteak dakazkigun bertatik lujuriak, len aditu dezuen bezela: eta nolako kastigu izugarriak denbora guzietan egin dituan gure Jaungoikoak lujuriako pekatuaren gaiztakeria aditzera emateko; eta orien artean gogora ekarzue, nola dilubio edo ugalde jeneral batekin, zortzi persona ez, ze munduko beste guziak, aragizko pekatu orregatik ito eragin eta akabatu zituan Noe Santuaren denboran; eta arrezkero beste kastigu ikaragarri asko Eskritura santuan irakorten ditugu: guziok zenzatu gaitezen, eta loikeriako pekatua igui izan dezagun.

6. Erremedioa da, eta guztiz eragillea, oituztea, sarri gogora ekartera Jaungoikoaren aurrean gaudela, eta beti-beti begira dagokigula: bada orretara oitu ezkerro, iñola izango degu ausardia Jaungoikoaren beraren begietan egiteko, edozein personaren aurrean lotsaren pasioz egingo ez gendukean gauza likits, zikin bat? Eta orobat da erremedio andia, gure Aingeru Guardakoa begira dagokigula beti gogoan edukitzea.

7. Erremedioa da, Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio santuko neke, oñaze edo dolore guztiz andiak gogoan erabiltzea: eta guzia sufritu zuela, izanik bera inozentzia, eta santidadea bera, gure pekatuen zorra pagatzeagatik: eta bere exemploarekin edozein neke sufritzen guri erakusteagatik: eta zein gauza lotsagarria dan, izanik Jesu-Kristo gure guzion Aita, guzion Salbadore, eta guzion Maisu, eta Gidaria, aren humeok, eta aren jarraitzalleok, atsegin loi, zikiñen ondoren ibilli nai izatea: eta berari jarraitzeko neke piska bat ez artu nai izatea.

Eta azkenik erremedio guztiz egokia da, edozein pekatutik, eta batez ere lujuriako pekatutik libratzeko, sarri konfesatzea, eta komulgatzea: baña humiltasun, eta damutasun andi batekin; eta kastidade santua

iristeko, eta konserbatzeko deseo bizi batekin; eta deseo ori zuen biotzetan ondo sartzeko, eta ondo irmaturik edukitzeko, kastidatea zer dan nolako ondatsun preziatuak dakazkian: eta ori gordetzeko nolako alegiñak egin bear ditugun orain laburtxo esango dizuet, eta kontuz aditu bear dezue.

G. Zer da bada kastidatea? **E.** Da birtute bat guztiz miragarria, animako, eta gorputzeko garbitasuna gorde eragiten diguna.

G. Zenbat modutan da kastidatea? **E.** Irutan: 1. Da birjiñen kastidatea, birjinidatea deitzen zaiona. 2. Da alargunen kastidatea; eta 3. Da ezkonduen kastidatea.

G. Birjinidatea zer da? **E.** Da kanpotik, eta barrutik, au da, gorputzean, eta animan, lujuriako pekatuarekin iñoiz ere kutsutu, eta loitu edo zikindu bage bizi danaren zorioneko estadua: eta ala ezta birjiña, erdizka baizik, obrazko pekaturik ez egin arren pentsamentuz edo deseez biotza edo anima oitu edo zikindu duena: bada orrelakoak gorputza bakarrik dauka birjiña, baña ez, geien balio duena, biotza edo anima: eta kontrara, berak iñola ere nai eztuela, indarrez gorputzeko birjinitasuna kenduko baliote, Jaungoikoaren aurrean birjiña izango lizate.

G. Zer da alargunen kastidatea? **E.** Da, alarguntasuneko denboran, animako, eta gorputzeko garbitasuna osoro gordetzea.

G. Eta ezkonduen kastidatea zer da? **E.** Ezkonzaz kanporako loikeririk batere iñorekin izan bage beti garbiro bizitzea: eta ezkonza santuaren kontrako gauzarik batere eren artean ez egitea, eta ez kontentitzea.

G. Eta kastidatea gauza guziz preziatua, eta honragarria da? **E.** Bai: bada kastidateak egiten ditu Kristauak Aingeruen antzekoak: eta birjiñatasunari Zeruan dagokio koroa eder espezial bat: eta mundu onetan ere, aĩn gauza preziatua da kastidatea, nun ori galdu duenagatik esaten degu honra galdu duela. Eta kontrara kastoia danagatik esaten degu honestoa dala, garbia dala: eta bere honra ondo gordetzen dakiana dala.

G. Zer ondasun dakazki berekin kastidateak? **E.** 1. Egiten ditu Kristauak Jesu-Kristoren adiskide maiteak: eta ala birtute onegatik batez ere San Juan Ebanjelista, beste Apostolu guzien artean deitua izan zan Jesu-Kristoren diszipulu maitea: eta orregatik bere Ama Birjiña Santisimaren Semetzat seřalaturik utzi zuan; eta Birjiña Amaren kuidadua diszipulu birjiñari bakarrik

eman zion. 2. Kastidadeak gorde eragiten digu garbi-
ro Jaungoikoaren beraren imajiña biziak izateko kali-
dade honragarria: eta kontrara lujuriarekin ori galtzen
degu. 3. Kastidadeak egiten gaitu Jesu-Kristo gure Jau-
naren mienbro guztiz ederrak, eta Espiritu Santuaren
bizi leku edo Tenplo egokiak; eta kontrara lujuriak egi-
ten gaitu deabruaren esklabo edo menpeko billabak:
eta beraren egoera edo bizi toki itxusi nazkagarriak. 4.
Kastidadeak dakar berekin osasuna, fama ona, bizitza
luzea, zoriontasuna, adimentuaren argitasuna, Zeruko
gauzentzat jaidura, eta gogo ona: modestia atsegin-
garria; eta aurpegiko lotsa ederra, borondateak erres-
petoarekin batera irabazteko guziz egokia; eta beste
bentaja txit andiak, eta txit asko dakazki berekin kas-
tidadeak.

G. Nolako alegiñak egin bear eztitugu bada birtu-
te ori iristeko, eta ondo gordetzeko? **E.** Al ditugun
guziak egin bear ditugu, N.K. Aditu dituzue lujuriatik
libratzeko erremediorik prinzipalenak: bada oriek erak
dira kastidadea gordetzeko egokienak; eta ala kontuz
gogoan edukitzeko, eta aekin baliatzeko alegin guziak
egin bear dituzue; eta batez ere iru biziro enkargatzen
dizuet. 1. Peligrozko okasioai alde egitea. 2. Tentazio
gaiztoai bereala atzera esatea; eta orretarako Jaun-

goikoari humiltasunarekin, eta konfianzarekin bere laguntasuna eskatzea, eta 3. Birtute ori konserbatzeko Ama Birjiña Santisimari bere Konzepzio garbiaren, eta bere betiko Birjiñatasunaren erreberenzian egunoro iru Abe Maria errezatzea, eta bere anparoa gogotik eskatzea; eta berak iritsiko dizue mesede espezial ori, eta beste asko bere Seme maite Jesu-Kristogandik; eta azkenik bizitza garbi on baten ondoren eternidade bateko gloria. Amen.

SEIGARREN DOTRIÑA

*Ira, edo Koleraren gañean,
eta Pazienziaren gañean.*

Gaur guzionzat txit bearra, eta premiazkoa dan dotriña bat aditu bear dezue, N.K.: Guziok daukagu zer egiñik asko gere ira, kolera edo aserretasuna goitzeko, eta pazienza gere naigabeetan edukitzeko. Orra bada gaur zer erakutsi bear dizuedan: eta txit kontuz aditu ezazue: eta dotriña onezaz ondo baliatzeko alegiñak egin itzatzue.

G. Zer da ira? **E.** Gure barruko bizitasun edo aserretasun bat, benganzaren edo bendekuaren erabageko apetitu, deseo edo gogo bizi bat gere barruan sortzen duena. Eta iraren edo aserretasunaren kontrako birtutea, eta erremedioa zein da? Pazienza, eta mansedunbrea: au da, naigabeetan sufritua izatea. Eta iraren edo aserretasunaren pasioa edo griña beti da gaiztoa? Ez: batzuetan aserretasuna da gauza ona; eta askotan da premiazkoa edo bearra; eta beste askotan da gaiztoa, eta berez pekatu, eta beste pekatu, eta gaitz askoren sustraia. Noiz da ona ira edo ase-

rretasuna? Arrazoiarekin, eta motibo onakin bat aserratzten danean, pekatuak, eta gaiztakeriak eragozteko edo probetxuzko lanak eragiteko. Eta noiz da ira edo aserrea premiazkoa, edo bearra? Gurasoak, nagusiak, edo kargudunak modu onean aserratzten diranean eren humeak, mirabe edo serbitzariak, eta eren mendekoak, motibo justuakin erreprenditu, korrejitu, eta zenzatu edo emendatu erazo bear dituenen. Eta orri zelo ona deitzen diogu: ala aserratu zan Moises urrezko zekorra edo Idoloa adoratu zuen Israelgo puebloaren kontra, bere Jaungoikoaren lege eskribitua zekarkien denboran, eta 25.000 persona illerazozituan; eta Jesu-Kristo gure Jauna bera, izanik aiñ humilla, eta mansoa, aserratu zan Jerusalengo Tenploan sadu erosiak egiten zituanen kontra, eta azote batekin andik atera, eta bota zituan.

G. Eta besteren pekatuak eragozteko agertzen dan ira eta aserrea beti da justua, arrazoizkoa, eta pekatubagea? **E.** Bai neurri ona gordetzen bada: eta modu onarekin eta fin onarekin aserratzten bada. Eta neurri ona zertan dago? Erremediatu bear dan gaitzaren edo pekatuaren anditasunari edo txikitasunari bere ondorengoakin ondo begiratzen edo kontu artzen; eta noiz aserrea agertu bear dan edo modu

onarekin disimulatu bear dan, edo konseju edo abisu on batekin bakarrik erremediatu ditekean ondo kon sideratzean. Eta modu ona zertan dago? Besteren peka tuaren kontra aserratzen danean, bizitasun edo gar puska bat agertu arren, bere burua geiegi irakin, eta aserratu bage kolera bizian sartu bage, bere zenzua galdu bage: gaitziritzi, bendeku edo gorrotoari bere biotzean lekurik eman bage; hitz batean, berak peka turik egin bage, aserratzen danean; eta onen kontra utsegiten due askotan gurasoak, nagusi, eta etxeko andreak, eta besteai agintzeko edo erakusteko kargua duenak: bada bereala edozein faltagatik suak, eta garrak artzen ditu, itxutzen ditu, eta birauka, maldi zioka, eta askotan golpeka bereala abiatzen dira; eta erremediatu bear duen gaitza baño andiagoa erak egiten due, eta eskuarkiro orrelakoak ezer erremedia tzen eztue; eta erak zenzatu bearrean arkitzen dira; eta ala ez neurri onik ez modu onik due, eta ira ona ren, eta justuaren fiñik iristen eztue.

G. Zer fin izan bear du bada zenzuaz, juizioaz, eta arrazoi az aserratzen dala esateko? **E.** Gaizki egin due naren erremedioa, eta probetxua billatu bear du; eta orretarako bakarrik, erreprensioa edo kastigua eman bear du; eta noiz, eta nola ori ondoena egingo duan

ondo pensatu bear du. Baña orretarako obligaziorik edo kargurik badu, aserre edo kolera bizia igaroagatik, berealako artan ezer esan bage edo egin bage: eztu gero utzi bear osoro gaizki egin duena al dueneraño erremediatu erazotzeko kuidadua: bada bestela gaitzak, edo pekatuak bere oñean egon oi dira; eta azi, eta geitu oi dira, nork korrejitu, eta erremediatu erazo ezteanean; eta ala Eskritura Santuan irakorten degu, Israelgo Jueza zan Heli Sazerdoteak bere seme bi bere denboran erreprenditu, eta kastigatu etzitua-lako, merezi zuen bezela, Jaungoikoak kastigatu zitua-la Aita, eta Semeak: egun batean irurai bizia kendu erazoakin. Eta orra aditu dezue zer dan ira ona edo aserre ona, eta nola askotan dan premiazkoa edo be-rra; esan dezagun orain 1. Zer dan ira edo kolera gaiz-toa edo erabagea. 2. Nundik sortzen dan; 3. Nolako kalteak dakazkian. Eta 4. Nola goitu edo erremediatu ditekean.

G. Zer da bada ira edo kolera gaiztoa, eta eraba-gea? **E.** Da igui degun gauzaren bat ikusten, aditzen edo sentitzen degunean, bereala bengatzeko gere barruan jaikitzen dan griña gaiztoa edo erabageko deseoa.

G. Eta kolera edo aserre ori zenbat modutan izan oi da? **E.** Batzuetan da, libertade bage, eta borondatearen konentimentu bage gertatzen dana: arrazoiari, juizioari, eta konsiderazioari batere lekurik eman bage, zer eiten duen batere oartu bage, naturalezaren berezko mugida edo abiadura batekin bere artean aserratzen, eta estutzen danean; eta ori berez, aurre-ra igarotzen ezpada, ezta pekatu: zerren falta zaio ezaguera, oarmena edo adbertenzia, eta borondatea; baña oartu ezkeru, alegiñik egiten ezpadu, bere griña gaiztoa edo aserrea goitzeko edo atzeratzeko, arrezkeru pekatu egiten du.

Beste batzuetan aserretasuna sortzen da bakoitzaren humore txaker gaiztotik edo bizitasun natural edo berezko batetik: eta orduan persona aserrekorrak alegiña egin oi badu, bere kondizio, humore edo natural gaiztoa eskuratzeko, eta ala ere bere pasio edo griña gaiztoak supitoan bezela aserra erazotzen badu, komunkiro pekaturik egiten eztu, len esan degun arrazoiagatik beragatik: bada oarmen osorik, eta libertaderik etzuen. Baña, bere bizitasun edo natural aserrekorra ezaguturik, eta askotan beregan ikusirik daukala, ori ezitzeko, eta eskuratzeko alegiñik egiten ezpadu, orduan bere kulpaz gutxi-asko, pekatu egiten du,

orrelako bere aserrealdietan, eta batez ere, bere barruko aserrea kanpora ateratzen badu hitz gaiztoak edo injuriak esanaz; edo lagun projimoa nolabait ofendituaz: bada guziok daukagu obligazioa gere pasio gaiztoari atzera esateko.

Beste batzuetan aserratasuna edo kolera gaiztoa sortzen da, ez supitoan, eta oartu bage, baizik astiro pensatu, eta egin zaion gaizkia edo injuria edo atseka-bea gogoan erabilli ezkerro; eta ori bere barruan egosi, eta sufritu bear eztuela iruitzen zaio; eta benganza artzeko griña gaiztoari, eta erabageko deseolari bere biotzean leku ematen dio; eta gaitz egin diona, ezin ikusi du; eta ordekoa pagatzeko pensamentuetan kontsentitzen du; eta auxe da ira guztiz gaiztoa, sustrai gaiztotik datorrena, pekatu mortal edo eriozkoa dana, eta kalte guztiz andiak dakatzena.

G. Nundik sortzen da bada gudan kolera edo ira gaizto ori? **E.** Gere buruaren erabageko amorio, eta borondate propiotik; ara nola gure amorio propio erabageak biziro deseatu erazotzen dizkigun gure gogorako edo gustorako diraden gauzak: nola diran honrak, estimazioak, ondasunak, eta atsegiñak; ala gauza oriek eragozten dizkigutenak edo ukatzen edo kentzen dizkigutenak ezin ikusi ditu, igui ditu gure amorio

propio orrek; eta argatik edozein injuria, desprezio, bidebage, atsekabe, naigabe edo kalte egiten digunaren kontra erraz aserraten gera; eta bendekurakogogo, deseo edo griña gaiztoa piztutzen da gure barruan. Eta ala amorio propio erabagerik ezpagendu, munduko honrak edo estimazioak, ondasunak, eta atsegiñak aiñ biziro deseaturiko ezpaginduz; arroak izan ordean, egiaz humillak bagiña; gure biotza eman-go ondasunetara geiegi itxatxirik ezpalego; aragiaren edo gorputzaren gustoak edo atsegiñak aiñ gogotik billatuko ezpaginduz; hitz batean erabageko deseorik ezpagendu; aserreak, irak edo kolera gaztoak gere barruan sarrera gutxi izango luke, eta pake andi bat gere bururaekin eta gere lagunakin izango genduke; eta orobat mundu onetako naigabe edo trabajuetan Jaungoikoaren borondatearekin erraz gurea konformatuko genduke; eta orri dagokala Kenpis beneragarriak urrezko bere liburu preziatuan esaten digu: deseoak utzi itzatzu, eta pakea arkituko dezu. Baña dotriña miragarri au Kristaurik geienak nekez ikasten due; eta nekezago exerzitatzen due; eta argatik aiñ pake gutxi eta aiñ aserre asko alde guzietan ikusten da.

G. Nundik geiago sortzen da ira gaiztoa edo ben-
dekurako deseo edo griña erabagea? **E.** Jaungoikoa-
ren, eta lagun projimoaren amorio egiazkoa gure bio-
tzetan ondo irmaturik ez edukitzetik: bada ori bagen-
du, Jaungoikoaren ofensak, eta gure lagunaren anima-
ko kalteak geiago sentituko ginduzke, geuri egiten
dizkiguen bidegabeak baño; eta aserratu, eta bende-
kua deseatu ordean, gaitz egin digunaz errukituko
giñateke, pozik barkatuko giñioke, eta Jaungoikori
aren animaren erremedioa gogotik eskatuko giñike;
eta pake gozo bat ezeze, Zerurako irabazi guziz
andiak geretzat iritsiko ginduzke; eta orretara gogotik
jarri zaitezten, eztizuet bakarrik esango, askotan irui-
penekoak dirala egiten dizuen ofensak edo agrabioak,
zerren gaitz bage, malizia bage, asmo gaizto bage
egiñak izan oi diran; demagun, gaiztakeriz, eta gorro-
toz, eta agitz injuriatu zaituela, eta zuek artarako
biderik batere eman bage: ala kontuan ar itzatzue,
orduan bertan gertatzen diran lau gauza ziurtu oek: 1.
Zuen projimoa Jaungoikoari berari egin dion ofensa
arrigarria. 2. Bere animari ekarri dion kalte izugarria,
galdu duelako Zerurako deretxoa, eta merezi izan
duelako betiko Infernua. 3. Deabruari orretan egin
dion atsegiña edo gustoa, bada aren menpeko edo

katibu egiten da; eta 4. Zuri egin dizun ofensa, eta eman dizun naigabea edo atsekabea, eta orren ondoren zuk ordekoa projimoari pagatu nai badiozu; bengatu nai bazera; zeurk Jaungoikoari egingo diozun ofensa guztiz andia; zere buruari ekarriko diozun kaltea, eta Infernuko etsaiari emango diozun kontentua; eta kontrara Jaungoikoaren amorioz barkatzen badiozu; Jaungoikaren amorioz zere naigabea sufritzen badezu: Jaungoikoari berari emango diozun atsegiña: deabruari emango diozun naigabea, eta zere buruari ekarriko diozun pakea, eta irabazi guztizkoa; eta orrez gañera gogora ekartzu, zenbat andiagoa dan, zuri gaitz egin dizunak, Jaungoikoaren Majestadeari egin dion ofensa, zuri, miserable orri, egin dizuna baño (bada sufritu nai badezu, kalterik batere eztezu, eta irabazi andiak egiteko gaia daukazu). Eta ori guzia ondo pensatu ezker, Kristauak alkarrekin izan bear degun karidade edo amoriorik badezu; eta zere anima galdu nai ezpadezu, projimoaren kontrako gaitziritzi, gorroto edo bendekuari lekuri zere biotzean emango eztiozu; zere ofensa baño Jaungoikoaren geiago sentituko dezu; zere kalteak baño projimoak bere animari egin dionak miñ geiago emango dizu; erruki izango dezu; eta ura pekatutik ateratzeko, eta Jaungoikoaga-

na biurtu erazotzeko alegiñak ere egingo dituzu; eta orra nola Jaungoikaoren eta projimoaren amorio egiazkoak desegiten, eta goitzen duan ira gaiztoa, eta bendekurako griña erabagea. Baña arrazoiari, eta konsiderazioari batere lekurik eman bage, Jaungoikolari eta lagun projimoari zor diozunari, eta zere animaren probetxuari begiratu bage; zere aserrean gogortzen bazera, kalte guziz andiak zere buruari ekarriko diozkatzu.

G. Nolako kalteak ekarri oi ditu bada ira gaiztoak edo bendekua artzeko griña edo deseo erabageak? **E.** Ezin kontatu alak, eta guztiz ikaragarriak dira, kolera gaiztotik datozen kalteak; eta hitz gutxitan asko esateko: 1. Kolera gaiztoak egiten du Kristaua bere buruaren etsairik andiena. 2. Egiten du bere lagun projimoaren etsai gogorra. 3. Egiten du Jaungoikoaren beraren etsai eskergabea. Eta 4. Egiten du Infernuko Demonioaren zorigaiztoko lagun, eta katibu, eta menpeko billaba. Eta 1. Guziok ekusten dezue, kolera gaiztoak nolako kalteak ekarten diozkan persona aserrekor bati: bada eragiten diozka askotan birabak, maldizioak, juramentuak, blasfemiak; sartzen du erabageko disputa, diferenzia, eta auzietan: kentzen dio bere barruko pakea; kentzen dio edo gutxitzen dio zenzua,

edo juizioa, eta ero baten antzeko egiten du; labur-
tzen dio osasuna, eta bizia; eta bere buruaren nekaga-
rri, eta goikarri bera bere kulpaz jarten da; eta ala
bere buruaren etsirik andiena bera da. Bada orobat 2.
Kolera gaiztoak egiten du Kristaua bere lagunaren
etsai gogorra: ikusten dezue, kolera bizian dagoan
batek nolako injuriak bere projimoari esaten diozkan;
egia zan, gezurra izan zan, nolako utsegiteak, eta
gaiztakeriak aurpegira egozten diozkan; zein erraz
eskuetara datorren, eta golpeka abiatzen dan; eta al
balu, orduan bere laguna ilko ere luke. Zezen arrabia-
tua, eta txakur amorratua baño ere gogorrago jarten
da: ostikoka lurra jotzen du; iñoren esanari kasorik
egiten eztio; eta guziak desegin nai lituzke, eta asko-
tan bizia kentzeraño eltzen da. Ala, Eskritura Santak
erakusten digunez Kain gaiztoak bere kolera gaiztoak
itxuturik bere anaia Abel justua ill zuan. Ala Herodes
gogorrak, Jesu-Kristo illerazotzeko asmoarekin ainbes-
te milla aur inozente illerazo zituan; eta bere emaztea,
eta bere aur propioak erak ere illerazo zituan. Ala
Aman arro kolerikoak Mardoqueo gizon prestu, eta san-
tua, bere puebloko guziakin akabatu nai izan zuan;
baña arentzat prestaturik zeukan urkamendian, Asue-
ro Eregearen ordenaz bera urkatua izan zan; eta ala

Kain, nola Herodes, eta Aman Infernuan erretzen daude, eta egongo dira eternidade guzian; orra zer dakarkion kolera gaiztoak aserre bizioan sartzen danari berari. Eta gero? aserre ondoan beregan biurtzen danean sosegatzen danean, zer gertatzen zaio? Geiago lotsaturik, eta gau illun baten antzeko, guzia illundurik, eta tristeturik bera gelditzea; eta egin dituan kalteak al badu, erremediatu bearrean arkitzea. Eta ez bakarrik bere lagunari egin diozkanak, baita bere anima gaixoari egin diozkanak ere: bada 3. Kolera gaiztoak egin du Jaungoikoaren beraren etsai esker-gabea; berak eman dion arrazoiaz, eta juizioaz baliatu nai izan ezto; erakutsi dion amoriozko dotriña santuari, eta berak eman dion humiltasunezko, eta pazienziako ejemplo miragarriai jarraio nai izan ezto: Jaungoikoaren amorioa baño, bere amorio propio erabagea geiago estimatu du; eta ori guzia da Jaungoikoa agitz ofenditzea, eta bere anima gaixoa Jaunaren asarrearen azpian ipintea; eta egiaz damaturik, eta humillaturik Jaungoikoagana biurtzen ezpada, aurrera kontuzago bizitzeko proposito firmearekin, orra betiko galdurik; eta azkenik 4. Infernuko demonioaren beraren zorigaiztoko lagun, eta menpeko edo katibu billau bat egiñik usten du kolera gaiztoak: bada deabruak

berak berez ezin eragin dituan pekatu mota asko persona aserrekor baten bitartez eragiten ditu; eta ala ikusten dezue, nola persona pakeoso batek guziak sosegatzen, eta onera ekarten dituan, ala persona txakerre, estu, aserrekorrak guziak tentatzen ditu, aserratzten ditu, eta bere antzeko egiten ditu; eta izanik bera bere buruaren nekagarri, egiten da beste askoren penagarri, eta galgarri; eta erremediatzen ezpada, Infernuan deabruaren zorigaiztoko katibu egiñik, beti erretzen, kiskaltzen, ler egiten, eta guziak madarikatzen egon bearra datorkio.

G. Zer erremedio bada, kolera gaiztoa goitzeko edo eskuratzeko, eta pasio edo griña goikarri orrek dakatzen kalteak, eskusatzeko? **E.** Pazienzia, N.K.: eta ori iristeko 1. Aditu dituzuen arrazoiak gogoan ondo sarturik eduki itzatzue, eta kolera gaiztoaren bildur andi bat beti eduki ezazue; 2. Jaungoikoari egunoro, eta batez ere goizean jaikitzen zeratenean, gogotik eskatu egiozue, egun artan gertatuko zaizkizuen txar-keriak edo injuriak pazienziarekin eramateko indarra, eta grazia arren eman degizuela; eta zeurok artarako prestaturik egoteko alegiñak egin bear dituzue; gogora ekarten dituzuela gertatu oi zatzuen okasioak: bada prebeniturik edo prestaturik dagoanak errazago goi-

tzen du bere pasio sutu-irazekia; eta noiz edo noiz ala ere uste bagean aserratzzen bazerate, eztezue orregatik etsi bear: baizik zuen argaltasuna, obeto ezagutu, eta humiltasunarekin eta konfianza osoarekin eskatu berriz, eta berriz Jaungoikoari bere grazia, eta indarra zuen kolera edo aserrea goitzeko; eta artarako kontuzago, eta erneago aurrera egoteko alegiñak egin bear dituzue; eta batez ere 3. Aserratzeko okasioa ematen dizuenean, ez bereala hitz egin, eta jaramon, erabageko gauzarik ez esateko: baizik ixillik egotea, eta hitz egiten abiatu baño lenago, gutxianez Pater-nosterra edo Aita gurea espazioz errezatzeko astia ar ezazue; eta hitz egiteko premian arkitzen bazerate, alegin guzia egin bear dezue, aserre bage modu onarekin, eta biguntasunarekin hitz egiteko; bada bestela, su bat beste su bati egotzita andiagoa, eta biziagoa egiten dan bezela; ala gertatuko zatzu zure kolera, eta besteerena alkarrekin juntatu ezkeru, biok suak, eta garrak artuta geiago alkar ofenditzea, eta kolera biziagoan jartea; baña hitz biguñ batek, eranzuera suabe batek besteren kolera autsiko du, emendatuko du, sosegatuko du, ur otzak dirakian lapikuaren gar-garra-tea kentzen edo tenplatzen duan bezela; eta orra orduan biok pakean, eta zu Jaungoikoaren aurrean ira-

bazi andiarekin; eta orretan irauteko, au da, aserratu bage pakean bizitzeko, kontuz artu bear dezu laugarren erremedio au: eta da, len aserra erazo zaituen okasio, peligro edo bideetatik alde egitea, nola izan oi diran joku luze erabageak: tabernetako jan-edan geiegiak eta egoera luzeak; bada geienean aserrearekin, eta burruka gaiztoakin bukatu oi dira; eta orobat alde egin bear dezu okasioa eman oi duen persona aserrekor disputazale guztietatik; eta aekin tratatzeko premia badezu, txit ondo prebeniturik abiatu, aserratu bage zere lana egiteko; eta 5. Pazienziaren birtute au maite izateko, gogora ekartzu, pakeosoak, eta mansoak Jaungoikoari egiten dioten atsegiña: Jesu-Kristorekin dauken antza; erak gozaten dauden pakea; eta nola guziak maite dituen; eta guzien biotzak irabazten dituen; eta azkenik 6. Aserratasunaren griña edo pasio sutua txit itzaltzeko, eta pazienziara, eta mansotasunera zere burua oitutzeko, gogoan erabilli bear dituzu Jesu-Kristo gure Maisu soberanoaren, eta Santuen exenploak.

Jesu-Kristo gure Jaunak, ala bere hitzakin, nola bere obrakin erakutsi digu, munduko destierro onetan, nai ta ez guziok gere gurutzea eraman bear degula, Zeruko bideari jarraio nai badiogu: beti izango

degula, zer sufritu, emen bizi geran artean; eta humil-
tasun bage, eta pazienza bage eztagoala iñorentzat
Zeruko gloriarik; eta geiena sufritzen duenak Jaungoi-
koagatik, izango duela koroari ederrena; berak guzior
bide aurreko, eta gidariak bezela esaten digu: nigan-
dik ikasi ezazue, humillak, eta mansoak ni bezela iza-
ten, eta pakea zuen animenzat arkituko dezue: nere
ondoren etorri nai duenak, uka beza edo eskuratu
beza bere burua; ar beza bere gurutzea; eta niri jarrai-
tu bekit. Zorionekoak mansoak; zorionekoak pakeoso-
ak, dio Jesu-Kristok berak; eta zorionekoak justiziaga-
tik, eta onak diralako, padezitzen duenak. Ona, Jesu-
Kristoren beraren hitzak, orain aditu dituzuenak; eta
dotriña ori bera bere Ebanjelio santuan txit sarri, eta
era askotara berritu, eta erakutsi zuan; eta badakizue,
eztala iñor munduan izan, Jesu-Kristo gure Jaunak
ainbe alde guzietatik sufritu duanik; eta ori, bera ino-
zentea izanik, gure pekatuen zorra pagatzeagatik;
guri pazienza erakusteagatik; eta pazienziarekin,
emen biotzeko pakea, gere pekatuen zorraren pagua,
eta Zerurako ondasun guztiz andiak, eta betikoak
neke piska batekin guri irabazi eragiteagatik.

Bada orobat dotriña orri zerraiela, Ama Birjiña
Santisimak, Martiri guzien Erregiñak, Apostoluak, eta

beste Martiri, eta Santu guziak, mundu onetan naibage, pena, neke, injuria, desprezio, eta trabaju guziz andiak eraman zituen, eta ez nolanaiko pazienziarekin baizik gogo onarekin, eta biotzeko atsegin, eta kontentuekin zenbat geiago sufritu zuen, anbat poz geiago erakusten zuela. Ala Aita San Pedrok, eta San Juan Ebanjelistak, Jesu-Kristoren fedea, eta Jaungoikotasuna predikatzen zuelako eta ura sinistu eragiteko milagro guztiz andiak egiten zituelako, Juduen agintarien tribunalean, akusatuak, erreprendituak, eta gogorkiro eta nabarbenkiro azotatuak izan ziranean, dio San Lukas Ebanjelistak, ze Apostolu biak, atsegiñez, pozez, eta kontentuz beterik tribunal artatik irten zirala, Jesu-Kristoren izenean, eta aren honragatik desprezio, injuria, eta neke aek eramateko zoriona izan zuelako; eta ori bera ekusten degu Santu guzien bizitzatan; eta geiegi luzatzearen bildur ezpanintz, exemplo txit asko, eta guztiz miragarriak esango nikezue; Eskritura Santak berak kontatzen dituanak, ala lenagoko lege zarrekoak, nola graziazko lege berrikoak. Ikusi eragingo nikezue Job Santua bere ondasun guziak: bere seme-alaba guziak, eta bere osasuna batetan galdurik, eta lepraz beterik, pazientzia miragarri batekin guzia daramala; eta esaten duela: *Dominus*

dedit etc. Moises Santua, bera askotan ofenditu, eta injuriatu zuen Israeldarrakgatik bitarteko jarten, eta Jaungoikoari erregutzen. Anziñako Jose kastoia, Jakob Santuaren seme maitea, bere anaiak berak saldua; eta anaiai barkatzen, eta mesede andiak egiten; Dabid Santua Saul bere etsai gogorarekin; Absalon bere seme traidore eskergabearekin; Semei lotsabagekiro injuriatzen, eta arrikatzen zuenarekin aïñ pazienza, eta mansotasun arrigarria ezerzitzen; San Esteban lenbiziko Martiria, arrikatzen zuen bere etsaiakgatik Jaungoikoari arren barka zegiela erregutzen; Jesu-Kristoren beraren exenploari orretan zerraiola; eta beste onelako asko. Baña asko da gaurko dotriñarako.

Aditu dituzuen egiak gogoan arren erabilli itzazue; eta Jaungoikoari sarri, eta gogotik eskatu egiozue, zeurok humillak izateko, eta zuen projimoak egiaz amatzeko doaia, eta grazia; eta iritsiko dezue pazienziaren birtute andia; eta orrekin oraingo pakea, eta geroko betiko gloria. Amen.

ZAZPIGARREN DOTRIÑA

Gularen, eta Tenplanzaren gañean.

Askotan esan dizuet, N.K., eta beti gogoan eduki bear degu, ez gaituala egin gure Jaungoikoak, mundu onetan aragiaren, eta gorputzaren gogora edo gustora bizitzeko; baizik berak eman digun zenzuarekin, arrazoiarekin, eta fedearen argiarekin bizitzeko; eta orrela eternidade guziko zoriona iristeko. Eta orri dagokala, San Paulo Apostolu andiaren aotik esaten digu: aragiaren edo gorputzaren erara bizi bagera, betiko galduak izango gerala; baña aragiaren lanak edo beargaiak, eskuratzen edo menderatzen baditugu, eta espirituaz batera bizi bagera, betiko bizia seguratuko degula. Eta dotriña onekin batera erraz ezagutuko dezue, gorputzaren atsegiñak billatzeko, eta batez ere erabage, eta neurribage jateko, eta edateko, aragiaren aldetik degun griña edo apetito gaiztoa dala gure espirituari edo animari betiko gerra fortiz bat egiten dion etsai indarsu bat, eta au goitzen, eta azpiratzen ezpadegu, pekatu asko eragingo dizkigula, eta kalte guziz andiak ekarriko dizkigula.

Gaur bada gurekin daukagun etsai goaigarri au gogotik benzitzera, eta eskuratzera alaitzeko; eta orren kontra dan tenplanzako birtutea maitatzera, eta exerzitatzen mugitzeko, erakutsi bear dizuet 1. Zer dan gula. 2. Nolako pekatuak, eta kalteak sortzen dituan. Eta 3. Nolako erremedioak ori ezitzeko, artu bear ditugun; eta batez ere nola tenplanzako birtutea-ri jarraitu bear diogun. Atenzioa eskatzen dizuet, N.K.

G. Zer da bada gula? **E.** Da jateko, eta edateko atsegiñ edo gustoaren erabageko apetitu, griña edo deseoa. Eta zer da tenplanza? Da birtute bat, janean, eta edanean fin ona, neurri ona, eta modu ona gorde eragiten diguna.

G. Nundik datorkigu erabage, eta neurribage jateko, eta edateko griña? **E.** Gure lenengo guraso, Adan, eta Ebaren pekatutik; eta erak, eta guk, arrazoiaren, eta espirituaren mendean eduki bear genduan gorputzaren griña gaiztoa altxatu zan espirituaren kontra; eta animaren menpeko, eta serbitzari izateko Jaunak eman zigun gorputzaren gurariak altxatzen dira orain ere arrazoiaren kontra, eta ortik datorkigu gulako bizioa edo jan-edanaren erabageko atsegiña billatzeko griñagaiztoa.

G. Eta janean, eta edanean arkitzen dan gusto edo atsegiña billatzea pekatu ote da? **E.** Atsegin edo gusto ori Jaungoikoak berak janariari, eta edariari eman dio, bear degun alimentua gogotik, eta gustoz artu, eta gure bizia edo osasuna konserbatu ditzakun; eta ala gusto orrek eztu izan bear fiña edo jateko motiboa; baizik izan bear du medioa obeto jateko, eta bizia konserbatzeko; eta ala atsegiña bakarrik billatzen duenak gutxianez pekatu benial egiten du.

G. Zer pekatu da berez gula? **E.** Ondorengo txarrik edo kalte andirik ezpadakar pekatu benial izan oi da.

G. Noiz da komunkiro gula pekatu beniala? **E.** 1. Janari delikaduak, eta garestiegiak premia bage billatzen diranean. 2. Ordutik kanpora premia bage jaten edo edaten danean. 3. Bear baño geixeago jaten edo edaten danean. 4. Lasterregi edo presaka, eta modubage jaten danean. Eta 5. Gusto andiko gisaduak berariaz eragiten diranean, premiarik batere bage.

G. Eta geiegi edo erabage jatean egiten dan exeso edo neurribagetasuna noiz da pekatu mortala edo eriozkoa? **E.** Geiegi edo erabage jateagatik Kristaua jarten danean pekatu mortal egitera, nola dan ostutzera, obligaziozko barabak ausitzera, osasuna agitz galtzera, zorrak egitera edo len egiñak dauzkanak

pagatu bage egotera; bere familiaren mantenu onerako, eta dezenziarako bear duena erabage gastatzera; eta baita maiko gastu alper erabageakgatik obligaziozko limosnak ezin egin dituan moduan jarten danean; a! zenbat pekatu, eta zenbat kalte dakatzen munduan erabageko janak, eta edanak! bada orain aitatu ditudanaz gañera: 1. Dakaz osasuna, eta bizia laburtzea; 2. Alper andiak egitea; 3. Birtuterako gogoak kentzea; 4. Gorputzaren atsegiñetan beti pensatzen, eta aezaz hitz egiten egotea; 5. Guzia aragikor egitea, eta gorputzaren mendean jartea; eta 6. Adimentuaren argia gutxitu, eta tontaturik gelditzea.

G. Baña zein dala uste dezue ala ere, gultatik datorren pekaturik andiena, itxusiena, lotsagarriena, eta kaltetsuena? **E.** Da ordikeria. Eta zer da ordikeria? Da zenzua edo juizioa galtzeraño edo galtzeko peligro gertuan edo urrean jarteraño, ardoa edo artako egokidan beste edariren bat bear baño geiago eratea.

Pekatu au askok uste dezuen baño andiagoa, eta izugarriagoa da, N.K.; eta askori konfesio, eta komunio gaiztoak eragiten diozka ordikeriako oitura zikiñak; eta betiko kondenatzen ditu; eta argatik gaur esan nai dizuet garbiro. 1. Ordikeria zer pekatu dan; 2. Noiz dan pekatu mortala, eta noiz ez; 3. Nolako kal-

teak dakatzen; eta 4. Ordikeria eskusatzeko edo oituri-rik badago, erremediatzeko zer egin bear dan. Arreta, eta atenzioa berriz eskatzen dizuet.

G. Zer pekatu da bada berez ordikeria? **E.** Batere duda bage, da pekatu mortala; bada Jaungoikoak berak San Paulo Apostoluaren aotik esaten digu, ordiak Zeruko Erreinuan sartuko eztirala (1. ad Corint. 6) *neque ebrii regnum Dei possidebunt*. Eta arrazoia da, zerren gizonak, geien estimatu bear duan gauza, au da, bere juizioa, bere borondatez galtzen du, eta aberen pareko edo antzeko egiten da; eta ala, ardoak gaitzik gorputzean, eta osasunean ez egin arren, eta bomitorik ez izan arren, pekatu mortal egiten du, bere kulpaz bere buruko zenzua, eta arrazoia galtzen badu edo agitz irabiatzen edo turbatzen badio.

G. Eta ordikeria beti da pekatu mortala? **E.** Bai; baldin osoa bada, eta borondatezkoa bada. Eta noiz esango degu, ordikeria dala osoa? Ez bakarrik da ordikeria osoa, batek bere burua, bere adimentua, eta jui-zioa txit galdu, eta batere ezin bera gobernatu, eta zuzendu ditekean moduan, trunko bat bezela geldit-zen danean, baita ere da ordikeria osoa gizakume edo emakume gaixoa, edanaren ondoren ainbestera-ño irabiatzen, mudatzen, turbatzen, eta moteltzen

danean, nun Kristau bati dagozkan lanak edo bear-gaiak, naiz espiritualak, nola konfesatzea edo orazio egitea, naiz tenporalak, nola kontu ematea, bear bezela egiteko, iñola ere gai edo kapaz eztan moduan jarten danean.

G. Eta orrenbesteraño bat eldu dalako señalear zein dira? **E.** Dirade; 1. Bati askotxo edan ezkeru, gertatu oi zaionean, bere jenioa, bere humore edo naturala agitz mudatzea, nola dan tontaturik, eta kontu onik emateko gai ezjala gelditzea. 2. Orduan egiten edo esaten dituan gauzaz gero batere ez akordatzea edo oroitzea, besteetan memoria ona duelarik ere. 3. Mingaña agitz moteltzea, eta inporta duen sekretoak erraz agertzea edo beste okasioetan esan nai ez dituan ipui zikiñak edo loiak kontatzea. 4. Belaunak agitz ikaratzea, zabuka, eta alboka ibiltzea; eta bere gorputza ezin gobernatzea; batez ere persona txitzarra, argala edo gaixoa ezjala, gertatzen bazaio; bada onelakoai noiz edo noiz gertatzen zaie, indar faltaz, ezin beren gorputzak ondo gobernatzea, eren buruak txitz galdu bage egon arren; baña bestelako persona indarsuai etzaie ori gertatu oi eren buruak agitz turbatuak edo irabiatuak eduki artean.

G. Eta orrenbesteraño eldu ezpada; eta neurri onetik zerbait igaro arren ondorengo txarrik izan oi ezpadu orduan zer pekatu egiten da? **E.** Komunkiro pekatu benial egiten du; baña edanean zerbait sartu ezkerro komunkiro gertatu oi bazaio neurririk batere geienez ez gordetzea edo erraz aserratzea; eta eskuak edozeñi jasotzea; edo bere etxean bizimodu gaiztoa edo eskandalo ematea; edo juramentu, birau edo maldizioak egitea; edo erabageko jokuak egitea; eta gau beranduraño kanpoan gelditzea, bere gurason edo familiaren sentimentu andiarekin; edo beste edozein pekatu mortal arrezkerro egin oi badu, orrela koentzat berez osoa eztan ordikeria, da pekatu mortala; zergatik beren borondatez, jakiñaren gañean, pekatu mortala egiteko okasio edo peligro gertu edo urrean jarten diran; eta alako okasioa edo peligroa eskusatzeko obligazio larria edo andia dauke.

G. Eta orditzeko asmo bage, eta alako uste bage, eta geiegi edan bage, ardoaren indarrak burua irabiatzen edo agitz turbatzen badio; orduan zer pekatu izango da? **E.** Ainbesteraño allegatzeko peligrorik ezagutu bage, eta ezagutzeko obligazio bage, Noe Santuari gertatu zitzaion bezela, gertatzen bazaio, eztu

pekatu mortalik egin, ezagueraren, eta borondatearen faltaz.

G. Eta erraz ote da ezagutzen, neurri on bage edo modubage ardoa, mistela edo aguardiente edatea, noiz dan orditzeko, eta pekatu mortal egiteko diña? **E.** Ezta ori erraz; zerren batentzat gutxi dana, beste batentzat geiegi izan oi da, eta ala bakoitzak bere burua ondo ezagutzeko, eta arriskutik kontuz alde egiteko alegiñak egin bear ditu.

G. Eta beste persona bati orditzeko diña ardo, mistel edo aguardiente ematea edo eran eragitea zer pekatu da? **E.** Jakiñaren gañean izan ezkerro da pekatu mortala; baña ezpadaki, zer gertatuko zaion; eta alako usterik edo errezelarik ezpadu, pekatu mortalik egiten eztu; baña pekatu mortal egiteko arrisku andian daude, leiaka edo porfiaka konbeni zaien baño geiago besteai edan eragiten dienak; eta moskortu eragiten dituanak.

G. Eta ordikeria Kristau guzietan, erabatera, eta berdin da pekatu mortala? **E.** Bai guzietan da pekatu mortala; baña berez aiñ gauza iguigarria, eta itxusia bada ere; agitz itxusiagoa, eta lotsagarriagoa da emakumetan, gurasoetan, errietako kargudunetan, Jaungoikoari konsagratu dauden eliz-gizonetan, eta bes-

teai agintzeko, eta erakusteko obligazioa duen persona guzietan. Eta ori ondo ezagun da, ordikeriaren kalte edo ondorengo izugarriak gogora ekarri nai badiugu.

G. Zein dira bada ordikeriaren ondorengoak? **E.** Txit asko, txit kaltetsuak, txit lastimagarriak, eta txit lotsagarriak dira; eta ondo aditzera emateko dotriña labur bat ezeze, sermoi asko, eta andiak bear lirateke; baña, zerren sobre nabarbenak diran, aitatu baizik egingo eztitut, zuek gero obeto konsideratu, eta pisatu ditzazuen. Ordikeriak bada 1. Berez galdu eragiten du osasuna, eta laburtzen dio bizia, orditzeko oitura daukanari. Orra zein prenda estimagarria, eta balio-soa kentzen dion; eta orren ondoren zenbat kalte ez datorkie ordiari berari, eta bere familiari eren ondasunetan, eta ikusten dituen miseria, pobreza, eta estutasunetan? 2. Galdu eragiten dio zenzua, eta juizioa, eta tontatzen du Kristaua; eta eragiten diozka berari lotsagarritzko pekatu asko; eta eskandalo, eta pekatu-rako bideak askori ematen diozka bere birauakin, joku erabageakin, aserreakin, ipui, eta kontu zikiñakin; eta loikeriako jostatze itxusiakin; eta galtzen du jendea-ki-ko kreditoa, estimazioa, eta honra. Nork ponderatu lezake kalte onen anditasuna, eta ondorengo tristeak?

Bada ala ere ori baño agitz andiagoa da ordikeriak ekarri oi duan irugarren ondorengo ikaragarria; eta da animako kondenzioa; Zeruko gloria betiko galtzea; eta betiko sua, eta garra Infernuan sufritzen egon bearra; zergatik ordikeriara emanak edo oituak egiazko damutasunaren, eta erremediatzeko proposito eragillearen faltaz gaizki konfesatu, eta komulgatu oi dira; eta azkenean estadu izugarri orretan iltzen dira. Zer gauza lastimagarriagorik, N.K.!

G. Zer erremedio dago bada gulako pekatuak, eta batez ere ordikeriakoak txit eskusatzeko; edo bein orretara oitu ezker bere burua bizio infame, itxusi orretatik libratzeko? **E.** 1. Erremedioa, eta guztiz egoikia da N.K., orain esan ditugun kalte andiak gogor sarri ekarri, eta bizio orren iguitasun andi bat edukitzea; eta orren kontra dan tenplanzako birtutea zer dan, eta nolako probetxu edo ondasun andiak dakazkigun ondo konsideratzea.

G. Zer da bada tenplanza? **E.** Da birtute bat, jeneralkiro begiratzen badiogu, gure biotza munduko atsegiñen amoriotik ateratzen, eta apartatzen duana; eta munduko gauzaz nola usatu, eta baliatu erakusten diguna; gure premietarako, eta obligazioai kobru emateko bakarrik billatzen ditugula, aetan gure bio-

tza, eta amorioa ipiñi bage. Eta gularen kontrako birtute partikularra danez, tenplanza da, janean, eta edanean, fin ona, neurri ona, eta modu ona gorde eragiten diguna. Fin ona da, osasuna, eta bizia konserbatzeagatik, eta Jaungoikoak ala nai duelako jatea, eta edatea. Neurri ona da, orretarako bear dana bakarrik artzea. Eta modu ona da, ansiarik izan bage, eta agertu bage jatea eta edatea.

G. Eta zein dira tenplanzako birtuteak dakatzen probetxuak, eta ondasunak? **E.** Txit asko, eta guztiz andiak dira. 1. Esan ditugun kalte andiak eskusa erazotzen ditu. 2. Osasuna konserbatzeko erremediorik egokiena bera da. 3. Ondasunak konserbatzeko, eta aurreratzeko agitz laguntzen du. 4. Fama ona gorde eragiten du. 5. Adimentua argitzen du. 6. Pekatu askotatik libratzen du. 7. Animako etsaiak goitzeko agitz serbitzen du. 8. Ainbeste ondasun espiritual, eta irabazi dakatzen mortifikazioa exerzitzeko betiko gaia ematen du; eta azkenik Jesu-Kristoren beraren, eta Santuen antzekoak egiten gaitu; eta ala ori guzia ondo konsideraturik, eta gogoan ondo sarturik edukitzea da lenbiziko erremedioa, gulako pekatuak igui izateko, eta tenplanzako birtuteari jarraitzeko; bigarren erremedioa da, bakoitzak bere argaltasuna ondo ezagu-

tzea, eta peligrozko okasioetatik kontuz alde egitea; bada, nola Kristaua berez aiñ argala dan, eta gorputzaren atsegin, eta gustoetara aiñ etziña dagoan, okasioan ardurabage sartu ezkerro, erraz galduko da. Iru-garren erremedioa da, Jesu-Kristo gure Maisu Soberanoaren barabak, aren gose-egarriak, eta batez ere gugatik artu zuen beazunez nastutako edari samiña, gogora sarri ekartea; eta gure erabageko gusto atsegiñak mortifikatzeko alegiñak egitea. Laugarren erremedioa da, gogoan erabiltea Jaungoikoak egin dituan kastigu izugarriak gulako pekatuagatik. Aditu dezue gure lenengo gurasoena; eta badakizue, zein ondorengo tristeak aei, eta guri ekarri zizkigun.

Orobat gulako griña fortiz bat ez eskusatzeagatik jarri zan Esau bere anaia Jakobi Zinzillazko lenteja plater bategatik bere maiorazko, eta nagusitasuna saltzera, eta juramentuarekin betiko larga zion. Eta okasio onekin dio San Agustiñek, ze gularen anditasuna eztala ainbeste neurritzen janariaren kalidadetik, nola jateko ansiatik; eta dio, ze tenplaza ere eztagoala ainbeste janaren kalidadean, kantidadean, eta bakoitzaren osasunari edo argaltasunari dagokion jana, konpontzeko moduan; baizik dagoala batez ere animako libertade, eta espirituko pake batean, sendituen

atsegiñetara menderatu bage, janaz, eta edanaz usatzean, denborak, eta premiak eskatzen duen moduan. Eta orren faltaz gulako pekatuagatik ainbeste milla Israelita, eremuan zijoazela, Jaungoikoak ematen zien janariaz aspertu, eta Ejiptoko janariak deseatu zituelako, kastigatuak izan ziran, eta eremuan ill ziran; eta Baltasar Babiloniako Erregeak konbite andi batean erabage jaten, eta edaten ari zala bere konbidaduakin ikusi zuen bera zegoan gelako paretean milagrosmentek eskribiturik bere kondenazioko sententzia, berak ezin irakurri edo aditu, eta Daniel Profeta Santuak aditzera eman ziona; eta gau artan bertan bere bizia, eta erreinua galdu zituan. Eta azkenik ezin kontatu alak dira, N.K. gulako bizioak ekarri dituan miseriak, naigabeak, eta eriotzak, eta munduan eragin dituan gaiztakeriak; eta argatik Santu guziak era batera, ala lege zarrean, nola graziazko lege berrian, gulako griña gaiztoa ezirik edukitzeko aiñ alegin andiak egin zituen; eta aiñ barau luzeak, eta gogorrak batzuek atera zituen, nun irakorri ta ere, ikaratzen gaitue; baña gai onetan kontuan ipiñi bear zaituet, ze Santu askoren exenploak, admiratzeko obeak dirala, imitatzeko, eta jarraitzeko baño, aek zeuden dispozizioan ez gaudelako, orrelako barau luze arrigarriak egiteko;

eta San Jeronimo andiak (bera guztiz mortifikatua, eta baraugillea bazan ere) ematen digun konsejuaz batera diot, obe dala jatordu jakiñetan neurri onarekin jatea, ezenez geiegi flakatu, argaldu, eta gero asebeste beingoan egitea; eta gulatik libratzeko, eta tenplanza santua iristeko konbeni da noiz edo noiz gere jatorduetan geien gustatzen zakun gauzaren bat ustea, mortifikaziora oitutzeko; eta maitik oraindio geiago jateko dispozizioan gaudela jaikitzea.

Eta azkenik, beste bizioak goitzeko, eta birtuteak iristeko bezela, gulako bizioa eskuratzeko, eta tenplanzara oitutzeko erremedio premiazkoa da, gure argaltasuna ondo ezaguturik, humiltasunarekin eta konfianza osoarekin Jaungoikoari orretarako bere laguntasuna, eta indarra sarri eskatzea; egunoro artarako propositoak berritzea; eta utsegiten degun aldi bakoitzean, Jaungoikoari barkazioa eskatzea; eta gere buruari, erremediatzeko deseoarekin, barau bat edo beste pena, neke edo beste mortifikazioren bat sufri eragitea; bada erremedioak artu bage, ezer aurreratu ko eztegu. Eta orretan ari dirala, batez ere aspaldian ordikeriako oitura erremediatu bage daukatenak, egiaz eren salbazioa nai badue, konfesio jeneral bat egin bear due; eta aurrera bizimodu berri bat egiteko,

okasio peligratzkoai kontuz alde egin; eta sarri konfesatu, eta komulgatu; bada orrela iritsiko due Jaungoikoaren grazia; bere griña gaiztoak eskuratzea; eta eriotz on baten ondoren betiko gloria. Amen.

ZORTZIGARREN DOTRIÑA

Enbidiaren eta karidadearen gañean.

Soberbiatik, eta gure amorio propio erabagetik sortzen da enbidiako pekatua; eta enbidiatik sortzen dira beste pekatu asko guztiz andiak, eta izugarriak. Eta orien guzien erremedioa da gere buruak ezagutztea, eta humillatzea, eta guziok karidade egiazko batekin alkar amatzea. Ikusi dezagun bada gaur 1. Zer dan enbidia, eta nolako pekatuak, eta kalte arrigarriak dakazkian; eta 2. Zer dan karidadea, eta nola alkar amatu bear degun.

G. Zer da enbidia? **E.** Besteren onaz damu artzea; eta besteren gaitzaz atsegin artzea, besteren onak gurea gutxitzen duelako ustean edo iruipenean.

G. Eta enbidiaren kontrako birtutea, eta erremedioa zein da? **E.** Karidadea. Eta zer da karidadea? Amatzea Jaungoikoa gure biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik bera danagatik; eta amatzea gure lagun projimoa gere buruak bezela Jaungoikoagatik; izaten gerala gure lagun projimoakin, aek gurekin izatea nai degun bezela.

G. Zer pekatu da enbidia? **E.** Berez da pekatu mortala, zerren dan karidadearen kontra; baña gai txiki batean bakarrik izaten bada, pekatu mortala ezta, baizik beniala; eta orobat oartu bage edo osoro konsentitu bage, au da gaitz andirik benetan lagunari nai izan bage edo opatu bage gertatzen bada, pekatu beniala izan oi da.

G. Eta besteren onaz tristetzen bagera, bakarrik, zerren askori gaitz egiteko eren ondasunaz, karguaz, eskualdiaz edo indarraz baliatzen diran, orduan zer pekatu egiten degu? **E.** Ori ezta enbidiazko pekatua: baizik tristura bat arrazoian fundatua; eta Jaungoikoari orduan erregutu geinkio, pekaturik batere egin bage, eren onerako, eta besten probetxurako alakoai kendu degiela gaitzerako daukeen eskualdia, eta indarra; baña ala ere Jaungoikoak disponitzen duenarekin konformatu bear gera.

G. Eta besteren onaz edo ondasunaz tristetzen bagera, ez besteak dauzkelako, baizik geurk alakorik eztegulako, eta nai ginduzkealako, pekaturik egiten ote degu? **E.** Besteren ondasunak animaren onerako edo probetxurakoak baldin badira, geretzat ere alakoak deseatzea edo oraindio eztitugulako tristetzea, ezta pekatu, baizik da gauza ona, eta orri enbidia san-

tua deitzen diogu. Baña besteren ondasun tenporalak eztitugulako tristetzen bagera, pena edo tristura ori izango da pekatu, gauza alperrak deseatzan baditugu; baña ez, premiazkoak edo ondo dagozkigunak deseatzan baditugu; eta beti obe izango lizate falta ori Jaungoikoaren izenean gogotik sufritzea.

G. Zein da bada enbidia gaiztoa, berez pekatu dana, eta beste pekatu askoren sustrai pozoatua dana? **E.** Da, projimoari gaizki nai diogulako, aren onaz damutzen, tristetzen, eta atsekabetzen geranean, eta aren gaitzaz poztutzen geranean.

G. Eta enbidia ori era edo modu askotan izan oi da? **E.** Bai: batzuek besten gauza edo ondasun tenporalak enbidiatzen dituzte, nola aberastasunak, atsegiñak, honrak, estimazioak, kargu andiak; eta enbidia ori munduko gauzak maite dituenaren artean arkitu oi da; eta soberbiatik sortu oi da. Beste batzuek enbidiatzen dituzte besteen jakinduria, ondo hitz egiteko doia edo bestelako abilidade edo talentuak; eta erendako nai lituzke alde orretatik besteak dauzken estimazio, eta honra; eta ura gutxitzeko alegiñak egin oi dituzte, eta ortik oi datoz disputak, eta diferenziak; zerren bakoitzak beretzat bakarrik estimazioak nai lituzke. Beste batzuek besteen birtuteak eta ondasun espiri-

tualak enbidiatzen dituzte, eta tristetzen dira, besteak, erak baño, alde orretatik estimatuagoak, eta honratuagoak ikusirik; eta ori da enbidia guztiz doaka bat, soberbia espiritual batetik sortzen dana; eta birtutean asi berriak, eta ipokritak diran personetan arkitu oi dana. Eta enbidia ori azitzen danean, eldu oi da aïñ gradu altu batera, nun besteak dauken Jaungoikoa-aren graziaz, eta birtuteaz tristetzen da; eta orri deitzen diogu Espiritu Santuaren kontrako pekatua; eta orrek demonioaren beraren zorigaiztoko lagun, eta antzeko egiten du Kristau enbidioso.

G. Eta zein dira enbidiatik eskuarkiro sortzen diran pekatuak? **E.** Dirade 1. Odio edo gorroto gaiztoa. 2. Txismek edo esamesak kontatzea, adiskide daudena-
nak okertzeko, eta gaizki nai diogunari adiskideak kentzeko. 3. Dator murmurazioa, enbidia diogun personari bere kreditu ona, fama ona, eta estimazioa kentzeko edo gutxitzeko. 4. Dator atsegin artzea beste-
teari gertatzen zaizkan naibage edo atsekabeetan; eta 5. Dator tristetzea projimoari datorkion konsuelo,
poz, eta atsegiñakin. Eta orrez gañera, dio San Zipriano-
nok, ze enbidiak dakatzen gaitzak, eta eragiten dituan kalteak esan al baño geiago, eta andiagoak dirala; San Basiliok dio, ze enbidia dala gizonaren izurria; San

Juan Krisostomok deitzen dio giza eralleak sortu dituan Ama; San Agustiñek deitzen dio, guzia erre, eta kiskaltzen duen sua; eta era onetan hitz egiten due Elizako Aitak, eta Maisuak diran beste Santu askok.

G. Baña ori obeto ezagutzeko, zein dira enbidiak ekarri dituan kalte prinzipalak? **E.** 1. Enbidiak soberbiarekin batera, Zeruan Jaungoikoak bera alabatzeko, eta beraz gozatzeko, sortu zituan ainbeste milla Aingeru, eren buru, eta Kapitan Luzbel arroarekin Zerutik betiko desterratu edo aienatu zituan; eta betiko Infernura ondatu, eta kondenatu zituen; bada, San Agustiñek Elizako beste erakusle Santu batzuekin erakusten digunez, Jaungoikoak agertu zien Aingeruai, gizona egiteko, eta gizonaren naturalezarekin bere Seme Jaungoikoa unitzeko edo gizatasuna beragana artzeko asmo miragarria; eta Aingeruen naturaleza utzirik, gizonarena artu nai zuelako enbidiak itxutu zituan, eta Jaungoikoaren beraren kontra altxatu ziran; eta gizonari enbidiaz, eta gorrotoz begiratzen bertatik abiatu ziran. Eta ala 2. Deabruaren enbidiak ekarri zituen munduan ikusi diran, eta ikusten diran gaiztakeri guziak; eta ill bearra bera ere deabruaren enbidiatik etorri zaku, Espiritu Santuak Sanbiduriaren liburuan esaten digun bezela; bada deabruak gizonaren zorio-

na ezin ikusirik, eta berak galdu zuen Zeruko gloria gizonak gozatu bear zuela, ezin sufriturik; gure lenengo gurasoak tentatu zituan, engañatu zituan, eta pekatu egitera, eta Jaungoikoaren grazia, eta Zeruko ondasunak galtzera, eta bere zorigaiztoko lagunak egitera ekarri zituan; eta arrezkero enbidiaren izurri gaiztoak, zenbat pekatu, eta zenbat kalte egin eztitu mundu triste onetan? 3. Kain, Adanen seme nagusienak, bere anaia Abel justua, bera baño obea zalako, eta onen sakrifizioak begi onez, eta gustoz Jaungoikoak azeptatzen edo errezibitzen zituelako, eta bereak ez, enbidiaz, eta anaiaganako gorrotoz beterik, ainstesteraño itxutzera, eta aiñ gaiztakeri arrigarria egitera etorri zan, nun bere anaia inozentea bere eskuz ill zuen; orra enbidiaren itxumena, eta gogortasuna zein ikaragarria dan. 4. Ori bera ikusi zan Jose Patriarka justuaren, eta bere anaien artean: Jose guztiz ona zan, eta Jakob bere guraso santuak beste seme guziak baño maiteago zuen; Josek bere anaiai batere gaitz bage kontatu zien, bere geroko anditasuna aditzera ematen zuen amets misterioso batzuek; eta aen guzien Jaun egiñik ikusiko zuela; eta orra enbidiarako gai guzia; arrezkero ezin bere anaiak ikusi zuen, gorrotoz begiratzen zioben; iltzeko asmoak ere artu

zituen; eta Ejiptora zijoazen merkatari Ismaelita batzuei eren anaia bera saldu zien. Orra zer dollorke-
ria, prestuezkeria, eta billautasuna enbidiak eragin
zien; baña ortik etorri zan Jose Santuaren anditasune-
rako bidea; aren ametsak osoro kunplitu ziran: Ejipto-
ko Erregearen urrengo gizon, eta ango agintari izate-
ra eldu zan; eta bere anaiak erak, aren berri jakin
bage, biziko baziran, goseak obligaturik gari eske Ejipt-
ora, eta beraren mendera etorri ziran; baña etzan
aek bezelako dollor prestueza, eta bengatiboa izan:
baizik biotz onez barkatu zien, laztandu zituan, eta
ondasunez bete zituan; orra gizon justuak, eta honra-
duak nola portatzen diran gaitz egin dienakin erakin:
enbidiosoak guzia kontrara egiten duen bitartean; eta
ori argiro ikusi zan Eskritura Santak berak zitutzen
digun Saul Erregearen, eta Dabid Santuaren exenplo
miragarrian; bada Dabidek iñoiz ere gaitzik Sauli egin
etzion: mesedeak franko bai; berak Goliat Jigante Filis-
teo arrigarria, Israelgo jende guzia ikara zeukana
bekokian eman zion arrikada batekin lurrera bota
zuen, eta ill zuen; eta Filisteoak goitu edo benzitu, eta
Israeldarrak aetatik libratu zituan; eta Jerusalengo ala-
bak Dabid honratzeko kantatzen zuen, Saulek milla,
Dabidek amar milla ill ditu, eta orra Saulen enbidia,

eta Dabiden kontrako gorroto izugarria nundik sortu zan. Saulen soberbiak ezin sufritu izan zuen berari baño alabanza andiagoak Dabidi ematea; eta ala arrezkero Dabid bere eskuz iltzeko, eta ori ezin zue-
nean, illeragiteko ezin esan al baño alegin andiagoak egin zituan; bada Jaungoikoak Dabid gorde zuen; eta onek Saul iltzeko era ona askotan izan bazuen ere, eta bera Israelgo Errege izateko Samuel Profetak aurrez konsagratu bazuen ere, Sauli iñoiz ere gaitzik egiñ etzion, eta aren persekuzioa pazientzia, eta mansotasuna andiarekin sufritu zuen; eta beste exemplo asko utzirik, eta ori bera ikusi zan iñun baño obeto Jesu-Kristo gure Jaunaren kontra Juduen apaiz nagusi, eta agintariak beti eduki zuen enbidia, eta gorroto guztiz andian; bada ainbesteraño itxutu ziran, eta ainbesteraño gogortu ziran, nun Jesu-Kristo Pilatosek berak inozentetzat deklaratu bazuen ere, gurutze batean illik ikusi artean aspertu etziran. Eta ortik kontu atera bear dezue, N.K. zein pekatu arrigarria dan enbidia; nolako kalteak dakazkian; eta enbidiosoa bera zein estadu triste errukigarrian ipinten duen; bada kentzen dio adimentuaren argia, kentzen dio biotzeko pakea, bere barrua erretzen dio; etikazko sukar edo kalenturarekin dagoan eria bezela, ezerekin alibiatzen ezta;

eta erremediatzen ezpada, orain demonioaren jarraitzalle dan bezela, gero eternidade guzian aren zorigaiztoko lagun izan bearako du.

G. Baña badu erremediorik enbidiosoak? **E.** Bai, N.K. erremedio asko ditu, eta berez sendatzeko guziz eragilleak, artu nai baditu. Zein dira erremedio oriek?

1. Da bere itxumena ondo ezagutzea, eta orretarako gogora ekartea, enbidiatzen dituan honrak edo estimazioak, deseaten dituan besteren aberastasunak, eta nai lituzkean besteren konbenienziak, era onak, eta atsegiñak, zein gauza laburrak, ezerezak, eta despreziagarriak diran; eta oriekgatik berak galdu nai dituan Zeruko betiko honrak, ondasunak, eta betiko poz, kontentuak, zein ederrak, zein estimagarriak edo zein zoragarriak diran; bada piska bat konsideratzen jarri nai badu, Jaungoikoak betiko zorionekoa izateko egin duela; eta denborarekin akabatzen diran munduko ezerezkeria orien, eta eternidade guzian iraun bear duen honra, ondasun, eta kontentuen artean dagoan diferentzia neurribagea, ikusiko du bere zorakeria, eta bere buruari dakarkion kabubageko kaltea; eta orrela zenzatuko da; eta orretarako 2. Erremedioa da, ondo konsideratzea, alde batetik, alperrik nekatzen dala besteren gauzaen enbidiarekin, bada besteak eztitue

orregatik galduko dauzkaten estimazioak, ondasunak, eta kontentuak; eta bere burua geiago, eta geiago estutzea, penatzea, eta galtzea baizik ateratzen eztu; eta ori bere buruaren galgarri, eta nekagarri eroa bertatik izatea da; eta bestetik enbidiaren pozoi gaiztoa bere biotzetik ateratzen ezpadu, eternidade guzian iraungo duen pena, neke, eta naigabe arrigarriak bere buruari dakazkio; eta ori izan ditekean itxumenik, eta zorakeriarik andiena da; eta zerk dakar eskuarkiro itxumen andi ori? soberbiak, andinaiak eta amorio propio erabageak; eta ala 3. Enbidiatik libratu nai duenak, bere soberbia, eta arrotasuna goitzeko edo eskuartzeko, eta humiltasuna iristeko alegin guziak egin bear ditu; eta orduan erraz enbidiaren kontrako erremedio soberanoari bere biotzean leku emango dio.

G. Zein da guzien gañeko erremedio ori? **E.** Karidadea. Eta karidadea zer da? Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio egiazkoa. Hitz bi oetan sarturik dago gure Jaungoikoaren lege guzia; eta aiñ bearra edo premiazkoa da karidadea, eta alkarrekiko amorio egiazkoa, nun karidaderik ezpadegu, illik gaude Zerurako; eta munduan egin diran bestelako obra on guziak egingo baginduz, eta eraman diran tormentu guziak sufrituko baginduz; ez likegue ezertxo ere serbituko

Zerurako karidade bage; baña birtute guzien ama, eta guzien andiena dan karidadea edo amorio egiazkoa badegu, bertatik gure zoriona abiatzen edo azitzen da; eta eternidade guzian Zeruko glorian iraungo du; bada fedea akabatuko da, sinisten ditugun gauzak ikusten ditugunean; orobat esperanza bukatuko da, itxoten ditugun betiko ondasunak gozaten ditugunean; baña karidadea iñoiz ere bukatuko ezta: azi bai; eta perfekzio andiago batera eldu bai; bada orain gure karidadea eskasa da; baña Zeruan, Jaungoikoa bera ikusten degunean, Jaungoikoarekin unitu, laztandu, eta batuko gaitu, eta gure animako indar guziakin gure Jaungoikoa amatuko degu, eta gere lagun proiektuak perfekzio guziarekin Zeruan maitatuko ditugu; aen zorionaz gere propioaz bezela poztuko gera; eta iñoren enbidiarik batere izango eztegu.

Asi gaitzen bada bertatik, N.K. karidadeak dakazkigun ondasunak, eta probetxu guziz andiak gustatzen. Alkarrekiko amorio egiazkoak distingitu bear gaitu Kristau guziok; bada guziok Aita bat baizik eztegu; ez bakarrik odolaren aldetik, aita Adanen humeak guziok geran ezkerok; baita ere animaren, eta grazia-aren aldetik; bada Jaungoikoa bera guzian Aita degu, eta ala guziok alkarren senideak gera; guziok herentzia

batera deituak gaude, eta ala guziok era batera Jaun-
goikoari esaten diogu, Aita gurea Zeruetan zaudena;
guziok fede bat degu; esperanza bat berbera degu;
guziok gorputz bat egiten degu; guziok Eliza Santa
Katolika gure Amatzat ezagutzen degu; guziok Jesu-
Kristoren humeak alde batetik, eta bestetik bere seni-
deak gera; guzion burua, eta guzion senide nagusia
Jesu-Kristo degu. Guziok Jesu-Kristo bera aldareko mai-
santuan errezibitzen degu; guziok berarekin bat izate-
ko, guziok Jesu-Kristoren eskolakoak gera; guziok
dotriña bat berbera ikasi degu; eta guziori esaten digu
Jesu-Kristok berak, beraren egiazko humeak, eta
jarraitzalleak geran edo ez, alkarrekiko amorioan eza-
gutuko dala; amorio santu au gure biotzetan badegu,
Jesu-Kristoren egiazko hume maiteak gera; baña ori
ezpadegu, eta orren lekuan enbidia, eta gorrotoa gure
biotzetan arkitzen bada, demonioaren zorigaiztoko
lagunak gera, eta eternidade guzian izan bearke
degu. Zer motibo andiagorik, N.K., alkarrekiko amorio
santuari gere biotzetan pozik leku emateko; eta enbi-
dia, eta gorroto gaiztoak betiko gure biotzetatik aiena-
tzeko? Baña bearbada batzuok esango dezue: urliak
edo berendiak iñola ere merezi eztu nik amatzea;
dauzkan ondasunak edo karguak besteren eskuetan

obeto egongo lirateke, askotan ofenditu nau; eta ezin begi onez iñola ere begiratuko diot. Gauza bat da N.K., pekatariaren, eta etsaiaren gaiztakeria, eta malizia; eta beste gauza bat pekatariaren beraren persona; gauza bat da, eritasuna, eta beste gauza bat da eria bera. Eziñ iñork ondo iritsi leikio besteren gaiztakeriari, maliziarri, eta eritasunari; baña gaitz egin duena bera, eri dagoana bera erruki izan bear degu; Jaungoikoari aren erremedioa eskatu bear diogu; berak emengo dio dagokion kastigua edo saria; ori gure eskuko ezta: Jaungoikoak guri agintzen diguna da, projimoak (berez ez merezi arren) Jaungoikoaren amorioagatik gere buruak bezela amatzea; eta projimoari barkatzea, eta on egitea; eta esaten digu, ezti-gula gure pekatuak barkatuko, gere etsaiari, ofenditu gaituanari barkatzen ezpadiogu; baña guk barkatzen badiogu, eta erruki badegu, Jaungoikoak guri ere barkatuko digula, eta guzaz errukituko dala. Eta azkenik, N.K., Zerura joateko nai ta ez gure borondatea ukatu bear degula, gere gurutzea edo naigabeak sufritu bear ditugula, eta Jesu-Kristori jarraitu bear diogula. Nork Jesu-Kristok berak baño etsai andiangoak izan ditu? Eta aekgatik bere Aita Eternoari erregutu zion, arren barkatu zegiela. Orra bada, zer erakutsi zigun

Jesu-Kristok hitzez, eta obraz; eta orra zertan jarraio bear diogun. Bada orain begira ezazue, N.K., zenbat inporta dizuen enbidiari, eta gorrotoari bertatik largatzea; eta orren lekuan Jaungoikoaren eta projimoaren amorio egiazkoa zuen biotzetan edukitzea. Nolako pake, eta deskansua bertatik izango da zuena? Jaungoikoari arren bada eskatu egiozue gogotik, zuen adimentuak argitu ditzala; eta zuen biotzetan berak sortu dezala beraren, eta lagun projimoaren amorio santua, eta eraman zaitzatela eternidade guzian Zeruan bera amatzera, eta gozatzera. Amen.

BEDERATZIGARREN DOTRIÑA

*Nagitasunaren, eta
Azkartasunaren gañean.*

Nekatu bage eztago iñorenzat saririk, N.K.: Des-kansuak, eta kontentuek nekeari darraie; orain zerbait nekatu bear gera, betiko deskansua, eta kontentua gero Zeruan gozatzeko. Orra nagitasuna goitzeko pensamenturik indarsuena. Nagitasuna da pekatu askoren, eta kalte arrigarrien sustraia; eta kontrara dilijenzia, azkartasuna, gogoaren bizitasuna da birtute, eta ondasun andiak dakazkiguna; orra gaurko dotriñaren gaia, zuen atenzio guzia merezi duena.

G. Zer da nagitasuna? **E.** Jaungoikoaren serbizioko, eta gure animen onerako edo salbaziorako obra onak egiteko iguitasuna, atzerapena edo gogoaren urritasuna.

G. Eta zein da nagitasunaren kontrako birtutea? **E.** Dilijenzia, au da obra onak egiteko azkartasuna, bizitasuna, edo gogo bero eragillea.

G. Nagitasuna birtutearen edo gauza espirtualaen iguitasuna dakarren aldetik, zer pekatu da? **E.** 1. Jaun-

goikoaren honrari, eta amorioari dagozkion gauzak igui baditu, eta aezaz tristetzen bada, pekatu mortala da berez; eta ori Jaungoikoaren beraren odio, eta gorrotozko pekatu arrigarria da. 2. Projimoaren ondasun espirituala igui badu, eta arzaz tristetzen bada, ori enbidiazko pekatu mortala da. 3. Bakoitzak, bere one-rako bear dituan birtuteak edo ondasun espiritualak igui baditu, eta ori ezaguera, eta nai edo borondate osoarekin, pekatu mortala da; baña aragiaren aldeko igui antza bakarrik baldin badu, borondateak osoro nai bage edo konsentitu bage, pekatu benial oi da.

G. Eta obra onaen iguitasuna zergatik da pekatu mortala? **E.** Zergatik dan karidadearen kontra; eta dakar berekin Jaungoikoaren adiskidetasunaz tristetzea, zergatik ura izateko birtutezko obra, lan edo exerzizio nekagarriak egin bear dituan; eta ala adiskidetasun ura izateko alegiñik egin nai eztu; baña bat obligatzen ez-tuen birtute partikularrak ezerzitzeko iguia bakarrik badu, pekatu mortala ezta.

G. Baña zer aditu oi degu eskuarkiro nagitasunagatik? **E.** Gauza onak egiten asitzeko pisutasuna, eta atzerapena; eta dakar berekin oztasun bat, eta gogoa-aren epeltasun, urritasun, eta uzkurtasun bat, nekea igui eragiten diguna; eta modu orretan eskuarkiro

pekatu beniala izan oi da; eta bakarrik da pekatu mortala obligaziozko lanak edo beargaiak utzi eragiten digunean; edo Jaungoikoaren mesedeak despreziatu eragiten digunean; ara nola birtutearen nekeagatik damu balu jaio izana; Kristau izatea; edo deseatu balu abere izatea; edo munduan beti bizitzea, emengo ondasun, eta atsegiñaz gozaten, bere betiko zorionaz edo Zeruko gloriaz kasorik batere egin bage.

G. Zein dira nagitasunetik jaio oi diran pekatuak?

E. 1. Nagitasunak txit menderatzen bagaitu, dakar ondasun espiritualak ezertan ez edukitzea edo despreziatzea; eta ori berez maliziazko pekatu mortala da. 2. Gure salbaziorako erreprentio justuak edo abiso onak ematen diguenaen kontra gere barruan aserratztea, eta aen iguia edukitzea. 3. Animoaren edo gogoren falta, eta erabageko deskonfianza obra onak egiteko. 4. Salbazioaz etsitzea edo desesperazioa, nekerik batere artarako artu nai eztuelako. 5. Pisutasuna, eta atzerapena mandamentuak gordetzeko; edo igui antzarekin gordetzeko; 6. Aragiaren, eta munduaren atsegiñetan bere gogo guzia ipintea; eta egiten dituan obra onak ere atenzio bage, eta debozio bage egitea.

G. Nundik sortu oi da nagitasuna? **E.** Gorputzeko atsegiñak geiegi nai izatetik; eta birtuterako nekea igui izatetik.

G. Nolako kalteak dakaz nagitasunak? **E.** Ezin esan al baño geiago, eta andiagoak. Bada gorputzaren aldetik dakatz nagitasunak biotzeko pisutasuna, eta tristura, osasuna laburtzea, ondasunak galtzea, arloteria, eta miseria, eta gizon prestu guzien iguia; eta animaren aldetik dakatzen kalteak agitz dira izugarriagoak, eta hitz gutxitan asko esateko, nagitasunetik datoz animako gaitz guzitak; bada nagiak bizio guzientzat bere biotzeko atea irikirik dauka; eta nagitasunak galdu eragiten dizkigu animako ondasunak, eta irabazi guziak, bada oenzat itxirik dauka nagiak bere animako atea. Baña zuek usteko dezue bearbada, emen aitatzen ditudala bakarrik, nekerik batere egin bage edo txit gutxi nekatzen dirala, bizi diran persona nagi alperrak, jan-edanean, dibersioan, jokuan, eta konbersazioan bakarrik okupatzen diranak; oriek dira, egiaz esateko, nagirik, eta alperrik gaiztoenak; bada gorputzaren, eta animaren aldetik izan oi dira nagiak. Baña badira beargille andien artean ere nagi, alper galantak.

G. Eta oriek zein dira? **E.** Gorputzerako, eta mundurako agitz nekatzen diranak; baña eren animarako, eta Zerua irabazteko batere ez edo gutxi nekatzen diranak nagi, alperrak.

G. Eta gaitz izugarri ori nundik dator Kristauen artean? Eta orren erremedio prinzipala zein da? **E.** Ez dator eskuarkiro nagitasun ori ezagueraren faltatik, baizik konsiderazioaren, eta orazioaren faltatik, lenbizikoa; eta ala erremdiorik eragillena da konsiderazioa, eta orazioa; bada guziok dakizkitzuen fedeko egiak gogoan erabiliko bazinduzke, gorputzerako, eta mundurako egiten dituzuen alegiñak animarako ere egingo zinduzke; eta nagitasuna goituko zenduke; eta orren kontrako birtutea iritsiko zenduke. Zein da nagitasunaren kontrako birtutea? Dilijenzia. Eta zer da dilijenzia? Da gauza onak egiteko borondate edo gogo bizi, bero, eragille bat, au da, Jaungoikoa serbitzeko, eta gure animak salbatzeko, eta gure projimoak ere salbazioko bidera ekarteko alegin egiazkoak eragiten dizkigun birtute bat; eta ori, konsideraziora eta oraziora oitutzen diran Kristauak Jaungoikoaren graziarekin, eta laguntasunarekin iritsi izan due, eta orain ere iristen due; eta ala, Espiritu Santuaren esana da, eta begiz ikusten dana: mundua dagoala galdurik konsi-

derazioaren faltaz. Bada 1. Fedeko gauzen konsiderazioak argitzen gaitu, eta ematen digu gogoia, eta deseoa Jaungoikoa serbitzeko, eta gure animako salbazikoa seguratzeko. 2. Deseo edo gogo orrek alaitzen, eta animatzen gaitu Jaungoikoarekiko, gerekiko, eta gure lagun projimoarekiko ditugun obligazioak ondo ikastera, eta ezagutzera; eta 3. Deseo edo gogo onak gure obligazioen ezaguera orrekin batera, ekartzen gaitu gere buruak ezagutzera; gere argaltasuna, gaitzerako griña gaiztoa, eta birtuterako atzerapena, eta pisutasuna ikusi eragiten digu; eta nola geregan indarririk arkitzen eztegun, bizioak goitzeko, eta birtuteari jarraitzeko, deseo orrek berorrek ekartzen gaitu orobat humiltasunarekin Jaungoikari eskatzera bere grazia, eta indarra Jesu-Kristoren izenean, gere pasio gaiztoak, eta animako etsaiak goitzeko; eta bera biotz guztitik amatzeko; eta Jaungoikoak pozik laguntzen digu, gere partetik deseoa ona, gogoia ona, eta alegiñak egiten ditugula ikusten duanean; eta orrela erraz, eta gogotik Kristauari dagokan bizimodu ona egiten degu. Eta ori guzia datorkigu, asieratik, eta sustraietik bezela Jaungoikoaren argitasun, eta graziarekin batera fedeko egiak gogoan erabiltetik, eta ondo konsideratetik; eta kontrara konsideraziorik batere egiten

ezpadegu, nagitasunak menderatzen gaitu; eta Jaungoikoaz, eta animaz azturik gaudela, gorputzak, eta munduak daramakigu gure atenzio, eta kuidado guzia.

G. Baña bearbada galdetuko didazue, Kristau guziok degu obligazioa fedeko egiak gogora sarri ekarteko? eta aen gañean gere konsiderazioak egiteko? Ezta ori errelijiosoai, eta abadeai dagokien lana? Ezta asko besteenzat, Kredoan, Mandamentuak, Pater nosterra edo Aita gurea, eta Sakramentuak jakitea? Eta noiz edo noiz Kredoan, Aita gurea, eta akto kontriziozkoa edo nere Jesu-Kristo Jauna, errezatzea? **E.** 1. Diot, errelijiosoak, eta abadeak edo elizgizonak obligazio estuagoa duela, obeto jakiteko, eta denbora geiago enpletzeko fedeko misterioak konsideratzen, eta orazio egiten; bada erak birtutean geiago aurreratzeko, eta besteai erakusteko kargu andia due. 2. Diot, Aita gurea, Abe Maria, Kredoan eta akto kontriziozkoa errezatzea berez txit gauza ona, eta probetxu andikoa dala; baña oituraz bakarrik konsiderazio bage, eta zer esaten duen, eta zer eskatzen duen ondo oartu bage, errezatzen badira, txit probetxu gutxi ateratzen dala. Eta 3. Diot, Kredoak erakusten dizkigun egia prinzipalak ondo ezagutzeko, eta konsi-

deratzeko, eta Jaungoikoari bere grazia, eta laguntasuna sarri eskatzeko alegiñak egiten eztituan Kristaua, beti nagitasunaren mendean egongo dala, eta kondentua izateko peligro andian biziko dala.

G. Zein dira bada, nagitasunetik libratzeko, eta gure salbazioaren gogo bizi eragillea iristeko egin bear ditugun kontsiderazioak? **E.** Guztiz asko, eta guztiz egokiak liburu espiritualetan arkitzen dira; eta irakurten dakitenai eren onagatik konseju ematen diet, orrelako liburuetan egunoro zerbait, atenzioarekin, eta probetxu ateratzeko deseoarekin, irakurri dezate-la. Baña guzientzat orain aitatuiko ditut orretarako egokienak deriztedanak: eta dira, guziok dakizkitzuen egien gañean: eta 1. Sarri gogora ekarri, eta kontsideratu bear degu, zertako gure Jaungoikoak mundura ekarri gaituan: ez gaitu egin munduan zorionekoak izateko, baizik orain fedearen argiarekin Jaungoikoa bera ezagutzeko, bera serbitzeko, eta gure biotz guziarekin bera amatzeko; eta gero eternidade guzian Zeruko Erreinuan Jaungoikoa bera argitasun guzian ikusteko; eta beragan kaburik eztuen honrak, ondasunak, eta atsegiñak gozatzeko. Egia au zuen biotzetan ondo sarturik eduki ezazue, eta sarri kontsidera ezazue, eta nagitasunetik libratuko zerate. 2. Kontsidera-

tu ezazue, al dezuen atenzio guziarekin Jaungoikoa zer dan, eta zein maitagarria dan: Jaungoikoa da betidanik berez dana, bera da kabubageko perfekzioak eta anditasunak berez dauzkana; Zeruaren, eta lurra-
ren, eta kreatura guzien egillea bera da, gauza guziak ezerezetik atera edo sortu ditu, eta guziai dauken izatea, eta dituen perfekzioak eman dizte, eta guziak konserbatzen ditu; eta ala Jaungoikoa bera beregan nolakoa dan gure adimentuak ezin klaru, eta argiro ezagutu badu ere, egin dituan obra miragarrietan agiri da klaru, bera dala bakarrik iñori ezer zor eztiona; bera dala betikoa edo eternoa; bera dala guztiz poderoso; bada poderio infinito bat izan bage, ezin ezerezetik sortu, eta atera zitzakean ainbeste kriatura, eta aiñ miragarriak; eta orobat da infinitamente jakinsua, ona, justua, eta perfekzio guzien jabe soberanoa; eta ala da infinitamente maitagarria; eta milla biotz, eta milla bizitza baginduz, bera danagatik, beste bage, merezi du guziak bere amorioan, eta bere serbizioan enpleatzea. Zorionekoak amorio ori bere biotzean daukenak; eta kontrara zorigaiztokoak Jaungoikoaz azturik, eta munduaz zoraturik bizi diran Kristau nagi, alperrak. 3. Gogoan erabili, eta konsideratu bear ditugu ondo gure Jaungoikoak guk merezi bage egin dizki-

gun mesede guztiz andiak; eta zerren guziak dotriña labur batean aitatzea erraz ezta: batez ere ezagutuenak, eta Kredoak berak erakusten dizkigunak ondo pisatu bear ditugu, eta 1. Nola Jaungoikoak bera amatzeko, eta beraz beti Zeruko glorian gozatzeko egin gaituan. 2. Nola bere probidenzia miragarriarekin guziok mantenatzen gaituan; eta gizonaren serbizio-rako beste kreatura guziak sortu dituan, eta mantenatzen dituan. 3. Nola gu pekatutik, eta betiko kondena-ziotik libratzeko, gure pekatuen zorrak pagatzeko, eta guri Zeruko bidea erakusteko eman izan digun gure Jaungoikoak bere Seme maite Jesu-Kristo gure Jauna. 4. Nola gure Jesus ona gugatik gizon egin zan Maria Santisimaren errai garbietan Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez; eta orretan nolako amorio paregabea agertu zigun. 5. Nola Jesu-Kristo gure Jauna jaio zan instantetik bere azkeneko asnasea gurutze Santuan eman zuen bitartean, guzia okupatu zan gure Salbadore, gure Erredentore, eta gure Maisu edo Zerurako gidari, eta erakusle onaren lanak beti egiten; nolako pobreza, humiltasuna, pazienza, obediencia, eta karidadea exerzitate zuen, eta guziori erakutsi zigun. 6. Nolako amorioarekin gugatik eraman zituan bere pasio santuko tormentu ikaragarriak; eta gu

pekatutik, eta betiko eriotzatik libratzeko, jarri zan bera bere borondatez alako eriotza gogorra, eta lotsagarria lapur biren erdian gurutze batean iltzez josirik sufritzeraño; eta au guzian sinisten, eta dakizuen, N.K.: nola lotsatzen etzerate, ikusirik Jesu-Kristo gure Jaunak, bere Aita Eternoaren honragatik, eta zuen salbazioagatik, zenbat alegin egin zituan, eta zenbat sufritu zuen; eta zuek ainbeste zor diozuen Jaungoikoagatik, eta ainbeste inporta dizuen zuen animen salbazioagatik batere nekatu nai etzeratela? Itxumen izugarria! Nagitasun ikaragarria! Bada etzan bukatu Jesu-Kristoren eriotzarekin beraren guganako amorioa. Bera guzien jabe, eta Errege soberanoa izanik, bere gorputza sepulturan egon zan bitartean, Linbora jetxirik aritu zan, an beraren esperanza zeuden ainbeste justuen animak konsolatzen, eta gloriuz betetzen; eta irugarren egunean, biziaren, eta eriotzaren jabe zana bezela, bere birtutez piztu edo erresuzitatu zanean; eta bere erresurrekzioa aiñ nabarrendua, eta ainbeste testimonio edo prueba guztiz ziertu, eta ikusgaiakin mundu guzian sinistu eragin zuenean; zer asmo izan zuela batez ere uste dezue, nere Kristauak? bada zan, beraganako gure fede edo sinistea indartzea; bera zala gure Jaungoiko eta Salbadore egiaz-

koa, guziori batere duda bage sinistu eragitea; eta orobat bera egiaz ill, eta piztu zan ezker, guziok ilko gerala; baño baita guziok piztuko ere gerala; eta anima, eta gorputza betiko alkarrekin uniturik, biak edo beti zorionekoak edo beti zorigaitzokoak izan bearko duela; edo betiko gloria edo betiko Infernua izan bearko degula erakustea; eta au guzia sinisten degunok nola esnatzen ez gera gure lo pisutik; eta nola gure betiko zoriona, ala gorputzarena, nola animarena seguratzeko alegin geiago egiten eztegu? Orra nola gure nagitasuna konsiderazioaren faltatik datorkigun; eta ori guzia orobat aditzera ematen digu Jesu-Kristo gure Jaunak bere Zerurako igoera edo Aszenzio miragarriarekin, eta andik berriz guziok juzgatzera etorriko dalako egiaz izugarriarekin eta ez gutxiago Espiritu Santuaren etorrera amoriozkoarekin eta munduan egin zuen mudanza miragarriarekin; bere Eliza Santaren fundazio milagrosoarekin; pekatuen barkaziorako utzi zizkan Sakramentu santuakin; eta aragiaren erresurrekzioaren, eta betiko edo sekulako bizitzaren artikulu edo egia guztiz inportantearekin. Konsidera ditzakun bada ondo, eta sarri kredoan dauzkagun egia edo misterio prinzipalak, eta gu esnatu edo pizkortuko gera. Bada amar mandamentu san-

tuen, eta orazioaren, eta Sakramentuen dotriñarekin, orobat ikusten degu gure Jaungoikoaren guganako amorio guztiz andia; eta batez ere nola argitzen gaituan bizimodu santu bat egiteko erregla txit zuzenak emanarekin; eta nola bear ditugun indarrak, eta graziaren sokorru edo laguntasun andiak orazioaren, eta Sakramentuen bitartez ematen dizkigun. Baña ori guztia konsideraziorik egiten eztuen nagi alperrarenzat frutu bage gelditzen da; eta argatik N.K., berriz diot, arren oitu zaitezela esan ditudan konsiderazioak egitera; eta Jaungoikoari bere argia, eta grazia sarri eskatzera; eta zuen biotzetan sortuko da Jaungoikoa amatzeko, eta benetan serbitzeko, eta orrela zuen salbazioa seguratzeko deseo bizi edo gogo eragillea, eta orrek bizimodu on bat egiteko neurriak artu eragingo dizue; eta orrela libratuko zerate nagitasunetik; gogotik peleatuko dezue zuen animako etsaien kontra; goituko dituzue, ainbeste pekatu eragin oi dizuen bizio kapitalak, au da arrotasuna edo soberbia, abarizia, lujuria, ira, gula, eta enbidia; eta orien kontrako birtuteakin, au da humiltasunarekin, liberaltasunarekin, kastidadearekin, pazienziarekin, tenplanzarekin, eta karidade egiazkoarekin iritsiko dezue koroa guztiz preziatu eder bat; eta bertatik abiatuko zerate eguno-

ro argitasun geiagorekin Zeruko gauzak ezagutzen; Zeruko bidean gogo biziarekin ibiltzen; barruko libertade santu, eta pake gozo bat gustatzen; eta iñoiz argalak bezela utsegiteren bat edo beste egiñ arren errazago humillatuko zerate; eta konsiderazioarekin, eta orazioarekin, erremediatzeko indarrak iritsiko dituzue; bada eztegu iñoiz etsi bear, baizik humillatu, eta Jaungoikoari falta zakun indarra gogotik eskatu, eta garaia irabaziko degu; baña gure fede Santuko egia andiak gogora ekarri, eta konsideratzen ezpadituzue, itxu batzuek bezela biziko zerate; Zeruko bidean lasterka ibilli ordean, Infernuko bideari jarraioko diozue; deabruak, aragiak, eta munduak menderatuko zaitue; eta orain neke piska bat artu bagez, betiko atsedena edo deskansua, eta betiko gloria galduko dezue, eta eternidade guziko pena, neke, eta tormentuak zeuron buruai ekarriko diezue; Ebanjelio Santuak aitatzen dituan serbitzari alperrak, eta birjiña zoroak beren buruai ekarri zien bezela, obra onak egiteko izan zuen nagitasunagatik.

Animo bada, N.K.: eternidade bat, betikotasun bat edo penazkoa edo gloriatzkoa, zuen oraingo bizimoduak erabakiko du; denboraz igarotzen, eta bukatzen diran nekeak utsak bezela dira beti-beti iraungo duen

neke, eta tormentuen aldean; eta betiko gloriaren anditasunak merezi du edozein neke, eta trabaju pozik oraiñ artzea, ura seguratzegatik. Jaungoikoak bada, arren, guziok argitu gaitzala, eta digula gogo bizi eragille bat, gure pasio erabageak ezitzeko; emengo naigabeak pazienziarekin sufritzeko; al ditugun obra on guziak gogotik egiteko; eta azkenik Jaungoikoaren beraren borondate santua gauza guzietan egiteko; eta orren ondoren betiko deskansua, eta pakea Zeruko glorian. Amen.

AMARGARREN DOTRIÑA

Birtute kardinalaen gañean.

Zazpi pekatu kapitalak edo burudunak, eta aen kontrako birtute, eta erremedioak aditzera eman dizuet aurreko dotriñetan. Eta zuen bizimoduan guziok exerzitate bear dituzuen birtute prinzipalak orain laburtxo aditzera eman nai dizuet: birtutearen ezaguera geiago izan dezazuen; eta birtuteari gogotiago jarraio degiozuen. Atenzioa bada eskatzen dizuet.

G. Zer egin bear degu pekatuak eskusatzeko edo pekaturik ez egiteko? **E.** Birtuteak exerzitate bear ditugu: zergatik birtuteari ezterraiona, nai ta ez pekatuaren mendean biziko da.

G. Zer da birtutea? **E.** Ondo bizitzeko laguntzen digun doai bat, gure bizimoduari dagozkion obra onak erraz egitera mugitzen gaituana.

G. Birtute guziak erabatekoak dira? **E.** Ez: batzuek dira naturalak, gizonak bere ezaguera edo arrazoi naturalarekin iritsi, eta exerzitate ditzakeanak; eta oriek Kristaueetan ezeze, fedebageetan arkitu ditezke

fin ona, eta bide onak eren lanetarako billatzen badi-
tuzte. Beste birtute batzuek dira naturalezaz gañeko-
ak, fedearen argiarekin ezagutzen diranak, eta Jaun-
goikoak bere graziarekin gure animetan sortu erazo-
tzen dituenak; eta oek Kristauetan bakarrik arkitzen
dira.

G. Beraz zer da Kristauzko birtutea? **E.** Da Jaungoi-
koak bere graziaz ematen digun doai bat, Kristauaren
bizimoduari dagozkion lanak edo obra onak egiteko
argia, eta erraztasuna ematen diguna; eta ala Kristau
onak, eta birtutetsuak egiten gaitu, eta Zerurako
ondasun andiak irabazi eragiten dizkigu.

G. Kristauen birtuteak zenbat eratara dira? **E.** Dira
era bitakoak: batzuei deitzen diegu, birtute Teologa-
lak edo Jaungoikozkoak; eta besteai deitzen diegu, bir-
tute moralak, obra onak nola zuzendu edo ondo egin
erakusten diguenak; eta artarako laguntzen diguenak.

G. Zein dira birtute Teologalak edo Jaungoikozko-
ak? **E.** Dirade Jaungoikoari zuzen begiraten diobenak;
eta oek diade Fedea, Esperanza, eta karidatea; bada
Fedearekin, Jaungoikoagan sinisten degu, eta begira-
tzen diogu egia soberanoari bezela. Esperanzarekin
Jaungoikoaz beraz beti gozatzea, esperatzen degu;
eta Karidatearekin, Jaungoikoa bera amatzen degu;

eta ala iru birtute oek Jaungoikoari berari zuzen begiratzen diobe, eta dira birtuteetan andienak; eta oen artean karidadea da andiena; aurrera beste aldi batean esango dizuedan bezela.

G. Eta zein dira birtute moralak? **E.** Txit asko dira; baña prinzipalenak, eta beste guzien buruak, eta iturriak bezela, dira lau: eta deitzen diegu birtute kardinalak, zerren diran beste birtuteen fundamentuak, eta dirade prudenzia, justizia, fortaleza, eta tenplanza.

G. Eta zergatik lau birtute oek ez dira besteak bezela deitzen Teologalak edo Jaungoikozkoak? **E.** Zergatik eztiobe Jaungoikoari begiratzen aek bezela; eta oen lan prinzipala da, gure bizimodua zuzentzea; gure oiturak, kostunbreak, eta birtutezko obrak, nola ondo arreglatu erakustea; baña ori guzia azkenik Jaungoikoagana zuzendu bear degu; bada gure akzioak edo lanak Zerurako onak izateko, Jaungoikoagatik egin bear ditugu.

G. Orrela Kristaueetan Jaungoikoaren amoriotik due eren etorkia birtute oriek? **E.** Bai: eta San Agustiñekin batera esan dezakegu, Kristaueetan birtute oriek dirala Jaungoikoaren amorioa; eta oni izen diferenteak ematen diozkagula, eragiten dituan efeko diferenteaz batera. (*Apud Pouget T. 2. f. 232*).

G. Kristauzko prudenzia zer da? **E.** Da birtute bat (euskeraz zuzentasuna esan deikiogu) ezagutu, eta artu eragiten diguna Jaungoikoagana garamazan bidea; eta alde eragiten edo apartatzen gaituana ura galdu eragiten digun bidetik; eta ala batari ondo deritzogu, eta maite degu; eta besteari gaizki deritzogu: (*ibid.*) eta orri dagokala esaten degu; Prudenziak billa eragiten digula fin ona; eta ura iristeko medio onak, eta egokiak.

G. Eta zein dira prudenziatik jaiotzen diran birtuteak, eta ari darraizkanak? **E.** Dirade 1. Aurretik gertatutako gauzak gogoan edukitzea, obeto bere gauzetan gobernatzeko. 2. Bertan edo orain gertatzen diran gauzaz ondo kargu egitea. 3. Zer etorri ditekean ondo pensatzea. 4. Uste bage edo supitoan datozkigun okasioetan partidu on bat artzeko zinzotasuna edo diskrezioa. 5. Dudako gauzetan besteen konseju onaz baliatzeke erraztasuna. 6. Arrazoiari ondo jarraitzea. 7. Kabu guziai ondo begiratze, ala dagoan lekuari, nola denborari, nola personai ondo kontu artuaz. 8. Etorri leizkion peligrak, eta naigabeak aurretik pensatzea, eta eskusatzeko bideak artzea. Eta 9. Dilijenzia edo azkartasuna medio onak bertatik billatzeko. Orra prudenziari darraizkan birtuteak; eta ori guzia iritsiko

dezue, Jaungoikoari bere argia eskatuaz, eta fedearen argiarekin zuen biotzak zuzenduaz.

G. Eta zein dira prudenziaren kontrako bizoak? **E.** Dirade 1. Kontsideraziorik egin bage, orain esan ditugun birtuteai kasorik ez egitea; eta 2. Da, espirituko prudenziari gerra egiten dion aragizko prudenzia; eta erabage, eta biziro deseatzen dituan munduko honra, ondasunak, eta atsegiñak iristeko medio egokiak artu eragiten dituan zinzotasuna, eta astuzia; begiratu bage onak edo gaiztoak diran artzen dituan medioak, eta neurriak; onelakoak ziran Ebanjelioak aitatzen duen maiordomoak artu zituan medioak bere nagusiaren kaltean: maisterrai barkatuaz zor zuenetik; nagusiak despeitzen zuenean, aen aldetik alibioren bat izateko; eta Jesu-Kristok berak deitu zion, prudentea, eta zinzoa, baña falsoa. Eta ala egiazko zinzotasuna, eta Kristauzko prudenzia edukitzeko, fin ona bere gauzetan billatu bear du, eta artarako egoki diran medio onak esleitu bear ditu; eta orrela bere egitekoetan zuzen ibilliko da, eta bere lan guziak Jaungoikoagana zuzenduko ditu.

G. Zein da bigarren birtute kardinala? **E.** Justizia. Eta zer da justizia? Era askotara hitz au aditu diteke; bada generalkiro aditzen bada, esan nai du, birtute

guziak edukitzea; Jaungoikoaren eta projimoaren amorio egiazkoa bere biotzean edukitzea, Jaungoikoaren adiskide izatea, eta aren grazian egotea; eta orri dagokala, Jesu-Kristok esan zuen, zorionekoak dirala justiziaren gosea, eta egarria duenak; baña birtute partikularra, eta kardinala danez, esan nai du, bakoitzari zor zaiona edo dagokiona eman eragiten digun Jaungoikozko doai edo birtute bat; eta ala gorde eragiten dizkigu Jaungoikoari, gere buruari, eta gere projimoari zor diegun obligazioak.

G. Zein dira justiziatik jaiotzen diran, eta ari darraizkan birtuteak? **E.** Dirade 1. Errelijioa, Jaungoikoari zor diogun honra eman eragiten diguna. 2. Piedadea, gurasoi zor diegun errespetoa eman eragiten diguna. 3. Obedientzia, eta esker ona. 4. Egiaren amorioa. 5. Merezi duenai kastigu justuak ematea, eskualdia artarako eduki ezkerro. Eta 6. Liberaltasuna, eta 7. Adiskidetasuna. Orra zein birtute ederrak, Jaungoikoarekiko, berekiko, eta projimo guziakiko gizona justu egiten duen.

G. Eta zein dira birtute orren kontrako bizioak? **E.** Ezta biziorik nolabait justiziaren kontra eztanik; bada gure utsegite, eta pekatu guziak datoz; zerren edo Jaungoikoari edo gere buruari edo projimoari zor die-

guna gordetzen edo kunplitzen eztegun; eta ori beste bizioen, eta birtuteen explikazioan, eta are obeto mandamentuen explikazioan argiro aditzera ematen degu; eta emen bakarrik diot, ze justiziaren kontra pekatu egin oi dala ez bakarrik bear danean justizia egin bagez, baita ere justiziaren gogortasunaz, batez ere kastigu andiegiak emanaz; eta baita artzekoak, zordun pobrearen kalte andiarekin, eperik eman bage, gogorkiro kobratuaz; eta alako bat Jesu-Kristok berak txit erreprenditu zuen Ebanjelioko parabola batean.

G. Eta zein da irugarren birtute kardinala? **E.** Da fortaleza. Eta zer da fortaleza? Da birtute bat, animatzen, eta indartzen gaituana edozein neke sufritzera pekaturik ez egiteagatik; eta difikultade guziak goitzera Jaungoikoaren honrari, eta gure obligazioari ez faltatzeagatik; eta eltzen da fortalezako birtute au eriotza bera sufritzeraño, eta Jaungoikoagatik bizia emateraño, premia edo obligazioak ala eskatzen duenean; eta ala birtute miragarri onekin ainbeste milloi Martiri Santuak aiñ tormentu arrigarriak, eta eriotza gogorak sufritu zituen; eta eren etsaiak lotsaturik, eta goiturik utzi zituen. Eta orobat gerra justuan izan dira gizon baleroso asko miragarrizko biktoriak fortalezako birtute onekin iritsi dituenak.

G. Zein dira fortalezatik jaiotzen diran, eta ari darraizkan birtuteak? **E.** Dirade biotzaren anditasuna; naigabeetan pazientzia; obra onetan iraupena edo perseberanzia; eta kostu andiko obrak eragiten dituan magnifizenzia, edo artareko animo andia; baña ez banidadezko kostu andiak eragiten dituana, baizik Elizaren onerako, Kristau guzien probetxurako, nezesidade edo premia publikoak edo komunak erremedia-tzeko, asmo edo fin ona, eta medio egokiak billatzen dituala.

G. Eta zein dira fortalezaren kontrako bizioak? **E.**

1. Erabageko ausardia edo presunzioa; arrisku edo peligroetan, ondo begiratu bage sartzeko; edo bere indarrak baño andiagoak diran lanak artzeko; eta
2. Kontrara bildur geiegi edukitzea edo animoaren argaltasuna obra onak egiteko, eta gogotik pelearzeko, eta bere animako etsaiak goitzeko; eta bizio bi oetatik libratzeko, eta fortalezako birtutea iristeko, beste birtute bi, txit premiazkoak exerzitate bear ditugu: bata da egiazko humiltasuna, gere ezereza, miseria, eta argaltasuna ezagutu eragiten diguna, ausardiatik, eta presunziotik libratzeko; eta bestea da, Jaungoikagana-ko konfianza, bada aren Majestadeari, humiltasunarekin, eta konfianzarekin bere grazia, eta falta zakun

indarra eskatzen badiogu, berak emango digu fortalezako birtute miragarri au, eta gure animako etsai gaiztoak, au da gure pasio erabageak, eta tentazioak goituko ditugu.

G. Eta zein da laugarren birtute kardinala? **E.** Da tenplanza. Eta zer da tenplanza? Da birtute bat gure anima gorputzaren atsegin erabageetatik ateratzen, eta apartatzen duena; eta mundu onetako gauzaz nola usatu, eta baliatu erakusten diguna, gure premiai, eta obligazioai kobru emateko bakarrik billatzen ditugula: aetan gure biotza edo amorioa ipiñi bage. Eta batez ere tenplanzako birtutea exerzitatzen degu edo ari garraizka janean, eta edanean fin ona, neurri ona, eta modu ona gordetzen degunean. Eta birtute onen probetxu, eta ondasunak aditzera eman nizuen, gulako bizoa, eta aren kontrako erremedioak esplikatzen nizkizuenean.

G. Zein dira tenplanzatik jaiotzen diran, eta ari darraizkan birtuteak? **E.** Dirade 1. Honestidadea, eta lotsa ona. 2. Jan-edanean begiratu, eta kontuzkoa izatea, bakoitzaren premiaz batera. 3. Kastidadea, eta sentidu guziak arrazoiaren mendean edukitzea. 4. Guziakin biguña, errukitsua, eta ongille izatea. 5. Modestia, eta humiltasuna. 6. Mingaña ondo gorde-

tzea, eta gobernatzea: bear danean ixiltasuna, eta hitz egin bear danean modu ona edukitzeko. 7. Bakoi-tzaren bizimoduari dagokion lanerako edo okupaziorako estudioa, jarraioa edo aplikazioa. 8. Iñor ofenditu edo aserratu bage, humore ona, eta bear danean dibersio edo jostatze dezentea, eta ondo arreglatua.

G. Eta zein dira tenplazaren kontrako bizioak, eta utsegiteak? **E.** Dirade, erabageko jan-edanak: ergelkeriak edo arinkeriak; lujuria edo loikeria; sentiduai erabageko gusto atsegiñak ematea; banidadezko, eta modestiaren kontrako janziak, eta apaindurak; neurri onik, eta modu onik ez edukitzea, lo egitean edo ez egitean, dibertitzean edo ez dibertitzean, au da, jostatzean edo ez jostatzean, arrazoiak edo premiak eskatzen duenean; geiegi nekatzean edo batere ez nekatzean, alegrian, eta tristuran, hitz egin bear danean ixilik egotean, edo kontrara ixilik egon bear danean hitz jarria edo hitzonzia izatean, etc. Bada bizioetatik libratzeko tenplazaren birtuteari jarraio, eta arren erregelak gorde bear ditugu.

G. Esan ditugun lau birtute kardinalak, eta aetatik datozen edo aei darraizten beste birtute moralak eragiten dizkiguen obra onak noiz dira natural utsak, eta noiz dira naturalezaz gañeakoak edo goikoak? **E.** Egi-

ten baditugu lurreko motiboakgatik, dira birtute natural utsak: eta orduan Zerurako irabazirik batere egiten eztegu; eta ala limosna egiten badegu munduko errespetoz, eztigu ezer balio Zerurako etc. Baña birtuteen ekiera edo exerzizioari bagarraio Zeruko motiboakgatik, orduan dira naturalezaz gañekoak edo goikoak, eta Jaungoikoaren grazian edo adiskidetasunean bagaude, ondasun andiak Zerurako irabazten ditugu.

G. Zer motibo edo zer asmo eduki edo izan bear degu birtutezko lanak edo obra onak egiten ditugunean? **E.** Prinzipalena izan bear degu, Jaungoikoari atsegin ematea; aren borondatea edo naia dan ezkerro, birtuteari guk jarraitzea, eta birtutean, eta santidadean egunetik egunera geiago aurreratzea; eta orretara mobitu bear gaitu, Jaungoikoari zor diogunaren konsiderazioak, ala bera danagatik, au da, bere ontasun, eta anditasun kabubageagatik, nola egin dizkigun eta egunoro, guk merezi bage, egiten dizkigun mesede guztiz andiakgatik; bada egiñal guzia egiñarren eztiogu osoro gure zorra pagatuko; eta ori obeto egiteko, eta gure obra onak balio guztiz andi batera jasotzeko, unitu edo juntatu bear ditugu Jesu-Kristo gure Jaunak bere Aita Eternoari atsegin emateko, egin zituan obra onakin, eta berak zuen asmo edo intenzio-

arekin; eta bide orrezaz ezbakarrik birtutezko obrak; baita nai ta ez egin bear ditugun egunoroko lanak, eta beargaiak jaso ditzakegu Zerurako irabazi andiagoak izatera; eta ori San Paulo Apostoluak erakusten digu esaten digula: naiz jan, naiz edan, eta naiz beste edozein lan, egin dezagula Jesu-Kristoren izenean, eta ark zuen intenzioarekin batera. Orra bide erraza, Zerurako tesoro edo ondasun guztiz andiak irabazteko, ta anima edertzeko.

G. Zerk geiago mugitu bear gaitu birtutezko lanak egitera? **E.** Birtutearen beraren edertasunak, eta aren balio, eta irabazi guztiz andiak. Anziñako jakinsuak, fedearen argi bage, eta Zeruko gloriaren uste bage, ainbesteraño estimatzen edo preziatzen zuen birtutea: nun aren aldean ezertan etzeuzkaten munduko Erreinuak, anditasunak, aberastasunak, eta atsegiñak; eta ori, izanik aen birtute guzia natural utsa, lurreko, arrazoiaren gañean bakarrik fundatua, eta lurreko ontasunari baizik begiratzen etziona. Zenbat ederragoa, eta preziatuagoa izango da bada Zerutik bere jaidura edo etorkia duen birtutea, Jaungoikoarekin bat egiten edo laztantzen gaituana, eta Zeruko ondasun eternoak irabazi eragiten diguna?

G. Eta bada beste motiborik birtuteari jarraitzera, eta birtutezko lanak ugari, eta alik ondoena egitera ekarri bear gaituanik? **E.** Bai: eta guztiz asko, eta eragilleak ditugu; bada geroko betiko gaitzetatik edo Infernutik libratuaz gañera; eta betiko Zeruko poz, eta atsegiñak irabazi eragiñaz gañera; bertatik ere birtuteari gogotik darraion Kristauak 1. Honra edo estimazio andia. 2. Gorputzeko osasuna, eta 3. Ondo dagozkion ondasunak, eta 4. Bere animako pakea eskuarkiro gozaten ditu. Eta 1. Ikusten dezue guziok nola Kristau onak Jaungoikoarekiko, eta bere lagun urko edo projimoarekiko dituan obligazioak kontuz gordetzen dituan; iñori bidebagerik edo dañurik egiten eztion, eta al duen on guzia guziaz egiten dien; eta ala guziak alakoa maite due, estimatzen, eta honratzen due; eta Jaungoikoak berak ezin geiagoraño honra erazotzen du. Begira ezazue ezpada, beste asko aita-tu bage utzirik, San Isidro bat, eta bere emazte Santa Maria, nekazari pobretxo batzuek, zenbateraño honratuak izan ziran munduan beren birtuteagatik; eta orain ere nolako honra, eta gloria gozaten duen Zeruan ezeze lurrean ere.

Bada 2. Au da, gorputzeko osasuna Kristau birtuosok eskuarkiro obeto, ta luzaroago konserbatzen du:

zergatik bere humiltasunarekin, bere pazienziarekin, bere tenplanzarekin, bere kastidadearekin, eta bere bizimodu ondo moldatuarekin erabageko jan-edanak, aserreak, eta osasuna galdu eragin oi duen bizioak eskusatzen edo goizen ditu.

Eta 3. Au da, ondo dagozkion ondasunak ere aurreratzen ditu: zerren alde batetik gastu alper erabageak eskusatzen ditu; bestetik alpertasunari alde egiten dio; denbora ondo igarotzen du; bere familia ondo gobernatzen, eta zuzentzen du; eta Jaungoikoak alakoaren nekeari, eta bearrari bere bendizioa ugari ematen dio. Eta kontrara ikusten dezue, Kristau bizio-soa, ardurabagea, beti arlote, beti zordun, eta aurreratu ordean, dauzkan ondasunak ere laster ondatzen dituela.

Bada 4. Au da animako pakea nork obeto gozatzen du, Kristau on birtuosoak baño? bada beti pakean dago Jaungoikoarekin, bere lagun urko edo projimoarekin, eta bere konzienziarekin; zerren utsegite andirik edo pekatu larririk egin oi eztu; eta utsegite txikiak humillatzeko, eta ez arrotzeko serbitu oi diobe; eta naigabe, eta atsekabe andiren batzuek gertatzen bazaiozka edo bere estimazioan edo bere osasunean edo bere ondasunetan, Jaungoikoaren eskutik datoz-

kion penak edo kastiguak bezela pazienziarekin daramazki; eta aekin Zerurako ondasun andiak irabazten ditu; eta erraz Jaungoikoaren borondatearekin berea bat egiten edo konformatzen du; eta pakean gelditzen da. Eta eriotzari berari ere begiratzen dio bere neke guzian bukaerari, eta bere zorionaren asierari bezela. Baña Kristau biziosoak alperrik neke andiarekin bere pasio edo griña gaiztoak osatzeko alegiñak egiten ditu, eta gizonen begietatik ezkututzen ditu; Jaungoikoaren, eta bere konzienziaren atelekak, eta erreprentzioak beti darraie, beti kezkatan bizi da; iñoiz egiazko pake, atsedeen edo sosegurik bere barruan eztauka; eta penitentzia egiazko batekin lenaz prestatzen ezpada, zenbat eriotzaren gertuago anbat naigabetuago, eta turbatuago arkitzen da; eta dijoa, iñoiz pakerik izango ez tuen zorigaiztoko tokira, betiko Infernura.

Erruki itzatzue bada, N.K. zuen buruak; zuen anima gaixoak; birtuteari orain jarraitzeko neke piska bat gogotik artu ezazue: orretara oitu ezkerro, egunoro nekea arinduko zatzue; bada Jaungoikoaren amorioak, aren graziak, eta oitura onak birtutean atsegin, poz, eta kontentu andiagoak arkitu eragingo dizue, bizioetan, eta munduaren, eta gorputzaren atsegin

debe katuetan arkitu ditezkean baño. Jarraio bada, N.K. konsiderazioari, orazioari, eta zuen pasio gaiztoen mortifikazioari; eta orren frutua izango da, orain animako pakea, eta gero betiko gloria. Amen.

AMAIKAGARREN DOTRIÑA

Amar mandamentuenzat sarrera.

Aditzera eman ditugun ezkerro pekatuen sustraiak edo bizio burudunak edo kapitatak, eta aen erremedioak: eta baita lau birtute kardinalak edo prinzipalak, eta aetatik jaiotzen diran beste birtute moralak edo gure egitekoen zuzentzalleak: orain Jaungoikoaren legeko amar mandamentu santuak erakusten diguen dotriña andia, eta premiazkoa esplikatzen abiatu bear degu: eta lenengo, dotriñako kartillarekin, galdetzen det.

G. Arrazoiaren adiñera edo ezaguerara etorri ezkerro, Kristauak jakin bear duen irugarren gauza zer da?

E. Zer obratu bear duen edo nolako bizimodua egin bear duen ondo jakitea.

G. Eta nola jakingo du, zer obratu, eta nola bizi bear duen? **E.** Jakiñarekin Jaungoikoaren legeko amar mandamentu edo aginteak; Eliza Ama Santarenak; eta miserikordiazko obrak.

Esan ditzakun bada lenengo amar aginte edo mandamentuak: eta ondoren esango dizuet gaur, 1.

nork, eta nola emanak diran: 2. zein premiazkoak diran: 3. zein probetxugarriak diran: 4. zein errazak diran: eta azkenik nola guziak Jaungoikoaren, eta gure lagun urko edo projimoaren amorioan sarturik dauden.

Jaungoikoaren legeko mandamentu edo aginteak dira amar: lenbiziko irurak dagozkio Jaungoikoaren honrari: eta beste zazpiak lagun urko edo gure projimoaren onari.

Lenengoa da: Jaungoikoa amatzea gauza guziena gañean.

Bigarrena: Jaungoikoaren izen Santuan juramentu alperrik ez egitea.

Irugarrena: jai egunak santifikatzea.

Laugarrena: Aita, eta Ama edo gurasoak honratzea.

Bostgarrena: ez inor iltzea.

Seigarrena: aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena: ez ostutzea.

Zortzigarrena: Testimonio falsorik ez altxatzea, eta gezurrik ez esatea.

Bederatzigarrena: lagun urkoaren edo projimoaren emazterik ez deseitzea.

Amargarrena: besteren ondasunik ez gutiziatzea.

Amar mandamentu edo aginte oek sartzen dira bitan: 1. Jaungoikoa serbitu, eta amatzean gauza guziena gañean: eta 2. zure lagun, geide edo projimoa zere burua bezela amatzean. Asi gaitzen orain esplikazioarekin.

1. **G.** Zergatik amar mandamentu edo aginte oek deitzen dira Jaungoikoaren legekoak? **E.** Zergatik ez tiran gizonak asmatuak, egiñak edo zuzenduak; ezpada Jaungoikoak berak; poderio, eta jakinduria neurribagea duenak: gure guziona Jaun, eta jabe soberanoa danak: nai duen guzia agintzeko, eta guri eragiteko eskua duenak: eta ezertan ezin utsik egin dezakeanak: gure argaltasunaren berri ondo dakienak: bere legea gordetzeko bear degun grazia, eta indarra emateko beti prest dagoanak: eta azkenik gure onerako, gure pakerako, eta zorionerako ondoena zer dagokigun, iñork baño obeto, dakian, gure Egille, eta Aita onak emanak dira amar mandamentuak edo aginteak: eta ala agitz estimatu, ondo ikasi, eta kontuz gorde bear ditugu.

G. Nola eman zizkigun gure Jaungoikoak mandamentu oek? **E.** 1. Aren Majestadeak berak ezarri, eta estanpatu zituan gure animetan, eta biotzetan; arrazoiaren argia, eta onaren, eta gaitzaren ezaguera edo

berezko lege naturala, gure barrunpean eman zigunean: bada guziok, gerez daukagun ezaguera onekin, dakigu, ondo dana egin bear dala, eta gaizto dana egin bear eztala: eta ortik dator, berez bezela, amar mandamentuak edo aginteak: eta ala arrazoiaren berezko argiarekin ezagutzen degu, gure Jaungoikoa guzian Egille, eta Jabe soberanoa bezela, amatu, honratu, eta serbitu bear degula: eta orretarako aren borondate edo naia egin bear degula: iñori gaitzik egin bear eztiogula: guri bestek egitea nai eztegun gaitzik, guk ere besteri egin bear eztiogula: eta besteak guri egitea nai degun ona edo mesedea, guk ere besteai egin bear diegula: eta lege natural onekin bakarrik bizi izan ziran gizonak bi milla, eta bost eun urtean, gutxi gora bera: baña jatorrizko pekatuarekin, eta onek dakarren illuntasun edo jakineztasunarekin, eta gaitzerako griña, eta leia fortizarekin, eta deabruak ematen zien itxumenarekin ainbesteraño gaiztotu ziran gizonik geienak, nun arrazoiaren argiari, eta lege naturalari etzioben begiratzen: eta gaiztakeri arrigarrietan ondaturik bizi ziran; eta ori argiro ikusi zan, zortzi persona ez, ze munduko beste gizon, eta emakume guziak, txiki, eta andiak, dilubio edo ugalde jeneralarekin Jaungoikoak ito, eta illerazi zituanean:

bada, Eskritura Santak dionez, munduko guziak gaiz-
takeriz beterik zeuden: eta orobat ikusi zan, dilubioa
ezkero, Sodomako Ziudadea, eta aren erri lagunak,
suzko dilubio batekin erre, kiskaldu, eta bukatu zitua-
nean, amar persona inozente edo justuak bedere
aetan arkitzen etziralako: eta are obeto ikusi zan mun-
dukoen illuntasun, eta gaiztakeri arrigarria, Jaungoiko
egiazkoari larga, eta gezurrezko Jaungoiko edo Idolo-
ak adoratzera jarri ziranean. Eta argatik Jaungoikoa-
ren Majestadeak Hebreotarrak, Abrahan Patriarkaren
ondorengoak, bere pueblotzat esleitu ezkero; eta aek
Ejiptoko Faraon Errege gogorraren mendetik, mirari
edo prodijio arrigarriakin atera edo libratu ezkero,
Moises Profeta andiaren bitartez, eman zien berriro
explikaturik: eta arrizko losa edo ol bitan ezarririk, eta
eskribiturik: eta Moisesek, Sinaiko mendian, Jaungoi-
koarekin, berrogei egun, eta gau, tratatu, edo komu-
nikatu ezkero, eta beragandik lege ori, eta puebloa
ondo gobernatzeko bear zituan gañerako aginte edo
ordenak artu ezkero; barreatu edo publikatu zuen
amar mandamentuen lege eskribitua guztizko era bil-
durgarri edo izugarri batekin: bada pueblo guzia men-
diaren azpiko aldean zegoala, mendiaren agertu zan
odei ikaragarri bat, guzia suz, kez, trumoiez, eta txi-

mistaz beterik: eta odei artetik, guziak enzuten zuela, irten zan tronpeta izugarri baten soñuarekin, ots edo oi u andi bat, esaten ziela: «Ni naiz, zure Jaun-Jaungoikoa Ejiptoko nekepetik edo naigabeetatik atera zaitudana. 1. Eztezu iñola ere nere aurrean ni beste Jaungoikorik edukiko: eztezu egingo Idolorik batere: ez eta gezurrezko Jaungoikoaren antz, iduri edo imajiñarik, ari agurrak egiteko, edo adoratzeko: 2. eztezu juramentu alperrik zere Jaunaren izenean egingo»: eta onela beste mandamentuak pueblo guziari aditzera eman zitzaizkan: da mandamentuak ezarririk edo eskribiturik zeuzkaten ol biak gorde zituan Moisesek urrez estalirik zegoan alianzako arka edo kutxatxoan errespeto guziz andiarekin, iñoiz ere galdu, eta aztu etzedin, Jaungoikoak berak eman zien lege santua.

G. Eta Jaungoikoak lege zarrean Moisesen bitartez eman zituan mandamentuak nai ta ez Kristauok gordetzera premiaturik, bearturik, edo obligaturik gaude?

E. Orri eranzuteko; jakin bear dezue, Jaungoikoak Moisesi iru lege mota eman ziozkala: 1. esan ditugun amar mandamentuena: 2. Justiziako lanak edo puebloa ondo gobernatzeko erregelak edo mandamentuak zituan legea: eta 3. denbora artako sakrifizioak

nolakoak izan bear zuen; eta aek egiteko modua erakusten zuen legea.

Bada 1. diot, eze orduko sakrifizioen legea bukatu zala, Jesu-Kristo gure Jaunak bere buruaren sakrifizioa Gurutze santuan ofrezitu zuenean. Bada lenagoko sakrifizio guziak Jesu-Kristoren sakrifizioaren figurak, antzak edo itzalak ziran: eta aek akabatu edo bukatu bear zuen, egia bera agertu ezker. Eta 2. diot, eze justiziako, eta gobernu oneko legeak Jesu-Kristok eutzi zituala bere Eliza berriaren aukeran, nai zituanak edo ondo zegozkionak artzeko, eta besteak uzteko: eta ala Eliza Ama Santak, amarrenak pagatzeko orduro legea orain ere gorde eragiten du: orduan bezela Elizako Ministroak orain ere mantenatu edo sostendu bear diran ezker. Baña amar mandamentuen legea, nola dan lege naturala bera; Jaungoikoak berak arrazoiaren argiarekin batera gure animetan ezarria; Jesu-Kristok ezin desegin zezakean: eta ez bakarrik onzat eman, aprobatu, eta konfirmatu zuen, eta gordetzeko agindu zuen, baizik berak perfekzio geiagorekin azaldu edo explikatu zuen: eta biotzez, gogoz, eta amorioz gordetzeko grazia, eta indarra ematen digu: eta argatik San Juan Ebanjelistak esaten digu, ze Moisesen bitartez Jaungoikoak legea eman zuela: baña ori erraz ta ondo

gordetzeko grazia, eta indarra Jesu-Kristok ekarri digula: (bada legea jakiteak etzigun serbituko, ura gordetzeko indarrrik ematen ezpaziguen:) Jesu-Kristori bada millarezko eskerrak eman degiogun; eta bere legea gordetzeko grazia eskatu degiogun, bada berak esaten digu, betiko bizitza edo sekulako gloria iritsi nai badegu, amar mandamentuak gorde ditzakula: eta ortik kontu aterako dezue, zein premiazkoak diran guzionzat amar mandamentuak: eta ala txiki, eta andi guziak, pobre, eta aberatsak, jakinsuak, eta jakinezak, ala Kristauak, nola Kristau eztiranak, mandamentuen legea osoro gordetzeko obligazio edo premia estua due: eta mandamentu bakar bat gauza pisu, larri edo grabean ausitzea da asko, pekatu eriozkoa edo mortala egiteko, Jaungoikoaren aserrean erorteko, aren grazia, eta Zeruko deretxa edo zuzena galtzeko; eta deabruaren mendeko, eta zorigaiztoko katibu egiñik, eta Infernurako kondenaturik gelditzeko. Kontu bada, N.K., mandamentuak osoro gordetzeko egiazko alegiñak egitearekin: bada premiak edo obligazioak ezeze, gere probetxuak ere artara mobitu bear gaitu.

G. Nolako probetxuak datozkigu bada amar mandamentuak ondo gordetzetik? **E.** Probetxu guzien andienada orain aitatu deguna: au da, sekulako edo

betiko Infernutik gere buruak libratzea: eta betiko bizia edo eternidade guziko zoriona, pakea, atsedena, eta gloria iristea. Baña bertatik ere ezin esan al baño andiagoak dira mandamentu santuak ondo gordetzetik datozkigun probetxuak, ala denboralak nola espiritualak: bada mandamentuak ondo gorde ezker, eta orretarako gere pasio, gurari eta griña gaiztoak ezi, eta menderatu ezker, osasun ohea eskuarkiro izango degu: mundu guziak estimatu, eta honratuko gaitu: gure ondasunak ondo zuzendu, gobernatu eta enpleatuko ditugu: eta pobreak, eta eriak bagera, Jaungoikoaren grazia, eta bendizioarekin, gure nekeak, eta nairgabeak pazienziarekin, eramango ditugu, eta orren sari ugaria Jaungoikoak duda bage emango digu: baña probetxu denboral oek guziok, eta beste onelako asko ezerez bezela dira mandamentu santuak ondo gordetzetik datozkigun probetxu espiritualaen aldean: bada zenbat obeto gordetzen ditugun, aurreratzen gera geiago Jaungoikoaren ezagueran, eta amorioan: eta arrezker, munduko honra, ondasun, eta atsegiñak, ezerezkeria batzuek edo banidade utsak bezela, estimatzen ditugu: eta erraz gure biotzak aen amoriotik, eta deseotik askatzen edo libratzen ditugu: eta orduan, nork esan dezake, nolako libertade santua,

eta nolako pake, eta sosegua gure biotzetan sortzen dan? eta nolako poza, eta kontentua eztauka mandamentu santuen bide zuzenari darraion anima justuak bertatik Jaungoikoaren adiskide dalako uste osoarekin, eta gero betiko ondasunak, eta betiko gloria gure Jaungoikoak emango diolako esperanza biziarekin? Onelako probetxu miragarriak, eta beste ezin esan al baño geiago, datozkigu bada, N.K. mandamentu santuak ondo gordetzetik: baña kontrara pekatuari, eta bizioari darraion Kristau gaiztoak probetxu edo ondasun oriek galtzen ditu: eta eztu egiazko pakerik, ez Jaungoikoarekin, ez bere buruarekin, ez eta eskuarki-ro bere lagun urko edo projimoarekin: bere gurari, griña, pasio, eta erabageko apetituen mendeku edo esklabo egiñik bizi oi da; bere adimentua illundurik, eta bere borondatea gaitzera etziñik oi dauka: eta mundu onetan doakabe, eta gero eternidade guzian doakabeago izango da. Eta ala alde guzietatik ikusten dezue, N.K. zein probetxugarriak, eta ondasundunak diran Jaungoikoaren legeko mandamentu santuak: eta guztiz zoroak, eta zorigaiztokoak dirala oriek aiñ ardurabage ausitzen dituen Kristauak: eta kontrara, guztiz zinzoak, eta zorionekoak dirala mandamentuak osoro gordetzen dituenak.

G. Baña amar mandamentu santuak, premiakoak, eta probetxugarriak diran bezela, gordetzen errazak ote dira? **E.** Gure Jaungoikoa eta bere Seme maite Jesu-Kristo ondo ezagutzeko: Jaungoikoak egin dizkigun mesede andiak sarri gogoratzeko: eta Kristau onak egiaz edo benetan izateko alegiñak egin nai dituenenzat, errazak ezeze, biguñak, gozoak, eta guztiz atsegingarriak dira; bada Jaungoikoaren amorioak, aren graziak, eta oitura onak neke guzia arintzen, eta gozaten due: eta ala Kristau onak pena geiago du pekatu egiten, birtutea exerzitatzen baño: eta mandamentuak erraz gordetzen ditu: baña Kristau lasai, ardurabagenzat, eta eren borondate gaiztoa ukatzeko alegiñ egiazkorik egin nai eztuenaenzat, nekezak, pisuak, eta garratzak dira: bada mandamentu santuak eren pasio, gurari, eta griña gaiztoen kontrakoak ditue; arrotasun, abarizia, lujuria, aserretasun, enbidia, gula, nagitasuna, eta beste eren atsegiñak gozatzten eragozten die.

G. Baña ortik zer kontu atera bear degu? **E.** Nai ta ez gogotik peleatu bear degula guziok, gere pasio, eta griña gaiztoak ezitzeko, eta gure borondatea Jaungoikoaren legearekin konformatzeko. Eta orduan egiazko pakea gure biotzetan izango degu: eta gure Jaungoi-

koa, eta gure lagun projimoa erraz amatuko ditugu: eta mandamentu guziak gogotik, eta pozik gordeko ditugu.

G. Eta mandamentu guziak beti, eta erabatera obligatzen gaitue? **E.** Iñoiz ere eztago aitzakiarik mandamentuak ausitzeko: baña aetatik batzuek dira zer obra on egin bear degun erakusteko, eta agintzeko; ala agintzen zaku Jaungoikoa gauza guzien gañean amatzea: jai egunak santifikatzea: meza enzutea: gurasoak honratzea: eta beste batzuek dira zer egin bear ez degun erakusteko, eta egin bear ezteguna eragozteko: ala eragozten zaku gezurrez juramentua egitea: iñor iltzea: lujuriako edo loikeriako pekatuak egitea: ostutzea, eta beste onelakoak: bada obra onak egiteko dauden mandamentuak ez gaitue obligatzen beti edo denbora guzietan artan jardutera: baizik señalaturik dauden denboretan edo okasioa datorrenean edo premia gertatzen danean: bada egin bear eztan gauza eragozteko dauden mandamentuak, beti-beti edo denbora guzietan obligatzen gaitue: eta ala iñoiz ere gezurrezko juramenturik eziñ egin leike: lapurretarik eziñ egin leike: eta besteren gauzarik biurtu bage eziñ eduki lezake jabearen borondate bage, biurtu lezakela: baña emen asko inporta duen

gauza bat jakin bear degu, eta da obra onak egiteko dauden mandamentuak ixillik beti zerbait eragozten diguela: eta pekatuak eragozteko daudenak, orobat ixillik zerbait egitea agintzen diguela. Ala gurasoak honratzea agintzen digun mandamentuak eragozten digu gurasoai iguia edukitzea: gurasoak aserra erazotzea: eta zor diegun sokorrua ukatzea. Eta orobat gezurrezko Jaungoikoa adoratzea eragozten digun mandamentuak, Jaungoiko egiazko bakar bat ezagutzea, eta adoratzea agintzen digu: eta ori bera beste mandamentu guzietan gertatzen da.

G. Eta zergatik esaten degu, amar mandamentuak sartzen dirala bitan: au da, Jaungoikoa gauza guzien gañean amatzean; eta gure projimoak, gere buruak bezela amatzean? **E.** Zergatik karidatea edo Jaungoikoaren, eta projimoaren amorioa, da mandamentu guzien fiña: eta ori Jesu-Kristo gure Jaunak berak esan zuen; bere lege guzia karidatean sarturik dagoala erakutsi zigunean: eta argatik amar mandamentuak losa bitan eskribiturik zeuden: lenengoan Jaungoikoaren honrari dagozkion lenbiziko edo antxitiko iru mandamentuak: eta bigarreanean projimoaren onari edo probetxuari dagozkion beste zazpiak. Eta lenengo iru-retan agintzen zaku, Jaungoikoaren Majestadeari zor

diogun honra guzia, ala barrukoa, nola kanpokoa: au da, biotzarekin, hitzakin, eta obrakin eman bear dioguna: eta beste zazpietan agintzen zaku, gure projimoak amatzea, eta honratzea, eta iñori kalterik ez egitea; ez bere personan, eta ezta bere ondasunetan ere: eta ala karidadean sarturik daude amar mandamentu santuak.

Ikusi dezue bada, N.K., nork eman zizkigun mandamentu santu oek: noiz, eta nola eman zizkigun: eta baita zeñ premiazkoak, probetxugarriak, eta errazak diran: eta nola guziak Jaungoikoaren, eta projimoaren amorioan sarturik dauden. Ikasi ditzakun bada; eta gogoan ondo sarturik beti eduki ditzakun, aekin gure bizimodua moldatzeko edo zuzentzeko: eta batez ere alegin guziak egin ditzakun Jaungoikoa, eta gure lagun projimoa biotzetik amatzeko; bada zenbat karidade andiagoa degun, anbat santutasun edo perfekzio geiago izango degu: eta anbat sari, eta gloria geiago Zeruko erreinuan gozatuko degu. Amen.

AMABIGARREN DOTRIÑA

*Eta lenengo mandamentuaren gañean;
lendabizikoa Errelijjioko birtutea zer dan,
eta zer agintzen digun.*

Amar mandamentu santuak, gure bizimoduaren erreglak dira: aditu zenduen, aurreko dotriña edo lekzioan: nola gure Jaungoikoak berak eman zituan: eta zein premiazkoak, zein probetxugarriak, eta zein errazak diran: abiatu gaitezen bada mandamentu bakoitza alik klaruena, eta argiroena aditzera ematen.

Gure Jaungoikoak bere lege santua amar mandamentuetan ezarririk eman zuenean, lenengo mandamentua hitz oekin aditzera eman zuen: «Ni naiz zure Jaungoikoa Ejiptoko nekepetik, eta katiberiotik atera zaitudana. Eztezu inola ere nere aurrean, ni besterik Jaungoikotzat edukiko: eztezu egingo idolorik batere, ez eta gezurrezko Jaungoikoaren antz, iduri edo imajinarik ari agurrak egiteko edo adoratzeko».

Mandamentu santu onek gauza bat eragozten digu: eta da idoloak egitea edo adoratzea. Eta berak gauza bat agintzen digu: eta da Jaungoiko egiazko

bakar bategan sinistea: eta ura honratzea, adoratzea, serbitzea, eta amatzea: eta bigarren gauza au Jesu-Kristo gure Jaunak txit argiro erakutsi zigun: zein zan legeko mandamenturik andiena galdetu zion letradu edo jakintsu bati eranzun zionean: au da legeko lenengo mandamentua, eta guzien andiena «amatuko dezu zure Jaungoiko Jauna zure biotz guziarekin, zure anima guziarekin, eta zure adimentu guziarekin: eta bigarrena onen antzekoa, da amatuko dezu zure projimoa, zere burua bezela. Eta mandamentu bi oetan dago sarturik lege guzia, eta Profetak diobena».

Jaungoikoaren legearen lenengo mandamentu edo aginte au zuei obeto aditzera emateko, kartillako dotriña santuak erakusten diguna aurretik esan dezagun.

G. Jaungoikoaren legeko lenengo mandamentua zein da? **E.** Jaungoikoa gauza guzien gañean edo guziak baño geiago amatzea.

G. Nork amatzen du Jaungoikoa? **E.** Aren mandamentuak gordetzen dituanak.

G. Zer da Jaungoikoa gauza guzien gañean amatzea? **E.** Guziak galtzea naiago izatea, bera ofenditzea baño.

G. Zertara geiago mandamentu onek obligatzen edo premiatzen gaitu? **E.** Jaungoikoa bera bakarrik gorputzeko, eta animako erreberenzia andienaz adoratzera, fede bizi az argan sinisten, eta esperatzen degula.

G. Nork onen kontra pekatu egiten du? **E.** Eskuz egindako idoloak edo gezurrezko Jaungoikoak adoratzeko dituenak edo orietan sinisten duenak.

G. Nork geiago? **E.** Agüero edo astiñarzetan sinisten duenak: eta etxizeria edo sorginkeriak edo super-tizioko lanak egiten edo usatzen dituanak.

Orra kartillako dotriña laburrak Jaungoikoaren legeko lenengo mandamentua aditzera emateko esaten digun guzia: baña ori guzia obeto aditzeko jakin bear degu, lau birtute guztiz andiak ezagutu, eta exerzitate bear ditugula, Jaungoikoari zor diogun honra, eta adorazioa ondo emateko.

G. Eta zein dira lau birtute oriek? **E.** Dirade 1. Errelijio birtutea: 2. Fedeko birtutea: 3. Esperanzako birtutea: eta 4. Karidadekoa edo Jaungoikoaren amorioa, eta lagun urkoaren amorioa.

Lau birtute oen ezagueran, eta exerzizio edo ekieran dago Kristauaren jakinduriarik andiena, eta santi-daderik, eta perfekziorik goratuena: eta oriei dagokie

gero Zeruan saririk, eta gloriarik andiena: eta ala oriek ondo ezagutzeko, eta ikasteko, eta obeto oriei ekiteko alegiñak guziok egin bear ditugu. Baña eziñ dateke lau birtute oriek dotriña labur batean bear bezela aditzera ematea: eta ala birtute bakoitza bere dotriñaakin banaka azalduko edo aditzera emango dizuet: eta gaur errelijioko birtutea zer dan, eta zer agintzen digun esan bear dizuet: eta urrengoan zer eragozten digun esango dizuet.

G. Zer da bada errelijioa? **E.** Eztegu orain aitatzten Kristauen errelijioa edo legea: ezta ere errelijiosoak gordetzen duen ordena berezi edo partikularra nola dan, Kartujoen, Franziskoen edo beste onelakoen errelijioa. Emen orain aitatzten degu bakarrik birtute moral guzien nagusiena, eta andiena dan, eta errelijioa deitzen diogun birtute bat, Jaungoikoaren Majestadeari, gure Jaun, eta Jabe gorenari edo soberanoari bezela zor diogun adorazioa edo erreberenziarik andiena agintzen diguna, eta nola eman erakusten diguna; eta baita Jaungoikoagatik Ama Birjiñari, Aingeruai, eta Santuai ematen diogun erreberenzia erakusten digu.

G. Orrela, zenbat adorazio edo erreberenzia mota dira? **E.** Iru: 1. da Latriakoa deitzen zaiona: eta da

guzien gañeko adorazio edo erreberenzia, Jaungoiko-aren Majestadeari guzien Jabe soberanoari, eta nagu-sienari bezela bakarrik zor zaiona, eta beste iñori eziñ eman dakiokena. 2. Da, Maria Birjiña Santisimari, Jesu-Kristo gure Jaunaren Ama egiazkoari ematen zaiona, eta deitzen diogu Iperdulia: bada Ama Birjiña Santisimaren diñatasuna, eta goratasuna aiñ andia da, ze kria-tura guzien artean parerik ez-tu: eta ala dagokio berariazko adorazio edo erreberenzia, beste kria-tura guz-iai, Aingeruai, eta Santuai ematen zaiena baño andi-agoa: eta 3. adorazio edo erreberenzia da Zeruko Aingeruai, eta Santuai ematen zaiena, eta dei-tzen zaio Dulia: eta iru adorazio edo erreberenzia mota oek, esan degun distin-zioarekin jakitea agitz balio du: bada izan dira hereje itsu batzuek adorazio-aren izenarekin besterik aditu nai etzuenak Jaungoiko-ari bakarrik zor zaiona baizik, eta uste falso orrekin Kristauak idolatratzat tratatu izan dituenak: eta zio-ben, Kristauak Ama Birjiña, Aingeruak, eta Santuak, eta oen imajiñak, eta errelikiak adoratzen, eta errebe-renziazten zituela, beste ainbeste Jaungoiko balira bezela: baña txit gaizki zio-ben, bada Kristauok iñoiz ere ez-tiegu, ez Ama Santisimari, ez Aingeruai, eta ez Santuai eman Jaungoikoari zor zaion, eta ematen dio-

gun adorazioa edo erreberentzia: eta ala, orazioa egi-
ten degunean, distintzio ori bera agertzen degu; bada
Jaungoikoari ondasun guzien Jabe soberanoari bezela,
erregutzen diogu, berak digula bear deguna animara-
ko, eta gorputzerako: bada Ama Birjiñari, Aingeruai,
eta Santuai erregutzen, eta eskatzen diegu, ez jabe
diranai bezela, baizik bitarteko utsak diranai bezela,
gugatik Jaungoikoari erregutu, eta eskatu degiobela
Jesu-Kristoren izenean, gure salbaziorako ondo dago-
kiguna: eta Jaungoikoak berak nai du, eta agintzen
digu Ama Birjiñari, eta Santuai zor zaion honra ema-
tea: eta aen bitartez gu baliatzea: eta ori guri obeto
erakusteko, Jaungoikoak bere Ama Santisimaren, eta
Santuen bitartez, eta aen gauzak, eta errelikiak hon-
ratzeagatik ezin kontatu ala milagro egin ditu: eta
badakizue, nola Maria Birjiña Santisimaren bitartez
San Juan Baupista bere Amaren sabelean sei illabete-
ko aurtxo zegoala santifikatu, eta Zeruko doaiez,
argitasunez, eta graziz bete zuen. Eta Jesu-Kristo gure
Jaunak bere Ama Santisimaren erreguz lenengo mila-
gro ageria, askok ikusi zuena, Kanako eztaietan egin
zuen, sei ontzi ur, arda biurtu zituanean: eta beste
ezin kontatu ala arrezkero Ama Birjiñaren bitartez
denbora guzietan egin ditu: eta orobat San Lukas

Ebanjelistak esatenu digu, San Pedro Apostoluaren hitzalak ukitzea asko zala, eriak sendaturik gelditzeko: eta San Paulo Apostoluaren pañueloa debozioz ukitzea asko izan zala gaixoak sendatzeko: eta Santuen bizitzatan ezin kontatu ala mirari edo prodijio egiazkoak irakurten ditugu: bada ortik atera ezazue kontu nolako honra, errespetoa, eta debozioa Santuai zor diegun, bada Jaungoikoak berak aek honratu eragiteko, alako mirariak aekgatik egin ditu.

G. Zenbat eratara izan diteke oraindio adorazioa edo erreberenzia? **E.** Era bitara: eta bata da, adoratzeko danari berari zuzen-zuzen ematen zaiona: eta ori da Jaungoikoari berari, Ama Birjiñari berari Zeruan dagoanari; eta Zeruan dauden Aingeruai, eta Santuai ematen zaiena: eta bestea da, prinzipalaren errespetoz bakarrik, aren imajiniari, antzari, figurari edo errelikiari ematen zaiona: eta ala imajinak erak eztitugu adoratzeko, eta erreberenziatzeko, gure orazioak, eta erreguak adituko balitue bezela: eta aen aurrean makurtzea edo gurtutzea, belaunikatzea, eta orazio egitea zuzentzen degu, ez imajinari berari, baizik arkogora ekarten digun, eta Zeruan dagoan prinzipalari; bada imajinak ezer aditzen ezte; baña bai Zeruan

dagoan prinzipalak, Jaungoikoagan guzia dakus, eta aditzen gaitu.

G. Eta bada beste adorazio edo erreberenzia motarik, orain aitatu ditugun adorazio sagraduaz gañera? **E.** Bai: eta da munduko personai, diñatasun, eta enpleo andietan daudenai egiten zaiena, zor zaien honra, eta errespetoa bakarrik agertzeko. Ala Erromako Aita Santuari, Kristauak belaunikaturik, oñean muñ egiten diobe: eta errelijiosoak ere agintariai askotan belaunikatu ta hitz egiten die: ori bera Obispo Jaunakin egin oi da: eta baita Erregeekin ere: eta beste agintari askorekin; orretan Jaungoikoari bide bagerik edo agrabiorik batere egin bage: eta ala Eskritura Santak berak orrelako ejemplo asko dakatza: eta dio, nola Judit, alargun santa, balore, eta biotz andikoa, Holofernes, Kapitan Jeneralaren aurrean agertu zanean, belaunikatu zala, eta adoratu zuela; au da zor zitzaion errespeto, eta errebereneia egin ziola: bada, len esan dedan bezela, dorazioaren izen au, ala latinez, nola erderaz, nola euskeraz eztago señalaturik Jaungoikoari zor zaion adorazioa bakarrik aditzera emateko; baizik da hitz komun bat, erreberenzia mota guziai aplikatzen zaiena.

G. Nola adoratu bear degu Jaungoikoa? **E.** Adoratu bear degu barrendik, eta kanpotik: au da, animarekin eta gorputzarekin: bada biak berak eman dizkigu bere serbizioan enpleatzeko: eta orrela gure betiko zoriona iristeko.

G. Nola adoratzen da Jaungoikoa barrendik? **E.** Gere barruaren, au da, geran guziaren sakrifizio edo ofrenda oso bat Jaungoikoari egiten diogula, gure Jabe, eta Jaun gorenari edo soberanoari bezela: eta gure lan edo egiteko guziak beraren honra, eta gloria-rako egiten ditugula.

G. Nola adoratzen da Jaungoikoa kanpotik edo gorputzarekin? **E.** Gure barrengo errespeto edo erreberentzia agertzen degula belaunikatuarekin, burua makurtuarekin edo beste erreberentziaren batekin.

G. Eta zergatik dio kartillako dotriña santuak, adoratu bear degula Jaungoikoa beragan sinisten, eta esperatzen degula fede biziarekin? **E.** Zergatik batez ere iru birtute Jaungoikozko oekin, au da, fedearekin, esperanzarekin, eta karidadearekin ematen diogu Jaungoikoari zor diogun biotzeko adorazioa, eta birtute oen ekiera edo exerzizioa ere agintzen zaku lenengo mandamentu santu onetan.

G. Jaungoikoa adoratzeko obligaziorik badegu? **E.** Bai: bada ala merezi du bere anditasun, goratasun, jabetasun, eta Majestade kabubage edo neurribagea-gatik: eta berak ala agintzen digu.

G. Eta erreberentzia andien orrekin Jesu-Kristo gure Jauna adoratu bear degu? **E.** Bai: bada da egiazko Jaungoikoa bere Aita Eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin batera: eta orobat adoratu bear degu Aldareko Sakramentua, bada an Jesu-Kristo bera egiaz arkitzen da.

G. Eta Gurutze Santua adoratu bear degu? **E.** Bai adoratu bear degu, Jesu-Kristo guruzifikatuaren imajinã bezela: edo obeto esateko, Jesu-Kristo bera adoratzten degu, gurutzea adoratzten degunean: eta ala orduan dotriñako kartillarekin batera, esaten degu, adoratzten, eta bedeinkatzen zaitut Kristo, zergatik zure Gurutze Santuarekin mundua erredimitu zenuan.

G. Eta nola adoratu bear ditugu, Jesu-Kristo illeratzotzeko serbitu zuen gurutzearen beraren zatiak? **E.** Gure erredenziorako serbitu zuen instrumentu, eta errelikia guztiz preziatuak bezela.

G. Eta nola adoratu, eta erreberentziatu bear degu Ama Birjiña Santisima? **E.** Ez Jaungoikoari zor zaion

adorazioarekin, baizik beragoko batekin: baña Aingeruai, eta Santuai ematen zaiena baño, agitz andiagorekin, len esan degun bezela: bada Birjiña Santisima Jaungoikoaren Ama egiazkoa, eta Zerutar guzien Erregiña da, eta bere diñatasunean, santidadean, eta glorian parerik eztu.

G. Eta Ama Santisimaren ondoren, Aingeru, eta Santu guziak honratu, eta errespetatu bear ditugu berdin? **E.** Guziaz zor diegu munduko andienai baño honra geiago: da probetxu andia aterako degu, guziaz beren laguntasua eskatuaz; baña ala ere aen artean batez ere honratu, eta errespetatu bear ditugu gure Aingeru guardakoak, gure izeneko Santuak, eta gure erreinu, probinzia, eta errietako patriiak: eta aekganako gure debozioa agertu bear degu: 1. aen errespetoz, eta aen honrako obra onak egiten. 2. aen birtuteak imitatzen: eta 3. orretarako, eta beste premia guzietarako eren laguntasuna gogotik eskatzen.

G. Santuen errelikiak zergatik adoratzen, eta erreberenziatzen ditugu? **E.** Zergatik diran Espiritu Santuaren bizileku edo tenplo bizi izan dan gorputz baten zati edo puska preziatuak: izango dira juizioko egunean piztuak edo erresuzitatuak, eta Zeruko glorian betiko atsegiñaz beteak.

G. Jesu-Kristoren, Ama Birjiña Santisimaren, eta Santuen imajiñak zergatik erreberenziatzen ditugu? **E.** Aek gogora ekarten diguen, eta errepresentatzen dituen prinzipalak honratzeko: eta aen aurrean orazio egiteko.

G. Eta imajiñai erai ezer eskatzen diegu? **E.** Ez: bada ezer ikusten, eta aditzen eztue: eta ala aen aurrean egiten ditugun orazioak edo erreguak aen prinzipalai, Zeruan daudenai egiten diegu: eta aek Jaungoikoagan guzia dakuste, eta aditzen gaitue.

G. Eta Jesu-Kristoren, Ama Birjiñaren, eta Santuen imajiñak, eta gure erreljio santuko misterioen pintura sagraduak, zertako geiago serbitzen digue? **E.** Liburu santu batzuen orde serbitzen digue; bada gogoratzen, eta begien aurrean nolabait ipinten dizkigue Santuen birtuteak: eta Jaungoikoak gure erreljioko misterio andietan egin dizkigun mesede edo ontarteak, eta erakusten dizkigun egia: eta aek ikusteak, eta konideratzeak askotan ukitzen, eta mugitzen gaitue, eta pensamentu, eta asmo santuak artu eragiten dizkigue. Zenbat pekatari penitenziara etorri eztira? eta zenbat Kristau on birtutean geiago, eta geiago aurreratu eztira, Jesu-Kristo guruzifikatuaren imajiñari ondo begiratuaz, eta aren pasio, eta eriotza santua gogora

ekarriaz? eta kontrara. Imajiña edo pintura, loikeria edo deshonestidadea begien aurrean paratzen, eta gauza likitsak gogora ekarten dituenak, zenbat kalte egiten eztitue? eta zenbat Kristauri pekaturako, eta kondenaziorako bidea ematen eztie? Lotsagarritzko gauza da Kristauen artean alako imajiña, eta pintura zikiñak ikustea, eta deabru tentatzallearen beraren ofizioa imajiñai, eta pinturari eragitea: orain jabeak orien imajiña, eta pintura oriek desegiten edo erretzen ezpadituzte, eziñ salbatu ditezke, eta erak ondo erreak ikusiko dira noiztait betiko su, eta garretan.

G. Eta zer geiago agintzen digu erreljioaren birtuteak? **E.** Jaungoikoaren honra, eta serbizioararo, eta gure salbaziorako ordenaturik dauden gauza sagradu guziaz: eta berriaz konsagratuak dauden eliz-gizonai, au da, Jaungoikoaren Ministroai al dan errespeto, eta erreberenziarik andiena beti ekartea: eta ala Kristauak 1. Jaungoikoaren tenplo santuak agitz errespetatu bear ditue: bada orazio egiteko mezako sakrifizioa Jaungoikoaren Majestadeari ofrezitzeko: beraren hitz santua Kristauai aditzera emateko, eta Sakramentu Santuak errezibitzeko, berriaz esleiturik, eta konsagratuak dauden toki santuak dira: eta geiago dana, Jaungoikoa bera Jesu-Kristo gure Jauna bere Jaungoi-

kotasun, eta gizatasun guziarekin egiaz, eta bere personan Elizako Sagrarioan daukagu: eta gu bere ondazunez, eta graziaz betetzeko beti prest daukagu. Nola-ko errespetoa zor eztiogu bada Jaungoikoaren beraren etxe, palazio, eta bizileku dan tenplo santuari? Eta orobat 2. honratu, eta errespetatu bear ditugu Elizako gauza guziak: eta Elizako lanak egiten dituen Jaungoikoaren Ministroak. Eta 3. are geiago honratu, eta erreberenziatu bear degu Jaungoikoaren izen santua: bera beti begira dagokigula oroituaz, gere orazio guzietan al dan atenzio, debozio, eta errespetoarekin hitz egiten, eta gure erreguak zuzentzen diozkagula: bada Jaungoikoarekin hitz egiten gauden denboran bertan, ardurabagetasunez atenziorik ez ipintea edo gere borondatez beste gauza batzuek gogoan erabiltea, da Jaungoikoari zor diogun errespeto edo erreberenziari faltatzea: baña ori gerlatzen bazaku, geurk nai ezte-gula, zerren oartu bage pensamentua dijoakigun beste gauza batzuetara, orduan pekatu izango ezta, batez ere oartu ezkeru, atenzioa edukitzeko alegiñak egiten baditugu: eta orobat Jaungoikoaren izen santua honratu bear degu, juramentuak iñoiz ere egiten ezti-tugula, egiarekin, premiarekin, eta gauza onak egiteko asmoarekin baizik: eta beraren honrarako egin

ditugun boto edo promesak leialkiro osatzen, eta kunplitzen ditugula: eta iñoiz ikusten edo aditzen badegu Jaungoikoaren izen santua deshonoratzen, despreziatzen edo injuriatzen duela norbaitek blasfemiako hitzakin, Jaungoikoaren honra defenditu bear degu; eta al badegu, alakoak esaten dituana erreprenditu, edo ezpada agerian, eta ausardi santu batekin esan bear degu: *bizi bedi Jesus*: edo alabatua izan dedilla gure Jaungoikoa: edo Gurutze Santua egin, esanaz: Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean; erakusten degula, artu degun iguia edo sentimentua, blasfemiak adituaz beste bage: eta azkenik, ez geiegi orain luzatzeagatik alegin guziak egin bear ditugu, gure biotzak osoro Jaungoikoari gure Jabe, gure Aita, eta gure ongille guztiz maitagarriari sarri konsagratzeko: eta gure lan edo egiteko guziak beraren honrarako, eta berari atsegin emateko asmo edo intenzioarekin egiteko: bada gure anima bere potenziakin, eta gure gorputza nere sentiduakin Jaungoikoak emanak ditugu bera serbitzeko. Eta ona, N.K. nola adoraziozko akto bat txit balio andikoa, egin dezakegun: eta sarri egiteko alegiñak egin bear ditugu: «Adoratzen zaitut, o nere Jaungoiko, eta Jabe soberanoa: eta zure Seme maite Jesu-Kristo gure Jaunak gurutze santuan bere

buruaz egin zizun zure atsegiñezko, eta balio guztiz andiko sakrifizioarekin batera, nere anima, eta gorputza, eta nere gauza guziak osoro eskeintzen, eta ofrezitzen dizkitzut 1. zure Majestade, eta Jabetasun sobe-ranoaren honra, eta gloriarako: 2. egin dizkidazun mesede, eta ontarte guztiz andien esker onerako; 3. nere pekatuen barkaziorako, eta guzien pagu, eta satisfaziorako (bada txit damu det zure Majestadea ofendituaz) eta 4. aurrera bizimodu berri santu bat egiteko bear ditudan argi, gogo on, indar, eta graziak zure ontasun infinituagandik iristeko: eta gero eterni-dade guzian Zeruko erreinuan zure glorian zu ikuste-ko, alabatzeko, eta beti amatzeko. Amen.

AMAIRUGARREN DOTRIÑA

Errelijioko birtuteak zer eragozten digun.

Aditu zenduen ezkerreko aurreko dotriña edo lekzioan, nola adoratu, eta erreberenziatu bear degun gure Jaungoikoa: eta nolako erreberenzia, eta honra zor diegun Maria Birjiña Santisimari, Aingeruai, Santuai, eta oen errelikiai, eta imajiñai: eta baita nolako errespetoa ekarri bear diegun Jaungoikoaren honrarako, eta serbizioarako esleiturik, eta konsagratuak dauden tokiai edo Elizai, eta Elizako gauza guziai; eta Jaungoikoaren ministroai:

Orain galdetzen det: Jaungoikoaren Majestade soberano edo gorenai zor diegun adorazio edo erreberenziaren kontra norik egiten du pekatu? **E.** 1. Idola-triako pekatua egiten duenak: 2. sakrilejioko pekatuak egiten dituenak edo Jaungoikoa bera, eta berari konsagratuak dauden personak, eta gauzak deshonoratzen edo menospreziatzen dituenak: eta 3. supertizio-ko pekatuak egiten dituenak. Iru pekatu mota oek aditzera ematea izango da gaurko hitz-gaia.

G. Nor dira Idolatriako pekatua egiten duenak? **E.** Jaungoikoari bakarrik zor zaion adorazioa Idoloai edo gezurrezko Jaungoikoai ematen dienak, eta aetan sinisten duenak: fedebageko Jentil itxuak egiten zuen bezela. Pekatu ori orain Kristauen arlean arkitzen ezta, bada Jaungoiko egiazko bakar bat baizik ezagutzen, sinisten, eta adoratzeko eztegu. Baña Kristauen artean, lotsatzeko dan, beste Idolatria mota bat arkitzen da, eta kalte guztiz arrigarriak egiten ditu.

G. Zer Idolatria mota da ori? **E.** Da, ezagutu arren Jaungoikoari zor diogula gure biotzeko adorazio, eta amorio guzien gañekoa, ala ere gere erabageko borondatea, eta gukrak pasio edo gurari gaiztoak geiago estimatzea, Jaungoikoaren borondatea, eta legea baño: eta ala soberbia edo arrotasunaren mendean daudenak: abarizitari darraizkan erabageko ondasunzaleak, eta loikeriako edo lujuriako pasio zikiñari darraiztenak, nolabait Idolatra espiritualak dira, eta Jaungoikoa agitz despreziazten, eta injuriazten due: bada geiago estimatzen ditue munduko honrak, munduko aberastasunak, eta aragiaren gusto loi zikiñak Jaungoikoa bera baño. A, eta zenbat onelako itxu Kristauen artean arkitzen dan! Uste due Jaungoikoa egiaz adoratzeko duela, zerren beragan sinisten duen, eta

guzien Jaun, eta Jabe soberanoa dala aitortzen duen: baña geien balio duena, au da, biotzeko amorioa ukatzen diobe: eta ala ipokrita itxuak dira: bada Jaungoikoa egiaz, eta espirituaz adoratzeko degula sinistu eragiteko, gure biotz guziarekin, eta gauza guzien gañetik amatu bear degu.

G. Nork geiago pekatu egiten du, Jaungoikoari zor diogun adorazio, eta erreberenziaren kontra? **E.** Jaungoikoa bera, eta berari konsagraturik dauden pertsonak, eta gauzak deshonoratzen, eta menospreziatzen dituenak: eta sakrilejioko pekatuak egiten dituenak: eta ala 1. pekatu arrigarri bat egiten due, Jaungoikoari farregarrizko siñu edo señaletan batzuekin adorazioa ematen diobenak: 2. gezurrezko milagroak asmatu, eta egiazkotzat kontatzen dituenak, eta errelikia falsoak, eta gezurrezko indulgenziak asmatzen dituenak. 3. Blasfemiak edo injuriazko hitzak Jaungoikoaren beraren edo Ama Birjiña Santisimaren edo Santuen kontra esaten dituenak: 4. gezurraz edo gaitz egiteko asmoarekin edo premia bage, eta ardurabage juramentuak egiten dituenak: 5. Jaungoikoari berari, bere honrarako edo Ama Santisimaren edo Santuen honrarako egindako boto edo promesak ausitzen dituenak; edo motibo bage geiegi luzatzen dituenak. 6. Jaungoi-

koa tentatzen duenak, milagroak premia egiazko bage eskatuaz Jaungoikoaren poderio edo eskualdia nora-ñokoa dan jakiteko; edo gaitz andiren batetik libratze-ko artarako erremedio egokiak artu nai bagez. 7. Gauza espiritualak edo sagraduak diruz edo beste gauza denboral batez erosi edo saldu eragiten ditue-
nak. 8. Sakramentu Santuak, nola diran Konfirmazio-koa, Komunio Santukoa, Olio Santukoa, Ordenakoa, eta Ezkonzakoa pekatu mortaletik irten bage errezibit-zen dituenak. 9. Jaungoikoaren tenplo santuari zor zaion errespetoari faltatzen diobenak: edo modestia bage Elizan egonaz edo hitz alperrak egiñaz, eta are gaiztoago, Elizan bertan aserratu, eta bata besteari golpeak emanaz: edo Elizan bertan lapurretak egiñaz edo elizako gauzak ostuaz: edo loikeriako pekatu ziki-ñak an egiñaz: bada pekatu oek, nun-nai gaiztakeri andiak badira ere, Elizan egin ezkeru, beste pekatu mota berri bat, sakrilejioa deitzen zaiona, berekin dakarde: eta orobat Jaungoikoari konsagraturik dau-
den beste gauzak, nola kalizak, kopoiak, meza emate-ko janzi sagraduak errespeto bage darabiltztenak. 10. Elizari eta Elizako niinistroai dagozkien primiziak, eta amarrenak ostutzen edo ezkututzen dituztenak. Eta azkenik sakrilejioko beste edozein pekatu egiten due-

nak, nola dan kastidade santuaren kontra Jaungoikoari konsagraturik dauden personakin pekatu egitea: eta orobat alako personak golpatzea, zauritzea edo iltzea: eta pekatu onek berekin dakar, ori egin duena bertatik exkomulgaturik uztea.

Oraiñ aitatu ditugun pekatu oek guziok errelijioko birtutearen kontra dira, eta uste dezuen baño andiagoak, eta pisuagoak dira; zerren oriekin zuzen-zuzen Jaungoikoaren Majestadea edo beragan edo berari dagozkion gauza, eta personetan deshonoratzen, injuriatzen edo menospreziatzen da: eta zenbat errespeto, erreberenzia, eta adorazio andiagoa zor diogun Jaungoikoaren Majestade soberano edo guzien gorenari, anbat arrigarriagoa da egiten zaion ofensa: eta argatik gizon bat edo asko era gaiztoan iltzea baño, pekatu andiagoa, eta pisuagoa da gezurrezko juramentu bat egitea: zergatik bata da zuzen-zuzen gizonaren kontra, eta bestea Jaungoikoaren beraren kontra. Munduan Erregearen personari berari, eta ari ukitzen zaien gauzai, eta bere aldamenean dauzkan Ministro prinzipalari alako errespeto, eta erreberenzia ekarten bazaie, eta oei egiten zaizten ofensak aiñ bizi-
ro sentitzen badira, zenbat errespeto andiagoa zor eztiogu guziok Jaungoikoaren Majestade soberano edo

gorenari, Errege guzien Errege danari, eta berari dagozkion gauzai, eta bere Ministrotzat, eta bere lekuan dauzkan personai? Eta zenbat geiago sentituko eztitu gure Jaungoikoak bere Majestadeari berari egiten diozkagun orrelako menosprezioak, eta ofentsak? eta batez ere bera honratzeko, alabatzeko, eta amatzeko aĩn obligazio andiak dauzkagun Kristauok egiten diozkagunak?

Eta nork geiago pekatu egiten du errelijioko birtutearen kontra? **E.** Agüero edo aztiñarzetan sinisten duenak: eta hetxizeriak edo sorginkeriak edo supertizioko beste lan gaiztoak egiten edo usatzen dituenak. Eranzuera au bear bezela aditzera emateko, txit asko dago zer esan: eta konbeni da zerbait esatea, gertatzen diran itxumen asko kentzeko edo erremediatzeko.

Eta lenbizikoa galdetzen det: zer da supertizioko pekatua? Eta zenbat supertizio mota dira? Da ezkutuak edo sekretoak edo etorkizun dagoan gauzaren bat jakiteko edo deseatzten duen gauzaren bat iristeko edo alkanzatzeko edo eritasun edo beste gaitzen batetik libratzeko, baliatzea edo usatzea, ez Jaungoikoagandik, ez Elizagandik, eta ez naturalezagandik, artarako birtuterik edo indarrik berez eztuen gauzaz

edo erremedioaz, eta orietan sinistea. Eta ala superti-
zioko pekatuak dira aguero edo aztinkeriak, sorginke-
riak, hetxizeriak, eta gaitzetatik libratzeko artzen
diran erremedio alperrak, nai dan fiña iristeko iñola
ere egoki edo gai ez tiranak.

G. Nor dira bada aguero edo astiñarzetan sinisten
duenak? **E.** Aztiak deitzen zaie euskeraz ezkutuan edo
sekretoan dauden gauzak, nola lurpean dauden tesoroak;
edo etorkizun dauden gauzak, badakiztela edo
jakin ditzakeala diobenak; eta erdaraz adibinadoreak
edo adibinatzaileak; esaten die. Eta 1. aztinkerietan
edo agueroetan sinisten duenak dira 1. egaztien eta
txorien kantutik, ez orduetan kantatzen badue, olla-
rrak batzuetan egin oi duen bezela; edo txakurrea edo
beste aberen oi u edo deadarretatik, kontu ateratzen,
eta sinisten duenak, auzo artan norbaitek bereala ill
bear duela edo bestelako etorkizunak Jaungoikoak
bakarrik dakizki: eta orrelako oi u, eta deadar askotan
ikusitako dira, alakorik gertatu bage: eta orobat da ague-
rozko gauza kanpaiak besteetan ez bezelako soñuren
bat egiten duelako edo Exkomunikazioa auzo errian
irakurri dalako edo justiziak gaitz gilleren batzuek
urkatu eragin dituelako, orregatik bakarrik, eguraldi
gaiztoa etorri bear duela edo norbaitek ill bear duela

edo beste naigaberen batzuek etorri bear duela ziuru uste izatea; bada ori guzia fundamenturik batere bageko gauza da etorkizuna sinisteko. Baña aberen orroetatik, eta txorien kantutik eguraldiaren aldaerak asmatzea, eta uste izatea, ezta aguerozko gauza, bada askotan ori abereak guk baño obeto sentitzen due, eta eren modura aditzera ematen due.

2. Aguerotan edo aztinkerietan sinisten duen supertiziosoak dira: Jaungoikoaren borondatetik edo gizonaren nai edo aukera libretik etorri bear duen gauzak, aurrez jakin nai dituenak, artarako deabruaz baliatzen dirala: eta ori da pekatu bat guztiz arrigarria: eta baita deabruaz beraz ez baliatu arren, hetxi-zero sorgin edo deabruarekin tratatzen duenakin baliatzen bada. Eta orobat jitanai eta ijitoari benetan galdetzea edo itantzea, zer pekatu, zer suerte, zer akomodua izango duen batek: aberatsa edo pobrea izango da: ezkondua edo librea izango dan: bizitza luzea edo laburra izango duen: edo beste onelako etorkizunak aurrez orrelako bideetatik jakin nai izatea, da aguerozko, eta superstizioko pekatu mortala: baña orrelako gauzarik sinisten ezpadu, eta dibertitzeagatik edo jostatzeagatik bakarrik galdetuko balie, eskandalorik

eman bage, izango litzate pekatu benial, gauza alpe-
rra, eta peligrozkoa dalako.

3. Orobat, aguerotan sinisten duenak dira, Zeru-
ko izarretatik ziertu jakin nai dituenak etorkizun
libreak, Jaungoikoaren borondaletik edo gizonaren nai
edo aukera libretik etorri bear duenak: baña izarreta-
tik, eta eguzkiaren edo illargiaren goraberaetik egu-
raldiaren aldarteak nekazarien lanetarako; edo erita-
sunetik sendatzeko erremedioak noiz eman edo
artu ezagutu nai izatea, ezta aguerozko gauza: eta ala
astrologoak, eta medikuak orretan jardun oi due,
engañatzen badira ere.

4. Baita ere da aguerozko edo superstizioko peka-
tua, suerteak botatzearekin ziertu jakin nai izatea,
besteren aukeran edo borondatean dagoan etorkizu-
neko gauza. 5. Eta orobat komunkiro gertatzen diran
ametsetatik kontu ateratzea edo ziertu sinistea onela-
ko edo alako gauza gertatuko zaiola, da superstizioa,
eta agueroa: baña bestela amets atsegiñezkoetik
edo amets pisu, eta tristetatik kontu ateratzea zer
humore edo zer disposizio daukan batek bere gorpu-
tzean, ori ezta aguerozko gauza, baizik gauza natura-
la. Esan det, superstizioa dala, komunkiro gertatzen
zaizkigun ametsetatik etorkizunak ziertu asmatzea:

zerren izan dira, eta Eskritura Santak aitatzten ditu misteriozko amets asko Jaungoikoak berariaz sortu eragiñak inportantzizko etorkizunak aditzera emateko, nola Jose Patriarka Santuarenak, eta Errege Faraone-nak lege zarrean: eta Aita San Jose, Ama Birjiña Santisimaren esposo maiteak ametsetan izan zituan Zeru-ko abisoak: baña amets oriek berekin zekazten Jaungoikoarenak ziralako señaile ziertuak: eta eztira orrelakoak gure ametsak, baizik gure fantasiaren edo imajinazioaren nasteriak: eta oetatik ezin gauza zierturik batere ezagutu, eta asmatu liteke.

(Hitz batean:) etorkizun dauden gauza libreak edo ezkutuan edo sekretoan daudenak, eta gizonaren jakinduria guziarekin ezin jakin ditezkeanak, jakin nai izatea, artarako alperrak diran edo egokiak edo gai eztiran bide edo medioakin edo bitartekoakin, da aguerozko, eta superstizioko pekatua: eta da erreljio-ko birtutearen kontra: bada gauza orietan sartzen da gure animako etsai gaiztoa, deabrua bera; edo agerian, beragandik jakiteko alegiñak egiñaz, sorgiñak, hetxizeroak, eta aztiak bezela, eta ori da pekatu guttiz arrigarri bat: (eta alakoen berri ziertu dakianak, inkisizioko tribunal santura kontu emateko obligazioa dauka:) edo ixillik, deabruarekin berarekin traturik ez

izan arren, nastutzen da etsaia, orrelako gauzak jakiteko erabageko kuriosidade, eta deseo gaiztora erakarriaz, eta bear eztiran bide edo medio gaiztoak artu eragitera mugituaz; eta ala orrelako jakin nai gaiztoak pekatu andiak dira, sinpletasunak, eta ezagueraren faltak eskusutzen ezpaditu.

G. Aguerok, eta aztien gauza superstiziosoak aitatu ditugun ezkerok, zeri deitzen diogu sorginkeria, eta hetxizeria? **E.** Bati gaitz egiteko edo amorio loizikiña artu eragiteko edo gorroto gaiztoan pakean daudenak ipinteko, deabruaz, eta ark ematen dituan medio, eta instrumentuaz baliatzeari edo usatzeari. Baña iru gauza emen gogora ekarri bear dizuet, eta kontuan eduki bear dituzue. 1. Jaungoikoaren lizenzia edo baimena bage deabruak, eta aren zorigaiztoko lagun sorgiñak, eta hetxizeroak ezin iñori gaitzik bate-re egin leikiobela, ez eta bere malizia, eta astuzia guziarekin iñor pekatura erakarri lezakeala, batek berak nai eztuela. 2. Kristau errietan, batez ere dotriña ona, eta Jaungoikoaren bildur pixka bat dagoan lekuetan, orrelako sorginkeri, eta hetxizeriarik gertatu oi eztala, txit banakatan baizik: baña bai fedebage eta Jentillen artean: bada aek etsaiak, bereturik eta itxuririk dauzka. Eta 3. sorgintzat edo hetxizerotzat ezin

iñor eduki dezakegula, prueba edo fundamentu andiak, eta ziertuak artarako izan bage: bada gai orietan iduripen asko gertatzen da: eta berez datozen gaitz naturalak sorgiñai txit erraz egozten zate: eta juizio arin, eta temerario asko egiten dira: eta pekatu mortala da, persona bat alakotzat edukitzea, prueba ziertuak izan bage.

G. Eta begizkoarekin aurrak, eta abereak gaixotzea sorginkeria edo gauza naturala ote da? **E.** Onetan ere iruipen, eta engañu asko gertatzen da. Ori da Jentilletatik Kristauetara igaro zan anziñeko esaera bat, fundamentu egiazkorik eztuena. San Juan Krisostomo, Elizako doktore guztiz andiak bere sermoietan puebloari esaten zion: begizko kontu oriek ipuiak, eta gezurrak zirala: eta uste orretan nago ni ere, eta daude jakinsu asko: bada ezta munduan personarik begiratzeko utsarekin beste bage, iñori kalterik edo dañurik egiteko indarrik daukanik, gorrotoz beterik bere burua baleuka ere. Eta ala aurrak, eta abereai gertatzen zaien gaitzak alabearrak edo berez datozenak dira; beste edozeñi gertatzen zaion bezela: eta geien gerta litekeana da, batere malizi bage, barru usandua, eta ustela daukan persona batek aurrari musu edo laztan emanarekin gutxi-asko dañu egitea; aurrak berez deli-

kaduagoak, minberagoak, argalagoak, eta sentikorra-
goak diralako. Eta ala urliak edo berendiak begizkoa-
rekin edo begirauna gaiztoarekin zuen humeai edo
ganaduai dañu egin dielako juizioa batere arrazoi
bagea da: eta orrelako juizioak eskusatu bear dituzue:
eta ez sinistu begizkoen kontuak: bada gezurrak iza-
ten dira.

G. Eta bada oraindio beste superstizio motarik? **E.**
Bai: eta txit asko dira: eta guziak dotriña labur batean
eziñ aditzera eman litezke: eta ala ere batzuek aitatu-
ko dizkitzuet zuen argi, eta desengañurako, orietatik
besteak ere ezagutu, eta eskusatu ditzatzuen. Eta 1.
superstizioko pekatua da sinistea, asteko egun bat,
dana dala, besteak baño zorigaiztoagokoa dala: eta
ala egun artan, ez biajerik egin nai izatea edo inporta
duen beste gauzaren bat egin nai ez izatea. 2. Orobat
da superstizioa, etxetik irtetean estropozu egin duela-
ko, egun artan naigabe andiren bat etorriko zaiola
sinistea. 3. Baita ere da superstizioa egun señalatu
batean, nola Eguberri besperan edo San Juanen bes-
peran bitutako belarrak, orregatik birtute andiagoren
bat daukela sinistea.

4. Baita da, superstiziosoa, batetan jakinsu izate-
ko edo adimentu, eta memoria ona izateko, onelako

edo alako edari artzea asko dala. 5. Baita errelikiak edo eskapularioak ekartean edo orazio edo debozio-
ren batzuek egitean sortzen da askotan superstizioa,
nola lizatean errelikiak, edo eskapularioak berekin
beti erabilli ezkerro, eta onelako edo alako gorputzaren
tokian eduki ezkerro, supito iñola ere ilko eztala edo
gaizki bizi izan arren, penitentsia egiteko denbora zier-
tu izango duela, sinistea, edo onelako edo alako ora-
zio Ama Birjiña Santisimari edo Santuren bati onen-
beste aldiz errezatu ezkerro, pekatuan egon arren,
ziertu erremediatuko dala, eta kondenatuko eztala
sinistea. Ori grazia superstizioa da: bada errelikia san-
tuak eta eskapularioak berekin debozioz erabiltea, eta
orazioak errezatzea, txit gauza ona, eta probetxuga-
rria bada ere, pekatutik irteteko, eta eriotz on baten
grazia iristero eztira medio egokiak esperanza teme-
rario edo gaizto bat pekatariari artu eragiteko: eta
penitentsia egitea luzatu erazotzeko. Azkenik 6. da
superstizioko pekatua persona eriak edo abereak eri-
tasun batetik edo beste gaitz batetik libratzeko, arta-
rako gai edo egoki eztiran erremedio superstiziosoak
artzea edo ematea, kurandero edo salutatzaile
batzuek egin oi duen bezela; nola lizatean edo suer-
teak botatzea: edo onenbeste gurutze edo orazio esa-

tea edo egitea, ez geiago, eta ez gutxiago, erremedioak indarra izateko: edo onenbeste argi, eta kandelarekin nai ta ez meza esan eragitea: edo onelako izena duen Sazerdoteari, eta ez beste bati enkargatzea. Eta beste onelako superstizio asko izan oi dira: eta sinpletasunak edo jakineztasunak eskusatzen ezpaditu, pekatu andiak izan oi dira: zerren, len esan dedan bezela, gure animako etsaia, ixilik bada ere, orrelako gauzetan nastutzen da: eta Kristau onak eztu iñola ere baliatu bear, bere animako, eta gorputzeko osasunerako Jaungoikoak berak edo Eliza Ama Santak edo medikuak erakusten dituen medio, eta erremedioaz baizik, eta Jaungoikoaren borondate santuarekin guziok konformatu bear gera, gertatzen zaizkigun nairgabe, eta eritasunetan: eta beragandik itxoden bear degu, konbeni bazaku, alibioa, eta ezpada geiago balio duena, pazienza: eta oni dagokan sari guztiz ugaria Zeruko glorian. Amen.

AMALAU GARREN DOTRIÑA

1. Fedeak zer agintzen digun:

2. zer eragozten digun eta

3. nola exerzitate bear degun Kristau onak izateko.

Aurreko dotriña bietan erakutsi dizuet, N.K. zer agintzen digun, eta zer eragozten digun gure Jaungoikoaren lenengo mandamentuak, aren Majestade soberanoari zor diogun adorazioaren gañean. Eta len-dabiziko mandamentu santu oni narraiola, aurrera, oraindio erakutsi bear dizuet, zer agintzen digun, eta zer eragozten edo debekatzen digun, gure Jaungoikoaganako eduki bear degun, eta ezerzitate bear degun fedearen, esperanzaren, eta karidadearen edo Jaungoikoaren beraren, eta lagun urko edo projimoaren amorioaren gañean. Iru birtute oek dirade guzien andienak, eta premiazkoenak: eta deitzen dira birtute Teologalak, edo Jaungoikozkoak, zergatik oekin zuzen-zuzen Jaungoikoari begiratzen diogu: eta oekin Jaungoikoari zor diogun honrarik andiena ematen diogu. Baña ezin birtute orietatik, dotriña batean aditzera eman neikezue: bada birtute orietatik bakoitzak

gairik asko du, dotriña bana ezeze, dotriña asko egiteko. Gaur bada bakarrik esango dizuet fedearen birtuteak 1. zer agintzen digun. 2. Zer eragozten digun. Eta 3. nola fedea alperrik eduki bear eztegun, baizik guziok exerzitate bear degun, gere animetako salbazioa iritsi nai badegu.

Dotriña santuaren lenbibiko partean, au da, kredorearen explikazioan, esan genduan 1. fedea zor dan edo nola dan birtute edo doai sobrenatural edo naturalezaz goragoko bat, Jaungoikoak bateo Santuan sortu edo eman ziguna ikusi bage, fedeko gauzak sinisteko: 2. zein premiazkoa dan; bada fedebage eztago salbaziorik: eta 3. fedeko misterioak zergatik ikusi bage sinisten ditugun, au da, zerren Jaungoikoak Elizari agertu edo errebelatu diozkan: eta Eliza Ama Santak ala erakusten dizkigun: eta baita zein motibo edo arrazoi guztiz andiak, eta ikusgarriak ditugun Kristauok, batere duda bage, eta kezka bage Eliza Ama Santak erakusten dizkigun fedeko egiak Jaungoikoaren beraren esanak edo hitzak dirala sinisteko: eta ala orain bakarrik galdetzen det:

G. 1. Zer agintzen digu lenengo mandamentu santuak fedearen gañean? **E.** Iru gauza agintzen dizkigu: eta 1. da fedeko misterio prinzipalak ikastea edo jaki-

tea: 2. da fedeko gauzak gere barruan sinistea. Eta 3. da fedea kanpotik agertzea, aitortzea edo konfesatzea.

G. Noiz degu Kristauok premia edo obligazioa fedeko misterioak edo artikuluak ikasteko, eta jakiteko? **E.** Arrazoiaren argira edo ezaguerara gatozenez: bada Kristauen artean beti arkitzen da nork erakutsi.

G. Eta fedeko misterio edo artikuluak jakiteko, eta sinisteko premia edo obligazioa erabatekoa edo berdiña da? **E.** Ez: misterio batzuek dirade ain premiazkoak, nun aek jakin bage, eta sinistu bage, eziñ salbatu diteke Kristaua batere kulpa bage ez jakitea gertatuko balitzaio ere: eta beste batzuek dira, pekatu mortalaren azpian ikasi, eta jakin bearrak; baña bere kulpa bage ez jakitea gertatuko balitzaio, ala ere salbatu liteke.

G. Eta zein dira, arrazoiaren argira etorri ezkeron, nai ta ez salbatzeko jakin, eta sinistu bear diran misterio ain premiazkoak? **E.** Dirade oek: 1. dala Jaungoiko egiazko bakar bat, gauza guzien egillea, eta grazia-
ren emallea, onai betiko gloria, eta gaiztoai betiko pena edo kastigua ematen diena. 2. Da Trinidad Santisimako misterioa, au da, Jaungoiko bakar bat baizik ezpada ere, Jaungoikoagan arkitzen dirala iru persona

distintoak, edo banaka diranak, 1. Aita eternoa, 2. Semea, eta 3. Espiritu Santua: Aita dala Jaungoiko egiazkoa. Semea ere dala Jaungoiko egiazkoa, eta Espiritu Santua orobat dala Jaungoiko egiazko: eta ala ere eztirala iru Persona aek iru Jaungoiko, ezpada irurak Jaungoiko bat bakarrik, zergatik iru Persona oek dauke dibinidade edo Jaungoikotasun bat berbera; alako moduan, nun Aitagan dagoan Jaungoikotasuna edo Jaungoikozko naturaleza edo izatea, ura bera osoro dago Semeagan; eta ura berbera dago Espiritu Santuagan. Eta orrez gañera 3. jakin, eta sinistu bear degu, salbatuko bagera, Aita eternoaren Semea, Trinitadeko bigarren Persona, gugatik gizon egin zala, ill zala, eta piztu edo erresuzitatu zala. Esan ditudan misterio oek distinzioarekin, salbatuko bagera, nai ta ez, jakin, eta sinistu bear ditugu Kristau guziok arrazoiaren ezaguerara etorri ezkeru: eta orrez gañera, era batera edo batetan sinistu bear degu Jaungoikoak Eliza Ama Santari agertu, errebelatu edo erakutsi dion guzia: bada, ara nola aur bat eziñ salbatu ditekean, bateatua izan bage, berak kulparik ez izan arren; ala esan ditudan fedeko misterioak jakin, eta sinistu bage, eziñ iñor salbatu diteke, bere kulpa bage ezpa-lekizta ere: era argatik gurasoak alegin guzia egin

bear due bere gaztetxoai txikitani misterio oriek erakusteko.

G. Eta zein dira, esan ditugunaz gañera, Kristauok pekatu mortalaren azpian, ikasi, eta jakin bear ditugun, fedeko beste misterioak? **E.** Dirade kredoan arkitzen diranak: baña Kristau bati gertatuko balitzaio, bere kulpa bage len esan ditugunaz kanpora, kredoko beste misterioak eziñ ondo ikasi izatea, alegiñak egin arren: salbatu liteke oriek ondo ikasteko, eta jakiteko borondate edo deseoarekin arkitzen bada.

G. Eta zer beste gauzarik Kristauok ikasi, eta jakin bear degu arrazoiaren argira etorri ezker? **E.** Ikasi, eta jakin bear ditugu, ondo bizitzeko, gorde bear ditugun Jaungoikoaren amar mandamentuak, eta Elizako bostak: errezatu bear ditugun orazioak edo erreguak: eta errezibitu bear ditugun Sakramentuak: eta oriek probetxuarekin errezibitzeko bear diran dispozizioak.

G. Eta beste gauzarik distinzioarekin ikasi, jakin, eta sinistu bear degu? **E.** Bai jakin bear ditugu gure azkeneko lau gauzak: au da, lenbizikoa ill bearra: 2. juzgatuak izan bearra: 3. betiko kastigua, edo pena Infernuan, pekatu mortalean iltzen danarenzat: eta 4. betiko gloria Zeruan Jaungoikoaren grazian dagoala illzen danarenzat: eta baita sinistu bear degu Purgato-

rioko egia; eta alegiñak egin bear ditugu sarritxo gauza oek gogoratzeko, bada oriek ondo konsideratu bagez galdurik, eta itxuturik dago mundua: eta Espiritu Santuak abisatzen gaitu, gure azken gauzak gogotan erabilten baditugu, pekaturik iñoiz egingo eztegu-la.

G. Eta fedeko egiak ikastea, eta jakitea asko degu, fedearen aginte edo mandamentuarekin kunplitzeko?

E. Ez: orrez gañera 2. fedeko gauzak gere barruan sinistu bear ditugu edo fedeko aktoak egin bear ditugu: Zenbat modutan egin oi da fedeko aktoa? Modu bitan: bata da fedeko akto jenerala: Jaungoikoak Elizaren bitartez erakusten digun guzia era batera sinisten degunean, zergatik Jaungoikoak berak ala errebelatu edo argitu duen: eta bestea da fedeko akto partikularra, edo Trinidadeko Misterioa edo Enkarnaziokoa edo beste Misterioren bat aparte sinisten degunean, zergatik Jaungoikoak ala agertu edo erakutsi digun Elizaren bitartez.

G. Eta noiz degu premia edo obligazioa fedeko aktoak gere barruan egiteko? **E.** 1. Arrazoiaren argira, eta fedearen ezaguerara gatozenean: bada ordutik Jaungoikoa serbitzen, eta gere azkeneko fiña billatzen abiatu bear gera: eta orretako lenbiziko pausoa da

Jaungoikoagan sinistea. 2. Fedeko aktoak egin bear ditugu eriotzako peligro edo arriskuan arkitzen geroan: bada orduan gure etsaiaren tentazioak andiagokak, eta indarsuagoak dira: orduan Jaungoikoari kontu emateko puntuak gaude: eta fedearen exerzizio edo ekierarekin prestatu, eta armatu bear gera. 3. Fedeko aktoa egin bear degu fedearen kontrako tentazioak edo pensamentu gaiztoak burura datozkigunean: oek atzeratzeko edo kontra oei egiteko alegiñak egiten ditugula: baña etsaiarekin disputatzen jarri bage, baik bere barruan irmo sinisten degula fedeko gauzak Jaungoikoak berak Eliza Ama Santari agertuak edo erakutsiak dirala: eta ezin Jaungoikoak, eta bere Elizak engañatu gaitzakeala: eta orrenbesterekin kontentatu bear gera: eta orrekin etsaia lotsaturik, eutzi-ko degu; garaia irabaziko degu; eta irabazi andiak Zerurako egingo ditugu: eta orain esan ditudan okasioaz gañera, 4. fedeko aktoak noiz edo noiz berritu bear ditugu: baña nola denbora señaleturik eztagoan, onenbeste denboratik onenbestera fedeko, esperanzako, eta karidadezko aktoak egiteko: diot eze Kristau onak obligazio orrekin kunplitzen duela, noizen bein kredoan atenzioarekin errezatuaz; Pater nosterra edo Aitagurea biotzetik esanaz; akto kontriziozkoa egiñaz;

Meza santua debozior enzunaz: bada okasio orietan guztietan fedea exerzitatzen da, eta fedeko aktoa askotan egiten da, igerri bage edo oartu bage batzuetan egiten bada ere.

G. Eta noiz degu Kristauok obligazioa edo premia gere barruan daukagun fedea kanpora agertzeko, autortzeko edo konfesatzeko? **E.** 1. Galdetzeko eskualdia duen Juezak berak edo aren ordekoak gure fedearen arrazoia eskatzen digunean, kondenatuak izateko penaren azpian, autortu, eta konfesatu bear degu garbiri gure fedea: baita bizia kostako balitzagu ere: eta gure zorionekoak fedeagatik bizia emateko ditxa andia bagendu, bada bertatik betiko zorioneko bizitza seguratu genduke. Baña galdetu baño lenago alde egitea edo bildurrez iges egitea ezta pekatu: bada orduan ezta fedea ukatzen: baizik nolabait autortzen, eta konfesatzen du: bada bildurrak ukatu eragin eztegi on iges egiten du. 2. Fedea agertu bear degu, gure Jaungoikoaren honra nabarbenkiro despreziaturik ikusten degunean: nola lizatean Jesu-Kristoren edo Ama Birjiña Santisimaren edo Santuen Imajiñak gure erreligio santuaren gorrotoz puskatzen edo erretzen ikusiko baginduz: eta 3. fedea agertu bear degu, fedea ukatzeko arrisku edo peligroan gure lagun pro-

jimoa ikusten degunean: bada animatu, alaitu, edo esforzatu bear degu, artako indarririk, eta modurik badegu: bestela ixilik egon gaitezke.

G. Eta ikusi degun ezkerro fedea zer agintzen digun, au da nola fedeko misterioak edo egia prinzipalak ikasi, sinistu, eta autortu edo konfesatu bear ditugun: esan dezagun orain.

G. Fedea zer eragozten digu? **E.** 1. Fedeko gauzak gere barruan ukatzea: edo aezaz, ezaguerarekin, eta borondatearekin dudatzea: eta 2. eragozten digu fedea kontra hitz egitea.

G. Eta nor dira gure fede santuko gauzak ukatzen dituenak? **E.** 1. Dirade ateistak deitzen zaien gizon borondatez itxutzen diran batzuek, eren erabageko atsegin loi zikiñak kezka bage gozatu nai lituzkenak: eta orretarako fedea argiari ezeze, arrazoi naturalaren, eta eren zenzien argiari, eta onek eren barruan ematen dien ortxikada edo erreprentioari begiak, eta belarriak itxitzen ditzenak, eta Jaungoikorik danik ere sinistu nai eztuenak: baña eztitzakun aitatu geiago onelako borondatezko itxuak: eta Jaungoikoari erregutu degiogun, berak argitu ditzala. 2. Dirade paganoak, jentillak, fedebageak edo infielak; fedeko gauzak, eta aek sinisteko arrazoi edo motibo

gutziz andiak aditu arren, sinistu nai eztuenak; edo eren errore edo uste falsotik irteteko, eta egia ezagutzeko alegiñak egiten eztituenak: bada borondate onarekin egia billatu ezkerro, argitzen ditu Jaungoikoa. 3. Gure fede santua ukatzen duenak dirade judu itxuak; Jesu-Kristo mundura etorri zanik, eta Jaungoikoaren Semea zanik sinistu nai eztuenak: Baña zergatik sinistu nai eztuela uste dezue? Zergatik judu aragikorrak, arroak, abariziosoak, mundu onetan eren zorion guzia, eta atsegiñak gozatu nai zituzken: eta ala nai zuken Salbadore bat, ez pekatuak kentzera, eta birtuteak, eta Zeruko erreinurako bidea erakustera zetorrena, baizik aberastasunez, indarrez, eta munduko anditasunez beterik zetorkeana: eta orra zerk itxutu zituan juduak Jesu-Kristo ain humil, ain pobre, eta ainbeste neken artean, ikusi zuenean: eta orra zerk dauzkan orain ere itxuturik denbora oetako juduak: aen arteko, guztiz asko, eta batez ere humillak, eta egia billatzen zuenak, fedearen argira, eta ezaguerara etorri baziran ere, Jesu-Kristoren, eta Apostoluen mirari edo milagro guztiz ziertuak ikusi zituenean.

G. Eta nor geiago dira fedea ukatzen duenak? **E.** Apostatak, eta herejeak. Apostatak dira, bateatuak

izan ezkerro edo fede guzia edo fedeko gauzarik prinzipalenak ukatzen dituguak; eta fedebagetasunera igarotzen diranak: baña orretaraño eldu oi ezтира, lenago bizioetan, eta gaiztakeri arrigarrietan ondatu diranak baizik.

G. Eta nor dira herejeak? **E.** Bateatuak izan ezkerro federo misterioen bat edo beste ukatzen duenak: Eta nundik datorkie itxumen ori? Eren arrotasunetik: bada eren adimentuarekin bakarrik nai ditue barrendu fedeko sekretoak: eta eren iritzi propioa geiago estimatzen due, Eliza Ama Santarena baño. Eta nola gure Jaungoikoak bere Elizari bakarrik, au da, Elizako buru, eta Arzai prinzipalari bakarrik agindu dien, eta ematen dien fedeko misterioak batere errore bage edo utsegin bage ezagutzeko argia, eta guziaz erakusteko kargua, Eliza Ama Santaren sinistetik edo fedetik apartatzen diran guziak ezin izan dezake egia eren alde duelako usterik: eta kontrara Eliza Ama Santak erakusten diguna sinisten degunok, ziertu, eta seguru gaude Jaungoikoaren beraren hitza, eta esana sinisten degula; eta eziñ engañatuak izan gaitezkeala.

G. Eta herejiako pekatua zenbat modutakoa, eta erataria izan oi da? **E.** Batzuetan da bakarrik barrukoa; kanpora agertu bage: beste batzuetan da barrukoa,

eta kanpokoa batetan: barruan daukan errore edo fedebagetasuna kanpora ere agertzen dala: eta beste batzuetan da bakarrik kanpotik, eta ez barrutik uste gaizto bage, eta malizia bage herejiaren bat esaten danean: eta au ezta herejia egiazkoa: bada eztu uste esaten duena fedearen kontra dala: baña naiz barruan bakarrik, ezaguerarekin, fedeko gauzaren bat ukatzen duena: eta are geiago, barruan daukan fedearen kontrako errorea kanporatzen duena, dira hereje egiazkoak: pekatu mortal arrigarri bat egiten due: eta fedearen birtutea galtzen due: eta orien artean dagoan diferentzia da: ze barruan bakarrik herejia daukana, ezta go bertatik exkomulgaturik: eta edozein konfesorek absolbitu lezake, egiaz damaturik konfesatzen bada: bada barruan daukan herejia kanpora ere ateratzen edo agertzen duena, orretan pekatu mortal egiten duela, gelditzen da bertatik exkomulgaturik: eta ori ezin absolbitu lezake Aita Sautuak edo ark emandako eskualdia duenak baizik: eta Inkisizioko tribunal santuak: eta alakoaren berri ziertua konfesiotik kanpora dakianak, dauka obligazioa, pekatu mortalaren, eta exkomunikazioaren azpian inkisizioari kontu emateko. Eta onelako okasioetan utsegin nai eztuenak, galdetu

bear dio konfesoreari edo konseju eman deikion jakin-
suren bati, zer egin bear duen.

G. Eta fedearen kontrako dudak edukitzea zer
pekatu da? **E.** Baldin ezaguerarekin edo adbertentzia
osoarekin fedeko misterioaren bat, ala dan edo eztan
bere borondatez edo berak nai duela, dudatzen badu,
pekatu mortala egiten du: eta orrelakoa da herejea
bezela: Baña burura fedearen kontrako pensamen-
tuak, tentazioak, kezkak, eta dudak etorri arren pena
ematen badiobe, eta ezagutu, eta oartu ezkeru, buru-
tik kentzeko alegiñak egiten baditu: edo orduan fede-
ko aktoak egiten baditu; pekatu batere egiten eztu:
eta bai Zerurako asko irabazten du.

G. Eta fedean beti irmo egoteko, eta Jaungoikoak
guk merezi bage, eman digun fedearen argi, eta doai
gutziz preziatu onezaz baliatzeko, zer egin bear degu?
E. Eztegu fedea alperrik eduki bear, askok daukaten
bezela, baizik exerzitate bear degu, gure salbazioa iri-
tsi nai badegu. Eta orretarako 1. ezagutu bear degu,
gure adimentuaren, eta arrazoiaren laburtasuna
ezeze, gure guztizko ezereztasuna fedeko gauzak
barrentzeko, eta berez diran bezela osoro ezagutzeko:
eta mundu onetan gauden artean kontentatu bear
gera, ikusi bage, Jaungoikoak Elizaren bitartez eraku-

tsi nai izan dizkigun fedeko egiak sinisturekin. 2. Jaungoikoari sarri eskerrak eman bear diogu, zerren fedearen argira, eta ezaguerara egarri gaituan. 3. Fedeko aktoak sarri egiteko oitura santua artu bear degu: eta 4. pekatuari txit kontuz alde egiteko: gere pasio gaiztoak ezitzeko: eta birtuteari gogoti jarraitze-ko, gure fede santuak erakusten dizkigun egia prinzipalak gogoan, ondo sarturik edukitzeko: eta aen gañean gure konsiderazioak sarritxu egiteko alegiñak egin bear ditugu: eta aekin gure bizimodua zuzendu, eta moldatu bear degu bada orretarako gure Jaungoikoak fedearen argia eman digu, eta ez alperrik edukitzeko: bada justua fedeaz bizi da *Justus ex fide vivit*. Eta argatik jakiñik eduki bear degu, fedeak bakarrik eztuela iñor salbatzen, obra onakin, eta bizimodu on batekin laguntzen ezpadegu: eta obra onak eragiten eztituan fede, egiako fede izan arren, da fede illa, anima bageko gorputza bezela: eta karidadeak bizia eman bear dio, salbatuko bagaitu.

G. Eta zein dira ondo bizitzeko gogoan erabilli, eta sarri konsideratu bear ditugun egia prinzipalak? **E.** Dotriñako kartillak berak guziori erakusten dizkigunak: eta batez ere 1. nor dan gure Jaungoikoa eta zein maitagarria dan, bera danagatik, eta guk merezi bage,

egin dizkigun mesede guztiz andiakgatik: 2. nor dan Jesu-Kristo gure Salbadore, Erredentore, eta Maisu soberanoa: eta zenbat zor diogun, izan digun amorio-gatik, eta gugatik sufritu dituan pasio, eta eriotza nekagarri, eta lotsagarriagatik: bada gu kondenatu ez gaitezen, eta betiko zoriona iritsi dezagun, gizon egin zan; gure pekatuen zorrak bere gañ artu zituan. Jaungoikoaren justiziarik gugatik satisfazioa edo pagua eman zion: eta Zeruko bidea bere exemploarekin edo dotriñarekin erakutsi zigun: eta pekatuari alde egiteko, eta birtuteari jarraitzeko bear degun grazia, eta indarra gogotik ematen digu, bear bezela eskatzen badiogu: eta ala eduki bear degu Jesu-Kristoganako esker ona, beraganako esperanza bizia, eta beraren amorio santua gure biotzetan ondo sarturik, eta iraze-kirik edukitzea prokuratu bear degu: eta 3. alde bate-tik betiko Infernua, eta ango betiko tormentu ikaragarriak: eta bestetik Zeruko gloria, eta ango betiko zoriona, pakea, atsegin, eta kontentuak gogoan erabilli bear ditugu: eta beste onelako fedeko egiak sarritxo kontsideratu bear ditugu: eta orduan egia orien argi, eta ezaguerarekin pekatua benetan aborrezitu bear degu: Jaungoikoari humillaturik, eta damaturik barkazioa eskatu bear diogu: eta baita aurrera bizimodu

santu bat egiteko grazia, eta indarra: eta batez ere
azi, edo aumentatu dezala gudan fedea, esperanza,
eta karidadea: pazienza, eta birtuteak: eta orrela bizi-
modu on bat egingo degu: eta Zeruko betiko ondasu-
nak iritsiko ditugu. Amen.

AMABOSTGARREN DOTRIÑA

- 1. Esperanza zer dan, eta zer agintzen digun:*
- 2. zer eragozten digun: eta*
- 3. nola exerzitzatu bear degun.*

Aditu zenduen orain urrengo aldian fedearen birtutea zer dan: fedeak zer agintzen digun, eta zer eragozten digun: eta nola fedeak exerzitzatu bear degun, arekin batera gure bizimodua zuzentzeko, eta Zeruko gloria, eta betiko ondasunak iristeko: eta fedeak erakusten digun betiko zorionaren edo Zeruko gloriaren deseoa egiazkoa, eta esperanza ona guziok eduki bear degun ezkerre: gaur esperanzako birtute onen gañean hitz egin bear dizuet: eta 1. esango dizuet, zer dan Kristauaren esperanza; eta zer agintzen digun: 2. zer eragozten digun: eta 3. nola guziok birtutea exerzitzatu bear degun, eternidade guzian egiaz zorionekoak izan nai badegu.

G. Zer da bada esperanza? **E.** Da Zeruko birtutea edo doai bat naturalezaz gañekoa edo sobrenaturala, Jaungoikoak bateo Santuan sortu edo eman ziguna: eta mugitzen gaituana itxodotera Jaungoikoagandik

betiko zoriona edo betiko gloria, Jaungoikoaren bera-
ren graziaren laguntasunarekin, eta gure obra onakin;
eta deitzen diogu, birtute Teologala edo Jaungoikoz-
koa, zerren onekin begiratzen diogu Jaungoikoari gure
zorion soberanoari edo gorenari bezela.

G. Eta zein da birtute orren aktoa, ekiera edo exer-
zizioa? **E.** Da Zeruko erreinua gogotik deseatzea: eta
edukitzea gure barruan betiko zoriona edo gloria, eta
ura iristeko medioak edo laguntasunak, gure Jaungoi-
koak ziurtu emango digulako ustea edo esperanza,
gere partetik ere alegiñak egin nai baditugu: eta espe-
ranza onen motiboak dira 1. zerren dan Jaungoikoa
bera gure ondasun soberanoa edo guzien gañekoa;
eta aren Majestadeak beraz gozatzeko egin gaitu: 2.
zerren dan gure anparatzalle edo laguntzalle guztiz
poderoso, eto jakintsua: 3. zerren dan miseriordio-
soa, eta errukiz begiratzen digun; eta 4. zerren dan
eskeñi, agindu edo prometitu diguna kunplitzen guztiz
fiela, eta leiala: eta agindurik gauzke, Jesu-Kristo, bere
Seme maitearen izenean ondo eskatu ezker, gure
animako salbaziorako bear deguna emango digula.

G. Eta eskatu, eta esperatu ditzakegu Jaungoikoa-
gandik ondasun tenporalak? **E.** Bai: bada guzien Jabea

Jaungoikoa da: baña eskatu bear diozkagu, gure salbaziorako ondoena dagokigun neurrian, eta moduan.

G. Nolako kondizioarekin Zeruko gloria agindu digu gure Jaungoikoak? **E.** Aren mandamentu santuak bere graziarekin edo laguntasunarekin batera gordeko ditugulako kondizioaren azpian.

G. Eta esperanzako birtute onetan zer agintzen digu batez ere gure Jaungoikoak? **E.** Fedeko birtutearen explikazioan esan genduan bezela agintzen digu esperanzako aktoak egitea: 1. arrazoiaren argira, eta gure betiko zorionaren edo betiko gloriaren ezaguera fedearen bitartez eltzen geranean. 2. Esperanzako birtute onen kontrako tentazio fortitzak burura datozkigunean, esperanzako aktoa egin bear degu, tentazioa goitzeko. 3. eriotzako peligroa datorkigunean orobat esperanzako aktoak egin bear ditugu: alde baietik gure ezereza, eta argaltasuna, eta Jaungoikoaganako esger gaiztoa ikusirik, humillatzen gerala: baña bestetik, Jaungoikoaren ontasun, piedade, eta miserikordia kabubagea, eta guzaz duen erruki guztiz andia gogora ekarri bear degu: eta Jesu-Kristoren ize-nean, eta aren pasio, eta eriotza santuaren neurribageko merezimentuakgatik, esperanza bizi batekin eskatu bear diogu gure pekatuen barkazioa, eta erio-

tza on baten grazia; eta orri darraion betiko gloria. Eta 4. okasio oriezaz gañera, fedeko aktoak bezela, esperanzakoak ere noizen bein edo sarritxo egiteko alegiñak egin bear ditugu: bada eskrupulurik izan ezteza-zuen, jakizue, ze Aita gurea ondo, eta ezaguerarekin errezatzen dezuen guzian: eta orobat akto kontriziozkoa bear dan bezela egiten dezuen guzian, esperanzako aktoa ere egiten dezuela: eta baita, ez oartu, edo akordatu arren, igerri bage, eta ixilik fedea, eta esperanza askotan exerzitate oi ditugu: ala konfesatzen geranean, nola komulgatzen geranean, nola Meza enzuten degunean, edo Errosario Santua errezatzen degunean: bada ezin gauza oriek ondo egin litezke, gere barruan fedea, eta esperanza berritu bage: eta pekatuari kontuz alde egiteko; zuen gurari gaiztoak ezitzeko, eta Zeruko gloriaren deseoarekin obra onak egiteko, alegiñak egiten badituzue, esperanza ona daukazuelako señailea da.

G. Eta nor dira esperanza ona eztuen Kristauak? **E.** Birtute onek eragozten duena egiten duenak.

G. Zer eragozten du bada esperanzako birtuteak? **E.** Pekatu mota bi, bata bestearen antzik eztuenak eragozten ditu: bata da esperanzaren falta edo etsimena edo desesperazioa; eta orri darraion nagitasu-

na, eta alperatasuna: eta bestea da esperanzaren
sobra edo geiegia, eta erabageko presunzioa: eta bil-
dur santuaren falta.

G. Zer da esperanza galdu eragiten duen desespe-
razio edo etsimenezko pekatua? **E.** Betiko zoriona edo
bere animako salbazioa iritsiko edo alkanzatuko
eztuela etsitzea: eta uste orretan penitentzia eta obra
onak egiteari largatzea.

G. Eta nundik sortu oi da edo dator etsimen edo
desesperazio ori? **E.** Uste izatetik Zeruko bidea neke-
za, eta estua dala: eta maite dituan erabageko atsegi-
ñak eziñ utziko dituala: bere aztura gaiztoak eziñ goi-
tuko edo menderatuko dituala: eta birtuteari jarraitze-
ko egin bear dituan lanak eziñ egingo dituala.

G. Eta desesperazio edo etsimen ori zer pekatu
da? **E.** Da berez pekatu mortala: ez beste guzien
artean peligro guztiz andikoa: bada esperanza guzia
galdu eragiten du: eta azkeneko fiñaz edo betiko
zorionaz etsitzen du: eta ura iristeko medioak igui
ditu, eta uzten ditu; eta orregatik ere da Espiritu San-
tuaren kontra diran pekatu arrigarrietatik bat.

Nola izango ezta bada orrelako pekatua guztiz
peligro andikoa? Argatik San Isidorok esan zuen (libro
2. de summo bono sententiarum capitulo 14.) Pekatua

mortal bat egitea anima iltzea da: baña salbazioaz etsitzea Infernura jaitsitzea da. Baña ori guzia aditzen da, etsimen edo desesperazio ori borondatezkoa danean: bada Kristauen artean badira asko, bere borondate edo naiaren kontra, esperanzako birtute onen kontrako tentazio edo pensamentu guztiz gogai-karriak edo penagarriak izaten dituenak: eta esperanza galdu duelako bildur arrigarri bat eduki oi duenak. Eta ori datorkie, ez erak ezaguerarekin ala nai duela-ko edo konsentitzen duelako; ezpada zerren Infernuko deabruak erabageko bildurkunde geiegirekin turba-tzen dituan: edo erak barruko tristura, eta melankolia-ri leku geiegi ematen dioben: eta orrelako persona bil-durtiak (pekatuak ezagutu ezkeru igui badue, eta alako pensamentuak penatzen baditue) konsolatu, eta alaitu bear dira: eztue uste izan bear alako tenta-zioak pekatu dirala, borondateak igui dituan artean: eta eren argaltasuna, eta berez bakarrik ezertako gai eztirala ezaguturik, eren konfianza guzia Jaungoikoa-ren kabubageko ontasun, eta miserikordiagan, eta Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren neurribageko merezimentuetan ipiñi bear due: eta al dituen obra on guziak egiteko alegiñak egin bear ditue.

G. Eta nundik geiago sortu oi da desesperazioa edo etsimenezko pekatua? **E.** Fedearen kontra dan itxumen gaizto batetik: eta da, uste duenean, bere pekatuak aiñ arrigarriak dirala nun eziñ Jaungoikoak barkatu leizkiola, edo barkatu naiko eztiozkala: Kain gaiztoak, eta Judas gaiztoak uste izan zuen bezela: eta ala kondenatu ziran, esperanza galdu zuelako: eta ori da ukatzea Jaungoikoaren kabubageko ontasuna, eta miserikordia, eta aren guzeltasuna edo pederio neurribagea: eta da batetan fedea, eta esperanza galtzea, eta hereje itxutua, eta gogortua izatea: bada gure fede santuko egia, eta artikulu prinzipala, kredoan bertan Apostoluak ipini ziguena da pekatuen barkazioa: au da, gure Jaungoikoak utzi edo eman diozkala bere Elizari pekatu mota guziak barkatzeko erremedio eragilleak, pekataria bera bear bezela prestatzen edo disponitzen bada penitentzia egiazkoarekin.

G. Eta nork geiago esperanzako birtutearen kontra pekatu egiten du? **E.** Zeruko gloria, eta betiko bizitza zorionekoa biziro deseaten eztuenak: eta ura iristeko medioak gogotik artu nai eztituenak: eta ala pekatu mortalean bizi dira; emengo ondasunak, emengo atsegiñak, emengo bizitza al balue, beti-beti gozatu nai lituzkeanak, eta Zerukoakgatik trukatu ez lituz-

keanak: bada orrelakoen biotza munduari josirik dago: eta eren betiko zorionaz ajolarik eztue: bear dan beze-la estimatzen eztue: eta ori da fedea, eta esperanza illik edukitzea, eta kondenazioko estadian egotea.

G. Eta zer geiago eragozten du esperanzako birtuteak? **E.** Presunzio alperra, eta banoa.

G. Eta zein da esperanzaren kontrako erabageko presunziozko pekatua? **E.** Da modu askotan: eta 1. da, batek uste duenean bere indar utsakin Jaungoikoaren grazia, eta Zeruko gloria iristea: eta ala uste zuen San Agustiñen denborako Pelajianoak deitzen ziran hereje batzuek, eren indar propioakin, Jaungoikoaren grazia bage edo Zeruko laguntasun sobrenatural bage, mandamentu santuak gorde zitzakeala, eta betiko zorioneko bizitza iritsi zezakeala. Eta kontrara beste batzuek uste izan zuen, erak penitenziarik egin bage, eta obra onik egin bage, Jaungoikoaren ontasun infinitoak Jesu-Kristoren merezimentu utsakgatik salbatuko zituala: eta esperanza ori biotzean edukitzea asko zala, salbazioa iristeko beste nekerik artu bage. Baña oriek guziak Eliza Ama Santak kondenatu ditu herejetzat: eta erakutsi digu, Jaungoikoaren hitzaz conforme, salbazioa iristeko nai ta ez bear ditugula batetan Jaungoikoaren grazia edo Zeruko laguntasuna, eta arekin

batera gure obra onak: bada, San Agustiñek esaten digun bezela, ezerezetik gu bage sortu edo egin gaituan Jaungoikoak, ez gaitu gu bage salbatuko: au da, ematen digun graziarekin batera, agintzen digun obra onak egiten ezpeditugu.

G. Eta esperanzaren kontra iñork geiago presunzioz pekatu egiten du? **E.** Bai: 1. eren salbaziorako Jaungoikoaren laguntasunean, eta grazian baño eren indarretan; eren jakindurian, eta eren alegiñetan konfianza geiago daukatenak: eta 2. naiz osasuna iristeko, naiz ondasunak edo nai lituzken beste aurrerape-nak munduan alkanzatzeko, Jaungoikoagan baño geiago fiatzen diranak munduko personetan, eta eren jakinduria eta alegiñetan: bada Jaungoikoak eztu nai, beragan baño esperanza geiago iñorgan prinzipal-mente eduki dezagun, naiz animarako, naiz gorputze-rako bear ditugun edo konbeni zaizkigun gauzetan: bada bestela, Jaungoikoagan baño esperanza geiago gizonetan ipinten badegu; nundik oei gusto emango diegun ibilliko gera: eta eren bizioetan ere, egia esan ordean, lausonjatuko, eta eren gustora hitz egingo diegu: eta aen esan gaiztoak egiteko prest egongo gera. Orra zer dakarren Jaungoikoaz azturik gizonetan prinzipalmente gure esperanza ipinteak: eta kontrara

Jaungoikoagandik prinzipalmentean bear ditugun edo ondo dagozkigun gauzak esperatzen baditugu, Jaungoikoaren bai, baña beste iñoren erabageko bildurrik izango eztegu: eta Jaungoikoari atsegin emateko kuidaude geiago ipiñiko degu, eta alegiñak ere egingo ditugu.

G. Eta esperanzaren kontrako presunzio gaiztoa eta erabagea noiz geiago gertatzen da? **E.** Pekatu mortalak egitera oiturik dauden pekatariak uste duenean, Jaungoikoak guztiz errukitsua, eta miserikordio-soa danak bezela itxongo diela erak nai artean, eta erai gogoak ematen dienean penitentzia egingo duela, eta salbazioko bidean jarriko dirala: eta orobat uste duenean eriotzako orduan konfesio on bat edo akto kontriziozko egiazko bat egingo duela; eta guzia bate-tan erremediatuko duela: bada orrelako presumiduak uste due, gauza guztiz erraza dala, eta instante batean egin ditekeala Jaungoikoagana benetan biur-tzea: penitentzia egiazkoa egitea: eta barkazioa iris-tea: eta orobat kostako zaiela pekatu askoren, nola baten damua artzea, eta konfesioa egitea: eta ala oitura gaiztoaren mendean jarten dira: eta orti, eren buruak libratzeko egiazko alegiñik egiten eztue: beti geroko penitentzia luzatzen due: eta onelako presun-

zio edo uste temerarioak txit asko dauzka ondaturik Infernuan, zergatik gure Jaungoikoak berak deitu dituanean, aren ontasunez, eta miserikordiaz penitentzia egiteko baliatu ordean, pekatu geiago egiteko baliatu diralako; orrelako presumidu arroai berariaz bat batetan kendu oi die, edo bizia edo zenzua edo ukatzen die, zor eztien laguntasun espezialak, eta eren pekatuan penitentzia egiazkorik egin bage, jatxi oi dira betiko Infernura. Eta orobat erabageko presunzio arrigarri batean erorten dira pekatu mortala edo lujuriakoa edo ordikeriakoa edo beste edozein eragin oi dien peligro edo okasio gertuan eren borondatez jarten diranak; pekaturik egiteko asmorik eztaramelako edo Jaungoikoak lagunduko dielako, pekatuan erori eztitezen: bada orrelako okasio edo peligro gertuan, berak nai duela egotea edo jartea, da ia presunziozko pekatu mortal egitea: bada peligroa edo arriskua billatzen duena an eroriko da; denbora guzietako exenploak erakutsi duen bezela. Ezpada gogora ekarzue, nola erori ziran Sanson indarsua; Dabid santua; Salomon jakinsua; eta Aita San Pedro, Apostolu guzien burua: eta begiratu ezazue, etzeratela zuek: ez ain indarsuak, ez ain santuak, eta ain jakinsuak: eta ala peligrotik beti alde egizue, eta zeurok nai eztezuela, uste

bage, alakorik ofrezitzen bazatzue, bereala Jaungoikoa-
ari laguntasuna, eta indarra eskatu egiozue, berak
gorde zaitzen pekatuan erori bage.

G. Eta badira geiago, presunzioko pekatuan eror-
ten diranak? **E.** Bai: eta dira, alako Kristau alper
batzuek, Zeruko erreinua, eta gloria iristea uste due-
nak, baña Jesu-Kristok bere Ebanjelio Santuan eraku-
tsi zigun bizimoduari jarraitu nai bage; eren pasio,
apetitu, eta griña gaiztoai gerrarik egin bage: debo-
zozko gauzaren batzuek egiten dituelako, humiltasu-
na, pazientzia, mortifikazioa, eta onelako beste pre-
miazko birtuteak exerzitzatzeko nekerik artu nai bage;
joku luzetan, jostatze, eta konzersazio alperretan, eta
jan-edanetan eren pensamentu guziak dauzkatela,
Kristau bati dagokion bizimodu arreglatu bati jarraio
bage: onelakoen esperanza da alperra, da presunzio
banoa: bada Jesu-Kristoren beraren esanaz batera,
Zeruko erreinua irabazteko indar egin bear degu: gure
borondatea bere gurari gaiztoakin ukatu edo ezi bear
degu: egunoroko gurutzea edo gertatzen zaizkigun
naigabe, eta atsekabeak, gutxianez, pazienziarekin
eramatera guziek jarri bear gera: eta Jesu-Kristori
jarraitu bear diogu: eta orretarako gerez gai ez gera-
lako, bere grazia, eta indarra gogotik, eta sarri Jesu-

Kristori berari eskatu bear diogu: baña eskaera orretan bertan ere sartu oi da Kristau askogan erabageko presunzioa, eta da, bear dan prestaera bage, atenzio bage, humiltasun bage, konfianza bage, eta erremediatzeko deseo egiazko bage, orazioa, erregua edo eskaera oituraz bezela, geiago ezpañaz edo aoaz, biotzaz baño egiten danean: bada orrelakoak Jaungoikoa tentatzen du: esperanza alperra dauka: eta eskatzen duena iristen eztu, zergatik ondo eskatzen eztuen.

G. Zer egin bear degu bada gure esperanza ondo exerzitzeko edo piztutzeko; eta Jaungoikoak guretzat daukan betiko zoriona edo Zeruko gloria iristeko?

E. Denbora guzietako Santuak egin izan duen bezela, gu ere fedearen argiaz baliatu bear gera; eta fedea erakusten digun bezela, esperanzarako ditugun motibo guztiz andiak gogoan ondo sarturik eduki bear ditugu: eta batez ere tentazioak edo naigabeak estutzen gaituenean, aekin baliatu bear gera. Eta 1. ondo ezagaturik, eta konsideraturik eduki bear degu, zeñ sari edo premio guztizkoa daukagun Zeruko glorian, orain zerbait Jaungoikoagatik, eta gure salbazioagatik nekatzten bagera: eta batetik sariaren edo betiko gloriaren anditasunak, eta aren betiko iraupenak, eta bestetik nekearen laburtasunak, alaitu bear gaitu, Jaungoikoa-

ren mandamentu santuak txit kontuz gordetzera: eta gure naigabe guzietan pazientzia andi bat edukitzera: eta orretarako bear degun gogo ona, eta indarra Jaungoikoari berari eskatu bear diogu. 2. Eta seguru egon gaitezke, Zeruko erreinua, eta ara daraman birtutea, gogotik, eta beste gauza guzien gañetik billatzen badegu, munduan bear ditugun mantenu edo aliméntua, soñekoa, eta ondo dagozkigun beste gauza guziak, Jaungoikoak gure Aita ona danak bezela, emango dizkigula, azigarri edo añadigarri bezela: bada berak Ebanjelioan ala esaten digu, eta agintzen digu, gauza oriekgatik ez gaitezela ansiatu, eta penatu, zerren berak gure kuidadua dauka: eta esaten ere digu, gure gogo, ansia, eta deseo guzia Zerura jaso bear degula, bada an dago gure tesoroa. Eta 3. zerren guziok gerez ezerezak, itxuak, argalak, gaitzera etziñak eta miserableak geran; eta alde guztietatik animako etsaiak gerra egiten diguen; ezaguera onekin eztegu etsi bear, baizik humillatu bear gera; gere buruaz, eta indarraz fiatu bear ez gera: gere aldetik danez bildur andi bat gere barruan eduki bear degu: baña ikusirik beste aldetik Jaungoikoaren ontasun, eta miserikordia neurribagea, eta bere Seme maite Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean gure salbaziorako eska-

tzen diogun guzia emango digulako bere promesa, eta hitza: esforzatu bear gera, eta humiltasunarekin, eta konfianza oso batekin eskatu bear diogu sarri falta zakun indarra, eta grazia: eta erraz Jaungoikoaren laguntasunarekin, eta gure ekiera onarekin gere pasio edo griña gaiztoak, eta animako etsaiak, benetan nai badegu, goituko edo menderatuko ditugu: birtuteari jarraioko diogu: eta batez ere birtute guzien ama, erregiña, eta bizitza dan karidadea, au da, Jaungoikoaren eta projimoaren amorio egiazkoa iritsiko degu: eta orrek gure fedea, eta esperanza piztuko dizkigu: obra onak eragingo dizkigu: eta orien sari guztizkoa, eta betikoa, gero Zeruan goza eragingo digu. Amen.

AMASEIGARREN DOTRIÑA

1. Karidadea zer dan, eta Jaungoikoaren aldera zer agintzen digun: eta 2. nor diran eskuarkiro karidadean bizi diranak, eta nor ez.

Fedea, eta esperanza birtute guztiz andiak, eta bearrak dira, N.K.: baña karidadea andiagoa, eta ondasundunagoa da: bada fedearekin, eta esperanza-rekin bakarrik karidade bage, eziñ salbatu gaitezke: baña fedea, eta esperanza karidadearekin juntatu ezkeru, seguru betiko bizitza zorionekoa edo Zeruko gloria iritsiko degu: eta zenbat karidade edo Jaungoikoaren eta projimoaren amorio andiagoa degun, anbat merezimendu geiago, eta gloria andiagoa iritsiko degu: bada karidadearen neurriari dagokio Zeruan gloriaren neurria: alabaña karidadea da birtute guzien erregina: guzien ama, eta guzien fiña, eta birtute guziaz bizia ematen diena: alako moduan, ze karidade-rik eztuenak, egiten dituan obra on guziak Zeruan saririk izango eztue; martirioa bera karidade bage padezituko balu ere: eta kontrara karidadean edo Jaungoikoaren grazian, eta amorioan gaudela Jainkoi-

koagatik egiten ditugun obra on guziak, eta baita premiazko lanak ere merezimentuzkoak dira: eta aen saria Zeruan beti gozatuko degu.

Ikusi dezuen ezkerro bada aurreko dotriña bietan, zer diran fedearen, eta esperanzaren birtuteak: zertara obligatzen gaituen, eta nola exerzitate bear ditugun: gaur txit kontuz aditu bear dezue, birtute guzien andiena, guzien ama; guzien bizitza, guzien fiña, eta lege guziaren osagarria dan karidadea, 1. zer dan; zertara beartzen edo obligatzen gaituan, da 2. nor diran eskuarkiro karidadean bizi diranak, eta nor ez: eta azkenik karidadea iristeko, eta artan irauteko, eta aurreratzeko zer egin bear degun: orra dotriña bat txit bearra.

G. Zer da bada karidadea? **E.** Da Jaungoikozko birtute edo doai miragarri bat, Jaungoikoak berak bateo santuan doarik edo guk merezi bage sortu edo eman diguna, gure borondatea mugitzen duena, amatzera Jaungoikoa bera, bera danagatik, eta gauza guzien gañetik, eta amatzera gure lagun projimoa gere buruak bezela Jaungoikoagatik: eta birtute edo doai miragarri onekin eman zigun bere grazia justuak egiten gaituana: eta orduan gelditu giñan egiñik Jaungoi-

koaren beraren adiskideak, beraren Seme edo Alabak, eta Zeruko herederoak.

G. Karidadearen birtute au zenbat modu edo eratan da? **E.** Bitan, batari deitzen diogu habituala, eta au aur bataiatuaren animan arkitzen da, ezaguerara etorri baño lenago ere: eta orobat lo dagoan justuaren animan: eta besteari deitzen diogu karidade aktuala, eta da Jaungoikoaren amorioaren ekiera edo exerzioa: amatzen degula gure Jaungoikoa bera danagatik bakarrik gauza guziak baño geiago: eta amatzen degula gere lagun projimoa gere buruak bezela Jaungoikoagatik; ez bakarrik biotzez, baita obraz ere.

G. Zergatik karidadeari deitzen diogu birtute Teologala edo Jaungoikozko birtutea? **E.** Zergatik onekin Jaungoikoari berari zuzen-zuzen begiratzen diogun; eta onekin ematen diogun geiena nai duen honra, eta adorazioa.

G. Eztiogu bada karidadearekin begiratzen gere buruari, eta gere lagun projimoari? **E.** Bai: Jaungoikoaganik gere buruak, eta lagun projimoak maite baditugu: bada bestelako motiboagatik gere buruak edo lagun projimoak amatzea, ezta karidadezko amorioa; baizik amorio natural utsa: eta arrazoizkoa bada, ona izan liteke: baño ez karidadezkoa, eta sobrenaturala,

eta merezimenduzkoa Zerurako; Jaungoikoagatik batez ere amatzen ezpaditugu gere buruak, eta gere lagun projimoak: eta ala Jaungoikoa bera amatzen degu, gere buruak, eta lagun projimoak karidadezko amorioarekin amatzen ditugunean: eta argatik Jaungoikoaren eta lagun projimoaren amorioa sustrai batetik dator: eta guzia birtute bat da.

G. Jaungoikoaren alderako karidadeak zer agintzen digu? Edo nola amatu bear degu gure Jaungoikoa? **E.** 1. Amatu bear degu bera danagatik bakarrik: eta 2. amatu bear degu gauza guziak baño geiago; eta gere buruak ere baño geiago.

G. Zer esan nai degu, Jaungoikoa bera danagatik bakarrik amatu bear degula diogunean? **E.** Eztegula asko karidadearekin kunplitzeko Jaungoikoa amatzea: bera gure ondasun, eta zorion dalako: edo beragandik bakarrik on guziak itxoten ditugulako: bada ori guzia gauza guziz egokia, justua, eta premiazkoa badegu ere, ori da bakarrik gere buruak Jaungoikoagan amatzea: eta ori da esperanzako birtuteari dagokion amorioa: eta ala karidadezko amorioa exerzitzeko, amatu bear degu gure Jaungoikoa bere kabubageko maitagarritasunagatik, au da, bera infinitamente ona, santua, eta perfekzio guzien jabea dalako, beste moti-

bo bage, poztutzen eta alegratzen gerala bere betiko, eta kabubageko zorionaz.

G. Eta zer da amatzea Jaungoikoa gauza guziak baño geiago, eta gere buruak ere baño geiago? **E.** Naiago izatea gauza guziak, eta gere bizia ere galdu, ezenez Jaungoikoa ofenditu. Baña galdu esaten bade-gu ere, ezta ori gere buruak, eta gere bizia galtzea; baizik gere buruak, eta gere bizia betiko aseguratzea: eta bizitza labur, eta miserable baten orde betiko bizi-tza, eta zorioneko bizitza irabaztea: eta ala egiaz zorionekoak dira Jaungoikoaren amorioagatik, eta pekaturik ez egiteagatik gauza guziak, eta eren biziak sakrifikatzen dituenak.

G. Eta nola oraindik geiago amatu bear degu gure Jaungoikoa? **E.** Berak Ebanjelio Santuan esaten digun bezela: gure biotz guziarekin, gure adimentu guziarekin, eta gure indar guziakin. (Math. C. 22 V. 37.)

G. Berria ote da bada mandamentu au? **E.** Ez: aiiñ zarra da, nun Adan, eta Eba gure lenengo gurasoak, eta aen ondorengoak izan zuen obligaziorik andiena orixe zan: bada gure Jaungoikoak egin zituan gu bezela, bere antzera, bera ezagutzeko, serbitzeko, eta amatzeko, eta Zeruan gero beraz gozatzeko: eta aren Majestadea, eren Jaungoiko, eren jabe, eta eren ongi-

Ile soberanoa bezela biotz guziarekin, adimentu guziarekin, eta indar guziakin beti amatzeak izan bear zuen aen lanik-beargairik, eta egitekorik andiena, eta premiazkoena. Baña nola pekatuak itxutu zituan, eta eren buruen amorio erabagez beterik gelditu ziran, erraz Jaungoikoari zor zioben amorioaz aztu ziran: eta argatik Jaungoikoaren ordenaz Moises Profeta andiak Juduai mandamentu au berritu zien: eta legeko lenda-biziko mandamentua, eta guzien andiena bezela aditzera eman zien: esaten ziela: amatuko dezue Jaungoikoa zuen Jauna, zuen biotz guziarekin, zuen adimentu guziarekin, eta zuen indar guziakin: (Deut. 6.5) eta hitz oek zuen biotzetan eskribituko dituzue: zuen humai erakutsiko diezue: zuen etxeetan gogoratuko dituzue: eta konsideratuko dituzue zuen biajeetan: oira zoaztenean, eta jaikitzen zeratenean: zuen eskuetan lotuko dituzue: eta zuen ate gañetan ezarri edo eskribituko dituzue: eta begien aurrean beti erabiliko dituzue. Orra. N.K. Moisesen hitz oetan mandamentu onen premia, eta guztizko inportanzia ondo aditzera emanik: bada Jesu-Kristo gure Jaunak mandamentu ori konfirmatu, eta aprobatu zuen: eta orrekin ondo kunplitzeko, gure biotzetan ondo sarturik eduki bear degu: eta gure lan edo beargai guziak Jaungoiko-

aren amorioz egitea prokuratu bear degu: eta orri dagokala, San Paulo Apostolu andiak esaten digu: «naiz jan, naiz edan, naiz beste edozein lan egin dezauela; guzia Jaungoikoaren honra, eta gloriagatik egizue».

G. Orrela beti-beti Jaungoikoa amatzen egon bear-ko degu? **E.** Ez: ori ezta posible munduan gauden bitartean: ori da Zerukoen lana: munduan gauden artean beste lan edo egiteko premiazkoak, atenzioa nai ta ez eramaten diguenak badauzkagu: eta asko degu, gere obligazioarekin, emen kunplitzeko, Jaunaren amorioan edo beraren grazian, eta adiskidetasunean bizitzea: beti prest egotea, edozein neke sufritzera bera ez ofenditzeagatik: gere lanak Jaunaren izeunean edo berari gusto emateko asmo edo intenzioarekin egitea: eta noizean bein amoriozko edo kari-dadezko aktoak egitea: fedeko, eta esperanzako akto-akgatik esan genduan bezela. Eta Jaungoikoaren amorio santuan egunoro, eta geiago aurreratzeke alegiñak egitea: bada bestela gure buruaren, eta munduko gauzen amorio erabage edo desordenatuak erraz goituko edo menderatuko gaitu.

G. Eta Jaungoikoaganako gure amorioak egiazkoa izateko, amorio samurra, sentikorra, eta atsegiñezkoa

edo gustosoa izan bear otedu? **E.** Ori txit amorio ona, eta probetxu asko dakatzena izan oi da: baña ezta ori premiazkoa; bada gure eskuan eztago: eta orrelako samurtasun, eta atsegiñen karidadearen sustanzia edo izatea eztago.

G. Zertan dago bada? **E.** Arrazoizko edo juiziozko gere nai edo borondatearekin geiago estimatzean, eta amatzean gure Jaungoikoa eta aren nai, eta borondate santua; gere buruak, gere borondatea, eta beste gauza guziak baño: alako moduan, ze gure adimentuak, Zeruko argiz edo graziaz argiturik ikusten edo ezagutzen du Jaungoikoa dale kabubageko ontasuna, guzien gañekoa, eta amorio neurribagea edo fin gabea, berez merezi duena; eta ala dala beste gauza guziak baño geiago amatu, eta estimatu bear deguna: eta orduan gure borondateak, Jaunaren beraren graziaren laguntasunarekin, beste gauza guziak baño geiago edo guzien gañeko amorioarekin Jaungoikoa estimatzen, eta amaten du: eta dago prestaturik gauza guziak galtzera Jaungoikoa ez ofenditzeagatik: eta orretan dago egiazko karidadea, eta Jaungoikoa-ganako premiazko edo obligaziozko amorioa: eta orretan irmo bagaude; sentiduen aldetik samurtasunik, biguntasunik, eta barruko beratasunik edo berotasu-

nik ez izan arren, amatzen degu egiaz gure Jaungoikoa bera danagatik, eta gauza guzien gañetik.

G. Eta gerta liteke, batek Jaungoikoagana baño amorio biguñagoa, samurragoa, eta sentikorragoa edukitzea persona bategana; nola guraso batek bere hume bategana; senar batek bere emazteagana, edo beste edozein gauzagana, edo emazteak senarragana eta ala ere, Jaungoikoa persona oriek, eta beste edozein kreatura baño geiago amatzea, eta estimatzea?

E. Bai: ori askotan gertatzen da: bada begiz ikusten diran gauzak bereala mugitzen gaitue; eta, ezin erremediatu degun moduan, bereala edo poztutzen, eta konsolatzen gaitue, gure gustokoak diranean: edo tristetzen, eta penatzen gaitue, igui ditugunean: baña begiz ikusten eztiran gauzak eztitue gure sentiduak orrela ukitzen, eta mugitzen: baña ala ere arrazoiarekin, eta fedeko argiarekin ezagutzen ditugun gauzak, gere barruko juizioarekin, estimatzen ditugu edo estimatu ditzakegu, erak merezi duen bezela: eta gure borondateak amatu ditzake edo igui izan ditzake neurri orretan bertan: eta ala amorio guztiz samurra, eta sentikorra izan arren edo humeagana edo gurasoagana edo senarragana edo emazteagana edo beste edozein kreaturagana; amorio samur orrek pekatu dan

gauzarik eragiten ezpadio, borondatearen, eta biotza-
ren aldetik estimatu, eta amatu dezake Jaungoikoa
persona edo kreatura oriek, eta beste guziak baño
geiago: eta egiaz ala amatzen du, guziak galtzera
prestaturik badago, Jaungoikoa ez ofenditzeagatik:
eta ona Kristau on bildurti, eta eskrupuloso askoren-
zat dotriña guztiz ziertua, eta atsegin andikoa: bada
Jaungoikoa biotz guztitik amatzen badue ere: eta
pekatua egin baño lenago ill nai balue ere, amorio
samur, biguñ, eta atsegiñezkorik eren barruan senti-
tzen eztuelako penaturik edo tristeturik: eta baita kez-
kaz, eta errezeloz beterik; eta Jaungoikoa egiaz ama-
tzen eztuelako bildurrez, egon oi dira: ori bera egiaz-
ko amorioaren señaile ona bada ere. Baña eskuarkiro
berez munduko personaen, eta munduko anditasun,
ondasun, eta atsegiñen amorioak, geiegizkoa edo era-
bagea danean, peligro guztiz andia dakar, Jaungoiko-
aganako egiazko amorioa txit galdu eragiteko: bada
biotzean leku eman ezkeru, itxutzen du; beragana
tiratzen du: eta erraz pekatuan erori eragiten du. Eta
argatik ez gera osoro kontentatu bear Jaungoikoaren
guzien gaiñeko amorioa gure biotzean daukagulako
uste edo iritziarekin, gere obraakin ori bera okasioa
edo tentazioa datorkigunean probatzen, eta erakus-

ten ezpadegu: eta orri dagokala Jesu-Kristo gure maisu soberanoak esan zigun: aren Majestadea amaitzen duenak bere mandamentuak gordetzen dituala: eta orregatik gure dotriñako kartillak lendabiziko mandamentu onen esplikazioan lenengo egiten duen galdea da. Nork amaitzen du Jaungoikoa? eta erantzuten du. Aren mandamentuak gordetzen dituanak. Eta San Juan Ebanjelistak ori bera erakusten digu, esanaz, mandamentuak gorde ez, eta ala ere Jaungoikoa amaitzen duela diona, gezurtia dala.

G. Eta orrelako gezurtiak Kristauen artean arkitzen ote dira? **E.** Geiegi arkitzen dira: bada lenbiziko mandamentu santu onek guziok beartzen edo obligatzen gaitu gure Jaungoikoa amaitzera, aditu dezuen bezela, gauza guziak baño geiago: eta gure biotz guziarekin, gure adimentu guziarekin, eta gure indar guziakin: eta ala ere Kristau on asko ori gordetzen duenak badira ere, ikusten dira, Kristauen artean beste asko, eta asko, eren biotzak, eta eren amorio guzia ipiñirik dauzkatenak munduko honra, puntu, banidade, eta erakerietan: beste asko, munduko interes eta irabazietan: beste asko gorputzaren jolas, jostatze, erabageko jan, edan, atsegiñ, eta gurari zikiñetan: eta eren pasio edo griña gaiztoak ezi, eta arrazoiaren, eta espi-

rituaren mendean Jaungoikoaren amorioagatik eduki, eta sujetatu ordean; okasioa datorkienean eren gura-riak, nolainai, naiz zuzen, naiz oker kunplitzen ditue-nak: alde guzietatik, batzuek arrotasuna, eta sober-bia, eta orri darraion besten ezin ikusia, eta bendekua darienak: beste batzuek abariziaren edo gutziaren menpeko daudenak; eta irabazi ezker, besten kal-teaz ajolarik eztuenak: beste batzuek, galanki jan-edan ezker, ederki apaindu ezker, eta gorputzaren atsegiñak gozatu ezker, edo erabageko joku luzeak egin ezker, zorrak egiteaz, eta leenak pagatzeko edukitzeaz eren buruen, eren familiaren, eta beste askoren kaltean bada ere, eskrupulurik egiten eztue-nak: eta beste onelako asko pekatuaren mendean bizi diranak: eta mandamentu santuak ardurabage ausi-tzen dituenak: eta ala ere galdetzen bazaie; Amutzen dezue Jaungoikoa gauza guziak baño geiago? Baietz bereala eranzuten due: Eta nundik datorkie itxumen edo engaño ori? Uste due, ezagutzen, autortzen, eta konfesatzen duelako, Jaungoikoa dala infinitamente ona, santua, eta maitagarria: eta neurribageko amo-rioa bera danagatik merezi duena; orrenbesterekin Jaungoikoa estimatzen, eta amutzen duela gauza guziak baño geiago: baño enganatzen dira: zerren ori

bakarrik ezagueraren, eta fedearen lana da: biotza, eta borondatea Jaungoikoari osoro eman ordean, erentzat gordetzen due: eren amorio propio erabageak agintzen die, eta ez Jaungoikoarenak: bada Jaungoikoa egiaz gauza guzien gañean amatzeko, eta adimentuarekin sinisten, eta ezagutzen duen bezela; eta hitzakin esaten duen bezela, obrakin ere probatzeko, eren biotzetan alako estimazioa, eta aprezio andia Jaungoikoaz egin bear due, nun iritzi bear diobe izan ditekean gauzarik okerrena, injustuena, itxusiena, izugarriena, eta lotsagarriena dala, Jaungoikoari uztea kreatura bategatik edo guziakgatik edo milla mundugatik: eta Jaungoikoaren anditasunak eta perfekzioak, aren ontasuna, santidadea, edertasuna, eta maitagarritasuna konsideratu bear ditue, ez illik dauden pintura edo figura batzuek bezela, baizik gauza guztiz bizi, eta on guzien jabe eta emalle guztiz maitagarria bezela: gure biotz, eta amorio guzia bakarrik merezi duena bezela: eta gure animako deseo guziak osoro ase, eta kontentatu ditzakeana bezela: eta gure zorion, ditxa, eta felizidade guzia, bera ikustearekin, eta beti amatzeten, eta gozaten egotearekin egingo duena bezela: zorionekoak orrelakoak; eta ezaguera orri dagokan bezela Jaungoikoa amatzen duenak: bada oriek ezer-

tan eztauzkate munduko gauza guziak Jaungoikoari zor dioben amorioaren aldean: eta guziak galtzeko, eta eren biziak ere emateko prest daude Jaungoikoa ez ofenditzeagatik: eta orixe da egiazko karidatea, biotzean edukitzea, eta obretan agertzea.

G. Eta nor dira orren kontra pekatu egiten dutenak? **E.** Pekatua mortala egiten duen guziak: eta batez ere edo zuzenago karidatearen kontra pekatu egiten duenak dira, 1. demonioaren beraren gisa Jaungoikoari gorrotoa diobenak, eren erabageko arrotasuna, eta eren gusto edo atsegin loia zikiñak eragozten dielako: eta bere justiziak betiko tormentuakin Infernua kastigatuko ditualako. 2. Jaungoikoaz azturik bizi diranak, fedea, esperanza, karidatea, eta aren bildur santua exerzitate bage. 3. Jaungoikoaren serbizioarako, eta eren salbaziorako egin bear dituen obligaziozko lan edo obra onak egiteko iguitasun, eta nagitasun andia duenak. Eta 4. munduko gauzen amerio itxua, eta eren gusto, eta atsegiñak billatzeko leia andia, eta arazeri geiegi daukatenak: orrelakoak Jaungoikoaren etsaiak dira, eta karidaderik batere ezte: bada Ebanjelio santuak esaten digu, Nagusi edo jabe bi batetan ezin serbituko ditugula, au da, Jaungoikoa eta mun-

dua: eta bera maite badegu, bestearen etsai izango
gerala.

G. Eta nor dira karidatea edo Jaungoikoaren eta
projimoaren amorio egiazkoa eren biotzetan eskuarki-
ro daukeenak? **E.** Jaungoikoaren eta aren ontasun, eta
fabore, mesede edo ontarte guztiz andietan sarri pen-
satzen duenak: beraz atsegiñez, errespetoz, eta amo-
rioz hitz egiten duenak: bere mandamentu santuak
kontuz gordetzen dituenak: eta orretarako pekatuko
bidetik edo arriskutik alde egiten duenak: eta tentazio
gaiztoak goitzeko humiltasunarekin eta konfianzare-
kin Jaungoikoari bere grazia edo laguntasuna eska-
tzen diobenak: iñork Jaungoikoa ofenditzen duela
ikusten duenean, al badue, eragozten duenak: eta
ezpada eren barruan sentitzen duenak: projimoak, eta
batez ere etsaiak edo gaitzgilleak Jaungoikoagatik
maite dituenak: eta eren salbazioa deseatu ezeze,
artarako al dueneraño, laguntzen dienak. Orra karida-
de egiazkoaren señale berez ziertuak: eta zorioneko-
ak eren obretan erakusten dituenak: bada iñork ezpa-
daki ere, errezelazio bage, Jaungoikoaren amorioan
dagoan edo ez, orrenbesterekin sosegatu, eta konso-
latu liteke.

G. Eta nor dira karidadea edo Jaungoikoaren eta projimuaren amorio egiazko eren biotzetan dauken edo ez, errezelatu edo kezkatu, eta dudatu bear duen Kristauak? **E.** Dirade Kristau epelak: ez txit otz, eta ez txit bero diranak: alde batetik pekatu mortala, ezagutu ezkerro, igui debenak: Infernuaren bildur diranak: baña beste aldetik eren pasio edo griña erabageak ezitzeko alegin gutxi egiten duenak: pekatu benialak, ez bakarrik ignoranziz, eta argaltasunez, baizik ardurabagetasunez, eta ezaguera, eta oarmen osoarekin egiten dituenak: eta ala pekatu andietan ere erorteko peligroan jarten diranak: onelako Kristau epelak, karidadea galdurik ezpadauke, erraz galtzeko, eta pekatu mortalean laster erorteko arrisku andian daude: eta Jaungoikoa biotz guztitik amatzen eztuelako kezka, eta errezeloa eduki dezake.

G. Zer erremedio bada pekatutik ezeze; epeltasunetik, eta orrelako kezka, eta errezelo tristetik libratzeko? **E.** Jaungoikoaren amorioa txit gogotik, iristeko edo alkanzatzeko, artan beti irauteko, eta egunetik egunera artan geiago, eta geiago aurreratzeko alegin biziak egitea. Auxe da, N.K. mundu onetan guziok daukagun egitekorik andiena, inportanteena, eta premiazkoena, eta gure naturaleza gaizki eziarentzat, eta

munduko gauzetara geiegi etziñik dagoanarenzat nekeza bada ere; fedeko egia guztiz andien egunoroko konsiderazioarekin, eta Jaungoikoari bere grazia, eta bera amatzeko doai andia sarri eskatuarekin, eta gere borondatea ukatuarekin, eta Jaungoikoarenarekin konformatuarekin egiten ditugun lanetan, eta datozkigun naigabeetan egunetik egunera argitzen da geiago gure adimentua; eta indartzen, eta berotzen da gure borondatea edo gure biotza: eta arrezkero Jaungoikoaren amorioak igui erazotzen dizkigu, ez bakarrik pekatu mortalak, baña benial ezagutuak ere: eta ematen digu gogo bizi eragille bat, Jaungoikoaren lege santua, ez bildurrez bakarrik, baita gustoz gordez zero ere. Eta ala, aditu dezuen dotriñarekin zuen bizi-modua moldatzeko: gure fede santuko misterio andiak ondo konsideratzeko alegiñak egin bear dituzue: eta batez ere sarri gogora ekarzue, Jaungoikoa dala berez guztiz ona, eta maitagarria: bera dala zuen Aita guztiz poderoso: zuen egille edo kreadorea: zuen salbadore, eta Erredentorea: eta ongille, parerik eztuena: zuen biotzeko amorio guzi-guzia berez merezi duena: eta zuen zorion egiazkoa dagoala orain, eta beti, aren borondate santuarekin zuena gauza guzietan bat egiñik edo konformaturik edukitzean: eta eza-

gutzen, eta sinisten dezuen bezela obratzeko, berari eskatu egiozue gogotik, arren zuen biotzetan bere amorio santua ezarri dezala, konserbatu dezala, eta geitu dezala, eta eman degizuela zuen borondate erabagea ukatzeko, eta eskuratzeko indarra, eta berea egiteko grazia; eta eraman zaitzatela gero eternidade guzian Zeruko glorian bere Majestade soberanoa, eta kabubageko ontasuna, eta edertasuna ikustera, kontenplatzera, eta amatzera. Amen.

AMAZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Gure buruari, eta projimoari
zor diogun karidadearen gañean.*

Aditu dezue aurreko dotriñan karidadearen birtutea zer dan: zer agintzen dizuen Jaungoikoaren alde-ra: eta nor diran eskuarkiro, karidadean bizi diranak, eta nor ez. Karidadearen birtute orrek berorrek agintzen digu, Jaungoikoagatik amatzea 1. gere buruak: 2. gere projimoak eta 3. oen artean gere etsaiak: eta gaur erakutsi bear dizuet, nola ori guzia ondo egin. Eta ona dotriña bat txit bearra, eta txit kontuz aditu bear dezuena.

G. Karidadeak beartzen edo premiatzen gaitu guziok gere buruak amatzera? **E.** Bai: bada Jesu-Kristo gure Jaunak esaten digu, gere buruak bezela gere lagun urkoak edo projimoak amatu bear ditugula: eta ala or aditzen da, gere buruak amatu bear ditugula.

G. Eta nola amatu bear gera geur? **E.** Amatu bear gera Jaungoikoagatik: au da, gere buruari diogun amorioa Jaungoikoagana zuzendu bear degu, edo gure ditxa edo zorion guzia Jaungoikoagan billatu bear

degu: eta nola zorion ori dagoan, ez gure amorio erabageak nai duen bezela, emengo ondasun, honra, eta atsegiñak gozatzean, baizik orain Jaungoikoaren nai edo borondate santua amorioz egitean, eta gero Zeruan beti aren Majestadea aurpegiz aurpegi edo argitasun guzian ikustean, eta bera beti amatzen, eta beraz gozaten egotean; egiazko zorion au gere buruarenzat billatzea, da gere buruak Jaungoikoagatik amatzea.

G. Orrela Jaungoikoa amatzen ezpadegu, gere buruak bear bezela egiaz amatzen eztitugu? **E.** Ala da egia, N.K.: eta zorigaiztokoak egiaz egiten gaitu gere buruen amorio erabageak edo desordenaduak; gere barruan agintzen uzten badiogu.

G. Nor dira orrela eren buruak modu edo era gaiztoan, eta eren kaltean maite dituenak? **E.** Soberbiari edo arrotasunari, eta ari darraikan andinaiari: abariari edo ondasun gura erabageari: eta aragiaren atsegin edo gusto loi gaiztoen gutizia edo apetuari eren biotzetan agintzen uzten dienak.

G. Nundik datorkigu gere buruen, eta munduko gauzen erabageko amorio ori? eta ori goitzeko zer egin bear degu? **E.** Jatorrizko pekatutik datorkigu guziori gauza orien erabageko deseoa, griña gaiztoa,

eta modubageko amorioa, eta espirituaren, eta aragiaren arteko gerra: bada espirituak mendean eduki nai luke aragia, eta bere griña gaiztoak: eta aragia altxatzen da espirituaren kontra: eta ala aragiaren erabageko amorio ori ezitzea, eta eskuratzea, eta arrazoiaren, eta Jaungoikoaren lege santuaren mendean edukitzea, izan bear da gure lanik, eta egiteko-rik andiena: eta gure egiazko pakea bertatik, eta gero betiko zoriona iristeko da gauza guztiz bearra, eta premiazkoa: bada ezin Jesu-Kristori jarroioko diogu, berak agindu zigun bezela, gere burua ukatu bage, eta gere gurutzea jaso bage, au da, gere buruaren erabageko amorioa eskuratu bage, eta orretarako nekalu bage: orra zerk egiten duen Zeruko bidea nekeza; eta orra zergatik Zeruko ateari deitzen zaion ate estua: bada gere nai gaiztoa ukatu bage, eta erabageko libertatea edo nasaitasuna estutu bage, ezin Zeruan sartu gaitezke. Au guzia oitu artean gogor, eta garratz iruitzen zaku: baña, alde batetik, neke orren saria ezin andiagoa da; bada neke labur bategatik betiko deskansua, betiko atsedena, betiko poza, eta kontentua Zeruan izango degu: bada Jesu-Kristoren beraren hitza edo esana da: mundu onetan bere anima edo bizia igui duenak, betiko bizitza animaren-

zat seguratzan duela. *Qui odit animam suam in hoc mundo, in vitam aeternam custodit eam.* Eta bestetik Jaungoikoaren amorioak, eta gere buruaren amorio onak, au da, karidadezko amorioak bertatik neke origuzia arintzen du, gozaten du, eta Jesu-Kristoren legeko uztarria biguntzen du: eta orretara benetan jarten diranak gozo, atsegin, eta poz geiago arkitzen due eren inklinazio, griña, eta pasio edo apetitu erabageak ukatzen, eta goitzen, pekatariak oriek kunplitzen, eta eren gusto gaiztoak gozaten arkitzen duen baño: eta ori da egia bat San Agustiñek beregan ondo probatu zuenak bezela bere liburuetan txit sarri, eta txit ederki erakusten duena: eta egunoro esperienziak Kristau onai, justuai, Jaungoikoa maite duenai, eta eren salbazioa iristeko nekatzen diranai erakusten diena; eta orra zerk alaitu edo animatu bear gaituan guziok gere buruaren, eta munduko gauza guzien erabageko amorio gaizto ori goitzera, benzitzera edo eskuratzera: eta orren lekuan gure Jaungoikoaren, eta gure animaren egiazko amorioa iristera.

G. Eta erabageko amorio orri nola deitzen diegu eskuarkiro? **E.** Amorio propioa: eta auxe da kreaturaganako, eta gure buruaganako amorio itxua, modubagea, eta arrazoi bagea. Jaungoikoa agrabiatzen, eta

ofenditzen duena: bada kreaturagatik Jaungoikoa uzten du, eta batetan da gere kaltekoa: bada galdu eragiten digu gere egiazko zoriona: eta dakazkigu gure animako gaitz guziak.

G. Erabageko gere buruaren amorio propioa beti da pekatu mortala? **E.** Ez: bada pekatu guziak amorio propio erabagetik sortzen dira, eta eztira guziak mortalak; askotan benialak baizik eztira. Mortalak dira gauza pisu edo larrian Jaungoikoa ofenditu eragin, eta karidatea edo Jaungoikoaren amorioa gure biotzetik kentzen duenean: eta benialak dira, karidatea itzaltzen edo desegiten etzuenean, baizik bakarrik gutxitu, eta argaldu egiten duenean.

G. Eta gere buruaren amorio zuzenari edo ondo ordenatuari nola deitzen diogu? **E.** Karidatezko amorioa: eta orrek zuzentzen ditu gure deseo guziak: eta dakarkigu bertatik egiazko pakea Jaungoikoarekin, gere buruarekin, eta gere lagun projimoakin, eta orri darraio gero betiko bizia, eta gloria Zeruan.

G. Eta munduko ondasunak deseatzea, amorio propio erabagea edo karidatezko amorioa ote da? **E.** Modu onean, eta ondo enpleatzeko Jaungoikoaren ordenaz batera (aetan biotza josi bage) deseatzea, karidatea da: baña edo soberbiaz edo abariziaz edo

aragizko atsegiñaz gozatzeko leiaz edo deseoz ondasun tenporalak gutiziatzea, da kodizia gaiztoa, eta amorio propio erabagea, txit pekatu asko eragiten dituen: eta orren erremedio eragillea da, beti iraungo duen egiazko ondasunak, ala graziazkoak, nola gloriakozkoak gogotik deseatzea, eta billatzea; Jaungoikoaren honrarako, eta gure egiazko zorionerako.

G. Eta karidadeak orobat beartzen, eta obligatzen gaitu gere lagun edo projimoak amatzera? **E.** Bai: eta obligatzen gaitu gere buruak bezela amatzera Jaungoikoagatik.

G. Eta nor dira gure projimoak? **E.** Gizakuma, eta emakuma guziak: naiz Kristauak, naiz herejeak, naiz fedebageak: eta baita gure etsairik andienak ere.

G. Eta zer da gere buruak bezela gere projimoak amatzea? **E.** Gere buruenzat deseatzeko, eta nai degun bezela edo deseatu bear degun bezela, gere projimoari ere betiko zoriona deseatzeko; eta geretako nai degun bezela besteai ere on egitea, eta laguntzea eren animaren salbaziorako ondo dagokien gauza guzietan.

G. Eta gere lagun projimoak deseatu bear diegu ondasun tenporalak ere? **E.** Bai; geretzat bezela: au

da, aen enpleo onarekin Jaungoikoa obeto serbitzeko, eta ez gurariak kunplitzeko.

G. Eta asko da gure projimoak amatzea, gure aide, adiskide, ongille, ezagun edo prenda onaen jabe diralako? **E.** Ezta ori asko: bada ori guzia amorio natural utsa da: ezta karidatezko amorioa: ori lurrekoa da bakarrik: ezta Zerukoa edo Jaungoikozkoa: eta ala amatu bear ditugu gure projimo guziak Jaungoikoagatik, bada obligazio ori datorkigu, Jaungoikoa bera gauza guzien gañean amatzeko guziok daukagun obligaziotik: bada eziñ Jaungoikoa gauza guzien gañean amatu dezakegu, arrazoa duen kreatura guziak Jaungoikoa ezagutzea, amatzea, eta adoratzeta deseatu bage: eta ori egiaz projimo guziaz deseaten badiegu, artarako alegiñak egin bear ditugu: eta ala gure projimoak erakartea, al deguneraño, Jaungoikoaren ezaquerara, eta amoriora da gure projimoai eren egiazko zoriona iristen laguntzea: eta ori da bear dan bezela Jaungoikoagatik amatzea: eta argatik agiri da, Jaungoikoa bera amatzeko guziok degun obligaziotik datorkigula gere buruak bezela, projimoak amatzeko obligazioa.

G. Eta projimo guziaz erabatera edo distinzio bage deseatu bear diegu geretzat nai izan bear degun ona

berbera? **E.** Bai: guretako bezela projimo guziaz diseatu bear diegu salbazioa, eta artarako egoki dan edo konbeni dan guzia.

G. Eta projimo guziaz erabatera lagundu bear diegu: geretako nai degun bezela eren premietan? **E.** Nola guziaz on egitea gure eskuan eztagoan; karidadearen ordena gorde bear degu, gere projimoai egin bear diegun laguntasunetan.

G. Karidadearen ordenak edo zuzenbideak zer agintzen digu? **E.** 1. Jaungoikoa gauza guziaz baño geiago amatu bear degula: 2. gere buruak geiago amatu bear ditugu besteak baño ondasun espiritualetan: 3. premia edo nezesidade berdiñean gauza tenporaletan ere lenago gere burua sokorritu bear degu besteak baño: 4. gure projimoaren animako salbazioa geiago estimatu bear degu gere ondasun tenporal guziaz baño, eta baita gure bizitza gorputzezkoa ere baño: alako moduan, ze besteren anima betiko kondeneziaz libratzeagatik bizitza galtzeko edozein peligro edo arriskuan jarri bear degu, libratuko degula ziurtu jakin ezkerro edo esperanza eduki ezkerro: bada Jesu-Kristok esaten digu: au da nere mandamentua: *bata bestea maitatu edo amatu dezazuela, nik amatu zaituedan bezela:* eta aren Majestadeak ainbesteraño

amatu gaitu, nun gure salbazioatik bere bizitza tenporala eman zuen: eta San Juan Ebanjelistak esaten digu, ze gure anaien salbazioatik gere biziak eman bear ditugula (ex 1. Joanis 3.) eta ala obligatzen gaitu gutxianez extremoko nezesidade espiritualean gure projimoa dagoanean, eta sokorritu dezakegunean: 5. projimoen artean ere karidadearen ordena gorde bear degu; eta ala *nezesidade berdiñetan*, lenago sokorritu bear dira gurasoak, humeak, senar-emazteak, senideak, aideak, adiskideak, auzokoak, orrelako eztiranak baño: eta orobat Kristauak lenago herejeak baño: eta Kristauen artean pobre zinzo, kontuzkoak lenago alperrak baño: eta Kristau pobre lotsatiak lenago, lotsabage eskean dabiltzanak baño. Esan det; *nezesidade berdiñetan*: zergatik kanpotarren bat ikusten badegu iltzeko arrisku edo beste peligro estu andi batean, orduan lenago da ura sokorritzea, peligro txikiago batean dagan beste gertukoren bat sokorritzea baño: eta azkenik geiago estimatu, eta aurreratu bear degu, al badegu, ondasun, eta probetxu komuna, eze-nez partikularrena: eta guzien onerako ipinirik dauden, naiz animen arzaiak, gidariak, eta erakusleak; naiz errietako agintariak, eta, kargudunak geiago esti-

matu, eta amatu bear ditugu beste partikularrak baño.

G. Eta nola ezagutuko degu, gure projimoa amaten degun edo ez? **E.** 1. Eztegu amaten bere premia edo nezesidade andietan, al degula, sokorritzen ezpadegu. 2. Gaitz andirik opatzen edo deseaten badiogu: edo aren kontrako gorrotoa biotzean badaukagu: 3. projimoaren gaitzaz atsegin artzen badegu, eta aren onaz damu artzen badegu: 4. eskandalorik edo pekatuak biderik ematen badiogu: eta 5. al degula, projimoari etorri leizkion gaitz edo kalteak ala gauza espiritualetan, nola denporalelan eragozteko alegiñak egiten ezpaditugu: eta kontrara, amaten degu gure projimoa, gaitzen bat opatu edo egin ordean, al degun on guzia egiten badiogu: aren utsegiteak, eta argaltasunak eskusatzen edo disimulatzen baditugu: eta gertako nai gendukean bezela, edo nai izan bear degun bezela, tratatzen badegu: gure dotriñako kartillak dion bezela: izaten generala gere lagun projimoakin, aek gurekin izatea nai degun bezela: eta batez ere daukagu egiazko karidadea, gaitz egin digun projimoa amaten badegu, eta egin digun injuria barkatzen badiogu.

G. Eta baldin gure projimoak injuria edo desprezio andi bat egiten badigu edo gere burua, fama edo ondasuna gaizki kentzen badigu: edo egin eztegun gaitzen bat asmatzen edo egozten badigu, ala ere orrelako gaitzgillea edo injuratzallea biotzetik amatu bear degu? Eta egin digun injuria barkatu bear diogu?

E. Bai: Jesu-Kristoren karidadezko legearekin kunplitu-ko badegu. *Diligite inimicos vestros.*

G. Ezta bada gauza ori agitz gogorra, nekeza, eta gure amorio propioak ezin eraman dezakeana? **E.** Ala dirudi, gure arrazoi argalari, eta gure itxumenari baka-rrik begiratzen badiogu; baña ez fedearen argiari, eta karidade egiazkoaren legeari, eta orrek dakarren probetxuari ondo begiratu nai badiogu. Gai onen gañean berariaz bostgarren mandamentuan hitz egingo degu: eta bitartean gogora ekarri, eta ondo kon sideratu itza-zue iru gauza oek. 1. Nor dan zuen gaitzgillea edo inju-riatzallea, eta nolako kaltea bere buru propioari egin dion. 2. Nola zuen, eta beraren Aita guztiz ona ofendi-tu duen: eta 3. nolako ofensa edo agrabioa zuei ere egin dizuen. Eta Jaungoikoarekiko, projimoarekiko, eta zuen animarekiko karidade piska bat zuen biotzetan badezue, erraz jarriko zerate, zuen gaitzgillea amatze-ra, eta egin dizuen injuria barkatzera. Eta 1. badaki-

zue zuen injuriatzallea edo gaitzgillea Kristaua dala: zuek bezela Jaungoikoa bera duela bere Aita; Jesu-Kristoren senidea, eta mienbroa dala: eta Espiritu Santuak aren anima bere esposatzat edo bizileku edo tenplotzat esleitu zuela: eta zuek bezela Zeruko erreina beti gozatzeko, eta ango heredero izateko egiña dala. Eta orobat dakizue gaitz larri edo pekatu mortal bat egin duenean, orain esan ditudan bentaja oriek guziak galdu dituala: eta bere burua kondenatu duela eternidade guzian zorigaiztokoa izatera, eta betiko suak, eta garrak infernuan sufritzen egotera: orra nolako kalteak bere buruari ekarri diozkan, barkazioa iritsi bage iltzen bada. Orobat dakizue 2. gaitz oriek guriok datozkiola zerren beraren, eta zuen Aita ona, Jaungoiko guztiz poderosoa, guztiz ongillea, eta guztiz maitagarria ofenditzeko ausardia izan duen, bere pasio edo griña gaiztoa kunplitzeagatik. Orra zein arrigarria izan dan aren gaiztakeria: eta bere, eta zuen Jaungoikoari egin dion ofensa: bada 3. pensa ezazue orain nolako ofensa edo agrabioa zuei egin dizuen, injuriatu zaituenean: asma ditekean andiena izan arren ere, kriatura miserable bati egiña da: eta Jaungoikoaren Majestade Soberanoari egin dionaren aldean utsa bezela edo ezerez bezela: eta orobat zuei

egin dizuen kaltea, bere anima gaixoari egin dionaren aldean utsa ainbe da: eta, zuek, aprobetxatu nai bazerate, txit asko irabazteko okasioa eman dizue. Orain bada Jaungoikoak agintzen dizue, berak errukiz zuen gaitzgilleari begirutzen dion bezela, eta zuei ere begiratu dizuen bezela, zuek ere begiratu degiozuela: Jaungoikoak ura, eta zuek bereganatzeko, eta salbatzeko alegiñ egiazkoak egin ditu: eta bere gaizki egiñaz damutu ezkeru barkatzen dio, ain ofensa andia egin badio ere; eta ori bera zuekin ere egiten du: orra bada zuek ere egin bear dezuena, 1. Jaungoikoari gusto emateagatik: 2. zuen projimo gaxo errukigarriari zor diozuen karidadeagatik: eta 3. zuen probetxu, eta irabazi guztiz andiakgatik: bada zuen projimoari biotzetik barkatzen badiozue, zuei ere Jaungoikoak beraren majestade soberanoari egin diozkatzuen ofensa arrigarriak barkatuko dizkitzue: baña bestela ez. Eta ori txit argiro Jesu-Kristo gure Jaunak erakutsi zizuen; 1. etsaiak ere amatzeko legearekin: 2. egunoro errezatu oi degun Aita gure edo Paternosterraren bostgarren eskaera edo petizioan Jaungoiko gure Aitari erregutuarekin: barka egizkiguzu gure zorrak edo pekatuak, guk geren zordunai edo injuriatzalleai barkatzen diegun bezela: eta 3. bere exenplo miragarria-

rekin: bada guziok dakizue, nola gure Jesus onak Gurutzean iltzeko zorian zegoela, bere Aita eternoari egin zion lenengo erregua, izan zala bere gaitzgille edo etsaiakgatik: esaten ziola: nere Aita, barkatu egiezu, onela ipiñi nauen oei, bada eztakie, zer egiten duen. Eta exemplo orri San Esteban lenbiziko martir andiak jarraio zion: eta Santu guziak, eta Kristau on guziak jarraio izan diobe: eta guziok jarraitu bear diogu: eta egiaz barkatu diegulako señaletzat, 1. aek-gatik Jaungoikoari erregutu bear diogu, aren Majestadeak ere argitu ditzan, eta barkatu degien: eta 2. barkatu diegulako señalear kanpotik ere eman bear ditugu, agur egiñaz, besteai bezela: eta eren premia estuetan, beste Kristauak bezela lagunduaz: eta 3. gorrotorik ezteigula: eta oen kontrako señaletan eza-gutu oi da, egiaz barkatu ezteigula gere buruak bezela amatzen eztitugula: eta gorrotoa barruan ezkutaturik daukagula.

G. Baña esango didazue arrazoi da Jaunkoikoagatik etsaiak amatzea: eta gorrotorik ez edukitzea gaitz egin digunari: aen salbazioa, gerea bezela deseatzear: eta egin diguen ofensa edo injuria personala Jaungoikoagatik barkatzea. Baña egin dizkiguen kalteak orobat barkatu bear ote diegu? Ezin eskatu dezakegu

modu onarekin, eta bestela ezin bada, justiziaren aurretik, gaizki kendu dizkiguen edo ondasuna edo honra edo fama ona biurtu degizkiguela? **E.** Eztigu ori eragozten Jaungoikoaren lege santuak: eta ori guzia eskatu dezakegu, justiziaren edo karidadearen motibo onakin eskatzen badegu.

G. Eta nor dira orrela eskatzen duenak? **E.** Gorroto bage, enbidia bage, eta benganza artzeko asmo edo deseo bage eskatzen duenak kendu dien ondasunaren edo egin dien kaltearen balioaren errestituzioa; bear dituen ondasun, honra, eta fama ona konserbatzeko deseo edo asmoarekin bakarrik: eta ark obeto beren langai edo enpleoarekin ondo kunplitzeko eren fama onaren premia badue: eta baita gaitzgillea bera galdu eztedin bere arrotasunarekin, eta injustiziakin. Baña nola gure amorio propioa ain sotilla dan alde batetik, eta bestetik ain berekoia edo interesadua, eta sentikorra, eta ain erraza itxutzen; alegin guziak egin bear ditugu bengatzeko deseoari, eta gorrotoari gere biotzean lekurik ez emateko: baizik karidade egiazkoa gure projimo guziakin, eta batez ere gure etsaiakin beti konserbatzeko; ori izango da señalerik onena, Jaungoikoa ere biotz guztitik, eta gauza guzien gañe-

tik amaten degulakoa: eta kontrara egiazko karidaderik eztegulakoa.

Bada, N.K. karidaderik ezpadegu, San Paulo Apostolu andiarekin esango dizuet: ezer ere ez gerala: eta San Juan Ebanjelistarekin esango dizuet, illik gaudela. *Qui non diligit, manet in morte.* Baña karidadea gure biotzetan badegu, ezerk ere dañurik ezin egingo digu: eta gauza guziak gure onerako, eta, salbaziorako gertatuko zaizkigu: *Diligentibus Deum omnia cooperantur in bonum.* Eta zenbat geiago Jaungoikoaren eta projimoaren amorioagatik sufritzen degun, anbat irabazi andiagoak birtutean egingo ditugu: eta anbat sari ugariagoa Zeruan beti gozatuko degu. Eta orra zergatik Jesu-Kristok berak, Ama Santisimak, eta Santu guziak, maite izan zituen munduko naigabe, neke, eta atsekabeak.

Eskatu degiogun bada gogotik gure Jaungoikoari arren berak digula bere amorio santua, eta beragatik bakarrik gere buruak, eta gere projimo guziak, eta batez ere gure etsaiak, naigabetu gaituenak, geur bezela, amatzeko bear degun grazia: eta gero eternidadeko gloria. Amen.

EMEZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Jaungoikoaren legeko
bigarren mandamentuaren gañean.*

Egiazko karidadea edo Jaungoikoaren amorioa zuen biotzetan badaukazue, N.K.; lenengo mandamentuan aditzera eman nizuen bezela, kontuz, eta erraz beste mandamentu guziak gordeko dituzue: eta batez ere Jaungoikoaren izen santua honratzeko alegiñak egingo dituzue: eta bera ofenditzen, eta injuriazten duen juramentu arin edo gaizki egiten diranak: eta blasfemiazko hitz izugarriak txit kontuz eskusatu-ko dituzue: eta *Jaungoikoari* egindako promes edo botoak leialkiro kunplitu-ko dituzue: orra bigarren mandamentu santuak guziori agintzen diguna. Eta ala aditzera emango dizuet, nola 1. eragozten dizkigun juramentu gaiztoak: 2. blasfemiak: eta 3. nola agintzen digun boto edo promesak kunplitzea.

G. Zein da Jaungoikoaren legeko bigarren mandamentua? **E.** Aren izen santuan juramentu alperrik ez egitea.

G. Nork egiten du alperrik, eta gaizki juramentua?

E. Egiten duenak egia bage, justizia bage, eta premia bage.

G. Juramentua zer da? **E.** Jaungoikoaren izen santua aitatzan degula, Jaungoikoa bera testigu ipintea, esaten deguna edo eskeintzen deguna, egia dala edo kunplituko degula sinistu eragiteko: eta baita da juramentu Zeruagatik, eguzkiagatik, Santuakgatik edo Gurutze santuagatik, edo Ebanjelio santuakgatik egiten danean: bada Jaungoikoa ixillik kriatura orietan testigutzat ipinten da: baña ez bestelako kriatura beerragokoakgatik egiten bada, nola Oeko Zeruagatik, mai edo silla bategatik &. bada orietan etzaku Jaungoikoa gogoratzen.

G. Eta juramentu da, esatea, nola naizan Kristaua? edo nere konzienzian; edo emen nagoan bezin ziertu da? **E.** Eztira oriek juramentuak: zerren esan oriekin ezta Jaungoikoa testiguzat ipinten.

G. Eta juramentu ote da, esatea: badaki edo bada-kus Jaungoikoak egia diodala? **E.** Ori Jaungoikoa testigu ipinteko asmoarekin esaten bada, juramentu da, bestela ez: bada alde batera, eta bestera aditu liteke: eta orrela esan zuenak, juramentutzat bazeukan, juramentu egin zuen; bada bestela ez: eta juramentua zan

edo ez, dudatzen bazuen, era orretan konfesatu bear du.

G. Juramentua berez gauza ona da? **E.** Bai, egiarekin, premiarekin, eta justiziarekin egiten bada: zerren orrela Jaungoikoa bera honratzen degu, bada orrekin aitortzen degu Jaungoikoak gezurrik ezin esan deza-keala, eta egia bera dala. Baña egia bage, premia bage edo justizia bage juramentu egitea pekatu da: eta Jaungoikoaren izen santua despreziatzen, eta inju-riatzen da.

G. Eta nork egiten du juramentu egiarekin? **E.** Esa-ten duena ala dalako uste osoan dagoanak: batere dudarik, eta kezkarik eduki bage. Eta egia dala uste arren, ala ezpada, pekaturik egiten ote du? Ez: zerren bere iritsian egia esan zuen: baita dudarik edo kezka-rik bazuen egia ote zalako edo ez, orduan pekatua egin zuen, ziertutzat autortu edo seguratu bazuen.

G. Eta zer pekatu da egia bage edo gezurraz jura-mentu egitea? **E.** Da berez pekatu mortala: eta baita ezerezkeria bat sinistu eragiteko gezurrezko juramen-tua egiten badu ere; bada Jaungoikoa bera gezurraren testigu ipinten du, eta gezurtitzat tratatzen du, eta pekatu ori da gizonak iltzea, eta lapurretak egitea baño askoz andiagoa: zerren Jaungoikoaren Majesta-

dea bera agitz injuriatzen, eta despreziatzen du: eta ala mundu guzia salbatzeagatik ere gezurrezko juramenturik ezin egin liteke.

G. Eta zer geiago bear da egiarekin juramentua egiteko? **E.** Aurrerako edo etorkizunerako juramentuarekin eskeintzen edo agintzen duena kunplitzeko asmoa edo intenzioa edukitzea. Eta ala kunplitzeko asmo bage juramentuarekin gauza bat agintzen duenak, egia bage juramentu egiten du, eta pekatu mortal egiten du. Eta orobat, gauza bat juramentuarekin esaten edo agintzen badu kanpotik; eta beste bat edo beste erabatera bere barruan bakarrik aditzen badu, nola lizatean: bati daukan dirua eskatu, eta juramentuarekin esango balu, eztaukala: bere artean bakarrik edo berekiko esaten duela eztaukat zuri emateko, juramentu gezurrezkoa egiten du: bada kanpotik Jaungoikoa gezurraren testigu ipinten du: eta bere proiektua engañatzen du. Baña barrutik ezeze, kanpotik ere ezagun ditekean ekibokazio edo begitazioarekin juramentu egiten badu, orduan eztu gezurrezko juramenturik egiten: nola lizatean, esan degun okasioan, egiarekin eranzun balu, ez daukat dirurik zuri emateko era edo modurik; zerren beretako bear duen, edo ezin gero bear duen denporarako kobratuko duen. Eta

orobat ofizio publikoa, berez sekreto gordetzera obligatzen duena, daukan persona bati; galdetzen diobe sekretoan egon bear duen gauzaren bat, eranzun lezake, eztakiala: eta ori gertatu lekikio, konfessoreari, inkisidoreari, letraduari, mediku-barberoai, emagiñai: eta orrelako sekreto gordetzeko obligazioa duenai: eta orien esana «eztakit», aditzen da, iñori esateko: eta erabageko galdetzalleak ala aditu bear du: eta besterik merezi eztu. Bada orien ofizio edo karguaren nolakodiak, berez ala aditzera ematen du.

G. Eta nork egiten du juramentu justiziarekin? **E.** Juramentuarekin agintzen duenak gauza on, justu, eta santu dana egitea: nola limosna ematea, barautzea, meza enzutea, errosarioa errezatzea edo onelako beste gauza on bat; eta ala agindu duenak dauka obligazioa kunplitzeko, bestela pekatu egiteko penaren azpian.

G. Eta nork egiten du juramentu justizia bage? **E.** Gauza gaiztoren bat egitea juramentuarekin agintzen duenak; nola dan, urliari zerbait ostutzea, golperen batzuek ematea edo beste gaitz andiren bat egitea, ala egiteko edo kunplitzeko asmoarekin: eta orrelakok gaitz larria izan ezkerro alde bitatik pekatu mortal

egiten du: bata erreligioaren kontra eta bestea justiziarren kontra.

G. Eta juramentuarekin egingo duela, agindu duen gaitza kunplitu bear ote du? **E.** Eztu iñola ere kunplitu bear: bada juramentuak ezin iñor obligatu lezake gaitzik egitera: eta ala asmo gaiztoari utzi, eta damutasuna artu bear du.

G. Eta gaitzik egiteko egiazko asmo edo intenzio bage juramentu ura egin bazuen, pekaturik egin ote zuen? **E.** Bai: eta zan pekatu mortala, zerren gezurra-ekin egin zuen.

G. Orrela gurasoak, eta nagusi-etxekoandreak aserraturik eren humeai edo mirabeai buruak edo zankoak autsiko ditzela, edo bestelako gaitz andiren bat egingo diela, ikaratzeko, eta bildurtzeko, baña alako asmo bage, juramentuarekin esaten dienean, pekatu mortal egingo ote due? **E.** Gurasoen, eta nagusien orrelako ateleka edo amenza gogor oriek, dauken damu, pena edo sentimentua obeto aditzera emateko andizkarekin esanak aditzen dira: eta dagokien kastigu justua emango diela esan nai due: eta uste orretan, eta asmo orrekin esan bazituen, pekaturik egin etzuen, beinzat mortalik: batez ere eskandalo bage, eta gorroto gaizto bage esan bazituen: bada

alde orretatik askotan pekatu mortal izaten dira. Eta baita kastigatzeko asmorik edo intenziorik batere bage esan bazituen, bada orduan juramentu egin zuen egia bage; edo gezurrarekin.

G. Eta orrela juramentuarekin agindu zien kastingua, eman bear ote die? **E.** Ez agindu zuena berbera, eta agindu zuen modu gaiztoan: baña bai eman bear die erremediatzeko egoki dan, justu dan edo konbeni dan kastigu bat: bada ori, gauza ona da, eta kunplitu bear da, probetxurako dan moduan: baña ez kalte geiago dakarrenean: nola lizatean, erremediatzurik edo zenzaturik daudenean, eta kastinguak probetxurik ez dakarrenean; eta bai bearbada, dañuren bat.

G. Eta ezer seguratu bage edo agindu bage, ase-rrearekin aitatzea Jaungoikoaren izena edo Jesu-Kristorena edo Santuena, juramentu ote da? **E.** Ezta juramentua: baizik da deitura edo aitamena, eta motibo bage, ezeri eztagokala edo alperrik aitatzea izan oi da pekatu beniala.

G. Esan degun ezkerro, zer dan egiarekin, eta justiziarekin juramentu egitea; zer da premiarekin juramentu egitea? **E.** Da arrazoi edo motibo justuarekin, eta ondo pensaturik juramentu egitea: eta ez bakarrik Juezaren aurretik edo justiziak agindurik egiten

danean; baita andik kanpora sinistu eragiteko bearrak, premiak edo probetxu andiren batek artara mugitzen duenean: bada bestela juramenturik egin bear ezta: ala nola sendagairik edo erremediorik premia egiazko bage artzen eztan.

G. Eta orduan eztu pekaturik batere egiten? **E.** Ez: premiarekin batera, egiarekin, eta gauza onaren gañean juramentu egiten badu: baizik Jaungoikoa honratzen du.

G. Eta premia egiazko bage juramentu egitea zer pekatu da? **E.** Ezta berez pekatu benial baizik; egia, eta gauza ona falta ezpadira: baña beti dakar orrelako juramentu ariñak, edozein ezerezkeriagatik egiten danak, gure Jaungoikoaren izen santuaren desprezioaren bat: eta askotan arinkiro, eta sarri juramentuak egiteko erraztasunak, eta oitura gaiztoak dakar gezurrezko juramentuak egiteko arrisku edo peligro andia; batez ere gezurrak esaten dituen personetan: eta saldu-erosietan eren gauzak diran baño geiago, andizkatzen dituenetan; egia edo gezurra dioben ondo konturatu bage; eta eren artean juramentua gezurrarekin esan duelako kezkarerekin gelditzen dirala. Ori da pekatu mortala, eta oitura guztiz itxusia, eta iguigarria

Kristau bategan: eta asko, eta asko Infernura eramán dituana.

G. Eta bada oraindío beste juramentu motarik? **E.** Bai: eta, zein da? batek bere burua madarikatzen duenean edo pena edo kastiguren bat bere buruari egozten edo opatzen dionean, esaten duena ala ezpada edo agintzen duena kunplitzen ezpadu: nola litzatean: esatea: *deabruak naramala: Jaungoikoak bizia ken degigala: Infernura bota nazala: salbatu ez nazala: emen illik gelditu nadilla: emendik geiago mugitu ez nadilla; edo beste onelako naigabe datorkidala, ala ezpada, diodana: edo egiten ezpadet, agindu dedana.* Juramentu mota oni deitzen zaio, exekratorioa, eta esan nai du, juramentu penagarria, eta nazkagarria: bada edozein Kristau on nazkatzen du, orrelako hitz-kuntza adituaz beste bage: batez ere motibo andi bage esaten diranean.

G. Eta zer pekatu da orrela juramentu egitea? **E.** Baldin egiarekin, justiziarekin, eta premia egiazkoarekin egiten bada, ezta pekatu. Baña premia egiazkoa gutxitan arkitzen da orrelako juramentuetan: eta nola berotasunarekin, eta aserretasunarekin egin oi diran juramentu oriek, beste pekatu geiago ere, berekin

ekarri oi ditue: eta konfesioan aditzera eman bear da, zer moduz juramentu egin zuen.

G. Eta juramentu mota orretan Jaungoikoa testigutzat ipinten da? **E.** Bai ipinten da testigutzat, eta justizi-egilletzat: zergatik deitzen zaio kastiguarekin testiganza egin dezan.

G. Eta besteai juramentu eragitea pekatu da? **E.** Jakiñaren gañean gezurrezko juramentua eragitea, pekatu mortala da: premia bage juramentu ona eragitea pekatu beniala da: eta premiarekin eragitea ezta pekatu, egiarekin eta justiziarekin izan ezkeru.

G. Eta juramenturik alperrik edo gaizki ez egiteko, zer erremedio dago? **E.** Oitutzeta esatera, bai edo ez, Jesu-Kristok erakutsi zigun bezela. Eta orrenbesterekin Kristauok kontentatu bear gera. Eta juramentua erraz egiteko, eta are gaiztoagoa dana, gezurraz egiteko oitura galgarria, eta izugarria txit erremediatzeko alegin andiak egin bear ditugu: 1. artarako egiazko damutasuna, eta asmo oso, eta firme eragillea egunoro berrituaz. 2. Jaungoikoari artarako humiltasun, eta konfianza andi batekin gogo ona, eta indarra eskatuaz. Eta 3. utsegiten degun aldi bakoitzeko gereburuari min emango digun pena edo kastiguren bat egotziaz: bada erremedio oek benetan artu nai badi-

tugu, juramentu gaiztorik egingo eztegu: eta juramentua erraz egiteko oitura gaiztotik libratuko gera, eta bestela juramentugille erabageak bere buruari, eta bere etxe guziari ekarriko diozka naigabe, neke, eta kastigu arrigarriak, eta ez bakarrik gero betiko infernuan, baita bertatik ere munduan dagoan artean: eta ala bigarren mandamentu au gordetzea Jaungoikoak agindu zuenean, ondoren bereala esan zuen: bere Jaungoiko Jaunaren izena, alperrik edo gaizki zerabilleana, kastigu bage geldituko ezala. (Exod. 20-7)

G. Eta juramentu gaiztoak, oartu bage, ondo eza-gutu bage, oituraz, usadioz edo kostunbrez egiten baditu; zer esan, eta zer egin duen akordatzako: orrelakoak pekatu mortala egiten ote due? **E.** Galde orri zuzen eranzuteko, diot, ze estadu bitatik batean juramentugillea arkitu diteke: edo dago bere oitura gaiztoaren penitencia egiazkorik egin bage, eta ura goitzeko erremedio eragillerik artu bage: eta orduan akordatu bage egiten dituen juramentu gaiztoak pekatu mortalak dira: eta orobat esan bear da oituraz esaten diran birau larri, eta blasfemiakgatik: zergatik eren sustraian, au da, bere naiaz daukan oitura gaiztoan borondatezkoak oi dira pekatu oriek. Baña egiaz damaturik, eta benetan erremediatzeko alegiñak edo

dilijentzia egiazkoak egiten ari bada; eta estadu orretan oartu bage, eta borondate edo konsentimentu bage esaten baditu: eztira orduan pekatu mortalak, zergatik eztiran osoro borondatezkoak. Baña ala ere humillatu bear dira orrelakoak, eta alegin biziagoak egin bear dituzte, eren oitura gaiztoa txit menderatu edo goitu artean.

G. Zer beste gauzarik eragozten digu bigarren mandamentu santu onek? **E.** Blasfemiak esatea. Eta zer da blasfemia? Jaungoikoaren kontra esaten dan injuriazko hitz edo egiten dan despreziozko akzio edo obraren bat: nola litzatean Jaungoikoari faltaren bat edo utsegiteren bat egoztea: edo perfekzioren bat ukatzea: esango balu bezela, Jaungoikoa justua ezta-la, mudakorra dala, gure berri eztakiala, edo onelako beste edozein gauza despreziozkoa Jaungoikoagatik esatea: eta baita da blasfemia, Maria Birjiña Santisimaren eta Zeruko Santuen kontra injuriazko edo despreziozko hitzak esatea: eta baita Jesu-Kristoren gorputz santuaren edo Ama Birjiñaren edo Santuen buruak, sabelak edo beste mienbro preziosoak desprezioarekin aoan erabiltea: eta baita kolera edo ase-re bizian Zeruari txistu botatzea: edo despreziozko

hitz edo obraren bat Jaungoikoaren beraren edo bere erreligio santuaren kontra esatea edo egitea.

G. Eta zer pekatu da blasfemia? **E.** Pekatu mortal arrigarria da. Eta aditzeak berak bakarrik Kristau onak izutzen, ikaratzen, eta arritzen dituana. Eta Jaungoikoak denpora guzietan blasfematzalleak lazki kastigatu izan ditu. Lege zarrean arrika blasfemoak iltzen zituen. (Levit. 24. 15-16.) Benabad, Siriako Erregearen blasfemia bat kastigatzeko, eun eta ogeita zazpi milla Siriatar Jaungoikoak illerazo zituan: (3 Reg. 20-28.) Asirioen Errege Senakeribek esan zuen blasfemia bat, motibo izan zan, aren exerzituko eun eta larogeita bost milla soldadu, Jerusalem inguruan zeudenak, gau batean Aingeru batek illzeko: (4. Reg. 19-22) eta San Paublo Apostoluak, Himeneo, eta Alexandro zerizten gizakume bi, zerren blasfematu zuen, Satanasi entregatu ziozkan. (1. Timot. 1-20.) eta leku askotan Elizako legeak exkomulgatzen ditue: eta Erregeak ere kastigu arrigarriak ematen dizte: eta blasfemiarekin herejia juntatzen bada, nola gertatu oi dan fedearen kontrako edozein gauza blasfematzalleak esaten duenean, ori ziertu jakin ezker, daukagu obligazioa Inki-sizioko tribunal santuari kontu emateko. Eta errietako Alkate jaunak, eta beste agintariak blasfemoak kasti-

gatu bear ditue, erak erremediatu ditezen, eta besteak aen buruan ikasi dezen, zein gauza ikaragarria dan blasfemia: eta alakorik aditu ezkeru, guziok erakutsi edo agertu bear degu igui, eta pena andi bat, gure Jaungoiko eta Aita ona injuriaturik ikustez: eskualdirik badegu, lotsagiritu bear degu gaizki esalea: eta gutxianez, geiago ezin degunean, esan bear degu, bizi bedi Jaungoikoa edo Jesus, Maria eta, Jose: edo ziñatu, eta gurutze santua egin. Eta gure aldetik danez Jaungoikoaren izen santuari zor zaion honra, estimazio, errespeto, eta erreberenzia beti ekarri bear diogu: eta ori da orain explikatut bear deguna: eta ala ikusi degun ezkeru, zer eragozten digun bigarren mandamentu santuak, jakin ere bear degu, zer agintzen digun. Agintzen dizkigu bada bi gauza: zein dira?

1. da Jaungoikoaren izen santua honratzea gure esker onakin, gure erregu edo orazioakin, gure bizimodu onarekin, eta gure hitzkuntza, eta exenplo onarekin, alegiñak egiten ditugula, Aitagurearen lenengo eskareran edo petizioan eskatzen degun bezela, Jaungoikoaren izen santua ezagutua, eta honratua ikusteko mundu guzian: eta orretarako agitz gauza egokia da, Job Santuak bezela, gure naigabe, eta atsekabe guzietan, biotz osotik esatea: Jaungoikoak ala nai izan du;

bada aren izen santua bedeinkatua izan dedilla: eta orobat gertatzen zaizkigun gure atsegiñezko gauza on guzietan, eskerrak eman bear diozkagu gure Jaungoikoari bada on guzia bere eskutik datorkigu: eta esker onekoak bagera, mesede geiago, eta geiago, egingo dizkigu: eta ala txit asko balioko digu Jaungoikoari eskerrak emanaz, aren izen santua sarri, sarri honratzen badegu: eta kontrara, esker gaiztokoak bagera, Jaungoikoa aserratuko degu: eta gere buruai kalte andiak ekarriko dizkiegu: bada esker gaiztokoai Jaungoikoak ukatzen dizkie arrazoi andiarekin esker onekoai egiten dien ontarte edo fabore andiak.

G. Eta Jaunaren izena honratzeko mandamentu santu onek zer geiago agintzen digu? **E.** Jaungoikoari egin diozkagun boto edo promesak leialkiro kunplitzea.

G. Zer da botoa edo promesa? **E.** Da ezaguera osoarekin edo borondate librearekin prometitzea edo eskeintzea gauza on bat egitea Jaungoikoari atsegin emango diona. Jaungoikoaren beraren honrarako printzipalente; eta baita Ama Santisimaren edo Santuen honrararo; kunplitzeko edo osatzeko, obligazio egiten duela. Bada gauza on bat egiteko desea, asmoa edo intenzioaartzea, edo baita proposito egitea ere baka-

rrik ezta egiazko botoa edo promesa: zerren ezin oraindio orrenbesterekin, ez agindu, prometitu edo ofrezitu boto edo promesa bezela; eta ala asmo edo deseo utsak, eta propositoak bakarrik eztue iñor obligatzen borondatezko gauzetan: baña bai boto edo promesak: eta oek obligatzen due gaiaz konforme; gauza pisu edo andietan pekatu mortalaren azpian, eta gauza txiki edo ariñetan pekatu benialaren azpian.

G. Eta nundik ezagutzen da, agindu edo prometitu dana gauza pisu, eta andia dan edo ez? **E.** Eskuarkiro ezagutzen da, gauza ura berbera penitenzia orde aginduko baligue, obligatuko ginduzkan modutik: eta ala barau egun bat ateratzeko promesa: meza bat esan eragiteko promesa: lau erreal edo geiago limosnaz emateko promesa, gauza pisuak dira: baña estazio bat edo beste errezatzeko edo laurden bat olio edo kuartoren batzuek emateko promesak, eta oen antzekoak gauza txiki, eta ariñak dira.

G. Eta boto edo promesak zenbat modutan izaten dira? **E.** Era askotan oi dira. 1. Batzuek dira boto edo promesa errealak, diruarekin edo dirua balio duen gauzarekin kunplitzeko egiñak: eta aek egin dituana, kunplitu bage ill bada, aen herederoak kunplitzeko obligazioa due, 2. beste batzuek dira personalak: nola

bakoitzak berak edo barautzeko edo errezatzeko edo onelako deboziozko lanak; nola illero konfesatzeko edo komulgatzeko egiñak: edo ez orditzeko edo juramenturik premia bage ez egiteko, eta beste onelakokak. Eta oek kunplitu bage ill bada egin dituana, aren herederoak eztue zer egiñik: baña 3. diruarekin, eta personaren beraren bestelako obra onakin batetan kunplitzeko egiñak, kunplitzeko ill bada: diruaren aldetik agindua kunplitu bear due herederoak: baña eztue obligaziorik persona ark berak egin bear zituan lanak egiteko.

G. Eta oraindio zenbat modutan geiago dira promesak edo botoak? **E.** Batzuek dira kondiziorik ipiñi bage egiñak: eta oriek bertatik obligatzen due: eta beste batzuek dira alde batera, eta beste batera gerta litekean kondizioaren azpian egiñak: eta oek eztue obligatzen kondizioa osatu artean: eta ala batek limosna andi bat edo mezaren batzuek agintzen badi-tu, bere aita edo bere semea edo bere emaztea edo bere burua onelako gaitzetik libratzen badira; eztu obligaziorik, kondizio ura osatu artean.

G. Eta batere kondizio bage egin diran boto edo promesak noiz kunplitu bear dira? **E.** Denporarik seña-latu badu, orduantxe: eta denporarik seña-latu ezpa-

du, alik lasterrena eragozgarrik edo enbarazo andirik edo luzatzeko motibo justurik ezpadu: bada ardurabage, eta motibo justu bage luzatzea pekatu da: eta askotan mortala: eta asko ezta, osatzeko edo kunplitzeko asmo edo intenzioa edukitzea, alpertasunez edo nagitasunez luzatzen badu.

G. Eta bada oraindio boto edo promes mota geiago? **E.** Bai: bada boto edo promes batzuek dira solemneak: eta oek dira, Elizgizonak, Epistolaz ordentzen diranean, egiten duen kastidade santua gordetzeko promes edo boto solemnea, Obispo Jaunak Elizaren izenean azeptatzen duena; eta Fraileak, eta Monjak, amasei urte bete ezkerro, eta urtebeteko nobiziadua igaro ezkerro, errelijio aprobatuetan, oen agintarien eskuetan egiten dituen iru bere edo promes solemneak, bata betiko kastidadekoa, bestea pobrezakoa, eta bestea obedienciakoa. Eta oriez gañerako beste boto edo promes guziak dirade, boto sinpleak; zerren solemnidade bage egiten diran.

G. Eta boto edo promesak egitea gauza ona, eta probetxugarria da? **E.** Nola ere dan: baña ondorengo txarrik ekarri eztezen egin bear dira, txit ondo pensatu, eta begiratuta: bada askok errazago egiten ditue kunplitzen dituen baño: eta eren buruai egozten die

karga pisu bat, eta obligazio andi bat, lanik asko gero ematen diena: eta ala obe da, botorik ez egitea, kunplitzeko neke andia dakarrenean: batez ere, gero faltatuko edo utsegingo duela bildur bada: eta botoak egiñik dauzkatzutenak arren len baño len kunplitzeko alegin egiazkoak egin itzatzue: eta aurrera txit ondo pensatu ta baizik, eztitzatzuela egin.

G. Eta bada munduan boto edo promesak desegiteko, dispensatzeko edo aldatzeko eskualdirik daukanik? **E.** Bai: 1. mutiltxoak amalau urte osatu bage, eta neskatxak amabi urte bete bage, egindako botu edo promes guziak desegin litzake osoro aen gurasuak edo guraso-ordekoak. 2. Arrezkero egiñak, ondasunakin kunplitzekoak badira orobat desegin ditzake gurasoak, eta guraso-ordekoak, aen mendean dauden artean; bada umeak eztue eskualdirik, ondasunaz disponitzeko: eta baita desegin ditzake beste promesen batzuek ere, etxeko gobernu onaren kontra egiñak badira: baña bestelako promes deboziozkoak, kalterik ez dakardenak, ezin desegin litzake gurasoak, eta ez aen ordekoak, amalau urte mutillak, eta amabi neskatxak osatu ezkerro egiñak.

3. Aita Santu Erromakoak, Eliza guziaren buru danak bezela dauka eskualdia, boto edo promes mota

guziak dispensatzeko: bada ez nolana: baizik artako motibo egiazkoak badauzka: eta ala gezurrezko motiboekin ateratzen diran dispensak utsak dira: ezer balio ez tute.

4. Aita Santuak beretzat erreserbaturik dauzkan botoak atera ezker (oek dira betiko kastidatekoak, erreligioso edo monja izatekoa: eta Jerusalemgo leku santuak bisitatzekoa) beste guziaz dispensatu ditzake Obispo Jaunak bere mendekoai, motibo justuakin; bestela ez: eta are errazago boto edo promesak aldatu ditzake, ala Aita Santuak, nola Obispo Jaunak, beste obra on batzuetan: eta ala eskuarki egin oi due.

Eta 5. Españaiko Erreinetan bizi diranak, gurutzadako Bulda artu ezker, edozein konfesoiek, Obispo Jaunak aprobaturik daukanak, aldaludezke (len esan ditudan Aita Santuari gorderik dauden iru boto aek atera ezker) beste boto edo promesa guziaz beste obra on batzuetan, baña limosnaren bat ematen dala Gurutzada santuko gastuetarako.

Orra, N.K. biderik, eta modurik asko, kezka askotatik zeuron buruak libratzeko, botoak edo promesak kunplitzeko neke edo enbarazorik badezue, eta zerren luzetxoak dijoan dotriña au, erregutu degiogun guziaz Jaungoikoari, arren bere izen santua beti honratzeko

gogo bizi bat digula: eta baita agindu diozkagun gauzak leialkiro kunplitzeko grazia, eta indarra: eta gero eraman gaitzala bera alabatzera beti Zeruko gloriara. Amen.

EMERETZIGARREN DOTRIÑA

Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentua.

Gure Jaungoikoaren honrari dagozkion lenbiziko, eta bigarren mandamentuak, aurreko dotriñetan aditzera eman dizkitzuet, N.K.: eta ikusi dezue, nola gure Jaungoikoa adoratu bear degun animako, eta gorputzeko erreberenzia guziarekin: beraganako fede biziari, esperanza irmoari, eta amorio santuari garraizkola: eta bere izen santua gure hitzakin, eta bizimodu santu batekin honratzen degula: eta birtute orien kontrako pekatuai alde egiten diegula. Bada gaur, ori guzia errazago egiteko, eta beste mandamentuak ere kontuz gordetzeko, agitz laguntzen edo serbitzen digun Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentu santua aditzera eman bear dizuet. Alabaña jai egunak ondo santifikatzen baditugu, txit Kristau onak izango gera: eta bestela guztiz gaiztoak. Erakutsiko dizuet bada 1. zer dan jai egunak santifikatzea: eta 2. artarako zer egin bear degun atenzioa arren, N.K.:

Zein da Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentua? Jai egunak santifikatzea. Nork santifikatzen

ditu jai egunak? Aetan meza osoa enzuten duenak; eta premia bage bearrik egiten eztuenak.

Noiz agindu zuen gure Jaungoikoak jai egunak santifikatzea? Munduaren asieratik ezagutu erazo zien gure lenengo gurasoai, eta aen ondorengoai, Jaungoikoari guzien egille, eta jabe andienari bezela zor zaion honra, kulto edo adorazioa emateko denpora jakiñak izan bear zituela: eta ala lege naturalari edo gerezko arrazoi edo ezagumenari dagokio Jaungoikoa honratzeko egun batzuek enpleatzea, okupatzea edo konsagraketa: eta gero Moises Profeta Santuaren medioz edo bitartez bere lege santua, amar mandamentuotan ezarririk, eta berezirik eman zuenean: irugarren mandamentu santua Israelgo puebloari hitz oekin aditzera eman zion: «Akorda zaitetz, oroitu zaitetz edo gogoan eduki ezazu zapatu eguna santifikatzea: sei egunetan bearra, eta zere neke lan guziak egingo dituzu: baña zazpigarrenean Jaungoiko zure Jaunaren zapatua edo atsedeen eguna da. Egun orretan neke lanik batere egingo eztezu, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure astoak; ez eta zure ate barruan dagoan kanpotarrak ere, zergatik sei egunean Jaunak egin zituan Zerua, eta lurra, itxasoa, eta aetan dauden gauza guziak, eta

zazpigarrenean, atseden zuen»: eta orregatik Jaunak zapatua bedeinkatu, eta santifikatu zuen. Orra, N.K. jai egunaren asiera, eta agintea, Eskritura Santan daukagun bezela.

Zergatik mandamentu au asi zuen Jaungoikoak hitz onekin «Akordatu zaitez»? aditzera emateko mandamentu au zala munduaren asieratik Jaungoikoaren ordenaz beti gorde zan usadio edo oitura santuaren konfirmazio edo berritze bat bezela, eta beti gogoan eduki bear zuela, txit asko balio zuen gauza bezela.

Eta zergatik orain lege zarreko zapatu edo larunbataren ordean igandea edo domeka gordetzen degu?

1. zergatik egun bat edo beste gordetzea da zeremoniazko legeari zegokana: eta gure bizimodurako, eta legearen mami, eta sustanziarako bear dana da jai eguna, dana dala, ondo enpleatzea edo santifikatzea: eta 2. nola lege zarreko zeremoniak bukatu ziran, Jesu-Kristoren lege berria etorri zanean: Jesu-Kristok erakutsi zienaz batera Apostoluak zapatuko jai andia aldatu zuen domekako jai santura, Jesu-Kristoren beraren piztueraren memorian, eta honran: bada domeka egunean Jesu-Kristo gure Jauna piztu edo erresuzitatu zan, eta bere betiko atsedean, eta deskan-suan sartu zan: eta domeka egunean Espiritu Santua

Apostoluen gañera jatxi zan: eta ala ordutik domeka gordetzen abiatu ziran: eta nola Juduak zapatuaz gañera beste jai batzuek ere, Jaungoikoak agindurik gordetzen zituen, gure Eliza Ama Santak ere, Espiritu Santuak argiturik, domekaz gañera beste jai batzuek gordetzea agintzen digu, egun orietan Jaungoikoak egin dizkigun mesede andiak edo obratu dituan misterio andiak zelebratzeko.

Zertako Jaungoiko gure Jaunak zapatuak edo atsedeen eguna gordetzea, eta santifikatzea agindu zuen, eta aren lekuan orain domeka, eta beste jaiak gordetzea agintzen digu? Lenbiziko, eta bigarren mandamentuetan, biotzarekin, eta hitzakin berari ematea agindu zigun honra, erreberentzia, eta adorazioa, kanpotik agiri diran bere serbizioko lan on edo beargai santu jakiñakin beste egitekoai largaririk, egun seinalatuelan beti eman degiogun egin dizkigun mesede guztiz andien eskerrak, eta agertu dezagun beraganako gure fedea, esperanza, errespeto, eta amorioa: eta orrela berari zor diogun honra emanaz, geretzat betiko zorioneko atsedena geroko seguratu dezagun: eta orra, N.K. zertako diran jai egunak: eta oriek ondo gordetzea edo santifikatzea zein gauza premiazkoa, eta probetxugarria degun: bada jai egunak ondo gorde,

eta santifikatu ezker: meza santua bear dan debozio-arekin enzunaz: Jaungoikoaren hitz santua, sermoi edo dotriñetan ondo aditu, ikasi, eta gogoratuaz: Sakramentu santuak noiz edo noiz, al dan sarriena ondo prestaturik errezibituaz; gere pekatuen barkazioa iristeko, eta bizimodu berri on bat egiteko bear degun Zeruko grazia, eta laguntasuna egun orietan benetan Jaungoikoari eskatuaz: eta al ditugun miseri-kordiazko obra onak exerzituaz: eta orretarako beste neke lan guziaz, eta pekatuak bideai kontuz alde egiñaz; ezin esan liteke, zein atsegin andia gure Jaungoikoari ematen diogun, eta zein argitasun andiak, eta ondasun estimagarriak animarako, eta gorputzerako geretzat irabazten ditugun; alako moduan, ze batere ponderatu edo geiegi esan bage, autortu bear degu, jai egunak, Jaungoikoak agintzen duen bezela, eta Eliza Ama Santak erakusten digun bezela, gordetzen, eta santifikatzen baditugu, beste mandamentu guziaz txit erraz gordeko ditugula; birtutean agitz aurreratuko gerala: Jaungoikoaren bendizioa txit ugari iritsiko degula: eta betiko Zeruko ondasunak seguratuko ditugula: baña kontrara, jai egunak obra onakin, eta ejerzizio birtutezkoakin santifikatu ordean; gure Jaungoikoaren ofensako, eta gure anima

gaixoen kalteko erakerietan, eta pekatuetan igarotzen baditugu: gure animako gaitzak erremediatzeko, eta Zeruko ondasunak iristeko berariaz seinalaturik dau-den egun santuak, enpleatzen daditugu Jaungoikoa geiago ofenditzen: gure animak geiago gaxotzen, eta pekatuakin iltzen: eta infernurako su gai, eta tormen-tu geiago gere buruenzat biltzen edo batutzen baditu-gu: hitz batean, Jaungoikoaren eta animaren egun santuak, deabruari, eta pekatuari ematen badiozkagu: Zer gauza onik espera dezakegu? Eta nolako kalteak gure buruari ekarriko ez tiegu? Eta ala Kristauen artean ikusten diran gauza negargarrietatik, eta izu-garrietatik bat, guztiz negargarria, eta izugarria da gai onetan Kristau askok dauken itxumen arrigarria: eta ematen duen eskandalo edo gaitz-bide guztiz andia: bada askok uste due, zeremoniaz Meza bat korrika enzun ezkerro, nai dituen jolas, jostatze, eta erabage-ko jan-edanetan, joku luze, ondorengo gaitz andiak dakaztenetan, eta pekatu asko eragin oi dien danza peligrasoetan, batere ardurabage, eta eskrupulorik ere egin bage igaro ditzaketeala, Jaungoikoaren serbi-zioan; eta animaren probetxuan igaro bear lituzkean jai egun santuak.

Eta nundik dator itxumen ori? Eta ainbeste erakeri Kristauak egun santu orietan egiteko oitura gaizto ori? Sustrai bi, guztiz gaiztoak ditu gaitz onek: bata da jakiñeza, ignoranzia edo Kristauaren bizimoduak nolakoia izan bear duen (Zerurako bada) ez ondo ikastea, eta gutxiago konsideratzea: eta beste sustraia da, guziori pekatu etorki edo orijinaletik etorri zakun, eta daukagun gerezko griña gaiztoa gorputzaren atsegin, gusto, eta gurariak billatzeko, eta gozatzeko: eta Jaungoikoaren, eta animaren beargai santuetarako daukagun atzerapen, pisutasun, eta nagitasun arrigarria: bada gaitz andi oen bien erremedioa da, N.K., jai egunak batez ere ondo gordetzea edo santifikatzea, leen aitatu dizuedan moduan; iristeko Jaungoikoagandik berariazko argiak Kristauaren obligazioak ondo ezagutzeko: eta berariazko gogo sendoa, eta indarsua gure gorputzaren edo aragiaren jaidura edo inklinazio gaiztoak goitzeko, eta Kristauaren lan onak edo birtutezko obrak exerzitzeko: bada ori ondo egiten duenak erazten dira gizon zarraz, eta jazten dira berriaz: au da, Adanegandik dituen jaidura gaiztoak utzi, eta Jesu-Kristoren espirituaz bizi dira: eta arrezkero, nork esan, nolako pakea, deskansu, eta atsedeen santua eren biotzetan gozaten duen? Eta kontrara aragiraren griña

gaiztoai darraiztenak egiazko pake, eta atsedetik eztatue, eta erremedioaren ordean pozoia, eta eren kaltea jai egunetan billatzen due.

Eta zer da batez ere jai egunetan egin bear deguna? 1. Meza osoa ondo enzutea. 2. Premia egiazko bage bearrik ez egitea: 3. pekatuko lanbideai alde egitea: eta 4. al ditugun obra onak edo lan santuak egitea.

Zergatik Eliza Ama Santak agintzen digu pekatu morte laren azpian, arrazoiaren argira edo ezaguera etorri ezker, domeka, eta beste jai egunetan Meza osoa ondo enzutea? Zergatik Mezako sakrifizio santua da Kristauaren erreligioan edo legean Jaungoikoari berari honrarik geiena ematen diona: eta Kristauari probetxurik andiena dakarkiona, bear dan ezaguera, errespeto, atenzio, eta debozioarekin enzuten bada. Baña nola Eliza Ama Santaren lenengo mandamentuan gauza au berau berariaz aitatzen dan, mandamentu ura aditzera ematen degunean, astiro esango dizuet: Meza zer dan, zertako dan, eta nola enzun bear dan. Eta orain bakarrik diot 1. bere kulpaz edo borondatez jai egunetan Meza osoa enzun bage gelditzen dan Kristaua, pekatu mortal egiten duela. 2. Orbat Mezautsegiteko peligro edo arriskuan bere boron-

datez edo ardurabagetasunez jarten danak, pekatu mortal egiten duela: baña bear adiña dilijenzia egin ezkerro, ustez uste bage, eta bere kulpa bage, eziñ Mezatara eldu izan bada, eta besterik ezpadago, eztu pekatu egiten: eta noiznai eldu dedilla Mezatara, berandu izan arren, besterik ezpadago, andik aurrerako guzia enzuteko obligazioa dauka: bada guzia ezin duenak, al duenarekin kunplitu bear du: 3. diot, Mezaren parte gutxi batean faltatzea, nola dan Epistola esateraño, beste guzia enzuten duela; edo azkneko komunioa egin ezkerro, Mezaren azkeneraño partean faltatzea, beste guzia asieratik enzun ezkerro; pekatu benialzat ematen duela dotriña erakusleak, zerren gai andia eztan; eta gañeruntzekoa da Mezaren parterik prinzipalena: baña Meza erdian, konsagrazio denporan edo azkeneko komunioko denporan faltatzea da gauza pisu, larria: eta utsegin duenak, beste Meza bat enzun bear du: eta besterik ezpada, eta bere kulpaz utsegin badu, pekatu mortal egin du: zerren Mezaerdikoa, da azkeneko komunioa diran Mezaren partetik prinzipalena. 4. Diot, Meza santua enzun bear dala: 1. atenzioarekin; 2. errespetoarekin, eta 3. modestiarekin: eta ala eren gogoz, oartu ezkerro ardurabage lo egoten diranak edo kanpoko gauzetan pen-

satzen egoten diranak Meza guzian edo parte andian; eztue Mezaren obligazioarekin kunplitzen: eta pekatu mortal egiten due: baña oartu ezkerio loa datorkiela edo pensamentua dibertiturik, eta kanpora gauzetara aizaturik, eta banaturik daukela ezagutu ezkerio, alegiñak egiten baditue atenzioa edukitzeko; orduan pekaturik egiten eztue, gogoaren, eta borondatearen kontra datorgien logurearekin, eta kanpoko pensamentuakin: eta barruko atenzioarekin ezeze kanpotik errerrespeto andi batekin Mezatako denporan egon bear due; iñorekin alperrik hitz egin bage, eta batera, eta bestera begira egon bage: eta modestia andi bat agertu bear due eren janzian, eta Elizan egoteko moduan: gure Jaungoikoaren etxe santu, eta orazioto-kian, eta aren Majestadearen beraren aurrean daude-la ondo konsideraturik: bada ezta iñor agertu oi Erre-geren, eta beste anditsuen etxetan erai hitz egitera, eta zerbait eskatzera dijoazenean soñeko satarrakin, eta erabageko ardurabagetasunarekin: eta Errege guzien Erregearen aurrean askotan emakumeak eren bularrak ondo estali bage, eta gizakumeak, aste egu-neko amilla bat lepotik zinzillika, besoak ere sartu bage, daukatela agertzera ausartzen edo atrebitzen dira Jaunaren beraren etxean.

Eta ori zer dala uste dezue? Da edo fedearen illtasuna edo ostasuna edo konsideraziorik batere ere egi-tea. Kontu bada aurrerako, N.K., Eliza santuan eduki bear dezuen atenzio, errespeto, eta modestiarekin: eta batez ere Mezatako denporan.

Eta badira Meza enzutetik eskusaturik edo libre daudenak? Bai: Zein dira? 1. Gaixo edo eri daudenak: 2. preso daudenak: 3. osasunaren kalte andi bage edo neke andi bage, urruti bizi diralako, eta eguraldi gaiztoa edo bide nekosoak daukelako ezin modu onean etorri diran personak, batez ere zarrak, eta erdi gaxoak: 4. ondasunak galtzeko arrisku edo peligro andi bage ezin etorri diranak; nola artzaiak ardiak mendian galtzeko arrisku edo peligroan ezin utzi dituenak: baña Meza entzundako ordekorik billa badezake, enzun bear due: eta besterik ezin duenean, aldizka beste arzai batzuekin konpondu ditezkeanean, aldizka enzun bear due: 5. orobat ardurazko edo kontuzko gaixoari lagundu bear dionak, ezpadu ordekorik billatzeko erarik, Meza utzi dezake: bada lenago da premiazko karidadea Meza baño: eta 6. orobat Mezatik libre dago, argaltasuneko pekatoren bat egin, eta ezkutuan aurdun arkitzen dana; bere fama galduko badu, eta zer esana emango badu Mezatara etorriaz.

Eta Mezatara jai egunetan ezin etorri diranak? Meza orde zerbait errezatu bear ote due, jai eguna santifikatzeko? Bai: edo errosarioren bat, edo estazio-
ren batzuek: edo kalbarioro pausoak, ikasi badituzte, gogora ekarri: eta Paternosterra, eta Abe Maria pausu bakoitzeko errezatu, edo beste orazioren batzuek egiteko aleginak egin bear ditue: bada Elizaren legeak Meza bakarrik seinalatzen badu ere, Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentuak agintzen digu jai egunak santifikatzea: eta orretarako obra onetan enpleatzea edo igarotzea: eta ezin Meza enzun duenak, zerbait egin bear du jai egunak santifikatzeko.

Eta zer beste gauzarik agintzen digu irugarren mandamentu onek? Premia egiazko bage bearrik ez egitea domeka edo igandeetan, eta beste jai osoetan: dotriña onen asieran Jaungoikoaren beraren hitzakin aditu dezuen bezela.

Eta zein dira mandamentu onek eragozten dituan neke lanak? 1. Nekazariak, eta beste beargille guziak eren buruak edo eren kargukoak mantentzeko egin oi dituzten eskulanak: eta nola oriek jakiñak diran, banaka aitatzen eztitut. Eta 2. eragozten ditu auzi lanak, nola testiguak, premia egiazko bage, artzea: juramentuak Justiziaren aurrean eragitea: auto edo

prozesoak egitea; sententzia ematea, eta beste onelako gauzak Justiziako jaunak, Letraduak, eta Eskribauak jakin bear dituenak: eta 3. eragozten ditu merkatariak egin oi dituen saldu-erosiak, premia egiazkorik eztanean; edo merkatu egun jakiñak eztiranean: bada orietan oitura edo kostunbreak onzat dauzka: eta Elizako agintariak eragozten eztatue: baña bestelako domeka, eta jai osoetan denda guziak itxirik egon bear due: eta ixillik ere saldu-erosirik egin bear eztatue, premia eztatue eztanean.

Eta lan oriek guziak, berez pekatu eztatira, zergatik eragozten ditu gure Jaungoikoak domekatan, eta beste jai osoetan? Zergatik mandamentu onen motibo edo fin prinzipala da Jaungoikoaren honrako, eta gure salbazioko egitekoetan egun santu oriek igarotzea: eta orretarako eragozgarri andiak dira beste lanak edo beargaiak, eta orien arazo, eta kuidaduak.

Eta nekazariak, eta beste beargilleak egiazko premiarekin domeka, eta jai osoetan neke lanak egin ditzake? Bai: eta ala bere ondasunetan kalte andiaren peligro edo arrisku ezagutua gertatzen zaienean erai edo projimoai kalte ura eskusatzeko diña neke lan egin dezake: eta orobat nai ta ez bear diran alimentuak eren buruentzat, eta eren aberentzat billatu

dezake: baña ori guzia aditzen da edo aurretik ezin prestatu edo zuzendu izan diran gauzetan; edo aste-gunerako kalte bage ezin luzatu litezkeenetan: eta jai egunetan eztira egin bear kalte andi bage eskusatu ditezkean lanak: eta orduan ere, al bada, Meza enzunaz gañera, Elizako ofizioetako denporan lanik egin bear ezta; eta, astirik bada, baimena edo lizenzia eskatu bear da.

Eta zeri dagokala agindu zuen Jaungoikoak mandamentu onetan, astoari, eta aren izenaz, beste abereai, jai egunetan bearrik ez egiteko? Aberen aitzakia-ekin gizonak lanik, ere nekerik egin eztezen: eta aei ere dagokien atsedena jai egunetan eman degien beste serbitzari guziaz bezela.

Eta zer pekatu da jai osoetan premia bage bear andia egitea edo eragitea? Da pekatu mortala: baña denpora gutxi batean ixillik ezkutuan bearra egitea, da pekatu beniala.

Eta zenbat denporako bearra, da pekatu mortala? Eztu Eliza Ama Santak ori señaletu. Dotriña erakusle jakinsu batzuek erakusten due, ezkutuan egiten diran lanetan ordu bira eldu ezkeru, eta beste batzuek ordu-bete igaro ezkeru pekatu mortala dala, eta gutxiago, pekatu beniala: eta egiazko premiarekin egiten bada,

pekatu eztala batez ere, pobrea bada beargillea, eta ezkutuan egiten bada: bada nabarbenkiro edo ots andiarekin bearra denpora gutxian egitea izan diteke pekatu mortala ematen duen eskandalo andiatatik. Eta jai egunetan zenbateraño gure Jaungoikoak igui duen edo sentitzen duen aren serbitzariak neke lanak edo bearra egiten aritzea, argiro ikusi dezazuen; ona Eskritura Santak dakarren exenplo bat. Moises Profeta Santuaren denporan, jai egun batean arkitu zuen Israeldar bat egur egiten. Moises Santuagana ekarri zuen: bereala preso ipiñi erazo zuen: eta Jaungoikoari berari galdetu zion, gizon arzaz zer egingo zuen: eta Jaungoikoak eranzun zion: gizon ura kanpora atera zezalela, eta erritar guziak arrika ill zezatela. Eta ala egin zuen. Orra nolako kastigua izan zuen mundu onetan pekatu orrek, Jaungoikoaren beraren ordenaz: eta arrezkero lege zarrean orrela kastigatzen zituen jai egunetan bearra egiten zuenak: eta argatik orain ere Juduak eren jaia alde orretatik iñork baño obeto gordetzen due, eta Kristau ardurabageak lotsatzen dituzte: bada oen pena edo kastigua orain lege berrian, eta bizitza onetan txikiago bada ere, ezta txikiagoa izango geroko bizitzan; bada erremediatzen ezpadira egiazko penitenziarekin, betiko penak Infernuan sufri-

tu bearko dituzte, eta emen ere eren nekeak probe-
txurik ekarriko ezte: eta bai ondamen andiak, eta
ustebageko naigabeak etorriko zaizte.

Eta jai egunak ondo santitikatzeke zer besterik
egin bear degu? Pekatuko lanbideai alde egitea: eta al
ditugun obra on guziak egitea, eranzuera au bear
bezela aditzera emateko, txit asko dago zer esan, eta
astirik orain eztago.

Badakizue: Kristau itxu zoro, eta argal askoren-
tzat, pekatu gaiak dirala jai egunetan egiten dituzten
modestia bageko danzak: eta bestelako neska muti-
llen arteko jostatze, eta jolas peligrasoak: beste asko-
rentzat joku luze, interes andikoak, pekatu mortal
asko egiteko okasio, motibo, peligro edo arrisku jaki-
ñak izaten dirala: eta beste askorentzat, eren buruen,
eta eren familien lotsagarri, eta ondagarri izaten dira-
la tabernetako sarrera, eta egoera luzeak: aitatu ditu-
dan iru Kristau mota oek, dantzazale erabageak, joku-
lariak, eta ardaue geiegi eranzaleak, dira eskuarkiro jai
egun santuetan geiena Jaungoikoa ofenditzen duenak:
eta eren animak kondenazioko bidean paratzen ditue-
nak: Jaungoikoak berak arren argitu ditzala, eren
buruak ezagutzeko, eta benetan erremediatzeko:
bada bestela galduak dira betiko.

Eta zuek, N. Kristau onak, alegin guziak egin itza-zue: 1. jai egunak pekaturik batere egin bage igarotzeko; bada jai egunetan egiten diranak larriagoak, eta pisuagoak dira aste egunetan egiten diranak baño; zerren zuzen-zuzen jai egunaren santifikazioko fiñaren kontra dira: eta ala jai egunetan artzen dituzuen jostatze, eta poz edo alegrietan, pekatuari, eta pekatuaren antza edo etxura duen guziari txit kontuz alde egin bear diozue. Eta 2. lenagoko pekatu guzien barkazioa egun orietan, besteetan baño ere, astiroa-go, eta ziñezago Jaungoikoari eskatu bear diozue: eta baita bear dezuen argia, Kristauaren obligazioak ondo ezagutzeko, eta bear dezuen indarra oriek ondo osatzeko edo kunplitzeko; eta orretarako sarritxo konfesatzeko, eta komulgatzeko alegiñak egin bear dituzue: eta baita al dezuenok, Meza nagusia, eta dotriña-ko goitz Meza edo sermoia zuen parroketan enzun bear dezue: bada zuek Jaungoikoaren hitza eta dotriña santua ikasteko Obligazioa dezuelako, Elizako arzaia zuei erakusteko edo aditzera emateko kargua, eta obligazioa daukate: eta 3. beste obra on askoren artean, agitz balioko dizue, Elizako lanaz gañera, zuen etxeetan dotriña santuko gauzak zeurok aitatzea, eta bata besteari erakustea; bada orrek emango dizue

bidea Jaungoikoak egin dizkizuen mesede andiak ezagutzeko, berari eskerrak emateko, bera alabatzeko; bera biotz guztitik amatzeko, eta serbitzeko: eta eramango zaitue gero betiko atsedena Zeruko glorian goatzera. Amen.

OGEIGARREN DOTRIÑA

*Laugarren mandamentuaren gañean 1. partea.
Semeak, eta alabak, gurasoen aldera dituen
obligazioak.*

A! zer pakea munduan, N.K.: laugarren mandamentu santua ondo gordeko balitz! oraindanozko dotriñetan Jaungoikoari berari zor dioguna lenbiziko iru mandamentuetan ikusi dezue, aurrera nola guziok alkarrekin izan bear degun astiro ikusi bear dezue: eta nola projimo guzien artean, gurasoai, eta guraso-ordekoai geiena zor diegun; argatik laugarren mandamentu santuan Jaungoikoak, lenengo erakusten dizkigu, gurasoakiko humeak dituen obligazio andiak: eta gurasoak humeakiko dituenak. Ona dotriña bat guztiz bearra, eta txit kontuz guziok aditu bear deguna.

G. Zein da Jaungoikoaren legeko laugarren mandamentua? **E.** Gurasoak, au da, Aita, eta Ama honratzea.

G. Nork honratzen ditu gurasoak? **E.** Obedezitzen dituanak, sokorritzen dituanak, eta erreberenziazten diluanak.

G. Eta nork iru obligazio orien kontra pekatu mortala edo eriozkoa egiten due? **E.** 1. Familiaren edo etxearen gobernu edo zuzenbide onerako, eta oitura edo kostunbre onak izateko agintzen dien, eta bear diran gauza pisu edo larrietan gurasuai obedezitzen eztién humeak edo seme-alabak: eta aei konsejurik edo lizenzia edo baimenik eskatu bage ezkonza tratatzen, eta erabakitzen duenak. 2. Gurasoai, premia andian arkitzen dirala, naiz gorputzaren aldetik, naiz animaren aldetik. sokorru edo laguntasunik ematen eztién humeak, al duen guziraño, pekatu mortal egiten due. Eta 3. orobat pekatu mortal arrigarria egiten due gurasoai birau edo maldizioa egiten dienak: iskar-nio, burla edo desprezio andia egiten dienak: eskua jaso, eta jotzen dituenak; eta baita, ez jo arren, jotzeko keñu edo señailea egiten dienak edo bestela lotsa galtzen dienak: gaizki hitz egiñaz edo aserrezko begirakunaz ofendituaz edo naigabetuaz: eta bakarrik libratu ditzake pekatu mortaletik, ustebageko edo supitoko estutasunen batek, oarmenik izateko leku bage, iñoiz gaizki esatea edo egitea gertatzen bazaie, eta konturatu ta bereala erremediatzeko alegiñak egiten baditue.

G. Nor besterik gurasoen izenaz aditzen da? **E.** Nagusiagoak edadean, diñatasunean, eta gobernuan.

G. Eta mandamentu onetan humen obligazioak baizik besterik aditzen ezta? **E.** Bai: emen sartzen dira gurasoen obligazioak eren humen aldera: eta nagusi, eta agintari guzienak eren mirabe, eta mendekoen aldera.

G. Eta zeiñ dira obligazio oriek? **E.** 1. Alimentu edo sustentua ematea: 2. bear duen guzia erakustea edo erakutsi eragitea, ala bizitza espiritualerako, nola denporalerako: 3. modu onean korrejitzea: 4. exenplo ona ematea: eta 5. ondo dagokien estadua artzen laguntzea, eta ori guzia egin bear due, Jaungoikoagatik, eta Jaungoikoarenzat maite dituelako.

G. Eta obligazio oriekin kunplitzen eztuenak zer pekatu egiten due? **E.** Eskuarkiro pekatu mortala, gaiaren txikitasunak edo oartu bagetasunak libratzen ezpaditu.

Orra, N.K., hitz gutxitan ta laugarren mandamentu santua aditzera emanik. Baña, nola gauza guztiz bearra, eta premiazkoa dan, ala humeak, nola gurasoak ondo ezagutzea, eta gordetzea Jaungoikoak mandamentu onetan agintzen dien beargaiak; eta eskusatzzea edo ez egitea eragozten dien pekatuak: eta ori

guria dotriña baterako langai geiegi dan; gaur baka-
rrik humeak gurasoen aldera dituen obligazioak zeoro
aditzera emango dizkitzuet: eta beste dotriña batean
gurasoak humen aldera dituenak erakutsiko dizki-
tzuet.

Eta lenengo galdetzen det, Zergatik gure Jaungoi-
koak bere Majestade Soberanoari edo gorenari dagoz-
kion honra, eta guzien gañeko amorioa, lenbiziko iru
mandamentuetan agindu ezkerro, bereala projimoaren
amorioari, eta probetxuari dagozkion beste zazpi
mandamentuetan lenengoa ipiñi zuen Aita, eta Ama
edo gurasoak honratzea?

Zergatik Jaungoikoaz Kanpora iñori eztiogu ain-
beste zor nola gure Aitari, eta Amari: bada oek mundu
onetan dira Jaungoikoaren Aitetasunaren imajiña
batzuek bezela, Jaungoikoaren ordeko batzuek beze-
la: Jaungoikoak guri bizia, eta daukagun izate guzia
emateko esleitu dituan instrumentu bizi batzuek: eta
oen bitartez Jaungoikoak eman digun bizitzan gu man-
tenatzeko edo sustentatzeko, gu gidatzeko, gu gorde-
tzeko, eta gure zoriona, ala oraingoa, nola gerokoa
edo betikoa, guri irabazi edo irabazi eragiteko guraso-
ak dira beste iñork ez bezelako alegiñak beti egiten
dituenak Amaren sabelean sortu giñan unatik edo ins-

tantetik orain gauden estaduraño: eta, nolako nekeak, naigabeak, eta atsekabeak, nolako arazeri edo kuida-
duak, ala Aitak, nola Amak artu eztitue eren denpora
guzian gu ondo azitzeagatik? Eta nolako amorioarekin
zeramen neke guzia gu ondo ikusteagatik? Alabaña
begiratzten ziguen eren puska, eta zati egiazko batzuei
bezela: Nork baña gogora litzake, eta aditzera eman
litzake gurasoen nekeak, eta gurasoen alegiñak eren
humeakgatik? Zer gauza egokiagorik, eta zer gauza
justuagorik bada, N.K.; ainbeste zor diegunak honra-
tzea baño? Eta egaztiak, eta abereak ere erakusten
duen ezkeru ona alako ongilleai agertzea bano? Orra
bada zergatik gure Jaungoikoak projimoaren amorioa-
ri dagozkion mandamentuetan lenengo agindu digun
gure gurasoak honratzea.

G. Eta beste motiborik eztegu projimo guzien
artean batez ere gurasoak honratzeko? **E.** Guztiz asko,
eta txit andiak ditugu; baña astirik eztago guziak orain
ondo aditzera emateko. Ona ala ere beste motibo bat
guztiz andia: eta da, zerren gure lagun urkoak edo
projimoak gure buruak bezela Jaungoikoagatik ama-
tzeko obligazio estua degun ezkeru, karidadearen
gañeko dotriñan erakutsi nizuen bezela; projimo
guzien artean gure gurasoak ditugu gertuenak, urko-

enak, eta geiena zor diegunak, bada aetatik degu gure odola, eta bizia: eta ala beste projimo guziak baño geiago amatu, estimatu, eta honratu bear ditugu: eta gurasoari, Jaungoikoaren aginte onezaz batera, zor diegun honran sarturik dago zor diegun amorioa: bada eziñ benetan, eta egiaz honratu ditzakegu kanpotik bezela barrutik ere, au da, biotzetik maite ezpaditugu: eta orobat beste projimo guziaz baño zor diegun amorio andiago onetan sarturik obediencia, laguntasuna, eta errespetoa edo erreberenzia. Eta ala hume guziak eren gurasoen aldera dituen obligazio prinzipalak, dirade lau: 1. gurasoak amatzea. 2. Obedezitzea. 3. Sokorritzea edo laguntzea: eta 4. errespetatzea edo erreberenziatzea.

G. Gurasoak amatzeko, eta beste projimo guziak baño geiago amatzeko obligazioa ezaguna, eta argia dan ezker; jakin bear degu, eta ala galdetzen det; Nola amatu bear ditugu gurasoak? **E.** Amatu bear ditugu, ez bakarrik arrazoiaren argiak, eta esker onak erakusten digun amorioarekin, gere gurasoai deseaten diegula zorioneko bizitza luze bat, eta orretarako egoki diran ondasunak, fama ona, eta estimazioak; baita ere amatu bear ditugu ori baño beste amorio andiago, eta bearrago batekin, au da karidadezko

amorioarekin; Jaungoikoak ala nai duelako, ala agintzen digulako; Jaungoikoaren borondatea egiteagatik; eta deseaten diegula batez ere animako ondasunak: au da mundu onetan birtute andiak (au da fede bizia, esperanza irmoa, karidade irazekia, humiltasuna, pazientzia, eta beste onelakoak) eta gero betiko zoriona Zeruko glorian: eta deseo orrekin batera Jaungoikoari berari ori guzia gure gurasoentzat eskatu bear diogu: eta orixe guzia da gurasoak benetan, eta biotzetik amatzea: baña orretarako bear due humeak ere Jaungoikoaren argia, eta grazia: eta ala Jaungoikoari eskatu bear diobe gurasoak onela amatzeko bere laguntasuna. A, zeññ pozik ori guzia hume onak egingo duen: eta nolako bendizioak eren buruai ekarriko dien!

G. Eta badira munduan eren gurasoak maite ezti-tuen humeak? Eta maitatu ordean, igui dituenak: aurpegi illunakin begiratzen, eta hitz egiten dienak: eziñ sufritu dituenak: eta iltzea ere deseaten dienak; eta ori, ez len baño len Zeruko Gloria deseaten dielako, baizik aen mendetik, eta agintetik libre egoteagatik; eta aen ondasunak len baño len gozatzeagatik? **E.** Izan dira bai, eta orain ere badira orrelako esker gaiztoko hume gogor arroak; batez ere guraso zarrak

ezertan eztauzkenak: bada oriek pekatu mortal bi guztiz andiak egiten ditue era orretan gurasoai gaitz andia opa dienean, edo naigabetzen dituenean: bata, projimo guziaz zor dien karidadean faltatzen duelako: eta bestea, gurasoai zor zaien piedadezko birtutea ausitzen duelako: eta bakarrik eskusatu edo libratu ditezke pekatu mortalean erortetik, gai txikian, eta oarmen edo ezaguera osobage igui piskaren bat edukitzea gertatzen bazaie: baña beti bildur izan bear dira: bada beste projimoakiko gai txikia dan gauza, gurasoakiko askotan pisua izan diteke ematen zaien naigabe andiagatik: eta alako seme-alaba esker bageak, eta gurasoakiko gogorak diranagatik dio San Jeronimo andiak, ze merezi duela, begielako argia galdu, eta itxuturik gelditzea: orrela zenzatu ditezen, eren itxumena obeto ezagutu, eta erremediatu dezen.

Baña aditu dezuen ezkerro, zergatik, eta nola gurasoak amatu bear dituzuen; eta zeñ gaizki egiten duen orretan utsegiten duenak: ikusi bear dezue oraiñ gure kartillako dotriñari narraiola, zergatik, eta nola gurasoak obedezitu, sokorritu, eta errespetatu bear dituzuen.

G. Zergatik daude bada hume guziak gurasoai obedezitzera premiaturik edo obligaturik? **E.** 1. Zerga-

tik gurasoen mendekoak diran: eta Eskritura Santak dionez, eren jabeai, eta Jaunai bezela obedezitu bear dien ondo diran gauza guzietan: 2. zergatik Jaungoikoak egiñ ditu gurasoak eren humeen maisu, gidari, eta erakusle prinzipalak, eta orrelakoai zor zaie obediencia: eta 3. zergatik Jaungoikoak berak ala agintzen duen, gurasoen, eta humeen onerako, eta pakerako: bada obediencia kendu ezkeru, eziñ munduan pakerik izan diteke.

G. Eta nola obedezitu bear die gurasoai? **E.** Bereala, gogo onez, eta errespetoz; atzerapenik, eta aitzakiarik billatu bage, eta iguitasunik erakutsi bage: bigarren, eta irugarren aldian gauza bat berbera aitak edo amak agindu zai egon bage: aen naia edo borondatea igarri ezkeru, bereala kunplitzeko alegiña egin bear due: eta ori, meritu edo irabazi andiarekin egiteko, kontu egin bear due, orretan Jaungoikoari berari obedezitzen diobela: bada Jaungoikoak ala agintzen die: eta iñoiz gurasoak agintzen diena bereala egiteko enbarazorik edo eragozgarririk badue, modu onarekin, eta errespetoarekin aditzera eman bear die: eta hume guziak gurasoai gogotik obedezitzeko, gogoan eduki bear due, nola Jesu-Kristo gure Jaunak izanik Zeruaren, eta lurraren jabea, ogeita amargarren urte-

rañoko denpora guzia igaro zuen, Ama Birjiña Santisimari, eta bere Aita-ordeko San Joseri obedezitzen, eta laguntzen; eta agintzen ziozten lan guziak egiten. *Erat subditus illis:* eta ori guzia zan guri erakusteagatik, nola gurasoai obdezitu, eta lagundu bear diegun.

G. Eta zertan humeak gurasoai obedezitu bear die? **E.** Gauza on guzietan: bada gauza gaiztoetan, au da, pekatu diran edo pekaturako bideak diran gauzetan obedienziarik zor eztie: eta obedezituko balitue, pekatu egingo luke, edo andiagooa edo txikiagooa, gaia danez: bada lenago da gure Jaungoikoari obedezitzea gurasoai baño: eta ala gurasoak hume bati aginduko balio juramentu gaizto bat egitea, edo bere burua edo gurasoa libratzeko kalte andiren batetik, eztio obedezitu bear: orobat lapurretaren bat egitea, benganza artzea, gezurra esatea edo beste edozein pekatu, naiz andia, naiz txikia egitea aginduko balio, eztio orrelako gauzetan obedezitu bear.

G. Zertan bada batez ere gurasoai obedezitu bear die eren humeak? **E.** Oen animen onerako, eta etxekeo gobernu onerako agintzen dien, eta bear diran edo egoki diran gauza guzietan. Eta ala gauza orietan ez obedezitzea da pekatu; edo mortala, gai andian utsegiten bada; edo beniala edo ariña gai txikian gerta-

tzen bada: eta ala gurasoak agintzen dienean, pekatu mortalak, eskusatzeko bear diran gauzak, nola joku luzeak, interesa andikoak ez egitea, taberna edo ostatuetan jan-edan erabageak eskusatzea: etxera muga onean etortzea: okasiogarri diran lagunakin ez ibiltea: eta beste onelako gauza pisuak; obedezitu bear ditue pekatu mortalaren azpian. Baña beste gauza txikiago batzuetan, gurasoai naigabe andirik ematen eztiene-tan utsegitea izango da berez pekatu beniala: baña au ere humeak kontuz eskusatu bear due, Jaungoikoaren eta gurasoaren bendizioa iritsi nai badue: eta pekatu andiagoak egiteko arriskutik libre egon nai badue; bada oarmen edo ezaguerarekin aserra erazotzen baditue gurasoak; eta birau andiak eragiten badie, pekatu mortal eskuarkiro egiten due.

G. Eta gurasoak agindu leike eren humai onelako edo alako estadua edo bizimodua artzea: au da ezkontzea, edo ez ezkontzea; Fraile edo Monja izatea edo ez izatea edo Eliz-gizon edo Abade izatea edo ez izatea?

E. Gauza orietan libre dira humeak: eziñ estadurik artu eragin leikie eren gogoaren kontra: eta indar egiten dienak, nai eztuen estadua artzeko, pekatu mortala egiten due; eta pena andiak dauzkate.

G. Baña, onelako edo alako estadia artzako asmoa izan ezker, badaue obligazioa humeak enpeñurik edo obligaziorik egin baño lenago gurasoai kontu emateko, eta konseju artzeko? **E.** Ori bai: eta da obligazio estua: bada gurasoa da etxeko burua, eta edozein etxe edo familian gertatzen diran egitekoetatik andiena izan oi da, humeak ondo akomodatzera, bakoitzari bere burubidea ematea: eta orrelako gauzak eziñ humeak erabaki ditzake, gutxianez gurasoai kontu eman bage, eta konseju eskatu bage: bada bestela humen pasio txarrak, eta itxumenak oker andiak ekarri oi dituzte. Eta ala humeak, nola gurasoak, aziertua izateko, Jaungoikoari argia eskatu, eta gauza oek persona zinzo, jakinsu, Jaungoikozkoakin komunikatu bear ditue, gero damutu eztakien: orra bada aditurik, zergatik, nola, eta zertan gurasoai humeak obedezitu bear dien, eta zertan ez. (Ikusi bear da ezkonzaren gañeko bigarren dotriña gai onetan)

G. Eta zergatik, amorioaz, eta obedienziak gañera, gurasoai zor die hume guziak sokorruea edo laguntasuna eren premia espiritual edo denporaletan? **E.** 1. Zergatik arrazoiak berak, batere legerik ezpaliz ere, ori guziaz erakusten die, alde batetik eren bizia zor dielako, eta bestetik lenago gurasoak agitz nekatuta

humeai eman dielako al duen alimentu, soñ, asiera, eta dotriña, beste gauza askorekin, eta eskergabeta-sunik itxusiena, eta gogortasunik nazkagarriena da ainbeste zor zaion gurasoari, premia andian dagoala, eta iñola ere al duela, sokorrua edo laguntasuna ukatzea: eta 2. zergatik gure Jaungoikoa guzion Aita, eta jabe danak bezela ala agintzen digun: eta zorigaizto-koa orretan utsegiten duen humea: bada emen bertan ere Jaungoikoaren madarikazioa, eta kastigua bere gañ ikusiko du: eta erremediatzen ezpada, betiko gose-egarria, eta desesperazioa infernuan sufritu bearko du. Eta kontrara biotz oneko, eta esker oneko hume leialak, emen bertan, bizitza luze zorioneko bat, eta gero betiko bizitza zariobeko bat ziertu esperatu dezake: bada Jaungoikoak berak mandamentu onen saritzat hume onai ala eskeintzen die.

G. Eta zergatik hume guziak dauke gurasoai beti errespetoa, eta erreberenzia ekarteko obligazio estua? **E.** Zergatik gurasotasunari dagokion honra, eta Jaungoikoaren legeak ori berez eskatzen duen. Eta ala dotriña onen asieran, esan genduan bezela, pekatu mortalean, eta kondenazioko estaduan daude (penitentzia egin, eta erremediatzen ezpadira) gurasoak ezertan eztauzkenak: eta nolanai desprezio edo inju-

ria pisua egiten dienak, lenago esanik daukagun beze-
la. Eta ala gurasoak pobretxoak izan arren, eta bear-
bada jakinezak, eta moldakaitzak, beti guraso dira:
eta ala gurasotzat ezagtu, tratatu, eta erreberrenzia-
tu bear ditue humeak: oek aberats, jakinsu, eta andi-
su izatera eldu arren: ala egin zuen Erromako Aita
Santu izatera eldu zan Benedikto amaikagarrenak;
guraso pobre batzuen semea bazan ere: eta estadu
aíñ altuan zegoela, joan zitzaion bere ama bisitatza:
eta oni, Aita Santuak jakin bage, soñeko eder batzuek
paratu zioben: eta semea ikustera sartu zanean, ala
janzirik zegoalako, Aita Santuak, etzala ura bere ama
esan zuen; eta despeitu edo atera eragin zuen: baña
gero, lengo bere soñeko pobreakin janzerik berriz bisi-
tatu zuen, eta orduan Aita Santuak esan zuen: «auxe
da, nere ama»: eta laztandu zuen, eta bere ama beze-
la honratu zuen. Orra ejemplo ederra guzionzat.

Baña bearbada emen esango didazue, aziera ona
izan eztezuen humeok; eta baita edo arroak edo guti-
ziosoak zeratenok; zuen gurasoai eztiezuela, emen
aitatu degun ainbe zor: zergatik, gaizki azi zaituen:
ejemplo ona eman eztizuen, eta bai gaiztorik asko: eta
lenago dituzuela zuen buruak, zuen emazteak edo
zuen humeak: eta eztaukezuela gurasoakin gasturik

orain egiteko ondasunik, eta erarik: eta noiz edo noiz gaizki eranzun edo tratatu badituzue, erak artarako bidea eman dizuela. Orra, N.K. zerk daukan mundua galdurik: jakizue bada, hume arro, eta gutiziosoak; zuen itxumenak erasaten dizuen arrazoi edo motibo guziak etzaituela libratzen gurasoai (nolanaikoak oek izan arren) zor diezuen obligazio andi, eta estutik. Bada Espiritu Santuak abisatzen zaitue Eskritura Santuan guraso mota guziak honratu bear dituzuela 1. zuen hitzakin, beti errespetoz hitz egiten diezuela: 2. zuen obrakin iñoiz ere, bear duen sokorru edo laguntasuna premia andietan ukatu bage: bada orrelako aldietan lenago dira gurasoak, emazteak, eta humeak baño: eta Abilako Obispo guztiz jakintsu batek dionez, zeurontzat bear dezuena gurasoai eman bear diozue; bestela billatu badezakezue, zeurok ez illtzeko diña. Eta aiñ estua da gurasoari laguntzeko premia, batez ere pobreza andia badago, ze humea eziñ Errelijioso egin liteke, eta gurasoa desanparatu dezake iñola ere aren alegiñetik gurasoaren sostena edo alimentua modu onean espera badileke: eta alako aldietan Errelijioan artu nai ezitue alako humeak: eta Errelijioan sartu ezkeru, alako premiara gurasoak badatoz, Errelijioako agintariak artzen due modua alako gurasoai

laguntzeko, aĩn estua dalako obligazio ori: eta 3. pazienza guziarekin honratu bear dituzue aen utsegi-teak, argaltasunak, aserrealdiak, eta moldakaitztasunak Jaungoikoagatik sufrituaz: eta Jaungoikoari berari, gurasoenzat argia, eta erremediatzeko grazia eskatu bear diozue. Eta ori egiten ezpadezue, eta aurrerare naigabetzen, eta tristetzen badituzue, zuen zorigaiz-tokoak! bada zuek ere guraso izatera etorriko zerate: eta bertatik erremediatzen ezpazerate, izango dituzue zuen antzeko hume gaizto esker bageak: Eta, nolako zarzaro tristea ikusi bearko eztezue? A! zenbat gura-sok oraiñ esango due: arrazoi dauka, ni nere gurasoa-kin gogorra izan ninzan, askotan naigabetu nituan; bada oraiñ ori bera nerekin egiten due: Jaungoikoaren kastigu justua probatzen nago: begira ezazue bada oraiñ hume guziok zuen geroko onari. Baña bertatik abiatzen bazerate hume onai dagozkien obligazioak kontuz kunplitzen; zuen humeak ere, zuen guraso aldia datorkizuenean, zuekiko obligazioak gordeko ditue: eta orrela gurasoak, eta humeak alkarrekiko obligazioak ondo kunplituaz, pake guztiz andi bat: alkarrekiko amorio Jaungoikozko bat: eta orri darraion alkarri animako, eta gorputzeko gauzetan laguntzeko leia, eta gogo on bizi eragillea izango dezue: batez ere

azken aldiko sakramentuak mugaz artu eragiteko kuida-
dadu andia bear dezue: eta alkarrekin Zeruko ondasu-
nak gero gozatuko dituzue.

G. Eta gurasoakiko obligazioak bukatzen dira, ill
ezkero? **E.** Ez: eta ala humeak dauke obligazio andia
gurasoai dagozkien animako sufrajioak egiteko: eta
baita aen zorrak, eta obligazioak pagatzeko: eta eren
testamentuetan edo bestela agindu dien edo Mezak
edo limosnak edo bestelako gauza onak kunplitzeko;
utzi ezkero zerekin kunplitu.

Aditu dituzue bada, N.K.; gurasoai zor zaion obli-
gazio guztiz andiak, eta guztiz bearrak: eta gaurko
dotriña bukatzeko, eta obeto aditzera emateko Eskri-
tura Santuko esanak, eta exemploak txit ugari ekarri
banintzake ere, aitatzen ditudala, Noe Patriarkaren
hume on biak gorde zioben errespeto andia, eta orre-
gatik merezi izan zuen saria: eta irugarren semeak
egin zion farra, eta burla, zergatik bere Aita ikusi zuen
lotsatzeko moduan: eta orregatik izan zuen kastigu
andia: eta orobat Isak Santuak bere Aita Abran
Patriarka andiari ekarri zion obediencia miragarria,
bere burua sakrifikatua izateko lotutzen, eta aldare
baten gañean paratzen utzitzeraño: eta orregatik
merezi izan zuen guztizko saria: eta beste onelako

exemplo asko, ala zarrak, nola berriak konta banintzake ere aditzera emateko, nola gure Jaungoikoak denpora guzietan kastigatu dituan hume gaiztoak; eta bendizioz bete dituan hum onak; bakarrik gogora ekarten dizuet, eta eztezue iñoiz ere aztu bear Jesu-Kristo gure jabe, eta Maisu soberanoak eman zigun exenploa; bada ez bakarrik bere Ama Santisimari, eta Aita San Joseri obedezitzen, eta laguntzen egondu zan ogeta amargarren urteraño, baizik ainbesteraño humillatu edo beeratu zan, nun bere Aita Eternoari obedezitzeagatik, eta guri erakusteagatik jarri zan aiñ eriotza gogorra, eta lotsagarria sufritzeraño: eta gurutze batean iltzez josirik sufritzeraño: eta orduan bertan gurasoekiko obligazioa obeto kunplitzeko, eta erakusteko, penaz, eta naigabez beterik gelditzen zan bere Ama Santisimaren kidadua, anparoa, eta betiko laguntasuna bere ordezkari laguntza bere Diszipulu maite San Juan Ebanjelistari.

Jarraitu degiogun bada arren guziok Jesu-Kristoren humiltasunari, eta obedienciari; eta erraz gure obligazio guziak, nekagarriak izan arren, kunplituko ditugu: eta orren saria Zeruan ugari, eta beti gozatuko degu. Amen.

OGEITA BATGARREN DOTRIÑA

Gurasoen obligazioak eren humen aldera.

Jaungoikoaren legeko laugarren mandamentuak hume guziaz obligazio andiak erakusten dizkie: eta batez ere eren gurasoak amatu, eta honratu bear dituela: eta honra oni dagokion bezela obedezitu, sokorritu, eta erreberenziatu bear dituela, aurreko dotriñan esan genduan bezela: bada oraindio andia-goak, eta bearragoak dira gurasoak eren humen aldera ditugu obligazioak: eta ainbesterañokoa da oek gordetzeko premia, ze guraso guziaz ondo gordeko balitue, pekaturik geienai atea itxiko litzaieke: eta munduko geienak onduko, eta salbatuko lirateke. Atenzioa bada guziaz eskatzen dizuet, eta batez ere gurasoen kargua daukezu enoi.

G. Zeiñ dira gurasoak eren humen aldera dituen obligazioak? **E.** Guztiz asko, eta txit andiak dira: baña bearrenak edo premiazkoenak dira. 1. Alimentu edo sustentua ematea. 2. Bear duen guzia erakustea edo erakutsi eragitea, ala bizitza espiritualerako, nola denporalerako. 3. Modu onean aen utsegiteak, eta gaizta-

keriak korrejitzea. 4. Exemplo ona ematea. Eta: 5. ondo dagokien estadia edo bizimodua artzen laguntzea. Eta ori guzia egin bear due batez ere Jaungoikoagatik, eta Jaungoikoarentzat maite dituelako.

Eta ala lenengo galdetzen det, eztan ezker eskuari bere humeak: maite eztituan gurazorik; Zenbat eratara izan oi da gurasoen bere humeakiko amorioa? Iru modu eta gisatara izan oi da: eta 1. da amorio itxu bat, kariño geiegizkoa, arrazoiari, eta egiazko karidadeari eskuari lekuri ematen eztiona: ezertan ere, ondo merezi arren, humeari naigaberik, atsekaberik edo penarik eman nai eztiona: eta bere guraritzoak erraz kunplitzen diona. Onelako amorio itxua da humen galgarria, eta gurasoen kondenagarria: bada txikitanik eren nai edo borondatea egitera oitutzen dituzte: eta oitura gaizto orrek gero ondorengo gaiztoagoak darkazki.

Gurasoen humeakiko 2. amorioa da, naturalezak berez dakarrena, baña arrazoizkoa: au da, bere humen aziera ona, eta orri darraizkan probetxu andiak billatu eragiten diozkana: eta artarako al dituan neurri guziak gogotik artu eragiten diozkana: amorio mota ori txit ona da: baña ori Kristaua dan guraso batentzat asko ezta, fedearen argirik batere izan ezten guraso

Jentil askok arrazoizko amorio ori eren humeakiko izan due.

G. Nolako amorioa eduki bear die bada guraso Kristauak eren humeai? **E.** Karidadezko amorioa: au da, amatu bear ditue eren buruak bezela Jaungoikoa-gatik, eta Jaungoikoarentzat: eta au benetan edo ziñez egiten badue, beste obligazio edo beargai guziak txit erraz, eta txit gogotik kunplituko edo osatuko dituzte: baña Jaungoikozko amorio onekin maitatzen ezpaditue, utsegite arrigarriak egingo dituzte. Gogoan beti eduki bear due gurasoak, dauzkaten seme-alabak geiago dirala Jaungoikoarenak erenak baño: bada Jaungoikoak ez bakarrik duen izate guzia eman die, baizik bere antzera, imajiñara, eta semejan-zara egin ditu: eta izate naturalaz gañera, Bautismo Santuan beste izate bat naturalezaz goragokoa, au da graziazko izate estimagarria, eta preziatua eman die: egin ditu alabaña Jaungoikoaren beraren seme-alabak, eta Zeruko Erreinuaren herederoak: eta au mundu guziaren jabe izatea baño zorion, eta ditxa andiagoa da: gurasoak bada eren humeai geien-geien deseatu bear diena da, betiko zorion au iritsi eragitea: eta orretara zuzendu bear dituzte batez ere alegin guziak. Eta orixe da Jaungoikoari erentzat, eta eren

humentzat geiena, eta sarriena eskatu bear dioben mesede andia: eta eman ondoren gurasoen beste lan guziak pozik egingo dituzte.

G. Zein da bada gurasoen lenbiziko lana edo obligazioa eren humen aldera? **E.** Oei ematea, ondo dagoen alimentua edo sustentua: eta orretan aditzen da, jan-edanaz gañera, eren bizimodu edo aberats edo pobreaki dagokion soñekoa, janzia, eta baita bizilekua ere. Eta ori guzia guraso onai zer agindu ezta: bada eren humeai dien amorio naturalak pozik eragiten die, al dueneraño: eta bakarrik bildur izan ditezke maña geiegi humeai emateaz, dala janean, dala edanean, dala janzian: bada txit kontuz txikitunik erabageko gurariak, eta apaindura alperrak eragozten ezpadie; gulako, eta arrotasuneko biziora erraz oituko dituzte; eta kalte andia eren salbaziorako egingo die: baña badira munduan beste guraso gaizto alper batzuek, jokurako, edanerako, gorputzaren atsegiñerako edo arrotasunerako, griña, eta aztura gaiztoak dituztenak. Eta batzuek eren ondasunak gastu alperretan ondartzen dituzte: eta beste batzuek eren humen sustentu egokia billatzeko nekatu nai eztira: eta orrelakoak obligazio oni ezeze, beste guziaz ere uko egiten die: eta Jaungoikoak argitzen, eta zenza erazotzen ezpadi-

tu, eren buruak, eta eren humeak kondenuatu erazotzeko arrisku guztiz andian arkitzen dira: eta onelako gurasoak dauzkaten, eta gordetzen eztituen obligazioak, eta orren ondorengo izugarriak ondotxo kontsideratzeko, eta benetan erremediatzeko alegiñak egin bear ditue: Jaungoikoak arren argitu, eta eren biotzetan ukitu ditzala: eta orobat kontrako beste alde batetik utsegiten due guraso gutizioso biotz gogorak, eta erruki bageak dituenak, dirurik ez gastatzeagatik, eren emazteai, eta humeai aiñ alimentu urria, eta aiñ soñeko arloteak ematen dienak, nun beartzen dituen edo etxean lapurretak egitera edo kanpoan gaizki billatzera: eta onelako aldietan emazteak etxerako bear dana batere ardurabage, eta pekaturik egin bage etxeko gauzetatik ixillik artu, eta erremediatu lezake, kalte andiagoa bage egin badezake: baña badira emazte arro batzuek ere, eren familia guzia ondatzeko asko diranak; erabageko modako soñeko berriak, eta apaindurak sarri nai dituenak, eta bisita, eta erre-fresko kostosoetan banidadez bear baño geiago gastatu eragin, eta zorpean edo humeak ezin akomodatu ditzakean moduan, senar tristeak ipinten dituenak: eta ala ere aiñ itxuturik egon oi diranak, nun bere utsegiteak ezagutu, eta erremediatu nai eztituen: aiñ

kalte arrigarriak orien deshordenak badakazki ere: eta batere eskrupulorik ere askok egingo eztue, eta konfesatuko ere eztira; banidadeak, eta munduko puntuak itxuturik dauzkeelako.

G. Nork geiago humeak alimentatzeko daukaten obligazioa au gordetzen eztue? **E.** Premia egiazko gabe, jaio, ta bereala ixillik Hospizio, Miserikordiako etxera edo Eliza ate batera edo beste toki nabarren edo publiko batera eren hume gaxoa eraman eragiten duenak: baña egiazko premiak artara beartzen baditu, artu bear ditue neurriak Bateoa seguratzeko, eta aurraren bizitza gorde edo konserba eratzeko. Eta egiazko pobrezak eskusatzen ezpaditu, pagatu ere bear ditue, eren buruak nabarbendu bage, aurrarekin arrezkero egiten diran gastuak; eta orrelakorik gertatzen zaionak, ondo dakianari galdetu bear dio, zer egin bear duen, ez utsegiteko.

G. Eta bada besterik humeai zor zaien alimentuaren gañean utsegiten duanik? **E.** Bai: eta dira arrazoi, eta motibo premiazko bage, eren humeak, Jaungoikoa berariaz artarako eman dien eren bularretako titiarekin azi ordean, iñudeai azitzeko ematen dien ama gogorak: amaren izenik merezi eztuenak.

G. Eta ori zer pekatu da? **E.** Pekatu dalako dudarik eztago: baña mortala edo beniala dan, eziñ erabaki dezake: ondorengoai batez ere begiratu bear zaie: eta aurrari kalte andia, eskusatu ditekeana, egiten bazaio, pekatu andia izango da; batez ere amak motibo andirik ezpadu berak ez azitzeko. Baña motibo justuak baditu pekaturik eztago; eta orduan alegin guziak egin bear ditu, al badu, iñude osasunsua, eta Jaungoikoaren bildurrekoa arkitzeko.

G. Eta zeñ da gurasoak eren humen aldera duen bigarren obligazioa? **E.** Bear duen guzia erakustea edo erakutsi eragitea, ala bizitza espiritualerako, nola denporalerako. Auxe da gurasoen beargairik, lanik, eta egitekorik andiena, eta premiazkoena, obligazio au ondo gordetzen badu, zorionekoak erak, eta zorionekoak eren humeak, eta zorionekoak erri guziak; bada emendik dator eskuarkiro, guziak geienez onak izatea: munduan pakea, eta gero betiko gloria: eta kontrara obligazio au gurasoak bear bezela kunplitzen eztuelako, datoz eskuarkiro munduko gaiztakeriak, eta txit guraso, eta hume askoren kondenatu bearra.

G. Eta zer egin bear due gurasoak bizitza espiritualerako edo animen salbaziorako eren humeai bear duena erakusteko edo erakutsi eragiteko? **E.** Guraso-

ak erak artarako gai badira berez, eta ezpada dotriña erakusle batek, txikitunik humeai erakutsi bear die, ez bakarrik Aita gurea - Abe Maria - Kredoa, mandamentuak, eta Sakramentuak eren esplikazioarekin; eta Trinidadeko, eta Enkarnazioko Misterioak alik argiroena; baizik sarri berritu, eta gogoan sartu bear die, Kristauaren egiazko zoriona eztagoala mundu onetan erara, eta gustora bizi izatean: eztagoala, ez munduko anditasunetan, ondasun edo aberastasunetan, ez eta aragiaren atsegiñetan: baizik dagoala, gure Jaungoiko ona, gure guzion egille, eta jabe soberanoa, orain alik ondoena ezagutzean, serbitzean, eta amatzean, eta gero eternidadean Zeruko Erreinuan aren Majestadea, bera dan bezela argiro ikustean, eta beti amatzen, eta beraz beti gozaten egotean. Eta kontra Kristauaren zorigaitzik, eta desdixarik andiena dala pekatuan bizitzea: eta betiko Infernuan erretzen, kiskaltzen, eta estanda egiten egon bearra: desesperazio, eta amorratio arrigarri batean, bere kulpaz betiko kondenatu dalako; betiko zoriona galdu duelako. Egia au eren biotzetan sartzen bazaie, Kristauaren beste lan edo egiteko guziak txit erraz eragingo zaie: zorion ori galdu eragiten duen, eta zorigaitz ori dakarren pekatuaren iguitasuna, eta gorrotoa benetan

artuko due: arrezkero erraz sinistu eragingo die lagun gaiztoetatik kontuz apartatu edo alde egin bear duela: pekaturako griña gaiztoak ezitzeko edo goitzeko alegiñak egin bear dituela: munduko naigabeak, nolanaikoak gerta dakiela, pazienziarekin eraman bear dituela: eta Jaungoikoaren borondate santua egiteko gauza guzietan alegiñak egin bear dituela: eta Kristau on bati dagozkan beste lanak egiteko gogoia artu eragingo die.

G. Eta zer beste gauzarik orretarako erakutsi bear die? **E.** Txikitunik, ezagueran sartzen abiatu ezkerro, aditzera eman bear zaie, dotriña guziaren zimendua, eta fundamentua dan, gure lenengo guraso, Adan, eta Ebaren gertaera edo historia: aen, eta beste guzion zoriona, graziazko, eta inozenziako estaduan iraun balue: aen pekatua: eta onen ondorengo tristekak, guziok oraiñ ere ikusten ditugunak: eta oen erremediorako gure Jaungoikoaren miseriakozko asmo guztiz miragarriak: Kredoaren esplikazioan ezarririk, eta asitzera emanik daukagun moduan: bada historia ori ondo jakiteak txit argitzen ditu: eta orren ondoren Kristauaren dotriñak erakusten dizkigu beste egia guziak neke gutxiagorekin aditzen ditue: eta alde guzietatik ikusten due, gure Jaungoikoaren ontasuna,

eta miserikordia neurribagea: eta gizonaganako amorio guztizkoa: ondo argiro agertua, ala kreazioko obra miragarrian, nola gure erredenzioko misterio guztiz andian. Eta orri darraiola ikusten da, orazioaren premia guztizkoa, eta Sakramentu Santuen indarra, eta birtutea, gure animako zauriak sendatzeko, eta birtuteari jarraitzeko: eta orrela, ez bakarrik erakusten zaie argiro bizimodu on bat egiteko jakin bear duena, baita ere orretarako gogoia artzen due, eta arrezkero erraz dotriñako egiak, eta batez ere Jaungoikoak egin dien mesede guztiz andiak konsideratzera, eta orazio egitera oitutzen dira: Eta nork esan ditzake ortik datozkien probetxuak? Eta bestela, dotriña guziaren zimendu au ondo erakusten ezpazaie, dotriñako beste egiak txit nekez sartzen zaie: eta txit azaletik ikasten ditue: eta ala eztitue bear bezela argitzen, eta eren biotzak ukitzen: eta erraz deabruak alde batetik, munduan ikusten dituen exenplo gaiztoak bestetik; eta berez daukaten itxumen, eta jakineztasunak, eta are geiago gaitzerako griña fortitzak, eta onerako atzerapen, pisutasun, eta nagitasunak pekatura ekarten dituzte, dotriñako egia andi oek ondo eztakizten, eta batere gogoratzen eztituen humeak.

G. Eta bizitza espiritualerako edo animako salbaziorako bezela, bizitza denporalerako ere ez tie gurasoak erakutsi bear eren humai jakin bear duena, eta ondo dagokiena? **E.** Bai: eta ala 1. era ona duen guraso guziak humeai ikasi eragin bear die, irakorten, eskribitzen, eta kontuak ateratzen: bada eziñ esan ala dira ortik datozen probetxu guziz andiak: 2. ikasi eragin bear die, bakoitzaren bizimoduari, gaitasunari, eta inklinazioari ondo datorkion ofizio edo langaia: bada ori, ala pobrentzat, nola aberatsentzat da guztiz bearra: alde batetik bizio guzien ama, eta sustraia dan alpertasunari alde egiteko, eta bestetik eren buruak, eta eren kargukoak mantentzeko: eta aberatsen humenzat ere badira lan egokiak, estudio nola askotan edo Abade edo Eliz-gizonak izateko; edo Erregure Jauna enpleo askotan serbitzeko; edo eren etxe, eta familiak ondo zuzentzeko; edo erriak ondo gobernatzeko: bada Jaungoikoak alperrik ikusi nai eztu: munduak ere igui ditu: eta alperrak ez tie eren buruak bakarrik kondentzen, baizik lagunak billatzen ditue, eta eren antzekoak egiten ditue.

G. Eta zein da gurasoak eren humeakiko duen irugarren obligazioa? **E.** Modu onean aen utsegiteak, eta gaiztakeriak korrejitzea. Auxe da nere kiko gurasoen

lanik edo egitekorik nekezena; eta bearbada bearren duena, txikitunik okertzen, eta gaiztatzan diran humeak ondo zuzentzeko: bada uzten baditue erreprenditu bage, maña gaiztoak, eta libertade geiegi artzen due: eta gaizki oitu ezkeru, txit nekez erremediatzen dira. Eta gurasoak, eta humeak, bata bestea-gatik askotan kondenatzen dira: baña txit modu ona, eta Jaungoikoaren berariazko doaia bear da, humeak probetxuarekin korrejitzeko: bada guraso batzuek dira biguñegiak, eta guzia sufritzen die: eta batzuek dira gogorregiak, eta neurririk gordetzen eztue.

G. Eta zertan dago korrejitzeko bear dan modu ona? **E.** Ezta ori erraz hitz gutxitan erakustea: Jaungoikoari berari gurasoak orretarako berariazko argia, eta grazia eskatu bear diobe: guraso askok eren humeak iñoiz ere korrejitzen eztitue aserre bizian edo koleraan sarturik daudenean baizik: orduan erabage golpatzen, eta bearbada birau gaiztoak ere botatzen dizte, eta zatitzen dituzte; eta kolera igaro ta bereala damutzen zaie; eta eren humeak palakatzen ere abiatzen dira: ori modu gaiztoa ez ote guzientzat txit kaltegarria da: gurasoentzat, zerren Jaungoikoa ofenditzen duen, eta humeai exenplo gaiztoa, eskandalo edo gaitz-bidea ematen dien, arrazoiaz, eta modu onaz egin bear zuen

korrekzioa edo erreprentzioa, itxumenaz, zenu bage eta neurribage eginaz: eta eskuarki batere probetxu bage: bada orrelako erabageko kastiguak izutzeko, eta ikaratzeko zerbait serbitzen badu ere; gaizki egiña ezagu erazo, eta erremediatzeko askoz geiago balio due, tesoi, eta gar puska batekin bai, baña arrazoi onakin, eta benganza artzeko baño, erremedioa ipinteko deseo geiagorekin ematen diran konseju onak: eta ala kolera, aserre, eta kolera aldietan golperik eman bear etzape humeai: eta beste erremedio guziak probatu, eta alperrik dirala ikusita, kastigura etorri bear danean; humillatzeko, eta eren gaizki egiña ezaguerazotzeko egoki diran kastiguak ondo pensatuta, autu edo esleitu bear ditue: eta beti aditzera eman, eta sinistu eragin, eren onagatik, eta Jaungoikoaren legea kunplitzeagatik kastigatzen dituela: eta orrela errazago arrazoa ezagutu, eta zenzatuko dira: eta gurasoenzat iguirik, eta gorrotorik artuko eztue; baizik geiago estimatu, eta errespetatuko ditue. Eta ona beste kastigu mota askoren artean, batzuetan asko izan dan bat, eta probetxu andia ekarri duena: eta da, kastigatu bear dan seme edo alaba aposentu itxi batean paratu, eta nai ta ez edo azote edo zurriago batekin galantak artu bear dituala bate-

re aserre bage sinistu eragin bear zaio, ez bere kaltea-
gatik, ezpada bere erremedioagatik, eta Jaungoikoari
satisfazioa emateagatik: eta erremediatzeko hitza
ematen badu, nabarbenduko eztala, eta lotsarik
emango etzaiola aditzera eman bear zaio: eta egiaz
humillatzen bada edo txit eskusatu, utzi edo gutxitu
liteke kastigua: baña muñ eragin bear zaio azoteari,
eta belaunikaturik lurrari: eta baita bere aita edo ama-
ren eskuari, barkazioa eskatu eraginaz, eta aurrerako
erremedioa agindu edo eskeñiaz: eta ori guzia, gaizki
egindako damuaren señaleaz egiten badu, orduan
edo geroxeago gurasoak amorioa agertu bear dio, eta
konsolatu bear du: bada humiltasunezko akto oriek,
oiturik eztaudenentzat iguigarriak, eta nekezak badira
ere, eta antxitian bearbada batere gogo bage egin
arren, zenza erazotzen edo kontuan erori egiten ditue:
eta gero ezagutzen due, guzia eren onagatik egiten
dala.

G. Eta humeak ondo korrejitzeko zer geiago egin
bear due gurasoak? **E.** Eren humen pausoak, eta ibille-
rak jakiteko alegiñak egin bear ditue: eta oitura gaiz-
toak artu baño lenago, apartatu eragin bear ditue oka-
sio, eta peligro gaiztoetatik, eta sospetxazko lagune-
tatik: batez ere danzazale, jokuzale, eta ardanzaleta-

tik: bada onelakoakin juntatu ezkerro, buruak arintzen zaie, eta eskuarkiro laster pekatu andietan erorten dira: da ala ere badira guraso ardurabage batzuek eren humeak gaizki dabiltzala errezelatzeko motibo justuak izan arren, ez aditu, eta ez ikusi egin oi due-nak, gaiztakeria txit nabarbendu artean: eta bearbada erremediorik eztagoenean. Emen gauza asko banaka aitatu nitzake: baña geiegi luzatuko nuke: eta bakarrik diot, gurasoak erne, eta kontuz egon bagez gertatzen diran humen pekatuak eren kargura Jaungoikoaren aurrean izango dituela.

G. Eta zein da gurasoen laugarren obligazioa eren humen aldera? **E.** Exenplo ona ematea: bada gurasoak nolakoak, eskuarkiro humeak ere alakoak: guraso gaiztoen humeak, aen aldamenen azitzen badira, hume gaiztoak izan oi dira; zerren gurasoen bizioak, izurri bat bezela, itxasten zaie: eta kontrara gurasoak onak badira, aen birtute, eta oitura santuai humeak ere eskuarkiro jarraitzen die: eta gero oek ere eren ondorengoak ondo azi oi ditue: eta ala eziñ aditzera eman diteke bear bezela gurasoen exenplo onak zenbat diraben, eta zeñ frutu, eta probetxu andiak daktzen; eta orobat zeñ gaitz andiak, eta zeñ luzeak ekarri oi dituan gurasoaren exenplo gaiztoak: eta argatik

gurasoak eztue kunplitzen bakarrik konseju onak, eta erreprentzioak humeai emanarekin: humen aurren eztue iñoiz ere egin bear gaizki dirudian, eta pekatura mobitu ditzakean gauzarik: eta goizean jaikitzen diranetik gabeen oira dijoazen artean egunoroko lanak Kristau onaen gisa egin bear ditue gurasuak, eta eragin bear die eren humeai: beste dotriña batean zeoro erakutsiko degun bezela: bitartean Eskritura Santak dakatzen exemplo bi gogoan artu bear dituzue: bata da Santa Susana kastaarena: au bere guraso onak txikitaniak Jaunaren legean txit ondo dotriñatu zuela dio Eskritura Santak: eta ala kastidatea galdutzeko tentazio arrigarri batean arkitu bazan ere, erabaki zuen lenago bizia, eta honra munduarekiko galtzea, ezenez pekatuan erortea: eta Jaunaren bildur santuan azia izan ezpaliz, alako birtute, eta indarrik izango etzuen: eta beste exemploa da Tobias Santuarena. Onen bizi-modu humilla, sufritua, eta Jaungoikozkoa guzientzat exemplo egokia bada ere; batez ere gurasoentzat: bada izan zuen bere seme Tobias gaztea txit ondo azitzeko arreta edo kuidadu guztiz andia: eta ill bear zue-nean, konseju txit ederrak eman ziokan, soberbiari beti alde egiteko; Jaungoikoaren borondatea gauza guzietan billatzeko: eta pobreaki al zuen on guzia egi-

teko: eta pekatuari bere biotzean iñoiz ere lekurik ez emateko: eta ala semea ere aitaren antzeko santua izan zan: eta Jaungoikoak mesede guztiz andiak egin zien. Eta orrela izango due guraso on guziak eren antzeko hume onak izateko poz, eta konsuelo guztiz andia: eta eren zarzaroan errespetoa, amorioa, eta laguntasuna etzaie iñola ere faltako. Eta baita eren humeai ondo dagokien estadia artzen errazago, eta guzien gustorago lagunduko die: eta au da gurasoen azkeneko obligazioa: baña bear bezela aditzera emateko asti geiago eskatzen duena: eta ala, beste aldi baterako ori largarik; guraso guziori erregutzen dizuet, zuen, beargai edo obligazio guztiz andiak gogoan ondo artu ditzazuela: eta Jaungoikoari txit sarri, eta benetan eskatu degiozuela, oriek ondo kunplitzeko grazia, eta berariazko doaia: bada orretan eztijoakizue gutxiago zuen buruen, eta zuen humen betiko salbazioa baño: eta ori da nik deseatzten dizuedana, Aitarren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

OGEITA BIGARREN DOTRIÑA

*Agintariak, eta nagusiak, eta aen mendekoak
dituen obligazioen gañean.*

Aurreko dotriña bietan humen, eta gurasoen obligazioak azaldu, eta aditzera eman dizuet: eta laugarren mandamentu santuaren esplikazioa osatzeko, gaur esan bear dizuet: 1. nolako obligazioak dituen agintzeko kargua duenak: eta oen mendean daudenak: eta 2. batez ere aditzera emango dizkizuet nagusiak, eta etxekoandreak: eta mirabeak, eta serbitzariak; alkarrekiko dituen obligazioak: askori ukitzen dio gaurko dotriñak: premiazkoa da: eta kontuz aditu bear dezue: eta gure dotriñako kartillari narraiola, galde-tzen det.

Nor besterik aditzen da gurasoen izenaz? Nagusiagoak adiñean, diñatasunean, eta aginte edo gobernuan. Anziñako denporetan, eta Hebreotarren hitzkuntzan, aita, eta guraso deitzen zioben, ez bakarrik sortu gaituanari, baita ere besteren kargua, agintea edo gobernua zuenari: eta ala Jaungoikoaren legeko laugarren mandamentu santuak, aita, eta ama honra-

tzea agintzen digunean, orobat agintzen digu guraso orde dauden guziak honratzea: eta baita oei ere agintzen die gurasoen lanak, egitekoak edo beargaiak eren mendeko guziakin egitea: eta gure dotriñako kartillari narraiola.

Lenengoa galdetzen det: Nor dira nagusiagoak adiñean? Ori jakiña da, zarragoak, urte geiago dituenak. Eta oriei eren adinagatik zer zor zaie? Errespetoa, eta erreberenzia zor die gazteak: eta Espiritu Santuak esaten digu: burua zurituri daukan zarraren aurrean jaiki zaitez: erreberenzia egiozu esango balu bezela: eta errespetoa ekarri egiozu.

G. Eta zarragoak zer egin bear due gazteagoen aldera? **E.** Zartasunari dagokan bizimodu paketsu, eta argituarekin exenplo ona, eta konseju onak gazteai eman bear die: bada askotan gazteak zarretatik ikasten due zer egin bear duen: eta argatik zar onak honragarriak, eta estimagarriak dira, baña, urte asko izan arren, buru ariñak dituzten zarrak, erak despreziagarri egiten dira: eta gazte asko eren exenploarekin galtzen dituzte. Eta ala, zarrak, dagokien errespetoa, eta erreberenzia nai badue, beren bizimodu, eta exenplo onarekin batez ere iritxiko due.

G. Eta nor dira nagusiagoak diñatusunean? **E.** Kargu andiak, goratuak, eta honragarriak dituenak, nola diran gauza espiritualetan 1. Erromako Aita Santua edo Sumo Pontifizea, Jesu-Kristoren Bikarioa lurrean, eta Kristau guzien burua, gidaria, eta maisua; 2. gure Obispo Jauna: eta eskualdiarekin dauden Bikario jenerala; eta beste Juezak, Elizako gauzetan gu gobernatzeko: 3. parrokia bakoitzeko Erretore edo Bikario Jaunak: 4. Sazerdote guziak Konfesoreak, eta Predikadore edo dotriña erakusleak; eta Jaungoikoari Errelijioetan konsagratuak dauden persona guziak. Eta gauza denporaletan diñatasunik andiena due Erregearen Majestadeak: eta bere eskualdiarekin Erreinua gobernatzeko: justizia egiteko; pakea konserbatzeko; eskandaloak eragozteko; gaiztoak kastigatzeko; eta onai sariak emateko, dauzkan bere ministro, Juez, gobernari, alkate, eta beste kargudunak. Oei guziori zor diegu errespeto, eta erreberenzia andia: bada ala dagokio aen diñatasun, eta kargu andiari.

G. Eta nor dira nagusiagoak aginte edo gobernuan? **E.** 1. Aginteko eskualdia duen guziak, ala gauza espiritualetan, nola denporaletan: nola diran len aita-tu ditudanak. Eta oriez gañera 2. familiako edo etxeke buruak, nola diran aita, eta ama: eta baita guraso-

ordekoak, nola diran tutore, eta kuradoreak: aitona, eta amona: aitagiarraba, eta amagiarraba: ugaz aita, eta ugaz ama: aita pondekoak, eta ama pondekoak: senide nagusiak, eta beste aideak: bakoitzak bere aldiandian daukan eskualdi edo aginteaz batera. Eta 3. dirade nagusiagoak agintean, eta gobernuan senarrak eren emazteaekiko. 4. Orobat dirade nagusiagoak aginte, eta gobernuan eskola nola, eta ofizio guzietako maisu, eta erakusleak: eta azkenik dirade nagusiagoak aginte, eta gobernuan familiako buruak edo nagusiak; eta etxeandreak eren serbitzari edo mirabeakiko.

G. Eta agintzeko eskualdia duen nagusiagoai zer zor diegu? **E.** 1. Obedientzia agintzeko kargu edo eskualdia duen gai edo gauza on guzietan. Eta ez obedezitzea orrelakoai beti da pekatu edo andiagoa edo txikiagoa gaia danez: gauza pisu, eta andietan pekatu mortala: eta gauza txiki, eta ariñetan pekatu beniala.

G. Eta nola obedezitu bear diegu gure agintariai? **E.** Humiltasunarekin, laster, eta borondate edo gogo onarekin iguitasunik, eta atzerapenik agertu bage: kontu egiten degula, Jaungoikoari berari aetan obedezitzen diogula; bada Jaungoikoagandik due dauken eskualdia: eta aginlariai obedezitzen eztiadak Jaungoiko-

koaren ordena, eta aginteari obedeitzen ezti: eta ala obedeztu bear ditugu, San Paulo Apostoluak erakusten digun bezela, ez bakarrik bildurrez, indarrez, eta premiaz; baita konzienzia ere: au da Jaungoikoak, eta arrazoi naturalak obligatzen, eta beartzen gaitualako. Eta 2. gure agintariak biotzez amatu bear ditugu: aekgatik Jaungoikoari erregutu bear diogu, osasuna, eta zuzen gobernatzeko argia, eta indarra eman degien: esker ona ere, eta errespetoa beti eduki bear diegu: eta bildur izan bear gera naigaberik dan txikiena ere aei ematen: bada Jaungoikoa bera orduan ofenditzen degu.

G. Eta gobernuan edo agintean nagusiago diranak zer obligazio due eren mendekoen aldera? **E.** Ori geienak badakite: eta batez ere artarako estudioak egin dituztenak. Eta bakarrik diot, eren obligazioak zeoro ikasteko erarik izan eztuen erri askotako Justiziako jaunak, eta beste kargudunak: 1. alegin guziak egin bear dituela eren beargaiak edo langaiak ondo ikasteko, eta oriei kobru emateko: 2. kontu egin bear due erri guztien gurasoak dirala; eta guziak berdin Jaungoikoagatik amatu bear dituela: 3. guztiakin berdin justizia egin bear duela: 4. Erriko eskandaloak eragozteko edo erremediatzeko obligazio estua duela: eta

orretarako 1. erak guziaz exenplo ona eman bear diela: eta batez ere utzi bear dituela osoro erabageko joku luzear, eta burnak irabiatzeko, eta turbatzeko ardau edateak; bada ezin dateke besteak zuzentzea, erak oker dabilzala. Eta 1. txit kontuz eragotzi bear dituela tabernetako ez orduetako egoera luzeak: eta plazetan egiten diran, eta askotan ikusi oi dituen modestia bageko danza eskandaloz beteak: nola izan oi diran albo joka, eta beste era lotsagarrietan egiten diranak; bada oriek eskandalo nabarbenak edo publikoak dira: eta al dueneraño erremediatzen ezpaditue, artako eskua duenak, omisiozko edo ardurabagetasunezko pekatu orregatik kondenatuko dira: eta argatik beren, eta eren errietako pekatu txit asko eskusatu nai dituen Alkate jaunak, ez tie usten neskatxa mutillai pañuelo bage dantzaten: eta kastigatzen ditue, eta lotsatzen ditue, modestia bage, eta lotsa bage dantzatzeko ausardia artzen duen buru ariñak. Eta 5. jakin bear due, erriko guzien onagatik, ala espiritualean, nola denporalean kontuz begiratu bear duela: eta ori guzia ondo egiteko, bear dan guzian, geiago dakitenai edo artako egoki diranai konseju eskatu bear die; eta batez ere Jaungoikoari gogotik, eta sarri bere argia, grazia, eta indarra eskatu bear diobe bere borondate

santua gauza guzietan egiteko: eta bere honra, eta gloria, eta animen salbazioa billatzeko; bada bestela agintariak erraz itxutu oi ditu, alde batetik munduko-en esames, eta erabageko bildur edo errespeto gaiztoak; eta beste aldetik eren arrotasunak, gutiziak, eta beste eragageko pasioak: eta agintarietan gaitzago dira menderatzen pasio oek: eta ondorengo guztiz kaltegarriak, eta guztiz izugarriak oi dakazte erentzat, eta eren mendeko guzientzat.

G. Eta esan ditugunaz gañera, noren obligazioak batez ere sarturik daude laugarren mandamentu santu onetan? **E.** Emen daude sarturik mirabeak edo serbitzariak eren nagusi, eta etxeakoandreen aldera dauzkatenak: eta orobat nagusiak eta etxeakoandreak dituen beargaiak, eta obligazioak ere miraben aldera: eta zerren dotriña gai onek askori ukitzen dion, eta premia andikoa dan, zeoro aditzera eman bear dizuet.

G. Eta 1. zein dira mirabe edo serbitzarien obligazioak? **E.** dirade iru oek: 1. eren nagusi, eta etxeakoandreak errespetatzea: 2. obedezitzea: eta 3. leialtasuna gordetzea.

G. Zergatik dauke mirabeak eren nagusi-etxeakoandreak errespetatzeko obligazioa? **E.** Zerren familia-ko, eta etxe-ko guzien buruak diran; eta Jaungoikoaren

lekuan daude: eta orren eskualdiarekin agintzen due: eta ala, San Paulo Apostolu andiak mirabeai esaten die, eren nagusietan geiago begiratu degiobela Jaungoikoari ezenez gizonai. *Sicut Domino, et nun hominibus.* (Eph. 6.) eta ala nagusi-etxeoandreak, izan arren pobreak, jakiñezak, eta bearbada gaiztoak, mirabeak zor die errespetoa: eta ala lotsa bage, eta arrotasunaz hitz egiten badie, Jaungoikoa bera agitz ofenditzen due: egia da askotan pazientzia andi baten bearra izango duela mirabeak, zerren asko nagusi, eta etxeoandrea diran aserrekorrak, gauza gutxi bategatik suak, eta garrak bereala artzen dituenak: eta bear ez bezelako arrazoi txarrak mirabeai esaten dienak: baña ala ere mirabeai dagokiena da humiltasuna, eta pazientzia: eta orixe Jaungoikoari gogotik eskatu bear diobe, eta emen pakea, eta gero Zerurako irabazi andiak izango dituzte.

G. Eta zertan batez ere agertu bear due mirabeak nagusi-etxeoandreaki dien errespetoa? **E.** Obedientzia osoa beti ekarten, Jaungoikoaren legearen kontra ez tala, agintzen dien beste gauza guzietan. Au da miraben bigarren obligazio andia: San Paulo Apostoluak berak argiro erakusten duena. Eta nola obedezitu bear die eren nagusiai? Apostoluak berak esaten

die, Jesu-Kristori berari bezela; gogo onarekin; orobat begira dagozkienean, nola ikusten eztituenean: Jaungoikoagatik batez ere, eta eren konzienziagatik; eta orra mirabe gaxoak santidade edo birtute andira igarotzeko bidea: neke puska bat sufritu bearra izango due asko nagusi, eta etxekoandrearekin: baña sarri gogora ekarri bear due, aen mendean daudela, obedienciako estadian daudela: eta ori dala Jaungoikoaren borondatea: eta obedezitu nai ezpadie eren nagusiai, Jaungoikoari berari obedezitu nai eztiobela: eta ala alaitu bear dira eren nekea Jaungoikoagatik, eta eren salbazioagatik eramatera.

G. Eta nagusiak, eta etxekoandreak, gauza gaizto-
ren bat, pekatu dan gauzaren bat mirabeai agintzen
badie edo eragin nai badie, obedezitu bear ote die? **E.**
Orduan ez: lenago da nagusi guzien, eta serbitzari
guzien nagusi Soberano edo guzien gorenari obedezit-
tzea munduko nagusi, eta etxekoandreaki baño: oek
eztue alakorik agintzeko eskualdirik: eta ala eranzun
bear die: naiago det, eta bearrago det Jaungoikoari
obedezitzea, zuei gustoa ematea baño: bada guziok
aren Majestadea gauza guzien gañean amatu bear
degu, eta lenago bizitza galdu bear degu, aren Majes-
tadea ofenditu baño. Onetan antxiñako Jose Patriarka

Santuak exenplo miragarri bat eman zigun: bera zan Putifar Ejiptoko anditsu baten etxeko maiordomoa: guztiz maite zuen, zerren guztiz ona, eta leiala zan: baña etxekoandreak berak, bere nagusiaren emazteak: loikeriako pekatu zikin bat egitera askotan tentatu zuen: eta bakar aldi batean pekatu eragin nai izan zion: eta zerren alde egiten zion, kapatik eldu zion: baña Jose kastoak, eta leialak kapari larga, eta iges egin zion: orra Jaungoikoarekiko, eta nagusiarekiko nolako leialtasuna izan zuen: eta etxekoandren aldetik zer sufritu asko izan bazuen ere, Jaungoikoak gorde zuen: eta Ejiptoko honrarik, eta kargurik andienetara jaso zuen: eta orra guzientzat, eta batez ere mirabentzat exenplo guztiz ederra.

G. Eta zein da mirabeak edo serbitzariak eren nagusi, eta etxekoandreaki zor dien irugarren obligazioa? **E.** Leialtasuna, eta fieltasuna.

G. Eta zertan agertu edo gorde bear due leialtasun ori? **E.** Gauza askotan dauke orretarako gaia: eta 1. mingañean leialak izan bear due, etxe barruan gertatzen diran utsegiteak, aserrealdiak, eta aditzen dituen gauzak kanpakoai iñola ere ez salatzeke: bada ori izan oi da askotan aiden, eta auzokoen arteko gaitziritzira-ko, eta gorrotorako bidea, eta esan komuna da, nagu-

si batek etsai andiagorik eztuela, orrelako mirabe edo serbitzari, bere etxeko sekretoak salatzen diona baño. Badira ala ere aldi batzuek etxean ikusten diran gaiztakeriak esatera obligatzen edo premiatzen duenak: Baña orduan nori esan bear zaio? Bakar-bakarrik, eta sekreto andiarekin erremedioa ipiñi dezakeanari, eta ez besteri; eta ala etxeko seme edo alabai ikusten badie erremedioa eskatzen duen gaiztakeriarik, modu onarekin gurasoai erai ixillik kontu ematea konbeni da: eta orobat beste miraben artean eskandalorik ikusten badue, abisatu bear ditue erremediatzeko obligazioa duenak: baño ori egin bear due, karidadez, eta fin onarekin: eta ez nolanaiko iruipen utsak sinisten dituela: baizik ziurtu ala dala dakienean: bada askotan eren artean igui antzik edo gaitziritzirik badue, erraz, eztana ere, ala dala iruitzen zaie; eta eztiran gauzak edo, diran baño geiago erausten, konstatzen edo salatzen ditue. 2. Leialak izan bear due mirabeak eren aoan; kontentatzen dirala dagozkien, eta sañalaturik dauzken eren jateko, eta edatekoakin: eta eztagozkien jan-edanak ixillik nagusi, etxekoandren borondate bage artzen eztituela: bada ori gai andian izan ezkerro lapurreta da: 3. orobat leialak izan bear due eren begietan; eren nagusi-etxekoandren

ondasunak ondo gordetzeko, eta iñori gaizki eramaten ez uzteko. 4. Eskuetan ere izan bear due leialak etxe-ko ondasunetatik batere ez ostutzeko: ez eta soldata txikiak dituelako, eta neke andia daramelako aitzakia-ekin ordaña eren eskuz artzeko: bada kalte ezagutu-rik badue, eskatu lezake eren pagua: eta kontentu ezpadira, beste nagusi bat billa dezake; baña bere eskuz justiziarik ezin egin dezake. 5. Izan bear due leialak eren mirabetasuneko edo serbitzeko urtea edo denpora kontuz osatzen edo kunplitzen: nagusiak des-peditzeko aitzakiarik asmatu bage: eta bakarrik utzi ditzake eren nagusiak, kalte andia datorkienez eren osasunean; edo eren bizimodu ona bestela galdu bear duenean: edo anima galtzeko arriskuan daudenean; bada orrelako aldietan ezin nagusiak eragotzi leikie aen etxetik irtetea. Eta azkenik eren neke, lanetan, eta beargai guzietan, leialak izan bear due mirabeak, eta serbitzariak, eta orobat besterentzat bearra egiten duen langiñ edo jornaleroak: arrazoiak, eta solda-tak edo jornalak merezi duen bearra egiten duela, eta aiñ ondo denpora igarotzen duela bearrean, nagusiak ikusten eztituanean, nola begira dagokienez: bada, naiz mirabeak, naiz langiñak, dagokien lana egin bage denpora luzea igarotzen badue, eta kalte andia nagu-

siari egiten badiobe, errestituzioa egiteko obligazioa dauke. Eta orobat da, eskuetako lana bere kulpaz edo ardurabagetasunez gaizki egiten badue: eta nagusiari edo jabeari kalterik badatorkio. Orra miraben, eta serbitzarien obligazio jakiñak, kontuz gorde bear dituenak, nagusi-etxeoandreaki ezeze guzien nagusi, jabe, eta Jaun Soberanoari atsegin emateko, eta gero Zeruan betiko saria gozatzeko.

G. Eta zeññ dira nagusiak, eta etxeoandreak eren mirabe, eta serbitzarien aldera dituen obligazioak, eta beargaiak? **E.** Guztiz asko, eta andiak dira: bada San Paulo Apostoluak dio, ze bereen kuidadurik, eta batez ere bere etxeo edo familiako mirabeen kuidadurik eztuenak fedea ukatu duela, eta fedea bagea baño gaiztoagoa dala; beintzat bere obretan: baña nola eztan erraz nagusi-etxeoandren obligazio guziak, banaka, ete dotriña labur batean bear bezela aditzera ematea, aitatu baizik egingo eztitut: eta dira 1. mirabeai ematea sustentua edo alimentu egokia; ez baka-rik bizi izateko diña, baita ere osasuna konserbatzeko, eta eren neke lanak era onean egiteko. 2. Da soldatak txit kontuz pagatzea, eta orobat eren sari edo jornalak beste langin guziai; bada ori pagatu bagez edo geiegi luzatuaz uste duen baño kalte andiagoa

egin oi die: eta pekatu orrek Zerura deadar egiten du, neke-saria pagatu artean. (Jacob 5.) 3. da, iruipeneko aitzakiaz, etxean zerbait galdu dalako edo bearra ondo egin eztuelako soldatarik ez ukatzea edo gutxitzea: eta orobat arrazoizko motibo andirik eman bage, mirabeak bere denporaraño ez despeditzea: eta mirabeak motibo justuak dituenen, nagusia uzteko, eta etxetik irteteko, zerren beste kalte andiren bat dator-kion beren ondasunetan; edo eren animako gauzetan, eziñ nagusiak eragotzi leikie: eta ez soldatarik ukatu, serbitu duen denporari dagokionik: eta gauza oen gañean eztabaidarik edo diferenziarik izaten badue, iritzia eskatu bear diobe, konsejua ondo eman deza-kean gizon jakinsu, eta Jaungoikoaren bildurra duen bati: eta justu dana egin: baña bestela Zeruko Juez Soberanoak kondenatuko ditu. 4. Obligazioa da, mira-beak gaxotzen diranean, errukiz, eta karidadez, eren humeai bezela begiratzea: eta aen osasunagatik alegiñak egitea. 5. Obligazioa da eren mirabeai animako salbaziorako bear dituen gauzak kontuz erakustea, eta ikasi eragitea, gurasoen obligazioetan esan genduan era artan bertan: eta orrez gañera Kristauen lanak ondo egiteko bear duen denpora ematea: nola Meza santua, eta dotriña enzuteko, eta noizean bein,

txit luzatu bage, konfesatzeko, eta komulgatzeko. 6. Obligazioa da, usadio txarrak edo aztura gaiztoak dituen mirabeak modu onarekin korrejitzea, erreprenditzea, eta erremediatu erazotzea: eta orretarako alegiñak egin ezkeru, erremediatzen ezpadira despeditu, eta etxetik atera bear ditue: bada orrelakoak, onak ere gaiztatzen dituzte: eta izurri gaiztoa bezela dira. Eta azkenik nagusi, eta etxeandren obligaziorik andiena, eta bearrena, erenzat, eta eren mirabenzat, da exenplo ona etxe guziaz ematea. Guziok dakizue exenplo gaiztoak, eta batez ere agintarienak, zein indar arrigarria duen eren mendekoak gaiztatzeko, eta eren antzekoak egiteko: eta kontrara gurasoen, eta nagusi, etxeandren exenplo onak, nola guziak ondutzen dituen, pekatutik, eta bizioetatik ateratzen dituen: eta birtuteari jarraitzeko gogoia guziaz ematen dien: eta bide batez ondasun asko irabazten ditue: emen ondo serbituak, errespetatuak, eta honratuak, izatea: guzien biotzak bereganatzea: edo obeto esateko Jaungoikoarentzat irabaztea: Eta nolako saria, nolako honra, eta nolako gloria gero Zeruan izango duen, nork esan dezake?

Orra bada guziok zertara leiatsu bear zeraten: aditu dituzuen obligazioak, ala mirabeak, nola nagusi, etxe-

koandreak, eta agintari guziak, ondo gordetzeko alegiñak egin itzatzue: alkarrekiko karidade egiazkoa, eta pazientzia Jaungoikoari sarri, eta gogotik eskatu egiozue: bata besten kargak jasotzeko alegiñak egin itzatzue: eta orrela Jesu-Kristoren legea gordeko dezue: eta guzion nagusi, eta Jabe Soberanoa ezeze, guzion Zeruko Aita dan, gure Jaungoikoak emango dizue sari guztiz ugaria bere Erreinuan. Amen.

OGEITA IRUGARREN DOTRIÑA

*Bostgarren mandamentuak eragozten dituan
obrazko pekatuen gañean.*

Karidadearen gañeko bigarren dotriñan erakutsi nizuen, N.K.; nolako amorioa eduki bear diegun gere buruari, eta gere lagun projimoari, eta baita gere etsai, eta gaizkilleai ere: dotriña santu ura ondo gordeko bagendu, bostgarren mandamentu onen kontra lanik, eta pekaturik ez genduke egingo: baña nola gure buruaren amorio erabageak itxutzen gaituan: eta gere anima gaxoaren, eta projimoaren kontra pekatu asko eragiten dizkigun: oriek guri eragozteko, eta pakean, eta amorioan bizi erazotzeko eman digu gure Jaungoikoak mandamentu santu au.

G. Zein da Jaungoikoaren legeko bostgarren mandamentua? **E.** Ez egitea iñori gaitzik, ez obraz edo egi-tez, ez hitzez, ez eta deseoz edo gogoz.

Bostgarren mandamentu santu au zuei bear beze-la aditzera emateko gauza asko txit premiazkoak esan bear dizuet: eta guziak dotriña baterako geiegi dira: gaur bakarrik esango dizuet bada, nor diran manda-

mentu au obrazko pekatuakin ausitzen duenak: urren-
goan zein diran mandamentu onen kontrako hitzezko
pekatuak: eta beste dotriña batean gorrotozko, eta
bendekuzko pekatuak; eta aen erremedioak aditzera
emango dizkitzuet.

Eta 1. galdetzen det; Zergatik gure Jaungoikoak
gizon guzioi, eta batez ere Kristau guzioi alkarrekiko
amorioa aiñ biziro, eta argiro agindu ezkeru; eta orre-
tan alkarri gaitz egiten aiñ garbiro eragotzi ezkeru; nai
izan du ala ere mandamentu santu onetan aiñ klaru
eragotzi gure projimoa illtzea; eta iñori gaitz egitea?
Zergatik bazekusen aren majestadeak, pekatu orijina-
letik edo jatorrizkotik guziok degun arrotasuna, eta
andinaia: ondasun gura guztizkoa: aserratzeko erraz-
tasuna: alkarren enbidia: eta ortik datorkigun gorro-
tozko griña fortiza: eta emendik sortzen dan itxumen
arrigarria: eta zeñ erraz gure amorio propio eraba-
geak, nai dituan honrak, ondasunak, eta atsegiñak
ukatzen zaiozkanean, eta igui dituan injuriak, naiga-
beak, kalteak, eta desprezioak egiten zaiozkanean;
arrazoi guziak, eta obligazio guziak azturik, bendeku-
ra, eta gorrotora ekarten gaituan: eta nola gure Jaun-
goikoak gure Aita onak bezela, gure pakea, eta gure
bizia aiñ maite duen; orregatik gure onerako nai izan

du mandamentu santu onetan aiñ argiro eragotzi iñor illtzea, eta iñori gaitzik egitea: eta ala ez bakarrik eragotzen du eriotza ematea: baita ere iñor eritzea, golpatzea edo makillaka, arrika, eta nolana, gaitz egiteko eskuak jasotzea, eta iñori bere personan kalte egitea: eta ori ez bakarrik obraz, baita hitzez, eta deseoz edo goroz ere.

G. Nola bada Justiziak gaizkilleak illerazotzen, urkatzen edo azotatu eragiten ditu? **E.** Ori Jaungoikoak berak, guzien Jabea danak bezela agindurik dauka: gaiztoak kastigatu, eta onak seguroago egon ditezten: eta ala Jaungoikoaren beraren izenean, eta bere eskualdiarekin kastigatzen ditu, eta illerazotzen ditu Justiziak eren gaiztakeriakgatik merezi duenak: eta bosgarren mandamentu santuak bakarrik eragotzen digu iñor gere eskuz, eta gero borondatez illtzea edo gaizki tratatzea.

G. Eta zer pekatu da batek bere borondatez iñor illtzea, eta iñori golperik ematea, eta kaltartzea? **E.** Iñor illtzea da pekatu guztiz arrigarria, iguigarria, eta nazkagarria: eta aditzeak bakarrik laztutzen, eta larritzen du edozein: bestela eritzea, eta dañu andia egitea ere da pekatu mortala. Kain, Adanen seme nagusia izan zan lenengo giza eralle gogorra, bere anaia

justu Abel enbidiaz ill zuena: eta gure Jaungoikoak aren gaiztakeri arrigarria aditzera emateko, dio Eskritura Santuan, Abelen odolak Zerura deadar Kainen kontra egiten zuela. Eta edozein illtzea, eta eritzea pekatu mortal guztiz larria, eta pisua bada ere, oraindio agitz andiagoa da gurasoa edo humea, senarra edo emaztea, senidea edo aidea illtzea edo eritzea: eta zirkunstantzia ori konfesioan azaldu edo aitatu bear da: eta orobat Abade, Eliz-gizon edo Errelijiosoren bat illtzea edo eritzea: bada ori mandamentu onen kontra ezeze, errelijioiko birtutearen kontrako sakrilejioko pekatua da, eta berekin dakar eskomunikazioa.

G. Eta bere eskuz illtzen duenak, heritzen, zauritzen edo golpatzen duenak baizik eztu pekatu egiten mandamentu onen kontra? **E.** Baita artarako bidea ematen duenak: konseju ematen duenak: onzat artu, eta konsentitzen duenak edo nolanai projimoari bizia kentzeko edo kalte andia egiteko laguntzen duenak, pekatu mortal egiten due: eta ala ez bakarrik aurr galtzeko alegiñak egiten dituan emakumeak, orobat artarako konsejuak edo erremedioak ematea dituenak, pekatu mortal arrigarria egiten due: eta askotan exkomunikazioan erorten dira.

G. Eta iñor ill duenak: edo zauritu edo kaltertu duenak: eta baita artarako lagundu duenak zertara daude obligaturik? **E.** Egin edo eragin dituen kalte edo dañu guziak pagatzera; al dan modurik edo erarik onenean: eta orrelako aldietan onena da konseju eskatzea: eta konposizio bat egitea, auzitan alperrik gastatu bage, eta Kristauakin gorrotoan jarri bage.

G. Eta bere buruaren defenza justuan gaizkillerik illtzea pekatu da? **E.** Beste biderik ezpadu bere burua edo bizia gordetzeko gaitzgillea illtzea baizik, ezta berez orduan pekatu: baña eztu izan bear bestea illtzeko asmorik, eta deseorik: bada ori pekatu da: eta bakarrik bere bizia konserbatzeagatik ill dezake: eta gaitz txikiago batekin iñor ill bage libratu baditeke, edo alde egin badezake, eziñ iñor ill dezake.

G. Eta pekaturik egiten ote due ustez uste bage, eta oartu bage iñor illtzen edo zauritzen duenak? **E.** Baldin batere oartu bage, eta nai bage edo borondate bage, usterik batere bage, deskuidoan gertatzen bazaio iñor illtzea edo eritzea edo zauritzea, ezta pekatu: zergatik ezaguera bage, eta borondate bage pekaturik egiten ezta. Baña, nai ez izanagatik; illtzeko edo eritzeko asmorik edo intenziorik ez izanagatik, bere ardurabagetasunez, eta bear dan arreta, dilijen-

zia edo kuidadua ipiñi bagez, iñor illtzeko edo zauritzeko arrisku edo peligroan jarten bada, orduan kulpa-duna da: eta pekatu egiten du edo andiagooa edo txikiagooa, ematen duen motiboaz batera: eta ala tellatu bat maneatzan ari danak ardurabage tella puska bat edo arriak botatzen baditu, lenaz abisatu bage, jendea ibilli oi dan tokian; eta iñor iltzen edo eritzen badu, pekatu egiten du: orobat emakume aurdun bati bere senarrak edo besteren batek aserrealdian golperen batzuek ematen badiozka, eta aurra galdu eragiten badio, aurraren eriotza bere gañ du: eta emen gogora ekarri nai dizuet, emakumeren batek, naiz ezkondua, naiz librea izan, bere denpora baño lenago aurra galtzea edo botatzea gertatzen dan guzian bereala begiratu bear dala txit kontuz, aurra bizi dan edo ez: eta aurra bizirik badago, eta orobat bizi dan edo ez duda badago, bateatu bear dala: bizirik badago kondiziorik ipiñi bage: eta duda dagoanean kondizioarekin, esanaz: bizi bazera, nik bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta hitz oek esaten diran bitartean egozten zaio ura buruaren gañera. Eta orobat aurdun dagoan emakumea illtzen bada, aurraren anima sokorritzeko iregi eragin bear da ama difuntaren gorputza alik lasterre-

na: eta aurra atera, eta bateatu bear da esan dedan moduan. Eta au da gauza bat aiñ premiazkoa edo obligaziozkoa, nun iñork aitzakiaren batekin eragotzi nai badu, pekatu mortal arrigarri bat egiten du: zerren aurrari gorputzeko bizia ezeze, Zeruko Gloria betiko galdu eragiten dion: eta ala orrelako aldietan bereala barberoari otsegin bear zaio, eta Bikarioari; eta baita orduren batzuek igaro ezkerro jakiten bada ere: zerren eztakigu ziurtu zenbat denporan aurrak bizirik diraben ama difuntuaren sabelean. Ama illtzanetik ogeita lau ordu igarota San Ramon Nonat bizirik atera zuen amaren sabeletik: eta bateatu ezeze, luzaro bizi, eta Santu andi bat izatera etorri zan: eta aspaldian aur asko atera dira bizirik ama illaren sabeletik, eta bateatu dira: eta lengo hitz-gaira biurtzen naizala, diot ze, orobat aur txikia daukan edo azitzen dagoan emakumeak bear dan arreta, eta kuidadu guzia ipinten ezpadu aurra aparte erazatzeko, eta nai eztuela ere, uste bage lo dagoala, oian itotzen edo illtzen badu, pekatu andia egiten duela: eta Iruñeko Obispadu onetan pekatu au Obispo Jaunari berari erreserbaturik dago: zergatik bere ardurabagetasunez aurra illtzeko peli-groan jarten dan, eta nai ez izanagatik ere illtzen duen: eta ala dago agindurik, urtebete osatu artean,

aurrak aparte erazatzeko: zerren askotan gertatu dan aurrak ustekabez oian itotzea: eta gero perlesiari edo biotzeko minari kulpa guzia egozte: eta orobat aur asko edo illtzen edo gaxotzen ditue titi irabiatuak, berotuak edo gaiztoak emanaz. Eta titi onik aurrari emateko erarik eztuenak, eztie eman bear saldarik, ardorik edo beste orrelako edari sendorik: bada eziñ egosi edo dijeritu ditue; eta orretan ondo aditzen zate-nak erakusten due: orrelako aurrentzat alimenturik egokiena, eta errazena dala ogi mami ona, ondo egosi: eta arekin egiten dan ogizko ura, txit loditu bagea: bada au erraz egosten, eta dijeritzen due: eta alimentu guztiz sana da: eta titiaren antz andia duena.

G. Eta beste iñork, nai izan bage, eta illtzeko asmorik batere eduki bage, pekatu egin lezake, eta besteren eriotzan kulpadun izan diteke? **E.** Bai: borondatezko ez jakiñez edo bear dana ondo jakin bagez, erriak sendatzeko kargua duenak edo iñork eman bage kargu ori artzen duenak, erremedioak utsegiten dituenak: edo utsegiteko arriskuan jarten diranak: eta ori gertatu leikike medikuai; eta are obeto gutxi estu-diatu duen barberoai: eta sarriago kulpa andiagoare-kin sendatzalle edo lotzalle, eta enplastero egiten

diran asko gizon, eta emakumeari: gaitzak barrukoak, eta diferenteak, eta bearbada kontrarioak izan arren, batzuek otzetik, eta besteak berotik datozenak: ala ere guziak eren gisako erremedio batzuekin beti sendatu nai dituenai, bada asko jakiñez triste engañatzen ditue eren hitz ederrakin: eta sendatu ordean gaizkiago ipinten ditue, eta askotan egunak, eta bizia laburtzen dizte: eta ala ere eren kulpa ezagutu nai eztue: eta eren itxumen guztiz kaltegarrian gelditzen dira: eta iñor aen erremedioakin noiz edo noiz sendatu bada, uste due, guziak erabatera sendatu bear dituela: eta on baño kalte geiago egiten due: eta naitaez ala gertatu bear zaie: bada berariaz estudiatu duenak, eta esperienzia luzeak dauzkatena batzuetan engañatzen badira; Erremedio batzuek baizik guzientzat eztituenak, eta estudiorik batere ezituenak, nola askotan, eta askotan edo geienez engañatuko eztira? Eta ala orrelako sendatzalle gezurtiak justiziak kastigatu bear ditu: eta iñor oriezaz fiatu bear ezta: bada artako daude berariaz estudiatu, eta exerzizio luzeak lenago egin dituen, eta examiñaturik dauden medikuak: eta oek noiz edo noiz utsegiten badue, zerren gaitza ezin ondo ezagutu duen: alegiñak egin ezkerro, pekaturik egiten eztue: eta ezta gaxo edo eriak ere

aen eskuetan jarriaz: baña bai ardurazko eritasunetan pekatu egiten due eriak enplasteroen eskuetan jarten badira; bada eren borondatez geiegi arriskatzen due eren bizia edo osasuna: eta eztitut emen aitatzen ezur osatzalleak: luzaroko exerzizioarekin asko ondo kura-tu, eta sendatu dituenak: bada kanpoko gaitzak eztue ainbeste arrisku nola barrukoak.

G. Eta iñork pekaturik egiten du, bere burua illtzearekin edo bere osasuna galtzeko arriskuan borondatez jarriarekin? **E.** Bai: pekatu mortala egiten du: zergatik ezta bat bere biziaren, eta osasunaren jabe, nai duena egiteko: Jaungoikoa da bakarrik gure jabe: eta ala ezin gure buruaz manera dezakegu Jaungoikoaren borondatearen kontra: eta ala bostgarren mandamentu Santu onetan ez iñor illtzea, agintzen zaku-nean; orobat aditzen da gere burua ez illtzea: eta gere osasunari kalte andia ez egitea.

G. Eztira bada santuren batzuek eren buruak illtze-
ra jarri? **E.** Bai: baña ori egin due, Jaungoikoaren inspi-
razio edo agermen egiazkoarekin eta Espiritu Santua-
ren mugimentu ziertu batekin; Sansonek, eta Santa
Poloniak, eta besteren batzuek egin zuen bezela,
Jaungoikoaren beraren honragatik: eta orobat beste
asko izurrietako denporan gaxo edo eriai laguntzeaga-

tik, eta bear dituen sokoru espiritualak, eta denpora-
lak emateagatik, jarri dira erak ere gaxotzeko, eta ill-
tzeko peligro edo arrisku gertuan: eta karidadearen
martiriak izan dira: eta fedeagatik, ill ziranak bezela,
Jaungoikoa geiago honratu due: eta gloria geiago ira-
bazi due: bada orrelako aldietan Jaungoikoaren boron-
datea jakiña da, eta beraren honragatik, eta projimo-
aren on andiagatik bizia ematea Jesu-Kristori berari,
eta santuai jarraitzea da.

G. Eta batek bere buruari illtzea deseatu leikio
pekaturik egin bage? **E.** Nolakua dan deseio orren
motiboa: illtzea deseatzan badu San Paulo Aposto-
tuak, eta Santa Teresak, eta beste Santu askok beze-
la, len baño len Jaungoikoa ikustera, amatzera, eta
alabatzeraz Zerura joateagatik eztu pekaturik batere
egiten: orobat Janugoikoari egiten zaizkan ofensak ez
ikusteagatik, mundutik irteteko deseoa duenak peka-
turik egiten eztu. Eta munduko naigabeak, atseka-
beak nekeak ezin eramanik illtzea deseatzan badu zer
pekatu egiten du? Jaungoikoaren borondate edo naita-
sunarekin konformatzen dala, deseatzan badu, eztu
pekaturik egiten edo beintzat ez mortalik: baño inpa-
zientzia andiarekin eta desprezioarekin nolanai illtzea
deseatzan badu, pekatu mortal egiten du. Eta orobat

motibo justu bage illtzeko arriskuan bere borondatez jarten danak: nola leku altu edo gora batetik erorteko zorian jarten danak: zezen gaizto baten aurrean suerteak egitera abilidade andirik izan bage, jarten danak: gabaz armaturik burruka ondoren dabillenak: bere burua baliente edo guapo agertu nai ez, desafioak egiten dabillenak, eta beste onelako arriskueta eren gogoz jarten diranak; mandamentu onen kontra pekatu mortal egin oi due.

G. Nola bada erak illak izateko edo zaurituak gelditzeko edo besteak illtzeko edo zauritzeko arriskura dijoaz gizonak pekatu egin bage gerrara doazenean? **E.** Zergatik gerra justua da guzien onerako: eta lenago da on komuna edo guztiena, partikularrena edo bakoitzarena baño: eta orduan ere gerrako legeak ondo gorde bear dira: eta ezta iñor bendekuz, eta premia bage ill bear.

G. Eta bada besterik pekatu egiten duenik bere burua illtzeko arriskuan edo bizia laburtzeko edo osasuna galtzeko peligroan ipiñiarekin? **E.** Bai: eta dira erabageko jan-edan geiegi egiten duen gulosoak: gogoak ematen dienean, ordena on bage, neurribage, eta modubage jaten duenak, eta edaten duenak: eta batez ere gaitz egin oi dien gauzak jaten edo edaten

dituenak: nola diran mistela, eta Aguardientea, eta indar andiko edariak sarri artu oi dituenak: bada barruak erretzen dizte: gero aoko legortasuna, eta egarria datorkie; eta bear baño ur geiago edaten due, eta orren ondoren biotzeko illtasuna, eta moteltasuna izaten due: eta ori erremediatzeko, eta eren barruak pizkortzeko berriz mistela edo aguardientea edo ardaua erabage edaten due: eta premiaren aitzakiarekin ordena bage bizi dira, osasuna galtzen due: eta baita komunkiro animako salbazioa ere: bada orrelakoak, eta orobat ardaua ugari edo geiegi edaten due-nak, ez bakarrik osasuna, fama ona, estimazioa, eta ondasunak eskuarkiro galtzen ditue: baita ere geiago balio duen zenzu ona edo juizioa askotan irabiatzen, eta turbatzen zaie: eta orren ondoren erakeri andiak, eta eskandalozko pekatu asko egin oi ditue: eta eskuarkiro eren buruak ezagutu nai eztitue, penitentzia egiazkorik egiten ezdue, eta betiko kondenatzen dira: eta ala gorputzeko, eta animako bizia eta betiko gloria galdu, eta infernura betiko dijoaz. Orra zer ekarri oi duen erabageko janak, eta edan geiegiak. Kontu bada, N.K. zuen buruak betiko galdu eztitzatzen.

G. Eta gutxiegi alimentua bere buruari opatuarekin pekaturik egin diteke mandamentu onen kontra?

E. Bai: ezagueraz, eta bere borondatez bizia, eta osasuna konserbatzeko diña artu nai ezpadu, pekatu egiten du: baña orrelako gutxi ikusi oi da.

G. Eta bere gorputza azotearekin, zilizioarekin, eta barau andiakin mortifikatzen duenak: eta orrela bere osasuna zerbait argaltzen duenak, pekaturik egiten ote du mandamentu onen kontra? **E.** Orretan neurri ona gorde bear da: bere gorputzaren griña edo gurari gaiztoak ezitzeko, eta espirituaren mendean gorputza edukitzeko, eta penitentzia egiteko edo bere pekatuen zorra pagatzeko mortifikatzen bada, eskuarkiro birtutezko akto andiak egiten ditu, eta eztu pekaturik egin oi: baña erabageko mortifikazioekin bere obligazioai kobru emateko gai ezjala, jarri oi bada, pekatu egiten du: eta onetan ez utsegiteko erremedioa da, konfeso-re zinzo, prudente, eta jakinsu baten konsejua artzea: bada eskura edo larregi guziak eskusatu bear dira: zerren birtutea bitarte on, eta arrazoizkoan oi dago.

G. Eta bizitza naturalean besteri edo bere buruari kalte edo gaitz egitea baizik eztu eragozten mandamentu santu onek? **E.** Baita eragozten du iñori bizitza espiritualean gaitz egitea.

G. Eta ori nola gertatu oi da? **E.** Pekaturako eskandaloa edo gaitz-bidea emanarekin.

G. Zer da eskandaloa? **E.** Jaungoikoa ofenditzeko, eta bere anima galtzeko bidea edo okasioa projimoari ematea: dala pekatu eragin oi duen hitz gaiztoakin edo dala berez pekaturako okasiogarri diran obra gaiztoak iñoren aurrean egiñarekin: eta baita omisiozko edo utsegitezko pekatuak nabarbenkiro egiñarekin ere; eta beste ainbeste egitera besteak ekarriarekin: eta ala eskandaloa modu askotan eman oi da: eta oartu bage askok eskandaloko pekatu andiak irinzten edo tragatzen ditue: 1. iñoren aurrean pekatu egiñaz: 2. gaitz egiteko konseju emanaz; 3. pekatu egiteko okasioan edo arriskuan projimoak ipiñiaz edo hitz loi zikiñakin edo ikuitze, eta jostatze lotsagarriakin edo murmurazio, esames, eta txismeak batetik bestera erabilliarekin. Eta 4. gaizki egiten erakutsiaz.

G. Eta zer pekatu da eskandaloa ematea? **E.** Gai pisu edo larrian izan ezkerro, au da, besteari pekatu mortal eragiteko diña okasio eman ezkerro, da pekatu mortala; eta konfesioan agertu bear da eskandaloko zirkunstantzia ori berak egin duen pekatuaz gañera: eta eskandaloa eman duenak dauka obligazio andia, al dueneraño, eskandaloarekin egin duen gaitza erre-mediatzeko; bere exenplo onarekin eta konseju onakin.

G. Eta eskandaloaren malizia edo gaiztakeria nolako ote da? **E.** Guztiz da andia, eta ikaragarria: bada deabru edo demonioaren beraren lanak egiten ditu: eta Jaungoikoari, bere projimoari, eta bere buruari ezin kontatu ala agrabio, eta kalte egiten dizte: 1. ofenditu eragiten du Jaungoikoaren Majestadea. 2. Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzaren frutua galdu eragiten du: eta aren neke, eta alegin guziak alperrak egin, eta desegiten ditu: 3. bere projimoari galdu eragiten dio Jaungoikoaren grazia, Zeruko deretxoa, obra on guzien merezimentua: eta egiten du deabruaren beraren zorigaitzoko katibu, esklabo edo menpeko: eta dakarkio betiko kondenazioa, penitentzia egiten ezpazu: eta eskandalo ematen duenak bere gaiñ ditu besteai eragin dien pekatu guziak, eta ekarri dien kalteak? Eta nork oriek kontatu? Argatik Jesu-Kristo gure Jaunak esan zuen, zorigaitzokoa dala eskandaloa ematen duen gitona: merezi duela, errota arri bat, lepoan lotu, eta itxasoaron ondora botatzea.

Kontu bada, N.K. iñori arren gaitzik eztegiozuela egin, ez bizitza naturalean, eta ez bizitza espiritualean; baizik alkarrekiko karidade egiazkoa; eta zuen naigabe, eta estutasunean pazientzia andi bat izateko alegiñak egin bear dituzue: eta orretarako kendu bio-

tzetik munduko andinaiak: interes gura edo apetitu txarrak: eta aragiaren gusto zikin loiak goatzeko deseo gaiztoak: eta orrela guziakin, eta zuen burua-kin, pakea izango dezue: eta batez ere Jaungoikoare-kin: eta aren Majestadeak eramango zaitue gero beti-ko pakea, poz, eta kontentua dagoan Zeruko gloriara. Amen.

OGEITA LAUGARREN DOTRIÑA

Birau, eta maldizioen gañean.

Bostgarren mandamentu santuaren explikazioari narraiola esan degun ezkerro aurreko dotriñan, nor diran obrazko pekatuakin mandamentu au ausitzen duenak; gaur esan bear dizuet, nor diran hitzezko pekatuakin mandamentu santu ori bera ausitzen duenak: Jaungoikoaren legeko bostgarren mandamentu santu onek eragozten digu iñor illtzea: eta artako biderik edo motiborik ematea: au da, egitea iñori gaitzik edo kalterik edo obraz edo hitzez edo deseoz. Aditu zenduen zeoro, nor diran eskuarkiro mandamentu au obraz ausitzen duenak: eta orain galdetzen det, nor dira mandamentu au berau hitzez ausitzen edo urratzen duenak? Txit asko dira: bada eragozten digu gure lagun projimoa gure hitz gaiztoakin ofenditzea: gaizki tratatzea edo injuriatzea: eta ori era askotan gertatzen da: eta ala mandamentu onen kontra pekatu egiten due 1. aserretasunarekin, gogortasunarekin, eta desprezioarekin bere projimoari hitz egiten diobenak: eta orrela naigabe edo pena andia ematen

diobenak. 2. Pekatu egiten due gaizki esanaz projimoa deshonoratzen duenak, injuriazko hitz gaiztoak esanaz, falso testimonioak egotziaz edo fama ona galdu eragiñaz. 3. Pekatu egiten due, eren esames edo txisme gaiztoakin projimoen arteko pakea, eta amorioa galdu eragiten duenak. 4. Pekatu egiten due, desafioakin, besteak aserra erazo, eta tentatzen dituenak: bada ortik ira, eta kolera gaiztoa piztu oi da, eta alkar golpatzea, eritzea, eta illtzea ere etorri oi da. Eta ala mandamentu onek eragozten ditu ira edo aserrea piztutzen duen hitz gaizto guziak: eta batez ere birabak edo maldizioak: eta nola oek aiñ komunak, aiñ sarriak, eta aiñ kaltesuak diran: oen gañean gaur hitz egingo dizuet: eta aditzera emango dizuet: 1. biraba edo maldizioa zer dan: 2. zenbat modutan izan oi dan, eta nolako pekatua dan: eta 3. zer erremedio artu bear diran biraurik ez egiteko.

G. Zer da biraba edo maldizioa? **E.** Da deabrua edo demonioa izentatzea, projimoari injuriaren bat esateko edo gaitzen bat etorri dakiola deseatzeko: edo da projimoaren kontra gaitzen bat edo naigaberen bat eskatzea; edo Jaungoikoari berari edo gaitz egin oi duen kreaturaren bati: nola izan oi dan esatea, deabruak aramala: deabruak galduko al au, itoko al aiz:

bizirik etorriko ez al aiz: arrastaka ibilliko al aiz: egun onik ikusiko ez al dek: ainbeste da illtzen bazera, burua ausiko al dezu: Jaungoikoak bizia kenduko al dizu; edo arrano edo izurri gaiztoak ababatuko al zaitu eta, onelako deabruzko izkuntza lotsagarriak, Kristau baten aotik iñoiz ere irten bear ez lukeanak.

G. Zer pekatu da biraba edo maldizioa? **E.** Gaitz larria edo andia opa badio edo deseaten badio projimoari ezaguera osoarekin, eta biotzetik, da pekatu mortala: baña gaitz txikiren bat baizik deseaten ezpadio, berez da pekatu beniala, eskandalo andirik ematen ezpadu.

G. Eta intenzio bage edo asmo gaizto bage, gaitzik benetan deseatu bage, biraba edo maldizioa bere projimoari botatzen badio? Zer pekatu da? **E.** Orduan eskuarkiro da bakarrik pekatu beniala hitz alperra dalako eta estutasunari zerbait leku eman diolako: baita birau edo maldizio mota orrekin gaitz andirik ez nai arren, eskandalo ematen badu, zerren birau egin zaionak aitu duen; eta agitz naigabetu, eta aserratu duen, eta gaizki esatera, eta gorrotora mugitu duen edo zerren bere mendekoen aurrean birau edo maldizioak egiñaz, gaizki erakusten dien: orduan pekatu mortala izan oi da, dakatzen ondorengo txarrakgatik.

G. Eta intenzio gaiztorik edo deseo gaiztorik zuen edo ez birau egin zuenean nundik ezagutuko degu? **E.** Ezta txit erraz ori ezagutzen. Askok uste izaten due, eztuela intenzio gaiztorik izan, *zerren bereala kolera igaro, eta gaizki esana damutu zaien*: baña gero damutu arren, birau edo maldizioa egin zuenean, berealako batean edo instante batean izan arren, bear adiña ezaguerarekin gaitz andia projimoari opatu bazioben, pekatu mortala egin zuen: bada pekatu izateko asko da borondateak nai izatea ezaguera osoarekin: baña supitoko aserretasunarekin edo iraren lenbiziko mugidarekin, ondo oartu bage, eta projimoari gaitzik benetan deseatu bage, biraba esan bazuen, etzan intenzio gaiztorik izango, eta ezta pekatu mortalik ere, eta ala ere, nola erraz ezagutzen eztiran oarmenaren edo adbertenziaren gradoak, esan bear da konfesioan alik garbiena gertatu dan moduan.

G. Baña 1. zenbat modutan, eta nola pekatuak izaten dira birabak? Eta 2. norzuak eskuarkniro birabak edo maldizioak intenzio gaiztoarekin, eta biotzetik egin oi ditue? eta norzuak ez? **E.** 1. Diot: estutasunean aserre antzarekin abereai edo animaliai, eta baita eskuarteko tresnai edo lanak egiteko instrumentuai, esatea, deabruak edo demonioak: edo lepoak ausiko

al dituela edo ondatuko al dira, ta (aen jabeai kalterik batere deseatu bage) izan oi dala pekatu beniala: zerren alde batetik hitz alperrak diran, eta bestetik kolera edo aserreari leku geiegi ematen zaion, baña aen jabeai dien gorrotoak edo gaitziritziak birau oriek eragiten badie, orduan eskuarkiro pekatu mortal oi dira, projimoari deseaten dion gaitz edo kalteagatik.

2. Diot: gere lagun projimoari deitzea, deabru edo demonioaren izenarekin: zu deabruren bat zera: atoz ona deabru edo demonio ori: batzuetan da pekatu beniala, zerren oarmenik edo adbertenziarik bage, eta gorroto bage esaten dan: eta naigabe andirik aditzen duenari ematen etzaion, nola mendeko bati gaitz bage esaten zaionean: baña beste askotan da pekatu mortala; eta batez ere 1. guraso edo nagusi bati edo beste agintari bati esaten zaionean; bada zor zaion errespeto, eta lotsa galtzen zaio, eta injuria andia egi-ten zaio. Eta 2. izan oi da pekatu mortala, orrelako hitzkunza gaiztoakin, eskandaloa, edo gaitzki ikaste-ko, eta esateko bidea humeai, eta mirabeai erakusten zaienean: eta alde onetatik guraso asko, eta nagusi-etxeakoandrea asko kondenatzen dira: eta eren humeak, eta mirabeak aren exenplo gaiztoarekin kon- dena erazotzen ditue: eta eztue zer eskusatu, oitura

edo kostunbre gaiztoak edo kolera erasaten dielako aitzakiarekin; oitura gaiztoa, eta kolera erabagea goitzeko, menderatzeko edo erremediatzeko alegiñak egiten benetan ari ezpadira: baña kontrara egiaz damuturik badaude, eta eren kolera gaiztoa erremediatzeko medio eragilleak artzen baditue; orduan alako estutasunean esaten diran birabak izan oi dira borondate oso bageak; batez ere bereala damutzen bazaie: eta argatik 3. diot: ondo nai zaion persona bati aserre antzarekin biraba edo maldizioa egitea: nola guraso batek maite duen bere humeari: nagusi edo etxeoandre batek, ondo serbitzen duen mirabe bati: senarrak estimatzen duen bere emazteari: edo onek maite duen bere senarrari, eskuarkiro izan oi dala pekatu beniala; zerren gaitz andirik orrelakoai opartzten etzaie: baña sarri birau egiten badie; eta naigabe andia ematen badie edo len esan dedan bezela, eskandalo ematen badue, pekatu mortal egin oi due: eta orretan erremediatzeko bear diran neurriak edo medioak gogotik artzen ezpaditue; pekatu mortaleko estaduan bizi, eta ill oi dira. 4. Diot: gurasoai, nagusi, etxeoandreai, eta beste agintariai, eren aurrean biraba edo maldizioa egitea, beti da berez pekatu mortala, zergatik alde batetik errespetoa, eta lotsa galtzen

zaien: eta bestetik naigabe andia ematen zaien: eta baita intenzio gaizto bage edo asmo edo deseo gaizto bage alakoai eren aurrean birabak egitea da pekatu mortala: zergatik zor zaien honra, erreberenzia, eta errespetoa agitz ukatzen zaie: eta argatik anziñako legean Jaungoikoak agindurik zeukan, aitari edo amari birau edo maldizioa egiten zion semea edo alaba izan zedilla arrika illa pueblo guziaren aurrean beste guzien ikas-bide edo eskarmenturako: eta orobat da Jaungoikoaren aurrean pekatu mortala, eta beste edozeñi egiten zaion baño pisuagoa, gurasoai ixillik, eta erak aditu bage, egiten zaien birau edo maldizioa; eta orduan ezta asko konfesioan esatea, birau edo maldizioa egin zuela: baizik esan bear du gurasoari egin ziola; pekatua osoro konfesatzeko. 5. Diot: eskuarkiro intenzio gaiztoarekin egiñak, eta pekatu mortalak izan oi dirala: 1. gorrotoa, ojerista, ezin ikusia edo gaitziritzia zaien personai egiten zaien birau edo maldizioak: nola izan oi diran aserrean, eta alkarrekiko auzietan dabiltzanak, bata bestea deshonratu, eta kaltertu duelako: bada orrelako aldietan biotza egon oi da pozo gaiztoz edo gorrotoz beterik: kanpotik gaitzik batere nai eztiela esaten badue ere. 2. Orobat izan oi dira borondatezkoak, eta biotzetik egiñak premian

edo estutasunean dauden persona askok egin oi dituen birabak sokorrua edo limosna ematen eztenaen kontra: eta esan oi due, ez al dek bada gauza onik izango: ikusiko al aiz bada ni nagoan premian edo andiagoan: eta orra pazienza piska bat izan bagez, Zerurako meritu edo irabazi andiak galtzen ditue: eta eren anima gaxoak deabruaren mendean, eta kondena-zioko bidean ipinten dituzte: Eta 3. ori bera gertatzen zaio senar-emazte askori alkarren utsegiteak eziñ sufritu, eta bata besteari birauka edo maldizioka egon oi diranai: bada orien birabak eskuarkiro biotz gaiztotik sortzen dira: eta are geiago bata edo bestea, ardaura, joku geiegira edo pauso txarretara oituak badaude. Orduan pazienza guztiz andi bat: eta kari-dade andi baten doaia Jaungoikoari benetan eskatu bear diobe, alako naigabeak biraurik egin bage, bere izenean eramateko. Eta baita 4. izan oi dira biotzetik egiñak, eta pekatu mortalak guraso batzuek, eta batez ere ama aserrekor batzuek egin oi dituen birau edo maldizioak eren hume gaizki azi, eta gaizkiago ezirik dauzkatenan kontra; oek naigaberen bat ematen dienean. Andia da egiaz alako humen kulpa, eta gaiztakeria: baña ezta han oi txikiagoa alako gurasoe-na: erak bearbada gaizki erakutsi zien: bada modu

onean, eta benetan korrejitu ordean, exenplo gaiztoa edo eskandaloa gaitzerako erak eman zien: eta gurasoak, eta humeak eren kulpa ondo pagatuko due. Infernuko su, eta garretan bata besteai egingo dizten betiko birau edo maldizioakin: eta baita bearbada mundu onetan bertan ere, San Agustin andiak dakarren exenplo onetan ikusiko dezuen bezela. Zesareako Ziudadean bizi zan ama alargun bat, zazpi seme, eta iru alaba zituana: eta orra nun egun batean bere seme nagusienak guzien aurrean bere ama txit gaizki tratatu zuen, injuria andiak esan ziozkan: eta eskuak lotsabagekiro ipiñi ziozkan; eta beste guziak, ori ikusi arren, etzioben anaiari atzera esan: eta etzuen penarik, eta sentimenturik agertu: eta emakume tristea ainbesteraño koleran sartu zan; nun urrengo egunean Elizara, eta bateoko pontera joanik, eta auzpez etziñik, Jaungoikoari txit gogotik eskatu zion, arren bere hume guziakin exenplo izateko kastigu izugarri bat egin zezala: eta ozta eskatu zuen, nun bereala Jaungoikoak aditu zuen, eta bertatik aren zazpi semeak, eta iru alabak ikara, ikara beren gorputzeko mienbro guzietan abiatu ziran: eta ezagunen artean, estadu artan agertzeko lotsaz, banatu ziran mundutik, eta Erromako Inperioan Probinzi askotan orrela ibilli ziran.

Eta aetalik anaia bat, eta arreba bat, beren ikara izugarriarekin eldu ziran San Agustin bera bizi zan Iponako Errira, nun bera Obispo zan. Anaiari zeritzon Paulo, eta arrebari Paladia: eta biak Paskua aurrean amabost egunean egunoro San Esteban lenbiziko martiriaren altararen aurrean Santuaren bitartez Jaungoikoari erregutu zioben arren libra zitzala estadu triste lotsagarri artatik, eta bere estadu naturalera biurtu zitzala: eta Santu andi ark mesede ori iritsi zien: bat-batean Elizan bertan sendaturik arkitu ziran: eta jende guzia arriturik Jaungoikoari, eta San Estebani eskerrak, eta albanzak ematen deadarka abiatu zan: eta dotriña andiko exenploa: Jaungoikoak batetan kastigatu zituan ama aserratua, eta aren seme gaiztoak. Aditu zuen amaren eskaera erabagea, bere pena geiagorako: bada, kolera igaro, eta sosegatu ezker; nolako naigabea izan bear etzuen ama batek ikusirik bere seme-alaba guziak era izugarri artan, bere aserrezko eskaera gaiztoagatik kastigaturik? Eta semeak kastigalu zituan Jaungoikoak eren, eta beste askoren eskarmenturako: bada gurasoai egiten zaien injuriak kastigu arrigarria merezi due: baña orobat dira gurasoak kulpadunak, eren exenplo gaiztoagatik, eta erabageko birau, eta maldizioagatik: eta orain ere, zen-

bat hume ikusten dira edo elbarrituak edo itoak edo era askotan desgraziatuak gurasoai eman zien naigabeak; eta gurasoak egin zien maldizioak; eta Zenbat gurasok, aserratzan diranean, esan oi die eren humeai: itoko al aiz: estanda egingo al dek: ez al aiz bizirik etorriko? Kontu bada arren, N.K. aurrerako; eta oitura gaizto ori kentzeko alegin biziak, eta eragilleak egin itzatzue.

Azkenik beste birau edo maldizio mota bat guztiz ikaragarria da, batek, penaturik, eta naigabeturik dagoenean, bere buruari egiten diona: esanaz, arraio gaizto batek akabatuko al nau: deabruak erongo al nau: ez al naiz geiago biziko onenbeste pena ikusteko. Birau edo maldizio izugarri oek eskuarkiro pekatu mortalak oi dira: ezaguera bage edo oarmen edo adbertenziarik bage egiten ezpadira. Bada edo tristura andi batetik edo kolera irazeki batetik jaiotzen badira ere, eta orrelako tristurak, eta kolerak adimentua illuntzen, eta libertadea gutxitzen badue ere; eta alde orretatik, maliziaz, eta ezaguera osoaz egiten diran pekatuak beziñ pisuak, eta larriak ezpadira ere; ala ere eskuarkiro libertadea, eta ezaguera eztue osoro kendu edo galdu oi; eta barruak guztiz galduak, eta

gaiztatuak dauzkatela aditzera ematen due, kanpora agertzen dituen hitzkuntza izugarri oriekin.

G. Zer erremedio bada birau edo maldizio gaiztorik iñola ere ez egiteko; ez bere buruari, eta ez lagun projimoari? **E.** Egiaz erremediatu nai bazerate, zuen eskuan daukazue Jaungoikoaren laguntasunarekin batera: eta ala konfesio on bat, ondo prestaturik, beñik beñ egiñ ezazue: eta 1. oitura gaizto aiñ kaltegarri, eta iguigarri ori goitzeko, eta eskuratzeko asmo irmo, indarsu, eragille bat arturik, egunoro goizean jaikitzen zeratenean, lenagoko birau guzien damutasun egiazko batekin Jaungoikoari barkazioa eskatu, eta proposito edo asmo firme ori berritu bear dezue, egun orretan biraurik batere ez egiteko: eta ori obeto kunplitzeko, Ama Birjiña Santisimari, zuen Aingeru gardakoari, eta zuen izeneko edo deboziozko Santuai beren laguntasuna eskatu bear diezue: eta ala ere estutasunean gertatzen bazatzue ustekabean bezela birau egitea, bereala humillatu bear zerate, zuen argaltasuna ikusirik: eta bertatik damutasuna, propositoa, eta orazioa berritu: eta orretan jarduten badezue, erremediatuko zerate. Eta 2. ori obeto iristeko oitu bear zerate, edozeiñ naigabe datorkizuenen, bereala esatera: Jaungoikoaren izenean izan dedilla:

Ama Birjiña Santisima balia dakidala: Jesu-Kristok geiago sufritu zuen nigatik: berak arren pazienza eman degidala: eta naigabetu zaituanari birau egin ordean, esazu: Jaungoikoak arren erruki zaitzala, eta ondu zaitzala: edo beste onelako gauza onak esatera oitu bear zerate: eta orrela oitura gaiztoa erraz eskuratuko dezue: eta meritu edo irabazi andiak Zerurako egingo dituzue: 3. eta oraindio, egiaz erremediatu nai dezuela aditzera emateko, ustekabean esaten dezuen birau bakoitzeko, miñ emango dizuen, eta zenzatuko zaituen penaren bat zeuron buruari ipiñi bear diozue: nola dan edo onenbeste limosna ematea: edo apaldu bage egun artan gelditzea: edo mingañarekin lurra garbitu, eta gurutze galant bat egitea: edo beste edozeiñ gauza nekagarri, eta akordagarri egitea.

Baña 4. erremedioa, guzien andiena, eta eragille-na da, gaitzaren sustraiak ebaitea: Eta zeññ dira sustrai oriek? Guzien andiena, eta beste guzien burua, eta sortzallea da gere buruaren amorio propio erabagea: igui degun gauzarik sufritu nai ez izatea: eta maite ditugun gauzak berokiro deseatzeta; eta iñork eragozte eziñ sufritua. Amorio propio erabageko orrek sortzen, eta piztutzen du gugan soberbia edo arrotasuna, abarizia edo ondasun gura modubagea:

lujuria: gula: ira edo kolera gaiztoa: eta enbidia, eta baita nagitasuna ere: eta bizio, griña edo pasio gaizto oek eziñ kunplitu ditugunean, aserratzen gera: eta gure barruko alterazioa, eta mintasuna kanpora agertzen degu, birabak, eta maldizioak egiñarekin: eta ala oek txit eskusatzeko; sustrai prinzipala, au da, gure buruaren amorio erabagea bere erro gaiztoakin goitzeko, menderatzeko, eta azpiraturik edukitzeko alegin guziak egin bear ditugu: eta orretarako nai ta ez Jaungoikoaren argia, grazia, eta laguntasuna, eta indarra bear degu: eta ori gogotik, eta sarri eskatu bear diogu: eta egiazko humiltasuna, alkarrekiko pazienza, eta karidatea exerzitzeko alegin biziak egin bear ditugu: alabaña eziñ gure pasio gaiztoak eziko ditugu, eziñ Jesu-Kristori jarraioko diogu, eta eziñ Zeruko Erreina iritsiko degu; Jesu-Kristok berak agindu zigun bezela, gere burua, au da, gere borondate gaiztoa ukatu bage: egunoroko gere gurutzea edo naigabeak pazienziarekin eraman bage; eta Jesu-Kristoren exenploari jarraitu bage; baña, zertan batez ere? humiltasunean, mansotasunean edo pazienzian, eta alkarrekiko amorioan.

Orra biraurik edo maldiziorik batere aurrera ez egiteko: pake egiazkoa gere buruarekin, eta lagun

guziak izateko: eta Zeruko betiko ondasun, eta atse-
giñak iristeko erremediorik egokiena: Jaungoikoak
orretarako guziori bere grazia digula. Amen.

OGEITA BOSTGARREN DOTRIÑA

Alkarrekiko gorrotoaren, eta etsaitasunaren gañean.

Alkarrekiko karidade edo amorio santuaren gañean Jesu-Kristok erakusten digun dotriña, gure biotzetan ondo sarturik bagendu; gorrotorik; eta etsaitasunik Kristauen artean ikusiko ez lizate: baña, nola gure amorio propio erabageak aiñ erraz itxutzen gaituan: eta igui degun gauzarik sufritu nai eztegun: eta nai eztitugun gauza asko gertatzen zaizkigun; ortik dator, gure barruko kolera gaiztoa, aserretasuna, gorrotoa, eta benganza artzeko griña fortiza: eta alkarrekiko etsaitasuna: eta ortik gero dator itxumen arri-garri bat, eta orri darraizka ezin kontatu ala pekatu: Kristau txit asko Infernura daramazkiena: (ira edo koleraren gañeko dotriñan esan nizuen bezela:) eta argatik Jaungoikoaren legeko bostgarren mandamentu santuak eragozten digu, ez bakarrik erabage asertratzea, eta obraz, eta hitzez gure lagun projimoari gaitz egitea; baita ere deseoz edo gogoz: eta nola mandamentu onen kontrako obrazko, eta hitzezko

pekatuak aurreneko (dotriña bietan esanik dauzka-
gun) aditzera eman bear ditugu gaur 1. projimoari
askok, itxuturik, eduki oi dioben gorroto edo odio, eta
gaitz egiteko deseozko pekatuak; eta 2. orien erre-
medioak aditzera eman bear dizkitzuet: eta Jaungoikoari
nai dakiola itxuturik, eta alkarren kontra samindurik,
eta gogorturik dauden guziak argitzea, eta alkarren
amiora ekartea.

G. Zer da bada gorrotoa edo odioa? **E.** Gure nai
edo deseoa; gure inklinazioak; eta gure interesak
eragozten dizkigun guziaren gaitziritzia, iguitasuna,
eta eziñ ikusia: bada nola maite degun edo deseaten
degun guziaren amorioa gerez degun, ala igui degun,
eta gure deseoren kontra dan guzia aborrezitzen
degu, eta gorrotoz begiratzen diogu: eta gere barruan
daukagun pasio edo griña fortitz au izan diteke ona
edo gaiztua, bere pasioak bezela: iguia, eta gorrotoa
merezi duan gauza gaiztoren bat aborrezitzea gauza
ona da: baña amatu bear degun gauza ona igui bade-
gu, eta aborrezitzen badegu: orduan da pasio gaiztoa.
Eta ala, Jaungoikoak agintzen digun ezkeru gure projimo
guziak ala onak, nola gaiztoak, eta baita gaitzgi-
lleak ere biotzetik amatzea; aek aborrezitzea, eta aei
gaitz opatzea edo deseatzea, da gorroto edo gorroto

gutziz doakea, eta pekatu gutziz andia: eta kolerazko edo aserrezko pasioa baño agitz gaiztoagoa; bada kolera edo ira bereala igarotzen dan mugimentu bat da: baño gorroto edo odioa da biotzean gorderik dagoan aserre edo kolera zartua, sustrai andiak dauzkana: eta txit erraz itxutzen, eta gogortzen gaituana: eta San Juan Ebanjelistak esaten digu: gorrotoa edo odio daukana giza erallea dala: eta bakarrik dago diferentzia, batak eskuz, eta besteak biotzez, gogoz, eta deseoz bakarrik projimoa illtzen duela.

G. *Eta baldin gure lagun projimoa berez gaiztoa bada:* eta erabage, eta biderik edo motiborik eman bage ofenditu bagaitu edo gure honra, estimazioa, eta fama ona kenduaz edo gure ondasunak gaizki eramanaz edo geuri edo gure guraso, hume, senide edo parte gertuari kalte andiak egiñaz; ala ere alako gaizgilleari gorrotorik ezin edukiko diogu? eta gure buruak bezela amatu bear degu? eta egin digun injuria barkatu bear diogu? Ona, N.K.: gure amorio propioarentzat neke arrigarri bat; gure griña edo inklinazio naturalari bakarrik begiratzen badiogu, ezin sufritu dezakeguna: baño bear bezela, Jesu-Kristoren legearen konsiderazioaz, eta Jaungoikoaren laguntasunaz baliatu nai bagera, erraztuko, arinduko, eta bigunduko zakuna.

Orretarako alde batetik gogoan ondo sarturik eduki bear degu Jesu-Kristoren mandamentu au: *Diligite inimicos vestros*. Zuen etsaiak amatu itzatzue: eta bes-tetik gure ofenditzalle, gaitzgille, agrabiatzalle edo injuriatzalleagan gauza bi konsideratu, eta distingitu bear ditugu: bata, persona bera: eta bestea da aren gaiztakeria: ara nola eri edo gaxo bategan distingitzen ditugun eria edo gaxoa bera: eta aren eritasuna edo enfermedadea: ezin ondo iritzi deikiogu iñoren gaizta-keriari: eta alde orretatik igui izan dezakegu, eta abo-rreritu dezakegu besteren gaizki egiña: eta orrela Dabid Errege Santuak aborrezitzen zituan gaiztoak, edo aen gaiztakeria: eta orduan bertan Jaungoikoaren legea txit maite zuen. *Iniquos odio habui, et legem tuam dilexi*. P. 118. V. 113. Eta baita sentitu ere deza-kegu izan degun naigabea edo kaltea; bada ez gera arrizkoak, baizik guztiz sentikorrak: eta miñ ematen diguen injuriak alteratzen, eta estutzen gaitue: baña ala ere, Kristau egiazkoak bezela fedeaz, eta arrazoi-az baliatu bear gera, eta Jesu-Kristoren amoriozko legea-ri, eta exenploari, eta gere barruko pakeari, eta ani-mako probetxuari jarraio bear diogu: eta gaitz egin digun projimoa, itxu bat bezela erruki izan bear degu: bera ezin aborrezitu dezakegu: ezin gaitzik biurtu dei-

kiogu: ezin arekiko gorroto gaiztorik edo bengatzeko deseio gaiztorik gure biotzean eduki dezakegu: Jaungoikoak eragozten digu gure eskuz justizia egitea: beretako benganza gorde du: ezin gaitzik opatu edo deseatu deikiogu projimoari: gere burua bezela, Jaungoikoagalik (eta ez munduko bildur, eta errespetoagatik bakarrik) amatu bear degu: eta ez bakarrik kanpotik, au da, agerian amoriozko señaleak emanaz: baita biotzetik ere: geretako nai degun on guzia, beste edozeñi bezela, opatzen edo deseaten diogula: eta egin digun injuria barkatu bear diogu biotz osotik: eta ori ondo egiteko Jaungoikoari bere grazia, eta indarra gogotik eskatu bear diogu: bada bestela eztago guretzat gure pekatuen barkaziorik: eztago guretzat salbaziorik: baizik eternidade guziko Infernua, eta desesperazioa: Jesu-Kristoren lege guzia karidadean sarturik dago: eta karidaderik eztuena illik dago Jaungoikoaren aurrean, *Qui nun diligit, manet in morte.*

G. Eta atako gaiztoai (eren salbazioa deseatu arren, eta egin diguen injuria barkatu arren) deseatu ote deikiegu, pekatu egin bage, gauza denporaletan naigabe, atsekabe edo trabajuren batzuek etortzea, iñori gaitzik egin eztegioben edo erak ondu ditezzen?

Txit nekez da ezagutzen intenzioaren zuzentasuna, eta garbitasuna orrelako deseotan, zerren erraz itxutzen gaitu gure etsaiak eman digun sentimentuak: baña ala ere etsaiaren beraren onerako, eta besten kalteak eskusatzeko bakarrik gaitz denporalak alakoai opatzea edo deseatzea ezta pekatu: eta ala erakusten dizue Santo Tomas, eta San Gregorio, Elizako Doktore edo Maisu andiak: baña obe da alako deseoi lekurik ez ematea: eta Jaungoikoaren probidenziari guzia largatzea, eta aren borondate santuarekin konformatzeko alegiñak egitea.

G. Eta etsaiari, egin digun injuria, eta eman digun naigabea barkatuaz gañera barkatu bear diogu orobat egin digun kalte edo dañua; edo gure osasunean edo gure honren edo gure ondasunetan? **E.** Ori modu onarekin eskatu dezakegu eta askotan eskatu ere bear degu: batez ere gure lanak edo obligazioak bestela ezin ondo osatuko baditugu, (beste dotriña batean esan genduen bezela:) baña gorroto bage: al bada auzi bage: karidadea, eta biotzeko pakea galdu bage: eta lenago konseju eskatuaz persona jakinsu, eta birtutezko bati: bada bestela osoro barkatuaz izango lukean kaltea baño, agitz andiagoa bere buruari batek ekarri leikio; askotan ikusi dan bezela.

G. Eta gure gaitzgille, eta etsai izan danari biotzetik barkatuaz gañera, gaitziritzirik, eta gorrotorik eztegulako señaileak kanpotik emateko obligaziorik badeugu? Eta iñoiz señaile oriek eskusatu edo eman bage utzi dezakegu?

Kristau askok, etsaiai barkatzeko premia egiazkoa, eta estua ezaguturik, esan oi due: nik barkatzen diot: eztiot gaitzik deseaten: baizik neretzat nai nukean ainbe ondasun Jaungoikoak eman degiola: baña eztu nerekin zer hitz egin: eztet arekin hitz egin nai: eztet arekin konturik nai. Onela hitz egiten duenak itxuturik eskuarkiro egon oi dira; bada hitz ederak esan arren, barrua borondate gaiztoz, eta gorrotoz beterik eduki oi due: eta ori agertzen due, okasioak edo aldiak datozenean alkarren gañean besteakin hitz egiteko: bada eren etsaiaz eskuarkiro murmura-tzen due: aren faltak ateratzen, eta azitzen ditue: eta eren barruko suak badirabela aditzera ematen due: ara nola errementari baten sutegian asmoak geldi daudenean, aizerik ematen eztuenean, sua itzalirik dagoala dirudi: ikatzak beltzturik, eta emendaturik daudela dirudie: baña ozta aspoak berriz aizatzen ditu: sua agertzen da: zerren estalirik bai, baña bizirik zegoan. Eta orobat agertu oi due eren barruko su gaiz-

toa len alkarren etsai izan diranak alkarren beartzen diranean: bada Kristau arteko tratu komunari ere faltatu oi diobe. Eta ala kondenatu nai ezpadira, barrutik, eta kanpotik gorrotoari, eta aserretasunari, eta orren señaleari larga bear die: eta egiaz alkarri barkatu diobelako, eta etsaitasunik eztualako, eta alkar amatzea duelako señaleari eman bear dituzte: nola diran bata besteagatik murmuraziorik ez egitea: okasioak agintzen duenean, bata besteari agur egitea: premia estuetan beste edozein Kristauri bezela on egitea: bada bestela, barruan borondate gaiztorik ezpaleuke ere, eskandalo ematen due: eta etsaitasunak badirabela aditzera ematen due: eta ark geiago len aideak bezela, eta adiskideak bezela alkarrekin tratatu oi bazuen: baña eztue obligaziorik adiskidetasuneko señaleari komunak emateko baizik: eztue premiarik adiskide mami, eta konfianza guziko bati bezela eren sekretoak agertzeko, eta komunikatzeko: asko da alkar salutatzea: okasioak eskatzen duenean hitz egitea: besteai komunkiro egiten zaien begitartea ez ukatzea: beste guziak konbidatzen edo bisitatzen diran aldietan ez ukatzea, apartatzea, eta distingitzea etsai izan dana: eta borondate gaiztorik eztagoalako bear adiña señaleari ematea: eta ori obeto agertzeko;

karidadea perfekzio geiagorekin exerzitzeko: gere pekatuen zorra errazago pagatzeko: eta Zerurako irabazi edo merezimentu guztiz andiak iristeko agitz balio du, gure etsaiakgatik aparte Jaungoikoari erre-gutzea: eta amoriozko seÑale partikularrak edo espe-zialak ematea; nola mesede edo fabore berezi batzuek egitea: bada orrela batetan Jaungoikoaren biotza, da etsaiaren biotza irabazten ditugu: eta gra-zia, da laguntasun partikularrak guztiz andiak gure salbazioa seguratzeko iritsiko ditugu: eta ikusiko degu gugan kunpliturik Jesu-Kristoren esan au: barkatu ezazu, eta barkatuko zatzu, emazu, eta emango zatzu. Eta orretarako ona Aita Parrak dakarren exen-plu andiko gertaera miragarri bat. Andre alargun prin-zipal bati puÑal batekin bere seme bakarra batek ill-tzion. Pensa ezazue nolaku pena, naigabe, eta senti-mentua artuko zuen ama tristeak: oraindio enterratu bage bere semearen gorputza zegoela, justiziaren igesi bere semea ill zuena bera, guzia turbaturik, eta zer egiten zuan etzekiela aren etxean sartu, eta bere aurrean jarri zitzaion, Jesu-Kristogatik barkazioa, eta bere anparoa eskatzen ziola. Ikusgarri penagarri one-kin, zer egin zuela uste dezue? Bere begiak, eta biotza Jaungoikoagana altxatu zituan: eta pena guzia Jaun-

goikoari ofrezitu zion: eta ez bakarrik Jaungoikoaren amorioz barkatu zion, baizik justiziagandik ezkutatu zuen: eta diruzko bolsa bat, eta zaldi bat iges egiteko eman ziozkan: eta orrela libratu zuen: Nork esan dezake emakume aren akzio, eta obra miragarri onek nolako atsegiña Jaungoikoari eman zion? Eta nolako saria bereala iritsi zuen? bada gau artan bertan Jaungoikoari bere pena guzia bere semearen animagatik ofrezitzen zegoela, agertu zitzaion bere semea bera pozez, kontentuz, eta gloriuz beterik: eta esan zion: Jaungoikoak bedeinka zaitzala nere ama: ill ondoan amaren lanak obeto nerekin egin dituzuna: bada zuk nere erallari eman diozun barkazioagatik, eta egin diozun karidadeagatik, Purgatorioan sufritu bear nituen pena guztiz andiak barkatu dizkit Jaungoikoak eta Zeruko gloria betiko eman dit: eta, o! bazenaki nolako gloria! baña laster jakingo dezu, nerekin batera gloria au berau gozatzerazatozenez, barkatu dezulako sarian: eta ala gertatu zan: eta daude ama semeak eternidadeko gloria neurribagea betiko gozatzen: Nor alaituko ezta bada biotzetik barkatzeraz, eta bere etsaiari on egitera?

G. Eta badira ala ere aldiak, gorrotorik eduki bage, hitz egitea, eta tratu komuna eskusatu leizkeanak? **E.**

Bai: eta ori gertatzen da; gurasoak, nagusiak edo beste agintariak, eren humen, miraben edo mendekoen gaiztakeriaren bat kastigatzeko, denpora puska batean aserre antza erakusten duenean; obeto eren gaizki egiña ezagutu dezen, eta zenzatu ditezen: baña ori egin bear due gorroto bage, eta karidadeari falta-tu bage: eta prudenziak eskatzen duen denporan, eta moduan bakarrik.

G. Eta persona bi, bata bestea ofenditurik, injuria-turik edo agrabiaturik arkitzen badira; alkarren artean pakeak egiteko zer ordena edo zer modu gorde bear due? **E.** Bere Projimoa lenengo ofenditu, eta injuriatu duena dago obligaturik lenbiziko dilijenziak egitera barkazioa eskatzeko, eta pakea billatzeko: egoki diran neurriak edo berez edo bitarteko on batez artzen dituala: eta obligazio ori Jesu-Kristo gure Jaunak berak, San Mateok eskribitu zuen Ebenjelio Santuan argiro erakusten digu: bada dio: Altararen aurrean Jaungoikoari zure ofrenda egiteko zaudela, oroitzen edo akordatzen bazera, zure projimoek zure kontra zerbait duela, au da, ofenditu dezula; larga egiozu aldarean zure ofrendari: zoaz lenago zure anaiarekin paketzera: eta atoz gero zure ofrenda ofrezitzera: eta hitz oetan dakusku, Jaungoikoak eztuela, ez ofrenda-

rik, eta ez beste obra onik azeptatzen, gere projimoa ofenditurik badaukagu, arekin paketu artean.

G. Eta ofenditurik dagoanak zer egin bear du? **E.** 1. Beiñik beiñ bere biotzean barkatu bear dio egin dion injuria: eta agrabatzalleak barkazioa, eta pakea eskatzen badio gogo onez eman bear dio: eta 3. eskatzen ezpadio ere, beti prestaturik egon bear du, barrutik bezela, kanpotik ere barkatzeko, eta pakea egiteko.

G. Eta biak alkar berdiñ ofenditu badue, zer egin bear due? **E.** Biak due berdin obligazioa, alkarri barkatzeko: eta pakerako dilijenziak egiteko: baña batak agitz geiago bestea ofenditu badu, agrabio andiagoa egin duenak, lenengo dilijenziak barkazioa eskatzeko, eta pakerako egin bear ditu. Baña erregla au erraz ematen da: eta nekez gordetzen da. Zerren gaitz egiten duenak edo gaizki esaten duenak miñik artzen eztu: eta egiten duen injuria ezertan eztauka: eta kontrara ezin sufritu degu egiten zakun injuria: eta au txikia izan arren ere txit andia iduritzen zaku: eta eztegu uste izaten barkaziorik eskatu bear degunik: baizik besteak guri eskatu bear diguela: eta itxumen orrekin gogortzen gera: eta gorrotoak, eta aserretasunak bere oñean daude: eta pakerik egin oi ezta: eta orregatik asko kondenatzen dira.

G. Eta agrabiaturik edo ofenditurik dagoanak berak pakerako dilijenziarik egiteko obligatorik ote du? **E.** Berez eskuarkiro asko du beti prest egotea pakeak egiteko: baña ikusten badu bere etsaia itxuturik, eta gogorturik dagoala: eta ala kondenatzeko peligrandian dagoala: eta arazeri txit andi bage, pakea eskeñiaz edo adiskidetasuneko señaieren batzuek emanaz, Jaungoikoarentzat irabaziko duela, eta salbaiziko bidera ekarriko duela: orrelako kasu edo aldie-tan karidadeak obligatzen du bere ofenditzallea pake-ra ekarteko dilijenziak modu onean egitera: eta ori konfesore jakinsu, eta zinzo batekin komunikatzeko gaia da.

G. Eta gorrotoaren, eta etsaitasunaren sustraiak zein izan oi dira? **E.** Txit asko dira: baña prinzipalena izan oi dira. 1. Jenio, humore edo natural kontrarioak edukitzea: eta bakoitzak bere iritzia geiegi estimatzea; eta besteak bere iritzira ekarri nai izatea. 2. Sustraiak izan oi da; soberbia edo arrotasuna, andinaia, goratunaia, eta orri darraion enbidia gaiztoa. 3. Sustraiak izan oi da; gutizia edo abarizia, eta interesara geiegi itxatxirik egotea: bada interesagatik okertzen, aserratzten, eta gorrotoan jarten diranak kaburik eztue: eta 4. izan oi da, esames, txisme edo besteren

esanak batetik bestera erabiltea; eta oriek errez sinis-
tea. Orra gorrotoak, eta aserretasunak nundik sortu oi
diran.

G. Zer erremedio bada gorrotoari lekurik ez ema-
teko; alkar egiaz amatzeko; alkarri sufritzeko; eta egin
dizkiguen injuriak, eta eman dizkiguen naigabeak
Jaungoikoaren izenean eramateko, eta erraz barkatze-
ko? **E.** Erremedio guzien andiena, eragillena, eta
guzionzat premiazkoena da, egiazko karidadea, au da,
Jaungoikoaren eta projimoaren amorioa gure biotze-
tan beti bizirik edukitzeko alegiñak egitea: orretara
gure konsiderazio guziak zuzentzea: eta ori bera sarri,
eta gogotik Jaungoikoari eskatzea: alabaña, N.K.: kari-
dade ori gure biotzetan ezpadaukegu: eta orren
lekuan projimoarekiko oztasuna, eta ezin ikusia, eta
gorrotoa gure barruan badaukegu, deabruaren, eta
pekatuaren mendean gaude: Jaungoikoaren etsaiak
gera: eta naitaez betiko kondenatuko gera, lenago
egiazko penitentzia egiten ezpadegu: eta Jaungoikoa
biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik amatzera, eta
gere buruak bezela gure lagun projimoa, eta gure
etsaia amatzera, eta biotzetik barkatzera jarten ezpa-
gera: baña kontrara Jaungoikoaren amorioa, eta proj-
imoaren amorio egiazkoa gure biotzetan badegu; gure

zorionekoak: bada karidade edo amorio egiazko orrek gure pekatu, eta bizio guziak, eta batez ere aserrezkoak desegiten ditu: eta Aita Jaungoikoaren hume maiteak: Jesu-Kristoren senideak: eta Espiritu Santuaren bizileku edo tenplo biziak egiten gaitu: arrezkero gure Jaungoikoak bere grazian, eta adiskidetasunean gauzka: eta bertatik biotzeko pakea, eta konzienziaren sosegua, eta gero betiko gloria izango da gure saria. Baña ez gera engañatu bear, N.K. karidadea gure biotzean daukagulako uste falsoarekin: karidadeak gure barruan etsai andiak dauzka, eta guzien andiena da gure buruaren amorio propio erabagea: eta sustrai gaizto orretatik sortzen dira soberbia, eta arrotasuna: interes gaiztoak dakarren itxumena: aserretasuna edo kolera gaiztoa: enbidia: eta beste gure griña, inklinazio, eta pasio gaiztoak. Eta argatik animako etsai gaizto oek, karidadea galdu eragiten diguen bizio fortitz edo indarsu oek eskuratzeko, menderatzeko, eta goitzeko alegiñak egiten beti jardun bear degu: egia da karidadeak berak orretarako indarrrik andienak ematen dizkigula: bada Jaungoikoaren eta projimoaren egiazko amorioak egiten gaitu humillak, sufrituak, ongilleak: eta gure borondatea bere erabageko deseokin ukatu eragiten digu: baña baita da egia ezin orre-

tara elduko gerala; 1. konsiderazioarekin eta 2. orazioarekin baliatzen ezpagera: bada guziok dakizue zenbaterako itxutzen gaituen gure amorio propioak bere erabageko deseokin: eta zein sentikorrek geran desarrazoiak, eta injuriak pazienziarekin eramateko. Eta zein erraz gure griña gaiztoak mugitzen gaituan bengatzeko deseora, eta gorrotora: eta zein nekez orduan arrazoiari leku ematen diogun, bada pasioak itxutzen gaitu: eta itxumen ori ezin erremediatu ditek, N.K. gure fede santuak erakusten dizkigun egia andiak gogora sarri ekarri bage, eta ondo pensatu, eta konsideratu bage: mundua dago itxuturik, eta galdu-rik konsiderazioaren faltaz: pensatuko bagendu ondo, zenbat zor diogun gure Jaungoikoari bera danagatik, eta guk merezi bage egin dizkigun mesede guztiz andiakgatik: zenbat sufritu zuen gure Jesus onak gure pekatuen zorrak pagatzero, eta guri humiltasunaren, pazienziaren, eta alkarrekiko karidade, eta amorioaren exenploa emateko: zenbaterako, eta zein sarri bere Ebanjelio Santuan, alkar amatzea, alkar sufritzea eta alkarri barkatzea, eta on egitea agintzen digun: bada berak, inozentea izanik, beste iñork baño geiago bere etsaiakgandik sufritu zuen: eta ala ere aekgatik bere Aita Eternoari, Gurutze Santuan iltzez josirik

zegoala erregutu zion, esaten ziola: nere Aita, arren barkatu egiezu, bada eztakie *zer egiten duen*: eta egunoro errezatzen degun, eta Jesu-Kristok berak erakutsi zigun aita gure edo paternosterrean, dotriña au, berak ipiñi zigun: bada guziok Jaungoikoari eskatzen diogu: barka egizkiguzu gure zorrak edo pekatuak; guk gure zordunai edo gaizgilleai barkatzen diegun bezela; ara ze: barkatzen badegu, barkatuak izango gerala: bada bestela geurk eskatzen degun bezela, barkaziorik iritsiko eztegula: eta zer izango da guzaz, gure pekatuen barkazioa iristen ezpadegu? a! ori ondo ausnartuko, eta konsideratuko bagendu: eta orrez gañera nolako kastigu izugarria darraion gorrotoan dagoanari; eta zein pake gozoa bertatik, eta zein gloria andia gero izango duen, bereala bere etsaiari biotzetik barkatzen dionak: gauza oek, eta beste onelako motibo guztiz andiak ondo konsideratuko baginduz, nor izango lizate aiñ itxua, eta aiñ biotz gogorrekoa, nun jarriko ez lizatean bereala, Jaungoikoari atsegin ematera, bere etsaiari barkatzera, eta bere burua-arentzat ainbeste ondasun irabaztera?

Gogora ekarri itzazue bada egia oek: baña egia ezagutzea bakarrik asko eztegu: gere natural aserrekor gaiztoa goitzeko, eta Jaungoikoagatik gure etsaiak

amatzeko, Jaungoikoaren beraren argia, eta indarra
bear degu: eta ori iritsiko degu; humiltasunarekin eta
konfianza oso batekin Jesu-Kristoren izenean sarri
eskatu nai badiogu. Auxe da, N.K. gure animako itxu-
tasun, eta eritasun guzien erremedio jenerala, eta
premiatzkoa: eta gorrotoaren, eta etsaitasunaren erre-
medio berariazkoa edo espeziala, eta guztiz eragillea,
beraz ondo baliatu nai bagera: Jaungoikoari nai dakio-
la bada arren guziok argitzea: eta guziori alkarrekiko
karidadez, eta amorioz betetako biotz berri bat ema-
tea: orain, eta beti bera guziok amatzeko, eta berez
gozatzeko zoriona iritsi dezagun. Amen.

OGEITA SEIGARREN DOTRIÑA

Lujuriako pensamentu edo deseoen gañean.

Jaungoikoaren legeko seigarren mandamentu santuak lenengo eragozten du adulterioa, edo besteren lagunarekin aragizko pekatua egitea: eta txit egokiro, bostgarren mandamentuan gizonaren biziari kalte egitea eragotzi ezkeru, guziok pakean, eta amorioan bizi gaitezen; seigarren mandamentu santu onetan gizonak, eta andreak biziaren ondoren duen gauzarik maiteena, eta estimatuena, au da, alkarrekiko amorioa, eta leialtasuna, eta orri darraion honra ondo gordezea gure Jaungoikoak agintzen du: bada gizonak emazte ona, eta honra duena bere lagun maitea du; argan bere konfianza guzia dauka: arekin bere neke, eta poz guziok partitzen ditu: bizitza komun bat egiten due: eta eren humeetan berdiñ due parte. Eta ala ortik ezagun da zeñ injuria arrigarria, eta zeñ kalte andia dakarren adulterioko pekatu nazkagarriak: alkarri leialtasuna galdu: eta besterekin aragizko pekatu zikiña egiteak, eta ez bakarrik, berekin dakarren naigabe guztiz penagarriagatik alkarri fedea edo leialtasuna

galdu diobela, dakitenean: baita ere (ori ez jakin arren) berez Jaungoikoari, matrimonioko sakramentu santuari, eta eren hume lejitimoai egiten zaien kaltea, injuria, eta ofensa guztiz andiatatik; baña adulterioa- rekin batera, orobat daude eragotzirik mandamentu santu onetan, eta Eskritura Santa guzian, lujuriako edo loikeriako beste pekatuak, ala pensamentu edo deseozkoak, nola hitzezkoak, eta obrazkoak: eta oriek eragotziarekin batera agintzen digu gure Jaungoikoak kastidade santua edo animako, eta gorputzeko garbitasuna kontuz gordetzea: mandamentu santu au, arrazoiar, eta fedear batera eren aragia espirituaren mendean beti edukitzeko egiazko alegiñak egiten dituen Kristaudentzat, da txit erraza, biguñ, atsegin- garria: eta Zerurako irabazbide guztiz andia: baña eren aragiaren griña edo gurari zikiñakin batera bizi diran Kristau askorentzat da guztiz nekeza, penagarria, gogorra, eta Infernurako gaia edo betiko galbi- dea. Eta onelakoak ez bakarrik anima galtzen due: baita gusto zikiñ labur bategatik eren gorputza ere betiko tormentuetara kondenatzen due. Zenzatu gai- tezen bada arren guziok: eta mandamentu santu au kontuz gordetzeko alegiñak egin ditzakun.

G. Zein da Jaungoikoaren legeko seigarren mandamentu santua? **E.** Lujuriako pekatuak ez egitea edo kastidade santua gordetzea.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan? **E.** Izan gaitezela garbiak, eta kastoak pensamentuetan, hitzetan, eta obretan.

G. Nor dira mandamentu onen kontra pekatu mortal egiten duenak? **E.** 1. Loikeriako edo lujuriako gogorazio edo pensamentu likits zikiñetan, oartu ezker, atsegin edo gusto artzen borondatez egoten direnak, obraz kunplitzeko asmorik edo deseorik ez izan arren. 2. Lujuriari dagozkion hitz, koplak edo kanta deshonestoak, loiak edo lotsagarriak esaten dituztenak: edo gogotik edo gustoz aditzen dituztenak: eta 3. besterekin edo berekin ukitze loi zikiñak edo bestelako kastidadearen kontrako obrazko pekatuak egiten dituztenak edo egitea deseatzten duenak. Ona, N.K. hitz gutxitan dotriña andia, kontuan dagoanarentzat: baña jakiñez edo ignorante askorentzat zeago eman bear dana, gai onetan itxuturik egon eztezen: zer dan pekatu, eta zer ez ezagutu dezen: eta aurrera lujuriari larga, eta kastidade santua gordetzeko alegiñak egin ditzen. Orretarako beste dotriña batean zeoro esanik daukagu: lujuria zer dan: nundik sortu oi dan:

nolako kalte izugarriak dakazkian: aren kontrako erremedio prinzipialenak zein diran: eta batez ere kastidadea zer dan: zein birtute estimagarria, eta honragarria dan: nolako ondasunak dakazkigun: eta ura gordetzeko nolako alegiñak guziok egin bear ditugun: eta ala kastidade santuaren kontrako pekatuak orain aditzera eman bear dizkitzuet: eta gaur 1. pensamentuzkoak, eta deseozkoak bakarrik esango dizkizuet: eta 2. orien okasioak edo peligroak aitatuko dizkizuet.

Eta lenengo galdetzen det: lujuriako pensamentu edo gogorazio likitsak zenbat modutan izan oi dira? **E.** 1. Batzuek dira gogora edo imajinaziora etsaiak daktzenak: eta beste batzuek aragiaren edo gorputzaren griña edo inklinaziotik sortzen diranak, eta gogora edo imajinaziora datozenak, pekatura mugitzen gaituenak: eta onelako pensamentuak edo tentazioak gure eskuan eztauzkegu; eta geurk nai eztegula ere burura datozkigu, eta Kristau onai, eta gaiztoai orobat gertatu oi zaie: eta onelako aldietan oartu ezkeru burutik kentzeko aleginak egiten baditugu, pekatuak batere eztago: eta bai merezimentu edo irabazi andia Zerurako: baña ondo ezagutu edo oartu ezkeru, gere nai edo borondatez gauza likits aetan atsegin artzen geratzen edo detenitzen bagera, orduan pekatu mor-

tal egiten degu: ara nola suaren gertuan dagoan bati txingar bat bere arroparen gañean erorten bazaio, eta erretzen asi dan beziñ laster, ikusi ezkerro, kentzeko, eta itzaltzeko alegiña egiten badu, kulparik batere eztu: baña erretzen dagoala ikusita, kendu nai ezpadu, eta erretzen usten badio, bere kulpa du: orrela bada aragiak, eta gogorazio edo pensamentu zikiñak piztutzen duen sua, ezagutu ezkerro, bereala burutik kentzeko, eta itzaltzeko alegiñak egiten baditu, kulparik eztago, eta bai merezimentua: baña oartu ezkerro, gusto edo atsegin artzen borondatez badago, bere kulpa du: eta da berez pekatu mortala: eta baita obraz pekatu egiteko asmorik edo deseorik ezpadu ere. 2. Beste pensamentu edo gogorazio batzuek dira, ez gorputzaren edo aragiaren mugitze edo griñatik datozenak; baizik borondateak berez jakiñaren gañean, sortzen dituanak: berak gogora dakatzenak: eta atsegiñarekin gogoan darabiltzenak: eta onelako pensamentu borondatezkoak, naiz aragia mugitu, eta atseginera griñatu, eta naiz ez, dirade pekatu mortalak, obraz pekaturik egiteko asmorik ez izan arren: eta onelako atsegiñezko pensamentu gaiztoak borondateak berak sortzen dituenak, Kristau onetan arkitu oi

ez dira, baizik Kristau gaizto lujuriara emanik daudenetan.

G. Eta baldin pensamentu edo gogorazio likitsak burura datozenean edo aragiaren griña edo mugimentuak sortzen diranean, gelditzen bada bat ez atzera, eta ez aurrera; osoro konsentitu edo nai bage: baña bereala kentzeko ere alegiñak egin bage, baizik zerbait oartu arren buruan badarabiltza, pekaturik egiten ote du? eta zer pekatu egiten du? **E.** Pekatu egiten du: batzuetan beniala: eta askotan mortala izan oi dana. Baldin tentazioa, eta aragiaren griña, eta atsegintasuna ezagutu, eta nagitasun piskaren bat baizik eman ezpadu tentazioari bereala atzera egiteko, pekatu beniala da: baña ondo oartu ezkeru, berariaz ez ikusi bezela egiten badu, eta uzten badio aragiari atsegin artzen, pekatu mortala egiten du: bada borondateak nai duela aditzera ematen du: eta bestela ere konsentitzeko peligro aiñ andian ezin jarri liteke: bada aragiaren griña gaiztoari, oartu ezkeru, atzera egiten ezpazao, erraz itxutzen gaitu, eta konsentitu eragiten digu: eta ala oartu ezkeru, tentazioari atzera ez egitea bera da eskuarkiro señale nai duelakoa: baña persona aiñ adimentu laburrekoa, eta ezaguera gutxikoa baldin bada, nun bereala oartzeko, eta erabakitzeko, eta

tentazio zikiña iguitzeko, eta atzeratzeko besteak baño denpora geitxego bear duen: oraindio egiaz osoro konsentitu eztualako edo borondateak libertadearekin nai izan eztuelako errezeloa edo ustea artu diteke: baña onelako aldietan, nola eskuarkiro osoro konsentitu duen edo ez, eziñ argiro ezagutu ditekean; gertatu zaion moduan konfesatzeko obligazioa dauka: eta konfesoreak bakoitzaren bizimoduari, eta daukan argitasun edo jakineztasunari ondo begiratu ta juizioa egingo du.

G. Eta orobat da pensamentu edo gogorazio likitsetan atsegin artzen egotea, nola pekatu egiteko deseoa edo asmoak artzea? **E.** Agitz dira diferenteak: bada pensamentu zikiñetan gusto, eta atsegin artzea askotan gertatzen da obrazko pekatu egiteko deseo edo asmorik izan bage: eta ala deseozko pekatuak gai onetan izaten dira, batek asmoak artzen dituanean pekatuaren bat edo gauza likitsen bat egiteko onelako edo alako personarekin, eta orri deitu oi zaio: *pensamentu konsentitua edo erabakia*: eta da berez pekatu mortala: osatu bage edo kunplitu bage gelditu arren edo damutu zaiolako edo erarik izan eztuelako. Eta ori Jesu-Kristo gure Jaunak bere Ebanjelioan argiro erakusten digu. (Math, 3) bada dio: ze emakume bati

begiratzan dionak, ura deseatzeko, bere biotzean edo barruan pekatu egin duala: eta konfesioan esan bear du, ez nor zuen bere gogoan, ez eta personaren izena; baña bai, ezkondua bazari, aidea bazan, kastidateko botoarekin Jaungoikoari konsagratua bazan: au da, zer estadu zuen: bada estaduaren diferenziak, kastidatearen kontrako pekatuaz gañera, beste pekatu mota bat, eta mortala berekin dakar, eta konfesatu bear da.

G. Eta pekaturako edo gauza likitsetarako leia gaiztoa edo griña gaiztoa bere gorputzean, eta gogoa sarri sentitzea, pekatu ote da? **E.** Borondateak eza-gutu ezkeron nai ezpadu, igui badu: bat penatzen badu: eta griña gaiztoari atzera egiteko alegiñak egiten baditu; nola dan Jaungoikoari edo Ama Birjiñari edo Aingeru Guardakoari bere laguntasuna eskatzea: edo gorputza zerbait nekatzea edo mortitikatzea; edo tentazioari alde egiteko, beste gauza on batzuetara pentsamentua itzultzea: orduan pekaturik batere eztago: eta bai merezimentu andia; len esan dizuedan bezela: eta ala Kristau bildurriak, pekatua igui duenak, eta onelako alegiñak egiten dituenak konsolatu, eta esforzatu bear dira: bada tentazio guztiz goaikarriak sarri burura etorri arren Zerurako irabazi andiak egiteko

gaia ematen die: eta beti tentazioaren kontra garaia edo biktoria seguru irabazteko, iru gauza batez ere kontuz gorde bear ditue: 1. humiltasuna: au da, eren argaltasuna ondo ezagutu, eta ez iñola ere arrotu, eta beregan fiatu, baizik bildur santu bat beti eduki. 2. Da, konfianza oso batekin tentazioko denporan Jaungoikari bere sokorru, laguntasuna, eta indarra eskatu: eta 3. da, eren aldetik danez okasiorik edo motiborik loikerietarako ez iñori ematea: eta besteak artarako eman leizkien bide edo okasioetatik txit kontuz alde egitea: eta batez ere begiak ondo gordetzea gauza loi likitsik ikusten ez jarteko: eta ustez ustekabe alakorik ikustea gertatzen bazaio, bereala begiak beste aldera jiratzeko, eta tentaziorik badatorkio bereala atzeratzeko: eta orobat eskusatu bear du deshoneskeriako gauzak, nola ipui, koplak edo berso zikiñak aitatzea edo atsegiñez aditzea: eta guzien gañean ikutze zikiñik, nola jostatze, musu, laztan edo beste orrelakorik iñori egitea edo berari egiten uztea, txit kontuz eskusatu bear du: bada orrelako aldietan ezagun da kastidatea maite duen edo ez; edo lujuriaren iguirik duen edo ez: eta alako alegiñak, eta erremedioak egitea dituelarik ere tentazio txarrak, eta gorputzaren, eta aragiaren griña fortitzak, eta mugimentu zikiñak sentitu arren,

borondateak nai eztuelako señaile ona dauka; eta orobat, berak biderik eman bage amets loiak egitea gertatzen bazaio; eta esnatzen danean igui baditu, pekatu batere egiten ezto: baña berak bidea edo motiboa artarako ematen badu; edo ez eman arren motiborik, ondo esnatu ezker, atsegin artzen badu, orduan pekatu egiten du: eta ala Kristaua oitu bada, edozein tentazio txar datorkionean, bereala Jaungoikoari edo Ama Birjiña Santisimari bere laguntasuna eskatzera, eta tentazioa bereala atzeratzera: bada kontrara tentazio gaiztoak burura datozkionean, edo aragiaren griña zikiñak sentitzen dituanean, oartu edo ezagutu ezker, bereala aen kontrako erremedioak egin ordean, atsegin artzen geratzen bada edo deseo likitsai leku ematen badie, pekatu mortala egiten du: eta orobat artarako bidea besteri emanaz edo berari gustoz ematen utziaz pekatu mortala egiten da: bada kastidadearen kontrako pekatu guziak, naiz barrukoak, gogozkoak edo biotzezkoak, naiz kanpokoak, berez dira pekatu mortalak, borondateak ezaguera edo oarmen osoarekin nai izan edo konsentitu ezker. Eta emendik kontu atera bear due, eren animak galtzeko, eta besteai galdu eragiteko zein peligro edo arrisku andian dauden, 1. alkarrekiko kariño edo amo-

rio geiegi arturik dauden gizakume, eta emakumeak: bada asmo edo intenzio gaiztorik antxitan ez izan arren, alkarrekiko adiskidetasunak, eta tratu sarriak piztu oi du aen biotzetan amorio loa: eta pensamentu likits asko eragiten dizte: 2. orobat daude peligro andian ezkontzeko asmoetan dabiltzan gazteak, alkarrekiko amorioari, ez Jaungoikozko edo karidadezkoari, ez eta arrazoiak, eta honestidadeak permititzen duenari; baizik aragizko amorioari eren biotzetan leku eman, ori alkarri aditzera eman: eta pensamentu zikiñ eta gogorazio likitsak eren buruetan darabiltzatenak; Jaungoikoaren bildur santuaz, orazioaz, eta konsiderazioaz ondo armaturik ezpadaude. Eta 3. are geiago peligro arrigarrian daude alkarri ezkontzeko ustea edo hitza emanik daudenak: eta uste orrekin bata bestearekin bakarrik egoteko asignazioak egin, eta bear dan baño libertade geiago artzen duenak; bada, eren iritzian uste, eta asmo gaiztorik ez izan arren Infernuko deabrua ezta deskuidatzen. Aragiak bere griña gaiztoa beti berekin dauka: eta bearbada uste baño aurre-rago daramatza: eta munduaren bildurrez lotsa ekarriko dien obrazko pekaturik batzuek ez egin arren, Jaungoikoaren aurrean bestelako pekatu asko egin oi ditue: eta argatik gurasoak, eta nagusi-etxeakoandreak

txit erne, esna, eta kontuz egon bear due onelako peli-
gro edo okasiorik ez permititzeko, baizik eragozteko:
eta ezkongaiak erak, bata bestea Kristau onak bezela,
eta ez abereak bezela, egiaz maite badue, eta alka-
rren salbazioa, eta eren ezkonzatan Jaungoikoaren
grazia, eta bendizioa iritsi nai badue; onelako arrisku
edo peligrozko okasioai alde egin bear die: eta alka-
rrekin hitz egiteko premiarik badue, Jaungoikoaren bil-
durra duen errespetoko persona baten aurrean hitz
egin bear due: bada bestela, Jaungoikoa ofendituaz,
eta eren animak galduaz gañera, zer esanak, eta juz-
goak egiteko gaiak ugari ematen ditue: eren estima-
zioa, eta honra galtzen due: eta ondorengo triste asko
eren buruai ekarten dizte. Jaungoikoak arren argitu
ditzala: eta bildur santua, eta alkarrekiko Jaungoikoz-
ko amorioa diela: bada orrela pensamentu gaiztoak
edo deseo zikiñ loiak iguituko ditue: eta okasiotik kon-
tuz alde egingo due.

G. Eta zein izan oi dirade kastidadearen kontrako
gogorazio likitsak, eta deseo zikiñak ekarri oi dituen
beste okasioak, eta peligroak? **E.** Txit asko dira: eta
emen eztizuet zeoro esango gabetan artoak zuritzeko
aitzakiarekin gertatzen diran hizkuntza loiak, eta jos-
tatze zikiñak: ezta ere iritara Arabara doazen nezka-

mutillak, an bertan, eta bidetan egiten dituzten danza, eta jolas zikiñak: ez eta erromerien aitzaki santuarekin alkar asignatu, eta bidetan, mutillak, eta neskatxak artzen dituen libertade lotsagarriak, a! zenbat sare dituan Infernuko etsaiak anima gaxoak orrelako okasioetan arrapatzeko! a! eta zein gauza bearra dan orrelako peligroetatik alde egitea edo txit eskusatzea! eta erromeriarik egin bear bada errespetoko, eta Jaungoikoaren bildurreko personakin ibiltea: baña bada oraindio beste okasio edo peligro andi bat: zein dala uste dezue? da, danzarako afizioa edo gogoia, eta dantzatzeko modu gaiztoa.

G. Pekatu ote da bada dantzatzea? **E.** Berez da gauza indiferentea: ara nola diran berez indiferenteak karta jokuak, bola jokuak, pelota jokuak, ondo egiten badira, au da, fin edo motibo onarekin, modestiarekin, eta pekaturako peligru bage, eztira berez pekatu: baña gaizki usatzen badira, pekatu dira; eta beste pekatu askoren sustriak izan oi dira.

G. Noiz da bada danzea pekatu, eta noiz ez? **E.** Ori ondo erabakitzeko dotriña guztiz luze bat bear lizate. Ona ala ere laburtxo erregla jeneral ziertu batzuek orain premiazkoenak, bakoitzak bere buruari aplikatu leizkionak, ezagutzeko, noiz pekatu egiten duen, eta

noiz ez, pasio bage, eta itxumen bage konsideratu nai baditue. Eta 1. danzatzea neska mutillak edo gizon eta emakumeak eskuak alkarri emanik izan oi da pekatu mortal, lenago alkarrekiko aragizko amorio edo kariñoa arturik daukela edo amorio ori artu eragiteko berariaz alkarrekin danzatzeko neurriak artzen dituenen: bada eskuarkiro danza orietan orrelakoen artean esku ikuitze atsegiñezkoak barruko gozamen edo gusto loi zikiñarekin batera izan oi dira: edo bein-zat peligro gertu edo urrekoan jarten dira. 2. Izan oi da eskuarkiro pekatu mortal, danzatzeko moduan Kristau bati dagokan modestiari agitz faltatzen zaionean: nola dan edo gonak berariaz oñakin jaso eragitea begiakin ere atsegin gaiztoa artzeko, bear eztiran gauzak ikusiaz: edo bularretara estuak berariaz eramanaz: edo atximur zikiñak besoetan egiñaz: edo albo joka, eta tiraka lotsagarriakin emakumeak, beragana ikuitzeko ekarriaz: bada onelako Kristau lotsabageak, sobra agertzen due, ez bakarrik eren buruen arintasuna, eta zenzubagetasuna, baita askok, eta askok eren barruko usteltasuna ere: eta izurri itxaskor batzuen pare dirala: bada eskandalo nabarbena edo publikoa ematen due: eta merezi duen kastigua, zepo batean bereala sartu eragiñaz, ematen eztielako farre, eta

gala egiten due: eta ori ikusten duen mutill gaztetxoak, beste ainbeste egitera ekarten edo mobitzen ditue: eta orrela oitura zikiñak, eta lotsagarriak bate-re lotsa bage sortzen dira: baña aen zorigaiztokoak! zenzatzen, eta erremediatzen ez badira: eta ez gutxiago zorigaiztokoak, orrelako eskandaloak ikusi, eta ala ere eragozteko neurriak artzen eztituen Justiziako Jaunak: bada Zeruko Juezak kontu estuak artuko die. 3. Orobat izan oi da eskuarkiro pekatu mortal esku danzara neska mutillak edo gizakume eta emakumeak alkarrekin joatea; lenagotik ezaguturik daukeenean, kanpotik gaizki dirudian gauzarik ez egin arren, eren barruetan tentazio andiak sentitzen dituela: eta askotan edo gogorazio edo pensamentu likitsetan edo deseo zikiñetan konsentitzen duela: bada orrelakoenzat alako danza modua da okasio edo peligro gertua: eta onelako arriskuan, berak nai duela, sartzea pekatu mortala da. 4. Danzea izan oi da neskatxe arro askorenzat pekatu mortalak egiteko okasioa: 1. zerren guraso onak motibo justuakin ori eragotzi arren obedezitu nai eztien, eta naigabetzen dituen. 2. Zerren eren buru ergelak apaintzeko etxeko gauzetatik lapurretak egiten dituen: eta 3. zerren danzarako gogoia, eta afizioa artu ezkeru burua arintzen

zaie, len zuen modestia, eta lotsa ona, eta edergarria galtzen due: ergelak, eta lotsabageak egiten dira, eta arrezkero Jaungoikoaren bildur santua alde batera larga, eta pekatu egiteko peligro edo arriskuan erraz sartzen dira: eta ori guzia danzarako afizioak ekarri oi du: eta eskuarkiro orrelakoak ezkondu baño lenago obrazko pekatuelan erori oi dira: eren antzeko lagun zoroakin juntatu oi dira: eta erak gero eren zorakeria ondo pagatu oi due.

G. Baña jostatzeagatik bakarrik edo norbaiti atsegin egiteagatik: edo danzari onak diralako, danzara doazenak pekaturik egiten ote due? **E.** Asmo gaiztorik batere ezpadue: eta modu onarekin au da, Kristau bati edo Jesu-Kristoren mienbro, eta jarraitzalle edo diszipulu bati, eta Espiritu Santuaren tenplo edo bizileku beti izan bear duen bati beti dagokan modestiarekin dantzaten badue, pekatu mortalik egiten eztue; eta bearbada benialik ere ez: baña kondizio oriek guziok nekez gorde oi dira: eta peligro edo arriskuak, uste bage ere, erraz danzarien artean sortzen dira: bada eskuarkiro buruak arintzen zaie: eta neurri onik nekez gordetzen due: eta argatik denpora oetan egiten diran danza mota erabageetatik alde egiteak txit asko balio du! eta askorenzat gauza premiazkoa da, anima, eta

gorputzeko garbitasuna, eta honestidadea gordetze-ko.

G. Eta aitatu ditugun danzako peligro andiak, eta eskandalo nabarben edo publikoak alegiñez edo albaitez eskusatzeko, zer neurri artu bear ditue, danzariak erak, eta errietako agintariak? **E.** 1. Neska mutillen artean; edo gizakume, eta emakumen artean eskuak alkarri emanik danzarik ez egitea: eta ez permititzea: baizik pañueloakin danzatea: erri askotan usadioa edo kostunbrea jarri dan bezela. 2. Modestia bage danzaten duen guziak: nola diran, len aitatu ditugun albo joka, eta tiraka emakumeak darabiltzatenak edo beste zikinkeriak nabarbenkiro egiten dituanak, bereala danzatic atera eragitea, eta kastigatzea. 3. Danzaren bukaeran egin oi diran erakerizko korrikak eragozte: eta soñulariai pena edo kastigu galant bat ematea, artako soñurik jotzen badue: eta batez ere 4. danzak bukatzea; baserritarrak *illundu baño lenago* eren etxeetara joan ditezkean moduan: bada besteta bidetan libertade, eta erakeri andiakoak izan oi dira plazan bertan baño.

Neurri edo kondizio oek premiazkoak dira, danzatic datozen pekatu txit asko eskusatzeko edo erremediatzeko: ala ere edozein danzak peligro asko berekin

ekarri oi ditu: eta batez ere loikeriako pensamentu zikin asko sortu oi ditu: eta okasioan ardurabage sartzan dana erraz erorten da: edo beintzat tentazioak erraz goitzeko indarra galtzen du: eta bere buruari nekerik asko ematen dio bear dan bezin garbiro kastidate santua bere biotzean gordetzeko: eta asko da ia gaurko dotriñarik.

Jaungoikoari arren nai dakiola guzian biotzetan lujuriaren igui edo aborrezimentu andi bat: eta kastidate santuaren amorio bizi bat sortzea: eta orretan irauteko bear diran neurri onak artzeko gogoia, eta indarra ematea: bada bestela munduak, deabruak, eta gure aragi gaiztoak erraz liluratu edo engañatuko gaitue: orazioarekin, arriskutik alde egiñarekin: eta sentiduen mortifikazioarekin goitu ditzakun bada etsai oek; eta guretzat izango da betiko orain biotzeko pakea, ota gero betiko poza Zeruko Erreinuan. Amen.

OGEITA ZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Nola izan bear geran garbiak,
eta kastoak hitzetan, eta obretan, eta nola
kastidadearen kontrako pekatuen gañean examiñatu.*

Bateo santuan gure Jaungoikoak izan ditekean honrarik andienera Kristau guziok altxatu ginduzan, bada Aita Eternoak bere seme-alabatzat: Seme Dibi-noak bere senidezat: eta Espiritu Santuak bere bizile-ku edo tenplozat artu ginduzten: Zeruko herederoak egin ginduzten: bere grazia, eta adiskidetasuna eman ziguten: eta Elizako ondasun guzien partizipante egin ginduzten: eta ordutik 1. Kristau guziok gaude eskeñirik, ofreziturik, konsagratuak, eta solemnidade guziarekin emanik Jaungoikoari bera gure animako, eta gorputzeko indar guziakin serbitzeko: au da, gure animako potenziakin, memoria, adimendu, eta borondatearekin: eta gure gorputzeko sentidu guziakin, mingañoarekin, belarriakin, begiakin, sudurrakin, eta eskuetako, eta gorputzeko ukitzearekin: 2. eta ortik kontu atera bear degu, zein gauza bearra, premiazkoa edo

obligaziozkoa dan gure anima, eta gorputza, Jaungoikoari emanak, eta konsagratuak bezela, garbiro gordetzea, eta Jaungoikoaren serbizioan enpleatzea: eta zein gauza iguigarria, eta nazkagarria dan, Jaungoikoak berak eragotzi dizkigun, eta abere edo animalien antzekoak egiten gaituen aragiaren loikerietan, gure gogoa ipintea: eta gorputzeko atsegin zikiñak gure sentidu guziakin billatzea. Aditurik daukezue, nola desordena andia au sortu zao pekatu orijinaletik: nola ko kalte izugarriak dakazkigun loikeriako griña gaizto onek, menderatzeko edo goitzeko alegiñak egiten ezpaditugu: noiz, eta nola loikeriako pensamentu zikiñak pekatu diran: oriek nundik sortu oi diran: eta nola ko alegiñak egin bear diran oriei biderik ez emateko: eta orrela pensamentuetan garbiak, eta kastoak izateko dotriña santuak erakusten digun bezela. Baña oraiñ, dotrinari berari narraiola, esan bear dizuet, nola izan bear degun garbiak, eta kastoak hitzetan, eta obretan. Eta ori obeto aditzera emateko, gorputzaren bost sentiduak garbiro gorputzeko premia: eta oriekin egin oi diran pekatuak aitatuko dizuet: eta baita sei garren mandamentu santu onen kontra egiten diran pekatuak nola examiñatu erakutsiko dizuet. Jaungoi-

koak arren digula bear dan garbitasunarekin eta probetxuarekin esateko grazia.

G. Eta 1. nola izango gera garbiak, eta kastoak hitzetan edo mingañean? **E.** Loikeriari dagozkan hizketa edo konbersaziorik batere egiten ezteguna, batez ere aditzen dagoanagan pensamentu edo gogorazio likitsik sortzeko izan ditekean moduan: bada orretarako gai diran hitz loi zikiñak esatea berez izan oi da pekatu mortala: 1. zerren esaleak berak bere barruan daukan atsegin loi zikiña agertzen duen, 2. zerren aditzen dagoanari eskandalo ematen dion: edo atsegin loi zikiñarekin orretako bidea ematen dion. Eta 3. zerren artarako asmo gaiztorik ez izan arren, (eta ori da askoren aitzaki alperra) jakin bear zuen, alako hitz loi zikiñakin aditzalleak ekarri zitzakeala pensamentu gaiztoak egitera, eta lujuriako suan erretzera; eta emendik kontu atera bear due ipui zikiñak esaten dituenak: kopla edo berso loiak, lujuriako pensamentu likitsak sortzeko gai diranak egiten, kantatzen, eta publikatzen dituztenak: eta kariñozko hitz leun, samur, ezta dariela dirudienak, baña izurri gaizto baten pare diranak, alkarri esan oi dizten mulillak, eta neskatxak edo gizonak edo emakumeak, zenbat pekatu mortal egin oi dituzten eren hitz zikiñakin. Baña

askok esango dezue; guk esaten ditugun alegeranza-ko hitzak, zerbait ariñak, eta atsegingarriak izan arren, eztira ain loiak, zikiñak, eta itxusiak: eta eztitugu pekatutzat ere artzen; zerren asmo gaizto bage, esaten ditugun. Ezta erraz orrelako hitz ariñ, jostatze-ko edo dibertitzeko esaten diran orien gaiztotasun edo malizia neurtzen: eta noiz diran pekatu mortalak, eta noiz ez deklaritzen; bada aldi batzuetan izan ditezke pekaturako biderik iñori eman bage: baña beste aldi batzuetan artarako gai izan ditezke; eta ori da txit kontuan eduki bear dana; hitz lizunakin, eta alegran-zazko edo atsegiñezko esan ariñakin zuen biotzak edo besterenak ez loitzeko edo zikintzeko; bada orrelako hitz ariñ, jostatze-ko esaten diranen artean badira batzuek, sentidu bi dituenak edo alde bitara jokutzen duenak: eta disimulazioarekin beneno andia biotzetan sartzen duenak: eta orien malizia askotan, txit itxusie-na baño andiagoa, eta kaltegarriagoa da: zerren suzko saeta baten gisa barrurago sartzen dira: sarri gogora etorten dira: eta gogorazio, eta pensamentu zikiñak eragiten dituzte: eta zenbat esalea persona jakinsuagoa, eta errespetagarriagoa dan, anbat eskandalo andiagora ematen due, eta kalte geiago egiten due.

G. Eta hitz loiak esateabezela, oriek aditzen ego-
tea pekatu da? **E.** Ori hitz zikiñak aditzeko modutik
ezagutzen da pekatu dan edo ez: murmurazioarekin
gertatzen dana bera, hitzkuntza zikiñakin gertatzen
da. 1. Gustoz aditzen badago, pekatu egiten du. 2.
Konbersazio zikiña aurreratzen badu, pekatu andia-
goa egiten du. 3. Orrelako hitz loiak eragozteko obli-
gazioa daukana, nola gurasoa, nagusi edo etxeoan-
dre edo beste edozein agintari, gustoz aditzen bada-
go: eta baita, ez atsegiñik artu arren, eragozten ezpa-
du, pekatu agitz andiagoa egiten du. Baña orrelako
obligatorik ezpadauka: eta berak biderik ematen
ezpadu: eta atsegin gaiztorik artzen ezpadu, pekatu-
rik egiten eztu: eta orrelako aldietan Kristau onak egin
bear duena da, aurpegiko illuntasun puska bat eraku-
tsi edo konbersazioa beste gai batera itzuli edo alda-
tu eragin: eta txit asko irabaziko du.

G. Eta hitz zikin likitsakin bezela, begiratze utsare-
kin ere pekatu egiten da kastidade santuaren kontra?
E. Bai: eta ez gutxitan: batez ere berariaz ikusi bear
eztiran gauza zikin lotsakizunai begiratzen jarten
bada: zerren begien ondoren bereala dator gogorazio
zikiña: aragiaren griña gaiztoa: eta gurari likitsa: eta
argatik orrelako begiratze borondatezkoak pekatu

mortalak izan oi dira: baña ustez uste bage ikustea gertatzen bazaio, eta bereala begiak beste aldera jiratzeko alegiña egiten badu: eta baita tentazioari atzera egiteko ere, orduan pekaturik batere eztago, eta bai merezimendua.

G. Eta gauza zikin lotsakizunak ikustea edo begiratzea bezela, emakumeai aurpegira begiratzea pekatu da? **E.** Nolako asmoarekin eta motiboarekin begiratzten zaien: ala izango da edo ezta pekatu izango. 1. Arintasunez, eta kuriosidadez bakarrik begiratzten bazaie, motibo gaizto bage, pekatu beniala izango da. 2. Gogo zikin likitsarekin begiratzten bazaie, pekatu mortala izango da. Eta 3. motibo onakin, alkarrekin hitz egin, eta tratatu bear duelako, begiratzten bazaie, pekaturik batere eztago: baña premia egiazko bage sarritxo, eta astiro emakumeai aurpegira begira egotea: eta aekin alperrik hitz egiten luzaro egotea da tentazio zikin askoren pizgarria, eta arrisku andia: eta erori nai eztuenak, kontuz eskusatu bear duena: eta orrezaz Espiritu Santuak berak abisatzen gaitu: eta argatik Job Santuak bere begiak konzierto edo tratu egiñik zeukan birjiña edo donzellarik bere gogora edo memoriara ez ekarteko: ara ze, ikusten jarri ezkerro, pensamentu zikiñak burura etortea ezin eskusatu

zuela: eta Dabid Errege Santua, zergatik uste dezue adulteriora, eta ainbeste pekatu aren ondoren egitera etorri zala? bada guzia izan zan, zergatik bere burua garbitzen zegoan Betsabe ederrari begira jarri zan: eta tentazio zikiñari bere biotzean leku eman zion.

G. Eta peligrozko begiradak berariaz egitea bezela pekatu da artarako bidea iñori ematea? **E.** Nola ere dan pekatu: eta ala 1. estalirik egon bear duen lotsakizunak berariaz agertzea edo erakustea edo emakumeak gizakumeari: edo gizakumeak emakumeari pekatu mortala da. 2. Persona larriak igeri ibiltea gizakumeak emakumeari edo emakumeak gizakumeari begiratu, eta ikusi ditzaken tokietan da pekatu mortala: bada artarako bidea edo okasio guztiz andia ematen due. 3. Lisiba jotzen leku nabarbenetan izterrak ageri dituela egoten diran emakume lotsabageak pekatu mortal egiten due. 4. Bularrak berariaz agerturik darabiltzen emakumeak, gizonak ikusi ditzaken moduan, eskuarkiro pekatu mortala egiten due. Eta 5. berariazko eztagozkien apaindurak edo edergarriak billatzen dituen emakumeak gizakumen amorio itxua edo aragizkoa bereganatzeko, eskuarkiro pekatu mortalean bizi dira: baña arintasunez edo banidadez bakarrik beste fin edo motibo gaizto bage, ederkiro

janzitzea da berez pekatu beniala: beste ondorengo edo kalte gaiztorik ezpadakar: askotan ekarri oi duen bezela: bada banidade orrek gastu alper asko eragiten ditu: eta obligazioai kobru ematea askotan eragozten du: eta orduan pekatu mortala da: baña askok ori eztue ezagutzen eren kulpaz, zerren edo arrotasunak, eta banidadeak, edo eren edo besteren begiai atsegin eman naiak itxutzen ditu: eta ondorengo kalteai begiratu nai ez tie: eta bearbada erremediorik eztagonean ezagutuko due: baña gakizkon orain gure lanari.

G. Mingañarekin, belarriakin, eta begiakin ezeze, sudurrakin edo usai gozoakin ere pekaturik egiten da kastidade santuaren kontra? **E.** Bai: batez ere berariaz usai gozoak berekin badarabiltza, besteren amorio erabagea bereganatzeko: baña bestela usai onzalea izatea ezta pekatu: eta ergelkeriz edo banidadez usatzen baditu, pekatu benial baizik ezta: eta batere pekaturik egiten ez tu, berak duen usai gaiztoa estaltzeko edo gutxitzeko usai onak badarabiltza: eta Zizeron jakinsuak emakumeakgatik dio; kanpoko usairik ez erabiltea dala berezko usai ona duelako señailea.

G. Eta ezin sentidurekin geiena kastidadea galtzen da, eta pekatu mortal egiten da? **E.** Aragizko ukitze

edo tokamentuakin: au da, bostgarren sentiduarekin: auxe da guzien artean arriskurik edo peligrorik andiena dakarrena: eta argatik geiena, eta kontuzena gorde bear dana: bada hitz loiak, eta begirauna utsak urrutitik pekatura mugitzen due: baña ukitze zikiñak bereala sua piztutzen edo irazekitzen due.

G. Eta ukitze edo tokamentu zikiñak zer pekatu dira? **E.** Aragiaren atsegintasunarekin ezagueraz, eta borondatez egiten badira beti dira pekatu mortalak: eta ala izan oi dira, ez bakarrik ondoren ekarri ditzaiken obrazko pekatu osatuak: baita artaraño ez eldu arren, beste ukitze likitsak, nola diran aragizko atseginaekin musu edo laztan emateak; eskuetan, oñetan, besoetan, bularretan edo beste tokietan gusto zikiña-rekin ukitzeak: bada eren barruko gogo likitsa, eta biotz galdua, lujuriaz loitua kanpora orrela agertzen due: baña gusto zikin bage premiarekin gertatu oi diran: alkar ukitzeak, laguntasun bat edo beste egiteko eztira pekatu.

G. Eta alkar ukitzea, nola eskuak ematea, musu edo laztan bat ematea, adiskidetasunaren edo poz edo kontentu andi baten señalean pekatu ote da? **E.** Asmo gaizto bage, eta peligro bage, kariño natural baten señalean ongi-etorri batean edo despedida

batean ezta pekatu: baña dakarren peligroagatik obe da beti eskusatu, batez ere musu edo laztan ematea: bada orrelako usadiorik emengo Kristandade garbi onetan ikusi oi ezta.

G. Eta ukitze loi zikiñak iñori egitea bezela, oriek besteri egiten uztea pekatu da? **E.** Nola ere dan pekatu: eta berez mortala; baldin bere borondatez loikiro ukitzen uzten badio: baña igui badu, eta bereala aparta eragiteko egiazko alegiñak egiten baditu pekaturik eztago bere gogoaren kontra iñork ukitze zikiñik egin arren: baña farretxo egiñaz geldi badago, eta atsegin artzen badu, pekatu mortal egiten du: eta ala kastidade santua barrutik, eta kanpotik gorde nai duenak, orrelako aldietan, bereala apartatu bear du tentatzalle zikiñagandik: eta bere iguitasuna erakutsi bear du aurpegiko illuntasunarekin eta baldin indarka loikeriara ekarri nai badu, bere indar guziarekin defenditu bear da: eta artako Jaungoikoari laguntasuna gogotik eskatu: eta beste erremediorik ezpadu, deadar egin, iges eragitero; bada bestela kulpadun izango da: eta argatik lege zarrean Jaungoikoak agindurik zeukan: iñork donzellaren bat indarka galtzen bazuen; begira zedilla, donzella ark otsegin edo deadar egin zuen: deadarrik egin bazuen; libre eman zezatela; eta aren

injuriatzallea arrika ill zerazela: eta deadarrik egin
ezpazuen, biak, kulpadunak bezela, arrika ill zitzatela:
eta orrelako arrisku andietan zer egin bear degun, txit
ederki erakutsi ziguen, Eskritura Santak, aitatzen
dituan Jose justu, eta kastoaren, eta Susana ezkondu
santa baten exenploak: bada Jose kastoak, bere etxe-
koandre arzaz itxutuak pekatu eragin nai izan zio-
nean: eta artako soñean zuen kapatik eldu zionean,
kapea larga, eta iges egin zion: eta Santa Susanak,
Juduen Juez ziran agure lujurioso bik bakarrik eratu
zuen, eta pekatu agitz tentatu zuen batean; bestela
bizia kendu eragingo ziobelako bildurtu bazuen ere,
gogortu zitzaien, eta naiago izan zuen bizia galdu,
ezenez aei gusto eman, eta Jaungoikoa ofenditu: eta
orra guziok segitu bear degun exenploa.

G. Eta seigarrengo mandamentu santu onen kon-
trako beste pekatu mota guziak emen banaka, eta dis-
tinzioarekin aitatu bear ote ditugu? **E.** Eztizuet oriek
banaka, gertatzen diran moduan esango: bada Kristau
on askoren belarriak ofendituko ginduzke. Baña ala
ere kastidatearen kontrako pekatuak egin dituenak,
eta batez ere lujuriako bizio zikin onetan nasturik
egon diranak: eta konfesio on baten bitartez, pekatu-
tik eren buruak libratu, eta aurrera bizitza garbi on bat

egin nai duenak, jakin dezen, nola eren pekatuak examinatu, gogora ekarri, eta ondo konfesatu, orretarako Aita Agustin Kardaberasek, Probinzia onetan, eta Bizkaian luzaro zelo miragarri batekin misioak egin zituan misionero fama andikoak, eta birtute andiagokoak egin zuen, Aita San Ignazio Loiolakoaren exerzioen gañeko, euskerazko liburu preziatu batean dakarren gai onetan examinatzeko modua emen aditzera emango dizuet: eta orrela premiazkoa bezin nekeza dan mandamentu santu onen explikazioa bukatuko det.

Seigarren, eta bederatzigarren mandamentuan

«Emen begiratu bear dezu, zer pekatu egin dituzun pensamentuz, hitzez, eskuka, ibilleraz, eta obraz: eta zer personakin edo zer estadutakoakin: eta zenbat bider, gutxi gora bera.

»Esan bear diran estaduak dira 1. libreak edo ezkongaiak ziran. 2. Ezkonduak edo katibu zeudenak. 3. Jaungoikoari konsagratuak: 4. zure aideak laugarren graduraño: (edo bestearen, zeñarekin pekatu egin dezun, bigarren graduraño.) Eta ezkondua bazera, zure gizon edo andrearen aide zan, eta au lauga-

rren graduraño. Besterekin pekatu egin ezkerro, oiek dira esan bear diran estaduak».

Eta emen bidez esaten dizuet, konfesioan eztezuela esan bear zuen pekatu lagunaren izena: edo norekin pekatu egin zenduen: baizik bakarrik zer estadutakoa zan, orain esan degun bezela: eta baldin orrela bakarrik esanda ere, zure konfesoreak, guziok ezagutzen zaituelako, zure pekatua ezeze, besterena ere bereala ezagutuko badu: premia esturik ezpadezu, konfesore ezagun orrekin konfesatzeko; zu, eta zure pekatuko laguna ezagutzen etzaituen konfesore bat billatzeko alegiñak egin bear dituzu; zerea ezeze besteren pekatua ezagutu eragin eztezazun: baña konfesatzeko premian bazaude, eta konfesore ezaguna baizik ezpadezu, pekatuko lagunaren estadia esan bear dezu; bada zere konfesioa osoro egiteko premia andiagoa da; bestearen pekatua konfesioko sekretoan esan bage uztea baño.

«Pekatu guzietan zure estadia ere esan bear dezu: libre ziñela zenbat: ezkondu ezkerro zenbat: pekaturik ez egiteko botoa edo juramentua egin ezkerro, zenbat: eta baita leku sagraduan onelako pekaturik egin dezun.

»Pensamentu loielan atsegin artu dezun: edo eza-gutu ezker, zure artean atsegin artzen egon zeran.

»Gogoz edo deseoz orretan konsentitu dezun: zere barruan esanaz: nik onelako gauza edo gustu egingo nuke urliarekin.

»Pekaturako iñor billatu edo tentatu dezun: ixill mandatu, erregalo, billete edo bestezaz baliatzen zerala.

»Orrelako bide edo pausoetan iñori lagundu diozun: edo pekatuen estalki edo infernuko mandatari izan zeran.

»Hitz deshonestorik, esan dezun, zeurk atsegin artzen dezula edo besteri erazotzen diozula: eta anbat da kontu zikiñik kontatu, kanta edo danza edo karta torperik egitea, koplarik eskribitu, bidaldu, artu edo irakurri dezun, etc.

»Pekatu egiñaz iñoren aurrean zere burua alabatu dezun: edo orrela bere pekatuaz alabatzeko iñori biderik eman diozun.

»Pekaturik asmatu edo egin bazinduz bezela kontatu dituzun.

»Pekatu ez egiñaz damutu zatzun: eta zenbat bider gutxi gora hera.

»Obrazko pekatu, eta orien okasioaz kanpora, begirada, torpe, eskuka, musuka edo ibillera orrelakorik izan dezun; personen estadua: eta zenbat bider, gutxi gora bera.

»Zere buruarekin, pekatu itxusirik, anima, eta gorputza loituaz egin dezun: (kontuan daudenak onenbesterekin aditu dezake) eta onelako torpezetan edo likiskerietan zure gogoan iñor zeneukan: zer estadutakoa, eta zenbat bider edo zenbat denporan oitura edo kostunbre ori eduki dezun.

»Ametsetan orrelakorik edukitzea deseatu dezun: edo ametsetan orrela idukiaz, gero atsegín artu dezun: baña bestela amets gaiztoetan berez pekatu-rik ezta.

»Beste bitartekoz iñor pekatu-erakarteko baliatu zeran edo iñoren adiskidetasun zikiña aurrera eramateko.

»Pekatu-erakarteko ez izateko ezer egin duen: edo aurren bat berea duela jakin, eta ukatu, eta galtzen utzi duen.

»Ezkontzeko hitz gezurrezkoaz edo bestela pekatu-erakarteko iñor engañatu dezun; edo naita nai ez pekatu-erakarteko eragin edo donzellarik orrela galdu dezun.

»Ezkonduak ezkontzaren zor santua, motibo egiazko bage edo gaitzez alkarri ukatu dioten: edo bestela matrimonioko sakramentuaren kontra ezer egin duen.

»Bestela mutillak mutillakin edo ikusi edo eragiñaz: edo gizonak alkarrekin: neskatxak edo andreak andreakin, Sodomako pekatari galduen gisa, egin dituzten nazkagarritzko gauzak; eta are geiago abereakin orrela egiñak eztira aztuko: erak lanik, kezkarik, eta aranzarik asko bakoitzari biotzean, ondo konfesatu artean, emango diote».

Eta orra, N.K., loikeriako pekatuak ezagutzeko, eta examiñatzeko argirik asko: eta ala ere dudarik badezue, konfessoreari garbiro galdetu bear diozue: eta orain pekatari batzuen konsuelorako emen esan bear det: seigarren mandamentuaren kontrako pekatuak, izan ditezkean andienak, itxusienak, nazkagarrienak badira ere, nola diran zure alderik urkoenakin edo gertukoenakin egiñak: naiz zure aita edo ama seme edo alaba edo zure senideakin egiñak: naiz abereakin egin badituzu ere; zure pekatu oriek eztirala herejiako pekatuak: eta egiaz damuturik, eta ondo konfesatzeko prestaturik bazaude, aprobaturik dagoan edozein

konfesorek, bulda badezu, pozik absolbituko zaitu: eta ezin iñola ere salatuko zaitu, artako ill nai balue ere.

Baña azkenik, naiz pekatariak, gai onetan izan bazerate, eta naiz ez: kastidade santua benetan gorde nai badezue: eta, zuen animak, eta gorputzak betiko salbatu; iru gauza batez ere bear dituzue: 1. humiltasuna: au da, zuen argaltasuna; eta pasio zikiñaren indarra ondo ezagutu; eta ez iñola ere zuen indarretan fiatu, eta beti peligrotik alde egin. 2. Da orazio humilla tentazioari bereala atzera egiteko, eta sarrerarik biotzean ez emateko. Eta 3. da gorputzeko sentiduak txit kontuz gordetzea; eta mortitikatzea. Jaungoikoak eman digula orretarako bere grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

OGEITA ZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Zazpigarren mandamentu santuak
eragozten dituan lapurretaen gañean.*

Zazpigarren mandamentu santuak eragozten dituan lapurretaen gañean hitz egiten abiatu bear degu: eta oraingo aldian esango dizuet, 1. zein iguigarria, eta lotsagarria dan lapurreta: eta 2. noiz dan pekatu mortala, eta noiz beniala: eta lapurreta, txikiak dirudienak ere, eskusatu bear ditugula, dakatzen ondorengo izugarriakgatik.

Jaungoikoaren legeko zazpigarren mandamentu santua da ez ostutzea. Eta zer agintzen da mandamentu onetan? Ez kentzea, ez edukitzea, eta ez nai izatea besteren gauzarik jabearen borondatearen kontra.

G. Eta nork egiten du pekatu mandamentu onen kontra? **E.** Besteri ezer kentzen dionak edo kalteren bat arrazoi bage egiten dionak: eta kalte egiteko bidea edo motiboa besteri ematen dionak.

G. Eta ostu zuenak edo kalte egin edo eragin zuenak aako izango du bere pekatua konfesatzea, barkazioa iristeko? **E.** Ez zor duena pagatzen ezpadu edo gutxianez al dueneraño.

G. Eta ezin pagatu duenak, zer egingo du? **E.** Bere aldetik danez, alegiña egin, pagatzeko era edo modua izateko.

Ona, N.K. mandamentu bat, gure Jaungoikoaren zuzentasuna, eta probidenzia miragarria alde batetik: eta bestetik gizonari dion amorioa txit argiro erakusten diguna: bada ez bakarrik gizonaren bizia, eta honra; baita ere gizonaren ondasunak bere kuidadua-
ren azpian artu ditu: eta bakoitzari berea gordetzea, eta iñori kalterik ez egitea, betiko pena, eta kondena-
zioaren azpian agintzen digu. Zer pakea munduan!
mandamentu santu au guziok ondo gordeko bagendu.

G. Zergatik bada gizonak mandamentu bat ain zuzena, eta aiñ justua aiñ erraz ausitzen due? **E.** 1. Zergatik Jaungoikoaren legeari ezeze, arrazoiaren beraren argiari begiratu nai eztioben: eztue konside-
ratu nai, erendako nai eztuen gauzarik edo gaitzik besteri ez egitea, legerik batere ezpaliz ere, arrazoiak berak txiki, eta andi, jakinsu, eta jakiñezai txit argiro erakusten diela: eta argatik lapurretak berez dakar

añ lotsa andia: eta lapur egiazkoa izan arren lapur ixilla edo sekretoa bada, deshonra, eta infamia anditzat dauka lapurra dala esaten badiozue: eta ala 2. mandamentu santu au ausitzeko griña gaiztoa, eta erraztasuna dator abariziak edo gutizia erabageak dakarren itxumen arrigarritik: eta itxumen ori dator, gure zoriona, naiz zuzen, naiz oker, gero betiko zorioneko bizitzaren zai egon bage, bertatik mundu onetan gozatzeko leia, griña edo ansia erabagetik: eztegu biziro pensatu nai denporaren, eta eternidadearen artean dagoan kabubageko diferenzia, eta gure egiazko zoriona dagoala, orain ondo bizi, eta gero betiko Zeruan: nai genduke munduan paradisia: edo beinzat erara, eta neke bage orain bizi, eta gerokoaz, ikusten eztanaz, etorkizunaz, fedeak erakusten digunaz kasorik egiten eztegu: eta orra gaitz guztien sustraia: eta orra batez ere abariziaren, eta orrek dakatzen lapurreta mota guzien iturburu pozoatua. Izan gaitezen, eta bizi gaitezen Kristau onak bezela: au da, Jesu-Kristoren egiazko jarraitzalleak bezela billa dezagun lenena Zeruko Erreinua, eta bear degunik faltako etzaku: amatu dezagun gure Jaungoikoa gauza guziak baño geiago: eta gure projimoa gere buruak bezela: eta iñori ezertan kalterik egingo eztiogu: eta naiagoko

degu, geuri besteak egitea, iñori geure egitea baño: eta orrela txit urruti egongo gera mandamentu santu au ausitzetik edo urratzetik.

Baña munduko askoren itxumena argitzeko 1. gal-
detzen det; Zer eragozten digu mandamentu santu
onek? Iñori ezer kentzea jabearen borondate justua-
ren kontra.

G. Eta zenbat modutan kendu oi zaio besteri
berrea? **E.** Modu bitan: 1. ixillik edo sekretoan, jabeak
eztakiala; eta orri deitzen diogu ostutzea. Eta 2. da
agerian, nabarbenkiro, eta indarrez kentzea, jabeak
berak dakusela; eta orri deitzen diogu, arrapatzea,
eskuetatik kentzea: eta ori da berez pekatu andiagoo;
bada ondasunean ezeze, personan ere injuria, eta kal-
tea egiten zaio: eta au da konfesioan agertu bear dan
zirkunstantzia.

G. Eta jabeak, nai ez izan arren edo igui izan arren,
bidezki edo motibo arrazoizkoarekin ezer kentzen
bazaio, pekatu izango ote da? **E.** Ez: eta ala ero bati,
ordi bati, kolera bizian dagoan bati, gaitz egiteko dau-
kan edo ezpata edo makilla kentzea ezta pekatu:
zerren aren iguitasuna edo ez nai izatea da arrazoi
bagea: eta orobat bizia konserbatzeko diña premia
estremoan kentzea ezta pekatu: beste biderik ezpadu:

bada daukanak emateko obligazioa dauka, bera premia artan bertan ezpadago: baña, kendu bage eskatuaz edo bestela erremediatu baditeke, ezin ostu dezake.

G. Eta ostutzea edo arrapatzea zer pekatu da? **E.** Berez da pekatu mortala; zerren dan justiziaren, eta karidadearen kontra: baña izan diteke pekatu beniala, gai arin bat kentzen bada, eta kalte txiki bat baizik egiten ezpada, edo jakineztasunaz edo ignoranziaz, kulpa andi bage, uste badu, artu duen kantidadea edo egin duen kaltea larria edo pisua eztala; eta kezkarik badu konfesioan garbiri esan bear du, zenbat ostu zuen: zenbat aldiz ostu zuen: eta nolako ustean ostu zuen: eta baita esan bear du gauza sagradurik edo leku sagraduan ostu bazuen; bada orduan justiziaren kontra ezeze, errelijioko birtutearen kontra sakrilejio-ko pekatua egiten du: eta ala amarrenak edo primiziak ostutzen dituenak alde bitatik pekatu egiten due.

G. Eta zenbaterañoiko kantidadea edo gaia ostutzea da berez pekatu mortala? **E.** Ori erabatera neur-tzen lanik asko dago: doktore edo erakusle batzuek diobe, lau erreal edo oen balioa edozeñi ostutzea pekatu mortala dala: zerren berez alde oetan kantida-de andia dala uste due: baña eskuarkiro jakinsuenak

erakusten due, lapurretaren anditasuna, larritasuna edo pisutasuna edo grabedadea neurtzen dala, egiten dan kaltetik edo dañutik: eta ala kantidade berdiña kendu arren, pobre bati kalte andiagoa egiten zaio, aberats bati baño: (diru gutxi dan denporan kalte andiagoa egiten da, dirua ugari dabillenean baño:) eta kalte ori berez andia, eta pisua dala erakusten due, egun batean persona batek bere premiazko jatorduak egiteko diña kentzen bazaio; eta nola pobreak gastu gutxiagorekin eguna igarotzen duen, aberatsak baño, orregatik bere nekearekin bizi dan nekazari pobre bati edo beste ofiziale edo arotz, argin edo alako bati, erreal bi kentzea izan litekeala pekatu mortala: eta orobat eskean doi-doia bizitzeko billatzen duenari erreal bat kentzea edo ostutzea izan ditekeala pekatu mortala: eta kalteari bakarrik begiratzen zaiola, orobat da berez pekatu mortala; jostun bati, bearra egiteko nai ta ez bear duen jostorrotza kentzea: edo eskribau bati, bere premiazko lana egiteko edo plumak edo tinteroa edo papera kentzea: bada galdu eragiten zaie mantenatzeko bear duen irabazia, eta kalte andia egiten zaie.

G. Eta aberatsai zerbait ostutzen zaienean, zenbaterañokoa izango da berez pekatu mortala? **E.** Ori ere

ezin erraz neurtu diteke: zerren aberatsen artean diferentzia guztiz andia dago: baña ala ere eskuarkiro doktoreak erakusten due Erregeri edo Prinzipe, eta grande edo anditsu guztiz aberatsai amar edo amabi erreal ostutzea pekatu mortala, eta gutxiago ostutzea pekatu beniala dala: aek bezin aberats eztiran aen ondorengoai sei edo zortzi erreal gutxi gora bera ostutzea pekatu mortala dala, eta gutxiago beniala: eta bestelako kaballero, aziendadun, eta merkatari zer-bait erara bizi diranai lau erreal, gutxi gora bera, kentzea, pekatu mortala dala, eta gutxiago beniala: baña nola azkeneko oen artean ere diferentzia guztiz andia arkitzen dan, ezta erraz señalatzea, noiz kalte andia egiten zaien, eta noiz ariña, edo txikia: eta argatik gauza askori begiratu bear zaio lapurretako pekatua-ren larritasuna, pisutasuna edo grabedadea ondo juzgatzeko: eta batez ere kontuan eduki bear da, gauzea ostu duenaren asmo edo intenzioa, premia edo nezesidadea: eta bere artean eman juizio edo iritzia: eta ostu zaionaren ondasunak, jenio, kondizio edo naturala: eta ematen zaion estutasuna, eta naigabea: bada askotan gutxi balio duen gauza bat ostuarekin, erabageko juizio edo juzko asko eragiten dira: birau edo maldizioak erasaten dira: eta kulparik eztuenari asko-

tan egozten zaio: eta agertzen danean, norik ostu-
zuen, au gelditu oi da jende artean fama txar batekin:
eta gero edozein lapurreta gertatu dedilla, bere kon-
tra juizioak, errezelo edo sospetxa gaiztoak eragiten
ditu: eta ala uste baño kalte geiago dakazki, txikia
dirudian lapurreta batek ere: eta argatik Jaungoikoa-
ren bildur piska bat, eta bere salbazioaren, eta baita
bere estimazio, eta honraren deseoa daukan Kris-
tauak, lapurreta andiak ezeze, txikiak ere txit eskusa-
tu bear ditu: bada oetara oitu ezkeru andiak ere erraz
egingo ditu.

G. Eta aldiko gauza arin edo gutxi bat baizik ostu-
tzen ezpadu, pekatu mortalik egiten ote du? **E.** Baldin
lapurreta txikiak egiten dituanean, aurrera ere al
badu, segitzeko, eta kantidadere andira edo grabera
eldutzeko asmo edo intenzioarekin egiten baditu,
pekatu mortala egiten du; zerren gauza larri, pisu edo
andia al badu, ostutzeko borondatea daukan: eta oro-
bat, alako asmorik ez izan arren, lapurreta txikiak,
bata besteari erantsi edo juntatuta, kantidadere andira
eldu badira: arrezkeru pekatu mortala egiten du, lena-
gokoen ezaguera edo oarmenarekin egiten baditu;
bada kalte andia egitera apurka-apurka allegatzen da.

G. Eta zenbat modtuan izan oi dira lapurreta txikiak? **E.** Iru modutan: batzuek dira persona batek beste bati egiten diozkanean, nola mirabe batek bere nagusi edo etxeakoandreari egunoro gauza gutxi bat ostuaz: beste batzuek dira; askok bati egiten diozkatena: nola baratza, sagasti edo kastañari edo masti batean askok ostutzen duenean: eta beste batzuek dira: batek askori egiten diztenak: nola tabernari, ostalari edo saltzalleak, neurri edo pisu txikiakin egiten dituenak.

G. Eta askori apurka ostu, eta kantidadean andira eldu arren, bakoitzari kalte txikia baizik egiten ezpadio, pekatu mortalik egiten ote du? eta biurtzeko edo egin duen kaltea erremediatzeko obligazio estu larri edo graberik ote du? **E.** Bai pekatu mortala egiten du: eta biurtzeko edo itzultzeko obligazioa dauka: eta nola egin konfesoreak erakutsiko dio. Eta kontrara esatea, eta erakustea, Eliza Ama Santak kondenaturik dauka (Inocen. 11. propos. 38.) bada orretan komun guziari kalte andia egiten zaio.

G. Eta askori batek egiten dien lapurreta txikietan, zenbatera ezkerio izango da pekatu mortala? **E.** Ezin ori erraz erabaki liteke: erri andietan kantidadean andia goa bear da, pekatu mortal izateko, erri txikietan

baño: bada gutxiren artean nekezago jasotzen da kaltea askoren artean baño: eta lasterrago betetzen da pekatu mortalaren gaia; eta guziari begiratu, ta konfessoreak juizioa egingo du, noiz dan pekatu mortala.

G. Eta askok bati lapurreta txikiak egiten badioz-kate, alako moduan nun bakoitzak egiten duen kaltea pekatu ariña baizik eztan; baña guziak egiten duena gai andia, eta kalte andikoa dan, zer pekatu egiten due? **E.** Alkar arturik, eta alkarri laguntzen diobela orrelako lapurretak egiten dituenak, pekatu mortala egiten due: eta guztiak due obligazioa guztiaren errestituzioa egiteko: diot, daudela guziak obligaturik, guziaren errestituzioa egitera: ez bakarrik bakoitzak kendu duenarena; baita ere besteak kendu duenarena ere, besteak biurtu ezpadue: eta ori ezpadakie, jakiteko alegiña egin bear due: eta ezin jakin badue, eta dudatzen badue, egingo ote zuen besteak errestituzioa; egin bear due guziarena; besteai lapurretan lagundu zien ezkerro. Baña alkarren berri bage, eta laguntasun bage lapurreta txikiak edo ariñak egiten dituenak, pekatu benialak egiten ditue; beste ondo-rengo gaiztorik izateko motiborik ematen ezpadue.

G. Eta batetan bati lau erreal kentzea pekatu mortala danean; gutxi bat aldiko kentzen bazaio, zenbate-

ra ezkerro pekatu mortala izango da? **E.** Nola geiago sentitzen dan batetan egiten dan kalte edo dañua, apurka egiten dana baño; askok erakusten due, orduan sei edo zortzi errealen kantidadera, gutxi gora bera, gutxika allegatzen danean, izango dala gai edo materia grabea edo pisua, eta pekatu mortala.

G. Eta emazteak senarrari: eta seme edo alabak gurasoari, eta mirabeak edo serbitzariak nagusi edo etxeoandreak egin oi dizten lapurretaetan zenbatera ezkerro izango da pekatu mortala? **E.** Ori guzia erabakitzeko kabu askori begiratu bear zaie: banaka eran-zungo dizuet, eta 1. diot, emazteak motibo justu edo arrazoizko bage, senarraren borondatearen kontra, eta onen dispoziziora dauden gauzetatik kantidade andia kentzea berez pekatu mortala dala; baño kantidade ori noiz dan pekatu mortal izateko diña neurritzeko, begiratu bear da senarraren aberastasunari edo pobrezari: aren bizimoduari, eta kondizioari: eta aren iguitasunari edo borondateari: eta nola gauza oriek ezin emen zeoro señalatu ditezkean, orrelako kasoetan konfesatu bear da garbiro: eta konfesoreak guziari begiratu ta juizioa egingo du: 2. diot, familiaren premietarako edo onerako emazteak ixillik zerbait artzen badu: eta artan enpleatzen badu senarrak gas-

tatu bear zuena, eztuela errestituziorik egiteko obligazio-rik: eta bakarrik da kulpadun, bere senarra orretan naigabetu edo ofenditu duelako, ari konturik eman bage egin duelako. Eta 3. diot, orrelako aldietan, senarra zekena edo gutiziosoa dalako, eta bear dana opatu nai eztuelako, emazteak etxeko premietarako edo usatzen diran limosnak egiteko bear dana, etxeko gauzetatik ixillik artzen badu, eztuela pekaturik egi-ten. Eta 4. diot, senarra jokularia, ordia edo erabageko gastatzallea bada, emazteak ezkutatu dezakeala al duena, senarraren beraren onagatik, eta etxeko pre- miak erremediatzeko: baña 5. azkenik emaztea bera erabageko gastatzallea bada: jan, edanera geiegi emana: edo dagozkion baño apaindurazaleagoa, erraz itxutuko da, eta etxea ondatuagatik bere lapurrela erabageakin; guzirako arrazoia daukela iruituko zaio: eta bearbada konfesatuko ere ezta: eta pekatu morta- leko estaduan biziko, eta illko da: Jaungoikoak arren orrelakoak argitu ditzala, eta erremediatzeko grazia diela. Eta emazte guziak erabatera jakin bear due, esan ditugun motibo justurik eztuenean, eztuela eskualdirik senarraren borondatearen kontra, aei kontu eman bage etxeko gauzaz disponitzeko: bada senarra da emaztearen burua: eta senarrari dagokio,

eta ez emazteari etxeko agintea. Baña senarrak ere eztu nolanai etxeko gauzaz gaizki baliatzeko libertaderik: eta emazteari edo humeai dagozkien ondasunak, joku erabagetan, eta lizito eztiran gastu alperretan edo banidadetan, ondatzen baditu, pekatu mortal eginaz gañera, errestituzioa ere beretik egin bear die.

G. Eta semeak, eta alabak gurasoai ixillik egiten dien lapurretak pekatu dira? **E.** Bai: eta ori Eskritura santak ezeze, arrazoiak berak argiro erakusten due. Eta zenbatera ezkerorrelakoak egiten duen etxeko lapurreta izango da pekatu mortala? Beiñik bein doktoreak erabatera erakusten due, kantidade ori ezin erraz seinalatu ditekeala: eta kanpokoen lapurretarako baño kantidade andiagoa bear dala, berez humen lapurreta pekatu mortala izateko: zerren gurasoak askotan geiago sentitzen due kentzeko modua, gauzea bera baño, zerbait andia eztanean: eta ala batez ere begiratu bear zaio gurasoen pobrezari edo aberastasunari: artzen edo kentzen duen gaiari: ematen duen sentimentuari: egiten duen kalteari, eta datozen ondorengo gaiztoai, humen pekatuaren larritasuna edo grabedadea neurtzeko. Eta ori bera gutxi gora bera esan bear da etxeko mirabeak edo serbitzariak ixillik egin oi dituen lapurreta txikien gañean: eta

bakarrik orrez gañera diot, mirabe edo serbitzariak gai edo kantidade gutxiagorekin pekatu mortala egiten duela: zerren gurasoak humena baño, geiago sentitzen due nagusi-etxeakoandreak eren miraben pres-tuezkeria, eta legebagesuna: eta gauza txikiagoak aserra erazotzen ditue: eta naiz humeak, eta naiz mirabeak (gurasoak, eta nagusiak barkatu nai ezpadie) due obligazioa errestituzioa egiteko: eta eztie balio mirabe askori, ematen duen aitzakiak, ixillik etxeako gauzetatik ostutzeko: eta da, neke geiegi eragiten diela, eta soldata txikia ematen diela: eta ez-tuela beste modurik zor zaiena beretzeko, eren eskuz justizia egitea baizik: bada ezin ori egin dezake: eta ematen dien soldataz kontentu ezpadira, libre dira: eta beste nagusi bat billatu dezake: eta kontrara esatea, eta erakustea Eliza Ama Santak kondenaturik dauka. (Propos. 37.) bada erraz itxutzen gera guziok gere interesako gauzetan.

G. Eta batek bestegan artzeko ziertua, eta justua badauka, kantidade jakiñean: eta ezin kobratu badu, eskatuaz berari; eta are gutxiago justiziaz; zerren probatzeko erarik edo modurik ez-tuen edo orretan gei-ago gastatu bear duen, ixillik artu ote lezake zor zaion ainbe? **E.** Artzekoak balio duen baño kalte geiago egi-

ten ezpadio, eta ez berari, eta ez besteri lapurreta ura egiteko bildurrik ezpadu: edo bi bider pagaeragiteko bidea ematen ezpadio, ixillik artu lezake: baña nola kondizio oriek guziak nekez gorde oi diran: eta erraz bere gauzetan bat itxutzen dan, obe du konfesioan galdetu, zer egin bear duen: bada gure Jaungoikoak eztu nai iñori agrabiorik, kalterik edo bidegaberik egin dakion. Eta orregatik beragatik ain estu Zazpigarren Mandamentu santu onetan eragozten digu guzioi iñoren gauzarik kentzea, edukitzea edo nai izatea jabearen borondate bage: eta ori berez pekatu mortala, eta guztiz lotsagarria da, aditu dezuen bezela, ez bakarrik Jaungoikoaren begietan, baita munduaren begietan ere. Eta argatik lapurreta andiak ezeze, txikiak ere txit eskusatu bear ditugu. 1. Zerren askotan ezin ezagutu diteke ondo, noiz dan pekatu mortala, eta noiz ez. Eta 2. zerren gauza ariñak ostutzeka oitu ezkeru, andiak ostutzeko aldia edo okasioa datorrenean, oiturak berak goitzen du: eta pekatu andiak eragiten ditu, Judasi gertatu zitzaion bezela: Jesu-Kristoren Apostolua zan: Jesu-Kristori, eta Apostoluai egiten zien limosnak gordetzeko lana zuen: bolsero zan: eta gutxika-gutxika sisetzen edo ixillik beretzat gordetzen oitu zan: eta, badakizue, zenbateraño itxutu, eta gogortu

zan? Jesu-Kristo bere maisua bera ogeita hamar dirugatik bere etsaia saltzeraño: eta gero desesperaturik berak bere burua urkatu zuen, eta Infernura jatxi zan. Nor arrituko, eta bildurtuko ezta exenplo izugarri onekin? Eta azkenik lapurretak du beste ondorengo bat guztiz bildurgarria: eta txit asko Infernura eramantitua: eta da, ezin barkatua izatea, konfesatu arren, errestituzioa, al duela, egin bage: beste dotriña batean zeoro esango dizuedan bezela; lenago, urren-go aldian explikatuz ezker, mandamentu onen kontra egin oi diran pekatu mota diferenteak:

Eta orain bakarrik gauza bi biziro enkargatzen dizuet: 1. zeronzat nai eztezuen gaitzik iñori ez egitea: eta 2. Jaungoikoak ematen dizuenarekin kontentutua: eta zuenzat izango da, ondasun guziak dauzkan betiko gloria. Amen.

OGEITA BEDERATZIGARREN DOTRIÑA

*Zazpigarren mandamentuaren
kontrako pekatuen gañean.*

Zazpigarren mandamentu santuaren explikazioari narraiola, aditu dezuen ezkerreko aurreko dotriñan; iñori ezer kentzea edo ixillik edo indarrez zer pekatu dan: noiz dan mortala, eta noiz beniala: eta nolako kuida-
duarekin txikiak dirudien lapurretak ere eskusatu bear ditugun: orain aditzera emango dizkizuet eskuz iñori kendu bage ere, mandamentu onen kontra egin oi diran pekatu mota asko: oriek ezagutu ezkerre, itxumenez, ingnoranziaz edo maliziaz aurrera pekatu rik gai orietan egin eztezazuen.

G. Nor dira bada zazpigarren mandamentu santu au ausitzen duenak projimoari kalte egiñaz? **E.** 1. Ezti-
ra bakarrik edo ixillik edo nabarbenkiro besteren gauza eren eskuz artzen edo kentzen duenak: baita ere engañuarekin edo maliziarekin saldu-erosietan eren projimoari dañu, kalte edo bidegabe egiten dio-
ben guziak: eta ala egiazko lapurreta egiten due

gauza onaren lekuan, eto onaren prezioan gaiztaturik edo obendurik edo nasturik dagoan gauza ematen duenak: nola ganadu aitzakiduna: gari berotua edo serenak jorik dagoana: edo beste edozein gauza, naiz jateko edo edateko, naiz jantzitzeko dana: nola arda-ba urez nastua: gari ariña, eta pisu gutxikoa gari onaren lekuan, eta onaren prezioan: edo ojal erdi errea edo arrak jana: ojal onaren, eta fallta bagearen lekuan, eta prezioan. 2. Orobat dira lapurrak, pisuan, neurrian edo zenbatezkoan projimoa engañatzen duenak, eta kaltartzen duenak: eta gure Jaungoikoak Eskritura Santuan pisu, eta neurri falsoak guztiz ditu: eta orien kastigua guztiz andia señalatzen du. Eta orrelakoak errestituzioa egin bear due, salbatu nai badue. 3. Baita dira egiazko lapurrak, garia, eta beste edozein gauza gero kobratzeko, garestiago fiaturik saltzen duenak dirua eskuan danean baño: orregatik bakarrik korritzen duen preziorik andiena baño gorago saltzen badue: eta bakarrik eskusatu ditezke pekatutik, fiatzen duenak beste motibo bage kalte egiazkorik erai badatorkie; nola gertatuko lizatekean, besteari emateagagatik; gero berak garestiago beretzat erosi bear balu: orduan kalteak balio duen ainbe badaramake: baño erosleak jakiñaren gañean antxititik ontzat

daramala, bestela ez. 4. Baita lapurren lagunak dira, pobreak premiaz saltzen dituen gauzak naiz eskukoak, naiz gerokoak, balio duen baño merkeago erosten dituenak: eta ala pekatu egiten due, dirua aurreratzen duelako, urrengo agustuko gariak, balio duen baño, anegako onenbeste erreal gutxiagoan erosten dituenak: eta orrelako tratalariak errestituzioa egiteko premian daude, konfesoreak esango dien bezela: eta bakarrik bestearen erreguz dirua aurreratzen badie: eta diru orren faltaz kalterik badue: orri dagokana bakarrik prezioan bajatu eragin dezake: baña ez dirua alderrik eduki bear bazuen. Baña eztue pekatu egiten, aurrez geroko frutuak aseguratzen dituenak datozen orduan korritu oi duen prezioan gutxi gora bera ajustatzen dirala: bada orduan alde bietatik arrisku berdiña dago: eta kalterik egiten ezta. Eta arrisku onen desberdintasunagatik ezin saldu ditezke eskuarki neguko denporan gariak, eta artoak maiatzean edo garagar illean balioko duen prezioan: eta are gutxiago ill orietan egingo duen preziorik andienean: bada salsallea seguru dijoa, eta eroslea arrisku andian jarten da. Baña salsalleak maiatzerako gariak gordezteko asmo egiazkoa bazuen, eta besteak eskatzen badiozka: eman ditzake maiatzean egingo duen pre-

zioan, señalatzen duela ill artako aste bat edo merkatu bat: eta zerbait prezioa gutxitzen duela, bitartean eduki bear duen arriskuagatik, eta nekeagatik. 5. Orobat lapurretako pekatua egiten due besteren ignoranziaz edo jakiñeztasunaz edo pobrearen premiaz edo estutasunaz baliatzen dirala, gauzak balio duen baño agitz merkeago erosten dituenak: justu dan preziorik bajuenera eldu bage: bada pekatu da, prezio jakiñik edo tasa zierturik eztuen gauza, korritzen duen preziorik merkeena baño merkeago erostea: ala nola dan pekatu korritzen duen preziorik altuena baño gorago saltzea. Zerren prezioak badue eren muga edo zenbaitzkoa, gutxi gora bera: eta iru prezio mota Doktoreak señalatzen ditue saldu-erosietarako: kanaka saldu oi diran denda gauzetan batez ere bajuena, gorena, eta bien bitartekoa: eta eskuarkiro ejemplo onekin aditzera ematen due: preziorik bajuena bederatzi g.g. beradanean; gorena amaika: eta bien bitarteko amar: bada orduan bederatzi baño merkeago erostea: eta amaikan baño gorago saltzea pekatu dala erakusten due: eta ala egiten duenak, errestituzioa egiteko obligazioa duela: baño piezaka saltzen diran gauza balio soetan, señalatzen due bien bitarteko edo erdiko prezioa eun danean; bajuena larogeta amabost, eta gore-

na eun da bost, gutxi gora bera: eta tasarik eztanean, eta gutxi gora berako prezio korrienterik eztuen gauzetan ere: nola pinturak, Indietako egazti hiztunak, eta beste onelako gauzetan, eztago libertade osorik, erabageko gutziaz nai dan ainbe pagaeragiteko edo nai duen bezin merke erosteko: baizik orduan persona jakinsu, eta juizio ona duenaen iritzia artu, eta ari jarraio bear zaio, iñori kalterik egin bage; baña prezio gutxiko, jateko gauzetan, nola arraiak, eta fruta gauzak, aen balioa izan oi da plazako ugaritasunaz edo urritasunaz batera: eta saltzalle asko edo gutxi, eta erosle asko edo gutxi danez batera. Baña prezio askoren desberdintasuna, eta gora bera andia adituta juizio gaiztorik bereala egin eztezazuen, jakizue, ze merkatoriak, eta beste tratulariak, erabatera erosten dituen gauzak, naiz janzi gaiak, naiz jateko gaiak, saltzen dituela, kosta zatenaz gañera, beren ofizioagatik, eta nekeagatik dagokien saria edo irabazia kontu egiten duela: eta kantidade andi bat era onean edo zerbait merke erosi arren, ura bera gutxika saltzeko denpora asko, arazeri asko, arrisku asko, eta nekea ere artu bear duela: eta nola gauza oriek zuzentasun guziarekin neurritzea erraz eztan, argatik juizio gaiztorik bereala egin bear ezta: baña beste aldetik diot,

eze merkatariak, eta tratulariak al duen guzia irabazteko deseo erabagearekin itxutzen badira: eta Jaungoikoaren bildurrak atzeratzen ezpaditu: eta zenbateraino irabazi dezaken ondo pensatu bage; edo dakienai galdetu bage, eren saldu-erosiak egiten baditue, kondenatzeko arrisku edo perill guztiz andian daudela, erremediatzen ezpadira; eta baita, asko, eta asko errestituzioak egiteko premia andian ere; eta ezte balioko esateak, asko dirala, ala egiten duenak: eta eztuela uste orregatik kondenatuko dirala: bada usadio edo kostunbre gaiztoak eztu indarririk libre emateko Jaungoikoaren legeak kondenatzen duena.

G. Eta prezioaren erdirañoeko engañurik eztala, erosten edo saltzen badue, errestituziorik eginkizunik ote due? **E.** Munduko justiziak eztitu obligatuko, auziai lekurik ez emateagatik; baña Zeruko Juez soberanoak, guziaren berri ondo dakianak obligatzen ditu, prezioan justu danari faltatzen zaionean: bada bata bestea engañatzea, eta kaltartzea beti da pekatu, eta gai andian izan ezkeru, pekatu mortala, errestituzioa egiteko obligazioarekin. 6. Eta ala orobat pekatu egiten due, ez bakarrik baliu andia duen gauzak balio txikia duen gauzakin nasturik saltzen dituenak: eta guzia jenero bat baliz bezela preziorik andiena daramate-

nak: nola batzuek egin oi duen gari ona, eta ariñ oni nastuaz: iriña, eta zaia errotetan nastuaz: azrafrai purua, beste belar batzuekin nastuaz: eta orrela beste gai askotan: baita ere saldu nai dituen edo biurtu bear dituen gauzai, eztagokien pisua ematen dienak, bustiaz edo ezatuaz, geiago pisa dezen; nola tabako saltzalle batzuek egiten duen: baita eule batzuek ere egin oi duen kendu dituen arien pisua geitzeko edo berdintzeko: bada ori guzia lapurreta klaroa da: eta baita jakiñaren gañean diru falsoakin erosten edo pagatzen duenak pekatu egiten due: eta errestituzioa egin bear due: eta ez tie balio, erak ere engañatuak izan diralako aitzakiak: bada ezagutu ezkerro falsoak dirala, ezin iñor engañatu dezake: eta nork eman zien baldin badakie engañua desegin dezake: eta aurrerako orrelako diru falsoak markatu eragin bear dira edo ibai zoko batera bota, aurrera iñor ez engañatzeko. 7. Eta orobat dirade lapur lagunak, gauza ostuak jakiñaren gañean edo ostuak diralako errezelo andiarekin edo duda fundamentuzkoarekin erosten dituenak: eta norenak diran jakin ezkerro, due obligazio andia eren jabeari biurtzeko; baita eren dirua galduko badue ere: eta bakarrik, al badue, saldu zienagandik kobratu dezake: eta ostuak ziran edo ez duda andirik badue,

galdetu edo konsultatu bear due, zer egin bear duen jakiteko.

Eta azkenik lapurren antzekoak, eta lagunak dira, alkar arturik, salgai dauden gari, arto, eta beste gauzai prezioak maliziaz jaso eragiten dienak erak saltzeko dauzkatenean: edo maliziaz, eta gezurraz prezioak bajatu eragiten dituenak, erak erosi bear dituenen: bada orrelakoak zenbati, eta zenbaterañoiko kalte arri-garriak egiten dizten, ezin ponderatu liteke: eta ala ere abariziak edo kodizia gaiztoak itxutzen ditu: eta gaitz andirik egiten duenik ere uste eztaue.

G. Eta saldu-erosietan egin oi diranaz gañera beste lapurreta motarik ote da? **E.** Bai: eta guztiz asko dira bakoitzaren kargu, ofizio edo langaietan gertatzen diranak: baña dotriña labur batean ezin bear bezin zeoro edo banaka aditzera eman litezke. Ala ere batzuek aitatuko ditugu. Eta 1. pekatu egiten due, eta lapurrak bezela dira, soldata, eta jornal osoa artzen duenak, eta ari dagokan bearra edo lana egiten eztauen beargilleak, langiñak, eta serbitzariak: jabeak ikusten dituenen lanari ekin, baña begira eztaudenean, denpora asko hizketan edo alperrik igarotzen duenak: eta orrelakoak, edo jornaletik zerbait bajatu bear due edo bestela erremediatu bear due: batez ere

gutxika-gutxika dalarik ere, jabeari kalte andia egin badiobe: baña obraren jabe edo nagusiak ere pekatu egiten due, soldata edo jornal justua pagatzen ezpadie edo bereala pagatu bagez kalteak edo naigabeak erakarten badizte: eta pekatu oek Zerura deadar egiten due, Santiago Apostoluak esaten digunez. 2. Baita dira lapurrak, obrak egiteko nagusiak ematen dizten gaietatik edo aen ordenaz erosten dituenetatik zatiren batzuek isillik erenzat gordetzen dituenak; nola dendari edo jostunen batzuek egin oi duen: jabeak ezta-kiala, eta igui duela: edo merkeago erosi, eta gorago kontuan sartzan diztenak. 5. Orobat lapurretako pekatua egiten due, naiz arotziko edo argintzako edo naiz beste edozein ofizioko obra ajustatzeko denporan tranpiaz edo maliziaz justu dan baño askoz geiago daramatenak: eta baita obrak egiteko moduan edo ardurabagetasunez edo eren ofizioa ondo jakin bagez edo lasterregi egin naiez, obra falsoak egiten dituenak edo iraupen gutxikoak jabearen kaltearekin, beste aldetik pagua oso daramatela: eta oek guziok, eta oen antzeko beste asko errestituzioa egiteko obligazioarekin eskuarkiro arkitzen dira: eta betiko kondenatu nai ezpadira, konfesoreari galdetu bear diobe, zer moduz egin dituan kalteak erremediatu ditzaken.

G. Eta beste kargu edo ofizio publikoetan projimo-ari kalterik bere ondasunetan egiten etzaio, eta Mandamentu santu au ausitzen ezta? **E.** Bai, eta guztiz askotan: eta 1. Errietako agintariak, Justiziako Jaunak, eta beste kargudunak, obligazio guztiz andiak, eta estuak dauzkate, alegin guziak egiteko Erriko guzien dañu edo kalteak eskusaerazotzeko, eta eragozteko: eta al duen arreta, eta dilijenzia guzia egin bagez datozen kalte guziak eren gañ izango ditue: eta emendik ezagutu dezake 1. eskandalo publikoak, eta kalte-tsua erremediatu ditzakela, erremediatzeko dilijenzia eragilleak egin bagez, zenbat pekatu, eta zein kalte andiak datozen: eta zein kontu estua Jaungoikoa eskatuko dien. Ostatuetan edo tabernetan edo beste etxe jakiñetan egin oi diran diru joku erabageak, interesa andikoak geienetan tranpiaz, eta engañuaz, alkar arturik egiten diranak, zenbat pekatu, eta zein kalte andiak, eta lapurreta bideak dakazten, nork esan dezake? orobat alako tokietan egin oi diran erabageko, eta beranduko jan-edanak, eta ortik datozen ordikeriak, aserreak, eta familietako naigabeak, eta kalteak: eta lapurretarako okasioak, nork konta litza-ke? bada eri guzia eragozten eztuen edo bear bezela kastigatzen eztuen Alkate Jaunaren edo aren ordeko-

aren kontuan Jaungoikoak ipiñiko du: eta orobat beste edozein eskandalo: Eta zer izango lizate, gauza oriek eragozteko kargua duenak erak, jakin arren, ez ikusi egingo balue: edo onzat balerame? Eta are geiago, erak parte balue? Eta besteai eskandaloa emango badie? Eskandaloa ematen duen edozeñek, Jesu-Kristok Ebanjelio santuan dionez obe baluke, errota arri bat lepora lotu, eta itxasoaren ondora botatzea, zer mereziko du eskandaloak eragozteko, eta erremediatzeko obligazioa, eta kargu estua duenak berak, besteai eskandalo ematen badie? Nola erremediatuko ditue erakarri dituen kalteak, eta ez bakarrik espiritualak, baita denporalak ere? Baña orri larga, eta goazen aurrera: 2. Errietako agintariak, eta Justiziaren karguak dituenak, Mandamentu Santu au auzitzen due, eren ardurabagetasunez edo eren obligazioak ondo jakin bagez, edo dudatzen duenean, zer egin bear duen, dakienai galdetu bagez, komunari egiten zaizkan kalteak erremediatzen eztituenean: eta batez ere ori gertatzen da, pisuak, eta neurriak noizian bein examiñatu bagez, pisu edo neurri eskasakin, saltzeko: eta andiak erosteko tratulariak baliatzen diranean: eta ogiak, olioak, ardebak edo beste jateko edo edateko gauza bear duen pisua edo neurria eskasa duela

dakienean, komunari engañua eta kaltea egiten disimulatzen duenean: eta orobat balio duen baño edo dagokien baño garestiago saltzea permititzen badue: eta eztue balioko, kejarik eman eztielako aitzakiak, beste aldetik zer gertatzen dan badakie: bada eren karguak kontu artzera obligatzen ditu: eta 3. orobat dauke obligazio estua, al dueneraño, erriko probetxuak, eta kargak alik berdiñena, eta justuena erriko guzien artean partitzeko: eta pasioak, anditasunak, adiskidetasunak edo beste errespeto edo interesak itxutzen baditu; eta batzuai mesede, eta besteai kalte egiten badie. Orra pekatu asko egiteko bidea, eta errestituzioak egiteko ere gaia.

G. Eta auzilariak, eta orien juezak, eta Letradu edo Abogaduak, Eskribabak, eta oriei darraizten justiziako ministroak, mandamentu santu onen kontra pekaturik egiten ote due? **E.** Jaungoikoaren eta projimoaren amorio egiazkoa eren biotzetan ondo sarturik edo irmaturik daukenak, eztiobe iñori bidegaberik, kalterik edo agrabiorik, dakiela, egiten: baña pasioari, bende-kuari, gorrotoari, interesari, munduko errespetoari, eta anditsuen enpeñu, eta erregaloai begiratzen dienak: eta Jaungoikoaren bildur santuari lekurik ematen eztiobenak; txit erraz itxutzen dira: eta ezin kontatu

ala pekatu egin oi ditue, auzi injustuak sortuarekin: eta oriek irabazteko al dituen tranpia, eta engañuak egiñarekin: eta ezin emendik zeoro aditzera eman litezke. Eta gauza lotsagarri bat da, Kristauak, munduko ondasun guzien ezerezkeria, eta banidadea: oraingo bizitza triste onen laburtasuna: eta gutxiena uste duenean ill bearra: eta orri darraion eternidadea edo betikotasuna edo beti zorionekoa Zeruan edo beti zorigaiztokoa Infernuan, sinisten duenak: eta siniste orri edo fede orri ez faltatzeagatik edo ori ez ukatzeagatik bizia ematera obligaturik daudenak; ain kasu gutxi egitea edo aiñ gutxi estimatzea betiko ondasunak, eta ondasun laburrakgatik, ain ardurabage eren Jaungoikoa eta lagun projimoa ofenditzea: eta eren buruak betiko Infernura kondenatzea. A! Egia oek Kristauen biotzetan ondo sarturik baleude! Lapurretarik, eta injustiziarik batere egingo ez lizateke.

G. Eta badira geiago, eren eskuz lapurretarik ez egin arren, lapurretetan parte duenak: eta mandamentu Santu au ausitzen duenak? **E.** Bai: eta ona, aitatzea baizik egingo eztiedan bederatzi lapur lagun, lapurreta egin zuenak berak errestituzioa egin ezpade, errestituzioa ere egitera obligaturik daudenak: eta 1. lapurreta edo beste edozeiñ kalte egitea iñori

agindu ziobenak: nola gurasoak humeari; nagusiak mirabe edo serbitzariari. 2. Dira iñori dañu egiteko konseju emanaz kalte eragin zuenak. 3. Dira injustiziarren bat egiteko boto edo iritzia eman duenak: eta errestituzioa ere egin bear due andik kaltea datorrenean. 4. Lausonjakin edo lotsatuarekin iñor gaizki egitera edo iñor kaltartzera mugitzen duenak. 5. Lapurrak estaltzen eta anparatzen dituenak, lapurretak errazago eta seguruago egiteko. 6. Besteak egindako lapurretetan probetxua artu duenak. 7. Lapurretak ikusi arren, ixillik daudenak; kontu emateko obligazioa daukelarik ere; nola mirabeak, arzaiak, ganadu zaiak etc. 8. Lapurretak, eta beste injustiziak eragozten eztituenak, artarako kargua daukelarik, eta eragotzi ditzakealarik ere: nola guardak, eta len esan ditugun errietako agintariak: eta 9. dira lapurretak egiteko besteren asmoak, ziuru jakin arren, agertzen eztituenak kalteak eskusatu erazotzeko, eta egin ezkeru ziertu dakielarik, agertu nai eztituenak, errestituzioa jabeari egiteko; kalte geiago berai ezpadatorkie. Eta orra zenbat aldetara mandamentu au ausi ditekean. Baña nola ezin dotriña labor batean erabaki ditekean, noiz, eta nola errestituzioa egitera obligaturik dauden aitatu ditugun bederatzi kasu orietan kulpadun dira-

nak; kezkarik edo dudarik daukenak konfesatu, eta dakianari galdetu bear diobe, zer egin bear duen jakiteko. Eta orobat testamentuen kargua duenak: eta besteren hazienda administratzen duenak; eta naiz erriko artuemanak, eta naiz beste edozeñenak eren kargura dauzkatena ondo begiratu bear due; ea eren kulpaz edo ardurabagetasunez edo nagitasunez kalterik, bidegaberik edo agrabiorik, naiz biziai, naiz purgatorioko animai, egin ote dien: kontuak artu bagez edo eman bagez edo geiegi luzatuaz: edo gastu alperrak eragiñaz: edo nolana, eren kulpaz besteren gauzak galduaz edo galtzen utziaz. Bada guzien kargua gure Jaungoikoak artuko die: eta iñori dañurik edo kalterik egin edo eragin ezkeronai ta ez al daneraño erremediatzeko obligazio estua dago.

Eta asko da ba gaurko dotriña aldirako: eta beste batean diru edo gari sariak eta ganaduen tributoak, eta orietan egin oi diran pekatuak aitatuko dizuet. Eta orain Jaungoikoari guziok erregutu degiogun, arren digula bere argia, eta grazia, ondasun denporalakgatik iñola ere pekaturik dan txikiena ere egin bage gere egunak igarotzeko: eta betiko ondasunak gogo guziarekin billatzeko, eta Zeruan gozatzeko. Amen.

OGEITA AMARGARREN DOTRIÑA

Usurazko edo logreriazko pekatuen gañean.

Aurreko dotriña bietan aditzera eman dizuet, N.K. lapurretako pekatua zer dan, eta zenbat gisatara izan oi dan: eta lapurretaren antzekoak diran, beste pekatu mota asko, munduan gertatu, eta ikusi oi diranak: eta nola orien antz andia duen, dira sari, eta gari sari esaten diezuen usurazko, eta logreriazko pekatuak: eta orobat ganaduen artueman, eta tratuetan egiten diranak: eta askok edo itxumenez edo maliziaz edo ignoranziaz, edo gaizki egiten duelako duda, kezka edo errezelo andiarekin eren tratuak egin oi dituen: gaur argiro erakutsi nai dizuet 1. Usurazko edo logreriazko pekatua norzuak egiten duen: eta norzuak ez: eta 2. ganaduak besteri ematen diztenak, noiz irabazia eraman dezaken, eta noiz ez.

G. Zeri deitzen diogu usurazko edo logreriazko pekatua? **E.** Besteri naiz aberatsa dala, naiz pobrea dala dirua, garia edo gastatzen dan gauza prestatzea-gatik beste motibo bage, obligatzen degunean bere

disposizio osora eman diogun gauza edo aren balioa biurtzera, zerbait geiagorekin: nola lizatean, batek eun erreal denpora señalatuan biurtzeko beste bati emango baliozka, baña saritzat, eun errealaz gañera, iru edo lau erreal geiago biurtzeko kondizioarekin: eta ori bera gerta liteke, garia edo artoa edo beste edozein gauza fiatuaz edo prestatuaz, balio duenaz gañera, zerbait geiago biurtzeko edo dirua balio duen laguntasun edo serbizioen bat egiteko kondizioarekin ematen danean.

G. Eta ori zenbat modutan gertatu oi da? **E.** Modu askotan: eta 1. tratu ori, eta orren antzeko beste edozein kondizio edo obligazio orren azpian egiten danean: au da, dirua edo garia edo beste edozein gauza ematen duenak, artzen duenari, bestela eman nai eztionean: eta ori da usura edo logreri ageria, klaroa, eta ezagutua: 2. da, alako kondiziorik edo obligaziorik ipiñi bage, ematen danean: baña egiten dion mesedeari esker onez eranzungo diolako: ete zerbait korrespondituko diolako ustea edo esperanza agertzen diola: eta orretan nolabait eskatzen duela, eta obligatzen duela, zerbait geiago ematera edo eskuerakutsiren bat egitera, ez zor balu bezela, baña bai esker onekoa bezela: eta alako asmoarekin edo

borondatearekin ematen duenak, usurazko edo logreriazko pekatua egiten du: eta 3. orobat alako asmo, intenzio edo borondaterik kanpora agertu bage ematen badu; baña bere barruan, geiago biurtuko diolako esperanza osoarekin eta deseoarekin ematen badu; eta uste ori ezpalu, bestela emango ezpalio, ori ere Jaungoikoaren aurrean da egiazko logreroa: eta usurazko pekatua egiten du: ez munduaren begietan ageri dana, baña bai Jaungoikoak eta bere konzienziak dakustena: baña eztu pekaturik egiten, alako asmo gutizioso edo deseo interesadu bage prestatu zuanak; mesede artu zuenak, bere borondatez, esker onez, eta libertade guziarekin ematen diona artu arren: baño askoz obeto egingo du orrela ere ezer artu nai ezpadu: edo doarik, ezer, ekarten dionari beste ainbeste beste gai batean ematen badio: bada orrela usurazko edo logreriazko sospetxa guzietatik libratuko da: eta Jaungoikoaren aurrean asko irabaziko du: baita diru saririk edo dirua balio duen gauzarik esperatu ezin badezake ere, dirua artu zuenagandik, esperatu lezake aren adiskidetasuna irabaztea, eta orri dagozkan mesedeak ere berari egitea: eta orrela probetxu izatea: Eta 4. usurazko edo logreriazko pekatua egin oi da: saltzen dan gauza fiaturik emateagatik,

korritzen duen prezio altuenaz edo gorenaz gañera zerbait geiago eramaten danean: bada an dijoa isillik prestatzeagatik, beste motibo bage, daraman saria edo interesa: eta ori bera gertatzen da beste aldetik, dirua eskuan dalako, balio duen baño merkeago erosten danean; justu dan edo korritzen duen preziorik beerana baño, bajuago saltzera obligatu erazotzen danean.

G. Eta zer pekatu da usurazko edo logreriazko irabazi, sari edo interesa eramate ori? **E.** Berez da pekatu mortala: eta bakarrik izan diteke beniala, gai arin edo gutxi batean danean: edo jakineztasunak, ignoranziak edo oartu bagetasunak eskusatzen duenean.

G. Zergatik ordea da berez pekatu mortala? **E.** Zergatik dan lapurreta egitea bezela: bada eramaten dio bere lagun projimoari zor eztuena: zerren artu duen edo errezibitu duen ainbe biurtuarekin, justizia edo justu dana osatzen edo berdintzen da: eta geiago eramateko deretxorik batere eztu, prestatzengatik edo fiatzeagatik, beste motiborik ezpadu: bada dirua edo garia edo beste gauzaren bat besteri prestatuaz eman zionak diru aren jabetasunik arrezkero eztu: artu zuenak beretu zuen, jabetu zan: galtzen badu beretzat du kalte guzia: eta beti dauka obligazioa

eman zionari osoro aren balioa biurtzeko; baño ez geiago: eta dirua edo garia prestatuaz ematea, ezta zaldi bat edo ustar idi bat joranean edo mesedez egun batzuetarako bearrerako ematea bezela: zaldia- ren edo idien jabeak eztu galtzen aen jabetasuna: eta bere gauza propiotik bezela, aen serbiziozik zerbait probetxu atera edo eraman lezake: baña ez jabetasu- narekin edo propiedadearekin batera eman zuen diru edo garitik. Eta ala Eskritura Santuan, ala lege zarrean, nola berrian kondenaturik, eta eragotzirik dago usurazko edo logreriazko irabazi, sari edo intere- sa mota ori: eta munduko legeak ere kondenatzen due.

G. Eta badira egiazko motiboak, tituluak edo arra- zoiak, pekaturik egin bage, ematen dan baño zerbait geiago biurtu eragiteko eskualdia, eta deretxoa ema- ten duenak? **E.** Bai, badira; baña orduan ezta presta- tzeagatik edo fiatzeagatik bakarrik geiago eramaten: baizik prestatzeagatik datorkion egiazko kalte edo dañuagatik; nola lizatean dirua besteri emateagatik bere etxerako bear dituan gauzak bere denporan erosi bagez, gerogorago erosi bear balitu: artarako beste dirurik eztuela: edo besteari prestatzeagatik, eta on egiteagatik, berak eskuartean darabilen tra-

tuari larga, eta irabazi justuren bat galtzen duelako: edo tratu on batean bereala edo laster ipinteko edo enpleatzeko, eta arekin irabazteko daukan dirua besteri prestatzen edo fiatzen diolako, tratu artatik esperatzen zuena, irabazi bage gelditzen dalako. Bada karidadeak ez gaitu eskuarkiro obligatzen besteri mesede egitera, gere kalte edo dañuarekin, premia esturik eztagoanean.

G. Eta esan ditudan motibo bi oriek: au da, kaltearena edo irabazi justua galtzearena beti egiazkoak, eta ziurtuak, eta ez iruipenekoak, izan oi dira? **E.** Asko itxutu oi dira gai onetan: eta argatik moraleko erakusle edo maisu jakinsuak, titulu edo motibo oriekgatik zerbait geiago eramateko, erakusten due, lau kondizio oek arkitu bear dirala: eta 1. diru emalleak edo gauza fiatzen duenak, beste dirurik ez edukitzea, kaltea eskusatzeko: edo irabazia ez galtzeko. 2. Ala kaltea, nola irabaziaren galtzea ziurtuak izatea; edo ala uste izatea arrazoi onakin; eta ez iruipen utsakin. 3. Dirua edo garia edo fiatzen dan gauza artzen duenari, lenaz prestatzalleak aditzera ematea, etorriko zaion kaltea edo galduko duen irabazia: bada bearbada karga orrekin artu naiko eztu: eta 4. da: ala bildur dan kaltearen, nola galdu bear dan irabaziaren balio edo prezioa edo

zenbatezkoa ondo dakien edo aditzen zaion baten iritzi justuan uztea, eta ez gogoak edo gutiziak nai bezela neurritzea edo pagaeragitea: bada askotan kalterik batere ez dator: eta bearbada irabazi ordean bere trantuan, galdu egingo zuen: eta orobat dirua gorderik edo geldi edukitzeko asmoa bazuen: eta prestatzeko orduan bakarrik, irabazi eragiteko gogoa artu bazuen, ezin geiago eraman lezake; bada alakoaren borondatea edo asmoa eztirudi egiazkoa, eta eragillea zala, baizik iruipenekoa: eta ezer arriskatu bage irabazi naia.

G. Eta besteri dirua edo garia edo beste gauzaren bat prestatzen dionak eztu bada, bere gauza galtzeko edo ez kobratzeko, arrisku edo peligroarekin ematen? Ezin arrisku edo peligro orregatik zerbait geiago eraman dezake? **E.** Eskuarkiro besteren premia edo nezesidatea erremediatzeko egiten diran diru edo gari edo arto prestatze edo fiatze orietan beti dago arrisku edo peligro piskaren bat; eta zenbat peligroari ematen zaion, ainbat eskuarkiro arrisku andiagoa, ez kobratzeko: eta arrazoi orrek balio balu, beti zerbait geiago eramango lizate: baña nola alde batetik arrisku ori prestamoari edo fiatzeari beti darraiona dan, eta berezkoa dan; eta bestetik Jesu-Kristok Ebanjelio San-

tuan esaten digun; *on egizue eta presta ezazue, ezer-
txo ere geiago esperatu bage.* (San Lukas) Diot, eze,
orrelako karidadezko prestatze edo fiatze orietan,
ezin, peligro edo arrisku orregatik, geiago eraman
ditekeala: eta kontentatu bear dala eman duana edo
aren balio justua bakarrik biurtu eragiñarekin: eta zer-
bait galtzea alde orretatik gertatzen bazaio, beste
aldetik geiago Jaungoikoarekiko irabaziko du: eta sari
ugariagoa artuko du, bada Jaungoikoak berak ala ase-
gurutzen digu: baña diru edo gari edo beste gauza,
asko balio duena prestatzen dezunean, arrisku komun
edo berezkoaz gañera, beste peligro andirik, komun
edo ordinarioa eztanik; zere gauzea galdurik ikusteko
edo txit nekez baizik, ez kobratzeko, arkitzen bada;
eta peligro edo arrisku orren seguridaderik edo ainbe
balio duen prendaren batekin edo fiadore on batekin,
ematen ezpadizue; eta peligro ori zere gaiñ artu nai
badezu; orduan zer bait geiago peligro orregatik era-
man dezakezu: eta beste bati fianza egiteagatik
orduan emango likion ainbeste artu dezakezu: orreta-
rako dirua artzen duenarekin konbenio edo ajuste on
bat egiten dezula: eta orduan eman dezun dirua edo
gauza, besteren kulpa bage galtzen bada, zuretzako
ere galtzen da: eta nolana dala, utzi bear diozu liber-

tadea, nai badu; edo prenda edo fianza, asko dana emateko: bada bestela peligro edo arriskua zere gañ zeurk artu nai izatea, aitzaki utsa litzate, logreriazko saria eramateko.

G. Eta dirua prestatzen badio, ez pobre bati edo bereala gastatuko duen bati, baizik tratulari edo merkatarari bati diru arekin irabazteko, ematen duena baño zerbait geiago ezin eramango du aren diruak egin duan irabazitik? **E.** Bien izenean, eta arriskua bere gañ duela tratatzeko, eta irabazteko dirua eman badu, eraman dezake bere prinzipalaz gañera dagokien irabazi zatia edo partea: konbenio justu baten azpian biak obligatu ziranez batera: bada irabaztera bezela galtzera ere orobat jarten da: baña galdu gordean edo arriskuan sartu bage, prestatzeagatik bakarrik ezin geiago eraman dezake: bada orduan, dirua artu zuenak beretu zuen: eta aren arrisku guzia bere gañ dauka; eta galtzen badu ere, guzia osoro biurtzeko obligazioarekin dago: eta ala galdu irabaziak beretzat ditu, eta bakarrik zerbait geiago eraman dezake dirua eman zuenak, berak irabazi justuan bereala ipinteko era ona, eta asmo egiazkoa bazuen: eta besteri mesede egiteagatik irabazi ura galdu bazuen, len esan dizuedan bezela: eta orri dagokala, Karlos 3. gure

Erregearen Majestadeak, bere konseju errealarren, eta gizon jakinsu askoren iritziarekin, ezta oraindio urte asko, erabaki zuen, eta erri guziaz aditzera eman zien (diruak alperrik gorderik edo ezkutaturik, eta probetxu bage egon ez titezen) persona anditsu, prinzipalak, diru askoren jabeak, berez tratatzeko erarik edo modurik etzuenak: baña bere diruak irabazi justuan ipinteko asmo edo borondate egiazkoa zuenak, nola etxeak, lurak edo zensoak erosten, ipiñi zitzakeela eren diruak, tratu edo komerzio justu batean enpleatzeko, eskatzen zien merkatari edo konzerzianteen eskuetan; eta diru arekin erak laster irabazteko zuen deretxo justua, eta esperanza ziertua galtzen zuelako, orri dagokan interesa labur bat eraman zezakeala: eta ori bera Erromako Aita Santuak aditzera ematen due, persona aberatsak, diruak irabazi justuan ipinteko dauzkatenak, konbidatu, eta alaitu dituenen *diru oriek piedadezko monteak esaten dien* karidadea exerzitzeko erri andietan dauden etxeetan ipintera, interesa edo korridu labur batekin, diruak etxe aetan dauzkaten bitartean: eta ori zensorik egin bage. Eta orren arrazoi prinzipala da, zerren bitarte artan eren diruakin bestela irabazteko era, eta esperanza guzia galtzen duen: eta ori berez da gauza estimagarria, eta

zerbait balio duena: baña ez dirua alperrik edo geldi edukitzeko asmoa zuenarentzat, baizik ari balio eragiteko, eta irabazi eragiteko, eta saldu-erosian edo tratu bereala enpleatzeko zeukenarentzat.

G. Baña batzuek bearbada esango didazue: ezta bada diru guziak berdin balio? Kajoian dagoan dirua ezta irabaziaz egiteko gai beste edozein diru bezela? Zergatik bada bata ematen da prestaturik edo fiaturik, doarik edo interesa bage (eman arren) eman bear da: eta bestea emateagatik, eta prestatzeagatik, zerbait artu liteke? **E.** Zergatik alperrik egon bear zuen dirua ematen duenak arekin irabazteko etzeukan, eta ezer galtzen ezta: eta ala beste ainbeste biurtu eragiteko deretxoa baizik ezta: baña irabazian zebillen edo bereala irabazian ipinteko zegoan dirua besteri ematen dionak, berak irabazteko deretxoa, eta irabazbidea galtzen du: eta orrek zerbait balio du: eta Madridgo Gremio nagusiak, merkataria andi batzuek egiñik daukaten lagun gidak, aen eskuetan eren diruak ipintzen dituzten personak ematen dizte urteoro (bestela erak irabaziko lukeanaren sari orde) eun bakoitzeko iru: eta orren gañean disputaren batzuek sortu baziran ere, eta orien ondoren eskrupulo andiak ere bai, oriek sosegatzeko, konsulta askoren ondoren, egin

zuen Erregearen Majestadeak, eta barreatu edo publikatu zan erri guzietan len esan dedan deklarazioa.

G. Baña Kristau artean eskuarkiro edo komunkiro egiten diran diru, gari, arto edo beste gauzaen alkarri apartatzeak, edo atzera bere denporan biurtzeko emateak, nolako asmo edo intenzioarekin egin bear dira? **E.** Alkarrekiko karidadearen edo adiskidetasunaren legeak edo obligazioak kunplitzeko asmo edo intenzio garbiarekin; eta ez bide orrezaz geiago irabazteko edo aberasteko fiñarekin: bada ori da usurazko edo logreriazko pekatu txit iguigarria: eta ala bakarrik artu bear da eman dan ainbe: eta galdu duen irabazi justuak balio duena: eta ez besterik. Eta zerren kaltearen edo irabazi galduaren motibo edo titulu justua egiaz arkitzen danean ere, aitzaki orrekin bear dan baño geiago askok eraman oi duen, eta ori ere usura edo logreri injustua, eta pekatu dan; orrelako aldietan gauza guzien berri ondo dakian, eta konzienzia ona duen batekin komunikatu bear da ez utsik egiteko.

G. Eta ganaduen tratuetan, eta artuemanetan noiz pekatu egiten da, eta noiz ez? **E.** Ganaduen tratuak izan ditezke saldu-erosietan edo trukadatan egiten diranak; edo izan ditezke ganaduak besteron kargura

edo kuidadura galdu gordearekin ipinteko egin oi diran tratuak, ganaduen jabeak eta aen kargua artzen duenak bien artean irabazia partitzeko konbenio, eta obligazioarekin: eta 1. diot: ganaduen saldu-erosietan, eta trukadatan pekatu asko egin oi dirala; zerren tranpi, eta engañu asko bata besteari egiten dizten tratulariak: edo zerren ganaduen tatzak edo faltak bear bezela agertzen eztituen: edo zerren gezurra franko darabilden ganaduen urteen gañean: eta beste modu askotan. Eta 2. zerren tratu asko diru bage egiten diran, eta epe luzeak bata besteari eman oi dien: eta orietan askotan sartzen da logreriazko edo usurazko pekatua, dala motibo justu bage geiago eramanaz: edo titulu ona izan arren, dagokion baño geiago eramanaz: eta orrelako tratuak geienez dakazte disputak, auziak, aserreak, eta gastu alper erabageak: eta argatik ikusten da, nekazari asko tratura oitzen diranak, eta merkatutik merkatura dabiltzanak, eren buruen, eta eren familien ondagarri izan oi dirala: eta ala garbiro, eta Jaungoikoaren bildur santuan bizi nai duen nekazari prestu honraduak premiazko traturik baizik egin bear ezto: eta iñor engañatu bage, eta bere konzienzia kargatu bage, tratu guziak egin bear ditu.

G. Eta ganaduen jabeak iñori eren beiak edo idiak edo zekorrak edo ardiak kontu artzeko edo mantentzeko ematen diztenean, pekaturik ez egiteko, zer kondizio gorde bear ditue? **E.** Eren serbitzari, eta artzaiai edo kontu artzalleai bezela entregatzen badie, galdu gorde guzia nagusiak erentzat duela, soldata, eta gastua pagatzea asko due: baña galdu gordean edo irabazian, eta galduan biak parte izateko ematen badie: eta ganaduen prinzipala jabeak bere arriskuan badauka: orduan ganaduen irabazia alako moduan partitu bear due; nun jabeari bere prinzipalagatik, eta kontu artzalleari bere neke, eta gastuagatik datorkiona, (bata besteari agrabiorik, bidebagerik edo perjuiziorik egin bage) eman bear zaio: eta orren gañean gauza guziai ondo begiratu ta ajuste on bat egin bear due: edo len ondo egiñik dauden ajusteari jarraio: batez ere nagusiak, eta maizterrak (nagusiaren prinzipalarekin) erdira irabaziak, eta galduak partitzeko Probinzi onetan egiñik daudenai, eta gordetzen diranai.

G. Eta ganaduen arrisku edo peligro guzia bere gañ artzen badu, ez jabeak, baizik aren ganadua bere kontura daukanak, ganadua bere oñean konserbatzeko, eta galtzen bada osatzeko, eta jabeari beti osoro biurtzeko obligazioarekin, orduan jabeak tributorik,

saririk edo beste irabazirik eraman ote lezake? **E.** Orri ondo erantzuteko: distinkzioarekin diot 1. jabeak berak arriskurik bere gain artu nai ezpadu: eta berak obligatzen badu ganadua artzen duena, aren arrisku guzia ere artzera; ezin ezertxo ere prinzipalaz gañera eraman dezakeala: bada ori da dirua prestatuko balio bezela: eta orren saririk ezin eraman dezake, bestela kalterik ezpadu: edo irabazi justurik galtzen ezpadu: eta 2. diot: jabea arriskatzeko pronto dagoala, ganadua artzen duenak berak, naiago badu bere gañ baka-rik ganaduaren arrisku guzia artu, eta jabeari zerbait pagatu, orduan jabeak, nola irabazteko, eta arriska- tzeko asmo egiazkoa zuen, eta besteri mesede egitea- gatik irabazi bage gelditzen dan; esperatzen zuen, eta galtzen duen irabaziaren ordeko saria edo tributua eraman dezake: 3. Diot: nagusien, da maiztarren arte-ko ganadu tratuetan, baldin nagusiak beretzat erre- serbaturik badauzka bere baserriko ganadu tokia edo okullua, eta bere belar edo larre propioak, eta basa ostoak: eta bere ganaduak maisterrari gordetzeko, eta mantentzeko ematen badiozka, bienzat iraba- ziak, eta galduak izateko kondizioarekin; kontuan iduki bear dirala ajusterako ganadu tokiak, larreak edo osto propioak balio dezakeana: bada ganadu tra-

turik ezpalu ere, oriekgatikirabazia artu lezake: baña lenago etxearen errentan guziak sarturik bazeuden, ezin beste batek baño geiago nagusiak eraman dezake maisterrarekin egiten dituan ganadu tratuetan. 4. Diot: ganadu jabeak eskatu dezakeala ipinten duen prinzipala seguratzeko fiadore on bat, bera arriskuan sarturik ezpadago: eta ganadua bere gañ artzen duenak fiadorea eman bear diola, ona izan ezker, nai duena: baña zerren edo fiadore onik ezin arkitu duen edo naiago duen nagusiarekin berarekin fianzaren edo segurantzaren gañean konpondu edo ajustatu; nagusiak arriskua bere gañ artu nai badu, seguranza orregatik nagusiak berak eraman leikio, beste fiadore batek eramango likiona: orren gañean berariazko konbenioa aparte egiten duela: baña orduan ganadua galtzen bada, aren kargua zuenaren kulpa bage, bienzat galtzen da, eta aren baliorik edo ordekorik ezin nagusiak eskatu lezake: eta zerren askotan gezurraz sinistu eragin nai izaten dan, ganadua batera kulpa bage galdu dala edo supito il zala, edo otsoak jan zuela edo lapurrak ostu zuela esanaz (isillik erak saldu edo jan bazuen ere) usadio edo kostunbrea dago leku askotan, ganadua kulpa bage galdu dalako señaile edo prueba egiazkoak al daneraño eman eragiteko, eta

bestela pagaeragiteko: eta ala prueba sufizienterik ematen ezpadue, osoro pagaeragiteko obligazioa ipiñi bear da egiten dan ajuste edo konbenioan: bada orrela obeto zaitu, eta kontu artuko die, eta maliziarik egingo eztue.

G. Eta naiz ganadu tratuetan, eta naiz diruaren prestatze edo prestamoetan señalatzan diran epe edo plazoetan biurtzen edo pagatzen ezpada; penarik edo kastigurik egotzi edo ipiñi leikio pagua luzatzen duenari? **E.** Bai, bear diran kondizioakin pena ori ipinten bada. Eta zein dira kondizio oriek? 1. Kulparik batere bage luzatzen badu, iñola ere ezin pagatu duelako, penarik ere ez pagaeragiteko. 2. Luzamenari dagokion pena ipintea, eta ez gutiziak edo gogoak señala eragiten duena: eta pobrezan edo bearrean dagoalako onzat eraman edo konsentitu arren, justu dana baizik ezin pagaeragin leikio. Eta zein da pena justu ori? Egiten duen kalteari edo galdu eragiten duen irabaziari dagokiona: bada eskusa eragiteko pena ipinten da. Eta argatik 3. kondizioa da: zor duenetik zerbait pagatzen badu, ezin pena guzia eraman leikio: baizik falta danari dagokiona: eta 4. kondizioa, pena ori ez ipintea, aitzaki orrekin usurazko edo logreriazko irabaziak egiteko: nola egin oi duen, batez ere jokulariai epe

laburrakin eta orietan biurtzen ezpadue, penaren ize-
narekin saria izateko, dirua prestatzen dienak: eta
zenbat geiago luzatzen duen, ainbat naiago due, pena
geiago edo sari geiago atera eragiteko: eta ori da usu-
razko asmo, edo intenzio gutiziosoaren señaleara:
bada penak bakarrik serbitu bear du, bildurtzeko, eta
bere denporan kontuz pagaeragiteko: eta bestela,
eragiten duen kaltea erremediatzeko, eta ez bide
orrezaz geiago irabazteko: eta orrela eren anima
gaxoak betiko Infernura kondenatzeko.

Ala egia, N.K. Usurazko edo logreriazko pekatua
ain iguigarria, lotsagarria, eta infamea da, ez bakarrik
Jaungoikoaren, eta Aingeruen begietan, baita mun-
duaren begietan ere, nun lege guziak, ala Jaungoikoa-
renak, nola Eliza Ama Santarenak, nola munduko Erre-
ge, eta Nazio guzienak, batez ere Kristau erri guzietan
pena arrigarriakin kondenatzen due: eta usurero edo
logrero publikoak edo nabarbenak dauzkate infame-
ztat: eta agindurik dago, eztakiela eman Komunio
Santua: eztegiela utzi Elizan sartzen beste Kristauakin
batera: aen ofrendarik ez dedilla artu, eta besteakin
juntatu: eztitzatela Elizan edo leku sagraduan aen
gorputzak enterratu; baizik ustel batzuek bezela kan-
pora bota ditzatela. Ori guzia da usuraren gaiztakeria

obeto aditzera emateko. Eta zer inporta du nabarbenkiro edo agerian munduan kastigatuak ez izatea usurak edo logreriak ixillik edo ezkutuan egiten dituenak; baldin kastigu guztiz izugarria, eta betikoa Infernua sufritzetik libratuko ezpadira? Eta oraingo ondasun edo interesa labur batzuek betiko ondasunak, eta betiko gloria galtzen baditue? Dabid Santuak Jaungoikoari esaten dio: Nor, Jauna, sartuko da, eta biziko da zure Gloriako mendi Santuan edo Zeruan? Eta erantzuten du: *Qui pecuniam suam non dedit ad usuram*: Bere dirua usuratan edo logrerietan enpleatu eztuena. Ala ze, eztagoala Zeruko gloriarik logreroenzat, baizik betiko Infernua.

Kontu bada, N.K.: arren abariziari edo gutiziari eztegiozuela lekuri eman zuen biotzetan: zeuronzat nai dezuen karidadea, zuen lagun projimoekin usa ezazue. Guziok gera Jaungoiko baten humeak: Jesu-Kristoren mienbro edo zatiak, eta alkarren senideak: eta guziok, ez lurrerako, baizik Zerurako egiñak: Zeruan dago gure egiazko zoriona, ondasun guzien, eta atsegin guzien betedasuna. Eta arako bide zuzena, eta bide bakarra da iñori bidebagerik, agrabiorik, eta kalte edo dañurik ez egitea, eta alkarrekiko karidade egiazkoa.

Jaungoikoak digula arren guziori doai miragarri ori:
eta gero eternidade guzian alkarrekin aren Majesta-
dea ikusteko, kontenplatzeko, eta amatzeko zoriona.
Amen.

OGEITA AMAIKAGARREN DOTRIÑA

Errestituzioaren, eta zorrak pagatzearen gañean.

Zazpigarren Mandamentu Santuaren explikazioari narraiola, aditzera eman dizuedan ezkerreko aurreko iru dotriñetan, nor diran eskuarki Mandamentu Santu onen kontra pekatu egiten duenak edo lapurretaz edo logreriazko irabazi edo sari injustuak eramanez; gaur oriek guziok, eta zordun pagatzalle txarrak duen obligazio guztiz andi, eta estu bat aditzera eman bear dizuet. Eta zein da obligazio ori? Gure kartillako dotriñak esaten diguna: *au da, ez edukitzea besteren gauzarik jabearen borondatearen kontra: au da, bakoitzari berea biurtzea edo errestituzioa egitea: eta ona, N.K., dotriña gai bat berez guztiz luzea, eta guztiz premiazkoa: eta gauzarik bearrenaz, eta geienean gertatzen diranaz obeto, eta errazago kargu egin zaitezten, esango dizuet 1. nor diran errestituzioa egitera obligaturik daudenak: 2. noiz errestituzioa egin bear dan: 3. Nori eta nola errestituzioa egin bear zaion: eta 4. Artzekodunak nola portatu bear diran zordunakin.*

1. **G.** Nor dira bada errestituzioa egiteko premian daudenak? **E.** Besteren gauza daukaten guziak jabearen borondatearen kontra: nolainai eduki dezatela, naiz ostua, naiz gaizki irabazia, naiz fede edo uste onean artua edo heredatua izan dedilla, naiz uste gaiztoan goza dezatela: besterena dala jakin ezkeror, nai ta ez biurtu bear zaio: bada nolainai etorria, eta nun-nai arkitu dedilla, beti da bere jabearena: eta onek izan bear du edo gozatu bear du: eta orregatik da esaera, gauza bakoitzak bere jabeari deitzen diola: eta aren billa deadarrez dagoala.

G. Eta nor dira besterena daukatenak? **E.** Dirade 1. aurreko dotriñetan esan ditugun guziak: lapurretak edo kalteak egin edo eragiten dituenak: eta lizito edo justu eztiran irabaziak eren tratu, eta artuemanetan eraman dituen guziak. 2. Dira zordun pagatzalle txarrak, epeak osatu ezkeror, eta erak kalte andirik izan bage, pagatu dezaketela: jabearen borondate bage pagatzea luzatzen duenak: naiz jabeak kalte izan dezala, naiz ez: bada kalterik jabeak eztuelako aitzakia ezta arrazoi, eta motibo justua ez pagatzeko edo pagua luzatzeko: baña bakoitzak berea nai du, eta bear du, eta dauka deretxo justua biurtu eragiteko: eta baita jabeari kalterik badatorkio, orri dagokana,

eskatzeko, eta kobratzeko ere: eta zordunak ezin guzia batetan pagatu badu, kalte andirik izan bage, eta jabeak ainbeste kalte ezpadu, dauka obligazioa edo zatika edo piskaka pagatzeko: edo jabeari luzamena eskatzeko: eta bitartean pagatzeko estadian jarteko, joku erabageak, eta gastu alperrak eskusatzten dituala: eta bearra galanki egiten duela: eta ezin iñola ere pagatu duenak beti eduki bear du, salbatu nai badu, bere zorra al duenean pagatzeko edo erres-tituzioa egiteko asmo, gogo edo borondate egiazkoa: baña onetan asko itxutzen dira: uste due, ezin iñola ere pagatu dezakeala, zerren gauza askotarako gau-zea edo dirua nai due: eta txit gogor, eta nekeza irui-tzen zaie, jokuak, banidadeak, eta premiazko eztiran jan-edan erabageak eskusatzea: eta ezin sobratu duela diobe, zorrak pagatzeko: eta artzekodun tristen kalteaz, eta naibageaz ajolarik eztue: eta ala oriek gogo edo borondate egiazkorik eztue eren zorrak pagatzeko. Eta 3. obligazio orri agitz faltatzen diobe, zor ziertuak edo egiazkoak ukatzen dituenak, artzeko-dunak ezin probatu dituenen: bada munduko tribu-naletan libratu arren, beren konzienziaren tribunalean eta Jaungoikoaren aurrean ezin libratuko dira. Eta 4. orobat eskuarkiro besterena gaizki daukatenak dira,

zorrak ez ukatu arren, errespetoko personak diralako, artzekodun pobreak atzera, eta aurrera darabiltzetenak, beti pagua luzatuaz, eta askotan arrazoi txarrak emanaz. Eztue nai, ezer merkatariak, eta ezagunek ukatu degien: eren jokuak, jan-edan erabageak, eta banidadeak gastu alper asko eragiten dizte: zorrez betetzen dira: eta iñori pagatzeko neurririk artzen eztue: orrelakoak eren mirabe, serbitzari, eta langiñai, bere denporan pagatu bagez, kalte arrigarriak egin oi dizte: eta pekatu oriek Zerura deadar aen kontra egiten badue ere, ajolabage bizi dira: eta zerekin pagatu utziko duelako, eta herederoai pagua egitea aginduko dielako uste edo gogo utsarekin, sosegu gaizto batean, eta pekatu mortalean egon oi dira: eta ala pagua agindu arren eriotzako peligroan, bildur izateko da, orduan ere penitentzia egiazkorik egiten eztuela; bada bizia luzatzen bazaie, erremediatu oi eztira: eta iltzen diranean, eren herederoai zorrak pagatzeko obligazioarekin batera, eren animak kondenatzeko gaia ematen die: zerren txit nekez herederoak zorrak pagatzera jarten dira: eta eskuarkiro pagatu nai ditue-nean ere, erdizka baizik pagatu oi eztitue: konposizioak edo ajusteak eragiten dituzte, alik gutxiena pagatzeko: eta bitartean eragin dituen kalteak edo galdu

eragin dituen irabazi justuak, pagatu bage gelditu oi dira: eta orra zergatik txit asko kondenatu oi diran. 5. Ori bera defuntuen ondasunak edo zorrak pagatzen edo aen aginteak kunplitzen enpleatzeko kargua duenai gertatu oi zaie, beti geroko luzatuaz: eta azkenean ondo kunplitu bage dijoaz beste mundura, kargu oriekin batera, erak bezela kondenatuak izateko arriskua rekin, obligazio oriek beste batzuei enkargatuaz. Eta 6. besterena gaizki daukatenak dira, eren soroak edo basoak besteren kaltean zabalduaz edo geituaz dijoazenak, jabeak erak ezin ondo igerri dionean. Eta baita 7. besterena gaizki daukatenak dira, gozatzen dauden etxeak edo ondasunak besterenak diralako duda andiarekin bizi diranak: eta duda orretatik irteteko alegiñik batere egin bage, beti kezkatan daudenak: bada orrela dauden artean fede oneko posesiorik edo gozamenik ezin eduki dezake: ez eta munduko tribunaletan auzitan irabazirik eduki arren, eren konzienziak Jaungoikoaren tribunalean salatzen dituen artean, erak dakizten, eta naitaez eren barruak turbatzen dien arrazoizko duda andiakin: eta ala kondenatu nai ezpadira, duda oriek, argituko dituan, eta desengañatuko dituan konfesore jakinsu edo Letradu on bati aditzera eman bear die: eta orien iritziarekin

eren konzienziak sosegatu: eta iñoren gauzarik baldin badue, modu onean biurtu: eta orretarako gogoan erabilli, guzion biotzetan ondo sarturik egon bear lukean Jesu-Kristoren esan au: *Zer serbitzen dio gizonari mundu guzia beretzea edo irabaztea, bere anima galtzen badu?* Eta baita Ebanjelio Santuan daukagun Zakeo publikanoaren exenplo ederraz oroitu edo akordatu bear gera guziok: Jesu-Kristo gure Jauna aren etxean sartu zanean, bere fede egiazko, eta biziaren señaLEAN, esan zion: Nere ondasun guzien erdia pobreaki bertatik ematera noa: eta iñor agrabiatu edo kalteturik badaukat, lau bider geiago ematera noa: eta ori aditu zuenean Jesu-Kristok esan zuen: gaur salbazioa edo animako osasuna etxe onetan sartu da. Eta Abranen seme edo ondorengoa dala, aditzera ematen du: au da, aren birtuteari darraio: eta ala salbazioa nai badegu, gutxianez bakoitzari berea kontuz biurtu bear diogu.

G. Eta besteren gauza daukaten guziak, jabearen borondate bage, bertatik errestituzioa edo pagua egiteko premia estuan edo obligazioan daude? **E.** Bai: orretan eztago dudarik batere: eta gure Jaungoikoaren legeak ezeze, gere arrazoi naturalak ori guziori erakusten digu: bada geuri besteak egitea nai eztegun

gaitzik iñori egin bear eztiogu: geurk eztegunai, gure borondate justuaren kontra, besteak gure gauza edukitzea: bada geurk ere besteren gauzarik ezin eduki dezakegu, jabearen borondatearen kontra: eta ala bertatik, al degula, biurtzeko obligazio estua, eta andia degu: au da, pekatu mortalaren penaren azpian.

G. Ezta bada asko izango zorra aitortzea edo deklaratzeta, eta azkeneko eritasunean aren pagua agintzen? **E.** Lenago ori egin eztuenak, nai ta ez orduan egin bear du: baña lenago berak bere eskuz edo besterenez, pagatu dezakeala, pagatu nai ezpadu, pekatu mortal egiten du, eta estadu gaiztoan dago: eta ez bakarrik gauza ostuak edo gaizki irabaziak pagatzea luzatzen badu, baita zor justuak, pekatu bage egiñak, epeak edo plazoak osatu ezkeru, pagatu ditzakeala, pagatzen ezpaditu, jabeak konsentitzen eztuela, pekatu egiten du: edo andiagoo edo txikiagoo, luzamenaz, eta egiten duen agrabloaz konforme: eta ala ezta asko zorrak pagatzeko edo errestituzioa egiteko asmoa edo intenzioa edukitzea bakarrik: bada ezta pekaturik barkatzen, al duela gaizki dauken besteren gauza biurtu artean, eta batez ere bere eskuetan edo bere etxean badauka, eztu aitzakiarik bertatik ez biurtzeko: eta ezin konfesio onik

egin du biurtu artean; bada propositu egiazkorik ezto: baita besteren gauza desegin, gastatu, saldu edo enpleatu bazuen, eta ezin biurtu badu, eta aren balio edo ordekoa ere pagatzeko modurik batere ezpadu, orduan asko du, pagatzeko asmo egiazko edukitzea, antxitiko erea duenean; eta era ori izateko alegin biziak egin bear ditu.

G. Eta nori egin bear zaio errestituzioa edo pagua?

E. Gauzaren jabeari edo artzekodun egiazkoari edo ziertuari: eta aek ill badira, aen heredero lejitimoari.

G. Eta ezpadaki jabea nor zan: zerren ez daki nori gauza galdu zitzaion: edo ezin ezagutu du nori ostuzion; nun biurtuko dio? **E.** Beiñik beiñ, al bada, jabea nor dan jakiteko alegin guziak egin bear ditu: eta berari biurtu bear dio edo bere eskuz edo besterenez: eta alegin guziak era onean egin ezkeru, ezin jabea arkitu baditeke, konfesoari guzia aditzera eman bear dio: eta zer egin bear duen erakutsiko dio.

G. Eta besteren gauzarik batere ezpadu: baña bere ondasunetan, bere honran edo fama onean iñor kaltarturik badauka; ezer pagakizunik edo biurtukizunik badu? **E.** Nola ere duen: alik modurik onenean biurtu bear dio kendu zion honra edo fama ona: eta ezin iñola ere osatu badio bere honra edo fama, eka-

rri dion kalte edo dañua pagatu bear dio, konfesoreak erakutsiko dion moduan: eta orobat ondasunetan besteri egin diozkan kalteak pagatu bear ditu, bera ezerzaz jabetu edo aprobetxatu ezpada ere.

G. Eta besteren gauzaren bat probetxugarria edo frutuduna batek eduki badu; gauza bera bakarrik biurtuaz kunplitzen ote du? edo probetxua, frutua, eta irabazia ere biurtu bear ote du? **E.** Berea zuelako uste edo fede onean besteren gauza eduki badu, gauza bera, eta andik etorri zaion probetxua, gastuak bajaturik edo aterarik, jabeari biurtu bear diozka: baña probetxurik izan ezpadu, gauza bera bakarrik biurtuarekin kunplitzen du, eta berea zuelako uste onean zegoan bitartean, galdu edo desegin bazaio, biurtukizunik batere eztu: baita besterena zala zekielarik artu eduki, eta gazatu badu; gauzea bera, eta ark jabeari ekarri bear ziozkan probetxu guziak pagatu bear diozka: eta bakarrik bere nekea, eta gastuak atera ditzake.

G. Eta besteren gauza galdua batek arkitzen badu, beretzat gorde ote lezake? edo zer egin bear du? **E.** Alegin guziak egin bear ditu nor dan egiazko jabea jakiteko, eta ziurtu ezagutu ezkerro, bere gauza jabeari biurtu bear dio, eta ala, ixillik beretzat gordeko balu,

lapurraren antzekoa izango litzake, eta pekatu egingo luke. Baña, alegiñak egin ezker, jaberik arkitzen ezpada, eta esperanzarik ere ezpadago denporaz arkitzeko, pobretan, mezatan edo karidadezko obra onetan enpleatu bear da: eta ondoena da konfesoari konseju eskatzea. Eta jabea arkitzen badu, osoro biurtu bear dio: eta ezin obligatu lezake arki-saririk ematera: baña borondatez edo graziz ezer ematen badio, artu lezake.

G. Eta besteren gauza edo gaizki edo ondo izana duenai, zer egin bear duen, kondenatu nai ezpadira, esan degun ezker, artzekodunai zer esanik badago, zordunakin nola izan bear duen erakusteko? **E.** Bai: txit asko dago zer esan: baña dotriña labur batean ezin guzia azaldu edo explikatu edo aditzera eman diteke. Eta 1. diot, laburtxo artzekodunak justiziaz baliatu baño lenago modu onean bere artzekoa eskatu bear duela. 2. Diot, artzekoduna, aberatsa edo ondasunduna bada, eta premia ezturik ezpadu, eta zorduna beartsua, pobrea, eta premian bizi bada, oroitut edo akordatu bear da, pobrearen errukiarik ezpadu, eta gogortasunez tratatzen badu; karidadeari edo projimoaren amorioari faltatzen diola: eta orregatik bakarrik beste bage kondenatu litekeala, Ebanjelioko para-

bola batean Jesu-Kristo gure Jaunak berak erakutsi zigun bezela. Baña pobre zordunen artean diferentzia andia dago: batzuek dira kristau fiñak, prestuak, honraduak, txit kontuz al dueneraño eren obligazio edo zorrak pagatzeko alegiñak egiten dituenak: eta nork fiatu eskuarkiro arkitzen due: eta onelakoakin artze-kodunak, eta justiziak lan gutxi izan oi due: beste batzuek dira pobre zordunak, eta pagatzalle txarrak eren kulpaz, zerren eztagokien gastu alperrak taber-netan edo jokuetan egiten dituzten; eta oek dira lanik geiena ematen duenak, zerren pagatzeko gogorik eztuen, eta besterenaz bizi nai duen. 3. Diot, baldin zorduna, erara bizi dana bada, eta kalte andirik izan bage pagatu dezakeana; lenago, modu onean eskatu ezkeru, onez onera pagatzen ezpadu, edo geiegi luzatzen badu; justiziaz pagatzera obligatu lezake artzeko-dunak: baña 4. diot, alkarren artuemanak ondo garbitu bage, zorraren pagurik eskatu bear eztala: eta ala lenago kontuak ajustatu edo garbitu bear dira: eta disputa edo diferentziarik badakarde, ez justiziara berea-la etorri; baizik konzienzia oneko gizon jakinsu baten eskura larga, eta adiskidetasunean konpondu: bada bestela eren buruai, eta lagunai kalte andiak ekarten dizte: 5. diot, zor justuak bere denporan mirabeai edo

serbitzariak, langiñak edo beargilleak, ostalariak edo alimantuak eman dienak, eta beste onelakoak pagatzen eztenak, eskuarkiro kalte andiak egiten diztela: eta orrelako zordun, pagua luzatzen duenaen kontra Espaniako Errege katoliko Karlos irugarrenak legea ipiñi zuen: (En 16 de Septienbre de 1784) agintzen zuela, artzekodunak paga zegiela, prinzipalaz gañera, urteoro eun bakoitzeko, sei geiago; justiziaren aurrean pagua eskatzen zuen egunetik aurrera, guzia pagatu artean, eta legerik ezpaliz ere, diot, eze egiazko kaltea eren kulpaz artzekodunak ekarri dienak, konzieniaz ere pagatzeko obligazio estua duela.

G. Eta artzekodunak orrelako aldietan, onez onera ezin eren artzekoa kobratu bage, isillik eren eskuz justizia egin, eta beste ainbeste artu ote lezake? **E.** Ori eskuarkiro ezin egin dezake: bada orretarako dago justizia: baña justiziaz ezin iñola ere kobratu badezake, eta iñori kalterik batere egin bage, artu badezake, eta ondorengo txarrik izateko bildurrik ezpadago, pekaturik egingo eztue: baña nola bakoitza bere interesako gauzetan txit erraz itxutzen dan, obe du lenago konfessoreari konseju eskatu: baita gai onetan itxumen edo iduripen asko izan oi dira. Batzuek, borondatezko lan edo mesederen bat besteai egin dielako,

eren sari edo ordekorik eman edo egin ezpadie; uste due, erea izan ezkeru, eren eskuz artu dezaketela: eta engañatzen dira: bada ori ezta justiziaz zor dana: baik eskerronez bakarrik pagatzen dana.

Beste batzuei, zerbait etxean edo kanpoan galdu zaienean, iruitzen zaie, motiborik asko eduki bage, urliak edo berendiak kendu diela, eta ziertu eztekielarik ere, isillik ordekoa kentzen die: eta beste onelako asko gertatzen dira: eta ortik pekatu asko sortzen dira; nola diran juizio edo sospetxa gaiztoak: murmurazioak: ojeristak: gaitziritziak, gorrotoak: eta askotan aserre nabarbenak: eta ala gauza orietarako biderik batere ez emateko edo iñoren gauzarik orrelako iruipenakin artu bage egoteko alegin guzia Kristauak egin bear du.

G. Eta zer geiago erakusten digu gure dotriñako explikazio laburrak zazpigarren mandamentu onengañean? **E.** Erakusten digu, eztegula nai izan bear besteren gauzarik jabearen borondatearen kontra: eta ala iru gauza dira mandamentu santu onek guziori agintzen digunak 1. ez kentzea 2. ez edukitzea eta 3. ez nai izatea iñoren gauzarik jabearen borondatearen kontra. Lenbiziko bi gauzak aditzera eman dizkitzuet aditu dituzuen lau dotriñetan: eta 3. aditzera emango

dizuet zeoro amargarren mandamentu santuaren
explikazioan: bada an agintzen zaku besteren gauza-
rik ez gutiziatzea edo ez deseatzeta: eta Jaungoikoak
ematen digun ondasunakin kontentu izatea.

Jaungoikoak digula arren guziori orretareko bere
grazia: eta gero beti iraungo duen ondasunak Zeruko
glorian. Amen.

OGEITA AMABIGARREN DOTRIÑA

Zortzigarren Mandamentuak eragozten dituan erabageko juizio, sospetxa, eta dudaen gañean.

Gaur Jaungoikoaren legeko zortzigarren mandamentuaren explikazioa asi bear degu, N.K.: beste aurreko zazpi mandamentu santuetan, obrazko pekatuak batez ere gure Jaungoikoaren Majeatadeak eragozten dizkigu, eta iñori gaitzik ezertan ez egitea: eta guziok alkar amatzea agitz agintzen digu: eta zortzigarrenean hitzezko edo mingañezko pekatuak, eta oriekin egiten diran kalte andiak debekatzen dizkigu: eta nola mingaña ondo gorde bagez, eta juizio ariñak eginaz, eta eransiaz pekatu mota asko egin oi diran, oriek ezagutzeko, eta txit eskusatzeko, dotriña au, eta urrengoak txit kontuz aditu bear dituzue.

G. Zein da zortzigarren mandamentu santua? **E.** Testimonio falsorik ez jasotzea, eta gerurrik ez esatea.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan? **E.** Lagun urkoaz edo projimoaz arin edo erraz gaizki ez juzga-

tzea, eta aren faltak edo utsegiteak ez esatea, eta ez aditzea.

G. Nork ausitzen du mandamentu au? **E.** Arrazoiaren kontra edo asko dan ainbe motiko bage, edo fundamentu bage juzgatzen duenak; fama kentzen duenak; sekretoagertzen duenak; edo gezurra esaten duenak.

Ona, N.K. mandamentu santu onetan gure Jaungoikoak eragozten dizkigun pekatuak: eta dira 1. testimonio falsoak, naiz gere barruan, naiz kanpoan, gure projimoari jasotzea, altxatzea edo egozteak: 2. besteren pekatu sekretoak, eta falta estaliak agertzea: 3. enkargatu diguen sekretoak deskubritzea edo eraustea: eta 4. gezurrak esatea. Eta nola pekatu oek, gertatu oi diran bezela, zeoro aditzera emateko dotriña luzeak bear diran; errazago, eta neke gutxiagorekin kargu egin zaitezten, lau dotriña alditan, azaldu edo explikatuko dizkizuet: eta gaur bakarrik esango dizuet, 1. juizio ariñak, eta gaiztoak nork egin oi dituzten, eta nolako pekatuak diran: eta 2. nundik sortu oi diran: eta nola erremediatu bear diran.

G. Eta 1. nor dira arrazoiaren kontra juzgatzen duenak? **E.** Era askotan izan oi dira: eta 1. arrazoiaren kontra juzgatzen due; iñor juzgatzeko, eta kondena-

tzeko eskualdirik, poderiorik edo aginterik eztuela, eskualdiak besteai artzen dienak iñor juzgatzeko, eta kastigatzeko. 2. Dira eskualdiak, agintzeko edo juzgatzeko eduki arren, legez kanpora, arrazoi bage, pasioak itxuturik, projimoak juzgaten, eta kastigatzen dituen Juez itxutuak. Eta 3. dira justiziaren aurrean projimoaren kontra juizio okerrak, eta injustiziak edo bidegabeak egiteko, maliziaz serbitzen duen, eta gezurra esaten duen testigo falsoak; eta orretarako laguntzen duen letraduak, eskribabak, prokuradoreak, eta orien antzeko gañerakoak. Eta 4. projimoaren kontra juizio gaiztoak eragiten ditue, gorrotoz, eta bende-kuz edo enbidiaz erabageko kerellak ematen dituenak: eta baita informatu bage, eta ez karidadez, baik gaitziritziz iñoren utsegiteak agintariai esaten edo gastigatzen dienak, erremediatzeko aitzakiarekin. Eta 5. juizio gaiztoak projimoaren kontra egiten, eta eragiten ditue prueba gezurtiak ematen dituen auzilariak: eta egia esan bear ordean, naiz besteren kalterako, naiz probetxurako izan dedilla, berariaz zelo errukiz edo gaitzez ezkutatzen edo eztaltzen duen testigoak: eta juramentua ausiaz gañera, bear bezela deklarazioa artu eragiten duen Juezari obedezitu bagez, eta egia esan bagez pekatu mortal bat egiten due: eta

testimonio falsoarekin, projimoari egiten badiobe kalterik, beste pekatu mortal bat; eta errestituzioa egiteko obligazioarekin gelditzen dira.

G. Nork bestek arrazoiaren kontra juzgatzen du? **E.** Berekiko bakarrik, fundamentu egiazko bage, motibo bage, bear adiña arrazoi edo señaile zierturik eduki bage, projimoaren kontra juizioa egiten duenak: eta ori, iñori ez esan arren, bere artean bakarrik iritzi edo juizio gaiztoa egiten badu ere: bada orixe da juizio ariña, erabagea, eta temerarioa: eta gai pisu, larri edo grabea izan ezker, pekatu mortala.

G. Baña esan dezagun: juizioa zer da? Eta noiz da gaizki egiña edo temerarioa? **E.** Juizioa da osoro sinistea, uste izatea, eta bere artean ziertutzat edukitzea, burura bati etorri zaion besteren utsegitea edo gaiztakeria: errezelotan edo dudan jarri bage, ala izango ote dan edo ez: orixe da juizioa. Eta noiz da gaizki egiña? Bear adiña motibo, arrazoi edo fundamentu bage egiten danean: eta da pekatu andia, arrazoiaren, justiziarren, eta karidadearen kontra.

G. Baña iñori esaten ezpadio egin duen juizio gaiztoa ala ere pekatu andia edo mortala izango da? **E.** Bai: bada berekiko lagun projimoari kentzen dio arrazoi bage bere fama ona edo kreditoa: eta da falso tes-

timonio batean bere barruan konsentitzea bezela. Naiko zenduke zuk edo etzenduke agitz sentituko besteak zuzaz motiborik eman bage gaizki pensatzea, eta juzgatzea? Bada zeretzat igui dezuna, eztegiozula iñori egin.

G. Eta zer egin bear du orrelako juizio ariña, eta temerarioa egin duenak? **E.** Burutik kentzeko alegiñak egin bear ditu: eta bere projimoaren alde juizio ona egin bear du: ez sinistu burura erraz aren kontra etorri zaiona: eta lengo estimazioan eduki: eta iñori esan badio projimoaren kontra egin zuen juizio gaiztoa, eta orrela besteakiko fama ona galdu eragiteko bidea eman bazuen, biurtu bear dio fama ona, konfesoreak erakutsiko dion moduan.

G. Eta projimoak berak bear adiña motibo edo bide eman badu, aren kontra gaizki juzgatzeko, orduan juizioa pekatu izango ote da? **E.** Ez, ezta pekatu izango: bada orduan arrazoiarekin juizioa egiten du.

G. Noiz esango degu, bear adiña motibo izan degula, juizioa egiteko: eta pekaturik egin eztegula, juizioa egiñarekin? **E.** Ori da gauza bat txit nekez eza gutzen dana: bada gauza askori begiratu bear zaio projimoaren kontra ikusi edo aditu diran señalearak, asko diran edo ez juizioa egiteko. Eta erreglarik jus-

tuena da, pensatzea persona jakinsu, zinzo, Jaungoikoaren bildurra duen, eta pasio bage juzgaten duenak, nai adiña motibo dala uste duenean, juizioa egiteko, pekatu bage juizioa egin dala: zerren orrelakoak eskuarkiro motibo ariñakin juizio gaiztorik egin oieztu: eta geiena errezelotan edo dudan jarten da, besteren gaiztakeria osoro sinistu edo juzgatu bage.

G. Zer diferentzia arkitzen di bada juizioaren, sospetxa edo errezeloaren, eta dudaren artean? **E.** Juizioa da, len esan degun bezela, osoro sinistea, eta berekiko ziertutzat edukitzea, urliak edo berendiak egin duela onelako edo alako gaiztakeria edo utsegitea. Sospetxa edo errezelo utsa da, ikusi duen edo aditu duen, señaile edo motiboaren bidez, urliak edo berendiak burura datorkion gaitzen bat egingo zuela, txit erabaki bage, edo ziertutzat eman bage, uste izatea: baña geiago arrimatzen dala, ala izango dala sinisterra, izango ezjala baña. Eta duda da, pensamentura edo gogora datorkion besteren gaiztakeria ala izango ote dan edo ez, batere erabaki bage, detenitzen edo geratzen danean. Ara nola, etxe batean zerbait desgertu edo faltatu danean; burura datorkio bati, urliak kenduko zuela; baña bearbada izan zitekeala, eta bearbada ez, batere erabaki bage gelditzen da: orixe

da duda: ala izango zala sinisterra geixego arrimatzen edo jarten bada, baña ziertutzat edo osoro sinistu bage; orduan da sospetxa edo errezeloa: eta baldin ala dalako uste edo siniste osoan jarten bada, berekiko esaten duela: «urliak eraman du, eta eztit ori iñork burutik kenduko»: orduan da juizioa.

G. 1 Eta mandamentu santu onek juizio ariñak edo gaizki egiñak eragozten dizkigun bezela, sospetxa ariñak, eta erabageko dudak projimoaren kontra egitea eragozten ote digu? **E.** Bai: eta ala batere motibo edo arrazoi bage, projimoaren kontra sospetxa gaiztoak, eta fundamentu bageko dudak, oarmen edo adbertenziarekin bere borondatez egiten dituanak, mandamentu santu au ausitzen du: eta gai pisu edo andian izan ezkeru, iritsi liteke edo eldu liteke pekatu mortal izatera: baña eskuarkiro, gorrotorik edo gaitziritzirik izan bage, eta motiboren bat duelako ustean, sospetxa edo errezeloa egiten badu: edo dudan jarten bada, ezer erabaki bage, pekatu beniala izan oi da, eta ainbesterañoko motiboa projimoak berak emanik badauka, orduan pekatu izango ezta. Eta orobat pekaturik batere egin oi eztue, erak nai eztuela, projimoaren kontrako juizioak, sospetxak, eta dudak burura etorri arren, konsentitzen ezpaditue: igui baditue: eta buru-

tik kentzeko alegiñak egiten baditue, batek ere projimoaren kontra gorrotorik, gaitziritzirik edo iguitasunik batere ezpadue; bada beste tentazioetan esan oi degun bezela, eztago pekaturik tentazioak edo juizio gaiztoak burura etortzen; baizik, ezagutu edo oartu ezkeru, konsentitzen. Baña eren projimoa ezin ikusi badue, erraz itxutzen dira: eta orrelakoak alkarren kontrako besten esanak, eta burura datozkien juizioak, ala dirala txit ariñ sinisten due: eta txit erraz erausten ditue: eta ondorengo guztiz kaltegarriak erentzat, eta bestentzat erakarten ditue.

G. Eta nundik sortu oi dira projimoaren kontrako juizio ariñak edo gaiztoak: eta erabageko sospetxak eta dudak? **E.** Sustrai asko ditue: baña utzirik askoren gaizki juzgatzeko erraztasun, eta arintasun berezkoa edo naturala, prinzipalena dira: 1. Orain esan degun alkar ezin ikusia, eta enbidia. 2. Gure soberbia edo besteak baño obeak geralako uste falsoa. Eta 3. geurk ditugun bizioak, eta aztura gaiztoak besteak ere badi-tuztela erraz sinistea.

Azaldu, esplikatu edo aditzera eman ditzakun bada iru sustrai gaizto oek; eta oen kontra artu bear ditugun erremedioak. Eta 1. esan det, projimoaren kontra egin oi diran juizio gaiztoak, eta erabageko

sospetxak, eta dudak datozela eskuarki alkarrekiko gaitziritzi, gorroto, eta enbidiatik: bada pasio gaizto oni gere biotzean leku eman ezker, txit erraz mugitzen gaitu besteren gauza guziak begi gaiztoz ikustera: eta motibo edo señaleari ariñakin, eta askotan motiborik batere bage gaizki pensatzera, eta juzgatzerara. Zerren baroitzak txit erraz sinisten du, agitz nai lukeana edo deseatzeko duena. Eta enbidiosoak, eta gorrotoa duenak bere etsaia faltadun, eta kulpadun ikustea deseatzeko du: eta kontrara guziak dakusgu, maite degun personaren faltak edo utsegiteak zein erraz estaltzen eta disimulatzen ditugun: eta are obeto gere falta propioak. Zer erremedio bada, juizio ariñik, eta sospetxa gaiztorik iñoren kontra ez egiteko? Alkarrekiko karidatea edo Jaungoikozko amorioa edukitzea: bada karidatea duenak gaitzik erraz iñorgatik pentsatzen ezte: *non cogitat malum*: eta ala ikusiko dezue, falta edo utsegite bat berbera; eta juizio edo sospetxa egiteko señaleari edo motibo berdiñak eduki arren, ondo maite dezunaren kontra zein nekez sinisten dezuen, eta nola eskusatzeko alegiñak egiten dituzuen; da bakarrik erabageko amorioa; au, da, aragizko edo loikeriako amorio itxua da zelatia bezela, juizio ariñak, eta sospetxak erraz sortzen dituan, askotan ikusi dan

bezela: bada orrelako zeloak dituztenak, batere fundamenteu bage, beste bati begiratze atsegiñezko bat edo farretxo bat egin diobelako beste bage, gaizki andiak juzgatzera edo sospetxatzera, mugitzen dira: baña ori da erregla jeneraletik kanpora: bada amorio onak, eta santuak guzia daki onera itzultzen: eta kontrara gorrotoa badiozue iñori, zeññ erraz, aren utsegittea, ez bakarrik sinisten dezuen, baizik azitzen dezuen. Eta ori bera ikusten da, adiskideak, eta etsaiak egiten dituen obra onetan: adiskidearenak sinisten dituzue, eta, ponderatzen ere dituzue: eta etsaiarenak aditu nai ez dituzue, eta ezin ukatu badi-tuzue, edo gutxitzen dituzue, edo fin gaiztoarekin edo banidadez egin dituela erraz pensatzen dezue: eta zuen projimoa ofendituaz gañera, Jaungoikoari berak bakarrik gure intenzioak juzgatzeko dauken eskualdia kendu nai diozue: eta ala juizio gaiztoak, eta sospetxa erabageak eskusatzeko erremedio eragillea, eta premiaskoa da, iñori gorrotorik, eta enbidiarik ez edukitzea: eta alkar amatzea edo karidade egiazkoa edukitzea.

Baña bada oraindio beste sustrai gaizto bat, juizio gaiztoak, eta arrazoi bageko sospetxak, eta dudak egitera ekarri oi gaituana: eta da gure soberbia, gure

arrotasuna, eta beste, aK baño obeak generala uste izateak. Au da itxumen andi bat: besteren faltak examinatzen ditugu, eta gureak ez ditugu ikusi, eta ezagutu nai. Jesu-Kristo gure Jaunak bere Ebanjelio santuan ipiñi zigun Fariseo arroaren, eta Publikano humillaren enpleoak txit ederki orri erakusten digu. Fariseoak bere obra on guziak gogoan zerabiltzen, eta beste pekatariak bezela gaiztoa etzalako satisfazioa, eta presuntzioa agertzen zuen: eta bertan zekusentzen Publikanoaren antzekoa etzala aditzera ematen zuen. Bere burua onzat, eta santutzat zeuten; eta Publikanoa gaiztotzat: eta bere obra on guziakin arrotzen zalako, eta bere soberbia, eta juizio gaiztoa ezagutzen ere etzuelako, kondenaturik tenplotik irten zan: eta kontrara Publikano humillak, bere utsegiteak edo pekatuak gogoan zeuzkala, eta bere begiak Zerura altxatzeko ere gai etzala ezaguturik, makurturik, eta bere bularra damuaren pasioz jotzen zuela Jaungoikoari miserikordia eskatzen zion, eta barkazioa iritsi zuen: eta tenplotik justu, eta Jaungoikoaren adiskide egiñik irten zan: eta argatik Jesu-Kristok berak esan zigun, ez gaitzela izan ipokritak bezela, besteren begian lasto piska bat ikusten duenak, eta eren begietan zur lodia ere ikusten ez tuenak bezelakoak: bada gure utsegi-

teak, eta pekatuak ondo examiñatzen, eta ezagutzen baditugu, humillatuko gera: lotsatuko gera: Jaungoikoren bildur santuan biziko gera. Eta besteen falta edo utsegiteak examiñatzen, eta juzgatzen ari bagera, kalte arrigarriak geren buruai ekarriko diegu: bada gero lagun projimoak ezertan edukiko eztitugu: despreziatuko ditugu: juizio gaizto asko egingo ditugu: eta gere buruak arrotu, eta itxutuko gera. Eta ala, N.K., humiltasun egiazkoa iristeko, au da, gere buruak ezagutzeko alegiñak egin ditzakun, eta besteen kontrako juizio, eta sospetxa gaiztorik egitetik urruti egongo gera: eta orrela, salbatuko bagera, nai ta ez bear degun alkarrekiko karidadea edo amorioa gordeko degu.

G. Eta zein izan oi da, erabageko juizioa, eta sospetxak eragiten dituan irugarren sustrai gaiztoa? **E.** Geurk ditugun bizio edo aztura gaiztoak besteak ere badituela erraz pensatzea: geur gaiztoak geran gai orretan besteak orobat dirala, edo okasioan jarri ezkerro, eta erea izan ezkerro, beste ainbeste egingo lukeala edo egiten duela juzgatzea: esan oi dan bezela, lapurrak uste du, besteak ere bere antzekoak edo gisakoak dirala, erea izan ezkerro: baña ori itxumen andi bat da: bada ezin ukatu ditekean, eta ikusten dan

gauza da, Kristau onak, Jaungoikoaren bildurra, eta konzienzia ona duenak, inork ezin ikusi, eta salatu arren, eztuela pekatu egitera jarri nai mundu guziagatik: eta eztuela besteakgatik gaizki juzgatzen, motibo guztiz ageriak, eta ziurtuak eztituenean: eta orduan ere alegiñak egiten ditue, al dueneraño projimoaren utsegitea eskusatzeko: Nola ordea? San Bernardo andiak erakusten duen bezela: uste izana, gaizki dirudian gauza, intenzio onaz egin duela, edo ignoranziaz egin duela, edo tentazio arrigarriren batek itxutu, eta argaltasunez erori dala. Eta alako estutasunean erak arkituko balira, orobat bearbada, eta lasterrago eroriko zirala. Eta orrela batetan humiltasuna, eta karidadea gordetzeko alegiñak egiten ditue: eta utsegin duen projimoaz errukitzen dira: eta Jaungoikoari aren erremedioa eskatzen diobe: eta inor erraz edo ariñ juzgatzen eztue.

G. Baña emen bearbada batzuek galdetu naiko dezue: Inorzaz errezelo edo sospetxarik ezin egin badezakegu; inork kendu edo ostu ez degigun, ezin etxeko jatekoak, aleak, soñekoak edo beste gauzak giltzapean gordeko ditugu: bada badirudi, besteaz gaizki errezelatzea edo sospetxa gaiztoa egitea dala, era orretan gordetzea? **E.** Ori ezta juizio gaiztoa: ezta

ori sospetxa edo errezelo erabagea eta temerarioa: da bai prudenzia, eta zinzotasuna: eta gaizki egiteko bidea, eta okasioa kentzea. Bada Kristau argal askori gertatu oi zaie, asmo gaiztorik pekatu egiteko ez izan arren, okasioan edo peligroan jarri ezkeru, etsaiak tentatu, eta pekatu egitea: eta ala iñorzaz juizio gaiztorik egin bear ezpadegu ere, gere gauzak modu onean gorde ditzakegu, eta gorde bear ditugu.

Eta orain gaurko dotriña bukatzeko, ar dezagun guziok gogoan Jesu-Kristo gure Jaunaren sententzia au: *eztezazuela iñor juzgatu; eta etzerate juzgatuak izango: eztezazuela iñor kondenatu; eta etzerate kondenatuak izango:* eta orri dagokala, San Paulo Apostoluak esaten digu: Nor zera zu besteren serbitzaria juzgatzeko? *Domino suo stat, aut cadit:* Bere Jaunak kontu artuko dio: esango balu bezela: Jaungoikoari bakarrik dagokio guziok juzgatzea. Eta geurk nai ezte-gula juizio edo sospetxa erabageak burura etsaiak ekarten badizkigu, Kristau onak egiten duen bezela, burutik kentzeko edo ezer erabaki bage, juizioa suspenditzeko, eta atzeratzeko alegiñak egin ditzakun. Orrela konsentitu eztegutako satisfazioa izango degu: alkarrekiko karidadea gordeko degu: eta betiko pakea, eta gloria iritsiko degu. Amen.

OGEITA AMAIRUGARREN DOTRIÑA

Murmurazioaren gañean.

Gure dotriñako katezismo laburrak esaten digu, Jaungoikoaren legeko zortzigarren Mandamentu Santua ausitzen duela: 1. arrazoiaren kontra juzgatu duenak, au da, erabageko juizioak projimoaren kontra egiten dituanak, eta ori azaldu edo explikatu nizuen aurreko dotriñan: 2. erakusten du: Mandamentu au ausitzen duela. *Fama kentzen duenak*: eta nola ori gertatzen dan ain sarri, eta orretan pekatu txit asko egin oi diran; gaur aditzera eman nai dizuet: murmurazioa zer pekatu dan; eta nola gertatu oi dan; eta zenbat gaitz dakazkian: eta 1. galdetzen det:

G. Zer da fama? **E.** Da kristauak gurekiko, eta besteakiko daukan kreditu ona; eta argatik zor zaion estimazioa: agertu, eta erakutsi bear dioguna, naiz aren aurrean, naiz atzean edo ausenzian arzaz hitz egiten degunean: baña diferentzia edo distintzio onekin, ze bere ausenzian projimoaz gaizki hitz egiten badegu, orduan fama edo kreditoa bakarrik kentzen diogu: eta

bere aurrean gaizki hitz egiten badiogu, iñork dakuse-
la edo begira dagoala; famarekin batera honra ere
kentzen diogu: eta iñork ikusi, eta aditu bage gaizki
hitz egiten, eta despreziatzen badegu, orduan fama-
rik, eta kreditorik ere kentzen eztiogu; baña bai zor
dion honra: eta ortik ezagun da famaren, eta honraren
artean dagoan diferentzia andia: askok bata, eta bes-
tea gauza bat balira bezela nastutzen baditue ere;
bada fama kentzen da, ausenzian gaizki esanaz: eta
honra kentzen da, bati bere aurrean gaizki edo des-
prezioarekin hitz egiñaz: edo gaizki tratatuaz, au da,
zor diogun estimazio, errespeto, eta honra galduaz
edo ukatuaz beraren aurrean; eta ori da konfesioan
distinzioarekin azaldu edo esan bear dana.

G. Eta zer pekatu da kristauari bere ausenzian
fama kentzea? **E.** Berez da pekatu mortala, gai pisu
edo grabean izan ezker: eta izan oi da pekatu benia-
la, lotsarik ez dakarren edo miñik edo sentimenturik
emateko gai eztan gauzaren bat edo utsegite txikiren
bat erausten danean. Baña murmurazioaren gaia
andia edo txikia dan, eta pekatu mortala edo beniala
dan ezagutzeko etzaio begiratzen bakarrik esan edo
erausi dan projimoaren utsegite edo gaiztakeriaren
anditasunari edo txikitasunari; baizik erausi arekin

kendu zaion fama onari edo kredituari: eta ala soldadu arro bategatik esatea aserrekorra dala; iñori, ofenditu ezkeru, barkatzen eztakiala; bereala golpeka abiatzen dala: eta nor edo nor desafiatu, eta heritu edo zauritu duela, ez lizate izango pekatu mortala; zerren orrelakoai fama andirik kentzen etzaie: eta erak askotan gala egin, eta gloriatzen dira: eta kontrara Obispo Jaun bategatik edo birtutezko fama ona duen Abade, Errelijioso edo errespetoko persona bategatik esatea gezurra sarri esaten duela: hitz ariñak, eta atsegingarriak emakumai esaten ditzela, izan ditekete pekatu mortala; zerren agitz gutxitzen zuten dauken birtutezko fama edo kreditu ona.

G. Eta besteren utsegiteak edo faltak erausten dituanak edo murmuratzen duanak, famarik kentzeko asmo edo intenziorik batere ezpazuen; baizik hitz jario edo hitz onzi arin baten gisa, gaitz egiteko uste bage esaten baditu, pekaturik egin du? **E.** Fama agitz kentzeko edo gutxitzeko diña murmuratu badu, asmo edo uste gaiztorik ez izan arren berez pekatu mortal egin du: bada dauka obligazio andia, bere burua bezela, bere projimoa amatzeko, eta estimatzeko, eta bereztat nai eztuen gaitzik iñori ez egiteko: eta ori mundu guziak ezagutu bear du.

G. Eta zenbat modutara edo gisatara projimoari bere fama kentzen zaio? **E.** Txit modu askotara ori gertatzen da: eta lenengo kentzen zaio kalumniarekin, au da, testimonio falsoa edo gezurrezko asmatuarekin, edo egin eztuen gaiztakeri edo utsegite lotsagarri edo sentikor bat projimoari altxatuaz, eta erausiaz, Susana, ezkondu santa, eta kastari, arzaz erabagekiro itxuturik zeuden agure biak gusto eman etzielako, adulterioan arrapatu zuela gezurrezko testimonioa altxatu zibena bezela: baña ondo pagatu zuen merezi zuen pena edo kastigua: bada Jaungoikoak egia agertu eragin zuen: eta agure gaizto biak arika Pueblo guziaren aurrean illeragin zituen. Eta baita da testimonio falsoa, eta murmurazio larria orobat egiten da projimoak egiaz egin duen utsegite txiki bat aziaz, eta andia baliz bezela esanaz edo bein egin duen utsegitea, sarri egin balu bezela aditzera emanaz, nola izango lizatean, gezur bat edo beste iñoiz esan duenagatik, gezurti andi bat dala esango baliz: lau edo bost kuarto ostu dituanagatik esango baliz, lapur bat dala: edo iñoiz argaltasun bat uste bage izan zuen neskatxe edo emakume bategatik esango baliz, emakume galdu bat dala: eta gizakumeakin erraza, eta lotsabagea dala; bada orrelako gaizki esale edo murmuratza-

Illeak pekatu mortal arrigarri bat egiten du: eta kendu duen fama biurtu, eta ekarri dituan kalte edo dañ guziak pagatu bear ditu al dueneraño, konfesoreak esango dion moduan: eta bestela infernuan pagatu bearko ditu.

G. Eta zein da projimoari fama kentzeko bigarren modua? **E.** Projimoak egiaz egin duen gaiztakeria, baña ezkutuan edo sekretoan dagoana, eztakienai esatea, eta agertzea.

G. Baña orrelakoak egia esaten badu: eta ziurtu dana salatzen badu, pekaturik egiten du? **E.** Bai; eta gai pisu edo grabean besteren sekretoko utsegitea agertzen badu, pekatu mortal egiten du: bada projimoaren falta edo pekatua ezkutuan dagoan bitartean, bere fama onarekin dago: eta ori kentzea pekatu mortal da: eta ez bakarrik bizi danari, baita fama onean ill zanari, gai pisu edo grabean fama kentzea, pekatu mortala da; eta orrelakoai konfesoreak erakutsiko die, nola fama biurtu, eta kalterik ekarri badu, nola, eta zenbaterano pagatu bear duen.

Eta konfesioan, eren buruak edertzeko, eta esku-satseko, esaten duenak, erak iñori ezer asmatu eztiobela: eta bestegandik lenago projimoaren falta aditu zuela; ezaguturik, eta jakiñik eduki bear due; nabar-

bendu bage, barreatu bage, publikatu bage dagoan besteren gaiztakeria, erak ziertu jakin arren, ezin salatu, eta iñori erausi deikiobela; bada orixe da injustamente fama kentzea.

G. Eta baldin bere satisfazioko persona bati baizik esaten ezpadio sekretoan dagoan besteren falta edo utsegite andia, sekretoan edukitzeko enkarguarekin pekaturik egiten du? Nola lizatean senarrak emazteari, edo emazteak senarrari; edo adiskideren bati kontaktu, eta murmuratuko balue? **E.** Premiasko motibo justu bage esaten badio, eskuarkiro pekatu mortal izango da. Ara nola, iñori esan bage ere, juizio gaizto edo erabageko bat gai pisuan besteren kontra arrazoi edo motibo bage egitea, pekatu mortala izan oi dan, bere barruan bakarrik fama kentzen diolako; orobat, eta arrazoi geiagorekin besterekiko fama kentzea pekatu mortala da: eta sekretoan esan arren, eta besteri sekretoa enkargatu arren, alde batetik persona arekiko fama kentzen diolako; eta bestetik ortik, datorren nabarbentzeko edo publikatzeko peligro edo arriskuagatik: bada bakoitzak bere satisfazioko persona dituzte; eta bata besteari sekretoan esan arren, laster barreatzen, eta publikatzen da: eta guziak ezekusatzen dira, erak asmatu eztuelako, bestegandik lena-

go aditu zuela: eta oek esan zuenean, bazirala franko zekienak: eta ala gauza garbirik eziñ atera da: nork antxitiko esan zuen ezin jakin diteke: eta guziak publiko zala esaten due: eta erak, bata besteari esanaz publikatu zuela aitortzen, eta konfesatzen eztue: baña ezagutu bear due, aen kulpaz projimoari fama kendu zaiola; eta al dueneraño, biurtzeko obligazioa duela.

G. Eta besteren falta edo utsegite andia aditu duela bakarrik esaten badu; ala dala ziurtu aseguru bage; pekatu mortalik egiten du? **E.** Eskuarkiro pekatu mortal egiten du, artean nabarbendu bage bazegon utsegite ura: bada orrelako murmurazioak eskuarkiro ezkutuan zegoan gaitza edo egiazko edo iruipenezkoa kanporatzen, eta publikatzen du; eta kalte andia egiten du: bada orrelako erausiak txit erraz sinisten dira.

G. Eta orduan esango balu, berak alakorik sinisten eztuela; zerren fede gutxiko personari aditu zion, pekaturik egiten du? **E.** Ala ere pekatu mortal egiteko peligro andian jarten da: zerren aditzen duenai juizio edo sospetxa gaiztoak egiteko bidea ematen die: eta baita aek beste batzuei kontatuaz, utsegite ura nabarbentzeko, eta fama galdu eragiteko okasioa ematen die; eta orrela kreditu ona erraz galtzen da: eta ala

erremedio askorentzat edo guzionzat guztiz premiazkoa da besteren faltarik ez aitatzea; ixillik egotea: bada mingaña gaizki esaten abiatu ezkeru, erraz utsegite txikietatik andietara, eta sekretoan daudenak nabarbentzera, eta salatzeru igarotzen da.

G. Eta projimoaren utsegitea, falta edo pekatua nabarbendurik, barreaturik edo publikaturik badago, oraindio, eztakienai edo publiko eztan toki edo lekue-tan esan ote diteke? **E.** Orrelako utsegite edo gaiztakeri nabarbenak edo publikoak aitatzea alkarren artean; eta eztakiztenai esatea ezta eskuarkiro pekatu mortala; zerren projimoak orduko bere fama galdu-rik dauka: baña askotan izan diteke karidadearen kontrako pekatu mortala: nola litzatean, esango balitz gure projimoak oraindio fama ona daukan tokian, eta aren gaiztakeriaren berria nekez jakingo dan lekuan: eta ori barreatuaz berari, eta bere aideai lotsea, eta kaltea ekarriko dien moduan: eta orobat izango da pekatu mortala, anziñako falta lotsagarri bat, azturik dagoana, eztakienai esaten bazaie; eta batez ere gaiztakeri ura egin zuenak bere bizimodu onarekin arrezkeru bere fama ona berriz iritsi badu. Eta baita izango da pekatu mortala, besteren falta nabarbena berariaz aitatzen badu, eta erausten badu gaitziritziz,

enbidiaz edo gorrotoz, eta ari kalte egiteko asmo edo intenzioarekin. Eta ala, N.K. gai onetan, pekatu mortallik ez egiteko, txit kontuz bizi bear da, eta mingaña gorde bear da, eta eskusatu besteren faltak eztakiztenai ardurabage esatea, iñori kalterik egin eztakion.

G. Eta noiz esango degu besteren falta edo gaiztakeria dala nabarbena, eta publikoa, eta ziertutzat eduki ditekiana? **E.** 1. Askoren aurrean plaza edo kale batean nabarbenkiro gaiztakeria egin zuenean. 2. Erriaren etxerik geienetan barreatu danean. 3. Jueza-
ren aurrean testiguak era batera deklaratu duenean. 4. Gaizkilleak berak autortu edo konfesatu duenean. Eta 5. Juezak kondenatu, eta nabarbenkiro kastigatu eragin duenean: eta onelako aldietan batez ere gaiztakeri guztiz andiak, nola eriotzak, lapurretak, eta bestela onelakoak agerian edo publikoan kastigatzen diranean, ezta pekatu oriek aitatzea, eta eztakienai esatea, eta gastigatzea, askoren eskarmentu, eta erremediorako serbitu dezakealako. Baña bestelako pekatu edo utsegite sekretoan gertatuak, eta bearbada gertatu bage asmatuak, edo iruipen uts batzuakin sinistuak, eta ziertuak balira bezela batak besteari esanak, eta orrela gaizki barreatuak, eztira erraz sinistu bear, eta are gutxiago erausi bear: bada zenbatek,

egiazko motiborik eman bage, erausi oriekgatik galdu due eren fama, eta kreditu ona; eta galdu ditue beste- la izango zituzten konbenienziak, enpleoak, eta onda- sunak.

G. Eta badira murmuraziorik, eta pekaturik egin bage, besteren sekretuko falta edo utsegiteak, eta gaiztakeriak esateko edo norbaiti aditzera emateko, motibo justuak? Eta, baita esatera obligatzen edo beartzen gaituen premiazko aldiak ere? Bai badira. Noiz ordea orrela esan ditezke? 1. Alde batetik egiaz- koa, eta ziertua danean besteren gaiztakeria; eta bes- tetik beraren edo gere edo besteren kalte andiren bat eragozteko edo eskusatzeko edo erremediatzeko nai ta ez esan bear danean: baña orduan ere bakarrik esan bear zaio erremediatu bear duenari edo erreme- dioa ipinten laguntzeko gai danari, eta ez besteri: eta ala ziertu badakizu, onelako edo alako etxean sartzen dan urliak lapurretak egin oi dituala, bestela ezin erre- mediatu baditeke, etxe artako jabea kontuan ixillik ipiñi dezakezu, bere gauzai ondo begira degien, eta gorde ditzan: orobat ziertu badakizu beste batek urlia- ren edo berendiaren alaba ez orduetan edo gabaz bisitatzen duela, eta pekatuko okasioan dabiltzala; alakoaren sarrerak ezin zeurk eragotzi baditzakezu,

eragotzi bear dituanari sekretoan, eta karidadez esan deikeiozu, eta obra on bat egingo dezuz: orobat zierto badakizu, urliak, eta berendiak errian edo auzoan eskandaloa, eta zer esana ematen duela, zeurk ezin erremediatu badezakezu, erremediatzeko kargua duenari esan edo gasteatu deikiozu, baña ez gaitziritziz edo gorrotoz, ezin ekusi dezulako edo gaitzen bat egin dizulako bendekuz ene benganzaz; baizik karidadez, beraren, eta besten erremedioa billatzen dezula.

G. Eta noiz gaude bearturik edo obligaturik besteren faltak edo gaiztakeriak esatera? **E.** 1. Justiziako kargua duenak, bear dan moduan dakigunaren deklarazioa egitea agintzen digunean. 2. Ezkonza eragozteko diña dan inpedimentua edo eragozgarria ziurtu dakigunean: bada oriek agertu eragiteko, ezkondu baño lenago pulpilotik deiak egiten dira: eta orobat, ezkonza bat erabakitzeko, ezkongaiaren kondizioa, jenioa, eta oiturak galdetzen badigue, esan bear ditugu, besteren kalteak eskusatzeko, ala bear danean: eta baita serbitzarien kondizioak galdetzen diguztenean, nagusien kaltegarriak izango dirala badakigu. Eta 3. Obispo Jauuak edo beste agintariak informazioak egitea, eta dakizkigun faltak agertzea agintzen duenean: bada aldi orietan kalte andiagoak eskusa

erazotzeko, eta edo komunari edp partikularrari gaitzik etorri eztakion, bear izaten da besteren faltak edo utsegiteak agertzea: eta orduan pekaturik egin ezeze, agertzeko obligazioa dago: baña beti egin bear da intenzio onarekin, eta ez iñori gaitzik nai diogulako.

G. Eta projimoaren falta ezagutuak, eta kondizio edo jenio txarrak, hain naturalak edo berezkoak, esatea, eta aen gañean murmuratzea pekatu ote da? Eta zer pekatu da? **E.** Motibo bage, eta premia bage oriek eraustea, eskuarkiro pekatu benial oi da; zerren geie-nean jakiñak izan oi dira bakoitzaren jenio edo naturalak: nola dan izatea zerbait arroa, eta aserrekorra; izatea banidadera zerbait etziña: puntosua edo zapuztia; zerbait alperra, eta onelako beste falta arinak: bada oek aitatzearekin falta edo pekatu andirik agertzen ezta. Baña ala ere iru aldietan izan diteke pekatu mortala: eta 1. eztakienai esanaz ondasun edo konbenientzia andiren bat galdu eragiten zaienean. 2. Eren aurpegian esanaz agitz despreziatzen, injuriatzen, eta aserraerazotzen dituen faltak; nola bati esaten zaienean desprezioarekin ero bat zera; tonto andi bat zera; zenzurik edo juiziorik batere eztezu etc, eta oen antzekoak. Eta 3. gaitziritzi, gorroto edo benganzaz alako faltak erausten diranean; edo besteren aurrean

lotsatzeko erai esaten zaiztenean, batez ere gure mendekoak eztiranean: bada askotan gurasoak, eta nagusi edo etxeakoandreak, eta beste agintariak, eren mendekoak erreprenditu bear dituenean, injuria andirik egin bage, eta gaitzik deseatu bage orrelako faltak, eta kondizio edo jenio txarrak aurpegira bota oi dizte.

G. Eta noiz geiago izan oi da pekatu mortala, besteren faltak eztakizkitenai esatea? **E.** Azturik dauden, eta lotsa emateko gai diran aurrekoen billautasunak edo gaiztakeriak berritzen edo salatzen diranean: nola izan ditekean esatea fama onean daudenakgatik bortak dirala, judu kastak dirala, jenerazio txar edo baju-koak edo lapurkumeak dirala: bada ortik kalte andiak etorri dakike orain estimazioarekin eta kreditu onarekin bizi diranai. Eta eren aurpegian eta iñoren aurrean esango balitzakie, fama, eta honra batetan kenduko litzaieke: eta alako erauslea edo murmuratzallea gelditzen da, pekatu mortala egiñaz gañera obligaturik galdu eragin edo kendu dien fama, eta honra biurtzera, eta erakarri dituan kalte edo dañuak pagatzera: eta nola ori ondo egin dezakean konfesoreak erakutsiko dio.

G. Eta esan ditugunaz gañera beste murmurazio motarik bada? **E.** Txit asko, eta txit kaltetsuak mun-

duan ikusten dira, eta ez orain luzatzeagatik, prinzipalenak beste dotriña batean esango dizkizuet; eta baita noiz, eta nola pekatu egiten duen murmurazioak aditzen egoten diranak: eta nola atzeratu, eskusatu, eta eragotzi bear dituen.

Eta orain dotriña au bukatzeko, eta murmurazio mota guziak guziori igui eragiteko, bakarrik esaten dizuet, Eskritura Santak erakusten digunez, murmurazioko bizioa dala Jaungoikoaren begietan, eta baita munduaren begietan ere guztiz iguigarria: bada iñor libre eztago mingañ gaizto batek egiten dituan kalte arrigarrietatik; bada fama ona kenduaz edo gutxituaz edo illunduaz gañera, eta orretan lapurreta baño andiago dan pekatua egiñaz gañera, zenbat aserre, zenbat gorroto, eta beste zenbait gaitz, eta pekatu sortu eragiten eztitu? Eta bestentzat ezeze, bere buruarenzat, nolako ondorengo txarrak eztakazki? Bada salbatuko bada, egiazko penitentzia egingo badu; nai ta ez kendu duen fama biurtu bear du: eta egin edo eragin dituan kalte edo dañuak pagatu bear ditu. Eta nolako enbarazoak orretarako arkitzen eztitu? Gorde bada, N.K. kontuz zuen mingañak; eta orrela pekatu askotatik libratuko zerate; pakea zuen buruakin, zuen lagunakin, eta zuen Jaungoiko eta Aita

maitearekin izango dezue; eta gero betiko pakea,
atsedena, eta gloria Zeruan gozatuko dezue. Amen.

OGEITA AMALUGARREN DOTRIÑA

- 1. Murmurazioko beste pekatuen gañean:*
- 2. murmurazioak aditzearen gañean:
eta murmurazioak pazienziarekin
eramatearen gañean.*

Iru bizieta mota ditu kristauak: 1. bizieta espiritua-
la edo graziaren bizieta. 2. Bizieta naturala edo gorpu-
tzarena. Eta 3. jende arteko bizieta estimatua: au da,
fama ona, eta kreditu ona jende artean edukitzea. Eta
gaizki esaleak askotan iru bizieta mota oriek galdu
eragiten ditu: bere animarena, pekatu mortal egiten
duelako: bere aditzallearena, beste ainbeste egitera
mugitzen duelako; eta fama kentzen dion projimoare-
na, bada jende arterako estimazio bage, eta illik beze-
la uzten du, eta askotan bizieta laburtzen dio: orra zein
kaltegarria, eta iguigarria dan murmurazioa: eta nola
ori modu askotan egiten dan; zerbait aurreko dotriñan
esan bagenduan ere, badago zer esana franko gaurko
dotriñarako ere, murmurazioko pekatuen gañean. Eta

Jaungoikoari nai dakiola askoren erremediorako izatea.

G. Zein izan oi dira bada murmurazioarekin fama kentzeko beste moduak? **E.** Txit asko dira: eta zerren ondo ezagutzea konbeni dan, prinzipalenak esango dizuet: eta 1. projimoaren obra onak fin gaiztoz edo intenzio oker batekin eginak dirala aditzera ematen danean, eskuarkiro pekatu moral bi egiten dira: bata, erabageko juizio gaiztoa egin duelako; eta bestea, juizio ori erausiaz projimoari fama kentzen diolako: eta ortik zenbat pekatu, eta zein kalte arrigarriak etorri oi diran ezin erraz esan diteke. Eta ala ikusiko dezue persona batek sarri konfesatzeko, eta komulgatzeko oitura santua badauka; peligrozko jostatze, eta dantzai alde egiten badie: modestiarekin jantzitzen bada; ori alabatu ordean, eta aren exenploari jarraitu ordean, maliziaz beterik dagoan murmuratzalleak esaten duela; banidadez egiten duela; ipokrita bat dala, alde artatik estimazio billa dabillega; santa bat dala aditzera eman nai duela; eztala urre egiazkoa ala dirudian guzia; eta beste onelako esaera batzuekin barruan daukan pozoia agertzen du: besteren fama ona zikitzen du: eta aditzalleai juizio gaiztoak eragiten die: eta obra onak egiteko gogoia ere kentzen die: eta,

nork esan ditzake orren ondorengo kalteak? baña goazen aurrera.

G. Zein da fama ona kentzeko 2. modua? **E.** Projimoari estimazioa dakarkion obra ona ukatzea: nola lizatean urliak edo berendiak noizbait gaizki egin bazuen, bere damuarekin, eta bizimodu onarekin guzia erremediatu zuela esaten danean, ori ukatzea, eta gezurra dala esatea, murmurazio andia da: orobat bestiak egin duen karidadezko obra andi bat aitatzten danean, ura ukatzea edo ainbeste ezjala edo banidandez egin zuela aditzera ematea, da murmurazio andia: eta onela beste modu askotan kentzen edo gutxitzen zaio projimoari dauken fama ona.

G. Eta zein da murmuratzeko eta fama ona kentzeko 3. modua? **E.** Alde batetik projimoaren kondizio edo prenda on bat alabatu, eta bestetik bereala pero edo baña bat guzia zikintzen duena egozten zaionean. Eta ala esan oi due: urlia deboziora, eta Eliz gauzeta-
ra emana da, baña gutiziosoa, eta zekena da. Berendia limosnagillea da; baña obligaziozko zorrak pagatzen eztitu: urlia kanpokoakin kortesa, atentoa, eta gusto emallea da; baña etxeakoakin aserrekorra, eta iguigarria da. Berendiak Eliz funziarik, eta sermoirik galdu nai eztu: baña aetan aditzen duena egin nai

eztu. Besteak asko gastatzen du jokuan, janzian, eta jan-edanetan; baña nundik datorkion eztakigu: adiskide onen batzuek gastua egiten laguntzen dikiobe. Eta onela juizio gaizto asko, eta murmurazio guztiz kaltegarriak ardurabage egiten dira.

G. Eta zein da murmuratzeko usatu oi dan laugarren modua? **E.** Projimoaren fama defenditu, eta gorde eragin bear danean, ixillik egotea: eta orrela darausten murmurazioa egia dala besteai aditzera ematea. Eta ala zure aurrean urliari edo berendiari egin eztuen utsegite edo gaiztakeri andi bat asmatzen badiobe; eta gezurra dala baldin badakizu, obligazio estua dezu besteren fama defenditzeko: eta are obligazio estua goa dezu, gezurra dala garbiro esateko, baldin persona aren berri besteak baño obeto dakizulako, orren gañean galdetzen badizue: bada bestela zure ixiltasunarekin besten murmurazioa ontzat ematen dezu, eta orobat besteren fama ona agitz azitzen edo geitzen duen obra andiren bat aitaizen danean; edo zure ixiltasunarekin edo erdizka baizik edo oztasunarekin alabatuaz merezi duen fama gutxitzen badiozu, murmurazioko pekatua egiten dezu edo larriagoa edo txikiagoa: aitatzen dan gaiari, eta ekarten diozun kalteari dagokion moduan.

G. Eta bada oraindio beste murmurazio motarik?

E. Bai: eta da guzien artean infamagarriena, eta kaltegarriena, Infernuko deabruak berak asmatua dirudiena. Eta zein da ori? Ezer ere seinalatu bage, esan al baño geiago esatea, eta ara, nola gertatu oi dan, konbersazio batean esaten due: urliak gauza latzak berendiari esan diozka: lotsaturik utzi du: eta orduan batek dio: a, bada niri esan balizkit aoa itxi eragingo nion: esango niozkan, nik dakizkidan, eta orain esan nai ezitudan, beraren gauza lotsagarriagoak. Beste aldi batean norbaiti agitz igui duen, eta min ematen dion gauza bat esaten zaio: eta bereala eranzuten du: ori niri esaten didazu? Eztakizu, ixillik egotea obe dezula? Badakizu, lotsatu zaitzakedala. Beste aldi batean norbaitegatik gaizki hitz egiten ari dirala, dio batek, orren gauzak, nik bezela bazinakizkie, illeak lastu, eta zuti jarriko litzakezue. Beste batean, norbait alabatzen ari dira: eta orduan batek sorbaldak beerratu, burua makurtu, eta illun-illun dio desprezio andiarekin, orren iritzi onean etzenduke ori edukiko, nik bezela ezagutuko bazendue. Zer dakizu badu zuk? galdetzen diobe: eta eranzuten du: ezin esan nezake: mundu guziagatik ere ez nuke esango: alde batetik alabanza merezi du: baño guzian alabatu nai nuke;

eta ezin det. Eta modu onetan, aren utsegiteak seña-latu, eta klaru esango balira baño geiago infamatzen, despreziatzen, eta deshonoratzen due: eta juizio gaizto asko eragiten ditue, eta eskuarkiro murmurazio oriek, eta lenago esan ditugunak, datoz enbidiatik, eta gorroto edo gaitzirititik: eta alde orretatik bakarrik dira pekatu mortalak, famea agitz galdu eragiten eztuenean ere: baña nekez gertatzen da murmurazioak egitea, eta kalte guztiz andiak ez ekartea. Eta argatik bizio madarikatu onetatik libratu nai duenak, bere burua ondo examiñatu bear du: egin edo eragin dituan edo erakarri zitzakean kalteak ezagutzeko, eta erremediatzeko alegiñ egiazkoak egin bear ditu: bada bestela eztago alako gaizki esale, eta murmuratza-llarentzat Zeruko erreinurik, baizik betiko kondena-zioa, eta betiko Indernua: *neque maledici Regnum Dei posidebunt*: dio San Paulo Apostoluak.

G. Eta gure projimoa mingañaz ofenditzeko beste modurik bada? **E.** Baita asko ere: eta batez ere, 1. bere aurrean burla, iskarnio edo farre egiñarekin: eta lotsatzeko diña diran hitzak esanarekin agitz ofenditzen danean, eskuarkiro pekatu mortala egiten da: eta askotan, daukan honra, eta estimazioa, eta baita kreditu edo fama ona ere kentzen zaio, besteren aurrean

desprezio oriek egiten edo esaten zaiozkanean: eta dago obligazio estua, alik modurik onenean, kendu zaion honra, eta fama, biurtzeko. Baña bearbada esango dezue: iñori burla, farre edo eskarnio egin badiozue, aserre erazotzeko asmorik etzenduela; eta bakarrik lotsatzeagatik, eta farre eragiteagatik, eta txaskoren bat emateagatik izan zala: ala ere diot: 1. orrelako txanzak, eta txaskoak eskuarkiro pisuegiak izan oi dirala; eta ondorengo txarrak, eta benetako aserreak ekarri oi dituela: 2. diot: baziñakian farre, eta burla egin diozun persona ori aserrekorra, eta suminkorra dala, eta erraz ofenditzen dana: eta lotsatzeko diña esan baziñion, eskuarkiro pekatu mortala egin zenduela: eta 3. diot gaizki nai diozulako, eta berariaz tentatzeagatik, eta aserra erazotzeagatik lotsatu bazenduan pekatu mortala egin zenduela: eta satisfazioa emateko obligazio andia dezula. Eta bada oraindio mingañezko beste pekatu mortal bat guztiz kaltegarria; eta da batetik bestera txismak, eta esamesak erabiltea, eta adiskidetasunean bizi diran personak, eta familiak okertzea, eta gorrotoan ipintea. Ori da deabruaren beraren lanak egitea: eta ori gertatzen da batez ere txismegilleak esaten duenean «ara zugatik zer dioben onelako personak edo onelako etxean»,

agitz sentitzeko edo mindutzeko gauzaren bat aita-tzen diola. Eta orrela etxe edo familia askoren artean pakea, eta adiskidetasuna galdu eragiten due: eta gerra bizi edo gorroto andian ipinten dituzte: eta, nork esan ditzake ortik datozen pekatutak, eta kalte arrigarriak? Bada guziak bere gañ ditu txismero edo berri eramalle madarikatuak: eta salbatuko bada guziak erremediatzeko obligazio estua daukanak bezela, alegin guziak egin bear ditu, aserra erazo dituanak lengo pakera, eta adiskidetasunera biurtu eragiteko: eta konfesoreak esango dio, orretarako zer egin bear duen.

G. Baña persona bik edo geiagok, eren artean adiskidetasun gaiztoren bat badue; nola amorio loi zikiña duenak; edo gaitz egiteko elkarri laguntzen diobenak; orien adiskidetasuna desegitea pekatu izango ote da? **E.** Ez, ezta ori pekatu, zelo onarekin, eta prudenziarekin egiten bada: baizik da karidadezko obra andi bat egitea: eta orretarako etzate berso edo koplarik atera bear, eta oriek kantatuaz sekretoan dauden utsegiteak nabarbendu bear: bada ori lizate izurria banatzea, eta itxatxi eragitea bezela: ori lizate askori eskandalo ematea, eta murmurazioak geiago, eta geiago zabaltzea: pekatarien erremedioa billatu

bear da, baña al bada, lotsarik eman bage, eta gaitz geiago ekarri bage.

G. Eta bada oraindio projimoa hitzakin ofenditzeko beste modurik geiago? **E.** Bai: eta dira aurrera aitatu bear ditugun iru prinzipalenak: 1. gorde bear diran sekretoak premia bage agertzea: 2. gezurrak esatea: eta 3. lausonja edo adulazioakin projimoa itxutu eragitea, eta gaitz eragitea: baña oriek beste dotriña baten hitz-gaiak izango dira. Eta orain murmurazioko pekatu mota diferenteak, eta oriek dakazten kalteak aditu dituzuen ezkerok; bakarrik esan nai dizuet, zer pekatu dan murmurazioak aditzen egotea: eta nola eskusatu, eta eragotzi bear diran al daneraño: eta baita nola gure kontrako erausiak, eta murmurazioak, pakea galdu bage, eta bendeku bage sufritu bear ditugun.

G. Pekatu da bada besteak egiten dituen murmurazioak aditzea? **E.** Aldi batzuetan ezta pekatu, eta beste batzuetan bai.

G. Noiz ezta pekatu murmurazioa aditzea? **E.** 1. Ezta pekaturik batere, batek ezin eskusatu dituan murmurazioak aditzea, ez bere barruan, eta ez kanpotik aprobatzen ezpaditu. 2. Are gutxiago bere ixiltasunarekin edo aurpegiko illuntasunarekin eta tristurarekin edo alde egiñarekin edo konbersazioa aldatuare-

kin, murmurazioa igui duela aditzera ematen badu: bada orduan pekatu egin ezeze, obra on bat egiten du, eta Jaungoikoaren aurrean asko irabazten du: bada bataren pekatua eragozten du, eta bestearen fama gordetzen du: guziok egin bear degun bezela, artarako era ona edo modu ona degun guzian.

G. Eta noiz da pekatu murmurazioak aditzen egoitea? eta zer pekatu da? **E.** 1. Diot: bere barruan ez aprobatu arren, eta ez konsentitu arren, murmurazioa atzeratzeko eta geldi erazotzeko alegiñik egiten ezpadu edo bildurrez edo lotsaz edo nagitasunez, egiten duela pekatu, baña eskuarkiro pekatu beniala: batez ere eragozteko eskualdirik, eta obligaziorik ezpadu, gurasoak, eta beste agintariak duen bezela: eta 2. diot: murmurazio grabea egiteko bidea edo motiboa ematen duenak, berariaz galdetuaz, edo alako murmurazioa onzat emanaz, edo artan atsegin artuaz, edo eragotzi bear duenean, artarako obligazioa duenak, onzat artuaz, eta ez debekatuaz, eskuarkiro pekatu mortal egiten duela, jakineztasunak edo ignoranziak, eta oarmen edo adbertenziaren faltak eskusatzen ezpadu. Bada San Bernardok dio, eztala erraz ezagutzen, nork pekatu andiagoa egiten duen; edo murmuratzalleak edo aren aditzalleak: eta bakarrik

dagoala diferentzia, batak mingañean, eta besteak belarrietan deabrua edukitzean. Eta ala guziok, al deguneraño, ez bakarrik geurk murmuratzea, eta besteai fama ona kentzea eskusatu bear degu, baita ere besten murmurazioak eskusatu, atzeratu, eta obligaziorik badegu, eragotzi bear ditugu. Eta besterik ezin degunean, Espiritu Santuaren konsejua artu: au da, uste bage, murmuraziorik aditzea gertatzen bazaku, aurpegi illuna, eta tristeia erakutsi: bada dio Espiritu Santuak berak; ipar aizeak odeiak aienatzen edo banatzen dituan bezela, aurpegi tristeak mingaiñ gaiztoak, gaizki esaleak, murmuratzalleak atzeratzen dituala. Eta murnurrazioa eragozteko eskurik, eta kargurik badegu, ez bakarrik eskusatu bear degu, murmuraziorik geurk egitea, eta orrela besteai eskandalo ematea edo gaizki erakustea; baizik zelo andi batekin besten murmurazioak eragotzi, eta atzeratu bear ditugu. Ala erakusten zuen, eta egin oi zuen Elizako Doktore edo Maisu andi San Agustiñek: Iponako Obispo zala, beste Obispo, eta adiskide batzuek bere maian askotan eduki zituen, eta alako aldietan askotan egin oi diran murmurazioak eskusatzeko, eta eragozteko maitik ikusten zan bertako toki batean, letra andiakin eskribitu erazo zituan latiñezko berso bi, modu one-

tan: *Quisquis amat dictis absentum rodere vitam; hanc mensam vetilam noverit esse sibi*: eta esan nai due «mai onetara zer etorri eztu, emen besteren faltak erausi nai baditu». Eta zerren ala ere batzuetan, bersoak azturik, murmurazioko hitzen batzuek ustekabean esaten zituzten; kontuan zegoan Santuak esaten zien: edo berso oek desegin edo borraratu bear ditugu edo emendik alde egin bear degu: eta ori guzia testigo izan zan, eta San Agustiñen bizitza eskribitu zuen Posidiok ala aseguratzen digu. Eta orra murmurazioak eskusatzeko, atzeratzeko, eta al deguneraño eragozteko exemplo ederra.

Baña ala ere, nola Kristau askoren gaiztakeriak edo maliziak, eta beste askoren enbidiak, eta gaitziritziak, eta beste askoren ardurabagetasunak, arintasunak, eta guzia erausi naiak, ainbeste falso testimonio, eta ainbeste murmurazio munduan sortzen dituen; eta Kristau on asko agrabiaturik, injuriaturik, eren fama ona galdurik arkitu oi diran; oen konsuelorako dotriña onen bukaeran zerbait esan bear degu: eta 1. ona San Buenabentura Elizako Doktore, eta Maisu andiak orrelakoai ematen dien konseju ederra: esaten die: etzaitetzela aserratu edo sumindu, zuengatik gaizki esan duenaen kontra. Zerren edo egia da edo

gezurra zuen kontra esan duena: egia baldin bada, eztezue zer miretzi, zuek ardurabage gaizki egiteko ausardia izan badezue, besteak ori erausteko ausardia izateaz. Eta baldin gezurra bada daraustena, ezin dañu edo kalterik egingo dizue; (eta bai irabazi andiak egiteko gaia, eta okasioa ematen dizue, pazienziarekin naigabe edo atsekabe ori eramateko alegiñak egi-ten badituzue:) eta bearbada gaitz andiago batetik libratuko zaitue: bada zuen barruko arrotasun estaliren bat sendatzeko geiago serbituko dizue atsekabe orrek, zuen fabore esan dezaken alabanzak baño. Eta orri dagokala San Juan Krisostomo andiak esaten dizue: ondo konsideratzen badezue, mundukoen iritzia, eta estimazioa zein gauza aizetsua, banoa, eta ezereza dan, kasu gutxi egingo dezue, aen erausiaz: bada zuekgatik gaizki esan arren, etzerate gaiztoagoak, eta ondo esan arren, etzerate obeak: Jaungoikoaren aurrean zeraten bezelakoak, egiaz orixe zerate, eta ez besterik: eta orren testimonio edo pruebarako dakar Job Santuaren exenploa: bere emazteak berak gaizki esaka agitz tentatu zuen: eta bisitatzera etorri zitzaizkan iru adiskideak, aren naigabe andiak ikusi, eta Jaungoikoaren kastigua zuela, eta kulpadun andi bat zala juzgatu zuen, eta ala aditzera eman zioten:

baña guztizko pazienzi andi batekin neke guziak, ala barrukoak, nola kanpokoak zeramazkian: eta Jaungoikoak justutzat, santutzat, eta bere adiskide maitetzat deklaratu zuen. Eta argatik gure alegin guzia izan bear da, Jaungoikoaren aurrean kulparik ez edukitzea: bera biotz guztitik serbitzea: eta munduak, daraustalana nai duena, artako biderik ematen ezpadiogu: baña munduaren juzguak, eta erausiak ez gaitu ez obeagotzen, eta ez gaiztoagotzen. Eta orregatik San Paulo Apostoluak esaten zuen: etzat ardura munduaren erausiakgatik; ez nabil munduari kontentu edo atsegin eman naiez, ezpada Jaungoikoari juzgatuko nauenari. *Qui autem iudicat me, Dominus est.* Eta gaizki esate, eta murmuratzallen eskarmenturako, eta kulpa bage sufritzen duen justuen konsuelorako gogora ekarri nitzakezue Eskritura Santuak aitatzen dituan exenplo edo gertaera miragarri asko. Aditu zenduen aurreko dotriñan Santa Susanaren exenplo arrigarria, nola Santa ezkonduari adulterioan arrapatu zuelako falso testimonioa egotzi zioben, eta arrika illtzera zijoazela, Jaungoikoak aren inozentzia milagro batekin agertu zuen: eta testimonio falsoa, altxatu ziobonak, arrika illerazo zituan. Orobat Nabot gizon prestu honraduari bere gurasoak utzi zioben mastia, Akab Erregeari

eman edo saldu izan nai etziolako, Jesabel Erregiñak testimonio falso bat egotzi eragin zion, testigo gezurti batzuek, berariaz billatuaz, eta illeragin zuen: baña Nabot Abranen senora jatxi zan eta orain Zeruko glorian dago. Baña Akab Erregea, eta Jesabel bere emaztea Jaungoikoak kastigatu zituan eriotza deshonragarri batekin: eta orain Infernua daude, eta andik libratuko eztira. Orobat Kore, Datan, eta Abiron, Moises Santuaren kontra murmuratu, eta puebloa altxatu zuelako, Jaungoikoak kastigatu zituan eriotza izugarri batekin: bada aen azpian lurra iregi, eta bizirik irintsi zituan, eta Infernura jatxi ziran: eta aen alde edo fabore jarri ziranak ere Jaungoikoak illeragin zituan: eta beste onelako exenplo asko lege zarreko denporan gertatu ziran: bada lege berrian eztira gutxiago gertatu izan: Jesu-Kristoren beraren, eta Santuen kontra aen etsaiak asmatu zituen falso testimonioak, eta egin zituen murmurazioak kaburik eztue: baña eren pagua edo mundu onetan edo bestean sufritu due, eta sufritutako due: eta bitartean Santuak edo justuak pazientiaz baliatu dira: gaizki esaleak maitatu ditue: eta aekgatik Jaungoikoari gogotik erregutu diobe: eta orra guk ere egin bear deguna. Baña batzuek zuen artean esango dezue: ori guzia egia da: eta Santuen

birtutea guk ere bagendu, pozik egiten dizkiguen injuriak, eta jasotzen dizkiguen teostimonio falsoak, sufrituko ginduzke: baña Kristau argalak gera, guztiz sentikorak, eta minberek gera: eta orrelako aldietan gure barrua bereala samintzen da, irabiatzen, eta alteratzen da, eta bendekura mugitzen gera. Ezagutzen det ori guzia, N.K.: eta ala ere garbiro esan bear dizuet, ezin Zeruko Erreinuan sartuko zeratela, humiltasuna, pazientzia, eta karidatea exerzitate bage: Santuen perfekzio guziarekin ezpada ere, birtute oriek guziok obligatzen gradu artan. Ezin eldu bazaitezke naigabeak, atsekabeak, eta injuriak, Santuak bezela, deseatzera, eta gogo onez, atsegiñez, eta kontentuz sufritzera: Kristauak zeratelako, eta Jesu-Kristoren diszipulu edo eskolakoak zeratelako, eta aren esanak, eta aginteak, nai ta ez gordetzeko obligazioa dezuelako; gutxianez zuen borondatea Jaungoikoarenari sujetatu bear diozue: eta nekez bada ere, zuen griña gaiztoak, eta naturalezaren erabageko pasioak, nai ta ez, ezitzeko, eta goitzeko alegin guziak egin bear dituzue: eta Jesu-Kristo gure Jaunak agintzen dizuen bezela, egunoroko zuen gurutzeta, eta egiten dizkizuen injuriak, eta naigabeak, gustoz ezpada ere, pazientiarekin sufritu bear dituzue. Bendekurako griña, eta mugida

txarrak eskusatu edo menderatu bear dituzue: eta zuen etsaiak, premiak eskatzen duenean, on egin bear diezue; eta bakarrik daukazue zuzena edo deretxoa, modu onean, eta karidadeari faltatu bage, al badezue, zuen fama ona, eta egin dizkizuen kalte egiazkoak biurtu eragiteko; ez bendekuz edo gaitz orde, ezpada fin onarekin: beste dotriña batean esanik daukagun bezela. Ori guzia askotxo kostako zatzue: baña, zuen obligazioa osatuaz gañera, Zerurako ondasun ugariak irabaziko dituzue: Jesu-Kristoren, eta Santuen antze-koak izaten abiatuko zerate: eta zeurok pake, sosegu, eta atsegin andi bat bertatik zuen barruan gozatuko dezue: Jaungoikoari orretarako bear dezuen indarra, eta grazia sarri, eta benetan eskatu egiezue, Jesu-Kristoren beraren izenean: eta orrela, zeurok murmura-ziorik egin ezeze, besteak zuen kontra egiten ditue-nak, zuen probetxurako, eta Zerurako irabazi andiak egiteko serbituko dizue; eta gero eternidade guziko poza, eta kontentua Zeruko glorian gozatuko dezue. Amen.

OGEITA AMABOSTGARREN DOTRIÑA

Aditzera ematen da zer pekatu diran

- 1. sekretoak agertzea: 2. gezurrak esatea:*
- 3. lausonjak egitea: eta 4. ipokresia.*

Aditu dezuen ezkerreko aurreko dotriñetan, nor diran arrazoien kontra juzgatzen duenak: eta projimoari fama kentzen diobenak: eta ori guzia zenbat modutan gertatu oi dan; gaur zortzigarren mandamentu santuaren explikazioa bukatzeko esan bear dizuet, nor diran pekatu egiten duenak 1. sekretoak agertzen dituelako: 2. gezurra esaten duelako: 3. lausonja edo adulazioarekin, eta 4. ipokresiarekin besteak pekatuak dakartzelako, edo engañatzen dituelako. Ona dotriña gai bat guztiz inportantea, eta guztiz bearra: eta ala gogoan ondo artu bear dezue. Mingaña da izan ditekanean gauzarik onena, eta gaiztoena: Jaungoikoak eman digu, bera alabatzeko, eta bedeinkatzeko, eta gure projimoai al degun on guzia egiteko gure hitz onakin, eta konseju santuakin. Eta deabrua gure mingañaz baliatzen da, gure kulpaz, Jaungoikoa ofendi-

tzeko, eta aserratzeko, eta gure projimoai kalte arri-
garriak egiteko: eta argatik mingañaz ondo baliatzen
dana, gizon justua, eta santua da: eta kontrara Santia-
go Apostoluak dionez, mingaña gordetzen eztakiana-
ren erreljioa utsa da: ikusi dezagun bada nola minga-
ña kontuz gorde, eta ondu enpleatu bear degun.

Eta 1. galdetzen det: nor dira, sekretoak agertuaz
pekatu egiten duenak? **E.** Eztitut orain aitatzten beste-
ren falta estaliak edo sekretoak nabarbentzen ditue-
nak: orien gañean hitz egin genduan aurreko dotriñe-
tan. Bakarrik aitatzten ditut besteren sekretoak gorde-
tzeko enkargua duenak, eta gordetzeko hitza eman
duenak. Diot bada, orrelakoak pekatu egiten duela,
enkargatu zaten sekretoak agertzen badue, besteren
baimen edo lizenzia bage edo premia egiazko bage.

G. Eta zer pekatu egiten due sekretoak agertzen
duenak? **E.** Asko inporta duen edo balio duen sekretoak
bada, edo agertzeak kalte andia ekarriko badu, izan-
go da pekatu mortala: eta juramentuaren azpian agin-
du bazuen sekretoak gordetzea, eta autsi bazuen izan-
go dira pekatu mortal bi: baña gutxi balio duen, eta
gaitzik ekarriko eztuen sekretoak agertzen bada, peka-
tu beniala bakarrik izango da. Eta egiazko premiarekin
au da, norbaiten kalte andia eragozteko, sekretoak

agertzen badu, pekatuak egingo ezte. Baña ezteue emendik kontu atera bear, konfesoreak noizbait, au da premiaren batean edo estutasunen batean, konfesioko sekretoak agertu dezakeala bada ezta kasurik, eta aldirik batere, mundu guziak galdu bear balu ere, eta konfesoera bera erreko balue ere, konfesioko sekretoak agertu litekeanik: bada orrek geiago inportatu, eta balio du, munduko gauza guziak baño eta ala erakutsi zigun egia ori bere exenpluarekin San Juan Nepomuzeno gloriosoak: bada Erregiña baten konfesoera zan, eta konfesioko sekretoak, nai ta ez agertu eragin nai zion Errege gaiztoari, obedezitu nai izan ez ziolako, martirioa pozik padezitu zuen; eta naiago izan zuen bizia galdu, ezenez konfesioko sekretoak autsi, eta ori bera egitera konfesoere guziok obligaturik gaude: eta ain estutasun andiarekin ezpada ere, eskuarkiro pekatu mortalaren azpian obligaturik gaude sekretoak gordetzera Inkisizio santuko Ministroak, Juezak, Letraduak, Eskribabak, Medikuak, Barberoak, Emagiñak, eta Konsejalariak, eta sekretoan agertu zaien utsegite edo gaiztakeri lotsagarriak ezin esan ditzake, galdetzen badie ere.

G. Eta orrelakoak, estutzen baditue, esan ote dezake, alako gauzarik eztakiela, gezurrik esan bage?

E. Beiñik bein eskusatu bear dira eranzutetik gai aren gañean; eta esan dezake, ezin gauza orren gañean ezer aseguratu dezaket: eta ala ere nai ta ez, bai edo ez garbiro erasan nai badie, juizio andiko Doktore edo maistu batzuek erakusten due, esan dezakeela orrelako estutasunean: *Nik eztakit*: zergatik orrelakoen aolan, eren ofizioak sekretoak gordetzera obligatzen dituan ezkerro: *Nik eztakit esatea*, orobat da, nola esango balue: *Zuri esateko moduan eztakit*. Eta beste baten aolan gezurra izango lizatekeana, orien aolan gezurtzat edukitzen ezta: eta arrazoia da, zerren alde batetik premiazko sekretoak gordetzeak agitz balio du: eta bestetik, orien ofizioari darraion obligazio estua jakiña da: eta orien esana aditzen da, ez gizon komun batena bezela, ezpada bere ofizioagatik, ezin ezer agertu dezakean gizon partikular batena bezela: eta ori da kanpotik agiri dan zirkunstantzia bat aen esanari sentidu diferentea ematen diona: eta ori bera gezurrik esan bage egiten da, motibo justuakin sentidu bi berez dituan esan batekin, egia ezkututzen danean: eta ala esan oi da, Eta San Franziskok egin zuela: galdetu zioben, ea andik igaro zan, preso artu nai zuen gizon bat: eta eskua bere maukan sartuaz eranzun zien; ezta emendik igaro: alde bitara aren

esana aditu zitekean: eta orrela libratu zuen gezurrik esan bage. Baña sentidu bat baizik ezpadu gure esanak, ezin gere barruan bakarrik beste modu batera aditzen degula, agiri eztan beste sentidu batean hitz egin dezakegu iñor engañatzeko. Eta ala galdetzen badizue: badezu onelako gauzarik? eta daukezularik ere, esaten badezu; *eztaukat*; zere artean pensatzen dezula; *eztaukat* zuri emateko, gezurra esaten dezu, eta pekatu egiten dezu: eta gezurrik ezin esan liteke, mundu guzia inporta balu ere; bada dan txikiena ere Jaungoikoaren ofensa da, eta munduko kalte guziak eskusatzeko, eta ondasun guziak irabazteko baliz ere, ezin gezur bat esan liteke: bada lenago da Jaungoikari zor diogun obligazioa munduko interesa guziak baño. Eta ara orren exenplo eder bat, San Agustin Elizako Doktore andiak, egia onen pruebarako kontatzen duena. Dio, ze Tagasteko Obispo Firmo zeritzon batek, Enperadorearen ordenaz illerazi nai zuen gizon inozente bat bere etxean ezkutatu zuela; eta gizon aren eske rnerinoak, eta justiziako ministroak etorri zitzaio-la, eta nun zegoan galdetu ziobela: Obispoak, gezurrik ez esateagatik, etziela ukatu, an zegoanik: bada kari-dadeari ez faltatzeagatik etziela eman nai izan, eta nun zegoan ere agertu: eta Obispoa gogorkiro tratatu

bazuen ere (bada artean Ernperadoreak fedebageak, eta jentillak ziran) etzien besterik eranzun, ezpada, ezin gezurrik esan dezaket; eta ezin karidadeari falta-tu dekiot: eta Enperadoren aurrera eraman zuen, eta ori bera ari ere eranzun zion: eta Obispoaren egiata-sunaz, eta karidadeaz miretsirik, aren errespetoz ezkutaturik zeukan gizonari osoro barkatu zion. Eta ala iñori bizia libratzeagatik ere gezurrik esan bear eztegu: eta Jaungoikoagatik egiari jarraitzen badiogu, eta kalteren bat orain sufritzen badegu, aren Majesta-deak guzia gure onerako zuzenduko du.

G. Eta zer pekatu da gezurra esatea? **E.** Nolakoa dan gezurra. Zenbat modutan izan oi da bada gezu-rra? 1. Izan diteke kulpabagea, au da, berez gezurra dan gauza bat, egia dalako uste osoan esatea; eta orrelakoak pekaturik egiten eztu: eta izan diteke gezurra kulpaduna, eta beti pekatu: eta da batek bere barruan ezagutzen edo uste duenaren kontra hitz egi-ten duenean: edo hitz egin bage ere, seinaleren bate-kin gezurren bat aditzera ematen duenean. Eta onela-ko gezur kulpaduna izan diteke iru modutakoa: 1. txanzazkoa, jolasezkoa, atsegin artzeagatik esaten dana. Eta au pekatu beniala izan oi da. 2. Da, kalteren bat edo lotsaren bat eskusatzeagatik, edo probetxu-

ren bat izateagatik esan oi dana: eta ori ere berez da pekatu beniala, ondorengo gaizto andirik ekarteko gai ezteanean; edo ori aurrez ezin ezagutu ditekeanean: baña orrelako gezurretatik kalte arrigarriak askotan etorri dira. Ara ori erakusten duen exenplo edo gertaera bat. Teodosio Enperadoreari bein sagar guztiz andi, eta eder bat ekarri zioten, eta bereala bere emazte Eudoxia Enperatrizari erregalatu eta onek Paulino zeritzan gizon jakinsu, eta prestu edo honradu bati sagar ura eman zion: eta nundik sagar ura etorri zan jakin bage, Paulinok Enperadoreari presentatu zion: ezagutu zuen onek bere emazteari erregalatu zion sagar ura bera zala; eta galdetu zion disimuloarekin: eman dizudan sagarraz zer egin dezu? eta Enperatrizak, ura besteri ematea sentituko zuelako ustean, berak jan zuela eranzun zion: eta orra gezur bat, iñori kalterik egin bear ziolako uste gabe esana: eta kalte guztiz arrigarri bat ekarri zuena: bada ortik etorri zan Paulinori bizia kentzea; zerren Enperadorea errezelotan sartu zan, bere emazteak arekin zuen tratua edo adiskidetasuna txit garbia etzala; eta illeragin zuen. Eta onelako gertaera triste asko, gaitz andi bage esandako gezurretatik, etorri dira: eta oriek ezagueraren, eta konsentimentuaren faltaz, pekatu benialak baizik

ezpadira ere, badira beste gezur asko berez pekatu mortalak diranak: eta dira 3. kalte edo dañu andia egiteko berez gai diranak edo artako esaten diranak: eta oek falso testimonio edo gezurrezko asmazioaren antzekoak dira; eta ala pekatu mortal egiten due, projimoari, egin ez tuen gaitz andiren bat egozten diobena: agitz inporta edo balio dion egia ukatzen diobena: auzietan egia ezkutatuaz edo garbiro esan bagez kaltea, eta gastu alperrak eragiten dituenak: salduerosietan gezurraz, justu dan baño geiago besteren kalteaz, prezioak jasotzen edo gutxitzen dituenak: ezkontzeko eman duen hitza ukatzen duenak: edo ura ez kunplitzeko, besteari egin ez tituen utsegiteak asmatzen edo geitzen diozkatena: eta beste onelako gezur asko esan oi dira erreparo andi bage: baña guttiz kaltegarriak, eta kastigu andia merezi duenak. Ona, ori aditzera emateko, eta beste gai askotarako, dotriña andia duen gertaera bat. Portugalko Erregiña Santa Isabel andiak zuen paje bat, Jaungoikozkoa, bertutera emana, eta arzaz baliatzen zan karidadezko obra on asko egiteko: eta beste paje batek ori ezin sufriturik, eta enbidiak itxuturik, Erregeri aditzera eman zion; Erregiñak paje ari geiegi nai ziola: eta ari zion amorio edo kariñoa sospetxazkoa zala, garbia

etzala. Errege zan berez zelosoa, eta geiegi sinistu zuen paje gaiztoaren esamesa, eta gezurra. Eta bereala Erregiñaren paje ona illerazotzeko asmoa artu zuen. Eizetik illunabarrean etxera zetorrela, karobi bat bereala erretzeko prestatzen ikusi zuen, eta karegilleari esan zion, urrengo goizean persona bat bidalduko ziola galdetzera; Erregek agindu ziona kunplitu ote zuen; eta agindu zion bereala karobi irazekian bota zezala, bada ala konbeni zala aren serbizioarako. Urrengo goizean goiz agindu zion Erregeak Erregiñaren pajeari, zijoala bereala karobia zegoan tokira, eta karegilleari galde zegiola, Erregearen ordena kunplitu ote zuen. Baña, zer uste dezue gertatu zala? Ona emen Jaungoikoaren probidenzia miragarria; eta nola mundu onelan bertan ere askotan onak anparatzen, eta gordetzen dituan, eta gaiztoak kastigatzen dituan. Paje on ark mandatua egitera zijoala Mezatako otsa Eliza batean aditu zuen: Meza enzutera sartu zan: geiegi an luzatu zuen: eta Erregeak, len baño len jakin naiez, karobian erre ote zuen; beste paje txismegillea aren ondoren bidaldu zuen galdetzera, ea Erregearen ordena kunplitu zuen: eta ozta hitza atera zuen, karobigilleak bereala karobi irazekian bota zuen: eta orra bere buruari zer ekarri zion: alako eriotza penagarria,

eta usteko danez aren ondorengo tristeagoa, betiko eriotza, eta kondenazioa. Gero paje ona, Mezak astiro enzunda, etorri zan karobira; eta karobigilleari galde-tu zion; Erregearen agintea kunplitu ote zuen; eta baietz eranzun zion: eta esan zegiola aren Majestadeari, berak ordenatu zion moduan egin zuela: eta biurtu zan eranzuera orrekin Erregeagana. Au orduan miretsirik gelditu zan: ezagutu zuen Erregiña santaren, eta paje onaren inozentzia, eta gure Jaungoikoaren probidentzia miragarria: eta gertaera onek agitz argitu, eta trukatu zuen: eta Erregiña santaren esanak egitera jarri zan. Eta orra, N.K. gogoan ondo sarturik eduki bear dezuen exenploa; eta zuen etxekoai ere aditzera eman bear diezuen, guzien probetxurako.

G. Eta bada beste gezur motarik kalte andiak ekartzen dituanik? **E.** Bai: eta ona iru guztiz kaltetsuak. 1. Da, lausonjatzeko edo adulatzeko esan oi dana. 2. Egin eztan guapeza edo fanfarreri gaizto bat, arrotasunez asmatzen danean: edo egiaz egiña banidandez erausten danean: eta 3. ipokresia gaizto batekin besteak engañatzen dituanean. Iru gezur mota oek bear bezela aditzera emateko dotriña luzeak bear lirateke. Eta orain laburtxo bada ere 1. diot, lausonjariak edo adulatzalleak, pekatu beniala baizik eztiran gauzetan

iñor lausonjatzen, eta alabatzen badue beste ondo-
rengo gaizto bage, pekatu beniala egiten due: baita
berez pekatu mortal diran gauzetan, nola amorio loie-
tan, jolas edo jostatze zikiñetan; kalte andiak dakaz-
ten joku erabagetan, benganza edo mendekuetan, eta
onelako beste gauzetan, eren adiskideak edo errespe-
toko personak lausonjatzen, eta alabatzen baditue,
pekatu mortal egitea duela: bada Jaungoikoaren
legearen kontra, eta projimoaren karidadearen kontra
gezurraz baliatzen dira: eta eren gaiziakerietan iraute-
ko lotsea kentzen die, eta egiazko eskandaloa edo
gaitz-bidea ematen die, eta are pekatu mortal arriga-
rriagoa, eta askotan herejiako pekatua egiten due;
obeto lausonjatzeko, eta pekatua errazago eragiteko,
aditzera ematen badie, berez pekatu dan gauza, eta
Eliza Ama Santak alakotzat deklaraturik daukana,
pekatu eztala, eta ardurabage egin dezakeala: eta
orrelakoak, fedean faltatzen duelako, Inkisizioko tribu-
nal santura salatzeko obligazio grabea daukagu. Eta
orrelako aldietan, zer egin bear dan, dakianari galde-
tu egin bear zaio. 2. Diot, orobat pekatu mortal egiten
duela, eritasun andian, eta iltzeko arriskuan daude-
nak, lausonjatzen dituenak, eta eren gauzak, ala ten-
poralak, nola espiritualak disponitzetik atzeratzen

dituenak; aditzera emanaz, peligro edo arriskurik ezteuela: eta guzirako leku edo astia izango duela: bada eskuarkiro disponitu bage iltzeko, eta baita kondenatzeko arriakuan ipinten ditue. 3. Diot, orobat pekatu mortal egin oi duela, atsegiñ edo gusto zikiñen bat logratzeko asmoarekin, batez ere erraz txoratzen diran emakumeak lausonjatzen dituenak; aen edertasuna; zinzotasuna; bizitasuna; eta beste prenda onak alabatuaz, eta ponderatuaz; orrela eren amoriora erakarteko, eta gero nai duena eragiteko. 4. Diot, asmo edo intenzio gaiztorik ez izan arren, erabageko lausonjariak, askotan pekatu mortal erak egiteko, eta besteai eragiteko peligroan jarten dirala: batez ere persona arroak alabatzen dituenean; guapoak edo balienteak diralako: urliari edo berendiari galantak eman zielako; iñork tentatzen baditu, atzera biurtzen eztakielako: bada alabanza oriekin eragozten die egin dituen pekatuak ezagutzea: eta erak geiago, eta geiagoko poztutzeko, eta gloriatzeko bidea ematen die: eta ala eren guapezak edo fanfarriak kontatzen bereala abiatzen dira; eta pekatuan geiago gogortzen dira.

G. 2 Eta zer pekatu da batek orrelako bere guapezak edo fanfarreri gaiztoak eraustea, eta gaizki egiñaz besteen aurrean gloriatzea? **E.** 1. Diot, egin eztuan

guapeza edo fanfarreri gaiztoen batzuek asmatu, eta egin balitu bezela kontatzen baditu, pekatu mortal bi egiten dituela: bata gezur larri edo grabea esan duelako, eta bestea pekatuaz gloriatzen dalako: eta baita irugarrena ere, besteai pekatuak bidea edo eskandoloa ematen badie. Eta 2. diot, egiaz egin zituan guapezak edo beste gaiztakeri larriak kontatzen baditu, aetan gloriatzen dala, eskuarkiro pekatu mortal bi egiten ditu: 1. pekatuaz gloriatzen dalako: eta 2. besteak ere artara mugitzen ditualako.

G. Eta nork azkenik egiari faltatzen dio, eta bere esanetan edo egitura edo lanetan gezurtia dala aditzera ematen du? Ipokritak. Eta ipokresia zer da? Eta zer pekatu da? **E.** 1. Ipokresia da, gaizto izan, eta ona dala kanpotik iruditu, eta aditzera ematea. 2. Da, egiten dituan obra onak munduko errespetoagatik bakarrik egitea, eta ez Jaungoikoagatik. Eta 3. da, Jaungoikoagatik egiten diran obra onetan ere munduko alabanza billatzea. Eta orrelako ipokresiak batzuetan pekatu mortalak dira, eta beste batzuetan benialak dira. Eta noiz dira mortalak? Birtute andia edo santidadea daukala iduritu eragiten duenean, dotriña falsoak erakusteko edo sinistu eragiteko, hereje askok egin izan duen bezela. 2. Iñola ere merezi eztituan karguak

iristeko, gai eztaiarik aetarako, eztaukan birtutea edo talentua edo gaitasuna gezurrarekin sinistu eragiten duenean. 3. Munduko ondasunak iristeko ipokresiaz, eta irudipenaz baliatzen danean; ondasun aetan bere biotza osoro ipiñirik daukelako. Eta 4. kanpotik agiri diran Kristauen lanak kontuz egin arren, barruko garbitasunaz, eta intenzioaren zuzentasunaz kasorik egiten eztuenean; bada oriek munduaren begietan onak, eta santuak iduritu arren, sari guztia mundu onetan artzen due: eta, nola Jaungoikogatik bearrik, eta lanik egiten eztauen, Zeruko saririk izango eztaue; baizik izango due eternidade guztiko lotsea, eta kondena-zioa: Judas ipokrita andi, eta bere Maisu Jesu-Kristoren saltzalleak bezela: eta legeko maisu, eta Doktore arre, eta ipokrita andi Fariseoak bezela: kanpotik zirudien justuak, eta legeak agintzen zituan gauza ageriak zorrozkiro gordetzen zituen; baña eren barruan banidadez, arrotasunez, eta abariziaz beterik zeuzkaten: eta argatik Jesu-Kristo gure Jaunak, ainbeste bider, eta ain biziro aen ipokresia erreprenditu zuen, nun San Mateoren Ebanjelioaren kapitulu batean bakarrik zortzi aldiz aen zorigaitza, eta madarikazioa deklaratu zuen: eta kanpotik zuriturik, eta barrutik kiratsez, eta

usteldasunez beterik dauden sepulturakin konparatu zituari.

G. Eta noiz da ipokresia pekatu beniala? **E.** 1. Berez ariñak diran gauzetan iduripenak edo engañoak ematen dituenen: nola dan, Jaungoikoaren ofensa andirik edo projimoaren kalterik ez dakardenean. Eta 2. obra onai banidade piskaren bat, nastutzen zaie-nean: baña orren bildurrez obra onak utzi bear eztira; baizik intenzioa garbitzeko alegiñak egin bear dira. Ala egia, Kristauaren izate guzia dago Jaungoikoaren-tzat bizi izatean: Jaungoikoa da egia bera: eta ala gure hitzetan, nola gure lan edo obretan egiari jarraio bear diogu, kanpotik, eta barrutik berdin Jaungoikoa serbitu bear degu. Eta ipokresiari ezeze, gezur mota guziaz iguitasun andi bat artu bear diegu: eta eskusat- edo utzi bear ditugu, ez bakarrik, berez kalte andia iñori ekarri leikioben gezurrak; baita irabaziren bat egiteko edo gure lotsa piska edo kaltea eragozteko edo atsegin artzeko esan oi diran txanzasko edo jos- tatzeko gezur ariñak: bada guziak gure Jaungoikoak igui ditu: eta eztu gezurrik dan txikiena ere utziko kas- tigatu bage edo mundu onetan edo infernuan edo pur- gatorioan. Gezuraren aita deabrua da: ark lenbiziko gezurra esan zuen, guzion lenbiziko ama Eba engañoa-

tu zuenean: eta ala gezurtiak deabruaren jarraitza-
lleanak dira: eta berez gezurra da gauza billaba, eta
lotsa ekarlea: eta ori guziok autorzen, eta ezagutzen
dezue: bada inork esaten badizue: gezurra diozu edo
gezurti bat zera, bereala sumintzen, eta aserraten
zerate, eta injuria anditzat artzen dezue; eta argatik
ori errespetoko persona bati bere aurrean esatea,
eskuarkiro pekatu mortal izan oi da: eta mendeko bati
esatea ain injuria anditzat artzen ezpada ere, beti da
gaizki esana: eta agitz miñ ematen du. Zergatik ordea
gezurti esatea orrenbeste sentitzen dezue? Zergatik
legerik ezpaliz ere, arrazoiak berak bakarrik erakusten
digu, inor engañatu bear ezteguna; besteak guri egia
esatea nai degun bezela, guk ere besteai egia esan
bear diegula: A, ori guziok egingo bagendu! zer pakea
alkarrekin, eta zer poza izango genduke! eta gure
pasio txarrak, gure arrotasunak, gure gutiziak edo
erabageko lotsa gaiztoak, gezurra esaten degunean,
ezin orregatik gezurra edertu liteke: beti dator sustrai
gaiztotik, eta ala, beti gelditzen da itxusi, beti billau,
eta beti da pekatu.

G. 2 Nola bada Kristau askok esan oi due, gezurrak
askotan bearrak edo premiazkoak dirala; eta gezurrik
esan bage ezin bizi litekeala? **E.** Ori da jakiñezak, igno-

ranziak, eta pasioak dakarren itxumenak erasaten duen errore, eta erakeri bat: ekarzue humildadeari eta karidadeari jarraio dion Kristaue: eta gezurrik batere esan bage, bienzat ezaguera osoarekin, bere bizi guzia igaroko du: eta esan bear eztan gauzaren bat iñork galdetzen badio; jakingo du gezurrak esan bage, eta zuzen bereala eranzun bage; edo konbersazioa beste gauza batera aldatzen, edo dibertitzeko berak beste galde bat egiten, edo eskusaren bat ematen; eta gezurrik esan bage egia ezkututzen. Ezagutuko bazendue ondo 1. egiaren edertasuna, eta maitagarritasuna: eta 2. egia esanaz, (iñori kalterik egin bage) zein atsegin andia Jaungoikoari egiten diozuen: eta gezurra esanaz, zenbateraño aren Majestadea ofenditzen dezuen: eta nolako dañu edo kalteak zuen animai egiten diezuen; etziñateke jarriko gezur bat esatera mundu guziagatik: eta ala ezagutu ezazue, pasioak, eta itxumenak gezurra erasaten dizuela; eskatu egiozue Jaungoikoari argia ondo ezagutzeko aren Majestadeari zenbat zor diozuen, ala bera danagatik, nola egin dizuen mesede andiakgatik: eta zein obligazio estua dezuen bera serbitzeko, eta amatzeko, eta zuen buruak humillatzeko: eta alegin guziak egin itzatzue N.K. egiaz humillak izateko; eta zuen utsegiteak edo

aitortzeko edo gezurrik esan bage modu onean estal-
tzeko edo disimulatzeko, eta baita zuen Jaungoiko
ona, eta Aita maitea, egiaren guztiz maitatzallea,
biotz guztitik amatzeko; eta zuen lagun projimoak
zuen buruak bezela estimatzeko: eta orduan gezur
mota guziak erraz eskusatuko edo utziko dituzue: eta
baita mingañ ariñak, gaizki esaleak, eta murmuratza-
lleak ekarri oi dituan pekatu mota guziak ere: eta
Jaungoikoak ezeze, mundu guziak ere maite izango
zaitue: pakean zuen egunak igaroko dituzue: eta gero
betiko pakea, eta gloria Zeruko erreinuan gozatuko
dezue. Amen.

OGEITA AMASEIGARREN DOTRIÑA

*Bederatzigarren, eta amargarren
Mandamentuen gañean.*

Jaungoikoaren Majestadeak seigarren, eta zazpi-
garren Mandamentu santuetan lujuriazko, eta lapurre-
tazko pekatuak eragotziarekin, aen deseoa ere era-
gozten dizkigu: baña ala ere itxutu ez gaitezen,
Juduak, eta aen maisu Fariseoak bezela, uste izanaz,
obrazko pekatuak eskusatu ezkerro, kargurik egingo
eztigula pensamentu eta deseo gaiztoak gure biotze-
tan konsentitu arren; erakutsi nai izan digu argiro pen-
samentu gaiztoak, eta deseo erabageak, borondatez-
koak izan ezkerro, pekatu dirala. Eta nola geien deseaz-
tzen diran gauzak, izan oi diran aragiaren gusto ziki-
ñak; eta munduko ondasunak; berariaz eragotzi dizki-
gu besteren emaztearen deseoa, eta besteren onda-
sunen deseoa: lujuriazko deseoa, nolako pekatuak
diran zeoro explikatorik daukagu seigarren Manda-
mentu santuaren explikazioan: eta ala bakarrik beste-
ren ondasunen deseo edo gutiziazko pekatuak gaur

aditzera eman nai dizuet. Eta 1. gogoan eduki bear degu guziok, gure egiazko zoriona, eta barruko pakea dagoala Jaungoikoaren borondatearekin gurea konformatzean: Berak daki, guk baño obeto, zer konbeniakun: eta Aita onak bezela bear degun guzia, gure salbaziorako konbeniak dan moduan, emango digu: eta ala abarizari edo ondasunen gutizia erabageari gure biotzetan lekurik eman bear eztiogu. Ainbeste gaitz, eta pekatu dakatzen bizio kapital edo burudun au, bere erremedioarekin batera explikatorik daukagu berariazko dotriña batean. Eta ala orain nor diran besteren ondasunak erabage deseatuaz pekatu egiten duenak, esan bear dizuet. Eta bertatik eskrupuluak kentzeko diot, eze modu onean griñarik bage, eta arazeri andi bage gure premiak estaltzeko edo obra onak egiteko ondasunak deseatzea ez tala pekatu: baña bide gaiztotik edo iñoren kaltean ondasunak edo besteren gauzak deseatzea, pekatu dala. Eta ala 1. diot, amargarren Mandamentu santua ausitzen duela, besteren ondasuna izateko gutizia edo erabageko deseoarekin diru joku andiak, eta kaltetsuak egiten dituztenak, naiz karta jokuak, naiz bola jokuak, naiz pilota jokuak izan ditezela: eta ez bakarrik tranpiaz edo engañoaz irabazten duenak (bada ori karidadea

ezeze, alkarrekiko justizia agitz ausitzea da, eta lapurreta da, eta berekin dakar errestituzioa egiteko obligazioa) baita ere tranpiarik edo engañurik egin bage, irabazteko gutziarekin, dakitela edo jakiteko obligazioa duela, eren buruai edo eren familiari edo eren karguko edo obligaziozko personai; edo beste jokulariari edo aren familiari, kalte andia edo dañu andia ekarteko diñeko jokuak dirala: eta orobat trabesak edo apuesta andiak egiten badituzte, Mandamentu santu au ausitzen due: bada guziok alkarri zor diogun karidadeari gai andian edo pisuan faltatzen diobe: 2. diot, diruaz disponitzeko eskualdirik eztuenakin, nola gurasoen mendean daudenakin edo guraso-ordeko edo kuradoren mendean daudenakin edo senarraren borondate bage jokutzen duen emakumakin kantidade andia jokutzen duenak, irabazteko, eta erenzat gordetzeko asmoarekin, eta gutziarekin Mandamentu santu au agitz ausitzen duela: baita erak galduko balue ere. Eta 3. diot, al duen guzia irabazteko gutzia, deseo, eta asmoarekin jokutzen duenak; batere begiratu bage, galtzalleari ekarri ditzakioben kalte edo dañuak andiak edo txikiak diran; besteren ondasunak erabage deseaten dituelako, Mandamentu au ausitzen due.

G. Baña emen bearbada askok esango dezue, eta batez ere joku andiak ardurabage egiteko afizio dezuenok: eztegu iñoiz ere erreparatu gauza orietan: irabaztera bezela galtzera ere jarri gera: eta egia da edo beti irabazi edo beti galdu egin bagendu: edo besteak edo guk kalte andiak, eta ondorengo txarrak izango ginduzen: baña batzuetan galdu, eta bestetan irabazi egin ezkerok, iñori kalte andirik ez datorkio: eta bestetik agrabiorik iñori egiten eztiogu, bada bakoitza bere borondatez arriskatzen da. Ara zuen arrazoi guziaz ematen diedan eranzuera. 1. Diot, berez jokua, beste dibersio edo jostatzeak bezela, izan ditekeala inozentea edo kulpabagea: eta izan ditekeala kulpaduna edo pekatua. Zer gauza inozenteagorik, eta bearragorik jatea, eta edatea baño? Eta ala ere neurribage, modubage edo gustoagatik bakarrik beste motibo edo intenzio on bage, jatea, eta edatea pekatu da, andiagoa edo txikiagoa; bere buruari edo familiari dakarkion kaltea nolakua danez: eta ark geiagoko neurribage edo modubage jateagatik edo edateagatik, beste pekatu andirik edo mortalik egitera presaturik badago: nola lapurretak egitera; edo obligaziozko barabak edo bijiliak ausitzera. Jakin bear dezue bada, jokua ezala sortua irabaziak egiteko, eta batak

besteari geiegi irabaziaz estudasunak emateko: jokuaren fiña, eta intenzioa batez ere dala, ardurazko beste egiteko edo langaiai kobru eman ezkeru, jende artean modu onean dibertitzeko, eta atsegin artzeko; ara nola loa artzen dan deskantzatzeko, eta lengo lan edo beargaiari berriz ekiteko: baña, zerren irabazi pis-karen pozak jokuari atsegin geiago ematen dion, eta garaia edo biktoria geiago estimatzen da jokuan gutxi-asko arriskatzea baña ez irabazteagatik bakarrik jokatzea: bada fin ori beti da gaiztoa: gai txiki edo ariñean bada, pekatu beniala: baña kalte andiak jokulariaiekarteko gai edo kantidade andian izan ezkeru pekatu mortala. (Cuniliati et catequistadiste 64, fol. 500.)

Orrela esango dezue, ezin jokuan ezer arriskatu diteke, gutxianez pekatu benialik egin bage? Jokuari atenzio geiago ipinteko, eta atsegin geiago artzeko asmoarekin gauza gutxi bat arriskatzea ezta debekatzeko, eta ezta pekatu; zerren ori eztan jokuaren fin edo intenzioaren kontra, au da, zerbait dibertitzea, eta alkarrekin atsegin artzea: baña gutziagatik, eta irabazteagatik bakarrik arriskatzea beste fin edo asmon bage, beti da pekatu edo txikiagoa edo andiagoa, dakarren kaltea edo dañua nolakoa danez. Eta baderitzot, pasioak itxutuko ezpalituzke jokulariak, eren

desarraioa, eta erakeria erraz ezagutuko lukeala, pasiorik eztuenak ezagutzen duen bezela. Baña badiobe, irabaziak, eta galduak kontu egin ezkeror, kalte andirik ez datorkiela, eta iñori egiten eztiobela: baña ori ere eskuarkiro gezurra da; batez ere diru joku andietan, eta orien antzeko erabageko apuesta lodietan: bada (utzirik alde batera orietan ikusten diran larritasunak, estutasunak, birau, maldizio, eta juramentuak: alkar ezin ikusiak, gorrotoak, eta aserrealdiak) galdetu baizik eztago, nolako naigabeak ematen dizten eren kargura dauzkaten emazte, seme, alaba, eta etxeko guziaz: nola lengo zorrak pagatu ordean, diru billa dabilzan, eta zor berriak (bearbada iñoiz ere ez pagatzeko) egiten dituzten: eta eren buruak, etxeak, eta familiak ondatzen dituzten: bada ori guzia erabageko joku andiak berekin dakar. Eta ala ere jokulari itxutuak ezagutu nai eztue: eta irabazteko esperanza alperrarekin jokuari larga nai eztio; eta dio, iñori kalterik egiten eztiola; *zerren bakoitza bere borondatez arriskatzen dan*. Baña esan bear likegu, jokulariaren borondate ori justua dan edo ez, arrazoizkoa dan edo ez, erakeria dan edo ez, juizioa edo zenzua daukanarena dan edo ez: eta Kristauaren legean projimoaren utsegite andia korrejitzeko, eta bere projimoa

pekatutik ateratzeko al duena egiteko obligazio andia daukan Kristauak iñori gaizki egiten, eta bere burua galtzen berak lagundu deikion edo ez. Baña oraindion esango du jokulariren batek; ez nuen nik ainbesteraño jokatzeko asmorik: besteak tentatu nau: ura baño gutxiago ez naiz: eta, nun gelditzen zan nere puntua, besteren desafioa admititu ezpanu? Eta orra nun batari gutziak, eta besteari arrotasunak; edo obeto esateko, biai irabazi nai erabageak, eta soberbiak erakeri andiak eragiten dizten: alkarri zor dioben karidadeaz aztutzen diran: pasio gaiztoak itxutzen dituen: eta alkarri kalte andiak ekarten dizten: eta ala ere uste due, pekatu mortalik egiten eztuela: zerren artan pensatzen eztuen, eta alakotzal eztaukaten; baña ori da itxumen bat, eta jakineztasun bat kulpaduna, borondatezkoa, goitu, eta benzitu bear lukean pasioak sortzen diena: eta erremediatzen ezpadira, kondenatuko dituana: bada daukate obligazio andia, orrelako pasio erabageak, eta kaltegarriak ezagutzeko, eta mederatzeko.

Baña orain jokurako pasio edo erabageko afizioa aitatu degun ezkerro, galdetuko didazue: noiz diru jokua eldu liteke pekatu mortal izatera, eta noiz ez? 1. diot, Elizako legeak, eta Españiako Erregeren legeak

eragotzirik daukaten jokuetan kantidade andiak jokatzen dituenak, ezkuarkiko pekatu mortal egiten duala, alde batetik eskandaloa eman oi duelako, eta bestetik dañu edo kalte andiak eren buruai edo besteai egite-
ra jarten diralako; baña dibertitzeagatik, eta kalte andirik ekarri bage gauza gutxi bat jokatzen badue, pekatu beniala eskuarkiro izango da. Eta 2. diot, nola jokularien bizimoduak, pobreza, eta aberastasunak: eta dituen karguak, eta obligazioak diferenteak diran; ezin guziaz erregla bat seinalatu dakike: eta bakarrik esan dakike; jokuan arriskatzen badezu zure familia-
ren mantenurako edo janzirako bear dezun dirua, pekatu mortal egiten dezu; orobat librea egon arren, zere bizimodua, honra, estimazioarekin konserbatze-
ko bear dezun ondasuna jokuan arriskatzen badezu, pekatu mortal egiten dezu: orobat jokua ez uzteaga-
tik, zorrak pagatu bage bazaude, edo zere familiaren burubide edo akomoduari ezin kobru eman badiozu; artarako bear dezuna jokuan gastatzen dezulako, pekatu mortalean bizi zera. Eta ori guria pasiorik eztaukenak erraz ezagutzen due, jokulari itxutuak ezagutu nai ezpadue ere.

G. Eta diru jokuaren gañean zer lege dago Españaiko erreinu onetan? **E.** 1. Lege guziaz, ala Elizako

agintarietak, nola Erregearenak eragotzirik dauzkate
suerte utsezko jokua, benturazkoak: abildadeak
batere lekurik eztuen joku mota guziak: eta orietan
irabazten dana, gaizki irabazitzat deklaraturik dago:
(1771garren urtean publikatu zan) gauza gutxi bat
baldin ezpada dibertitzeagatik bakarrik: 2. bestelako
jokuetan ere Erregearen legez dirua presente ezpada-
go, baizik gero pagatzeko jokutzen badu, jokuak balio
eztu: 3. lurrik, etxerik edo beste ondasunik ezin joku-
tu diteke: eta jokutzen badue, jokuak balio eztu. Eta
ala bakarrik, aurretik ipinten dan dirua jokatu liteke; I
eta zenbateraño? eskualdi edo parada bakoitzean
erreal txiki bat edo zortzi kuarto, eta erdiko bat baka-
rrik: eta jokualdi bakoitzean ezin guztira igaro liteke
ogeta amar dukatetik aurrera. Eta bestela irabazten
danaren errestituzioa egiteko obligazioa dago, batez
ere Juezak agindu ezkeror: eta ori moraleko Maisu odo
Doktore guziak erabatera ala erakusten due: eta badi-
ra Doktore andi asko, Juezak agindu bage ere, erresti-
tuzioa egin bear dala erakusten duenak; zerren gaizki
irabaziaren jabe ezin egin ditezke: eta beste tratuetan
bezela, biurtu bear dala gaizki eraman dana: baña
nori biurtu bear zaio? ez galdu duenari berari, bera
diru jabe bazan; bada kulpadunak bezela merezi eztu;

baizik enpleatu bear da edo pobretan edo beste piedadezko obra onetan: baña besteren dirua, jabearen borondate bage, jokatu, eta galdu bazuen, egiazko jabeari biurtu bear zaio. Eta iñork bere artero kezkarik badu, kontuan dagoan konfesore jakintsu bati galdetu bear dio, zer egin bear duen.

G. Eta noiz geiago diru jokua pekatu mortal izan liteke? **E.** 1. Aserreak izateko; edo birauak edo maldizioak egiteko; blasfemiak esateko edo juramentu gaiztoak egiteko edo beste edozein pekatu mortal egiteko peligru, arrisku edo okasio andia ekarri oi due-nean. Eta ala bakoitzak, bere jenio gutiziosoa, eta aserrekorra ezagutu ezkerro, eta orrelako pekatuak eskuarkiro jokuan egin oi dituala, dauka obligazio andia edo grabea orrelako jokuari largatzeko: bada, aziera ona duen Kristau batzuek aserre andi bage, eta okasiorik iñori eman bage jokatzen badue ere; badira beste asko edo gutiziak edo galdu duena batetan irabazteko deseoaik ainbesteraño itxutzen dituenak, nun ondorengo tristeai begiratu bage, esku batean duen diru guzia arriskutzen duen: eta eren buruak, eta familiak ondatzen dituen. Eta ala ere joku andizaleak sinistu eragin nai due, jokua dala dibersio inozente, eta honradu bat; ainbeste estutasun, itxutasun, eta

erotasun badakar ere! baña ori da pasio andi guzien itxumena: eta Jaungoikoak arren argitu, eta zenzatu gaitzala. 2. Pekatu mortal egiten due, diruaren disposiziorik edo aginterik eztuela nola semeak, eta emazteak, gurasoaren edo senarraren borondatearen kontra kantidade andia jokatzten duenak: baña ez, aek onzat eraman ezkerro, eta etxeari kalte andirik egin bage jokatzten badue: eta orobat, dakiela, alakoakin, kantidade andia jokatzten duenak; besterena dana irabazteko, eta gordetzeko asmoarekin, pekatu mortal egiten due: eta baita alako asmorik ez eduki arren, bada pekatu egiten laguntzen die: 3. pekatu mortal egiten due, jokulegeak permititzen eztituan tranpiak, eta engañoak egiten dituenak: nola kartak ixillik seña-latzea: edo bestearen atzetik daudenakin alkar adituta, besteren jokua keñuz jakitea; edo asko balio duen kartaren bat ezkutatzea; edo erak dakizten beste tranpiren batzuek egitea: bada ori guzia egiazko lapurreta da: eta gai grabea izan ezkerro pekatu mortal da, eta errestituzioa egiteko obligazioarekin gelditzen dira, 4. Pekatu mortal egiten due, iñor indarrez edo bildurtuaz jokatzera obligatzen duenak. Eta baita, zerbait aurreratxo berariaz edan eragin, eta jokatu eragiten dienak, estadu artan irabaziko dielako segurida-

dearekin edo uste osoarekin. Eta 5. diru jokua izan oi da pekatu (beste gaitz andirik ez ekarri arren) denpora luzea jokuan igarotzen danean: baña ezin erraz erabaki liteke, noiz ori dan pekatu mortala, eta noiz beniala. Ala ere ziertu da askok pekatu mortal egiten duela. 1. jokuan luzaro aritzeagatik eren obligaziozko, eta ardurazko lanak egin bage usten baditue; estudiante askori gertatzen zaien bezela: 2. egunaz ere eze, gabaz ere txit beranduraño taberna etxetan, ostatuetan edo etxe jakiñetan jokuan aritzen diranak; eren etxekoen, eta beste askoren naigabe, sentimendu eta eskandaloarekin: eta 3. jokurako denpora geiago izateagatik jai egunetan Meza bat presaka enzun, eta bearbada atenzio bage, eta gañerako orduak jokuan enpleatu oi dituenak: dotriñarik, sermoirik, Meza nagusirik, eta bezperarik enzun bage: eta beste obra onik egin bage: baña ori ez oituraz, eta ez sarri, baizik alako asmo bage, ustekabean gertatzen bada, pekatu mortala izango ezta, baizik beniala: beste ondorengo gaiztorik ezpadu, denpora puska bat, alperrik igarotzea baizik: baña noiz ez dakazte eskuarkiro ondorengo guztiz gaiztoak orrelako diru joku luzeak?

G. Eta nekazariak, eta ofiziale pobreak egiten dituen ardan jokuetan orrelako peligrorik, eta kalterik

ote dago? **E.** Modu onean, neurri onean, eta tenpora egokian, eren nekeak astutzeko, eta arinzeko, jokatzen badue, pekaturik eztado. Baña, edo aserreak lagunakin; edo eren pobrezari dagokien baño gastu andiagoak egin, eta etxera gosea, eta miseria bada-karde; edo neurritik edanean igaro, eta eren buruak galtzen baditue edo geiegi moteltzen badira, ortik datozen ondorengo txarrak, erak, eta eren familiak gero sufritu bearrarekin, pekatu asko egiten due: eta zenbaterañoeko pekatuak diran ezagutzeko, dakazten kalteai begiratu bear zaie: bada ziuru da, etxe askoren, eta familia askoren ondarena alde orretatik datorrela: eta ala jokulariak bazerate edo erabageko jokurako afizio andirik baldin badezue, N.K. eta kondenuatu nai ezpazerate, arren alperrik galtzen dezuen denporaren balioa ezagutzeko alegiñak egin itzazue: eta jokutik datozkizuen, eta besteai erakarten diezuen kalte andiak, ala espiritualak, nola tenporalak ondo konideratu itzatzue, eta zuen pasio erabageko ori goitzeko edo menderatzeko asmo edo propositu indarsu bat ar ezazue; eta Jaungoikoari benetan, eta sarri orretarako bere grazia eskatu egiozue: bada bestela eskuarkiro Infernurako zerate.

G. Eta badira geiago amargarren Mandamentu santu au, erabage besteren ondasunak deseatuaz, agitz ausitzen duenak? **E.** Bai asko dira: eta 1. gurasonen, seniden, edo aiden eriotza deseaten duenak, aen ondasunak len baño len izateagatik. 2. Orobat besteak dauzkaten kargu edo ofizio edo enpleoak izateagatik, edo eritasunak edo illtzea deseaten dienak edo eren fama ona gutxitzen dienak. 3. Erak asko irabazteagatik jendea gaxotzea deseaten duen Mediku, eta Barberoak, eta Botikarioak. 4. Auziak, eta disputak izatea deseaten duen Letradu, eta Eskribauak. 5. Gosetea etortzea deseaten duen gari edo arto jabeak, gorago salduaz irabazteko. 6. Gerrak izatea deseaten duen soldaduak, gauzaz jabetzeko. 7. Erak bakarrik salduerosiak egiteko, eta nai adiña irabazteko, ezin bes-teen ona, eta irabazia ikusi duen merkatari, eta tratu-tari gutiziosoak: eta beste onelako asko, besteren kal-tearekin poztutzen diranak, jokulariak bezela, eta guzia erentzat nai lukeanak: eta, nundik sortzen dira pekatu oriek guziok? Abariziatik edo ondasun gura erabagetik, eta enbidiatik. Eta, abarizia, eta enbidia, eta beste bizio, eta pekatuak nundik sortzen dira? Guzien sustrai gaiztoa da gure buruaren amorio pro-pio erabagea edo desordenatua, eta munduko onda-

sunen ansia edo gutizia gaiztoa; au da, jatorrizko pekatutik datorkigun griña guztiz fortitza, eta orri darraio guziok gerez daukagun itxumen arrigarria: emendik datorkigu erabageko soberbia edo andinaia, eta arrotasuna: emendik aberasteko griña andia: emendik aragiaren gusto zikin loiak gozatzeko deseoa: emendik erabageko jan-edanetako apetitua edo gula: emendik aserretasuna edo kolera gaiztoa, iñork bidegaberik egiten badigu: emendik enbidia, eta iñoren onaz damu izatea, eta iñoren gaitzaz poztutzea: eta emendik alpertasuna, birtuterako iguia, eta gauza onak egiteko atzerapena: eta emendik dator, hitz batean esateko Mandamentu santuen kontra egiten ditugun pekatu guziak. Zer erremedio artu bear degu bada pekatu oriek guziok eskusatzeko, eta orientu sustrai gaiztoa menperatzeko edo goitzeko; da Kristauari dagokan bizimodu on bat egiteko; eta orrela gure buruak Infernutik libratzeko, eta eternidade guziko zoriona iristeko? Alegin guziak egin bear ditugu, N.K. egiazko karidadea iristeko: gure biotzetan konserbatzeko; eta egunoro azitzeko, geitzeko edo aumentatzeko; au da, egunoro gure Jaungoikoa geiago amatzeko: eta egunoro gure lagun projimoak, gere buruak bezela Jaungoikoagatik geiago amatzeko, eta

estimatzeko. Badira bizio bakoitzaren kontrako erremedio espezialak: eta explikatorik dauzkagu, berriazko dotriñetan; baña bizio guzien kontrakoa, eta erremedio guzien eragillena da egiazko karidadea: au badegu, lege guzia gorderik daukagu: eta au ezpade-gu, galduak gera: eta geiago diot, karidaderik ezpade-gu, gere buruak egiaz amatzen eztitugu; baizik bene-tan aborrezitzen ditugu: bada nola karidadeak on guziak ekarten dizkigun, ala gure buruaren amorio erabageak edo desbordenatuak gaitz guziak dakaiz-kizkigu: eta argatik Jesu-Kristo gure Jaunak guzoi esan zigun, aren ondoren Zerura joan nai badegu gere burua mortifikatu edo ezi bear degula, au da, gere borondate propioa bere gurari gaiztoakin ukatu bear degula: egunoroko naigabeak edo gurutzeak pazien-ziarekin, jaso edo sufritu bear ditugula; eta berari jarraio bear diogula: eta orobat esan zigun, zer serbi-tzen dio gizonari, mundu guzia beretzea, au da, mun-duak eskeintzen dituan honrak, aberastasunak, eta atsegiñak gozatzea, galtzen badu betiko bere anima? Bada orretara jarriko bagera, obligazioa degun bezela, amatu bear degu gure Jaungoikoa gauza guziak baño geiago; eta baita gere buruak baño geiago ere: eta gure projimoak amatu, eta estimatu bear ditugu gere

buruak bezela: eta amorio orretan egunoro, eta gei-
go aurreratzeko alegiñak egin bear ditugu: alde bate-
tik orretako ditugun motibo guztiz andiak astiro konsi-
deratuaz: bestetik doai miragarri ori gogotik Jaungoi-
koari berari eskatuaz: eta bestetik fedea, esperanza,
eta karidatea exerzituaz; au da, birtute orien akto-
ak sarri, eta biotzetik egiñaz: bada orrela gure amorio
propio erabagea goituko degu: ortik datozkigun bizio-
ak edo griña gaiztoak eskuratuko ditugu: orien kontra-
ko birtuteak errazago exerzitatuko ditugu: amar Man-
damentu santuak kontuz gordeko ditugu: eta emen
pakean bizi, eta gero Zeruko gloria iritsiko degu.
Amen.

OGEITA AMAZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Elizako bost Mandamentuen sarrera,
eta lenengo Mandamentua ondo kunplitzeko
edo Meza santua ezagueraz,
eta probetxuaz enzuteko dotriña.*

Jaungoikoaren legeko amar Mandamentu santuak zeoro aditzera eman dizkitzuet, N.K. Baña **G.** Gure salbazioa iristeko edo alkanzatzeko asko ote degu, Jaungoikoaren legeko amar Mandamentu santuak bakarrik gordetzea? **E.** Ez: aezaz gañera, Eliza Ama Santaren Mandamentuak gordetzeko obligazioa ere badegu.

G. Zergatik? **E.** Zergatik Jesu-Kristo gure Jaunak berak agindu zigun Elizari obedezitu degiogula: eta Elizari obedezitzen eztionak, Jaungoikoari berari obedezitzen eztio.

G. Zenbat, eta zein dira Elizaren Mandamentuak? **E.** Prinzipalenak dira bost oek. 1. Jai egun guzietan Meza oso bat ondo enzutea. 2. Urtean beiñ gutxianez konfesatzea: eta lenago eriotzako peligrorik badu edo komulgatu bear badu. 3. Pazkua erresurrekziokoetan

komulgatzea. 4. Eliza Ama Santak agintzen duenean, barautzea, eta aragirik ez jatea. Eta 5. amarrenak, eta primiziak pagatzea.

G. Zertako dira bost Mandakuentu oek? **E.** Obeto gordetzeko Jaungoikoaren legeko amar Mandamentu santuak: eta ori erraz ezagutzeko, eztaukezue pensatu baizik, nola biziko giñatekean guziok Elizara Meza enzutera, eta dotriña aditzera joankizunik ezpaliz: noiz edo noiz konfesakizunik, eta komulgatukizunik, ezpaliz: gure aragiaren gurari, eta apetitu txarrak ezitzeko, barautukizunik, eta mortifikatukizunik ezpaliz: eta azkenik animako ogi edo alimentu espirituala guziori emateko; au da, dotriña erakusteko: Sakramentuak emateko: Meza esateko, eta illtzen laguntzeko bear diran Ministroak zerekin mantendu ezpaliz: baderitzot ze, Kristauen antz bage, biziko giñatekeala bost Mandamentu santu oek ezpaginduz: eta ala Jaungoikoaren legeko amar Mandamentuak ondo gordetzeko guztiz bearrak ditugu Elizaren bost Mandamentu oek.

G. Nor daude Elizaren bost Mandamentuak gordetzera obligaturik? **E.** Elizaren hume diran Kristau guziak bakarrik.

G. Eta Jaungoikoaren legeko amar Mandamentu santuak gordetzera Kristauak baizik beste iñor obliga-

turik badago? **E.** Bai: munduko gizon, eta emakume guziak: baita fedebageak ere due obligazioa amar Mandamentuak gordetzeko: zerren orietan agintzen dan guzia, lege edo arrazoi naturalak berak erakusten du.

G. Nola obligatzen gaitue Kristauok, Elizako bost Mandamentuak? **E.** Kalte andirik eztegunean gere bizi-tzan, honran edo ondasunetan.

G. Eta amar Mandamentuak nola obligatzen gaitue? **E.** Eragozten edo debekatzen diguen gauza guzietan, obligatzen gaitue gure bizia galtzeko peli-groarekin ere: zergatik dotriñako kartillak dion bezela: Jaungoikoa amatzea gauza guzien gañean, da, naiago izatea gauza guziak, eta bizia bera galdu, ezenez Jaungoikoa ofenditu.

G. Zein da Elizaren lenengo Mandamentua? **E.** Igande edo domekatan, eta jai egun guzietan Meza oso bat ondo enzutea.

Jaungoikoaren legeko irugarren Mandamentu santuaren explikazioan aditzera eman nizuen, Meza santua jaioro enzuteko obligazioa: eta orduan bertan esan nizuen, Eliza Ama Santak agintzen digula, peka-tu mortalaren azpian, arrazoiaren argira edo ezague-rara etorri ezkeroko Kristau guzioi, domekatan, eta

beste jai egunetan Meza oso bat ondo enzutea: zergatik Meza sakrifizio santua dan Kristauaren erreligion edo legean Jaungoikoari berari honrarik geiena ematen diona: eta Kristauari probetxurik andiena dakarkiona, bear dan ezaguera, errespeto, atenzio, eta debozioarekin enzuten bada. Eta baita orduan bertan eskeñi edo ofrezitu nizuen, Eliza Ama Santaren lenengo Mandamentu au aditzera ematen nizuenean, berariaz erakutsiko nizuela: 1. zer dan Meza: 2. zertako dan: eta 3. nola enzun bear dan. Eta orra orain kunkplitu bear dizuedan hitza. Eta ona dotriña gai bat guztiz bearra guzionzat, eta guztiz probetxugarria: bada Meza santuan dauzkagu kaburik eztuen ondasunak, eta irabaz-bideak; Meza sautuaz bear dan bezela baliatzen bagera.

G. Zer da bada Meza santua? **E.** Jesu-Kristo gure Salbadore, eta Erredentore dibinoaren gorputz, eta odol guztiz preziosoaren sakrifizio edo ofrenda bat, Sazerdoteak, Jesu-Kristoren beraren, eta Eliza guziaren izenean Jaungoikoaren Majestadeari egiten diona, ogiaren, eta ardoaren antz, iduri edo itxuraren azpian.

G. Jesu-Kristo gure Jaunak zergatik maneratu nai izan zuen Meza sakrifizio miragarri au? **E.** 1. Munduaren asieratik Jaungoikoaren Majestadeari lenago

egiten zitzaizkan sakrifizio guzien osagarri edo betegarri izan bear zuen, eta guziak baño askoz geiago balio zuen sakrifizio ageri edo publiko bat bere Elizari uzteagatik, munduak diraben arte guzirako. 2. Jesu-Kristok berak Gurutze santuan bere Aita Eternoari ofrezitu zion sakrifizioa bera gure artean beti segitzeko edo berritzeko. Eta 3. sakrifizio onen bidez guri aplikatzeko Gurutzeko sakrifizioaren birtutea, eta kabubageko merezimentuak irabaziak, eta ondasunak.

G. Zer sakrifizio, eta zertako ofrezitu zuen Jesu-Kristok Gurutzearen gañean? **E.** Gugatik Gurutzean ill zanean bere buruaren, au da, bere biziaren sakrifizioa bere Aita Jaungoikoari egin zion: 1. aren Majestadeari, guzien jabe Soberanoari bezela zor zaion honra, eta adorazioa emateko. 2. Guziori egin dizkigun mesede guztien eskerrak emateko. 3. Gure pekatuen zorrak bere biziaren kostuz pagatu, Jaungoikoaren justiziarri gure ordeztasunaz eman, eta aren Majestadearekin gu paketzeko edo adiskidetzeko: eta 4. bear ditugun Zeruko grazia, eta laguntasunak sakrifizio onen bitartez iristeko edo alkanatzeko.

G. Eta zer sakrifizio ofrezitzen du orain Jesu-Kristo gure Jaunak Meza santua esaten dan guzian? **E.** Guru-

tzean ofrezitu zuen, eta egin zuen ofrenda, eta sakrifizio ura bera Aita Jaungoikoari ofrezitzen edo egiten dio Meza guzietan Sazerdotearen eskuz: eta fin edo intenzio aekin erakin ofrezitzen dio.

G. Orrela Mezako sakrifizioa, eta Gurutzeko sakrifizioa, guzia bat da? **E.** Bai: zergatik gauza bat berbera da, gugatik Jaungoikoari Gurutzearen gañean ofrezitu zitzaiona: eta orain altararen gañean ofrezitzen zaiona: eta eztago diferentziarik ofrezitzeko moduan baizik.

G. Zertan dago diferentzia ori? **E.** Jesu-Kristo gure Jauna Gurutzearen gañean ofrezitu zitzaion Jaungoikoari bere odola isurten zuela tormentu, eta dolore arri-garrien artean: eta Meza santuan ofrezitzen zaio odollik berriz isuri bage, eta tormenturik berritu bage. Baña Meza santuan ere konsagrazioko hitzen birtutez aditzera ematen da Jesu-Kristoren eriotza: eta aren gorputzaren, eta odolaren alde egite edo alkargandik apartatze misterioso bat: bada Ostia konsagratzeko hitzak bakarrik aditzera ematen due, aen birtutez gorputza bakarrik Ostia santuan paratzen edo ipinten dala: eta Kalizan dagoan ardoa konsagratzeko esaten diran hitzak, Jesu-Kristoren odol preziotsua bakarrik an dagoala aditzera ematen due: baña Jesu-Kristo

berriz iltzen ezta: beti dago bizirik: eta argatik ala Ostia santuan nola Kalizan, konsagratu ezkeru, dago egiaz Jesu-Kristo guzia, bere gorputz odol, anima, eta Jaungoikotasunarekin: eta ori guzia bere kabubageko merezimentuakin ofrezitzen dio Jesu-Kristo gure Jaunak bere Aita Jaungoikoari Meza guzietan. Nork esan edo aditzera eman lezake orien balioa? Zeruko Aingeru guziak, eta Santu guziak Jaungoikoaren Majestadeari ematen diozkaten honrak, alabanzak, eta eskerak guztiz andiak dira: baña aen merezimentu guziak, eta Jaungoikoari egin diozkaten sakrifizioak, eta ofrendak, kabudunak, neurridunak, eta kreatura utsenak dira: baña Jesu-Kristo guzien Jaun, eta Errege soberanoa da: Jaungoiko, eta gizon egiazkoa da: Aita Eternoaren Seme propioa, eta bakarra da: bere Aitarekin, eta Espiritu Santuarekin Jaungoikotasun berbera dauka: eta aren merezimentuak kaburik, eta neurririk eztue: berak bakarrik Jaungoikoaren Majestade soberanoari eman zeikion, eta ematen dio dagokion honra guzia: berak bakarrik aren ontasun neurribageak egin dizkigun mesede, eta fabore guziaz dagozkien eskerak eman zeizkion: berak bakarrik Jaungoikoaren justizia, eta aserrea bigundu, eta aplakatu zezakean, gure pekatu gurien zorra osoro pagatuarekin: eta

Jaungoikoaren eta gure arteko pakeak egin zitzakean: eta berak bakarrik ondo bizitzeko, eta Zeruko gloria irabazteko bear ditugun grazia, doai, eta laguntasunak guretzat iritsi edo alkanzatu zitzakean. Eta gauza oriek guziak Jesu-Kristo gure Jaunak Gurutzeko bere sakrifizioarekin egin zituan: eta ori guria egunoro, eta instanteoro munduan esaten diran Meza guzietan egi-ten ari da: bada bera da lenengo Mezako sakrifizioa zelebratu zuena Ostegun Santu gabean Apostoluen aurrean: eta bera da orain ere Apez-nagusia, eta Meza-emalle prinzipala: eta Jesu-Kristoren izenean, eta aren hitzakin Sazerdoteak, Jesu-Kristoren minis-troak, eta aren ordekoak bezela Mezako sakrifizioa zelebratzen due: eta ortik erraz kontu aterako dezue, N.K. zer dan Meza santua: Jaungoikoarentzat zein hon-ragarria, atsegingarria dan: eta gizonarentzat zein pro-betxugarria. Baña ori obeto ezagutzeko, eta Meza santuaz obeto baliatzeko: eta Meza santuak berez dituan kabubageko ondasunak irabazteko: esan deza-gun, Meza santua enzuten degunean, zer egin bear degun.

Dakizuen ezkerro bada zertako Jesu-Kristo gure Jaunak Gurutzeko, eta Mezako sakrifizio santua ofrezitu zuen, eta zertako orain ere Eliza Ama Santak, bere

Ministro edo Sazerdoteen bitartez, Jaungoikoaren Majestadeari ofrezitzen dion: Jesu-Kristoren beraren, eta Eliza Ama Santaren asmo edo intenzioakin, zuen asmoak edo intenzioak juntatu bear dituzue: bada guziok, Sazerdotearekin batera sakrifizio santu au ofrezitzen dezue: eta ala, esan ditudan, lau fin edo intenziotarako Mezako sakrifizio santua zuek ere Jaungoikoaren Majestadeari ofrezitu bear diozue: eta Mezarekin batera zuen buruak, eta zuen gauza guziak, aren Majestadeari eskeñi edo ofrezitu bear diozkatzue. Berrituko dizkitzuet lau intenzio oriek, obeto gogoan artu ditzatzuen, eta geiago aprobetxatu zaitezten.

G. Eta 1. zertako Mezako sakrifizioa Jaungoikoaren Majestadeari ofrezitu zion Jesu-Kristo gure Jaunak, eta zertako orain ere ofrezitzen diogu? **E.** Jaungoikoari zor zaion honra, eta adorazioa emateko; au da, aitortzeko, konfesatzeko, eta agertzeko aren Majestadea dala, gauza guzien Jaun, eta Jabe Soberanoa: eta guzien asiera, eta kabua: eta kreatura guziezaz nai duen bezela erabakitzeko eskualdia, eta poderio neurribagea daukana. Eta ala guziok, gure Jaun eta Jabe Soberanoa bezela adoratu bear degula, bere anditasun, eta jabetasun kabubagea ezagutzen degula, eta

gere buruak, eta gauza guziak, beraren borondate, eta nai santuari gogo onarekin sujetatzen diozkagula, Hitz batean: bera amatzen degula gere buruak, eta gauza guziak baño geiago. Baña nola aren anditasun, goratasun, eta Majestade Soberanoari dagokion honra, eta adorazio guzia emateko gai ezkeran: eta ezin berari dagokion moduan, eta neurrian amatu dezakegun, gure egiñal guziak egin arren, eta ori guzia Jesu-Kristok bakarrik, Jaungoikozko persona zanak bezela osoro egin zezakean; eta egiaz egin zuen: aren sakrifizioarekin batera arekin uniturik, gere buruena, eta gere gauza guziena egiten degula gure Jaungoikoari ematen diogu emanal guzia: eta beraren diñatasunari dagokion honra guzia. Eta orra Mezako sakrifizioaren balioa, eta prezioa zein neurribagea, eta zein miragarria dan alde orretatik. Eta argatik sakrifizio au Jaungoikoari berari, eta ez besteri iñori ofrezitu leikioke. Eta ala edo Ama Santisimari edo Santuren bati Mezaren bat ofrezitzen diozuenean, eztiozue, ez zuek, eta ez Eliza Ama Santak sakrifizio ura Ama Birjiña Santisimari edo Santuai ofrezitzen, ezpada Jaungoikoaren Majestadeari bakarrik: baita ala ere Ama Santisimari, eta Santuai honra andi bat, eta atsegina andi bat egiten zaie, aen eskutik edo aen bitartez sakrifizio

au Jaungoikoari ofrezitzen zaion guzian: eta eren erre-guak guretzat Jaungoikoari egiten diozkate sakrifizio onen bitartez; bada guzian bitarteko Soberanoa Jesu-Kristo bakarrik da.

G. Eta zertako geiago Jaungoikoaren Majestadeari ofrezitu zion sakrifizio au Jesu-Kristo gure Jaunak? eta zertako orain ere ofrezitzen diogu, beraren, bere Elizaren, eta Kristau guzien izenean? **E.** Jaungoikoaren ontasun, eta miseriak neurribageak egin dizkigun mesede edo fabore guztiz andiai dagozkien esker onak emateko: eta orra beste zor bat aiñ andia, nun ezin guk, egiñal guziarekin, pagatu genzakean: eta ori ondo ezagutzeko Jaungoikoak egin dizkigun mesedeak, denpora guzietan, eta batez ere Meza santua enzuten degunean, gogora ekarri, eta astiro kontsideratu bear ditugu: baña nola mesede oriek guziok ezin kontatu ala, eta ezin pondenatu ala diran; gutxianez ezagutuenak gogoratzeko alegiñak egin bear ditugu: eta 1. nola gure Jaungoikoak gure bearrik ezpazuen ere, ezerezetik egin nai izan gaituan: eta al ditekean zorionik andiena gozatzeko egin gaituan: bada aren Majestadea bera ezagutzeko, eta gure biotz guziarekin amatzeko, eta eternidade guzian aren izate Soberanoa, bere perfekzio edo anditasun guziakin argiro

Zeruan ikusteko, kontenplatzeko, eta beraren gloriaz gozatzeko egin izan gaitu. 2. Fedearen argiarekin bere ezaguera, eta Zeruko bidera ekarri gaitu: 3. pekatuan sortuak edo konzebituak izan bagera ere, Jaungoikoaren Majestadeak ainbesteraño amatu, eta estimatu gaitu, guk merezi bage, nun betiko galdu, eta kondenatu ez gaitzen, bere Seme propioa bakarra bera, Jesu-Kristo gure Jauna, eman digu, gure Salbadore edo libratzalle, gure Erredentore, eta gure Maisu edo erakusle izateko: eta aren dotriña erakutsi digu: eta aren pasio, eta eriotza santuaren frutua aplikatu nai izan digu Sakramentu santuetan: eman digu alabaña doarik Baupismo santuan pekatuen barkazioa: atera gaitu deabruaren zorigaiztoko katiberiotik edo mendetik: eman digu bere grazia, eta birtuteak: artu gaitu Aita Eternoak bere humetzat: Jesu-Kristok bere mienbro, zati, eta senidetzat: Espiritu Santuak bere Tenplo, eta bizilekutzat: eta egin gaitue Kristau, Jesu-Kristoren diszipulu, Eliza Ama Santaren humeak, eta Zeruko Erreinuaren herederoak. 4. Jaungoikoaren ontasunak egin dizkigun mesede oriei, esker gaiztoz pagatu ezkerore ere, eta gero kulpaz betiko kondenaioa merezitu ezkerore ere; ez gaitu, beste asko bezela, Infernura bota: eta ez bakarrik itxon digu, baizik beragana deitu

gaitu, eta beti deitzen dagokigu: eta egiazko penitentiarekin humillaturik, eta damaturik, eta bizitza on bat egiteko asmo irmo batekin beragana biurtzen bagera, besoak zabalik dauzka, guri barkatzeko: bere grazia berriz emateko: bere adiskidetasunean artzeko: eta Zerurako deretxoa, eta betiko gloria emateko. Zerekin edo nola mesede oriek guziok Jaungoikoari pagatuko diozkagu? Millaka, eta millaka biotzak baginduz, eta guziak sakrifikatuko bagiñozka ere, eziñ osoro aren ontasunari zor diogunari eranzungo giñioke: baña ala ere juntatu ditzakun gure eskerrak, Jesu-Kristok orretarako egin zion bere buruaren sakrifizioarekin eta eman ziozkan esker onakin: ez bakarrik guri egin dizkigun mesedeakgatik, baita Maria Birjiña Santisimari, Zerutar guziai, eta kreaturea guziai egin dienakgatik; eta orrela gure obligazioa osatuko degu.

G. Eta zertako da oraindio geiago Mezako sakrifizio santua? **E.** Gure pekatuen barkazioa aren birtutez iristeko, eta pekatuen zor denporala ere pagatzeko.

G. Mezako sakrifizio santuak barkatzen ditu berez pekatuak? **E.** Ez: pekatuak barkatzeko nai ta ez bear da egiazko penitentzia. Baña penitentzia bear bezela egiteko nai ta ez bear ditugu, Zeruko goargi edo inspirazioak, eta berariazko laguntasunak, au da, Zeruko

argia pekatuaren larritasuna, pisutasuna edo grabedadea ezagutzeko; eta Jaunaren grazia, pekatua benetan aborrezitzeko, eta penitziaren bidez aren barkazioa iristeko. Bada diot eze, Jesu-Kristok bere pasio, eta eriotzaren sakrifizioarekin guretzat irabazi zituala, bear ditugun auxilio, laguntasun edo Zeruko sokorru edo grazia guziak: eta aren izenean eskatu ezkeru, beti, baña batez ere Mezako sakrifizioa ondo enzuten degunean iristen ditugu bear ditugun laguntasun edo grazia oriek guziok, penitentzia egiazkoa egiteko, eta pekatuen barkazioa iristeko: eta barkazioa da Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzaren frutu prinzipala. Badakizue alabaña, N.K. Jesu-Kristok nai izan zuela ill Gurutze batean gu pekatutik, eta betiko eriotzatik libratzeko. Bada Meza denporan batez ere Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santua gogoan erabilteko, eta ondo konsideratzeko alegiñak egin bear dituzue: eta pensatu ondo, 1. nor zan Jesu-Kristo: 2. zenbat padezitu zuen: 3. zertako, eta nolako amorioarekin padezitu zuen: eta 4. norgatik padezitu zuen: eta orien ondoren Jesu-Kristoren izenean Aita Eternoari barkazioa eskatzen, eta akto kontriziozkoak biotzetik ez egiten jardun bear dezue, eta pekatuen barkazioa iritsiko dezue, edo orduan bertan edo egiaz damaturik

konfesatzera zoaztenean. Baña nola ori iritsi ezkerore, pekatuaren kulpa barkatuta ere, pekatuari zorzaion pena denporala edo mundu onetan edo purgatorioan pagatu bear degun; orretarako ere txit asko balio du Mezako sakrifizio santuak: eta ala ofrezitzen da, ez bakarrik biziakgatik, bai eta purgatorioan dauden animakgatik. Eta ori da debozio bat Eliza Ama santak denpora guzietan usatu duena: agañitz enkar-gatzen duena, eta Kristau onak kontuz exerzitatzen duena.

G. Eta azkenik zertako geiago da Mezako sakrifizio santua? **E.** Mundu onetan bizitza on bat egiteko, eta gero betiko bizitza edo Zeruko gloria iristeko, bear ditugun Jaungoikoaren laguntasun, sokorru, mesede, eta graziak alkanatzeko: eta gure premia edo nezesidade, ala tenporal, nola espiritual guzien erremedioa arkitzeko. Bear ditugun ondasun guziak, ala animarentat, nola gorputzarenzat Jaungoikoagandik izan bear ditugu: eta guk gerez merezi eztitugu: baña bai Jesu-Kristok, eta guretzat irabazirik dauzka, bere Aita Eternoari egin zion bere buruaren sakrifizioarekin: eta Aita Eternoak hitza emanik dauka, bere Seme Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean eskatzen diogun guzia edo gure salbaziorako ondo dagokigun edo konbeni

zakun guzia emango digula. Zer konsuelo andiagorik Kristau batentzat, seguru, eta ziertu jakitea baño, bear duen grazia iritsiko duela, Jesu-Kristoren izenean, eta aren merezimentu kabubagen birtutez, ondo eskatu nai badu? Mezako sakrifizio santuan presentatzen diozka bada Jesu-Kristok bere Aita Eternoari bere merezimeutu guziak: eta nai du, guk ere, gereak balira bezela, (bada guretzat irabaziak dira) presentatu, eta ofrezitu degiozkagun, bear degun guzia iristeko. Baña zer eskatu bear diogu batez ere gure Jaungoikoari Mezako denporan? Beraren honra, eta gloria geiagorako, eta gure salbaziorako konbeni zakun guziak eta batez ere gure pekatuen barkazioa: eta aurrera bizimodu on bat egiteko bear degun argitasuna, gogo bizia, eta graziaren indarra: eta gere borondatea beraren borondate santuarekin gauza guzietan konformatzeko grazia: eta orretarako digula fede bizi bat, esperanza irmo bat, karidade edo amorio andi bat, ala Jaungoikoarekiko, nola gure projimoarekiko: humiltasun andi bat, gure naibage edo atsekabeetan pazientzia andi bat: animako, eta gorputzeko garbitasuna: eta gauza guzietan, eta batez ere gure egunoroko lanetan Jaungoikoari atsegin egiteko asmo edo deseo bizi bat. Orra animarako eskatu bear ditugun ondasun

prinzipalak: Baña gorputzarenzat ere eskatu deizkeogu, konbeni zaizkigun osasuna, ondasun, eta beste gauza guziak: baña bera obeto serbitzeko berak naiduen moduan, eta neurrian: bada aren borondate santua gauza guzien gañean billatzen badegu, beste gauza guziak, azigarri bezela emango dizkigula esaten, eta aseguratzen digu.

Eta orra, N.K. dotriña labur batean ikusi dezue, zer dan Meza santua: zertako dan: eta nolako ondasunak dauzkan: eta oriek irabazteko, zer egin bear dezuen edo nola, eta zertako Meza santua enzun bear dezuen: eta ezaguera orri dagokan debozioarekin Meza santua enzun ezkerro, ezin esan alak dira andik ateratzen diran probetxuak: San Isidro batek izanik nekazari pobre bat, ori zuen bere deboziorik andiena: eta aiñ santu miragarria izatera etorri zan: Oraiñago kontatu nizuen Santa Isabel Portugalgo Erregiñaren paje on baten exenploa: Meza enzutera Eliza batean sartu zalako, libratu zuen Jaungoikoak karobi irazeki batean illerazotzeko aren kontra Erregeak emanik zeukan ordenatik: eta aren inozenzia agertu zuen. Eta Mezako sakrifizio santua ezipagendu Jaungoikoaren justizia, eta aserrea aplakatzeko, eta Zeruko laguntasunak iristeko, galdua zegoan onezkero mundua, eta

mundukoak. Eta orain erraz ezagutuko dezue, zein negargarria eta izugarria dan Kristau askoren jakinez-tasuna, oztasuna, eta ardurabagetasuna, Meza enzu-ten daudenean: bada askok eztakie ondo, Meza san-tua zer dan, eta zertako dan: eta gorputzarekin Elizan, Aingeruak errespetoz beterik dauden Aldararen aurrean, au da Jaungoikoaren tenploan, eta bere aurrean egon arren, daude batzuok modestia bage, errespeto, eta erreberenzia bage, kanpoan edo auzo-ko etxe betean baleude bezela: beste batzuok eren gogoak, eta pensamentuak eren lanetan, eta artue-manetan dauzkatela: eta bear dan ezaguera eta atenzi-oz bage Mezako denpora santua igarotzen due: eta errezoren bat edo beste egiten badue, geiago españa-kin, biotzarekin baño: eta geienak frutu bage edo gutxirekin Elizatik irteten dira. Ori guzia erremediatze-ko bada, N.K. gaur aditu dituzuen Meza santuaren ondasunak, eta oriek irabazteko modua gogoan ondo sartu itzatzue: eta Meza santuan era onik badezue egunoro, Jaungoikoari zor diogun honra emateko, gure esker ona agertzeko: gure pekatuen barkazioa eskatzeko, eta iristeko: eta bear ditugun Zeruko laguntasunak alkanzatzeko alegin guziak egin ditza-kun: eta Elizara etortzeko era onik ezpadezue, zuen

bazterretan edo soroetan, edo bideetan, Eliza guzietan ematen edo zelebratzen diran Mezak gogora ekarri itzatzue; eta esan ditudan fiñetarako Jaungoikoari ofrezitu egiozkatzue: zuen buruakin, eta zuen obra, eta neke guziakin Mezatan bazendete bezela; aetan guzietan parte izateko deseoarekin: eta orretarako Aita gurea, eta Abe Maria deboziaz errezatu itzatzue, eta txit asko irabaziko dezue: eta orrela guziok bizimodu on bat erraz egingo degu: eta betiko bizitza, edo gloria seguratuko degu. Amen.

OGEITA EMEZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Eliza Ama Santaren bigarren Mandamentuaren
gañean.*

Meza santua zer dan, eta bear dan ezagueraz enzuteak, zein probetxu andiak dakazkigun, aditu zenduen aurreko dotriñan: bada gaur urteoro gutxianez ondo konfesatzeko legea: eta urte zai egon bage sarri konfesatzeko oitura santuak nolako ondasun, eta probetxuak dakazkigun aditzera eman bear dizuet: eta arren al dezuen atenzio guziarekin, eta bear dan frutua ateratzeko deseoarekin, aditu ezazue dotriña au.

G. Zein da Eliza Ama Santaren bigarren Mandamentua? **E.** Urtean bein bedere edo gutxianez konfesatzea: edo lenago iltzeko peligrorik edo arriskurik uste bada edo kumulgatu bear bada.

G. Konfesatzeko legea nork ipiñi zuen? **E.** Legearen sustanzia, au da, bateatu ezkerro egindako pekatu mortalaren barkazioa iristeko, nai ta ez, lekurik badu, konfesatu bearra Jesu-Kristo gure Jaunak berak agindu

zuen, eta ori Ebanjelioak erakusten duen fedeko egia da: eta ala alde orretatik Jaungoikoaren beraren mandamentua da. Noiz konfesatu bear dan denpora seña-latu etzuen aren Majestadeak: baña berak emanik daukan eskualdiarekin Eliza Ama Santak seña-latu du konfesatzeko denpora. Eta agintzen digu Kristau guzioi, arrazoiaren argira edo ezaguerara etorri ezke-ro, gutxianez urtean bein gere pekatuak, ez nolana, baizik ondo konfesatzea: bada konfesi ona, eta frutuz-koa Jesu-Kristok agindu zuen: eta ala konfesio gaizto-arekin ez Jaungoikoaren eta ez Elizaren legea iñork ore kunplitu dezake.

G. Konfesatzeko urtea nola aditzen da? **E.** Aditzen da eskuarkiro, urtebete baño geiago konfesioa ez luzatzea. Eta urteko edozeiñ denporatan konfesatzeko lege au kunplitu diteke: baña aspaldian usadioa edo kostunbrea dago, urtean bein komulgatzeko legea kunplitzen danean, konfesioaren legearekin ere kunplitzeko. Eta lege oriekin ondo kunplitu bage urtea igarotzen bizitzea nagitasunez edo ardurabagetasu-nez, pekatu mortala da: eta utsegin duenak ezin beste uste bateraño luzatu lezake; baizik len bano len kunplitzeko obligazio estua, eta pisua dauka: eta geiago luzatzeko asmoan dagoan bitartean, beti pekatu mor-

talean dago: ondo prestatuak konfesatu artean, eta komulgatu artean.

G. Eta bere salbazioa maite duen, eta seguratu nai duen Kristaua, urtean bein bakarrik konfesatzearekin kontentatu bear ote da? **E.** Eliza Ama Santak, Kristau askoren nagitasunari, eta ardurabagetasunari begiratu, ta ez tie guziaz agindu nai izan pekatu mortalaren azpian, gutxianez urtean bein baizik konfesatzea, pekatu geiagorako batzuei biderik ez emateagatik; baña agitz deseaten du, Kristau guziaz sarri konfesatzea, eta komulgatzea: eta Trentoko Konzilio santuan deseori deklaraturik dauka; bada dio, Elizako lenengo denporetan Kristauak egunoro komulgatu oi ziralak: eta utsegite andirik egiten zuenak, egunoro konfesatu bearra eman, ondo komulgatzeko: (eta orregatik denpora aetan Kristauak ziran aiñ piñak, eta Jaungoikozkoak, eta martirioa padezitzeko ere ain gogo bizia, eta indarra zuen) Baña nola oztuaz, gutxituaz, eta epelduaz arrezkero joan dan Kristauen debozioa; kontentatzen da orain Eliza Ama Santa gutxiagorekin: baña dio, nai lukeala Kristau guziaz egunoro komulgatzeko gai izatea edo arkitzea. Eta Kristauak erak, sarri konfesatetik datozkien probetxu guztiz andiak ondo kon sideratu nai balitue, ez luke besterik beariko, iñork

agindu bage ere, sarri edo maiz konfesiora etortzeko: eta ez bakarrik pekatu mortalarekin konfesatu bage daudenak, baita justuak erak edo Jaungoikoaren grazian daudenak ere. Bada guzientzat ditu konfesioko Sakramentuak birtute guztiz andiak. Alabaña Jesu-Kristo gure Salbadore maitearen asmoa konfesioko legea ipiñi zuenean, izan zan, medio guztiz biguñ erraz, eta eragille bat Kristau pekatariari ematea, bere burua pekatuaren zorigaiztoko estadutik, eta kateetatik ateratzeko; eta Jaunaren grazian, pekatu bage, irauteko: eta justuak ere, eren utsegite txikiak edo pekatu benialak konfesatuarekin edo len egiñ zuen, eta ondo konfesaturik dauken, pekatu mortalen bat, berriz konfesatuarekin, iristen due, 1. graziaren grado andi bat, eta orri dagokion gloria zati edo grado andiago bat Zeruan: eta orrek bakarrik munduko ondasun guziak baño geiago balio du. 2. Iristen due, errazago mundu onetan pekatuen zor denporala pagatzea, Purgatorioan pagatuko lukean baño. Eta 3. Konfesioko Sakramentuak ematen dizte berariazko laguntasun edo sokorru espezialak tentazioai atzera egiteko; eta Jaungoikoaren grazian irauteko: eta orri darraio eskuarkiro azkeneko, eta guzien gañeko grazia; au da, ondo iltzea, eta betiko gloria seguratzea. Eta orra zer-

gatik Kristau onak, fede bizia duenak; gauza oriek sinisten, eta konsideratzen dituenak; ain sarri konfesatzeko, eta eren animak geiago, eta geiago garbitzeko alegiñak egiten dituen.

Baña, zenbat arrazoi andiagoarekin oraindio konfesatu bage dauden pekatariak? Badakie ala baita, eta fedeko egia bezela sinisten due, pekatu mortalean dagoana, len Jaungoikoaren Seme maitea, eta Zeruko heredero zana Jaungoikoaren beraren etsai egiñik orain dagoala: Zeruko Erreinuaren, eta betiko gloria-ren deretxoa galdurik daukala: lenago ondo bizi zanean, egin zituan obra onen merezimentuak illik dauzkala: Infernuko deabruaren zorigaiztoko katibu, esklabo, eta menpeko billau bat egiñik dagoala, eta betiko Infernura joan bearra duela, estadu orretan iltzen bada: baña orobat dakie, eta sinisten due, konfesio on bat egiten bage, gaitz izugarri orietatik guzietatik libratzen dirala: Jaungoikoaren adiskidetasuna, aren grazia, eta Zeruko deretxoa iristen duela: lengo obra on guzien merezimentuak atzera piztutzen, eta beretzen dituela: eta merezimentu berriak egiteko estaduan jarten dirala: eta estadu orretan illtzen badira deabruaren katiberiotik eta betiko Infernutik eren buruak libratu, eta betiko gloria segurutzen duela. Zer

erremedio biguñagorik, errazagorik, eta eragilleagorik agindu zezakean gure Salbadore maiteak? eta, zer konsuelo andiagorik anima batenzat, ainbeste desdixatik bere burua libratzea, eta ainbeste ondasun irabaztea baño; ondo konfesatzeko neke arin batekin bakarrik?

G. Nola bada ori guzia, egia, eta fedeko egia izanik, esango dezue batzuok, ainbeste Kristau arkitzen dira; eren pekatuak len baño len edo luzatu bage konfesatzeko ain nagitasun, atzerapen, eta ardurabagetasun andiena duenak: nun Eliza Ama Santak bere mandamentuarekin eta exkomunikazioaren bildurrarekin estutuko, eta premiatuko ezpalitu, urtean beiñ ere konfesatuko ez liratekean, eta eriotzako peligro edo arriskuraño ere luzatuko lukean? **E.** Gaitz izugarri orrek sustrai asko ditu: baña prinzipalenak dira 1. soberbia edo arrotasuna: eta 2. itxutasuna. Ondo konfesatzeko humillatu bear da: eta humillatzeko bakoitzak bere burua ezagutu bear du: bere gaiztakeriak examiñatu bear ditu: igui izan edo aborrezitu bear ditu, zerren aekin Jaungoikoa ofenditu, eta aserratu duen, eta bere anima kondenatzeko peligroan ipiñi duen: eta berriz pekatuak ez egiteko asmo edo proposito egiazko, eta eragillearekin bere gaiztakeri, eta

utsegiteak aitortu edo konfesatu bear ditu: eta baita bere pekatuen zorrak penitenziazko obra onakin pagatzeko borondate egiazkoa, eta eragillea eduki bear du: eta bizitza berri bat egiteko neurriak, eta medioak gogotik artu bear ditu. Eta nola lan oriek egiteko egiazko gogorik pekatariak eztuen: nola humillatu, bere kulpaz ezagutu, eta benetan erremediatu nai eztuen; iraitzen zaio neke guztiz arrigarria konfesio on bat egiteari: eta dijoaz luzatzen al duen guziraño. Baña ori dator esan dedan bigarren sustraitik, au da, itxutasunetik: Kristauak, betiko kondenatu nai ezpandu, nai ta ez ezagutu bear du, humillatu bage, eta egiazko penitentzia egin bage ezin iñor ere salbatu ditekeala: aditu dituan, pekatu mortalak dakazkion kalte arrigarriak, eta galdu eragiten diozkan kabubageko ondasunak astiro konsideratu bear ditu: egia oriek ondo ezagutzeko, barrentzeko, eta ausnartzeko alegiñak egin bear ditu, eta Jaungoikoari gogotik eskatu bear dio orretarako bere argia, eta baita indarra ere, bera humillatzeko: kondenazioko estadutik len baño len irteteko, eta salbazioko bidean jarteko, eta orretarako konfesio on bat egiteko: eta orduan erraz ezagutuko du konfesioko erremedioa biguña, erraza, eta eragillea dala; ainbeste desditxatik libratzen gai-

tuan, ete ainbeste ondasun, eta probetxu dakazkigun ezkerro: eta Jesu-Kristori millarezko eskerrak emango diozka, zerren ain neke labur batekin irabazi eragin nai digun, berari ainbeste neke, tormentu, eta alako eriotza kosta zitzaion gure pekatuen barkazioa. Lapur batek, giza eralle batek edo beste gaizkille batek munduko justiziaren aurrean probatu dioben, bere kulpa aitortzea, eta damaturik barkazioa eskatzea asko balu, dagokion edo urkamenditik edo betiko destierrotik edo multa edo pena edo beste kastigu andi batetik bere burua libratzeagatik, pozik, mundu guzian aurrean bear baliz ere, bere kulpa konfesatuko luke. Bada edozein pekatu mortal, Jaungoikoaren Majestadearen ofensa dalako, munduko kreaturari egiten zaien ofensa, eta agrabioa baño, infinitamente andiagoa da: Jaungoikoaren beraren aurrean, eta berak dakusela egiña da: eta probaturik dago: ezin ukatu dezake: eta merezi du kastigu bat, bereala akabatzen eztana, baizik beti-beti iraungo duena: betiko destierroa Zerutik: eta betiko tormentuak Infernuan: beti erretzen, kiskaltzen, ler, eta estanda egiten: eta iñoiz ere alibiorik izateko esperanza bage: ori guzia fedeko artikulua, eta egia da: eta ala sinisten dezue: bada orobat fedeko artikulua, eta egia da, zuen peka-

tuen konfesio humil batekin, eta aurrera pekatuak ez egiteko asmo firme batekin, kastigu izugarri orietatik libratzen zeratela: eta bertatik Jaungoikoaren grazia-
ra, eta adiskidetasunera bihurtzen zeratela: Zer erre-
medio biguñagorik, eta errazagorik arkitu diteke bada
konfesio on batena baño? eta, zer satisfazio bearrago-
rik, eta justuagorik Jaungoikoaren justiziari gure zorra
pagatzeko, aia gutxirekin kontentatzen dan ezkerorik?

Ezagutu ezazue bada, N.K. zuen itxumen arrigara-
ria: eta zuen nagitasuna goitzeko, eta sarri konfesa-
tzeko azkartu zaitezte, alegiñak egin itzatzue. Guziok
lotsatzeko diña dan gauza bat esatera noakizue. Kon-
fesatzera etorzeagatik, aldiko peseta bi edo iru eman-
go balizue: A! zenbat lan geiago Konfesoreak izango
luke! Urtean bein ezeze, illean askotan konfesatu
naiko zenduke: eta, neke piska bat ez artzeagatik
zuen anima gaxoak pekatutik ateratzeko, urte guzian
egon nai dezue, deabruaren mendean, eta kondena-
zioko estadian, eta betiko kondenatuak izateko peli-
gro andian? Asmatzen dituzuen aitzakiak, konfesioa
luzatzeko, pretexto utsak dira: zuen salbazioa gutxi
estimatzen dezue: zuen fedea illa bezela dago: bada
gogo egiazkorik eztezue, aia erremedio biguñ, erraz,

eta eragille bat artzeko: eta ortixe dator askoren kon-
denazioa.

Baña askok esango didazue: badegu beste erre-
medio bat peligro orretatik irteteko, eta pekatuen bar-
kazioa iristeko, eta Jaungoikoaren grazian jarteko: eta
da akto kontriziozko bat egitea; Eliza Ama Santak
agintzen digun denporan, au da, urtean bein, konfesa-
tzeko asmoarekin: edo lenago eriotzako peligrorik
uste badegu: eta orduan ere, konfesatzeko lekurik
ezpagendu, kontrizioarekin, eta konfesatzeko deseoa-
rekin salbatuko giñateke: eta ala eztegu zer larritu,
pekatu mortala, aiñ laster konfesatzeko? eta, badezue
beste zer esanik? Bada 1. Jaungoikoari millarezko
eskerrak eman egiozkatzue zuen salbaziorako ainbes-
te erremedio utzi dizuelako. Baña orrela hitz egiten
dezuenak, eta asmo orietan zaudetenak bildur izan
zaitezke: zuen akto kontriziozkoa eskuarkiro izango
dala, aiñ argala, aiñ azalekoa, ego aiñ indar gutxikoa,
nun geldituko zeraten, pekatuen barkazioa, eta Jaun-
goikoaren grazia iritsi bage. Zergatik ordea? Zergatik
pekatua desegiten duen, eta Jaungoikoaren grazia
berekin dakarren kontrizioak edo amoriozko damuta-
sunak nai ta ez izan bear du Jaungoikoaren guzien
gañeko amoriotik sortzen dana: eta pekatu mortala-

ren gaiztakeria ainbesteraño igui duena edo aborrezitzen duena, nun benetan erabaki bear du, bizia galdu bear balu ere, ez berriz pekatu mortalik egitea: konfesatzeko, eta satisfazioa emateko, eta aurrera bizitza on bat egiteko asmo firme, eta eragille batekin: esan nai du, pekatu mortal eragin oi dioben okasioetatik alde egiteko edo apartatzeko: pekatu mortal eragin oi dioben oitura edo aztura gaiztoak eskuratzeko edo goitzeko: eta bere bizimoduari dagozkion obligazio andiak kontuz kunplitzeko borondate irmo, sendo, eta erabaki batekin: eta ori egiazkoa, eta ez iruipenekoa dala ondorengo obrakin erakutsi bear du: bada lora ederrak bai, baña fruturik ematen eztuan arbola alpe-rra da, eta ebakia izatea merezi du. Ori erakutsi zigun San Juan Baupstak bere sermoietan: eta ori bera Jesu-Kristo gure Jaunak bere Ebanjelio santuan: bada dio, eztala Zeruan sartuko, Jauna, Jauna, esaten diona; baizik Jaungoikoaren borondatea egiten duena: eta Jaungoikoaren borondatea egiteko, aren Mandamentu santuak kontuz gorde bear ditugu: eta batez ere lege guzia beregan sarturik daukan, lenengo Mandamentu santua; au da, amatzea gure Jaungoikoa gauza guzien gañetik, gure biotz guztitik, eta gure animako indar guziakin: eta amatzea gure projimoa gere

buruak bezela Jaungoikoagatik: Bada diot, N.K. zuen akto kontriziozkoak edo biotzeko penitenziak frutu oriek badakizki, egiazkoa izango zala. Bada orrelako fruturik ikusi oi ezta, urtean bein baizik, eta iltzeko peligroan baizik konfesatu nai eztuen, Kristau nagi, eta alperretan. Eta, nola ikusiko da frutu ori, egiazko kontrizioa izateko, edo iristeko, nai ta ez artu bear dituen medioak, eskuarkiro batzuek ezpadakizte eren kulpaz, eta beste batzuek, jakin arren, artzen ezpaditue edo nagitasunez edo ardurabagetasunez? baña, zer medio artu bear ditue, egiazko kontrizioa iristeko? Ori berariaz erakutsiko dizuet kontrizioaren gañean hitz egiten degunean: eta orain laburtxo diot bakarrik; kontrizio egiazkoa dala Jaungoikoaren doai, eta Zeruko grazia guztiz andi bat, zuen indar, eta alegin guzikiin bakarrik ezin iritsi edo alkanzatu dezakezuen: baña orazio humillarekin, eta artarako egokiak diran konsiderazioakin ondo baliatzen bazerate, Jaungoikoak ukatuko eztizuen, baizik pozik emango dizuen. Baña Kristau nagiak, gaitzera oituak, benetan mudatu nai eztiranak, ez oraziorik bear bezela egiten due: eta are gutxiago, fedea erakusten dizkigun egia andiak bear bezela konsideratzen ditue: eta argatik, pekatu morlalaren gaiztakeria, eta aren kalte arrigarriak bear

bezela ezagutzen eztitue: Jaungoikoaren anditasun neurribagea: aren ontasun kabubagea: eta egin dizten mesede, fabore edo benefizio guztiz andiak gogoratzten eztitue: Jaungoikoarekiko eren eskergabetasun ikaragarria konsideratzen eztue. Nolako amorioa Jesu-Kristo gure Jaunak agertu dien, aen salbazioagatik gizon egiñarekin: aen pekatuen zorrak, bere gañ artu, eta alako pasio, eta eriotzarekin Jaungoikoaren justiziari aen orde z pagatuarekin, ondo pensatzen jarten eztira: eta are gutxiago konsideratzen due, pekatu mortala egiten duen guzian, berriro, eren aldetik danez, Jesu-Kristoren pasioa, eta eriotza berritzen duela: bada Jesu-Kristo berriz illerazotzeko diña motibo ematen due. Nola bada, bear bezela orazio humillik, eta konsideraziorik egin bage, piztuko da Kristauaren biotzean Jaungoikoaren guzien gañeko amorio aiñ bizia, eta irazekia, eta pekatuaren aiñ gorroto andia, nun bertalik pekatuaren barkazioa, eta Jaunaren grazia, eta adiskidetasuna iristeko diña izango dan? Akto kontriziozkoak bearbada egingo dituzue: baña oituraz, konsiderazio andi bage; eta zuen barruak ukitu, mugitu, eta mudatu edo konbertitu bage, eskuarkiro izango dira: eta lengo estaduan geldituko zerate: eta ala ezin geiagoraño enkargatzen

dizuet, N.K. zuen akto kontriziozkoak egin ditzatzuela sarri, baña egiazko damutasunera, eta propositora mugitzeko aitatu dizuedan motibo guztiz andiak alik ondoena konsideratzen dituzuela: bada ezagutzen eztan gaitza sentitzen ezta: eta orobat galtzen dan ondasunaren balioa pensatzen ezpada, pena gutxi ematen du: eta egiñalak egin da ere, etzaitzeltela arren kontentatu kontrizio utsarekin ori bear dan gradura, eta perfekziora eltzen ezpada, pekatuaren mendean geldituko zerate. Eta argatik eztakizuen ezker, subito ilko zeraten edo ez: edo juizioa galduko dezuen edo ez, azkeneko eritasunean: bada guzia egunoro ikusten da: edo oarmen edo ezaguera guzia izan arren, bear dan argitasuna, humiltasuna, konfianza osoa, eta biotzeko damutasuna, izango dezuen edo ez: bada bizia nolakoa, eriotza alakoa izan oi da: urtearen zai egon bage, eta kontrizio utsarekin arriskatu bage; pekatu mortal egin ezker, eta baita pekatu mortalik ez izan arren, sarri, eta ondo konfesatzeko alegiñak egin bear dituzue, N.K.: bada 1. Konfesioarekin eta Jesu-Kristoren izenean Konfesoreak ematen duen absoluzioarekin errazago iristen da pekatuen barkazioa: bada bildurrezko damutasunarekin eta atrizio egiazkoarekin eta aurrera Jaungoikoa biotz guztitik

amatzeko deseo egiazkoarekin prestaturik badago bat, Sakramentuaren grazia errezibitzen du, eta auxeda, N.K. Jesu-Kristo gure Jaunak egin digun beste mesede guztiz andi bat, bada kontrizio utsarekin baño errazago, eta seguruago pekatutik libratzen gera konfesioarekin: zerren aditu dezuen bezela kontrizio perfektua, eta Jaungoikoaren guzian gañeko amorioa, eta orri darraion grazia, bertatik justuak, egiten gaituana, txit nekez iristen due, batez ere humiltasun gutxi, eta argitasun gutxiago duen pekatari arroak.

Baña konfesatu bearrak humillatzen ditu: bada eren pekatuak zeoro examinatu bear ditue: damutasuna, eta propositua artu eragiten die: orretarako fedea, esperanza, eta karidatea exerzitzeko alegiñak egiten ditue: barkazioa eskatzen due: eta absolutioarekin batera Jesu-Kristok aplikatzen die Sakramentuan utzi zigun bere pasio, eta eriotza santuaren frutua: eta Konfesoreak bere aldetik laguntzen die bere conseju onakin, eta aurrerako erremedioakin: eta ala probetxu guztiz andiak dakazki sarri konfesatzeak: bada orrez gañera 2. zenbat geiagotan konfesatzen zeraten, anbat pekatuaren zor denporala geiagoko pagatuko dezue: eta 3. indar berriak artuko dituzue, Jaunaren grazian irauteko, eta eriotzako ordurako

obeto prestatu rik arkituko zerate: eta inoiz tentazio
andi edo estudasunen batean zuen argaltasunagatik
pekatu mortalen bat egitea badezue: laster konfesa-
tuarekin errazago erremediatuko dezue: eta ala, N.K.
bata bestearen leia santu batekin, etxeko guziok edo
illean bein edo illabete bi edo iru igaro bage konfesa-
tzeko oitura santua artu ezazue: eta zuek batez ere
guraso, nagusi eta etxekoandreak zuen familiak, zuen
exemplo onarekin orretara ekarri itzatzue: eta emen
Jaungoikoaren bendizioa, eta gero betiko gloria iritsi-
ko dezue. Amen.

OGEITA EMERETZIGARREN DOTRIÑA

*Eliza Ama Santaren irugarren mandamentua,
eta lenengo Komuniorako prestaeraren gañean.*

Jesu-Kristo gure Jaunak Ostegun santu gabean, bere pasio, eta eriotza santuaren besperan, bere Apostoloakin egin zuen azkeneko apari ondoan, sermoi txit luze, eta gozo bat guziaz egin zien: eta ondoren bere guganako amorioaren prendarik, señalearik, eta testimoniorik andiena eman zigun, eta betiko eutzi zigun, orduan ordenatu edo egin zuan Eukaristiako Sakramentu Santuan: Meza santua esaten dan guzian orain berritzen dan Misterio guztiz miragarri artan. Badakizue alabaña, N.K.: Jesu-Kristo berbera, bere gorputza, eta odola, bere anima, eta Jaungoikotasuna Aldareko Sakramentu Santuan egiaz arkitzen dala, ezkataturik edo estalirik badago ere, ogiaren, eta ardoaren antz, edo etxuraren azpian: eta guk, ezin ikusi arren nola dagoan, sinisten degu, an dagoala osoro, eta egiaz, Aita eternoaren eskuian Zeruko glorian dagoan Jesu-Kristo berbera: bada aren Majesta-

deak berak, nai duen guzia egiteko poderio neurriga-
bea duenak, eta gezurrik ezin esan dezakeanak ala
asegurutzen digu. Zertako ordea egin zuen Sakramen-
tu miragarri ori? Bi gauzatarako: 1. Munduak dirauen
artean, Gurutzean berak ofrezitu bear zuen Sakriti-
zioa, egunoro bere Aita eternoari ofrezitzeko, eta pre-
sentatzeko Meza Santu guzietan: eta Meza Santua zer
dan, eta zertako dan, eta nolako ondasun, eta probe-
txuak dauzkan zeoro esan nizuen beste dotriña
batean: eta 2. egin zuen Sakramentu miragarri ori,
gure janari edo alimentu izateko: bere pasio santua-
ren memorial edo akordagarri bat edo betiko oroitza-
mena uzteko: bere graziaz gure animak betetzeko:
eta betiko gloriaren bai edo prenda bat bertatik ema-
teko: eta ori grazia Eliza Ama Santak txit ederki, hitz
oetan erakusten digu: bada Jesu-Kristoren ontasunaz,
eta amorioaz arriturik bezela esaten du: *O sacrum
convivium, in quo Christus sumitur; recolitur memoria
Pasionis eius; mens impletur gratia; et futurae gloriae
nobis pignus datur!* Eta ori bera Jesu-Kristo gure Jau-
nak argiro erakutsi zigun, Ebanjelista Santuak, eta San
Paulo Apostoluak eskribiturik utzi zizkiguen Jesu-Kris-
toren beraren hitz oetan. Nik agintzen dizuedan edo
emango dizuedan ogia nere aragia da (Joan 6. 32.) Ar

ezazue, eta jan ezazue: au da nere Gorputza, eriotzara zuegatik entregatua izango dana (Luc. 22. 18.) Au berau egin ezazue, nizaz oroitzen edo akordatzen zeratela (1. Corint. 11-21.) Nere aragia jaten duena, eta nere odola edaten duena nigan dago: eta ni argan nago. (Joan 6. 27.) Nik esaten dizkitzuedan hitzak espiritu, eta bizitza dira. (Ibid. 64.) Eta orain zertako uste dezue dotriña miragarri au aitatu dizuedala? Da arritu zaitezten, ni arriturik nagoan bezela, ikusirik Jesu-Kristoren guganako amorioa, eta gure biotzetara etorteko daukan deseo guztizkoa: eta Kristau askoren nagitasuna, atzerapena, eta ardurabagetasuna Jesu-Kristo Sakramentu Santuan errezibitzeko. Kristauak, aiñ itxutuak, eta minduarekin aiñ josiak ezpaleude: eren animak maite balitue: eren buruen etsai ezpalira: iñork agindu bage, anziñako Kristauak bezela, egunoro, eta alik sarriena, eren animako bizia, eta salbariorako aiñ indar andiak ematen dien Sakramentu Santua errezibitzeko alegiñak egin bear lituzke; baña ikusten dana da: asko, eta asko igesi dabiltzala: eta Eliza Ama Santak bere Mandamentuarekin, eta eskomunikazioarekin obligatuko edo premiatuko ezpalitu, iñoiz ere komulgatu bage egongo lirатеkeala. Jaungoikoak arren argitu ditzala, eta sarri, eta ondo komulga-

tzeko gogoia diela. Eta orain aditu ezazue, urteoro gutxianez ondo komulgatzeko Eliza Ama Santak ipiñirik daukan Mandamentua: eta nola gazteak antxitiko komuniorako prestatu bear duen.

G. Zein da Eliza Ama Santaren irugarren Mandamentua? **E.** Paskua Erresurrekziokoetan komulgatzea: au da Paskuaren aurretik edo ondoren señalaturik dauden egunetan: zeñak eskuarkiro dira, Erramuko domekatik Paskuaren zortzigarreneraño: Obispo Jau-naren lizenziarekin aurreratzen edo luzatzen ezpada denpora ori.

G. Orrela Mandamentu onekin kunplitzen ezta, urteko beste denpora batean kunplituarekin? **E.** Ez: denpora señalatu artan komulgatu bear due Kristau guziak, eta bakarrik luzatu dezake 1. konfesoreak, disposizio ohearekin komulgatzeagatik, denpora ori luzatu erazotzen badie: bada Eliza Ama Santak orretako eskualdia konfesoreari ematen dio: eta penitenteak konfesoreari obedezitu bear dio: eta 2. edo aurreratu edo luzatu lezake eren Arzaiaren lizenziarekin, Pas-kuako denporan, ezin kunplituko duen tokian arkituko dirala uste badue: eta Paskuaren alik gertuena komul-gatu bear dira.

G. Edozein Elizatan komulgatuarekin kunplitzen ote da? **E.** Ez: bakoitzak bere Parrokian komulgatu bear du; eta motiborik badu beste Eliza batean komulgatzeko, bere Arzaiari lizenzia eskatu bear dio: eta ematen badio, orobat kunplituko du.

G. Eta kunplitzen ote da Elizaren legea komuno gaizto batekin? **E.** Ez: ori lizate beste pekatu arrigarri bat geiago egitea: eta Paskuaz kunplitu bage gelditzea.

G. Eta Paskuako denporan komulgatu eztiranak: edo komunio gaiztoa egin duenak; egon ditezke urrengo Paskuetaraño berriz komulgatu bage? **E.** Ez: Elizako legeak beti darraie ondo kunplitu artean, eta len baño len komunio on bat egiteko egiazko dilijenziak egin bear ditue; bada bitartean beti pekatu mortalean daude.

G. Eta paskuaz kunplitzen eztuenak, pekatu mortal egiñaz gañera, zer beste penarik due? **E.** Kunplitu artean, Elizan sartzea, eta ill ezkerro Kristauaren sepultura ematea eragotzirik dauka Eliza Ama Santak.

G. Eta norzuak daude obligaturik Paskuako denporan komulgatzera? **E.** Arrazoiaren adiñera etorri ezkerro, bear dan ezaguera duen Kristau guziak.

G. Eta nori dagoka examinatzea, gazteak ezaguerara orretara eldu diran edo ez, lenengo komunioa egiteko? **E.** Parrokia bakoitzeko Arzaiari.

G. Pekaturik egiten ote due, dotriña ondo ikasteko alegiña egin bagez, muga onean prestatzen edo disponitzen ez tiranak, Paskuaz kunplitzeko? **E.** Bai, pekatu andi bat egiten due: ezaguerarik baldin badue; deskuido ori andia bada; eta nagitasunetik, edo ardura bagetasunetik baldin badator.

G. Zergatik? **E.** Zergatik Mandamentu onek obligatzen dituan ezkerro, bearturik edo premiaturik daude prestatzera edo disponitzera, onekin kunplitzeko.

G. Nork bestek onetan pekatu egiten du? **E.** Beren humeai, eta mirabeai orretako bear dan dotriña erakusten ez tien edo erakutsi eragiten ez tien gurasoak, eta nagusiak.

G. Eta dotriña jakitea bakarrik asko da lenengo Komuniora gazteak prestatzeko edo preparatzeko? **E.** Ez: ori garrza bearra bada ere, ori baño bearrago da oraindio ondo komulgatzeko, Baupismoan artu zuen Jaungoikoaren grazian irautea; edo bein galdu bazuen, grazia ori berriz iristeko egiazko alegiñak egitea.

G. Eta orretan nork batez ere lagundu bear die gazteai? **E.** Eren gurasoak, eta gurasorik ezpadue, eren guraso-ordekoak.

G. Eta Jaungoikoaren grazian gazteai iraun erazotzeko, zer egin bear due gurasoak? **E.** Orretako Jaungoikoari bere laguntasun espeziala eskatu bear diobe. Eta txikitanik, dotriña Santua erakusten dienean, beren biotzetan sortu erazo bear die Jaungoikoaren amorioa, eta pekatuaren iguitasun andi bat. Eta orretako askotan, edo beinzat egunoro, goizean janzitzen dituztenean, eta oerako erazten dituztenean edo beste al diren batzuetan, esan bear die, era onetan edo bakoitzak al duan moduan: A! nere seme edo alaba: zu nerea baño Jaungoikoarena geiago zera: niri baño geiago zor diozu Jaungoikoari. Nik asko nai badi-zut ere, Jaungoikoak askoz geiago nai dizu Jaungoikoak ezerezetik sortu zaitu: beretzako egin zaitu: Baup-tismo Santuan deabruaren mendetik atera zaitu: pekatutik libratu zaitu: Kristau egin zaitu, eta seme-tzat artu zaitu: zu nor bazera bada edo Jaungoikoari gusto emateko alegiña gogotik egiten badezu, Jaungoikoak txit maite izango zaitu: Jaungoikoaren bendizioa ugari izango dezun mundu onetan; eta gero betiko kontentu-poz eta atsegin guziak Zeruko glorian: eta

ala txit maite izan bear dezu zuk ere nere seme zure Jaungoikoa eta bera ondo ezagutzeko alegiñak egin bear dituzu: eta berari atsegiñ egiteko deseo andiarekin eskatu bear diozu sarri, humill izateko, eta bere mandamentu Santuak kontuz beti gordetzeko bere grazia, eta laguntasuna: eta gauza gaiztorik edo pekatu-rik eztezu arren iñola ere egin bear; bada Jaungoikoa aserratuko zenduke: deabruaren esklabo izango ziñate, eta baita gero aren lagun zorigaiztokoa ere infernuko su eta garretan: nun gaiztoak beti erretzen eta kiskaltzen daude tormentu izugarrien artean. Eta naiago nuke nere seme edo alaba maitea, zu nere begien aurrean ementxe illik ikustea, ezenez pekatu mortal batekin Jaungoikoaren grazia eta adiskidetasuna galdu dezula aditzea. Azkeneko hitz oetxek sarri esan oi ziozkan Franziaiko Erregiña andi batek bere seme San Luis Errege izan bear zuenari. Eta ainbeste-raño pekatu mortalaren iguitasuna, eta gorrotoa bere biotzean sartu zion; nun Errege Santuak bere bizi guzian pekatu mortalik egin etzuen: eta ain Santu andia izatera allegatu zan. Eta zuek ere, onela edo al dezuen moduan, alegin guzia egin bear dezue, zuen gaztetxoak Jaungoikoaren grazian konserbatzeko: bada ori da prestaerarik edo dispozitorik ederrena,

ondo eta frutu andiarekin lenengo Komunioa egiteko: eta orrelakoen biotza da Jaungoikoari gustatzen zaion tokia edo egonlekua, eta orrelakoak gero txit ondo bizi oi dira eta betiko zoriona iristen due.

G. Eta baldin antxitiko Komunioa egin baño lenago, oitura gaiztoak arturik badauzkate ia gazteak; zer egin bear due ondo komulgatzeko? **E.** Aditzera eman bear zaie; mundu onetan izan dezakeen desditzarik andiena dala, estadu gaiztoan daudela, komulgatzea. Obe lukeela itxuturik, gorturik, mututurik, eta betiko elbarriturik gelditzea: eta baita plaza baten erdian Borrero baten eskuz urkamendi batean iltzea, ezenez gaizki komulgatzea: bada gaizki komulgatzea da, Jesu-Kristori al dan afrentarik, eta injuriarik andiena egitea: berriro illerazotzea: eta deabrua dagoan toki nazkagarri batean Jesu-Kristo bera, nai ta ez bezela paratzea: eta ala komunio gaiztoari darraio eskuarkiro itxumena, biotzeko gogortasuna, askotan uste bageko eriotza; eta geienez, egiazko penitenziarik egin bage iltzea, eta infernura betiko joatea.

G. Eztira bada gazteak ondo konfesatzen, komulgatu baño lenago? Eta eztira Jaungoikoaren grazian lenago jarten? Zertako orrenbeste bildur? **E.** Batzuek bai, baña beste batzuek ez. Jaungoikoaren bildurrean

dotriña onarekin seme izan diran gazteak, ustekabeen edo deskuidoan bezela, pekatu mortalen bat edo beste egin arren, espera leiteke, baldin erengan biurturik, beren gaizki egiñaz ondo damaturik, eta berriz pekatu mortalik iñola ere ez egiteko asmo, eta determinazio firme bat arturik, Jaungoikoari humillaturik, barkazioa eskatzen aritzen badira; eta orrela ondo prestaturik konfesatzen badira, Jaungoikoaren grazia egiaz iristen duela, eta ondo prestaturik komulgatzen dirala. Baita beste gazte asko dotriña gutxirekin, Jaungoikoaren bildur bage, gaizki azi, eta pekatu egitera erraz oitu diranak; eskuarkiro edo geienean gaizki konfesatzen eta gaizki komulgatzen dira: zerren, pekatuak ardurabage egin arren, itxuturik egon oi dira: beren estadu gaiztoa ezagutu ere nai eztue: izan arren biraugilleak, gaizki esaleak, juramentugilleak: gurasoai errespetorik eztienak: soberbia alde guzietatik darienak: ala ere ezteritzobe gaitz andirik egiten duenik: eta ala beren oitura txarrak pena andirik ematen ezte: eztira bear bezela humillatzen, zerren beren buruak ezagutzen eztituen: eta nola bear bezelako damutasun egiazkorik, eta proposito firmerik eskuarkiro eztuen, eztira Jaungoikoagana egiaz, eta biotz guztitik biurtzen: eta argatik beren oitura edo aztura

gaiztoakin gelditzen dira, eta askotan konfesatu, eta komulgatuagatik ere beti bat izan oi dira: Jaungoikoak argitasun espezial batekin txit esnatu, eta eren estadu txarrak ondo ezagutu eragin degien artean: eta orduan konfesio jeneral on batekin, lengo utsegiteak erremediatu ditzakean artean: eta ala ere lengo oitura txarrak beti beregana tiratzen ditu: eta asko, ta asko atzera biurtzen dira, eta galtzen dira. A! Zenbat guraso, eren humeak gaztedanik ondo azi bagez, Infernuan arkitzen diran; eta zenbatek ara jarraituko dien ! Baña alperrik da; gurasoak gaiztoak badira, eta exenplo gaiztoa ematen badie; humeak gaiztoak izango dira. Jaungoikoak milagroren bat oen fabore egiten ezpadu: edo guraso gaiztoen aldamenetik txikitunik ateratzen ezpaditu.

G. Zer erremedio artu diteke bada orrelako gazte gaiztoak ondutzeko, eta lenengo komuniora ondo prestatzeko? **E.** Guzien gañeko erremedioa da, gurasoak erak ejenplo ona, eta konseju onak sarri ematea: eta eren humeen gaiztakeriak, eta oitura txarrak etxean nabarbenak badira, 1. gurasoak modu onarekin, eta konseju onakin, ez golpeka, eta deadarka; eta ezta aserretasun andiarekin ere, ezpada orretako Jaungoikoari bere laguntasun espeziala eskaturik hitz

onakin, eta amorioz, oriek ondutzeko, eta korrejitzeko alegin guziak egin bear ditue, eta 2. ala ere erremediatzen ezpadira, noiz edo noiz bazkaria edo aparia kendu: edo beste kastiguren bat eman: eta orrez gañera, komuniorako lizenzia eman bear dienari, abisatu, nolako oiturak dituen gazte oriek, komuniorako lizenzia eman baño lenago, ondo probatu ditzan: eta bere konseju onakin, eta lenago bein, ta berriz, ala bear bada, konfesatu erazoarekin, oitura gaizto oriek, komulgatu baño lenago utzi ditzan: edo beinzat benaz, eta gogotik erremediatzen abiatu ditezen; eta aurrera ere txit erremediatuko diralako, uste edo esperanza ona eman dezen.

G. Eta lenengo komunioa disposizio santu batekin errezibitzea asko ote da salbazioa iristeko? **E.** Ez: egin bear ditugu alegin guziak, orduan errezibitzen degun grazia gure bizi guzian konserbatzeko.

G. Orrelako zer bidez edo medioz baliatu gaitezke? **E.** 1. Da sarri, baña ondo prestaturik konfesatzea, eta komulgatzea: bada orrela aldioro indar geiago artuko degu gure pasio, eta aztura gaiztoen kontra: bizitza onetako naigabetan konsueloa arkituko degu: eta Jaungoikoaren grazian irauteko, eta birtuteetan aurreratzeko, laguntasun andi bat izango degu.

G. Eta zenbat aldiz komulgatzea, konbeni zaio, bere salbazioaren egiazko deshea duen Kristau bati?

E. Lenengo Kristauak egunoro komulgatu oi ziran: eta Eliza Ama Santak nai luke, guziok egunoro komulgatzeko gai beti arkitzea: eta ala bizi diranak zorionekoak dira. Bada komunkiro orain gutxiena illean bein: eta Jesu-Kristoren, eta Ama Santisimaren jai andietan komulgatzeko alegiña egin bear dezue, eta are sarriago Konfesoreak ala akonsejaten badizue.

G. Eta zer beste medio ar dezakegu lenengo komunioko grazia konserbatzeko? eta bizimodu on bat egiteko? **E.** Ona artarako egokienak 1. Goizean, eta arratsean orazio, eta konsiderazio puskatxo bat egitea edo betiko gloriaren edo betiko Infernuaren gañean edo eriotza onaren, eta gaiztoaren gañean, eta ari darraion Juizioaren gañean: eta baita Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza Santuaren gañean, beti gogora ekarten degula: 1. nor zan Jesu-Kristo: 2. Zenbat padezitu zuen: 3. norgatik eta zertako padezitu zuen: eta 4. nolako amorioarekin padezitu zuen; eta orduantxe berritu bear ditugu, gure pekatuen damutasuna, eta propositu firmea: eta Jaungoikoari gogotik eskatu bear diogu bere laguntasuna, eta grazia, Jesu-Kristoren izenean gure pasioak benzitzeko. 2. Da era onik

badegu, Meza Santua egunoro debozioroz enzutea: eta era onik edo lekurik ezpadegu, egun artako Meza guziak Jaungoikoari ofrezitu Jesu-Kristoren izenean, guzietan parte izateko deseo, eta intenzioarekin: eta fiñ orretarako gutxienez, Aita gure, eta Abe Maria bat errezatzea.

Eta 3. da Jai egunak batez ere Jaungoikoaren serbizioan igarotzea, tabernetatik, danzetatik, eta eragabeko joku, eta jolas peligrozkoetatik alde egiñaz: eta egun orietan, besteetan baño, errezo geiago, eta obra on geiago egiñaz. Bada orrela bizi diranak, munduko eroak ala uste ezpadue ere, pake, eta konsuelo andi batekin daude: munduko naigabeak ere errazago daramazte, merezimentu andiak Zerurako biltzen dituzte: eta azkenik eriotza on baten ondoren betiko gloria iristen due, eta ori da nik guziori deseaten dizuedana, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

BERROGEIGARREN DOTRIÑA

Elizaren laugarren Mandamentua.

- 1. Barautzearen, eta aragia ez jatearen gañean:*
- eta 2. Mortifikazioaren gañean.*

Barauaren gañean gaur hitz egin bear dizuet N.K.; Iru modutan da baraua: 1. barau naturala edo ezer ere artu bage egotea, Elizan komulgatzeko bear dan bezela. 2. Da barau morala esaten diobena: eta da tenplanzako birtuteak erakusten duena: au da neurri onean, modu onean, eta fin onarekin jatea, eta edatea: tenplanzako birtutearen esplikazioan esanik daukagun bezela: eta 3. da Elizako barauak, eta bijiliak ondo gordetzea: eta auxe da gaurko hitz-gaia: eta orren ondoren beste barau mota bat, guziok atera dezakeguna, eta atera bear deguna aitaturko dizuet.

G. Zein da Elizako laugarren Mandamentua? **E.** Eliza Ama Santak agintzen duen egunetan barautzea.

G. Barau egunak zein dira? **E.** Garaizumako egun guziak, Domekaz kanporakoak: lau denporetako asteazken, ostirela, eta zapatuak, eta Elizak señalaturik dauzkan festa andien bespera egunak.

G. Garaizumako baraua zertako izan zan ordenatua? **E.** 1. Jesu-Kristok Eremuan egin zuen berrogei eguneko baraua honratzeko: eta 2. Pazkuako misterio andietara, barauarekin, eta penitenziarekin gu obeto prestatzeko.

G. Urteko lau sasoi edo kuarta denporetan baraua zertako da? **E.** 1. Sasoi guziak penitenziari konsagratzeko edo denpora guzietan penitenzia egin bear degula aditzera emateko: eta 2. nola orduan Elizako Ministroak ordenatzen diran, Jaungoikoari eskatzeko, arren bere Elizari Ministro santu batzuek eman degiozkala.

G. Eta festa andien besperetan, zertako barautzen da? **E.** Festa oriek, debozio geiagorekin gordetzera, eta santifikatzera, gu besperatik prestatzeko edo preparamatzeko.

G. Zer egin bear da, Elizak agintzen duen bezela barautzeko? **E.** 1. Bazkari bat baizik ezta egin bear: 2. bazkal ordua ezta aurreratu bear: eguerdiaren inguruan edo gertuan jan liteke: baña nai duanak luzatu geiago, ori egin dezake, eta geiago mortifikatzen dala, meritu geiago izango du: eta 3. barau egunetan, ezin aragirik, eta ez koipe gauzarik jan diteke; eta orrez gañera garaizuman ez arraultzarik, ez esnerik, ez gaz-

tairik edo oriekin egindako gauzarik jan liteke Bulda bage, eta Buldarekin garaizuman jan litezke: eta garaizumatik kanpora urteko beste barau egunetan Bulda bage ere arraultza, eta esne gauzak eguerdian jan litezke.

G. Nor daude obligaturik barau egunak gordetze-
ra? **E.** Ogeta bat urte osaturik edo beterik dauzkeen
Kristau guziak: libra ditzakean motibo edo arrazoi jus-
turik ezpadue.

G. Eta noiz artean irauten du obligazio onek? **E.**
Eztago denpora señalaturik: barautzeko indarrrik asko
duen guziak beti due obligazioa.

G. Eta dudatzen duenak indarrrik asko duen edo ez
zer egin bear due? **E.** Eren disposizioa Medikuari, eta
Konfessoreari agertu, aitzakiarik asmatu bage, eta
gezurrik esan bage, eta aen konsejua artu.

G. Eta kolaziorik arratsean egin diteke? **E.** Bai:
bada Elizak ontzat darama: legerik ipiñi ezpadu ere.

G. Eta kolazioan zenbat jan liteke? **E.** Kristau onak
komunkiro artzen duen ainbe: eta bizi dan lekuan Kris-
tau onak artzen dituen gauzaetatik: aztu bage kola-
zioa ariña izan bear dala: eta urrengo eguneraño neke
andi bage, irauteko, eta lo egiten laguntzeko permiti-
tzen dala: eta juizio andiko Maisu edo Doktore batek

dio sei onzatik eztala igarobear kolazioan artzen dan janaria. *(Cunilliati)*

G. Eta goizean gauza gitxiren bat artu liteke barau egunean? **E.** Premiarekin edo nezesidadearekin bai: bestela ez.

G. Eta premia bage gauza gitxi bat artzea zer pekatu da? **E.** Pekatu beniala.

G. Eta pekatu benialik egin bage gauza gitxi bat artzeko, zer motibo asko izango da? **E.** Bakoitzak bere lanak, eziñ ondo edo neke andi bage egin izatea, asko da gauza gutxi bat artzeko, pekatu benialik egin bage.

G. Eta zenbateraño izan diteke goizean gauza gitxi ori edo txiki ori? **E.** Onza baten kantidadea, gutxi gora bera artu diteke: eta orrela ere barautzeko neke andia daramen personak onza ta erdi edo geiena onza bi artu ditzake: bada obe da nolabait barautzea, ezenez gauza gutxi bategatik barautu bage egotea. Esan det, onza bi premiarekin artu litezkeala: baña ori aditzen da, sustanzia andiko gauzaren bat artzen ezpadue: nola txokolate ona: bada onza bi txokolate artzea, lau onza ongi artzea baño geiago da.

G. Eta bein baño geiagotan artu diteke gauza txiki edo gitxi ori barau egun batean? **E.** Ez: eta guziak juntaturik kantidade andira eltzen badira, bein baño geia-

gotan artutako gauza txiki edo gitxi oriek, pekatu mortal egiten da.

G. Eta gauza gitxi ori, partitu liteke erdi bana goizean, eta arralsaldean barau egunetan? **E.** Orretan premia edo nezesidade andi bage dabiltzanak, mortifikazioaren igesi oi dabilta: eta beren barauetatik probetxu gutxi ateratzen due: bada eguerdian osasun onarekin, eta disposizio obearekin bazkaldu ezker, esan diteke egiazko premiarik edo nezesidaderik ezin izan ditekeala arratseraño, ezer artu bage, ez irauteko. Ala ere persona zarrak, eta flakoak, gauza gutxi baizik bazkaltzen eztuenak, eta orregatik barau atera nai duenak edo besteak baño goizago kolazioa egin lezake; edo berandu kolazioa egin bear badue, gauza txiki gutxiren bat arratsaldean artu lezake, batez ere Konfessorearen konsejuz: bada beti da obe *al dan moduan* barautzea, eta Elizaren legea gordetzea, eze-nez batere barautu bage gelditzea.

G. Aragia jatea, zein egunetan eragotzirik dago? **E.** Barau egun guzietan: eta baita urteko Ostirela guzietan, eta beste bijili-egun edo abstinenzia gorde bear dan egun guzietan.

G. Eta orrelako egunetan, noiz ezkeroko due Kristauak obligazioa aragirik ez jateko? **E.** Zazpi urte osatu edo bete ezkeroko beti due obligazio ori.

G. Eta egun orietan, ezaguerarekin aragia jatea, zer pekatu da? **E.** Da, berez pekatu mortal: eta zenbat aldiz egun batean aragia jaten duen, beste ainbeste pekatu mortal egiten ditu: baña batere oartu bage edo akordatu bage jaten badu, pekaturik egiten eztu.

G. Eta barau egunetan aragia jateko lizenzia duenak, zerren olioak edo arrai gauzak gaitz egiten dion, barautu bear due? **E.** Bai, beste motiborik ezpadue, baraua atera bear due: eta ala bazkari bat baizik ezin egin lezake, eta kolazioa besten gisa egin bear da.

G. Eta orrelako lizenzia duenak aragia, eta arraia jatordu batean artu ote litzake? **E.** Ez ori eragotzirik dauka Eliza Ama Santak pekatu mortalaren azpian: baña aragia jateko lizenzia duenak, arraultzak, eta esne gauzak jan litzake Garizuman izan arren ere.

G. Eta nor dira barautzeta libre daudenak? **E.** 1. Gaixoak edo eri daudenak, eta baita gaitz ondoan flako edo argal daudenak ere. 2. Aurdun dauden, eta aurrak azitzen dituen emakumak: 3. jalordu edo bazkari on bat egiteko mediorik edo modurik ez tuen guziak, eskean ez ibilli arren. 4. Eskean dabilzanak

aterik ate: baña oek ere osasun ona, eta bazkari on bat egiteko modua badue, barautik eztaude libre: eta kontrara onelakoak aragia baizik zer jan beste gauzarik eguna igarotzeko, ezin eskutara badue, aragia ere orduan jan dezake pekaturik batere egin bage: baña edo ogia edo artoa izan ezkerro, aragirik ezin jan lezake, pobreak diralako beste bage: 5. Libre daude neke gogorrek egin bear dituen Nekazariak, Arotzak, Argiñak, Errementariak, eta beste onelakoak. Baña ori aditzen da, barau egunetan nekatu bear badira: ze, nekerik egun aetan egin bear ezpadue, eta zer jan ondotxo baldin badue, eztaude era batera guziak barautzetik libre: baña ara, lenago agitz nekatu badaude, eta aurrera ere neke gogorretan aritu bear badue, nola indarrak gorde bear dituen aurrerako, libre daude, bada komunkiro orrelakoak jatordu on bat egiteko ere modu gutxi izan oi due, barau egunen bat edo beste nekatzen eztiranean gertatuagatik ere. Baña barautzeko obligaziotik, jakiñik eduki bear dezue, ze, ofizioak berez eztuala iñor libratzen, baizik ofizioari darraion nekeak. Eta ala batere nekatzen eztiranak, edo gutxi nekatzen diranak, zer jan eguerdian ondo badaukee barauak atera, edo gorde bear ditue.

G. Eta aitzakiak dauzkaten erdi gaixoak, eta barautu bear duen edo ez; eta aragirik jan lezakeen edo ez dudatzen duenak zer egin bear due? **E.** Medikuari edo Barberoari galdetu. Eta dudatik ala ere irte-ten ezpadira eren animako Arzaiari edo Konfessoreari konseju eskatu, eta itxu-itxuan jarraitu.

G. Eta orain bezelako biguntasunarekin lenagoko denporetan barautzen ote ziran Kristauak? **E.** Ez: Elizaren lenengo denporetan, eta baita agitz geroago ere Garaizumako barau egunetan bezperak berandu esan artean, au da arratsaldeko seiretaraño etzan baraurik ausitzen: eta argatik orain ere, gauza ori ez aztutzeagatik, bezperak bazkal aurrean Garaizuman esaten dira: eta orduan etzan goizean ezertxo ere artzen, eta ez kolaziorik egiten. Eta Garaizumatik kanpora ere arratsaldeko irurak jo artean etzan bazkaririk egiten barau egunetan: eta bazkariak ere etziran orain bezelako erregalo edo janari kostosoakin egiten: bada komunkiro berdura, egoskari edo fruta gauzakin kontentatzen ziran. Baña gero Eliza Ama Santak, Kristauen argaltasunaz errukiturik utzi du bazkaria eguerdian edo aren inguruan egiten, eta baita kolazioa gauetan ere, neke andi bage gaua igarotzeko, eta lo egiten laguntzeko: eta ala lotsatu bear gera, aiñ gutxi

mortifikatzen generala, ikusirik, gure pekatuak penitentiaren, eta mortifikazioaren bear edo premia gehiago ezpadue ere.

Bada barauak agitz serbitzen du, aragiaren griña gaiztoak goitzeko edo menderatzeko: gure espiritua Zerura altxatzeko: birtutea alkanatzeko: eta sari ugariak iristeko: eta argatik Kristau onak, Elizako barauaz gañera, borondatez askotan barautzen dira, ete ondasun espiritual andiak irabazten dituzte. Badakit ala ere, zuetatik geienak, zuen pobrezagatik, eta neke andiakgatik ezin Elizako baraua atera dezakezuela; baña nezesidadeaz birtute egi-ezazue: Jaungoikoari baruaren orde zuen pobreza, bearra, eta nekeak ofrezitu egiozkatzue, Jesu-Kristoren neke andiarekin batera, eta txit asko irabaziko dezue: zuen jatorduak, ansia bage, neurri onean, modu onean, eta Jaungoikoari eskerrak emanaz egiteko alegiñak egi-itzatzue: eta orain guzientzat guztiz bearra dan beste barau mota bat aditu ezazue, ondo ikasi ezazue, eta ondo gordeztzeko alegiñak egi-itzatzue. Bai N.K.; guziok degu baruaren izenaz aditzen dan mortifikazioaren bearra edo premia: eta ez bakarrik birtutean, eta Jaungoikoaren amorioan aurreratzeke, eta Zerurako irabazi andiak egiteke; baita ere pekatuak ez egiteke, eta

pekatuaren zorrak mundu onetan errazago pagatze-ko: eta ala, naiz barautzeko indarrak eduki, eta Eliza Ama Santak agintzen dituan barauak gorde; eta naiz barautzetik libre egon, gere kritasun edo nekeakgatik; badegu guzionzat beste barau edo mortifikazio bat, ezin eskusatu dezakeguna, eta da modu bitakoa: bata kanpkoa edo gorputzaren aldekoa, eta bestea da barrukoa edo biotzaren edo borondatearen aldekoa. Ez gera bada kontentatu bear N.K., janean bakarrik barautzearekin, beste sentiduai ere barautu eragin bear diegu. Begiak, belarriak, mingaña, eskuak, eta gorputzaren atsegin nai edo gurari gaiztoak nai ta ez mortifikatu bear ditugu, eta eren gustoak ukatu bear diegu. Begiak ondo gorde bagez: bear eztiran gauzak ikusi guraz: edo ustekabea aurretik jarten diran ikusgai peligrozkoetatik begiak bereala apartatu bagez, zenbat pekatu sortu oi diran, ezin ponderatu liteke: orra bada begiak mortifikatzeko bearra, eta premia andia. Orobat belarriak ondo gorde bagez: eta hitz-kunza loi zikiñak edo murmurazioak gogotik enzuten egonaz, zenbat pekatu etorri eztira? Bada nork konta litzake, mingaña mortifikatu bagez, naiz desoneske-riako edo lujuriako gauzetan, naiz murmurazioetan, naiz birau edo maldizioak esateko kostunbre edo oitu-

ra gaiztoan, zenbat pekatu gertatzen diran? Bada gorputzari atsegin edo gusto eman naiak, dala ukitze zikiñakin; dala eragabeko jan-edanakin: dala, janzi arro, eta biguñakin: dala nekerako alpertasunarekin; zenbat pekatu munduan sortu eztitu? Eta zenbat aurrera ere sortuko ezтира gure gorputzaren, eta sentiduen gurariak mortifikatzeko egiazko alegiñak egiten ezpaditugu? Baña ez gera kontentatu bear pekatu larriak edo mortalak eragiten dituen sentiduen gurari edo apetitu gaiztoak mortifikatzearekin bakarrik: pekatu mortaletik urrutiago egoteko, pekatu txiki edo benialak ere eskusatzeko, eta Zerurako asko irabazteko, agitz balio du, gauza txiki edo ariñetan ere gure gogoausitzea, eta sentiduak mortifikatzea: eta kontuan egon nai badegu, artarako okasioak txit sarri izango ditugu. Etortzen zatzu gogora onelako edo alako gaitza ikusi nai bat, erraz eskusatu dezakezuna: bada mortifikatzen badezu, eta uzten gogo edo deseo ori, asko irabazten dezu. Datorkizu beste batean onelako berriak jakiteko deseo andi bat, baña premiarik eztezu: bada jakin nai ura mortifikatuarekin, uste dezun baño geiago irabaziko dezu. Beste aldi batean dator-kizu urliaren edo berendiaren bizimoduko gauzak adiskide batekin erausteko deseo bizi bat: bada ori

mortifikatzen badezu, bearbada murmurazioko pekatua egitetik libratuko zera, eta Jaungoikoari atsegin egingo diozu, eta irabazi andi bat egingo dezu. Jator-dutik kanpora edo jatorduan bertan onelako edo alako gauzaren guraria egiten zatzu, premiarik batere eztezu: bada gurari ori mortifikatzen badezu, asko irabaziko dezu: beste bati datorkio edo danzara edo jostatze-ra edo jokura joateko gogo bizi bat: bada Jaungoikoagatik gogo ori ezitzen, eta ukatzen badu, orra meritu gai andi bat, bada Jaungoikoaren aurrean txit asko balio du gauza txikietan ere gere borondatea ausitzeak: eta orretara oitu ezkeru, gauza larrietan errazago batek bere borondatea ukatuko du, eta pekatu andietan erortetik libratuko da. Badira oraindio beste mortifikazio mota batzuek, birtuteari darraizkan Kristau onak, txit kontuz egiten dituenak: nola dan jator-dutik kanpora, premia egiazko bage, ez ezer jatea; eta ez edatea, jatordua bera beti neurri onean egitea; janariak gustorik ezpadu disimulatzea; goizean goiztxo jaikitzeke, eta gabean etziteko orduak arreglaturik edukitzea: goizeko, eta gabeko orazioa, eta egunoroko konzienziaren examiña, bere konsiderazioekin, eta kontriziozko aktoekin, eta beste afekto onakin kontuz egitea: ordua aditzen duenean Abe Maria errezatzea,

eta Birjiña Amari bere laguntasuna ondo bizitzeko, eta ondo iltzeko eskatzea: eta onelako beste ekiera edo ejerzizio santuak, aetan oitutzeko neke piska bat artu ezkerro, edozeñek erraz egiñ ditzakeanak: eta eztitut aitatzen beste batzuen disziplinak edo azoteak, silizioak, lurraren gañean etzateak, barau luzeak, eta beste onelako gogortasunak, gorputza obeto ezirik edukitzeko, penitencia egiteko, eta geiago Zerurako irabazteko gogotik artzen dituenak: baña Konfesorearen iritzi, eta konseju bage eskuarkiro egin bear eztiranak, osasuna galdu, eta kalte geiago eren buruai ekarri eztegien. Orra kanpoko edo gorputzeko mortifikazio gaiak nolakoak diran: orain beste batzuek bearrago ditugunak, au da barruko edo biotzeko mortifikazioaren gaiak aitatu bear dizuet. Badakizue N.K.: gure zorion guzia dagoala, gure borondatea bere deseo guziakin Jaungoikoaren borondate Santuarekin bat egiñik edo konformaturik edukitzean: eta ori ondo egitea eragozten digula, gere buruaren geiegizko edo eragabeko amorio propioak: emendik datorkigu soberbia, eta arrotasuna, eta besteak baño honra, eta estimazio geiago izan nai eragabea: emendik abarizia edo gutizia, eta eragabeko interes, eta ondasun gura gaiztoa: emendik lujuria edo aragiaren gusto zikiñen apetitu

edo griña txarra: emendik gula edo erabageko jateko, eta edateko deseo fortitza: emendik ira edo kolera, eta aserretasuna, eta bendekua: emendik enbidia, eta gorrotoa: eta emendik nagitasuna, birtutearen iguitasuna, eta obra onak egiteko atzerapena, eta alpertasuna: Zer egin bear degu bada, erabageko pasio edo bizio oriek mortifikatzeko, eta goitzeko? Erremedioak ugari emanik dauzkagu berariazko dotriñetan. Eta ona orain erremedio bat bakarra, eta guziz eragillea bizio orien guzien kontra. Zein da ori? Gogora ekartzue: Kristauak zeratela: eta Jesu-Kristori jarraitzen ezpadiozue, Kristauaren izena bai, baña Kristauaren izanik eztezuela. Konsideratu dezagun bada guziok, eta beti gogoan erabilli dezagun gure Zeruko Maisu, eta Gidari Jesu-Kristoren guztizko humiltasuna: aren pobreza, oni darraizkan nekeakin: aren kastidade, eta garbitasun guztiz miragarria: aren gose-egarriak, eta beazunezko edari miña ill bear zuenean: aren pazienza, eta mansotasun guztizkoa ainbeste afrenta, injuria, desprezio, eta tormentuen artean: aren errukia, eta misericordia bere etsai gaiztoen aldera: eta azkenik, gu salbatzeagatik, eta guri ejemplo emateagatik artu zituan neke arrigarriak: eta lotsatu gaitezen, aren diszipulu, eta jarraitzalleak izanik, ain arroak, ain gutizio-

soak, ain atsegin zikinzeak, ain gulosoak, ain aserrekorrak, ain enbidiosoak, eta ain nagiak gerala ikusirik: eta eskatu degiogun gogotik bear degun argia, gure itxumena ezagutzeko, gure amorio propio eragabea, eta orri darraizkan pasio edo bizioak mortifikatzeko indarra: eta Jaungoikoa biotz guztitik amatzeko, eta aren borondate santua egiteko grazia. Eta orri darraion betiko gloria. Amen.

BERROGEITA BATGARREN DOTRIÑA

Elizaren bostgarren mandamentuaren gañean.

Gaur Eliza Ama Santaren bostgarren mandamentua, au da, amarrenak, eta primiziak ondo pagatzea, aditzera eman bear dizuet: eta lenengo gogora ekartzue, ezin Kristauak bezela biziko zeratela, Kristauren legea nork erakutsi, eta lege ori gordetzeko bear dituzuen laguntasun espiritualak nork eman ezpadezue: zuek guziok gorputzaren nezesidadetan serbitzen zaituenai, dagokien saria ematen diezue, eta emateko obligazioa dezue: Medikuari, Barberoari, Botikarioari, Errementariari, Jostunari, eta zuenzat bearra egiten duen guziaz pagatzen diezue. Bada animako gauzetan, zuen betiko zoriona irabazten, zuen eritasun espiritualetan sendatzen, eta bear dituzuen laguntasun espiritual guziak ematen jarduten duen zuen animako, Mediku, eta Arzaiak zenbat arrazoi geiagorekin, mantentzeko bear duena eman bear eztiezue? Beste irabazbide guziaz largarik, gastu, eta neke askorekin Elizgizon egiñik, eta zuen animen serbitzari izateko eslei-

turik, ordenaturik, eta konsagratuak dauden Jaungoikoaren Ministroak ezpazinduzte, zuek, zer izango lizate? Abereen antzekoak, eta bearbada gaiztoagoak izango zizate, eta betiko kondenatuko zizate. Ortu aterazue bada kontu, Elizako legeak ezeze, Jaungoikoaren legeak, eta arrazoi naturalaren legeak obligatzen zaituela, zuen animen Arzaiak, zuen Maisu espiritualak, eta zuen animako eritasunen Medikuek mantentzera, dagokien honra, eta estimazioarekin: eta orretarako daude esleiturik batez ere amarren-primiziak. Eta ala oriek ondo pagatzeko obligazioa, eta modua gaur erakutsi bear dizuet.

G. Zein da Elizaren bostgarren mandamentua? **E.** Amarrenak, eta primiziak ondo pagatzea.

G. Berria edo denpora oetakoa ote da amarrenak pagatzeko obligazioa? **E.** Ez: ain zarra edo anziñakoa da, nun lege naturaleko denporan, au da Jaungoikoak Moises Profetaren bitartez, amar mandamentuak losa edo arri zabal bitan eskribiturik eman baño lenago, Abran Patriarka andiak, amarrenak pagatu izan ziozkan Melkisedek Sazerdoteari: bada lege naturalak berak erakusten digu, mantendu bear dirala, Jaungoikoa adoratzeko; berari sakrifizioak, eta erreguak puebloagatik egiteko, Sakramentuak administratzeko, eta

Jaungoikoaren hitz santuak esplikatzeko, ipiñirik dau-
den Elizako Ministroak: eta argatik San Paulo Aposto-
luak dio, Altarea serbitzen duenak, Altaratik bizi bear
duela edo mantenatu bear duela. Eta ala Jaungoikoak
berak bere pueblo eskojituari agindu zion Malakias
Profetaren aotik: gauza guzien amarrena ekarri eza-
zue nere etxe edo Elizako graneroetara, nere etxean
zer jan beti arkitu dedin: (au da Eliz-gizonak edo Eliza
serbitzen duenak zerekin mantendu izan dezen) eta
nik zuen lurrai, eta mastiai nere bendizioa emango
diet, frutu ugariak eman degizuen.

G. Eta gauza guzi-guziak zor ote due amarrena? **E.**
Berez bai: baita soldatak, bear izan ezkerro. Baña zer-
tatik amarrena egin, eta zenbat egin orain Eliza Ama
Santaren disposiziora dago. Eta Elizak orain agintzen
duena da aspaldian edo anziñatik akostunbratzen edo
usutzen dan bezela, amarrena, eta primizia egin dedi-
lla, kostunbre edo usadio berririk ipiñi bage Elizaren
beraren konsentimentu bage.

G. Eta nor dira amarrenak egitera obligaturik dau-
denak? **E.** Kristau fiel guziak, ala aberatsak, nola
pobreak; baita Sazerdoteak, Obispoak, eta Aita San-
tua bera ere, Elizari dagozkan soroetatik kanpora

beste aldetik, edo eren etxetatik fruturik baldin badue.

G. Eta zeñi pagatu bear zaizka amarrenak, eta primizia? **E.** Bakoitzak bere Parrokiari.

G. Eta Parrokia batean bizi dala, beste Parrokia bateko lurak badarabiltza, bietatik zeñi pagatu bear zaio amarrena? **E.** Bere kostuz beste Parrokia batean lurak konpontzen edo maneatzan baditu, Parrokia biai, erdi bana, pagatu bear zaie amarrena: alkarri ikutzen edo mugatzen diran Parrokiak badira baña bere kostuz lurak maneatzan ezpaditu, amarren guzia zor zaio, lurak dauden Parrokiari.

G. Eta primizia nori pagatu bear zaio, nekazaria bizi dan lurreko Parrokiari edo soroak dauzkan lurreko Parrokiari? **E.** Iruñeko edo Panplonako Obispadu onetako legez batera soroak dauden lurreko Parrokiari osoro zor zaio, eta eman bear zaio primizia: kontrako anziñako kostunbrerik edo konbeniorik, eztan leku guzietan.

G. Eta zer pekatu da amarrenak, eta primiziak ez pagatzea edo gaizki pagatzea? **E.** Da berez pekatu mortal Errelijioaren kontra, eta justiziaren kontra, eta ala errestituzioa egiteko obligazioz, beti darraio: eta ain pekatu andia da, ze Aita Santuren batzuek diote,

amarrenak, eta primiziak pagatzen eztituenak, Here-jetzat, Ante-Kristotzat, eta kondenatutzat eduki bear dirala. Eta Trentoko Konzilio Santuak agintzen du, exkomunikatu ditezela amarrenak ostutzen edo pagatzen eztituenak, eta baita pagatzea eragozten duenak, eta absolbitu bear eztirala pagatu artean.

G. Eta utsegiterik edo pekaturik ez egiteko, nola egin bear da amarrena, eta primizia? **E.** 1. Izaten diran frutu edo labore guzietatik egin bear da amarrena (neke-saririk, eta azigaririk atera bage:) eta amarrenari dagokionetik limosnarik iñori ere egin bage: bada besteren gauzatik ezin limosnarik egin legike: egin bear da amarrena, au da amarretik bat: ez gaizki aditurik batzuak egin oi duen bezela, amar erenzat artu, eta amaikagarrena amarrenari, ori ezta amarrena, baizik amaikagarrena ematea. Eta ala bederatzi erenzat artu, eta amargarrena Jaungoikoarenzat: eta amar anegatatik anega bat amarrenari bezela, anega laurden bat, edo imi bat primiziari eman bear zaio edo orobat dana zortzi bat amarren primiziai biai. Eta kontua justu-justu ez datorrenean anega osoa edo erdia edo imia emateko, orduan imillaunza edo imillaun erdika kontua atera bear da, eta zeuronzat neurritzen dezuen moduan amarrenari datorkiona ere bear

dezue: ez batzuek gaizki egiten duen bezela, erenat moru artu, eta amarrendunari erraseratuta eman. 2. Amarrena egin bear da, Jaungoikoak ematen duen gai artan bertan, orobat primizia ere. Eta ala ezin amarrendunak obligatu ditzaketzue, dirutan artzera amarrenaren balioa, bada ori litzateke beren amarrenaz nai duen bezela baliatzeko dauken eskualdea, gaizki edo bide eztanez kentzea.

G. Eta ezin ondo partitu ditekean gauza gutxiren bat baldin bada, amarrenari dagokiona, nola bada gutxiren bat, edo piskaren bat edo sagar banaka batzuek, orduan zer egin bear da? **E.** Orduan Kristau onak aren ordekoa egiten due edo garian edo artoan, zor duena pagatu eztuelako, kezak ez gelditzeko, eta ala egin bear dezue.

3. Amarrena, eta primizia egin bear da, Jaungoikoak ematen duen bezela: ez askok egiten duen bezela, onena berentzat artu, eta txarrena amarrenari, eta primiziari, edo obeto esateko Jaungoikoari berari txarrena biurtzea Kain gaiztoak bezela.

Gure lenbiziko guraso Adanen seme nagusiena izan zan Kain nekazaria: eta onek Jaungoikoari ofrendatu oi ziozkan bere frutuetatik txarrenak: eta kontra-
ra aren anai Abel arzaia justuak fruturik onenak Jaun-

goikoari ematen ziozkan. Eta Jaungoikoak oni errezibitzen ziozkan atsegin andiarekin, bere biotz onaren señaile bezela. Baña Kainek ofrezitzen ziozkanak, etzitan aren Majestadeak onzat artzen, zerren biotz txarrarekin ematen ziozkan. Eta zer gertatu zala uste dezue? Kain gaiztoari, bere anaiaren kontra ain enbidia andia, eta ezin ikusia bere biotzean sartu zitzaion, nun bere eskuz, traidore batek bezela bere anaia ill zuen, eta auxe da lenengo ill zan justua: eta orduan Jaungoikoak Kaini bere maldizioa bota zion, eta dio Eskritura Santuak, ze arrezkero guzia ikaraz beterik, mendirik mendi ibilli zala, Lamelek berari ere bizia kendu zion artean. Eta Kain auxe izan zan lenengo kondenatu zan gizona: orra nundik sortu zan orren kondenazioa. Jaungoikoari bere ofrenda egiten zion, baña txarrenetik, eta gogo gaiztoz. Eta Jaungoikoak etzion onzat artzen, eta orregatik, ainbesteraño itxutu zan, eta ain maldade arrigarriak egitera, eta kondentzera etorri zan: eta ori bera duda bage gertatuko zaie Kain gaiztoaren jarraitzalleai.

G. Eta fruturik onenetik amarren guzia egiteko obligaziorik ote dago? **E.** Ez: baizik Jaungoikoak ematen dizuenetik, eman dizuen bezela, amarrena egin bear dezue. Ona ematen badizue, ona pagatu bear

dezue: txarra edo ariñ-ona ematen badizue, orrekin-txe kunplitzen dezue: (baña guztitik ematen badezue, eztezue txarrenarekin bakarrik kunplitzen, baizik daukazue obligazioa, gutxianez, onari dagokiona, ona emateko, eta txarrari dagokiona, txarra eman dezakezue). Baña ematen dezuen guzia, zuen animen onerako izatea nai badezue, biotz onarekin eman bear dezue. Abel justuak bezela, eta ez Kain dollor gaiztoak bezela.

G. Eta amarrena, eta primizia nun entregatu bear dira? **E.** Kostunbrea edo usadioa dagoan moduan, eta tokian. Baña onetan utsegite andi bat batzuek egin oi due, eta da batez ere amarrenari, eta primiziari dagoan gaztaña mendian edo beste baztarren batean utzitzea, lapurrak ostutzeko edo abereak jateko peligran, eta kasorik egin bage, etxera joan, eta gero amarrendunari kontu eman, ori ezta amarrena pagatzea, baizik amarrena galtzea. Eta ala gutxienez, daukazue obligazioa, leku seguruan amarrena pagatzeko, edo bere jabe edo amarrendunari entregatzeko: bada bitartean zuen ardurabagetasunez edo zeuron gauzari bezela kuido artu bagez, galtzen bada, berriz amarrena egitero obligazioa dezue.

G. Eta amarrendunak erak aberatsak badira, eta amarrena eman bear duenak pobreak badira, ala ere amarrenak pagatzeko obligazio estua ote due? **E.** Bai N.K.: bada alde batetik aitzakia orrek balio balu, laster pobrezaren motibo orrekin geienak eskusatuko lirateke amarrena egitetik, eta amarrendunak erak pobreza andira etorriko lirateke: eta bestetik Elizako Arzaiak, eta beste Eliz-gizonak, eren mantenuaz gañera dauzkaten beste obligazio asko ezin osatu edo kunplituko lituzke, eta limosnarik zerekin egin izango ez luke, eta beste kalte asko etorriko lirateke. Eztezue ikusten, gerran dabilzanai, eta artarako ofizioak edo karguak dituztenai, erak eren etxetik aberatsak izan arren, kontuz soldatak pagatzen zaiela? Bada bestela nork serbitu izango ez litzale, eta txiki, eta andi guziak artarako laguntzen due: bada orobat Jesu-Kristoren soldadua, infernuko deabruari gerra egiten diobenak, eta zuen animak zaitzeko, eta defenditzeko kargua duenak, guziok mantenu bear dituzue, eta ala orien mantenu, eta soldatarako amarrena pagatzeko obligazio estua due, aberatsak bezela, nekazari pobreak ere. Eta guziak kontu egin bear due, Jaungoikoak berak bere etxerako, au da, bere Elizako serbitzariendako erreserbatu duela amarrena, eta primizia, eta

frutu guzien jabe Soberanoak bezela nai duena, eta nai duen bezela disponitzeko eskualdia daukala. Eta amarrenik egiten ezten lekuetan, zerren amarren gairik eztagoan, nola gertatu oi dan nekazaririk eztan erri andiren batzuetan edo zerren amarrena egitera oiturarik eztagoan, amarrenaren orde beste gai batzuetan, seinalatzen die Elizako Ministroai, dagokien dezenia, honra, eta estimazioarekin mantentzeko bear duena: eta ori lege guziak, ala Jaungoikoarenak, nola arrazoi naturalarenak, nola Elizarenak, gauza justua, eta premiazkoa bezela agintzen due. Bada gorputzari dagozkion gauza denporaletan serbitzen zaituenai pagatzeko obligazioa dezuen bezela, arrazoi geiagorekin oraindio, animako gauza espiritualetan serbitzen zaituenai, dagokien mantenua, eta saria pagatzeko obligazioa dezue.

Amarrenak, eta primizia, ondo egin bear dituzue, eta onela egiten badituzue N.K., zuen obligazioaz kumplituaz gañera, sari edo premio andi bat seguru izango dezue: eta ala Aita San Agustin andiak dio: amarrenak fielkiro pagatzen dituenak seguratzen duela eriten duen guziaren abuztu ugaria, gorputzeko osasuna, pekatuen barkazioa, eta animarenzat grazia. Eta Santuak berak, bere larogeta emeretzigarren ser-

moian, kontatzen du: soldadu on batek urteoro amar gurdi mats eman oi ziozkan masti bat zuela, eta urte batean eguraldi gaiztoakgatik, gurdi bat mats baizik etzuela izan, eta ala ere bere morroiai esan ziela: nere Jaungoikoak aurten gurdi bat mats baizik eman ezpa-dit ere, dana osoro amarrenari eman egiozue, beste urtetan bezela, aurten ere gurdi bat amarrenari eman degiodan. Eta ala egin zuen, eta orra nun egun artan bertan bere anaia Apaiz edo Abade bat etorri zitzaion, eta esan zion: Zer egiten dezu, zere mastia bitu eragin bage? Eta erantzun zion, guzia bitu da, gurdi bat baizik izan ezta, eta osoro amarrentegira bidaldu det. Ezin dateke ori, esan zion bere anaiak, zerren andixe nator orain, eta neurk ikusi det, iñoiz ere baño betea-goia dagoala zure mastia. Joan ziran ara, eta alaxe ikusi zuen, dana matsez beterik, eta Jaungoikoa alabatu zuen milagro andi argatik, eta eskerrak eman zioz-katen. Eta orra nola Jaungoikoak agertu zuen, nola dakien sari ugariak ematen, biotz onarekin amarrenak egiten dakianari. Eta kontrara San Jeronimo Elizako Doktore andiak dio; gosea, pobreza, legorteak, arriak, ekaitz gaiztoak, eta aize txarrak, eritasunak, eta enfermedadeak etorri oi dirala, amarrenak ondo egin bagez. Baña ori guzia ezer ezta, gero itxoten dien kas-

tiaguaren aldean: bada erremediatzen eztiranak, eta egin dituen kalteen errestituzioa, al duela egiten eztuenak, ezin pekatuen barkaziorik iritsi lezake. Eta ala, emen arrastaka bizi, eta gero betiko zoriona edo Zeruko gloria galtzen due, eta eternidadeko tormentuak infernuan sufritu bearko ditue.

Jaungoikoak bada, arren digula guzioi, gere obligazioakin ondo kunplitzeko grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

**DOTRIÑAKO
LAUGARREN PARTEA
ERREZIBITU BEAR DIRAN
SAKRAMENTUAK ESPLIKATZEKO**

LENENGO DOTRIÑA

1. *Sakramentuen gañean jeneralean.*

2. *Graziaren gañean.*

Ikusi degu dotriñako iru parteetan, zer sinistu, zer eskatu, eta zer obratu bear degun. Orain ikusi bear degu, zer errezibitu bear degun.

G. Eta nola jakingo degu, zer errezibitu bear degun? **E.** Jakiñarekin, eta ezagutuarekin Elizako Sakramentuak, Sakramentu santuen bidez edo bitartez artu genduan, N.K. pekatuen barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia; 1. Bateo santuan, eta gero beste Sakramentuetan. Eta Jaungoikoaren grazia, eta ari darraizkan fede, esperanza, eta karidatea guztiz bearrak ditugu, gure Jaungoikoa bear bezela serbitzeko, eta gure betiko zoriona edo Zeruko gloria iristeko.

Baña, nola gure arrezkeroko pekatuak argaltzen diguen fedea, eta esperanza, eta iltzen diguen karidatea, eta kentzen diguen grazia, galduak giñateke erremedio bage, Jesu-Kristok Sakramentu santuetan utzi ezpaligu, gure animako eritasun guziak sendatzeko, osasuna, eta indarra emateko, birtuteak piztutze-

ko, eta exerzitzeko bear ditugun grazia, sokorru, laguntasun, eta erremedio errazak, eta eragilleak. Eta ortik kontu atera dezakezue, N.K. Sakramentu santuen dotriña ondo jakitea, zein gauza premiazkoa dan. Gaur esango dizuet bada, zenbat diran Sakramentuak eta zertako diran. Eta beste aldi batean, Sakramentuak ematen duen grazia zer dan, eta zenbat modutan dan.

G. Zenbat dira Elizako Sakramentuak? **E.** Eliza Ama Santaren Sakramentuak dira zazpi: eta 1. da Bateo santua: 2. Konfirmazioa: 3. Penitentzia: 4. Komunioa: 5. Extrema-unzioa: 6. Ordena: da 7. Matrimonia.

G. Nolako premia degu Sakramentuak errezibitzeko? **E.** Lenengo bost Sakramentuak au da, Bateoa, Konfirmazioa, Penitentzia, Komunioa, eta Estrema Unzioa, dirade guzionzat premiazkoak, edo guziok errezibitu bear ditugunak obraz al badegu, eta ezpada deseoz, eta gogoz: eta ezin salbatu diteke gizona, uzten baditu menosprezios: beste biak, au da, Ordena, eta Ezkonza, dirade borondatezkoak, au da, Eliza guziak aen bearra edo premia badu ere bere gobernerako, eta bere iraupenerako, ez dago premiarik, guziok Eliz-gizon izateko edo Ordenatuak izateko. Ez

eta guziok ezkonduak izateko ere. Eta argatik Ordena, eta Ezkonza dirade bakoitzarengat borondatezkoak.

G. Zergatik deitzen diegu Eliza Ama santaren Sakramentuak Benturaz Eliza Ama Santak egiñak edo ordenatuak dira? **E.** Jesu-Kristok berak egin, eta ordenatu zituan zazpi Sakramentuak. Eta deitzen zaie Eliza Ama Santarenak, zerren Jesu-Kristok bere Elizarengat, eta Elizako humeengat egin zituan. Eta baita Elizako humeak izatera etorri nai duen guziengat ere, au da, lenago Fedebage izan, eta Fedea, eta Bateo santua errezibitu nai duen guziengat.

G. Eta zertako Jesu-Kristok egin, eta ordenatu zituan Sakramentuak? **E.** 1. Pekatuak barkatzeko, eta bere grazia emateko. Eta 2. naturalezako ordenan, eta bizitza naturalean bezela, naturalezaz gañeko ordenan edo bizitza espiritualetan ere, gure animari bear dituan erremedio guziak emateko. Gudan arkitzen dira bizitza mota bi; bata naturala, eta begiz dakuskuna; bestea graziazko bizitza espirituala, gorputzeko begiak ikusten ez tana, baña fedearen argiarekin ikusten, eta ezagutzen deguna.

Bizitza naturalean, 1. jaiotzen gera. 2. Azitzen gera. 3. Gaixotzen bagera, erremedioen bear gera, eta Jaungoikoak eman dizkigu. 4. Bizia konserbatzeko, ali-

mentu bearra degu, eta guziori ematen digu. 5. Aizkeneko eritasuna, eta ill bearra datorkigunean, nork lagundu bear degu. 6. Pakean biziko bagera, nork agindu, eta nork gobernatu bear degu. 7. Mundua akabatuko ezpada, nork modu onean diatu edo poblatu bear da, iraun dezan. Bada begiz ikusten dezue, N.K. nola gure Jaungoikoaren probidenziak, bizitza naturalean ditugun premia guziaz, erremedioa eman dien. Ona bada, ori bera bizitza espiritualean ere, nola Jesu-Kristo gure Jaunak ordenatu, eta disponitu duan.

1. Bateo santuan jaiotza berri bat, graziazko bizitza espirituala edo naturalezaz gañekoa ematen digu. 2. Konfirmazioko Sakramentuarekin azitzen, gogortzen, eta indartzen gaitu. 3. Penitenziako Sakramentuarekin animako eritasunetik libratu, eta osasuna ematen digu. 5. Komunioko edo Aldareko Sakramentu guztiz Santuarekin animako alimentu espirituala, eta grazia andiagoa ematen digu. 5. Iltzeko zoria datorkigunean, berriz gure betiko salbazioa seguratzeko, Penitenziarekin, Biatiko santuarekin, eta aizkenik Extrema-unzio santuarekin sokorritzen gaitu; pekatuaren kutsuak, ondarrak edo erreliki gaizto guziaz kentzen dizkigu. Eta orrela jaiotzen geran instantetik, aizkeneko arnasa eman artean bear ditugun animako

erremedio guziak beti prestaturik daduzkagu. Eta orrezaz gañera, Ordenako Sakramentu santuarekin Elizako Ministroak eman dizkigu, gauza espiritualetan guziok gobernatzeko, eta Sakramentuak guziori emateko eskualdiarekin. Eta Ezkonzako edo Matrimonioko kontratoa Sakramentu izatera altxatuarekin, ezkonduai ematen die, bear duen grazia, eta laguntasuna pakean, eta amorioan bizitzeko; Matrimonioko karga edo nekeak jasotzeko, eta aurrak Zerurako azitzeko. Eta orra zertako Jesu-Kristo gure Jaunak ordenatu edo egin zituan zazpi Sakramentuak; eta nola agertu digun, zein maite gaituan, eta gure salbazioa zenbateraino deseatzan duan. Bada gure animako gaitz guzientzat, erremedio mota guziak utzi, eta paratu dizkigu Sakramentuetan, eta bear ditugun sukorru, laguntasun, eta grazia guziak ematen dizkigu. Eta berez ain eragilleak dira erremedio oek, nun dadukeen, Jesu-Kristok emanik berezko indarra, eta birtutea, ondo errezibitzen dituen guziaz grazia, eta animako osasuna emateko.

Eta ala, txit sarri, eta gogotik eman bear diozkagu eskerrak Jesu-Kristori mesede aundi, eta miragarri onegatik. Eta alegin guziak egin bear ditugu Sakramentu Santuen dotriña ondo aditzeko; eta batez ere,

Sakramentuak zer diran; zertako diran; eta nolako prestaera edo disposizioarekin errezibitu bear ditugun ondo ezagutzeko.

G. Zer gauza dira bada Sakramentuak? **E.** Dira señaile agiri diran batzuek, Kristo guro Jaunak emanak edo ordenatuak, oben bidez emateko guri grazia, eta birtuteak.

G. Zergatik deitzen dira agiri diran señaileak? **E.** Zergatik kanpotik ikusten diran, eta barrundik ikusten eztan beste gauza bat, aditzera ematen, eta egiten duen.

G. Zer da bada Sakramentuetan ikusten, eta agiri dana? **E.** Aek egiteko aplikatzen dan gaia edo materia, eta esaten diran hitzak, edo forma. Eta ala, Bateo santuan ikusten dezue, nola ur naturala edo Bateorako gai dana, aurrari egozten edo botatzen zaion, eta orduan bertan esaten diran hitzak Bateoa egiteko, eta dira: nik Bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, Amen. Orra kanpotik agiri diran señaileak; bada oriek aditzera ematen due, eta eragiten due, ikusten eztan beste gauza bat.

G. Eta zer da, aditzera ematen, eta barruan egiten duen; baña ikusten eztan gauza ori? **E.** Aen bidez Jaungoikoak orduan ematen duen grazia: bada grazia

ori ikusten eztan gauza da, eta ala, Bateo santuan kanpotik gorputza urarekin garbitzen danean, eta bateatzeko bear diran hitzak esaten diranean, kanpoko garbiera ark aditzera ematen du, eta eragiten du barruko, au da, animako garbiera: bada orduan ematen dio Jaungoikoak Bateoarekin grazia, eta garbitzen du anima pekatu orijinal edo jatorrizkotik.

G. Eta nundik due Sakramentuak grazia emateko birtutea edo indarra? **E.** Jesu-Kristo gure Jaunak berak ala disponitu edo ordenatu nai izan zualako: eta bere pasio eta eriotza santuaren frutua, au da, berak guretzat irabazi zuan grazia, Sakramentu Santuetan depositaturik utzi zigulako, eta aen bidez aplikatzen edo komunikatzen digulako. Eta ala, Jesu-Kristo bera da, Sakramentuetan edo Sakramentuen bidez bere grazia ematen diguna, eta Sakramentuak dira, Jesu-Kristok esleitu, eta ordenatu zituan instrumentu batzuek bezela; kanale batzuek bezela edo ontzi Sagradu batzuek bezela, dadukeenak beregan Jesu-Kristoren odolaren frutua edo grazia, eta gure animetara isurtzen edo komunikatzen duenak. Eta argatik Sakramentuak dira señale eragilleak edo aditzera ematen duena bera, obratzen duenak. Iru gauzaren señaleak dira Sakramentuak. 1. Jesu-Kristoren pasio, eta erio-

tza santuarenak, bada argandik due eren indar, eta birtute guzia. 2. Bertatik ematen duen graziarenak. Eta 3. orrekin irabazi eragiten diguen betiko gloriarenak.

G. Eta ori ala dala nundik dakigu? **E.** Jesu-Kristok berak ala Apostoluai erakutsi zien; eta Eliza Ama Santak beti arrezkero fedeko egia bezela erakutsi digu, eta ala sinistu bear degu. Egia da, nai izan balu Jaungoikoak eman zegikegun bere grazia, Sakramentuak egin bage; baña dio San Juan Krisostomok, nola gure anima gorputzarekin uniturik dagoan, eta sentiduen bidez errazago gauzak ezagutzen ditugun, argatik nai izan digula eman bere grazia, eta birtuteak, agiri diran señaileen bitartez. Eta ori guzia erakusten digu gure dotriñako liburutxoak, esanaz, Sakramentuak dirala, agiri diran señaile batzuek, Kristo gure Jaunak emanak edo ordenatuak, oekin emateko guri bere grazia, eta birtuteak.

2. **G.** Eta zer gauza da grazia? **E.** Da izate dibino edo Jaungoikozko bat, egiten duena gizona Jaungoikoaren Seme, Eta Zeruko heredero, jabe edo partedun. Eta ori da doai bat, mesede bat, eta ondasun bat ain andia, eta miragarria, nun munduko ondasun guziak ezerez bezela diran orren aldean: bada graziak iraba-

zi eragiten digu kaburik izango eztuan betiko gloria, eta iñoiz bukatuko eztiran honrak, ondasunak, eta atsegintasunak; eta kontrara, munduko honra guziak, aberastasun guziak, eta atsegin guziak, aen aldean guztiz laburrak, ezerezak, iraupen bagekoak, eta laster bukatu bearrak dira. Baña gure dotriñako liburuak emen aitatzen duen ezkerero Jaungoikoaren grazia; eta grazia modu asko diran ezkerero, esan dezagun.

G. Zenbat modutan da grazia? **E.** Modu bitan. Bata da orain esan deguna, eta deitzen zaio santu edo justu egiten gaituan grazia. Au da, pekatutik libratzen edo ateratzen gaituana, eta justuak, santuak, Jaungoikoaren adiskideak, bere semeak edo alaba maiteak, eta Zeruko herederoak egiten gaituana; eta grazia ori daukagun artean, egiten ditugun obra on guziakin irabazten edo merezitzen degu, orain grazia orren aumentua, eta gero, orri dagokan, eta Zeruan gozatu-ko degun betiko sariaren gradu edo malla andiago bat; bana graziazko estaduan ezpagaude, ezin Zerurako irabazirik egin dezakegu.

G. Eta zergatik deitzen zaio grazia habituala edo oituorra? **E.** Zergatik gugan mantentzen, eta konserbatzen dan ezer egiten ari ez geranean ere. Eta ala, arkitzen da aur bataiatu guzietan, uso arrazoizkora

allegatu baño lenago ere, eta baita justu guzietan lo daudenean ere.

G. Eta noiz galtzen du Kristauak grazia ori? **E.** Edozein pekatu mortal egiten duanean. Eta argatik, pekatu mortala da, munduan izan ditekean gaitzik andiena, kaltegarriena, eta izugarriena.

G. Eta noiz berriz iristen edo alkanzatzan du Kristau pekatariak grazia estimagarri ori? **E.** Penitenziako Sakramentua bear duan prestaera edo disposizioarekin errezibitzen duanean, edo ura errezibitzeko asmoarekin batera kontriziozko akto egiazkoa egiten duanean.

G. Eta nola eldu oi da pekataria grazi andi ori iristera? **E.** Ona Eliza Ama Santak zer erakusten digun Trentoko Konzilio jeneralean, Bateoarekin justifikatzen dan persona larriaz hitz egiten duala: 1. Jaungoikoak argitzen dio adimentua. 2. Bildurtu eragiten du bere juizio ikaragarriakin. 3. Artu eragiten dio esperanza, Jaungoikoaren miserikordiagan, Jesu-Kristoren merezimentuakgatik, 4. Jaungoikoaren amorioaren asiera bat sortu edo artu eragiten dio justizia edo santidade guziaren iturria bezela. 5. Pekatuaren iguia edo gorrotoa sortzen dio bere biotzean. Eta 6. Bateoko Sakramentua errezibitzeko, eta pekatuen barkazioa

iristeko deseo, gogo edo asmo egiazkoa artu eragiten dio; baita propositu firmea ere, bizitza berri bat egiteko, eta Jaungoikoaren eta Elizako mandamentuak kontuz gordetzeko. Eta orrela prestaturik dagoala, Bateoko Sakramentuak ematen dio grazia edo justu egiten du. Eta nola Penitenziako Sakramentuak prestaera gutxiago eskatzen ez tuan Bateoak baño, esan bear da, era orretan bertan etorri bear duala justifikatzera pekatu mortala egin duen pekataria.

G. Eta grazia ori azitzen edo geitzen da gugan? **E.** Bai: ori lenengo errezibitzen da Bateo santuan, eta bein galdu ezker, Penitenziako Sakramentu Santuan; eta orregatik deitzen dira Bateoa, eta Penitentzia illen edo illik daudenen Sakramentuak, eta oriek ematen duen graziari deitzen zaio lenengo grazia. Eta beste Sakramentuak azitzen edo amentatzen due grazia ori, eta beste Sakramentuak azitzen duen grazia orri, deitzen zaio bigarren grazia; eta ori ematen duen beste bost Sakramentuak deitzen dira bizien Sakramentuak.

Baña ori regularrean izan oi bada ere; noiz edo noiz Bateoak, eta Penitenziak ematen due bigarren grazia edo graziaren amentua, lenago kontrizio egiazkoarekin, eta karidade egiazkoarekin justifikatu-

rik zeudenai. Eta kontrara, bizen Sakramentuak noiz edo noiz ematen due lenbiziko grazia. Eta ori gertatzen da, kontrizio egiazkoa dualako uste osoan, baña atrizioa baizik izatera eldu ez, eta fede onarekin errezibitzen diranean. Baña badakizue, komulgatzeko lenago konfesatu bear dala, pekatu mortalik badu; eta ala ere, bere pekatua ezagutu bage, edo pekatuaz kulpa bage azturik dagoala, uste onean, eta pekatu guzien kontrizioa dadukalako sinistean komulgatuko baliz, komunioak lenengo grazia emango lioke.

G. Zerekin geiago azitzen edo geitzen da grazia, justu egiten duana, eta orri dagokan gloria? **E.** Obra onak bear bezela egiñarekin; eta batez ere orazioarekin Jaungoikoaren amoriozko aktoakin, eta miserikordiazko obrak egiñarekin.

G. Eta justu egiten gaituan graziez gañera, ematen digue Sakramentuak beste graziarik? **E.** Bai: eta da Sakramentu bakoitzaren frutua iristeko berariazko laguntasun edo sokorru espezial bat; Sakramentu bakoitzaren esplikazioan esango deguna.

G. Eta zer beste gauzarik ematen due Sakramentuak? **E.** Bateo santuak, Konfirmazioak, eta Ordenako Sakramentuak oriek errezibitzen dituen animetan ezartzen edo inprimitzen due señale espiritual bat,

karatera deitzen zaiona, iñoiz ere desegingo eztana edo berratu, eta kenduko eztana animatik, ez orain, ez Zeruan, ez eta Infernua ere, eta Zerura dihoazenezat honragarria izango dana, eta Infernura dihoazenezat deshona andia izango dana. Eta ala, señaile au betirako ematen dalako, eta iñoiz kentzen ez talako, ori ematen duen iru Sakramentuak bein bestetan ezin errezibitu ditezke; baña bai beste lau Sakramentuak au da, Penitenziakoa, Komuniakoa, Extrema-unziakoa, eta Matrimoniakoa.

G. Eta zer birtute ematen ditue Sakramentuak graziarekin batean? **E.** Batez ere iru teologalak edo Jaungoikoarekikoak. Zein dira? Fedea, Esperanza, eta Kariaddea: Sakramentu Santuak ematen duen grazia, justu egiten gaituanaz gañera, bada beste grazia motarik? Bai: eta deitzen zaio grazia aktuala edo egikoa, eta da, Jaungoikoak Jesu-Kristogatik ematen digun barruko sokorru edo laguntasun bat, nola goargi, pensamentu on edo inspirazio santu bat, pekatutik irteteko; tentazioak garaitzeko edo benzitzeko, eta obra onak egiteko mugitzen gaituana; eta artarako gure adimentua argitzen, eta gure biotza ikuitzen, eta esnatzen duana.

G. Eta grazia aktual edo egikoi orrek berez berea-
la justifikatzen gaitu? **E.** Ez: bakarrik disponitzen, eta
mugitzen gaitu pekatutik irtetera, eta beste grazia,
justu egiten duena, iristeko alegiñak egitera, eta lena-
go justuak bagera, justuago, eta santuago izatera, eta
graziazko estaduan irauteko alegiñak egitera.

G. Zergatik deitzen zaio grazia aktuala edo egi-
koia? **E.** Zergatik dan gutxi diraben, eta laster igaro-
tzen dan barruneko argitasun, eta esnai aldi bat; ema-
ten diguna Jaungoikoak guk merezi bage bere ontasu-
nagatik, eta Jesu-Kristoren merezimentuakgatik; eta
ala, askotan, nola eztakizula, sentitzen dezu zere
barruan, ondu nai bat, pekatuari largatzeko gogo bat,
joku erabageak edo tabernako egoerak erakarten
dizun animako kaltearen ezaguera argi bat; eta oka-
sio, eta arrisku orietatik, eta beste zenbaitetik alde
egiteko deseo bat, dotriña santua, sermoia edo Jain-
goikoaren hitza enzuteko pensamentu on bat, edo
zure etsaiarekin pakeak egiteko, eta injuriak barkatze-
ko, eta konfesio on bat egiteko gogo bizi bat; Jai egu-
netan Meza nagusietara etortzeko deseo bat; Jai
andietan konfesatzeko, eta komulgatzeko asmo bat:
Jai egunetan bearrari largatzeko pensamentu bat, eta
beste onelako inspirazio asko. Orra bada zer dan gra-

zia aktuala edo egikoia, eta orren premia guztizkoa degu gure salbaziorako. Bada gure alegin, eta indar utsakin ezin gauza onik asi, ondo egin, eta bukatu dezakegu Jaungoikoaren grazia ori bage.

G. Eta nola iritsiko degu grazia ori? **E.** Jaungoikoari berari Jesu-Kristoren izenean eskatuaz edo orazio egiñaz, eta Sakramentuak errezibituz. Eta oraziorik egin dezakegu grazia ori bage? Ez: baña Jaungoikoak berak bere graziarekin aurrea arturik, prebenitzen gaitu, esnatzen gaitu, eta mugitzen gaitu orazio egite-ra edo berari erregutzera; eta gero Jesu-Kristoren izenean egiten degun gure eskaera, erregu edo orazioarekin, beregandik grazia berriak iristen edo alkanizatzen ditugu.

G. Eta Jaungoikoak ondo eskatu ezker, beti ematen digu bear adiña grazia, eta laguntasun bere Mandamentu Santuak gordetzeko, eta tentazio gaiztoak benzitzeko? **E.** Bai; bada bestela Mandamentuak ezin ondo gordeko ginduzke. Eta ala, pekatu egiten degun guzian, gure faltaz egiten degu; bada egon gaitezke pekaturik egin bage, gure partetik ondo eranzun nai badiogu Jaungoikoaren graziari, au da; bere inspirazio santuari jarraio, bere laguntasuna eskatu, eta ematen

digun graziarekin gure partetik alegiña egin nai bade-
gu.

G. Eta barruneko grazia aktual edo egoikoiaz edo inspirazio santu oriezaz gañera, beste graziarik Jaungoikoak ematen eztigu? **E.** Bai; kanpotik ere beste bide edo medioak gure salbaziorako ematen dizkigu; nola diren sermoi edo dotriñak; ikusi edo jakin ditugun milagro ziertoak: eziera onak; gurasoen exenplo, eta konseju onak; Konfesoreen abisu espiritualak; liburu onak; ikusten ditugun, eta gerori datozkigun naigabeak, eta eritasunak; supitoko askoren eriotzak; eta egunoro ikusten ditugun beste onelako gauza asko, eta gu esnatzeko, eta zenzatzeko guztiz egokiak diranak.

G. Eta kanpoko bide edo medio oriek bakarrik asko ote dira gu ondutzeko, eta salbaziorako bear ditugun gauzak eragiteko? **E.** Ez: eztira asko barrungo grazia bage. Baña nola Jaungoikoak nai duan guziok salbatzea, kanpoko bide edo medio oriekin batera eman oi digu barrungo grazia edo inspirazio santua, guzionzat asko dana, arzaz ondo baliatzen bagera; eta batzuo ain indarsua, eta eragillea eman oi digu Jaungoikoak, nun indarrik egin bage gure gogoa aldatu, eta zierto

bereganatzen gaituan, San Pablogan ikusi izan zan bezela.

Eta orain gogora ekarzue, zenbat zor diogun Jaungoikoaren ontasunari, miseriardiari, eta poderio neurribagekoari; bada ainbeste bide, eta medio, eta grazia ugariak, eta eragilleak ematen dizkigu bere Sakramentuetan gure salbaziorako; badaki alabaña gure itxumena, gure argaltasuna, eta gaitzerako degun griña gaiztoa. Eta nola arri bat beera etorri bai, baña goora ezin igo ditekean besteren eskuak, eta indarrak jasotzen ezpadute, ala guk ere, ez degula gerenez bakarrik, Zeruko gauzatarra gogoa, eta biotza altxatzeko eta pekatutik libratzeko, eta birtuteari jarraitzeko indarrak batere, berak argitzen, ikuitzen, mugitzen, eta laguntzen ezpadigu; baña bere graziarekin, eta gure aleginarekin batera guzia dagikegu N.K.

Zenbateraño humillatu bear ez gera bada, N.K. gure ezereza, eta miseria andia ezagaturik? Baña nolako eskerrak eman bear eztiozkagu egunoro Jaungoikoari sokorru, laguntasun, eta mesede ain andiak-gatik? Eta, nolako alegiñak egin bear eztitugu, berari atsegin ematen diogula, humiltasun, eta konfianza oso batekin, Jesu-Kristoren izenean ain bearra degun bere graziaren indarra, eta laguntasuna bertatik, eta

gogotik eskatzeko, eta arekin batera penitentzia egiteko; gure buruak pekatuaren, eta deabruaren mendetik libratzeko; eta bizimodu berri bat, eta orrela gure salbazioa seguratzeko? Bada bestela, ardurabageak, arroak, eta esker gaiztokoak bagera, geroago, eta nekezago eranzungo diogu Jaungoikoaren graziari, eta dei amoriotsoari: geroago, eta geiago laburtuko dizkigu Jaungoikoak bere sokorruak, bere argaltasunak, eta laguntasunak; eta pekatuan itxutu, eta gogortuko gera; eta betiko kondenatuko gera: bañan bertatik egiaz ondu nai badegu, eta orazio, eta konsiderazioarekin, eta Sakramentu Santuakin Jaunaren bildur, eta amorio santuan aurreratzeko alegiñak egin nai baditugu, grazia berriak, ugariak, eta eragilleak Jaungoikoak emango dizkigu, eta erraz ezeze, gustoz gordeko ditugu aren Mandamentuak, eta iritsiko degu betiko gloria. Amen.

BIGARREN DOTRIÑA

Bateo Santuaren gañean.

Aditzera eman nizuen aurreko dotriña aldian, Sakramentu Santuak zenbat diran, zertako Jesu-Kristo gure Jaunak egin zituan: zer gauza diran, eta nolako efektoak kausatzea edo egiten dituen; baita zer dan, eta zenbat modutan dan Jaungoikoaren grazia. Orain Sakramentu bakoitzaren dotriña banaka esan bear dizuet; eta gaur Bateo santua, Elizako sarrera, eta beste Sakramentuak errezibitzeko deretxoa ematen diguna, zertako dan; nola egiten dan; eta nolako ondasunak ematen dizkigun; eta nolako obligazioak ifinten dizkigun: kontuz enzun bear dezue, bada da inportanzia andiko dotriña.

G. Bateoko Sakramentua nork egin edo ordenatu zuan? **E.** Jesu-Kristo gure Jaunak berak. Zertako egin zuan? Pekatu orijinala edo jatorrizkoa kentzeko, eta baita beste edozein pekatu, bateatu bear danagan arkitzen bada.

G. Pekatu orijinala edo jatorrizkoa zer da? **E.** Jaiotzen geranean guziok dadukaguna, edo Adan, eta Eba

gure lenengo gurasoetatik guziok dakarguna, eta orren esplikazioa emanik dadukagu beste dotriña batean.

G. Bateoak zer esan nai du, eta nola egiten da? **E.** Esan nai du garbitzea, eta ala, ur naturalarekin garbitzen du bateatzalleak, bateatu bear dana, eta ura egozten dion bitartean esaten ditu Bateoko hitz oek Bateo egiazko egiteko intenzioarekin: nik bateatzen zaitut zu Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

G. Eta hitz oriek esan bage, ura bakarrik egotziko balio aurrari, balioko ote luke Bateoak? **E.** Ez luke balioko, eta orobat, urik egotzi bage, hitzak bakarrik esango balitu, ez luke Bateorik egingo: hitzak esatea, eta ura botatzea edo egozte dirade premiazkoak, eta batetan guzia egin bear da, au da, hitzak esaten diran bitartean, ura egotzi bear zaio bateatzen danari, eta ori guzia, batek bakarrik egin bear du; eta ala, persona biren artean, batak ura egotzi, eta besteak hitzak esango balitu, ez luke Bateorik egingo.

G. Eta bateatzeko eskualdia nork daduka? **E.** Premiarik edo estudasunik eztanean, Elizako Arzaiak edo Parrokoak, eta aren lizenziarekin edozein Sazerdotek bateatu lezake aurra, eta ezin eskualdi ori iñork kendu

leikio. Baña Bateoak ala ere balioko luke, len esan dedan bezela, edozeñek bateatu ezkerro.

G. Eta premiazko orduan, au da, aurra Elizan bateatu bage edo bateatzeko leku bage illko dalako bildurra dagoanean, nork bateatu lezake aurra? **E.** Bateatzen dakian edozeñek, naiz gizona, naiz emakumea izan, naiz Kristaua, naiz Judua, naiz Herejea, naiz Turkoa izan; Jesu-Kristok ordenatu zuan, eta Eliza Santak usatzen duan Bateo egiteko edo emateko intenzioarekin ematea asko da, egiaz bateaturik gelditze-ko: eta bateatzen dakianik arkitzen ezpada, aurraren aita, eta ama baizik, oriek ere, bat premia orduan bateatu lezake, eta bateatu bear due aurra, eta penarik, eta kastigurik batere etzaie orregatik emango, bada orduan eren obligazioarekin kunplitzen due. Baña nork ondo bateatu badago besterik, eskusatu bear due gurasoak Bateoa erak egitetik, bada orduan, au da, premia estu bage edo premia estuan besterik bateatzen dakianik dagoala, bateatuko balue gurasoak eren aurra, bateaturik geldituko litzateke; baña alkarrekiko aidetasun espiritualala artuko lukea, eta dispensa bearra izango luke, ezkonzaz aurrera usatzeko.

G. Eta premiazko orduan egindako Bateoak balio badu ere, bateatzeko gai diranen artean, lan ori

guziak berdin egiteko eskualdia ote due? **E.** Ez: lenen-
go dira Sazerdoteak, eta orien ondoren Eliz-gizonak,
eren graduaz konforme, eta orien ondoren gizonak,
eta gero emakumeak, eta lenago Kristau diranak, ez
diranak baño: baña ain premia estua bada, nun
modestiak, edo lotsak uzten ez duan gizonak aurra
bateatzea, orduan emagiñak edo bateatzen dakian
beste edozein emakumek bateatu lezake.

G. Eta orrelako estualdia gertatzen danean, nun
egotzi bear zaio ura aurrari, Bateoko hitzak esaten
diran bitartean? **E.** Buruan al bada; eta orduan zierto
bizirik badago, kondiziorik batere ifini bage, baizik
burutik bera ura egotzi esanaz; nik bateatzen zaitut
Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren ize-
nean. Amen. Burua kanpora atera bage, amaren sabe-
lean aurra illko dalako bildurrik badago, eta besorik,
oñik edo eskurik kanpora aterako balu, edo barruan
egon arren, urarekin ikuitu al baleikio, ikusten edo
agertzen duan tokian ura egotzi bear zaio, eta batea-
tu bear da, esanaz kondizioaren azpian, gai edo kapaz
bazera, nik bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta ori bera
egin bear, da, aurra bizirik dagoan edo ez, dudatzen
danean; eta gero amaren sabeletik burua kanpora

ateratzen bada, edo bizirik jaiotzen bada, berriz obeto aseguratzeko, bateatu bear da, buruaren gañean ura egozten zaiola, hitzak esanaz modu onetan; «bateaturik ezpazaude; nik bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen». Eta Parrokoari edo Erretore Jaunari eman bear zaio guziaren kontua, ondo kargu egiñik, berriz bateatu bear dan edo ez juizio egiteko.

Eta orobat, aurdun dagoan emakumeren batek, aurra galdu edo botatzen badu, edo aurdun dagoala illtzen bada, bere-bereala alegin guziak egin bear dira aurra sokorritzeko, eta bateatzeko, eta lekurik badago, Abade edo Erretore Jaunari, eta Barberoari bereala otsegin bear zaie; eta naiz aurdun berria, naiz zarra izan, iregi bear da ill ezkeroren gorputza, eta atera bear zaio aurra, eta au bizirik badago, bateatu bear da kondizio bage: eta bizirik edo illik dagoan dudatzen bada, Bateatu bear da kondizioarekin, esanaz: kapaz bazera edo bizi bazera, nik bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta ori esatearekin batera ura egotzi bear zaio.

G. Eta orrelako premia orduetan nolako urarekin bateatu bear da aurra? **E.** Edozein ur naturalaz, dala iturriko, dala erreka-koa edo putzuko-koa, dala ibaiko-koa

edo itxasokoa, dala ituzurekoa ur naturala izatea asko da, eta ezta bear bedeinkatua izatea; baña ur naturala eztanarekin, nola dan arrosazkoa edo maratsak ematen duena edo ardoarekin bateatuko balu, ez luke Sakramenturik edo Bateorik egingo.

G. Eta zergatik Jesu-Kristok autu zuan ur naturala bateatzeko? **E.** 1. Zergatik, nola urak garbitzeko serbitzen duan, aditzera eman nai zuan, Bateoko Sakramentuak garbitzen dituala gure animak pekatutik, urak gorputzak garbitzen dituan bezela. 2. nola Bateoa guziontzat ain bearra dan, pekatuaren barkazioa, eta Jaunaren grazia iristeko edo alkanzatzeko, nun-nai erremedioa erraz arki zedin; eta orregatik nai izan zuan premia orduan edozeñek bateatzeko eskualdia edukitzea ere.

G. Orrela, Bateoa guztiz bearra da, eta Bateo bage ezin iñor salbatu liteke? **E.** Ala da egia: bada Jesu-Kristo gure Jaunak berak esan zuan; urarekin eta Espiritu Santuarekin jaiotza edo bizitza berria arzen eztuanak, sartuko etzala Zeruetako Erreinuan. *Nisi quis renatus fuerit ez aqua, et Spiritu Sancto, non intrabit in regnum Coelorum.*

G. Eta bada Bateoaren ordekorik, urezko Bateoa bera ezin errezibitu ditekeanean? **E.** Bai. Aurrak bateo

orde due martirioa, au da, Jesu-Kristogatik illerazotzen baditue, aur inozenteak bezela, eren odolezko martirio edo Bateoarekin salbatzen dira. Eta persona larriak, Kristau egin nai diranak, baña nork bateatu eztuenak, orobat martirioarekin, eta baita kontrizioarekin, eta Bateoaren deseoarekin salbatzen dira.

G. Eta premiarik edo estudasunik eztan aldietan, luzatu diteke aurrak bateatu bage edukitzea? **E.** Ezta luzatu bear; eta ala aitzakia alperrakin eztitue eduki bear aurrak luzaro bateatu bage: bada bestela, alde batetik daduzkate bitartean Sakramentuaren grazia bage, eta onek dakazkien ondasun espiritual andia bage, eta bestetik, bateatu bage iltzeko, aurrak dituan arriskuak asko izan oi dira; eta alakorik gertatuko bali-tzaie, orra betiko zoriona edo gloria galdu eragingo likeoen.

G. Bateoko Sakramentuak ematen dituan ondasunak nolakoak dira? **E.** Ain andiak, eta estimagarriak dira, nun ezin bear bezela aditzera eman litezke. Badakizue gure lenengo gurasoak Adanek eta Ebak egin zuen pekatuarekin erenzat, eta guretzat galdu zuela; 1. Jaungoikoaren grazia eta Zeruko deretxa. 2. Galdu zuela justizia orijinala, eren pasio, griña edo apetitoak arrazoiaren mendean beti edukitzeko inda-

rra ematen ziena. Eta 3. Jaunaren adiskidetasuna galdu, eta aren aserrearan erori zirala: eta 4. Deabruaren menpeko edo katibu billau egiñik erak gelditu zirala, eta guziok orobat jaiotzen gerala, eta guziok kondenatu bearra ekarri ziguela, aetatik datorkigun jatorrizko pekatuagatik, eta orri deitzen diogu pekatu orijinala; eta ori izan ezpaliz, eritasunik, eriotzarik, eta beste nekerik izango ez genduan, baizik ondo bizi, eta ill bage, mundutik Zerura igaroko giñan. Bada gaitz, eta kalte izugarri oriek guziak Jesu-Kristo gure Jaunak erremediatu ditu bere bizitza, pasio, eta eriotza santuarekin.

Berak gure pekatuen zorrak bere gañ artu nai izan zituan, eta aen pagua, Kurutze santuan Jaungoikoaren justiziarik gure ordezt eman zion; eta bere pasio, eta eriotza santuaren frutua, au da, gure pekatuen barkazioa, eta bere grazia Sakramentu santuetan aplikatzen digu: eta lenengo, Bateo santuan mesede guztiz andi ori egiten digu; bada ozta Bateo santua errezibitzen degu; 1. pekatu orijinala edo jatorrizkoa barkatzen digu, eta baita beste edozein pekatu bateatzen danagan arkitzen bada, nola gerta oi dan persona larriak Kristau egiten diranean; eta ez bakarrik barkatzen ditu pekatu guziak, eta aei zegozkien Infernuko

betiko penak, baita pena tenporal guzia ere edo mundu onetan edo Purgatorioan pagatu bear zituenak; eta ala bateatu, eta pekatuak egin bage ilzen dana, bereala dijoa Zeruko gloriara. Nork esan dezake fabore edo mesede onen anditasuna? Bada ori baño andiagoa da orain adituko dezuena; eta ala, 2. Bateo santuak ez bakarrik pekatutik, eta deabruaren katiberialotik, eta Jaungoikoaren aserretik edo etsaitasunetik libratzen gaitu, baizik Jaungoikoaren adiskideak egiten gaitu, bada ematen digu Jaungoikoaren grazia, eta onek jasotzen gaitu aña estadu altu, eta honragarrira, nun Jaungoikoak egiten gaitu, *Divinae consortes naturae*. Aita Zerukoak artzen gaitu bere seme edo alabatzat; Jesu-Kristo gure Jaunak egiten gaitu bere senide, bere zati edo mienbroak, eta bere Elizako humeak; eta Espiritu Santuak egiten gaitu bere bizileku edo jarleku guztiz ederrak, eta gelditzen gera egiñik Elizako ondasun espiritual guzietan partedun, eta Zeruko gloriaren herederoak, eta arako deretxoaren jabeak.

Eta orrez gañera, Bateo Santuak ematen digu edo gure animan ezarten edo inprimitzen digu señaile honragarri bat, karaktera deitzen zaiona, Kristautzat markaturik, eta señaleturik uzten gaituana, eta iñoiz ere desegingo, eta borratuko eztana, eta Kristau eztiran

guziakgandik beti distingituko gaituana, honra geiagorako, ondo bizi bagera, eta lotsa geiagorako, Kristau onak bezela bizi ezpagera.

Orra nolako ondasunak dakazkigun Bateo santuak; eta orra zein honra, eta dignidade miragarria dan Kristau izatea. Munduko Erregetasun, aberastasun, eta honra guziak baño guttiz estimagarriagoa, eta ala estimatu oi zuan Franziako Errege andi San Luis glorioso famatuak, eta Errege izatea baño, Kristau izatea geiago estimatzen zuelako señalean firmatzen zuan Luis de Poisi, Kristau egin zan edo bateatua izateko zoriona izan zuan erriaren izena, bere izenari egozten ziola, beti gogoan edukitzeko, Jaungoikoaren Majestadeak egin zion mesede, eta honra parebagea. Kristau egin zuanean edo Bateo santuko grazia eman zionean, eta ala, esker onekin Jaungoikoari eranzuteko, eta Kristau ona bezela, eta Jaunaren sierbo egiazkoa bezela beti bizitzeko.

G. Eta Bateo santuak jatorrizko pekatua kentzen digun ezkerro, zergatik, pekatu orren ondarrak, au da, eritasunak, eta ilbearra, eta gaitzerako, eta pekatuak ditugun griña, inklinazio edo pasio erabageak kentzen eztigu? **E.** 1. Zergatik ori guzia berez pekatu edo kulpa eztan; eta 2. zergatik ain bearra degun humilta-

suna, eta pazientzia, eta beste birtuteak ejerzitzeko gauza oriek asko serbitzen diguen. Eta Bateoan Jaungoikoak ematen digun graziarekin, eta gure alegiñarekin gure pasioak edo griña gaiztoak eziaz edo menderatuaz, eta gure biziaren sakrifizioa Jaungoikoari egin ten diogula meritu edo irabazi guztiz andiak, eta orioi dagozkien gloriatzko betiko ondasunak irabazi ditzakegu; eta orrela zorioneko betiko bizitza, ez bakarrik gure animarentzat, baita gorputzarentzat seguratu dezakegu.

Baña orretarako, N.K. Bateo santuan pekatutik libratu giñan ezker, deabruaren katiberiotik atera giñan ezker, bizitza berri bat ain miragarria, eta honragarria artu genduan ezker, eta Jesu-Kristoz beraz janzi giñan ezker; alegin guziak egin bear ditugu mesede guztiz andi oriek beti gogoan edukitzeko; Jaungoikoari egunoro eskerrak emateko; eta Jesu-Kristori gogotik jarraitzeko, bada Deabruaren, munduaren, eta aragiaren partidua larga genduan, eta solemnidade guziarekin errenunziatu genduan Bateo santuan, eta promesa edo obligazio andia eta agiria egin genduan Deabruaren obra gaiztoak edo pekatuak, munduaren ponpa, eta banidadeak, eta aragiaren gurari, eta lan zikiñak igui izateko, eta Jesu-Kristoren

espirituz batera aurrera bizitzeko, aren fede santuaz batera gure bizimodua moldatzeko edo zuzentzeko, eta Jaungoikoaren legeko Mandamentuak kontuz gordetzeko; eta ori egiten ezpadegu, Kristauaren izena eduki arren, ez gera egiazko Kristauak izango, baizik Deabruaren, munduaren, eta aragiaren zorigaiztoko jarraitzalleak, eta aren menpeko edo katibu billau lotsabageak. A! Zenbat onelako Kristau itxu, esker gaiztokoak eta infameak munduan arkitzen diran! Eren obligazio andiak ondo ikasi, ezagutu, eta gogora ere ekarri nai eztituenak; Jaungoikoari emanik, dauzkaten hitzak, ete egiñik dauzkaten promesa edo obligazio solemne, eta publikoak ardurabage ausitzen dituenak; Jesu-Kristori jarraitzeaz lotsatzen diranak, eta Deabruaren, munduaren, eta aragiaren partiduari gogotik darraienak !

Zer, beste gauzarik egiten due, soberbiari edo andinairi, arrotasunari, eta banidadeari, abariziarri edo gutziarri, lujuriari edo aragiaren loikeriarri, aserretasunari, enbidiari, eta gorrotoari, erabageko jan, edan, jostatze zikin, lotsabageko danza, buru aringarri, eta beztzopa diranai, eta joku luze kaltegarri, askoren ondagarri diranai, darraien Kristau itxuak, Kristauaren izenik merezi ezituenak?

Zer, besterik egiten due, Jentillak baño ardura gutxiagorekin blasfemiak, birauak, gezurrezko juramentuak, murmurazio, eta txisme larriak egiten dituen Kristauak? Eta eren sabelak kontentatzeko ardurabage jan, eta edan, eta eren buruak moteltzen, eta galtzen dituen lotsabageko Kristauak? Bada desengañatu gaitezen arren N.K.; Jesu-Kristoren ejemploari, eta dotriña santuari jarraio bage eztago guretzat betiko bizitzarik, eztago betiko gloriarik; baizik betiko negarra, betiko tormentua, eta betiko desesperazioa Infernuan.

Zerurako egiñak geran ezkerro, eta arako bidea Jesu-Kristok bakarrik erakutsi zigun ezkerro, nai ta ez jarraio bear diogu; egiatzko humiltasuna, pazientzia, alkarrekiko karidadea, eta animako, eta gorputzeko garbitasuna dira batez ere Jesu-Kristok erakutsi, eta ejerzitate zituan, eta agindu zizkigun birtuteak; eztira bakarrik konsejuzkoak, baizik dira obligazio estu, eta premiazkoak; eta ala, alegin guziak egin bear ditugu birtute oriek iristeko, eta ejerzitatezko, eta orien kontra diran bizio gaiztoak garaitzeko edo menderatzeko; eta orretarako, gerenez ain itxuak, ain argalak, eta gaitzera ain makurtuak edo etziñak bagera ere, ez gera desalaitu edo desanimatu bear; baizik, 1. Fedek

erakusten dizkigun egiak ondo ikasi, eta gogoan erabilili bear ditugu, eta batez ere gure Jaungoikoaren ontasuna, eta agertu digun guganako amorioa, bere antzera, eta beraz beti gozatzeko egiñaz; Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santua, eta gu pekatutik libratzeko eraman zituan neke arrigarriak, eta nai ta ez datorkigun eternidadea, edo zorionekoa Zeruan edo zorigaiztokoa Infernuan su, eta gar ikaragarrietan, penitencia benetan egiten ezpadegu: eta 2. Jaungoikoari Jesu-Kristoren izenean sarri, eta gogotik eskatu bear diogu bere argia, eta grazia, gure obligazioak ondo ezagizeko, eta indarra, gure pasio edo griña gaiztoak, eta oitura edo kostunbre gaiztoak eskuratzeko, eta Mandamentu santuak kontuz gordetzeko: bada Jaungoikoa orain Aita ona bezela prest dago guri laguntzeko, gure partetik egiazko alegiñak aren graziarekin batera egin nai baditugu: baña bestela, Juez justuak bezela naitaez betiko kondenatuko gaitu; eta orra Bateo santuan Jaungoikoak egin zizkigun mesede edo faboreak zein andiak diran, eta Kristauaren obligazioak nolakoak diran. Eta ori bera Bateo santu solemnean Eliza Ama Santak usatzen dituan zeremonia andiak, eta misteriozkoak erakusten digue.

Aditu itzatzue bada Bateo santuan Eliza Ama Santak usatzen dituan zeremonia andiak.

G. Zein dira bada Bateo solemnean egiten diran zeremonia prinzipalak; eta zer aditzera ematen digue?

E. 1. Bateatzen dan aurrari ematen zaiozka aita pontekoak edo guraso-ordekoak. Eta zertako? Guraso espiritualak bezela, aurraren aita-ordeko, eta maisuak izan ditezen: eta Bateoan egiten diran promesak, eta obligazioak gogora ekarri, eta erakutsi degiozkatzen gurasoen faltan.

Eta ala, aita ponteko edo guraso-ordeko espiritualak bezela, izan bear due Kristauak, eta dotriña, eta bizimodu ona duenak; eta ezin bi baizik izan ditezke, bata gizona, eta bestea emakumea. Baña asko da bat bakarrik izatea ere, eta aide espiritualak egiten diralako, jasotzen duen aurrarekin lenengo gradoan, eta aren gurasoakin bigarren gradoan, ezin ezkondu ditezke Dispensa bage, ez aurrarekin ez eta aren gurasoakin ere.

2. Elizako ateetan aurra gelditzen due. Eta, zertako? 1. Aditzera emateko, Etizatik kantpora, au da, Paradisotik kanpora bota ginduzela pekatu orijinalak edo jatorrizkoak, eta gerenez merezi eztegula Elizan sartzea, bada Deabruaren esklaboak edo katibuak

gera. Eta 2. aditzera emateko, ezta Bateo santua baizik, Elizan sartzeko deretxoa ematen duanik.

3. Aurrari izena ifinten diobe aita pontekoak; eta Sazerdoteak galdetzen dio: Zer eskatzen diozu Elizari? Eta erantzuten dio, Fedea. Eta berriz galdetzen dio: Zer ematen dizu Fedeak? Eta erantzuten zaio; betiko bizitza. Bada nai badezu betiko bizitza, gorde itzatzu Mandamentuak esaten dio Sazerdoteak: zure Jaungoiko Jauna amatuko dezu biotz guztitik, eta zure projimoa, zere burua bezela: Eta zertako izena ifinita, galde oriek egiten zaio, eta Fedearen, eta karidadearen premia, da obligazioa bertatik aditzera ematen zaio? Bere izena emanaz, nolako obligazioak artzen dituan jakin dezan; eta Santu edo Santa baten izena artzen du, bere bizimoduaren ispillu, eta anparatzalle berariazkoa izan dakion Jaunaren aurrean.

4. Sazerdoteak egiten diozka aurrari konjuro edo Exorzismoak. Eta, zertako? Demonioari argandik iges egiteko, eta aditzera emateko, Bateo santuak ateratzen duala edo libratzen duala aren mendetik edo katiberiotik.

5. Bekokian, eta bularrean egiten diozka Sazerdoteak aurrari gurutzearen señaileak. Eta zertako? Aditzera emateko 1. Jesu-Kristoren gurutzeko Pasio, eta

eriotzatik etorri dala, bateo santuak duan birtutea, eta indar guzia, gu pekatutik, eta Deabruaren kautiberiotik ateratzeko. Eta 1. ez gerala lotsatu bear Jesu-Kristoren gurutzeaz, baizik maitatu bear degula gurutzea, eta humiltasunarekin, eta pazienziarekin bakoitzak jaso bear degula gure gurutzea edo gure nekea.

6. Aurrari ifinten dio Sazerdoteak gatz piska bat aoan. Eta zertako? 1. Aditzera emateko, gatzaren gustoa edo saboreak gogora ekarten duen Zeruko gauzen sabiduria, eta gustoa, eskatzen diola Elizak Jaungoikoari aurrarenzat; eta 2. aditzera emateko, gatzak usteldasuna eragozten duan bezela, bateo santuko graziak gordetzen duela Kristaua pekatuaren usteldasunetik.

7. Sazerdoteak bere aoko txistu piska bat ifinten dio aurrari sudurretan, eta belarrietan, esanaz; *Efeta, quod est adaperire*. Zertako da ori? Nola Jesu-Kristo gure Jauna bera bere aoko txistuaz baliatu zan, gorturik, eta mututurik zegoan gizon bat sendatzeko, Eliza Ama Santak zeremonia ori bera usatzen du, eta Jesu-Kristoren beraren hitzak esaten ditu, eta eskatzen dio, aur ari iregi degiozkala belarriak, bere dotriñako egiak ondo aditzeko, eta bere hitz santuaren gustoa, eta gozotasuna sentitzeko; eta orren ondoren, len esan

dedan bezela, Deabruaren errenunzia egiten du bateatu bear danak, eta agintzen du Jesu-Kristori segitzea.

8. Olio santuarekin eta Krismarekin gantxitzen diozka aurrari bularra, sorbalda, eta burua. Eta ori zertako? Aditzera emateko, bateatu danari ematen zaio-la grazia, eta indarra, izango dituan nekeak, eta nairgabeak pazienziarekin eramateko, eta Jesu-Kristoren Legeko uztarria biguñtzeko, arintzeko, eta gozatzeko.

9. Oial zuri bat ematen diobe aurrari. Eta zer esan nai du orrek? Bateoak ematen dion garbitasuna, eta inozentzia, bere bizimodu, eta obra onakin gorde, eta konserbatu bear duala.

Eta 10. zertako ifintzen diobe kandela irareki bat eskuan? Adieragiteko, bere biotzean beti eduki bear duan karidadea edo Jaungoikoaren eta projimoaren amorio irazekia, eta bere bizimodu onarekin guziei eman bear dien ejemplo ona.

Eta azkenik, Bateoa bukaturik, esaten dio Sazerdoteak Kristau berriari; zoatz pakean, eta Jauna izan dedilla zurekin. Nai dezue bada, N.K. egiazko pakea zuen biotzetan? Bada bazaudetezke seguru, eztezuela arkituko munduko honra, ondasun, eta atsegiñetan; baizik, Kristau onak bezela zuen borondatea, eta

deseo erabageko guziak ukatzen; zuen gurutze, neke edo naigabeak pazienziarekin eramatean; Jesu-Kristori jarraitzean, eta gauza guzietan Jaunaren borondatearekin konformatzean. Orra zerk dakarren pakea orain, eta betiko pakea gero Zeruan.

Eta orain, zer frutu edo probetxu atera bear degu, Bateoko Sakramentu santuaren gañean esan degun dotriña onetatik?

1. Gure Jaungoikoari, ez bakarrik orain, baizik egunoro biotz guztitik eskerrak eman bear diozkagu, guk merezi bage, Bateo santuan egin dizkigun mesede guztiz andiakgatik; bada atera gaitu pekatutik, eta Deabruaren katiberiotik, eta eman digu bere grazia, eta Zeruko herederoak egin gaitu.

2. Egunoro berritu bear degu Bateoan egin genduan Satanasen edo Deabruaren errenunzia, eta ari larga, eta Jesu-Kristori jarraitzeko promesa andia, eta ori kunplitzeko gogo bizia, eta neurriak benetan artu bear ditugu.

Eta 3. Bateo santuko grazia miragarria galdu eztuenak, alegin guziak egin bear ditue, ura konserbatzeko, izan diteken tesororik andiena bezela; eta iñoiz galdu duenak, penitencia egiazkoarekin berriz iriste-

ko, eta bizimodu on batekin beti konserbatzeko, bada orri darraio betiko gloria. Amen.

IRUGARREN DOTRIÑA

Konfirmazioko Sakramentuaren gañean.

Gaur Konfirmazioko Sakramentu Santuaren gañean hitz egin bear dizuet, N.K.. San Lukasek bere Ebanjelioaz gañera, Elizaren asieran, Apostoluak egin zituen gauzarik prinzipalenak eskribitu zituan, eta aen artean dio, San Pedro, eta San Juan Apostoluak, beste Apostolu guzien enkarguz, berariaz Samariara igaro zirala, eta an orduan Kristau berri egin ziranak, konfirmatu zituela. Eta orobat, San Paulo Apostoluak, Efeso-ko Ziudade andian, Jesu-Kristoren fedea, eta Bateoa errezibitu zituen Kristau berriai, Konfirmazioko Sakramentua eman ziela, eta Espiritu Santua bere doaiakin errezibitu zuela; orra, Eskritura Santuan bertan Konfirmazioaren historia. Esango dizuet bada, Konfirmazioa zer dan; zertako dan; nola ematen dan; eta nola, Konfirmazioak ematen digun graziaz, eta indarraz baliatu bear geran.

G. Zer da Konfirmazioa? **E.** Da zazpi Sakramentuetatik bigarrena, Kristauari emateko Espiritu Santua, eta bere doaiak, eta oekin indarra fedea mantenzeko,

eta konfesatzeko bere biziaren arriskuarekin bear bada ere, eta egiteko Kristaua birtutetsua, sendoa, eta perfektoa. Eta deitzen diogu Konfirmazioa, zergatik gogortzen, eta indartzen du Bateoan artu genduan fedea.

G. Eta Konfirmazioko Sakramentuak zer ematen digu? **E.** Iru gauza batez ere ematen dizkigu. 1. Azitzen edo geitzen digu Bateo santuan artu genduan lenengo grazia. 2. Ematen digu Espiritu Santua, eta bere grazia, birtute, eta doaiak, gure anima indartzeko, ala kanpotik nola barrundik izaten ditugun tentazioak garaitzeko: eta 3. gure animan ezarten digu marka karaktera esaten zaion insignia edo señaile eder, eta honragarri bat, iñoiz ere desegingo, kenduko edo borratuko ezтана; eta argatik bein baizik ezin Konfirmazioko Sakramentua artu diteke, eta jakiñaren gañean, bigarren aldian iñork artuko balu, pekatu larria edo mortala egingo luke, eta konfirmaturik dagoan edo ez, dudatzen duanak, Obispo Jaunari bere duda aditzera eman bear dio, dudatik ezin irten bada, kondizioaren azpian Konfirmazioa eman degion.

G. Gure animak kanpotik izan oi dituan tentazioak zein dira? **E.** 1. Elizaren asieran, eta tirano fedebageen persekuzioetako denporan fedea ukatu eragiteko Kris-

tauai tormentu arrigarriak, eta eriotz gogorak, eta lotsagarriak ematen zitzen, eta ala ere ezin kontatu ala izan oi ziran Kristau fiñak, pozik martirioak sufritu zituenak, Espiritu Santuak ematen zien grazia indartsu, eta eragillearekin batera, eta orietatik milloika martiri santuak kontatzen ditu Eliza Ama Santak; ori bera orain ere gertatzen da fedebage, Jentil edo Herejeen artean bizi diran Kristau onakin, eta ori bera egin bearko genduke dadukagun Kristoren fedea kendu nai baligue; eta ala, orrelako arriskueta fedea konserbatzeko, eta indartzeko da batez ere Konfirmazioa. Baña, nola Kristau errietan orrelako etsai tiranorik orain eztan, orien orde, Infernuko etsaiak sortzen dizkigu aek baño gaitz gutxiago egiten eztuen beste tentatzalle gaizto batzuek, eta dirade deabruari, munduari, eta aragiari lotsa bage darraizkan Kristau mundutarrek, Kristau onai, baño argal daudenai, burlak, afrentak edo desprezioak egiten diztenak, birtuteari edo bizimodu on bati jarraio nai dielako, eta orien esamesak, eskandaloak, eta tenta aldiak kalte arrigarriak egiten dizte, eta argal dauden asko engañatzen dituzte; bada Konfirmazioko Sakramentu Santuak berariazko indarrak ematen ditu, tentazio oriek garaitzeko, mundutarren esan gaiztoak despreziatzeko, eta birtu-

teari, batere lotsa bage, libertade guziarekin jarraitze-ko. A! zein bearra degun guziok onelako indarra, orrelako tentazioak garaitzeko, eta ez bakarrik kanpokoak, baita barrukoak ere.

G. Zein dira bada gure animak barrundik izan oituan tentazioak? **E.** Dirade batez ere iru. 1. Soberbia, andinaia, eta arrotasuna, beste tentazio, eta pekatu askoren sustrai gaiztoa. 2. Da abarizia edo gutizia, diruzale edo ondasunzale erabagea izatea, beste tentazio asko sortzen dituana. Eta 3. da aragiaren griña fortitza, loikeriazko edo lujuriako pekatueta-
ra edo jan-edan erabageetara, eta jolas edo jostatze zikiñetara mugitzen edo tentatzen gaituana, eta pekatu asko, eta kaltegarriak eragiten dituena; orra iru tentazio mota, deabruaren maliziarekin, eta munduaren ejemplo gaiztoarekin batera gerra guztiz fortitza, eta goaigarria gure anima gaixoari egiten dioenak.

G. Eta oriek goitzeko edo menderatzeko, eta birtutean irmo egoteko nola ematen dizkigu indarrak Konfirmazioko Sakramentuak? **E.** Espiritu Santua bera gure animara ekarriarekin, eta Jaungoikoaren amorioa edo egiazko karidadea gure biotzetan sortu, eta geituarekin, eta orretako bere doaiak, eta amabi frutuak ugari emanarekin.

G. Zein dira Espiritu Santuak Konfirmazioan batez ere ematen dizkigun doaiak? **E.** Eskritura Santuak zazpi aitatzten ditu, eta dirade, 1. jakinduriako doaia. 2. Entendimentuko doaia. 3. Konsejuaren doaia. 4. Zienziaren doaia. 5. Fortalezaren doaia. 6. Piedadearen doaia. Eta 7. Jaungoikoaren bildurraren doaia.

G. Zer da jakinduriako doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun Zeruko gauzen ezaguera argi bat, gusto, eta atsegin artu eragiten diguna Jaungoikozko gauzetan, eta munduko gauzak igui eragiten diguna.

G. Zer da entendimentuaren edo adimentuaren doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun argitasun bat gure estaduari, eta bizimoduari dagokion moduan fede Santuko egiak ezagutzeko.

G. Zer da konsejuaren doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun doai berezi bat, biderik edo mediorik onena aututzeko gauza gaitzetan, nekezetan, eta dudazkoetan.

G. Zer da zienziako doaia? **E.** Da Espiritu Santuaren doai bat, gauza naturaletan ezagutu eragiten diguna, gure salbaziorako nola aezaz ondo baliatu bear geran, edo nola ondo, eta probetxuarekin usatu bear ditugun.

G. Zer da forlalezaren doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun gogo indarsu bat edo sendo bat, Zeruko bidean ditugun nekeak, eta naigabeak pazienziarekin eramateko, eta birluteari jarraitzeko.

G. Zer da piedadearen doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun gogo bizi bat, Jaungoikoaren honorarako, eta serbizioarako egokiak diran gauza guziak leia, eta animo andiarekin egiteko.

G. Eta zer da Jaungoikoaren bildurraren doaia? **E.** Da Espiritu Santuak ematen digun doai bat, Jaungoikoaren Majestadearen erreberenzia edo errespeto andi bat, gorde eragiten diguna, eta ura ofenditzeko bildurra, eta ikara ematen diguna.

G. Eta zenbat, eta zein dira Espiritu Santuak erakarten dituan frutuak? **E.** Dirade amabi; eta 1. eta guzien burua da karidatea. Jaungoikoa biotz guztitik, eta gauza guzien gañean maila eragiten diguna, eta beragatik gure projimoa, gure burua bezela. 2. Da pakea, aserratu bage gauzkana, zerren besterik nai eztegun Jaungoikoak nai duena baizik. 3. Da pazientzia, naigabeak keجاتu bage sufritu eragiten diguna. 4. Da longanimidatea edo biotz andia, betiko ondasun kabugabeak goaitu bage itxoron eragiten diguna. 5. Da Fedea, lealkiro gure hitzak kunplitu edo gorde era-

giten diguna. 6. Da kontinenzia, gure sentiduen atsegin gurak, eta erabageko naiak ukatu, eta menderatu eragiten dizkiguna. 7. Gozo espirituala, Jaungoikoa serbitzen gogotik, eta gustoz garabiltzana. 8. Da ontasuna, iñori bidebagerik egin bage, guziaz on egitera gakartzena. 9. Da mansotasuna edo emetasuna, kole-raren abidurak menderatu eragiten diguna. 10. Da benignidadea, begitarte ona guziaz egitera erakarten gaituana. 11. Da modestia, ergelkeriatik, banidadetik, eta modubageko jolasetatik, eta erabageko apaindu-raetatik gordetzen gaituana. Eta 12. Da kastidadea, animako, eta gorputzeko garbitasuna gorde eragiten diguna.

Eta orra Espiritu Santuaren zazpi doaiak, eta amabi frutuak, zein gauza miragarriak, gozoak, eta ondasundunak diran. Eskatu degiozkagun bada sarri, eta gogotik berari, eta Zeruko bidea txit erraza, eta atsegingarria egingo zaku, eta ori argiro ezagutzeko gogora ekarri baizik eztago, Apostoluetan, eta Kristau berrietan ikusi ziran mirariak; Espiritu Santua, eta bere doaiak errezibitu baño lenago guztiz jakinezak, argalak, eta bildurtiak ziran; baña ozta Espiritu Santua errezibitu zuen, gizon berri batzuek egiñik gelditu ziran, guztiz jakintsuak, guztiz indarsuak, eta pozik

tormentuak, eta eriotzak sufritzen zituzten Kristogatik, eta animen salbazioagatik, eta orra nolako indarrak ematen dien Espiritu Santuak, bera ondo prestaturik, errezibitzen duenai, bada artarako Konfirmazioan ematen zaku soldaduen edo gerrarien señailea.

G. Eta Bateo santuan ematen zakun karaktera, eta Konfirmazioak ematen diguna guzia bat ezta? **E.** Ez, diferenteak dira: Bateoan egiten gera Jaungoikoaren Semeak, eta Konfirmazioan Jesu-Kristoren soldaduek, eta Bateoak ematen digu bear adiña grazia, indar, eta esku, Kristau on bati dagozkan lanak egiteko; baña Konfirmazioak ematen dizkigu indar andiagoak, eta sendoagoak Jesu-Kristoren, eta gure animaren etsaiak goitzeko edo menderatzeko, eta Jesu-Kristori naigabe, eta nekeen artean jarraitzeko, eta premia orduan beragatik bizia emateko.

G. Konfirmazioko Sakramentua errezibitzeko obligaziorik badegu? **E.** Era ona izan ezkeru errezibitu bear da, eta ardurabagetasunez edo nagitasunez artu nai eztuenak, pekatu egiten du; Jaungoikoa ofenditzen du; eta bere animari kalte andia egiten dio, ain grazia, eta indar andiak galdu eragiten diozkalako; eta ala, konfirmatu bage dauden persona larriak, eta aurtxoan gurasoak, eta guraso ordeak kuidadu andia eduki bear

due, Obispo Jauna datorrenean Konfirmazioa errezibitzeko, eta aurrari eman eragiteko.

G. Zer disposizio edo prestaera bear da Konfirmazioko Sakramentua errezibitzeko? **E.** Aurrak asko due bateatuak egotea, eta Eliza Ama santaren intenzioa, Konfirmazioa errezibitzeko; baña arrazoiaren argira eldurik daudenak, bateatuak izanaz gañera, konfirmatuak izateko, eduki bear due intenzio edo asmoa Konfirmazioko Sakramentua errezibitzeko; jakin bear due zer errezibitzen duen, eta zertako errezibitzen duen, eta egon bear due graziazko estaduan; eta ala, pekatu larririk edo mortalik badue, konfirmatu baño lenago astirik, edo era onik badue konfesatu bear dira, eta konfesatzeko erarik eypadue gutxianez akto kontriziozko biotzetik egin bear due, eta eskatu bear diobe gogotik Ispiritu Santuari arren eman degiela bere grazia, eta bere doaiak Kristau onak bezela bizitzeko, eta birtutean egunetik egunera aurreratzeke, eta Deabruaren, munduaren, eta aragiaren tentazioak garaitzeke, orain ondo peleatu, garaia irabazi, eta gero betiko koroa, eta gloria Zeruan gozatzeko.

G. Eta orretarako laguntzen ote digue Konfirmazioa errezibitzen degunean egiten diran zeremonia sagraduak? **E.** Bai, asko laguntzen digue, ondo ezagu-

tzen badegu, zer esan nai duen, eta gogoan erabiltzen baditugu.

G. Nork du Konfirmazioko Sakramentua emateko eskualdia? **E.** Obispo Jaunak. Eta, nola ematen du Konfirmazioa? 1. Bateoan bezela aita-ordekoak presentatzen dio Obispo Jaunari konfirmatu bear dana, eta aita-ordekoa izan bear da lenago konfirmaturik dagoana, eta eztu izan bear bateoan aita ponteko edo aita-ordeko izan zana, ezpada beste bat, eta bateoan bezela konfirmazioan ere sortzen da aidetasun espirituala aita-ordekoaren, eta konfirmatzen danaren artean, eta premiarik baliz, dotriña erakutsi bear dio konfirmatzen danari; baña nork erakutsi badu beste aldetik, obligaziorik eztu.

G. Eta Obispo Jaunak berak zer egiten du orduan? **E.** Lau gauza egiten ditu: 1. Orazio edo erregu edo eskaera bat Jaungoikoari egiten dio. 2. Eskuak ifinten ditu konfirmatu bear danaren buruaren gañean. 3. Krisma santuarekin bekokia gantxitzen edo unjitzen dio gurutze santuaren señaleari egiñaz, eta konfirmatzeko hitzak edo forma esanaz; Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua izentatuaz. Eta 4. masalleko edo belar ondoko arin bat ematen dio, eta Krisma santua arrasatu edo erori eztatik, benda edo zinta batekin beko-

kia lotzen diobe, edo ezpada, jende asko, eta denpora gutxi danean, bekokia garbitzen diobe ontzi batean daukaten urarekin, eta bereala oial batekin legortzen diobe.

G. Zertako Obispo Jaunak orazio edo eskaera Jaungoikoari egiten dio? **E.** Konfirmatu bear dituanen gañera Espiritu Santua erakarteko edo jatxi eragiteko.

G. Zergatik eskuak buruaren gañean ifinten diozka? **E.** Aditzera emateagatik, bear dan prestaerarekin Konfirmazioko Sakramentua errezibitzen duanaren gañera Espiritu Santua eldu edo etorri dala.

G. Konfirmatzeko, eta bekokia gantxitzeko serbitzen duen Krisma santua zer da? **E.** Da Olibazko olioak, balsamoarekin nastua, Obispo Jaunak urteoro, Ostegun santu egunean bedeinkatua edo konsagratua.

G. Konfirmatzeko serbitzen duen olioak, eta balsamoak zer aditzera ematen due? **E.** Nola olioak serbitzen duen biguntzeko, eta indartzeko, aditzera ematen du, Espiritu Santuak orduan ematen duen grazia, eta indarra dala Jesu-Kristoren Lege santua gordetzeko daukagun nekea biguntzeko, eta naibage mota guziak pazienziarekin eramateko edo sufritzeko; eta nola balsamoak serbitzen duan usai ona emateko, eta usteltasuna eragozteko, aditzera ematen du, Espiritu

Santuak ematen digun grazia, eta indarra, pekatu eragiten diguen pasio, eta griña gaiztoak mortifikatzeko edo menderatzeko; birtuteari jarraitzeko, eta gure exenplo onarekin Jesu-Kristoren usai ona banatu eragiteko.

G. Eta zergatik egiten da Unzioa edo gantxidura bekokian? **E.** Nola bekokia dan gorputzaren tokirik agiri-ena eta bekokian agertzen dan daukagun loia, gorrituaz, edo daukagun bildurra, zurituaz, edo kolorea mudatuaz aditzera emateko, Espiritu Santuak konfirmazioan, kentzen digula, Jesu-Kristori jarraitzeko izan dezakegun lotsa, eta bai eta munduaren bildurra, eta ematen digula ausardia, eta balorea Jesu-Kristoren Ebanjelio santuari libertade guziarekin jarraitzeko.

G. Eta zergatik Unzioa edo gantxidura egiten da gurutzearen figuran? **E.** Aditzera emateagatik, gurutze santua dala Kristauaren insignia edo señailea; gurutzetik etorri zakula gure gaitz guztien erremedioa; gurutze santutik datorkigula egiatzko pakea, eta betiko zoriona, eta ala gurutze santua, eta ark aditzera ematen digun mortifikazioa, eta pazientzia, maitatu bear ditugula, eta gurutzeaz lotsatu ordean, poztu, honratu, eta gloriatu bear gerala, Jesu-Kristok gurutzean

batez ere erakutsi zigun pazienziako ejenploari jarraitzeaz.

G. Eta zergatik Konfirmazioko Sakramentua ematen da Trinitate Santisimoaren izenean, au da, Aitarenen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean? **E.** Zergatik Bateoan bezela Konfirmazioan ere aitortu, eta konfesatu bear degu daukagun fedea, eta fedeko misteriorik aundiena, eta beste guzien fundamentua edo zimendua Trinitateko Misterioa da.

G. Eta zergatik konfirmatu danari ematen dio Obispo Jaunak masalleko edo belar ondoko arin bat? **E.** Aditzera emateko, Kristauak beti prestaturik egon bear duala, Jesu-Kristogatik edozein afrenta, neke edo naigabe sufritzeko, eta izan al ditekean nekagarrienak, lotsagarrienak, eta arrigarrienak izan arren, arintzen dirala Espiritu Santuak ematen duen betiko sari edo gloriaren esperanzarekin; Jaungoikoaren amorioarekin, eta artatik datorren barrungo pakearekin; eta ala aizkenik Obispo Jaunak esaten dio konfirmatu danari: «pakea izan dedilla zurekin».

Eta orra, N.K. Jesu-Kristo gure Jaunak Konfirmazioko Sakramentua zertako egin zuan, eta zein mesede andiak, eta nolako laguntasun, sokorru, eta indarrak ematen dizkigun bere, eta gure animako etsaiak, dea-

brua, mundua, eta aragia garaitzeko, menderatzeko, eta azpiratzeko, eta birtuteari gogotik jarraitzeko, eta batez ere guziok munduko neke, eta naibagea eramateko, ain bearra degun pazienza ejerzitzatzeko; mundu onetan gauden artean nai ta ez peleatu bear degu, Jesu-Kristoren soldaduak gera, bera da gure kapitaia, eta gure gidaria; berak ematen dizkigu armak, eta indarrak pelearatzeko, eta alperrak, eta nagiak ezpage-ra, baizik azkarrak, leialak, esker onekoak, eta lotsadunak, jarraio bear diogu. Munduaren esamesak, eta errespeto gaiztoak menospreziatu bear ditugu, eta beti Kristau onak, eta Jesu-Kristoren egiazko diszipulu edo jarraitzalleak izateaz honratu, eta gloriatu bear gera. Geiago estimatu bear degu, Jesu-Kristoren adiskideak, eta aren eskolako fiñak izatea, munduko honra, aberastasun, eta atsegin guziak baño; bada oetan eztegu arkituko egiazko pake, eta atsedenik; baño bai Jesu-Kristoren antzekoak izatean, bada berak esan zigun, eta ezin engañatu gaitzake; jarraio degiogula, batez ere humildadean, mansotasunean edo pazenzian, eta gure animenzat egiazko pakea arkituko degula: baño nola Kristauok ditugun obligazioak, eta egiteko andiak, ondo ezagutzeko ain itxuak gauden munduko iruipenezko zorionarekin, eta ain arga-

lak gure griña edo pasio erabageak eskuratzeko; orretako bear degun Zeruko argia, eta indarra iristeko, naita ez fedeko egia andiak sarri gogora ekarri, eta kon sideratu bear ditugu, eta Espiritu Santuari bere doaiak, eta graziak benetan eskatu bear diogu, bada orduan guzia erraz egingo degu, eta betiko pakea edo gloria seguratuko degu. Amen.

LAUGARREN DOTRIÑA

*Eta lenengoa Penitenziako
Sakramentu Santuaren gañean.*

G. Pekatu mortal egin ezker, penitentzia egiazkoa egin gabe inor salba diteke? **E.** Ez, N.K.: Eta ori Fedeko egia da? Nola ere dan, eta ziertua, eta jakiña, nun eztan Eskritura Santa guzian geiago aitatzen, eta agertzen dan gauzarik edo egiarik. Ala, anziñako Profeta Santuak, nola Jesu-Kristo gure Jaunak, eta bere Apostolu Santuak, nola Elizako Arzai, eta Maisu guziak egia ori beti erakutsi zuen, eta ala, bearrago degun gauzarik ezta, penitentzia egiazkoa, eta konfesio ona nola egin ondo jakitea baño; eta argatik zeoro, eta argiro erakutsi nai dizuet, N.K. Penitenziako edo Konfesioko Sakramentu Santua frutuarekin edo probetxuekin errezibitzeko jakin bear dezuen guzia. Jaungoikoari nai dakiola gure adimentuak argitzea, eta askoren itxumenak gai onetan erremediatzea.

G. Penitentzia zer da? **E.** Gaizki egiñaz damu artzea, eta ez berriz egiteko asmo egiazkoa edukitzea.

G. Penitenzia zenbat modutan da? **E.** Penitenzia-
ren izen au iru modutan aditzen da: 1. da penitenzia
birtutea, eta da Jaungoikoak ematen digun Zeruko
doai bat, gure gaiztakeriak edo pekatuak ezagutzeko,
eta iguitzeko; aek egindako damu edo dolore egiaz-
koa artzeko, eta aurrera erremediatzeko edo ez berriz
pekatuak egiteko asmo edo proposito egiazkoa gure
biotzean edukitzeko. 2. Penitenziaren izenaz aditzen
da, Penitenziako, eta Konfesioko Sakramentua Jesu-
Kristo gure Jaunak ordenatu zuena bere lege berrian,
bateatu ezkerro egindako pekatuak barkatzeko: eta 3.
penitenziaren izenaz askotan aditzen da, penitenziaz-
ko obra onak egitea edo penitenziazko frutuak emate-
a, eta pekatu larrian edo mortalean erori edo kon-
sentitu ezkerro, kondenatuko ezpatera, naitaez damu-
tu bear gera, ondutzeko asmo egiazkoa artu bear
degu; al degula ondo konfesatu bear gera, eta peka-
tuaren zorra pagatu bear degu edo pagatzeko koron-
date egiazkoa eduki bear degu, eta ori guzia nola egin
guziok jakin bear degu.

G. Eta badira ala ere pekatariak pekatuaren barka-
zioa iristeko, Infernutik libratzeko; Jaungoikoarekin
adiskidetzeko; aren grazia iristeko, eta betiko zoriona
seguratzeko, zer egin bear duen edo konfesio on bate-

rako nola prestatu edo zuzendu bear diran eztakite-
nak? **E.** Bai; pekatari ardurabage asko arkitzen dira,
deabruak itxuturik edo engañaturik, ondo konfesatze-
ko nolako prestaera bear duen eztakienak, eta jakite-
ko alegiñik ere egiten eztuenak; eta askotan konfesa-
tu arren iñoiz ere egiazko penitenziarik, eta konfesio
onik egiten eztuenak, ez eta eriotzako orduan ere. Eta
Zerura dijoatzelako ustean illtzen dira, baña Infernura
joaten dira; zerren jakiñeztasunak edo ignoranziak gai
onetan eskusarik eztu: Zer lastima andiagorik, eta
negargarriagorik izan diteke!

G. Zer erremedio bada itxumen orretatik, eta kalte
izugarri orretatik libratzeko? **E.** Penitenziaren, eta kon-
fesio egiazkoaren gañeko dotriñak edo erakustek
gogotik aditzea, ondo ikastea, eta aurrera beti ondo
konfesatzeko alegiñak egitea. Eta ala uste det, N.K.
zuen arreta edo atenzio guztia ipiñiko dezuela konfe-
sioaren gañeko gaurko dotriña, eta urrengoak txit
kontuz aditzeko, eta ainbeste inporta dizuen frutua
edo probetxua ateratzeko. Eta gure dotriña laburraren
galdeai narraiela gaur esango dizuet, Penitenziako,
eta Konfesioko Sakramentua zer dan; nola ordenatu
edo egin zuen; zertako egin zuen; zein bearra, eta

probetxugarria dan; eta aizkenik, nola penitenzia egi-
tea geroko utzi bear eztegun.

G. Zer da bada Penitenziako, eta Konfesioko Sakramentua? **E.** Da, pekatuen damuzko konfesioarekin eta Sazerdote Konfesoreak ematen duen absoluzioarekin egiten dana; pekatariaren aldetik bear da, egin dituen pekatuak igui izatea, nazkatzea edo gorrotatzea, eta aek egindako egiatzko damua edo dolorea edukitzea, eta barkazioa iristeko deseo edo esperantzarekin garbiro autortzea, agertzea edo konfesatzea, aekgatik zor duen pena mundu onetan pagatzeko asmo, intenzio edo borondatearekin; ori guzia da Sakramentuaren gaia edo materia, eta orren ondoren Sazerdote Konfesoreak esaten dituan hitz oek: nik absolbitzen zaitut zure pekatuetatik, dira Sakramendu onen forma, eta orduan egiten da Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua.

G. Eta zergatik deitzen diogu orobat Konfesioko Sakramentua edo Penitenziako Sakramentua? **E.** Deitzen diogu konfesioa, zerren konfesioa edo pekatuak agertzea edo autortzea da Sakramento onen parte prinzipal bat, eta ageriena; baña egokiago deitzen diogu Penitenziako Sakramentua zerren Sakramentu onen mamia edo sustanzia dago batez ere biotzeko

penitentzia, damutasun, etadolorean, eta onek perfektua edo osoa edo Jaungoikoaren amorioarekin animaturik dagoana bada, guzia erremediatu dezake, ezin konfesatu danean. Baña edo kontriziozko edo atriziozko damutasuna edo biotzeko dolore bage, konfesioak, eta absoluzioak batere balio eztue, eta Sakramenturik egiten ezta, eta pekaturik barkatzen ezta.

G. Nork ordenatu edo egin zuen Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua? **E.** Jesu-Kristo gure Jaunak berak; Eskritura Santuak San Mateoren, eta San Joanen Ebanjelio santuetan segurutzat esaten digu, Jesu-Kristok bere Apostolui Zeruko giltzak eman ziela, eta pekatuak askatzeko edo barkatzeko, eta baita lotutzeko, ta ez barkatzeko eskualdia eman ziela. Jesu-Kristo gure Jauna piztu edo erresuzitatu zan egunean Apostolui agertu zitzaien; bere pakea eman zien; bere arnasa ezarri edo komunikatu zien, eta esan zien; «Ar ezazue Espiritu Santua, zuek barkatzen dituzuen pekatuak, barkaturik geldituko dira, eta zuek barkatu bage uzten dituzuenak, barkatu bage geldituko dira». Eta orrela pekatarien Juezak egin zituan, eta eskualdi ori etzien bakarrik erentzat eman Apostolui; baita aen kargua izango zuen Sazerdote Konfesore guzientzat. Eta ezin dateke pekatariak ondo juzgatzea, eta

nori barkatu, eta nori ez, ondo jakitea, pekatuak Konfesoreari agertu bage; eta ala, Apostoluen denporatik onera, konfesioko legea beti ezagutu, erakutsi, eta agindu izan du Eliza Ama Santak.

G. Eta lenagoko denporetan, au da, Adanen denporatik Jesu-Kristo gure Jauna mundura etorri arteko bitartean, ez ote zan Konfesioko Sakramenturik, eta aoz pekatuak esateko legerik, eta obligaziorik? **E.** Ez; orduan etzegoan orrelako legerik: baña bai, beti izan zan, penitencia egiazkoa egiteko legea, eta obligazioa, eta ez nolanaiko penitencia, baizik, pekatuen barkazioa iritsiko bazuen, bear zuen biotzeko kontrizio perfektoa, edo Jaungoikoaren guzien gañeko amorio-tik jaiotzen dan biotzeko damutasuna, eta baita egiazko proposito edo borondate ziñezkoa, eta eragillea, pekaturik ez geiago egiteko, eta penitenziazko obrakin pekatuen zorra pagatzeko edo Jaungoikoaren justiziari satisfazio emateko. Eta orrelako biotzeko penitenziarekin orduan salbatzen ziran.

G. Zertako da bada orain Penitenziako, eta Konfesioko Sakramentua eta errezibitzeko legea? **E.** Bateatu ezkerro egindako pekatuak barkatzeko; batez ere mortalak, baita benialak ere; baña diferentzia onekin, ze, pekatu mortalik ezin barkatu diteke konfesatu

bage edo konfesatzeko borondate bage; baña pekatu benialak barkatu litezke naiz konfesioarekin naiz konfesatu bage.

G. Eta bada pekaturik ain andirik, eta ikaragarririk Penitenziako Sakramentuak ezin barkatu lezakeanik?

E. Ez; munduan egin diran, eta egin ditezkean pekatu guziak barkatzeko indarra eta birtutea dauka, pekataria bera humillatzen bada, eta ondo prestaturik konfesatzen bada. Baña galdetzen det: Eztirudi, lege ori nekeza, eta gogorra dala, lotsatzen gaituen gure pekatu, eta gaiztakeri estali edo sekreto guziak geurk agertzera, eta konfesatzera beartzen, premiatzen edo obligatzen gaituen ezkeror? Ala dirudi, gure pasioari, honratuak izateko leiari edo inklinazioari, eta gure desprezioaren iguitasunari bakarrik begiratzen badiogu; baña ezta lege gogorra, baizik erraza, eta biguña, orren probetxuari ondo begiratu nai badiogu, eta gure berri ondo zekien, gure Salbadoreak gure onagatik ala ordenatu zuela, konsideratu nai badeugu. Urkamendi batean illtzera, kondenaturik bazeunde, eta zure gaiztakeria zeurk damaturik, konfesatzeagatik bakarrik, barkazioa eskeñiko balizue, a! zein erraz, eta zein pozik konfesatuko zendukean; bada betiko urkamen-ditik, eta betiko infernutik libratzeagatik, nola gogo-

rra, eta nekeza iritzi bear diozu zu bezelako gizon argal bati sekreto guztiz andiaren azpian egiten diozun konfesioari? Eta batez ere, konfesioak dakazkitzun probetxuai begiratzen badiezu?

G. Zer probetxu dakazki bada Konfesioko Sakramentuak? **Eta legeak?** **E.** Guztiz asko, eta guztiz andiak. 1. Gure buruak ondo ezagutzeko, eta humillatzeko premian ipinten gaitu; dala gure konzienziaren examiñarekin; dala gure pekatuak konfesatu bearrekin; eta orrela, gure itxumen guzien, eta gure pekatuen sustraia dan soberbia, eta arrotasuna desegiteko, eta birtute guzien zimendua edo sustraia dan biotzeko humiltasuna exerzitzeko berariazko gaia ematen digu, eta batez ere Penitenziako birtutea iristeko nai ta ez bear degun gure barruko gaiztakeriaren eza-guera, eta orri darraion lotsa, damu, eta pena artu eragiten digu; eta ala konfesatzeko lege ori ezpagen du geroago eta itxuago, geroago eta arroago, eta gogorrago geldituko giñateke, eta komunkiro, penitenziarik egin bage zuzen-zuzen Infernura juango giñate: eta ainbesteraño da ori egia, nun esperenziak beti ala erakutsi du. 2. Gure arrotasunak, eta erabageko gerekiko amorioak dakarkigun itxumen aundia argitzeko, eta erremediatzeko, guztiok degu besteren

konseju bearra, eta Jesu-Kristok ipini digu konfesorea-
gan nork argitu, nork consejatu, eta nork erremedioak
eman, eta konfesatu bearrik ezpagenduke, gure gaiz-
takeriak iñori ez agertzeagatik gure itxumenean, eta
erremediorik billatu bage egongo giñateke, eta geroa-
go eta itxumen andiagoan eroriko giñate, eta oitura
gaiztoak Infernura eramango ginduzke, eta or agiri da,
zenbateraño Jesu-Kristok gure salbazioa deseaten
duen; bada ain erremedio egokiak gure gaitzak sen-
datzeko konfesioan ipini dizkigu; baña oraindio obeto
ori ezagutuko dezue, gogora ekarten badezue, eta au
da 5. probetxua, eta mesede guztiz andia, zenbat
errazago, eta seguruago pekatuen barkazioa konfesio
on batekin iristen dan, biotzeko kontrizio utsarekin
baño; bada pekatu mortalak bertatik desegiteraño,
eta Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasuna iristera-
ño elzen dan amoriozko kontrizio obetan dua edo per-
fektoa, ezta zuek bearbada uste dezuen bezin erraza,
eta akto kontriziozkoak aoz esanagatik, gutxi oi dira,
bear dan ezaguerarekin, humiltasunarekin, eta biotza
osoro Jaungoikoagana itzultzen, eta aldatzen duen
amoriozko damutasunarekin, akto kontriziozkoak edo
onez damuak egiten duenak; batez ere lenago artara
oiturik ezpadaude edo Zeruko argitasun, eta lagunta-

sun aundi bat izaten ezpadue. Baña ona, N.K. konsue-
lo andi bat, zuen kontrizioa onenbesteraño ez allega-
tu edo eldu arren, atriziozko edo bildur damu egiazkoa
badezue, orrekin, eta Konfesioko Sakramentuak berez
ematen duen graziarekin iristen dezue konfesioan,
absoluzioa errezibitzen dezuen instantean pekatuen
barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasu-
na; eta atriziozko edo bildur damu ori errazagoa da
kontriziozkoa edo onez damua baño, beste aldi
batean dolore edo damutasun bien gañean hitz egiten
degunean esango dizuedan bezela.

G. Eta badakarkigu beste probetxurik Konfesioko
Sakramentuak? **E.** Bai; eta ona bat guztiz estimaga-
rria. Kontu egizue, Kristau batek Jaungoikoaren gra-
zian dagoala guztiz obra on asko egiten dituala,
Zeruan dauden Santu guziak ainbeste meritu edo ira-
bazi egin dituala, eta oriei dagokien gloria gozatu bear-
zuela; baña zorigaiztoaz pekatu mortal batean arrez-
kero erori dala. Bada instante orretan, bere lengo obra
guziak, eta irabazi guziak illik gelditzen dira, eta aei
zegokien sari guzia, eta gloria guzia galdu du, eta
Zerurako irabazi berririk ezin egin dezakean estadu
tristean gelditzen da, penitenzia egiazkoarekin Jaun-
goikoaren grazia berriz iritxi artean. Orra pekatu mor-

tal baten puzunia zein arrigarria dan beste gaitzik ezpalu ere; baña ona Konfesioko Sakramentu santuaren indarra, eta birtutea, zein andia, eta miragarria dan; ez bakarrik ondo konfesatu ezkerro mortallaren barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia eta gloriarako deretxoa ematen dio, baizik galdu zituan lengo obra on guzien merezimentuak biurtzen diozka, eta baita ari zegokion gloriatzko deretxo guzia ere, eta ondasun berri ugariagoak irabazteko bidean ipintzen du. Eta, nork ondo aditzera eman lezake probetxuen balioa? Persona bati guztiz aberatsa dala itxasotan ondatuko balitzaizka edo lapurrak eramango balizkioe dituan ondasun guziak, zer pena artuko luke? Eta gero osoro biurtuko balizkioe, nolako poza, eta atsegina izango luke? Bada ortik kontu atera ezazue, zenbat geiago balio duen, konfesioak biurtzen dizkitzuen ondasun galduak, eta andiagoak irabazteko deretxoak; eta zenbat estimatu bear dezuen Konfesioko Sakramentuaren erraztasuna, ain probetxu andiak atera ditzaketzen ezkerro.

G. Eta eztakar beste probetxurik Konfesioko Sakramentu santuak? **E.** Bai, eta guztiz andiak, eta miragarriak, batez ere sarri konfesatzera oitu nai bagera; bada ez bakarrik egin ditugun pekatuak, ala

mortalak, nola benialak barkatzen dizkigu; baizik aurrera pekaturik ez egiteko, gure oitura gaiztoen indarra gutxitzeko, eskuratzeko, gure obligazioak ondo ezagutu, eta osatzeko, eta bizimodu pakezko bat egiteko, eta eriotza on baterako prestaturik egoteko, ematen dizkigu laguntasun guztiz asko, eta guztiz eragilleak; eta orrez gañera, pekatuen zorrak mundu onetan erraz pagatu eragin. Purgatorioko penak emen deskritatu edo gutxitu, eta Zerurako ondasun guztiz andiak irabazi eragiten dizkigu. Orra nolako kalteak erremediatzen dituen, eta nolako ondasunak irabazten dituen ondo, eta sarri Konfesioko Sakramentua errezibitzen duen Kristauak; eta ortik ezagutu dezakezue konfesioko legea zein erraza, eta biguña, eta zein probetxugarria, eta premiazkoa dan, gu betiko kondena-ziotik libratzeko, eta betiko salbazioa seguratzeko: eta argatik fede bizia duen Kristauak utsegiteren bat edo beste argaltasunez egin arren, egiaz humillaturik, eta damaturik, eta ondutzeko asmo egiazkoarekin pozik konfesatzen dira, eta animako pakea, eta ondo bizitzeko, aurrerako indarrak artzen ditue. Eta, nork esan ditzake konfesio on baten ondoren, Komunio santutik Kristauak ateratzen dituan probetxuak? Baña ezta au gaurko dotriña gaia, (sarri aitatzea merezi

badu ere) Eta kontrara, pekatu mortalean bizi oi diran Kristau ardurabageak, joku andi kaltegarriak edo erenzat edo besterenzat egin oi dituenak ardurabage okasioa datorkienean edo erak billaturik moteltzeraño, eta eren buruak irabiatzeraño ardoa edo mistela edo aguardientea edaten duenak; danza zikiñak, edo jostatze leunak egin oi dituenak; gaitziritzi, gorroto edo aserrean bizi diranak, birau gaiztoak, eta juramentu gezurrezkoak ardurabage egin oi dituenak, batari edo besteari edo fama ona edo estimazioa edo ondasunak kendurik, eta biurtu nai ezta daudenak, eta beste onelako asko, iñor baño, ondo konfesatzeko, eta erremediatzeko premia estuagoan daudenak, izan oi dira konfesioaren igasi dabiltzanak, edo noiz edo noiz edo Pazkuaz kunplitzeko konfesatzen badira ere bear dan egiazko damutasunik, eta benetan erremediatzeko proposito irmo, eta eragillerik artu oi eztue, gero erak erakutsi oi duenez.

G. Zer erremedio bada onelakoen itxumena sendatzeko, eta bertatik penitenzia egiazkoa, eta konfesio ona egitera ipinizeko? **E.** Jaungoikoak arren argitu ditzala, eta kondenatuak izateko daukien peligro edo arrisku arrigarria ezagutzeko, grazia diela, bada bestela erremediorik eztago, orrelakoak bada ezagutu

bear due, geroko, eta azkeneko eritasuna datorkiene-ko egiazko penitentzia, eta konfesio ona, eta bizimodu berria egitea luzatzen badue, komunkiro Infernura betiko jaisteko peligro guztiz andian daudela. Baña esango due; Ezta bada asko pekatutik libratzeko, eta salbatzeko, lenago gaizki bizi izanagatik, eriotzako gaitza eta ordua datorrenean al badu konfesatzea, eta ori ezin badu, akto kontriziozko bat egitea? Bai asko da, orduan ondo konfesatzen bada, edo akto kontriziozko egiazkoa egiten badu. Baña diot, Elizako erakusle edo Doktore santuakin batera beti geroko edo eriotzako peligrorako egiazko penitentzia egitea; eta konfesio on bat egitea luzatzen duen pekatari gaitzera oituak, ardurabageak, esperanza falso orrekin bizi izan diranak; komunkiro edo supito iltzen dirala edo eriotzako orduan zenzua, eta juizioa galtzen duela edo adimentu argiarekin egon arren edo oñazak edo eren artuemanak zuzendu bearrak, edo illtzeko larriak edo eren konzienziako nasteriak azoratu oi dituela, eta zer egin eztakien moduan ipiñi oi dituala; eta Konfesoreak lagundu arren bere konseju, eta hitz onakin akto kontriziozkoak edo onez damuak edo fedeko, esperantzako, eta karidadezko aktoak egitera, nola artara lenago oituak eztauden, eta eren betiko eskergabetasunare-

kin Zeruko argitasun, eta laguntasun espezialak desmerezitu izan dituen, bildur izateko da, orduan ere beti bezela oituraz, aoz bakarrik akto kontriziozkoak egingo dituela, eta benetan konbertitu bage ilko dirala: bada erregela jenerala izan oi da, nola bizi, ala ill. Lenago ondo konfesatu oi ziranak orduan ere komun-kiro ondo konfesatuko dira, eta salbatuko dira; baña lenago gaizki bizi izan arren, mudanzarik: erakutsi bage, bizimodu berririk egin bage, konfesatu, eta lenera biurtu, bere denpora igaro duenak; komunkiro eriotzako peligroan ere bear dan penitenziarik egin bage, eta pekatuen barkazioa iritsi bage iltzen dira, eta ori eren kulpaz gertatzen zaie, ez Jaungoikoaren miseriardiaren faltaz, (bada abisorik asko, eta goargi, eta inspirazio asko eman zien ondutzeko; baña gogortu ziran, kasorik egin etzuen, eta oraiñ Jaungoikoaren justiziarri dagokio orrelako pekatari ardurabageak, eta esker gaiztokoak eren itxumen borondatezko orretan largatzea, eta betiko Infernura botatzea.

Esna gaitezen bada arren, N.K.; penitentzia egiazkoa, eta konfesio ona egiteko, prestatu gaitezen ezaquerarekin, eta humiltasunarekin; pekatu egindako biotzeko damutasun andi batekin, aurrera ez berriz pekaturik egiteko; okasio edo peligro gaiztoak uzteko,

eta largatzeko, eta gure oitura txarrak benzitzeko, proposito, gogo, eta asmo irmo, eta eragille batekin; eta orretarako aurretik aritu gaitzen gure konsiderazioak egiten, eta Jaungoikoari gogotik eskatzen bear degun argia, eta grazia, pekatuaren gaiztakeri edo malizia arrigarria ezagutzeko; benetan aborrezitzeko, eta egiaz humillaturik, eta damuturik ondo konfeszatzeko, eta aurrera bizimodu on batean irauteko; bada eztago, N.K. beste biderik gure buruak betiko Infernuttik libratzeko, Jaungoikoarekin adiskidetzeko, egiazko pakea orain iristeko, eta eternidadeko pake, zoriona, eta gloria gero gozatzeko: Jaungoikoak arren guzioi digula ori. Amen.

BOSTGARREN DOTRIÑA

*Eta bigarrena Penitenziako
Sakramentuaren gañean.*

Gaur aditu bear dezue, N.K. dotriña bat txit premiazkoa, askoren itxumenak kentzeko guziz bearra; eta askotan predikatzen bada ere, pekatari askok txit nekez konprenditzen duena, eta ondo konfesatuko badira, nai ta ez jakin bear duena. Esango dizuet bada, Konfesioko edo Penitenziako Sakramentua ondo errezibitzeko, nolako pekatuen dolore edo damutasuna guziek nai ta ez eduki bear degun. Eta orretarako 1. zer dan, eta zenbat modutan dan, erakutsiko dizuet. Eta 2. egiazkoa izateko, nolako kondizioak bear dituan damutasunak, azalduko dizuet.

G. Penitenziako edo Konfesioko Sakramentuak zenbat parte ditu? **E.** Iru, dio Trentoko Konzilio santuak, eta dira; 1. Biotzeko kontrizioa edo pekatu egin-dako damutasun egiazkoa: 2. aozko konfesioa: eta 3. obrazko satisfazioa. Baña iru parte oetan beste bi ere sarturik daude: kontrizio edo egiazko damutasunean sarturik dago, berriz pekaturik ez egiteko proposito fir-

mea edo asmo sendo eragillea. Eta aozko konfesioan sarturik dago edo aditzen da, aurretik egin bear dan konzienziaren examiña, egin dituan pekatuak gogora edo burura ekarteko; bada bestela ezin bear bezela konfesatuko ditugu edo konfesoreari esango diozka-gu. Eta argatik, obeto bearrez aurtxoai erakusten zaie, konfesio on bat egiteko bost gauza bear dirala:

1. konzienziaren examiña edo egin dituan pekatuak burura edo memoriara ekarteko, au da, aezaz oroitze-ko edo akordatzeko asko dan ainbesteko alegiña egi-tea.
2. Biotzeko dolore edo damutasun egiazkoa, pekatuarekin Jaungoikoa ofenditu dualako.
3. Ez berriz pekaturik egiteko proposito edo asmo firmea edo sen-doa.
4. Egin dituan pekatuak aoz konfesatzea edo esa-tea batere utzi bage lotsaz edo bildurrez. Eta
5. obraen satisfazioa edo konfesoreak agintzen duen penitenzia kunplitzea.

G. Penitenziako edo Konfesioko Sakramentuak duen parterik edo gauzarik prinzipalena, premiazkoe-na, eta ezin iñola ere utzi ditekeana zein da? **E.** Trentoko Konzilio santuak lenengo aitatzen duen biotzeko kontrizioa edo pekatuaren egiazko damutasuna edo dolorea.

G. Eta damutasun edo dolore ori zer da? edo nola da? **E.** Da Jaungoikoa ofenditutako biotzeko damua, eta pekatuaren kontrako gorrotoa, ez berriz pekatu egiteko asmo edo proposituarekin batera.

G. Eta damutasun edo dolore ori zenbat modutan da? **E.** Modu bitan; batari deritza kontrizio perfektoa, eta da, amoriozko damutasuna, edo karidadearekin au da, Jaungoikoaren guzien gañeko amorioarekin lagundurik edo animaturik dagoana; edo da, Jaungoikoa guzia ona, eta maitagarria dalako, eta beste gauza guziak baño geiago maite degulako, aren Majestadea ofenditutako biotzeko damutasuna, ez berriz pekatu egiteko, konfesatzeko, eta satisfazio emateko asmo edo proposito egiazkoarekin batera.

G. Eta beste damuari nola deritza? **E.** Kontrizio imperfektoa, eta esaten diogu atrizioa edo bildurrezko damutasuna; eta da, pekatuarekin Jaungoikoa ofenditutako biotzeko dolore edo damutasuna; zerren pekatu egiñaz galdu degun grazia, eta Zeruko gloria, eta merezitu izan degun betiko Infernua, edo zerren pekatua berez dan, izan ditekean gauzarik itxusiena, billauena, eta lotsagarriena; bada egiten gaitu Jaungoikoaren etsaiak, eta infernuko demonioaren esklabu, katibu edo menpeko infameak; eta damutasun

onekin batera orobat eduki bear degu, ez berriz pekatu-
turik egiteko, konfesatzeko, eta satisfazio emateko
egiazko propositoa, eta baita aurrera Mandamentuak
gordetzeko, eta batez ere Jaungoikoa biotz guztitik,
eta gauza guzien gañetik amatzeko deshea, asmoa
edo borondate egiazkoa edo eragillea; eta orretara
leiatu, eta mugitu bear gera artarako egokiak diran
konsiderazioekin; eta Jaungoikoari bere amorio santua
eskatuarekin; onela erakusten due eren Katezismoe-
tan Fr. Luis de Granada Beneragarriak, eta Bosuet
Franziako Obispo jakintsuak, eta onek batez ere, Tren-
toko Konzilio santuaren dotriña gai onetan azaldu edo
explikatzen duela; eta orrela bertatik justu, eta Jaun-
goikoaren adiskide egiten gaituan amorio perfektoa
edo karidatea oraindio ez eduki arren, gaude egiaz
prestaturik Konfesioko Sakramentuak ematen duen
grazia errezibitzeko, eta ala, absoluzioarekin batera
pekatuak barkatzen zaizkigu; graziazko estadian jar-
ten gera, eta justuak, eta Jaungoikoaren adiskideak,
eta Zeruko herederoak egiñik gelditzen gera.

G. Zer diferentzia dago kontriziozko edo amoriozko
damutasunaren, eta atriziozko edo bildurrezko damu-
tasunaren artean? **E.** Biak dira guztiz onak, eta Jaun-
goikoaren doaiak; baña kontrizioa edo amoriozko

damutasuna askoz da ohea, nobleagoa, estimagarriagoa, eta balio geiagokoa; eta ala, nola urrea dan balio geiagokoa, zillarra baño, bada amoriozko edo kontriziozko damutasun egiazkoak konfesatzeko asmoarekin bagaude, bertatik konfesatu baño lenago Jaungoikoarekin adiskidetzen gaitu; pekatuak desegiten edo barkatzen dizkigu, eta estadu graziazkoan ipinten gaitu; baño ala ere konfesatzeko obligazioa gelditzen zaku. Baña atriziozko edo bildurrezko damutasunak orrenbeste indar eztu, eta Jaungoikoa amatzeko asmo edo dese hutsak, egiazkoak izan arren, eztira bereala eldu oi, ain biziak, indarsuak, eta eragilleak izatera, nun bertatik egiazko karidatea edo justu egiten gaituan kontrizioa, sortu eragiten duen; eta argatik, pekatu mortal egin ezkeru estadu orretan dagoan penitentea, absoluzioa errezibitu baño lenago illko balitz, kondenatuko litzate, eta absoluzioarekin salbatuko litzate; eta kontriziozko edo amoriozko damutasun piña, bizia, indartsua, eta eragillea bear bezelako gradoan zeukana, salkatuko lizate, konfesatu baño lenago illko baliz ere, eta orrelako damutasunarekin pekatuen barkazioa iritsi zuen gure lenengo gurasoak Adanek, eta Ebak, Sansonek, Dabidek, San Pedrok, Santa Maria Magdalenak, eta beste askok; eta Kristau

onak damutasun ori erraz ejerzitatzen due, batez ere orazioa konsiderazioarekin egiten duenean; baña Kristau ardurabageak, pekatua oituak nekez iristen due, eta ortik erraz ezagutuko dezue, zenbat zor diogun gure Jesus onari, Konfesioko Sakramentuarekin gure salbazioa errazago, eta seguruago ipiñi digulako; bada bertatik justu egiten duen amoriozko kontrizioa eztu erraz iristen pekatu mortalean egon danak, eta errazago iristen du atrizioa edo prestatzen da edo moldatzen da Konfesioko Sakramentuarekin batera, Jaungoikoaren grazia, eta pekatuen barkazioa iristeko, eta errezibitzeko.

G. Eta pekatuen biotzeko dolore edo damutasunak, naiz kontrizioak, naiz atrizioak, eta ari darraion propositoak egiazkoak, eta ez iduripenezkoak izateko, nolakoak izan bear due? **E.** Arren gogoan ar ezazue eranzuera au, bada guztiz bearra degu guziok dotriña onen ezaguera. Pekatuen dolore edo damutasunak, eta proposituak lau kondizio oek bear ditue egiazkoak izateko. 1. Izatea biotzekoa: 2. izatea sobrenaturala edo Jaungoikozkoa. 3. izatea guziakikoa edo pekatu mortal guziena. 4. Izatea damutasun edo dolore txitezkoa, beste gaitz guztiak baño geiago pekatua iguitu eragiten diguna. Eta 1 izan bear du bada damuta-

sunak, eta propositoak biotzekoa; eta ezta asko akto kontriziozkoak oituraz errezatzea, eta aoz esatea, pekatuaren bear dan damurik, iguirik eta gorrotorik edo aborrezimenturik gure barruan edo biotzean eduki bage: eta ala, gure gaizki egiñaz penaturik, lotsaturik, eta tristeturik egon bear gera, eta berriz ez egitea erabaki bear degu; eta ori esan nai du biotzeko doloreak, eta kontrizioak, eta baita atrizioak are; len gogorra, eta arroa zegoan biotza, nolabait ausi, bigundu, eta, esaten dan bezela, humillatu, eta mudatu bear da: len maite zuan pekatua edo pekatu gaia iguindu bear du, eta ardurabage ofenditu zuen Jaungoikoa injuriatuaz edo aserratuaz penaturik egon bear du; eta aurrera ez berriz pekaturik egiteko, eta Jaungoikoa gogotik serbitzeko, eta aren legea osoro gordezkeko proposito firmea, eta gogo egiazkoa, bere biotzean edo bere barruan artu bear du, bada bestela konfesoak batere balio eztu.

G. Eta damutasun edo dolore ori izan diteke egiazkoa, eta piña, biotza beratu bage, bigundu bage, eta negarrik egin bage? **E.** Bai; bada biotzaren izenaz ezta aditzen gorputzean daukagun aragizko biotza, baizik gure animaren naiera, naimendua edo borondatea; eta diferenzia guztiz andia dago gorputzeko begiak

edo sentiduakin ikusten ditugun kalteak, naigabeak, eta gaitzak eragiten duen sentimentuaren, eta mintasunaren, eta animako ezaguerarekin, eta batez ere fedearen begiakin, eta argiarekin ezagutzen ditugun animako kalteak ematen duen barruko damu, dolore, eta penaren artean; kanpoti ikusten ditugun naigabeak, atsekabeak, eta kalteak bereala ukitzen, minberatzen, eta sentikortzen gaitue; baña begiz ikusten eztiranak, nola diran, pekatuak animari egiten diozkan kalteak, ez gaitue mugitzen, eta sentikortzen, eta orobat da pozaren aldetik; begiz ikusten ditugun ondasunak, atsegiñak, eta estimazioak agitz alegratzen gaitue, eta biziro deseaten ditugu; baña fede guztiz bizia, eta argitua ezpadegu, animako ondasunak, eta irabaziak gutxi poztutzen gaitue, eta eztitugu biziro deseaten; eta bakarrik konsiderazioarekin ezagutzen ditugu, ala animako gaitzak, nola ondasunak, eta eza guera orrezaz, eta Jaungoikoak ematen digun argiez eta graziai konforme, gure barruan gaitzak edo pekatuak iguitzen ditugu, eta birtuteak maite ditugu, eta gure borondateak artzen du gaizki egiñaz, eta Jaungoikoa ofendituz egiazko damua, eta pekatuaren gorrotoa, eta ez berriz egiteko, eta birtuteari jarraitzeko asmo firmea, eta eragillea; eta ori askotan, eta

geianean gertatzen da, gorputzean miñik sentitu bage; biotzeko beratasunik, eta biguntasunik izan bage, eta negarrik egin bage, barruan egiaz damuturik egon arren. Ala ere, damuaren indarrez negar egitea gauza txit ona, eta balio andikoa da; baña ori gure eskuan eztago, Jaungoikoaren doai andi bat izan oi da, nai duenari ematen diona. Eta kontrara ikusten da, berez natural biguña, sentikorra duen persona, askotan txit erraz negar malkoak botatzea, lastima ematen duen edozein gauza aditu orduko; baña eren barruak batere mudatu bage, pekatuaren egiazko damurik, iguitasunik edo gorrotorik artu bage; zerren bear dan bezela borondateak pekatua iguitzeko, eta benetan aborrezitzeko, pekatuaren gaiztakeria, eta kalte arri-garriak ezagutzeko alegiñik egiten ez tuen, konsideraziorik orretarako egiten ez tuen, eta ezta bear dan oraziorik edo erregurik Jaungoikoari penitenziaren edo egiazko damutasunaren doaia eskatzeko. Eta argatik ez tue iristen, ondo eta frutuarekin konfesatzeko nai ta ez, bear dan barruko edo biotzeko damutasun edo dolorea.

Eta onek Jaungoikozkoa edo naturalezaz gañeko ere izan bear du egiazkoa izateko, eta au da damutasun egiazkoaren bigarren kondizioa. Zer da bada

damutasun edo dolore Jaungoikozko edo naturalezaz gañeko ori? Da Zeruko doai aundi bat, Jaungoikoak gogo onez ematen diguna gure partetik, ondo errezi-bitzeko edo iristeko prestatzen bagera edo alegiñak egiten baditugu. Gauza bi nai, ta ez bear ditugu daukagun itxumena sendatzeko, eta pekatuak iguitzeko, eta bizimodu on bat egitera jarteko; 1. da, fedea ematen duen Zeruko argia, eta gure partetik kontsiderazioa, pekatua zer dan, eta nolako kalteak dakazkian ondo ezagutzeko. Eta 2. da, Jaungoikoaren grazia gure biotza, eta borondatea mugitzeko pekatua iguitzera zelo aborrezitzera, eta justizia edo birtutzea maitatzea. Eta ori argiro ikusi zan Santa Maria Magdalenagan, au izan zan eskandalorik asko eman zuen emakume famatu bat; Jesu-Kristok egiten zituan mirariak, eta aren dotriña aditu zituan; Jaungoikoak argitasun bizi bat eman zion, bere pekatuen aunditasuna ondo ezagutzeko, eta ukitu zion bere biotza, eta fede bizi batekin, esperanza humil batekin eta karidade irazeki batekin billatu zuen Jesu-Kristo, konbidaturik zegoan etxe batean; oñetan etzin zitzaion; bere negar malkoakin oñak busti zion, eta bere buruko illeakin garbitu ziozkan, eta aren damutasun edo kontrizioa ain bizia izan zan, nun bertatik Jesu-Kristok berak esan zion,

aren pekatuak barkaturik zeudela, zergatik aren amorioa aundia izan zan; eta orra penitentzia egiazko baten ispillu ederra; Jaungoikoaren graziatik asitzen da, eta aren argitasun eta laguntasunarekin eta penitentearen alegiñakin iristen da.

G. Ezin bada Kristauak, dotriñako egiak dakizkian ezkerro, nai duen guzian bere adimentu, eta arrazoiarekin bakarrik, pekatua zer dan, zein gaitz arrigarria dan, eta nolako kalteak dakazkian ezagutu, eta sinistu lezake? Eta bere borondatearekin pekatua iguitu, eta damu artu lezake? **E.** Ez Zeruko argi bage, edo Jaungoikoak eman bage barruko bere argia, bere grazia edo inspirazioa fedeko egiak edo pekatua iguitzeko arrazoiak edo motiboak gogoratzeko, eta bear bezela sinisteko, eta konsidetatzeko, eta orren ondoren damuturik, pekatuari gorroto artzeko, eta bizimodu gaiztoa utzirik, bizitza berria egiteko. Ori guzia eztegu gure indar utsakin egiten; bada pensamentu on batere ezin egin dezakegu Jaungoikoaren grazia bage; eta argatik esan dizuet, egiazko damutasuna edo dolorea Zeruko doai andi bat dala; eta orregatik da sobrenaturala edo naturalezaz gañekoa, gure adimentu, eta borondatearekin bakarrik ezin iritsi deza-keguna, Jaungoikoaren argitasun eta laguntasun

bage; eta orra zerk guziok humillatu bear gaituan, eta Jaungoikoak berak penitencia, eta konfesio on bat egiteko gogoia, deseoa, eta inspirazioa ematen digunean, gauza bi egin bear ditugu; bata, berari eskerrak ematea, zerren beregana deitzen gaituan, eta bestea, humiltasunarekin, eta Jesu-Kristoren izenean, konfiantza oso batekin eskatzea penitencia, eta konfesio on bat egiteko bear degun argia, grazia, eta laguntasuna eman degigula, eta batez ere egiazko damutasunaren doia.

G. Eta zergatik geiago izan bear du damutasunak edo doloreak sobrenaturala edo naturalezaz gañekoa?

E. Damutzeko, eta pekatua iguitzeko izan bear ditugun motiboakgatik. Damutzen bagera pekatu egiñaz, pekatuak mundu onetan ekarri dizkigun kalteakgatik, nola lotsakizunak, eritasunak, deshonorak edo kasti-guak, txit damaturik, tristaturik, eta negarra darigula egon arren, damutasun ori da bakarrik naturala, eta orrekin bakarrik bat konfesatuko baliz, alperrik konfesatuko lizate, eta milla bider absoluzioa emango balio-be ere, ez Sakramenturik, eta ezta pekatuaren barkaziorik artuko luke; eta ori gertatu oi zaie eren honra, eta fama galdu duen neskatxe zoroai; ondasun guziak galdu dituan jokulariai; justiziak arrapatu dituan lapu-

rrai; osasuna, eta ondasunak galdu dituen ordiai; eta lujuriari darraielatzen ibilli diran giza zoroai; bada orien damutasunak izan oi dira komunkiro, etorri zaizten gorputzeko edo munduarekiko kalteakgatik, eta ez animakoakgatik.

G. Zer motibo eduki bear degu bada pekatu egiñaz damutzeko, eta pekatua iguitzeko? **E.** Edo kontriziozko motiboak edo atriziozkoak; ez munduko errespetoakgatik edo kalteakgatik, ezpada fedea erakusten dizkigun motibo sobrenaturalakgatik damutu bear gera, edo begiratzeko diogula fedea argiarekin ofenditu degun gure Jaungoikoaren izate soberanoari edo aren ontasun neurribageari, edo aren gudanako amorioari, eta egin dizkigun mesede guztiz aundi, eta miragarriai; edo pekatuaren itxutasun, eta gaiztakeri izugarriari, Jaungoikoaren aserrea, eta gaitziritzian ipinten gaitualako, eta demonioaren zorigaitzoko kati-bu edo menpeko billabak egiten gaitualako; edo betiko gloria, eta zoriona galdu eragiten digulako; edo betiko infernua merezi eragiten digulako; edo Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren frutua geren kulpaz galdu degulako, eta berriz Jesu-Kristo gurutzean illerazotzeko diña motibo eman degulako; orrelako motiboak ez dizkigu gure arrazoi natural utsak

erakusten, baizik fedearen argi sobrenaturalak edo naturalezaz gañekoak; eta oriek gogora ekarri, eta kontsideratu bear ditugu pekatuaren damutasuna edo dolorea, sobrenaturala izango badegu; eta orra Kristau onak txit kontuz, eta arretaz egiten duena, konfesatu baño lenago; eta orra Kristau ardurabageak, eta batez ere gaizki oituak egin oi eztuena, eta kontentatzen dira konzienziako examiña labur batekin eta barrua ukitzen, mugitzen, eta aldatzen ez-tuen akto kontriziozkoren bat edo beste errezatuarekin, eta ala, eren konfesio guziakin erremediatzen ez-tira, eta ezta eriotzako orduan ere, zerren pekatuaren gaiztakeria edo malizia, eta aren kalte arrigarriak bear bezela gogoratzeko, eta ezagutzeko alegiñik egiten ez-tuen; eta ezin dateke ezagutzen ez-tan gaitza iguitzea, eta aborrezitzea, eta are gutxiago, bear bezela arzaz damutzea, eta ura erremediatzeko proposito edo gogo sendo eragillerik artzea.

Eta orra zerk daramatzen Infernura ezin kontatu ala Kristau; geienak ez-titu kondenatzen konfesioaren faltak, baizik egiazko damutasun sobrenaturalaren, eta proposito onaren faltak; deabruak itxuturik dauzka, sinistu eragiten die, pekatuak examiñatu edo gogoratu, eta konfesatu ez-kero, guzia dagoala erre-

mediaturik, eta erremedioaz pozoia egiten duela, pekatu egitera asko jarten dira konfesatzeko esperantzarekin, eta ez lirateke artara jarriko pensatuko balue, damutu bear det, eta benetan damutu bear det, eta penaturik egon bearko det orain egiten dedan pekatuaz. Eta or ezagun da, konfesatu ezkerro besterik zer egin eztuelako daukeen itxumen guztiz kaltegarria; eta ala konfesioaren gauzarik bearrena, premiazkoe-na uzten due, zeña dan damutasuna, edo aiñ azaletik, eta aiñ argalkiro damua, eta propositoa artzen ditue, nun frutu bage Konfesioko edo Penitenziako Sakramentua errezibitzen duen.

Kontu bada arren, N.K. konfesatu baño lenago Jaungoikoari gogotik bere argia, eta grazia eskatu egiozue, zuen pekatuen gaiztakeria, eta kalteak ondo ezagutzeko, eta aritu zaitezte astiro pekatua iguitzeko, eta aborrezitzeko, eta arzaz damutzeko, eta ez berriz pekaturik egiteko, proposito sendoak artzeko, fedea erakusten dizuen, eta orain aitatu ditugun motibo guztiz andiak konsideratzen; eta oriekin esnaturik, mugiturik, eta egiaz damuturik akto kontriziozkoak biotzetik egiten; Jaungoikoari humildade, eta konfianza bizi batekin Jesu-Kristoren izenean barkazioa eskatzen, eta baita, aurrera bizimodu on bat egi-

teko edo Jaungoikoaren amorioan eta adiskidetasu-
nean bizitzeko bear dezuen laguntasuna, eta indarra
benetan eskatzen; eta orrela txit ondo, eta frutu
andiarekin konfesatuko zerate, eta izango dituzue,
egiazko damutasunak nai ta ez bear dituan beste kon-
dizio biak.

G. Zein dira oriek? **E.** Bata, izatea damutasun
guziakikoa, jenerala edo pekatu mortal guziena, bate-
re berezi edo apartatu bage; eta bestea izatea damu-
tasun soberanoa edo dolore guzien gañekoa, beste
gaitz, neke, eta naigabe guziak baño geiago pekatua
iguitu edo aborrezitu eragiten diguna. Ara nola dauka-
gun obligazioa Jaungoikoa amatzeko gauza guztiak
baño geiago, eta gure animako salbazioa geiago esti-
matzeko, munduko honra, ondasun, eta atsegin
guziak baño; ala, Jaungoikoa eta gure anima galdu
eragiten dizkigun pekatu mortala, geiago aborrezitu
bear degu munduko neke guziak baño, eta pekatu
mortalik ez egiteagatik erabaki bear degu, ala bear
baliz, gure gurasoak, gure senideak, seme edo alabak,
aideak edo adiskideak, gure estimazio, honra, onda-
sun, eta konbenienzia edo era guziak, eta baita gure
bizia galtzea ere, eta, nola pekatu mortal bat bakarrik
asko dan, Jaungoikoa galtzeko, eta gure anima betiko

kondenatzeko; orregatik pekatu mortal guziak ezin geiagoraño aborrezitu bear ditugu, batera apartatu bage, eta aek egindako damu jenerala edo guziakikoa, eta eragillea eduki bear degu.

Eta onetan utsegin oi due len esan dedan konsiderazio bage, eta maite dituen pekatu gaiak benetan aborrezitu bage, eta uzteko ere asmo egiazko, eta irmo bage, konfesatzen diranak. A! eta zenbat onelako munduan ikusten diran! Baña aitatu ote ditut emen guziak banaka? Ori ezin dateke dotriña labur batean; eta ala ere, ezin esan gabe utzi dezaket. 1. Pekatu mortala, eta batez ere lujuriakoa egiteko arrisku edo peligro gertu edo urrean eren borondatez daudela, konfesatzen diranak, eztuela pekatuaren egiazko damutasunik, eta ez proposito firme eragillerik: 2. alkarrekiko gorrotoan daudela, konfesatzen diranak, gaizki konfesatzen dirala; bada ezta posible pekatuen barkaziorik Jaungoikoagandik iristea, alkarri biotzetik lenago barkatu bage, eta alkar amatu bage. 3. Besteren ondasuna, honra edo fama gaizki kendu, eta biurtzeko egiazko alegiñik egiten eztuenak, egin dezakeala, eztuela egiazko damutasunik, eta ez propositorik, eta gaizki konfesatzen dirala. 4. Pekatu mortala egiteko oitura, kostunbre edo aztura gaiztoa arturik dauke-

nak, ori ezitzeko, eta menderatzeko erremedio eragileak artu nai ezpaditue, negarra dariela konfesatu arren, eztuela egiazko damutasunik, eta ez proposito onik; bada Jaungoikoa ezta hitz ederrakin kontentatzen, baizik obra onakin, eta indar egin bage, eta gogotik peleatu bage, ezin oitura gaiztoak erremediatu ditezke. Kontu bada biraugille, juramentugille, murmuratzalle, danza zikin, eta jostatze loizaleak; ardora, eta joku luze kaltegarrietara emanak edo oituak. Benetan erremediatu nai ezpazerate, kondenatuak izateko arrisku guztiz aundian zaudete. Oitu gaitzen bada guziok geren buruak ezagutzeko, eta erremediatzeko egunoro konsiderazio piskatxo bat egitera; pekatuaren egiazko damutasuna berritzera, eta konfesiorako ondo prestatzera; orrela iritsiko degu pekatuen barkazioa, Jaunaren grazia, eta sekulako gloria. Amen.

SEIGARREN DOTRIÑA

*Eta irugarrena Penitenziako
Sakramentuaren gañean.*

Konfesio on bat egiteko, nai ta ez bear dan pekatuaren damutasuna, eta ez berriz pekaturik egiteko, bear dan proposito ziñezkoa edo asmo irmo, eta eragillea, aditzera eman nizuen aurreko dotriña aldian. Baña ala ere, nola pulpilotik Kristau mota guziai, bear duen dotriña, bakoitzari dagokion era edo moduan alik argiroena, aditzera eman bear zaien; gaur esan nai dizuet, 1. pekatu benialak baizik eztituen Kristauak, nolako damutasuna, eta propositoa bear dituen, Penitenziako Sakramentua frutuarekin errebitzeko. 2. Proposito egiazkoaren irmotasuna edo sendotasuna, zertan dagoan, eta artan irauteko, zer egin bear dan. Eta 3. zer esan nai duen pekatu mortalak, edo zergatik deritzon mortala; eta pekatu mortalean erori ezkeru, zein gauza probetxugarria dan, alik lasterrena konfesatzea, eta zein gauza bearra dan, bereala damutasuna artzea, eta akto kontriziozkoa biotzetik egitea. Atenzioa guziori eskatzen dizuet.

G. Pekatu benialak konfesatzeko obligaziorik badegu? **E.** Diot 1. pekatu benialak baizik eztiralako uste osoan gaudenean, borondatez konfesatzea on da, baña obligaziorik eztegu. 2. Diot, egin ditugun pekatuak, benialak edo mortalak diran, ezin ezagutu, eta fundamentuz erabaki degunean, konfesatu bear ditugu, gure konzienzian dauzkagun moduan. 3. Diot, pekatu mortalik batere ezpadegu, eta ala ere konfesatu nai bagera, Sakramentua, eta absoluzioa errezibitzeko, pekatu benial bat edo beste, nai ta ez konfesatu bear degu, eta arekin Jaungoikoa ofenditu degulako damutasun egiazkoa gure biotzean artu bear degu, aurrera erremediatzeko, proposito edo asmo egiazkoarekin, bada eztago Penitenziako Sakramenturik, konfesio bage, damu bage, eta absoluzio bage; ara nola eztagoan Bateorik, egiazko ura egotzi bage, eta Bateoko hitzak esan bage. Eta 4. diot, nola pekatu mortalaren malizia edo gaiztakeria errazago dan ezagutzen, eta arzaz damutzen, pekatu benialaz baño, azkeneko konfesioa ezkeru, pekatu benialak baizik eztituanak, obe du lenagoko pekatu mortalik badu, ondo konfesaturik eduki arren, arzaz berriz konfesatzea, eta aren damutasuna berritzea, eta ori da Kristau onak egin oi duena, damutasuna obeto aseguara-

tzeko; eta ezpadu, lenagoko pekatu mortal jakiñik edo ezaguturik, ala ere obe du, pekatu guziezaz jeneralki-ro akusatuz ostean, pekatu benial jakin edo ziertu batez berriz akusatzea, eta ura egindako damutasuna berritzea proposituarekin batera; bada pekatu benialak baizik ez izan arren, damu bage, eta propositu bage konfesatuko balitz ardurabagetasunez, konfesio gaiztoa, eta sakrilejioko pekatu mortal bat egingo luke; baña egiazko damutasuna, eta propositoa duela-ko uste onean, alegiñak egin ezkerro, baña egiaz bear bezelako damutasunera eldu bage, konfesatuko baliz, Sakramenturik, eta pekatuen barkaziorik artuko ez luke; baña pekatu berririk ez luke egingo, zerren eza-guerarik, eta maliziarik, eta kulpa andirik eztuen; eta Kristau bildurti, eta eskrupuludunak orrenbesterekin sosegatu bear dira, eta esperanza osoa eduki bear due, eren partetik alegiña egin ezkerro, Jaungoikoak bere grazia edo Sakramentuaren frutua ere emango diela; eta orretarako 5. diot, konfesatzeko prestatzen diranean, aritu bear duela, pekatu mortalik ez izan arren, pekatu benialaren damutasuna iristeko, bere orazioa, eta konsiderazioa egiten, au da, Jaungoikoari bere argia, eta grazia eskatzen, eta pekatu benialaren damua artzeko, fedea erakusten dizkigun motibo

sobrenaturalak gogoratzeko, aekin argiturik, eta mugiturik, pekatu benialak ere iguitzeko edo aborrezitzeko, eta aen damu egiazkoa, eta ez berriz ezagueraz egiteko propositoa artzeko.

G. Eta zein dira gogoratu bear dituan motibo sobrenatural oriek? **E.** Orretarako berariazko dotriña bat emanik daukagu pekatu benialaren explikazioan, eta orain laburtxo diot, pekatu benialaz benetan damutzeko, konsideratu bear degula; 1. gure Jaungoiko guztiz ona, eta guztiz ongillea, gure Aita maitagarria, geran guzia, eta degun guzia eman diguna, ala gorputzaren aldetik, nola animaren aldetik, eta betiko zoriona, eta gloria Zeruan eman nai diguna, ardurabage ofenditu degula; eta, zergatik? ezerezkeria bategatik, gure gustoa egitegatik, gezur bat edo beste esategatik, mingaña ez mortifikatze gatik, pazienza piska bat ez edukitze gatik, eta bear eztiran hitz gogorak edo mingarriak esate gatik, edo beste utsegite askogatik: eta ori guzia egin degula beti begira dagokigun, eta beti mesedeak guri egiten ari dan Jaungoikoaren begietan. Eta, ez gera lotsatuko, eta damutuko ain esker gaiztoaz, Jaungoikoaren ontasunari, eta amorio kabubageari eranzunaz? Bada 2. Jaungoikoa ofendituaz gañera, uste degun baño kalte

andiagoak gure anima gaxoari egiten diozkagu pekatu benialarekin, eta batez ere, ezagueraz edo oarmenaz egiten ditugunakin; zerren Jaungoikoaganako gure amorioa gutxitzen, epeltzen, eta argaltzen da; gure anima gaxotzen, eta makaltzen, eta flakutzen da; gure griña gaiztoa azitzen, eta indartzen, eta tentazioa datorkionean pekatu mortalean erraz erorteko zorian edo peligroan jarten da: eta orra pekatu beniala iguitzeko, aborrezitzeko, eta arzaz damutzeko motibo guztiz andia. Eta 3. oraindio obeto ezagutzeko pekatu benialaren malizia, gaiztakeria, eta artan arkitzen dan kulpa, pensatu baizik eztezue, pekatu benialakgatik Jaungoikoaren justiziak egin dituan, eta egiten dituan kastigu arrigarriak, ala mundu onetan, nola Purgatorioan; eta kastigu denporala aitatu bage, bildurgarriagoa da Jaungoikoak egiten duen kastigua, ardurabage pekatu benial edo ariñak egiten dituanai ukatuaz edo laburtuaz bere laguntasunak, tentazioko denporarako, eta aen faltaz pekatu mortalean errazago erorten dira; eta kontrara, Kristau leialai, kontuzkoai, eta gauza txikietan ardurazkoak diranai, eman oi dizte berariazko argiak, graziak, eta indarrak, tentazioak goitzeko, eta pekatu andietan ez erorteko. Eta au da gauza bat txit ikaratu bear gaituana, eta zenza-

tu bear gaituana, pekatu benialik ardurabage ez egi-
teko; bada ortik dator komunkiro askoren kondenzazio-
aren asiera; eta besterik ezpaliz ere, ori da asko peka-
tu benialak iguitzeko, eta lenago egiñaz egiaz damu-
tzeko, eta aurrera kontuzago eskusatzeko. Bada orrez
ostean, illtzen geranean, beste pekaturik, benialak
baizik ezpagendu ere, orien zorra Purgatorioan nai ta
ez tormentu arrigarrien artean pagatu bear ko degu.

Eta badagizue Purgatorioko pena, eta tormentuak,
munduko guziak baño, agitz dirala andiagoak; alaba-
ña Infernuaren antzeko su bizi irazeki batean erretzen
daude, eta ansiatzen dauden Zeruko gloriaren espe-
ranza, luzatzen zaielako pena guztiz arrigarria sufri-
tzen daude, eta orretarako pekatu benial bat asko da;
eta orra motiborik asko, ondo pensatu nai badituzue,
pekatu benialak ardurabage egiñaz, Jaungoikoa ofen-
ditulako egiazko damutasuna artzeko, eta baita pro-
positoa ere, eta pekatu benialak aurrera alegiñaz
eskusatzeko; eta zenbat arreta, eta kuido geiago
ipinten dezuen pekalu benialetan ez erorteko, anbat
pekatu mortalaren iguitasun andiagoa, eta artan ez
erorteko proposito irmoagoa, eta sendoagoa edukiko
deue.

Baña jakin naiko dezue, batez ere pekatu mortalik aurrera iñola ere ez egiteko propositoaren irmotasuna, eta sendotasuna zertan dagoan, eta artan irauteko zer egin bear dan. Aurreko dotriña aldian aditu zenuen, pekatu mortalaren barkazioa iristeko, nolanai ta ez guziok bear degun eduki egiazko damutasuna, eta propositoa, eta oek izan bear zuela, 1. biotzetik edo gure barrunetik, eta ez bakarrik aozkoak. 2. Izan bear zuela, fedea erakusten dizkigun motibo Jaungoikozko edo naturalezaz gañekoakgatik, eta ez munduko errespeto edo kalteakgatik. Eta 3. pekatu mortal guziak berdin, batere apartatu bage aborrezitu edo igundu bear ginduzela. Eta 4. beste gaitz, neke, eta naibage guziak baño geiago pekatu mortalak dakazkigun animako gaitzak edo kalteak sentitu bear ditugula; eta orri dagokala, erabaki bear degula Jaunaren graziarekin batera, mundu guzia, eta gure bizia galduko badegu ere, ez berriz pekatu mortalik egitea. A! zein zorionekoa estadu, eta prestaera onean bizi dan Kristaua! Eta ona Kristau argal bildurtientzat eskrupulu gai andi bat, eta gaitzera edo biziora oiturik egon diranentzat animoa, gogo eragillea, eta egiazko borondate iraupenekoa aurrera izango eztuelako bil-

dur gai andi bat, eta proposito egiazkorik eztuelako tentazio goaigarri, eta penagarri bat.

Zergatik egiaz damaturik egon arren, eren argaltasunari begiratu, eta uste due, berriz ere eroriko dirala; diot bada, bildur ori badatorkie gogo onaren edo borondate onaren faltatik edo urritasunetik, arrazoirik asko daukela bildurtzeko, eta asmo edo proposito argala, eta iruipenekoa daukeela pensatzeko; baña borondate ona, eta erabakia badauke ez berriz pekatu-rik egiteko, eta orretarako bear diran medioak artzeko, erenez argalak izan arren, proposito egiazkoa daukelako ustea edo esperanza eduki dezake; batez ere eren argaltasunari begiratu, eta humillatzen badira, eta sokorru eske, eta indar eske Jaungoikoagana gogotik akuditzen badue; bada uste badegu, gure propositoaren irmotasuna, eta sendotasuna dagoala bakarrik gure alegin utsetan, geurk nai izatean bakarrik, eta gure indar utsakin iraungo degula pekatura biurtu bage; engañaturik, eta itxuturik gaude, eta gure asmo onak beletea bezela batetik bestera jiratu-ko dira; eta txit erraz, ikusten dan bezela, deabruak, munduak, gure aragi gaitzera makurtuak, bere griña gaiztoakin eta gure oitura zarrak, eta argaltasunak,

okasioa, eta tentazioa datorkigunean, itxutuko gaitue, eta pekatura biurtu eragingo gaitue

G. Nundik etorri zala uste dezue Aita San Pedroren pekatu jakiña, bere Maisu dibinoa, Jesu-Kristo bera ukatzerañokoa? **E.** Bada izan zan; zerren geiegi bere indarretan fiatu zan, eta arrotasunez esan zuen; beste Apostoluak, Jesu-Kristo largatzen edo usten bazuen ere, berak etziola largako, eta eriotza sufritu bearra izaten bazuan ere, etziola utziko. Eta ala ere badakizue okasioan sartu zalako, eta tentatu zuelako, bildurrak arturik, nola ukatu zuen bere Maisua, eta alako Maisua, lenago berak Jaungoikoaren Semetzat ezagutu zuena. Nor fiatu liteke bada bere asmo, eta indarretan? Ala ere Jesu-Kristo errukitu zan San Pedroren argaltasunaz; begiratu zion; bere barrua argitu zion; bere biotza ukitu zuen; bereala okasiotik apartatu zan; negarrari, damuaren pasioz, eman zion, eta egunoro bere damua, eta negarra berritzen zuen. Eta ala gregan fiatu ordean, bear dan bezela sinisten, ezagutzen, eta konsideratzen badegu, gerez bakarrik, ezin gauza onik egingo degula; ezin onean iraungo degula, eta erraz eroriko gerala, eta ezaguera orrekin humillaturik Jaungoikoari eskatzen ari bagera, esperanza osoarekin Jesu-Kristoren izenean arren berak argitu gaitzala,

geren pekatuaren gaiztakeria, eta kalte andiak ondo ezagutzeko, eta digula bere grazia, eta indarra gure propositoak kontuz gordetzeko; orduan Jaungoikoak pozik emango digun argitasun, eta laguntasunarekin indartuko gera; eta egon gaitezke, eta egongo gera pekatu mortalik egin bage, batez ere, benetan artu nai baditugu proposito egiazkoa daukagula aditzera ematen duen erremedioak.

Badakizue alabaña, N.K. gauza bat iristeko borondate egiazkoa edo deseo eragillea daukagun edo ez, ageri dala, ura alkanzatzeko egiten ditugun aleginetan, eta artzen ditugun neurri, eta medioetan. Gauza bat deseatuagatik, ura izateko batere nekatu nai ezpagera, señale da, deseo argala edo erdi naia baizik eztegula; alperraren edo nagiaren deseoa da ori, eta orrelakoaz Infernua beterik dago. Nai badezue bada gogotik proposito irmoa, eta borondate egiazkoa dezuela aditzera eman, eta benetan Infernutik libratu, eta Zeruko gloria iritxi, nai ta ez artu bear dituzue bide oek. 1. Ondo prestaturik, erakusten satzuen moduan, egiazko damutasunarekin, eta aurrerako proposito eragille batekin konfesio on bat egin. 2. Artu dituzuen proposito, eta asmo santuetan irauteko, egunoro oriek berritu, eta kontuz gordetzeko Jaungoikoari bere

argia, grazia, eta laguntasuna gogotik eskatu. 3. Len pekatu mortal eragin oi dizuen okasio, peligro, eta arriskuan bazaude, bereala alde egin izurritzko toki batetik bezela; bada zure begia edo oña bezin bearra izan arren, larga bear dezu, eta ez artara biurtu. 4. Zuen gaizki egiteko edo esateko, nola orditzeko, ostutzeko, birau gaizto edo juramentuak edo joku erabageak egiteko & oitura edo aztura gaiztoaren kontra armatu, peleatu, eta ura desegiteko, alegin biziak egin bear dituzue; batez ere Jaunqoikoari sarri, eta benetan bere indarra eskatuaz, eta zuen buruak mortifikatuaz. 5. Bakoitzari berea bertatik al bada biurtu bear diozue, bada bestela propositorik eztago. Eta 6. orrez ostean, asko balio du Kristau on bati dagozkion egunoroko lan edo obrak, ala espiritualak, nola denporalak, ondo zuzendurik edukitzea, Konfesoreak erakutsiko dion moduan, bakoitzaren bizimoduari dagokan bezela, eta batez ere, egunoro konsideratzea Jaungoikoari zenbat zor diogun, eta gure animako betiko salbazioak zenbat balio duen. Eta orrela Jaungoikoari bere laguntasuna eskatzen, eta bere partetik alegin egiazkoak egiten, eta neurriak artzen ari dan Kristauak, motiborik asko dauka, proposito irmoa, eta sendoa izan zuela, uste izateko; eta baita gero, ustez

uste bage, tentazio esturen batean edo okasio peli-grosoren batean argaltasunez utsegita gertatuko bali-tzaio ere (bada iñor munduan seguru eztago) batez ere bereala damutzeko alegiñak egin, eta lengo pro-positoak berritzen baditu; baña kontrara, Konfesioa-ren ondoren erremediorik egin bage, indarrik bere buruari egin bage, bere oitura gaiztoa goitzeko, oka-sio gaiztotik alde egin bage, len bezin ardurabage pekatu mortalean bizi izan bada; nola sinistu lezake damutasun egiazkoa, eta proposito irmoa, sendoa, eta eragillea zeukela? Eta, nola kejatu liteke, Konfeso-reak bere onagatik, benetan erremediatu nai duelako prueba ziertoak eman eragiteagatik, egun batzuetara-ko absoluzioa luzatzen badio? Nai du bere burua ezeze, Konfesoreak ere bere buruarekin Infernura era-man? Esna zaitezte bada arren Kristau itxu, arduraba-geak, gaizki oituak; eta orrelako iduripenezko edo aozko damutasun, eta proposito ariñakin mudanzarik erakutsi bage, oraindaño konfesatu zeratenak, nai ezpadezue betiko kondenatu, konfesio jeneral on batekin lengo konfesio gaiztoak erremediatu ditzazue, eta aurrerako beste bizimodu on bat artu ezazue, eta zuek borondate ona, eta deseo eragillea erakusten

badezue, Konfesoreak pozik lagunduko dizue, eta zer egin erakutsiko dizue.

3. Eta orain zuek orretara obeto mugitzeko, eta alaitzeko antxikitik agindu dedan dotriñari narraiola, galdetzen det; Zergatik pekatu larri edo pisuari deritza mortala edo iltzallea edo eriozkoa? Zergatik iltzen duen egiten duanaren anima; eta dotriña gai au zeoro esanik badaukagu ere mortalaren berariazko explikazioan; orain bakarrik diot, pekatu mortalak eztiola kentzen animari bizitza naturala, begiz ikusten deguna, baizik orrek baño infinitamente geiago balio duen graziazko bizitza espirituala, naturalezaz gañekoa; Jaungoikoaren seme edo alaba maiteak egiten gaituana; Jesu-Kristoren senide, eta zati edo mienbro biziak, eta Espiritu Santuaren bizileku edo jarleku ederrak egiten gaituana; Zeruko deretxoa ematen diguna, eta obra on guziakin Zeruko gloria geiago irabazteko eskua ematen diguna; ori guzia galdu eragiten digu pekatu mortal batek, eta egiten gaitu Jaungoikoaren etsaiak; Infernuko deabruaren zorigaiztoko katibu, esklabu edo menpeko billauak; aren bizileku infame lotsagarriak, eta estadu orretan gauden artean, ezin Zerurako ezertxo ere irabazi edo merezi dezakegu, munduan egiñal obra on guziak egingo baginduz ere.

Eta pekatuko estadu orretatik irten bage, illko bagiña, orra betiko gloria galdurik, eta betiko infernura kondeturik. A! Begiakin ikusi al bagenza, nolako gorroto bizia pekatuari artuko giñioken! Eta nolako alegiñak pekatutik bereala irteteko, egingo ginduzkean.

G. Eta pekatu mortala egin ezkeru, bereala konfesatu bear du? **E.** Txit ondo lizate, baña eztago artara bearturik. Zer egin bear du bada? Bere pekatuen egiazko damutasun kontriziozkoa artu edo eduki, ez berriz pekaturik egiteko propositoarekin, eta Eliza Ama Santak agintzen duenean konfesatzeko asmoarekin.

Askotan aditzera eman dizuet, N.K. zenbat errazago, eta seguruago iristen dan pekatuaren barkazioa Konfesioko Sakramentuarekin akto kontriziozko utsarekin baño; eta argatik eztezue arren luzatu bear, pekatu mortalik egitea gertatzen bazatzue, len baño len ondo konfesatzea, bada bitartean beti kezkatan egon bearko dezue: aranza bat sartzen bazatzue, bereala ateratzen dezue; puzonia duen janaria edo edari bat ustekabe artzen badezue, sosegurik eztezue, ura trukatu edo bota artean edo erremedioak artu artean; bada ezta pekatu mortala baño aranza gogorragorik, eta mingarriagorik; eta ezta izurri,

beneno, eta puzoni illgarriagorik, eta kaltegarriagorik. Bote ezazue bada len baño len zuen biotzetik konfesio humill eta damuzko batekin, eta txit konsolaturik gedituko zerate.

Eta konfesioa luzatzea gertatuko balitzatzue, eztezazuela arren luzatu akto kontriziozkoa benetan, eta bereala egitea; bada orretara bearturik zaudetela erakusten due Elizako erakusle edo maisu aundi askok; 1. zerren pekatua kontrizioarekin desegin edo kendu artean zuen Jaungoikoa zuen jabea, zuen Aita ona, eta zuen ongille guztiz aundia aserraturik, ofenditurik, agrabiaturik, eta injuriaturik daukezue; eta zuen proji-moarekin aserratu, eta injuriatu ezker, bereala pakeak egiteko obligazio estua badezue, eta bitartean zuen eskuetatik ofrendarik batere Jaungoikoak artu nai ezpadizue, zenbat arrazoi geiagorekin Jaungoikoa bera desagrabiatu, desaserratu, aplakatu, eta zor diozuen honra bereala biurtu bear diozue? 2. Eta orretara orobat obligatzen zaitue zuen buruari edo animari zor diozuen karidadeak; bada instanteoro ill zaitzekean ezker edo zenzua edo juizioa galdu dezakezuen ezker, askori gertatu zaion bezela, pekatuan bazaudete, betiko kondenatuak izateko arrisku andian zaudete; Eta, nork soseguz lo egin dezake peligro orretan

dagoala? Bada 3. (eta au da Santo Tomas Elizako Dok-tore andiak dakarren arrazoi indarsu bat) pekatu batek beste bat dakar, eta ezin dateke, luzaro pekatu mortal berriak egin bage egotea, pekatu mortalean bizi dana; zergatik almenik eztu, indarrrik eztu, tenta-zio gaiztoai atzera esateko, baizik bera dago artara geiegi etziñik; eta ala, zenbat geiago luzatzen duen, penitenziarekin edo kontrizio egiazkoarekin pekatutik irtetea; anbat Jaungoikoari injuria geiago, eta bere buruari kalte geiago egiten dio; anbat nekezago peka-tutik libratuko da, eta anbat kondenatzeko peligro andiagoan dago.

Eta orra zergatik pekatu mortal bat egin ezkerro, gregan biurtzen geranean, gure gaizki egiñaz Jaun-goikoak oroitu edo akorda eragiten gaituanean, bereala akto kontriziozkoa biotz osotik egiteko obliga-zioa degun; bada or ezagun da komunkiro, nor diran pekatari nasai ardurabageak, eta nor diran bakarrik pekatari argalak, ezagutu ezkerro eren gaizki egiña, bereala damutzen zaienak, eta egiaz ondu nai due-nak.

Aditu dezue bada, N.K. 1. pekatu benialaen damu-tasuna, zein bearra dan, eta nolakoa izan bear duen, pekatu benialak baizik konfesatzen eztiranean. 2. Pro-

posito egiazkoaren irmotasuna zertan dagoan, nola ezagutzen dan, eta artan irauteko zer egin bear dan. Eta 3. Pekatu mortal egin ezkeru, zein gauza probe-txugarria dan len baño len konfesatzea, eta zein gauza bearra dan bereala akto kontriziozkoa benetan edo biotzetik egitea. Jarraio bada, N.K. aditu dezuen dotriñari; eta bertatik egiazko penitenzia egiten asi zaitzte, zuen salbazioa, eta betiko gloria aseguratze-ko. Amen.

ZAZPIGARREN DOTRIÑA

Eta laugarrena Penitenziako

Sakramentuaren gañean.

Erakusten da Akto kontriziozkoa egiteko modua.

Aurreko iru dotriñetan aditzera eman dizuet, N.K. pekatu mortal egin ezkeru, barkazioa iristeko, Infernuek libratzeko, Jaungoikoarekin adiskidetzeko, eta Zeruko gloria seguratzeko, zein gauza bearra dan, Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua; zein premiazkoa dan ondo konfesatzeko biotzeko dolore edo damutasun egiazkoa, eta proposito firmea, irmoa, eta eragillea; eta oriek iristeko edo alkanzatzeko zein gauza bearra dan Jaungoikoaren argitasuna, eta grazia, eta gure partetik orazioa edo eskaera, eta konsiderazioa, pekatuaren gaiztakeria, eta kalte arrigarriak ondo ezaguturik, pekatuari gorroto andi bat artzeko; ura egiñaz, benetan damutzeko, eta ez berriz artata itzultzeko, proposito irmoa egiteko, eta orretan aurretira irauteko.

Baña batzuok esango dirazue; zer egin bear degun erakutsi digu; baña, nola egin bear degun ere, eraku-

tsi bear digu: bada orazioa nola egin, ondo eztakigu, eta are gutxiago dakigu, zer, eta nola konideratu bear degun, gure adimentuak argitzeko, eta gure biotzak mugitzeko, pekatuaren egiazko gorrotora, eta damutasunera, eta bizitza berri bat gogotik aurrera egitera.

Arrazoirik asko daukezue, ori eskatzeko; bada orretan dago egiazko penitenziaren, eta konfesio onaren sustanzia, mamia, eta izate prinzipala; eta ori iritsi ezkerok, zeurok larrituko zerate, zeuron pekatuak gogora ekarteko, eta ondo konfesatzeko, eta baita penitenziako obrakin Jaungoikoaren justiziari satisfazioa emateko; eta bizimodu berri bat egiteko; eta kontrara, bear bezela oraziorik, eta konsideraziorik egin bagez, txit arin artzen da dolore edo damutasuna; txit azaletik egiten da examiñea; bear bezela humildu bage konfesioa, eta argatik aiñ frutu gutxi ikusten da konfesio ondoan.

Diot bada, dotriñako egiak ondo dakizten, eta gogoratzen dituzten Kristauak, eta Jaungoikoaren bildur santua duenak, jakinezak, eskola bageak, eta arrastaka bizi diran nekazari pobretxo batzuek izan arren, ondo konfesatzeko, eta eren salbazioa iristeko, badakitela nola orazioa egin, eta zer; eta nola konsi-

deratu, eta komunkiro ondo prestaturik, konfesatu oi dirala. Baña Jaungoikoaren dotriña santua ondo ezta-kienak, edo jakin arren, dotriñako egia andiak gogora ekarten eztituenak, eta Jaungoikoaren bildurrik, eta salbazioaren ansiarik eztuenak, Zeruaz azturik bizi diranak; eren zoriona munduan billatzen duenak; emengo honra, puntu, eta banidadeetan, emengo interes, ondasun, eta aurrerapenetan; emengo atsegin, eta gusto zikiñetan edo erabagetan oren gogoak, eta biotzak ifinirik dauzkatena, eta salbatuko badira egiazko penitenziaren premiarik andiena daukenak, dirala komunkiro, bear bezelako oraziorik, eta konsideraziorik egiten eztuenak, konfesio on baterako ondo prestatzeko, eta aurrera bizimodu on bat gogotik artzeko.

G. Nolako orazioa, eta nolako konsiderazioa egin bear degu bada, Jaungoikoagandik bear degun argia, eta grazia iristeko, eta benetan pekatua aborrezitzeko, iguitzeko, eta egiaz damaturik egoteko, eta proposito sendoak arturik bizitza on bat egiteko? **E.** 1. Diot, Jaungoikoak berak guzaz errukiturik, kondenatu ordean gure pekatuakgatik, itxoron digula, beregana guziok deitzen gaituala, eta bere graziarekin lagundu nai digula, beragana biurtu gaitezen, eta berarekin

pakeak egin ditzakun; Zerekin eranzungo diogu Jaungoikoaren onelako ontasun, erruki, eta miserikordiari? 2. diot, gure Jaungoikoak iñori ezer ere zor eztiola, eta iñori agrabiorik egin bage, batzuei eman diela, eta orain ere ematen diela ain argi bizia, eta ain grazia ugaria, eta eragillea, nun bereala trukutzen, mudatzen, eta konbertitu eragiten dituan; ala ikusi zan, Santa Maria Magdalenarekin, San Pedro Apostolurarekin, San Pablo andiarekin. Lapur onarekin, eta beste Santu penitente batzuekin; baña ori banakatan gertatu oi da.

Komunkiro nai du Jaungoikoak, pekatariak ezagutu dezan bere estadu tristea, eta petatutik libratzeko nekatu bear dala, humillatu bear dala, eta alegin biziak egin bear dituala, Jaungoikoak eskeintzen dion laguntasunarekin pekatutik bere burua ateratzeko, eta Jaungoikoarekin adiskidetzeko.

Bada 3. diot, ori iritxiko duela orazio humillarekin eta esperanza onarekin, eta iraupenarekin, Jesu-Kristoren izenean gogotik eskatuaz Jaungoikoaren grazia, eta penitenziako doaia, eta egiaz damutzeko, eta konbertitzeko, eta bizimodu gaiztoa utzirik, bizimodu on bat artzeko, berariazko konsiderazioak egiñaz, eta orretako bear diran neurriak artuaz.

G. Eta zertan dago pekatariak egin bear duen orazio humill ori? **E.** 1. Sinistu, ezagutu, eta aitortu bear du, berez itxu bat dala animako gauza espiritualak ondo ikusteko edo ezagutzeko. 2. Eri bat dala, edo elbarritu bat bezela dala, eta salbaziorako lanak egiteko berez indarrik, eta almenik eztuala; birtuteari jarraitzeko berez pisutasun, nagitasun, eta atzerapen arrigarria daukala, eta geiago dana, Zerura bere gogoia altxatzeko, eta pensamentu, eta deseo onak artzeko, gorputz ill baten antzekoa dagoala, mugimenturik batere ezin egin dezakean moduan; eta Santo Tomasen antzorde edo konparazio batez baliatzen naizala, diot, pekatuan dagoana, ezin mugitu dan arri bat bezela dala, leku eman ezkeru, beera berez amildu bai, baña gora ezin igo ditekeana, bestek altxatzen ezpadu; orra obra onak egiteko nolakoa dagoan berez pekataria, Jaungoikoaren graziarekin eta bere alegiñakin egin baditzake ere; baña gaitzerako dago guziz ariña, pasio, gurari, eta griña gaiztoz betea, eta barrutik, eta kanpotik pekatura mugitzen duen etsaiez inguratua; munduak, demonioak, eta aragiak gelditzaka beretu nai due, eta aen mendean bera gogotik jarten da, eta aen zorigaiztoko, baña borondatezko katibu edo menpeko eginik pozik ego-

ten da; ain itxua dago, nun bere naikunde, gurari edo apetitoa logratzeagatik, eztauka ezertan, bere Jaungoikoa, bere Aita ona, eta bere Jabe, eta ongille guztiz maitagarria aserratzea, ofenditzea, eta injuriatzea; bere anima gaixoa Jesu-Kristoren odolaren kostuan erredimitua, betiko kondenatzea; betiko zoriona bere buruari galdu eragitea, eta betiko Infernua, eta betiko tormentuak bere animari, eta gorputzari erakartea. Orra zer egiten duen pekatu mortala egiten duenak, eta orra motiborik asko gizona humillatzeko, eta bere ezereztasuna, bere itxumen arrigarria, bere txarkeria, eta gaiztakeria, eta berez ezin gauza onik egin ala ondo ezagutzeko.

Baña Jaungoikoari millarezko eskerrak eman bear dio, zerren bere esku guztiz poderosoarekin eta bere miserikordia kabubagearekin estadu triste orretatik atera nai duen, eta bere argitasun, eta graziaren laguntasunarekin arkitu nai duen; piztu nai duen, eta indartu nai duen, eta bere aldetik ondo eranzun nai badio, bizitza berri bat, eta espiritu berri bat eman nai dion.

Eta onetan agiri da iñun ere baño obeto Jaungoikoaren guzialtasuna edo poderio neurribagea, eta baita bere ontasuna, errukia, eta miserikordia. Badakizue,

nola gure Jaungoikoak ezerezetik, nai izanaz, eta aginduaz beste bage Zerua, eta lurra, eta beste kreatura guziak egin zituan; nola Jesu-Kristo gure Jaunak munduan, Zeruko bidea erakusten ibilli zan denporan, mirari guztiz arrigarriak egin zituan, aginduaz beste bage, eri mota guziak sendatzen zituan; itxuai argia; mutuai hitza; gorrai belarrietako osasuna, eta senti-dua; elbarriai indarra, eta sendotasuna, eta illai edo defuntuai bizia ematen zien, eta mundu guzia beregan-
na begira, arriturik zeukan; bada mundua ezerezetik egitea, eta illak piztutzea baño, obra aundiagoa, miragarriagoa, eta poderio andiagoa, eta ontasun, eka miserikordia zabalagoa eskatzen duena da, pekatu mortalarekin illik dagoana piztutzea; ura pekatuak ematen dion zorigaiztoko eriotza izugarritik libratzea, eta graziazko bizitza berria ari ematea.

Deabruaren menpeko billau zegoana, Jaungoikoaren seme, eta adiskide maite egitea; Infernurako sentenziaturik edo kondenaturik zegoena (pekatuan ill baliz) Zeruko Errege edo Erregiña gai egiñik gelditzea. Zer mirari, eta zorion andiagorik !

G. Zer egin bear du bada ori guzia Fedearen argiarekin ezagutzen, eta konsideratzen duen pekatariak?
E. Jaungoikoaren aurrean humillatu, bere aurrean

lotsatu, eta damuz, eta sentimentuz beterik, esperanza oso batekin Jaungoikoari barkazioa bertatik, eta aurrerako bere argi, eta grazia ugariagoa eskatzen gogotik aritu, eta Jaungoikoaren Majestadearen aurrean dagoala gogora ekarririk, humiltasun, damutasun, eta esperanza aundi batekin, esan bear dio, edo hitz oekin edo bere barruko damuak erakutsiko diozkanakin.

«Nere Jaungoiko guztiz poderoso; nere Jabea; nere Aita guztiz ona, eta ongille guztiz maitagarria. Nere bearrik ezertako etzenduen, eta ala ere zure antzera, eta imajiñara, eta zeretako, eta betiko gloria-rako egin nazu; zere ezaguerara, eta fede kantuaren argira ekarri nazu; pekatutik Bateo santuan atera nazu; zere grazia, eta Zeruko deretxoa eman dirazu; zure Seme maite Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren frutua Sakramentu santuetan aplikatu dirazu, eta beste milla mesede egin dizkidazu; baña nik esker gaiztoz eranzun dizut; zu nere Jaungoiko guztiz ona, biotz guztitik, eta gauza guzieren gañelik amatu ordean, naiago izan det nere gogo gaiztoa kunplitu, zure lege, eta borondate santua baño; askotan injuriatu, eta ase-rratu zaitut nere pekatuakin; nere kulpaz galdu det, eta askori nere eskandalo edo gaitz-bideakin galdu

eragin diet Jesu-Kristoren eriotzaren frutua, zure grazia, adiskidetasuna, eta Zeruko deretxoa; neregan danez berritu ditut Jesu-Kristoren pasio, eriotza, da tormentuak; bada Jesu-Kristo berriz tormentuetara, eta eriotzara entregatzeko diña motibo eman det; eta puntu zital bategatik edo nere alpertasunagatik zu ofenditu, eta egiñaz deabruaren esklabo, katibo edo menpeko billau bat; eta merezitu izan det eternidade guziko kondenazioa; Infernuko su, eta garretan beti erretzen, kiskaltzen, eta desesperaturik ler edo estanda egiten egotea.

Ai zenbat dauden betiko Infernuan, nik baño pekatu gutxiago zituela, eta niri, Jauna, errukiz begiratu nai izan dirazu, Infernura betiko bota ordean; zeurk zeregana, askotan deitu nazu, eta orain ere deitzen nazu, eta egiaz damaturik zugana biurtzen banaiz, Aita errukitsu batek bezela besoak zabalik, barkatu ezeze, zere humetzat, eta adiskidetzat artu nai nazu; baño zure ontasunaz beraz, zure errukiaz, zure miseriakordia kabubageaz, zugana bereala biurtzeko baliatu ordean, zu geiago ofenditzeko baliatu naiz. Zu ain ona, eta biguña zeralako, ausardia geiago artu det, nere pasio, eta gurari zikiñak kunplitzeko.

Izan diteke eskergabetasun aundiagorik, eta itxusiagorik, mesede edo faboreaz beraz eta erremedioaz beraz baliatzea baño, mesedegillea, eta erremedia-tzallea bera geiago ofenditzeko? Ezagutzen, eta aitortzen det, Jauna, orain nere malizia, eta kulpa guztiz andian. Eztet, Jauna, merezi barkaziorik, eta bai ondo merezirik daukat betiko infernua. Baña zu zera nere Aita guztiz ona, eztezu nai pekatari au kondenatzea, baizik zugana egiaz damaturik biurtzea, eta agintzen dirazu zure grazia, eta adiskidetasuna.

Zugan daukat bada nere esperanza guzia, eta eskatzen dizut nere biotz guztitik, eta konfianza guziarekin zure ontasun, eta miserikordia neurribage orregatik, eta zure Seme maite Jesu-Kristo nere Salbadore, eta Erredentorearen kabubageko merezimentuak-gatik, arren eman degidazula zu ofenditutako egiazko damutasuna; nere pekatuen gorroto bizi bat, eta aurrera ez berriz pekaturik egiteko proposito firme, sendo, eta eragille bat. Nere Jaungoikoa, zu aiñ ona izanik, damu det zure Majestadea ofendituaz: A! zu ofenditu baño lenago ill baniz! Naiago det iltzea, zu berriz ofenditzea baño. Egiten det proposito firme bat, zure graziarekin, eta laguntasunarekin batera ez geia-go pekaturik egiteko; nere pekatu guziak konfesatze-

ko, pekatuko bide, eta okasioetik apartatzeko; eta aurrera, zu nere Jaungoikoa, biotz guztitik eta gauza guziena gañetik amatzeko, eta bizitza berri bat egiteko. Indazu arren artarako zure grazia, eta indarra Jesu-Kristoren merezimentuakgatik: zure honra, eta gloria geiagorako, eta nere animaren salbaziorako. Amen.

Eta ona, N.K. penitente egiazko batek bere barruan eduki bear dituan sentimentuak, deseoa, eta asmoak, eta egin bear duan orazio humilla, egiazko kontrizioa, eta propositoa iristeko; eta ori benetan, esperanza oso batekin, eta iraupenarekin edo aspertu bage egiten ari bada, iritxiko du konfesioan pekatuen barkazioa, eta bearbada konfesatu baño lenago ere, alako kontrizioa edo amoriozko damutasuna iritxi lezake, min bertatik Jaunaren grazia, eta adiskidetasuna logratu lezakean. Ekin bada, N.K. ejerzizio santu oni; egunoro berritu ezazue orazio mota au eta irabazi guztiz andiak egingo dituzue, eta batez ere konfesorako prestatzen zeratenean, jardun gogotik erakutsi dizuedan orazio humil oni, eta orobat dezue zeurok dakizuen, eta errezatu oi dezuen akto kontriziozkoa edo Nere Jesu-Kristo Jauna & esatea; baña ezta asko nolainai errezatzea, oituraz, askok egiten duen bezela, zer esaten duen ondo ezagutu bage, ondo pensatu

bage, eta eren barruan pekatuaren iguirik, gorrotorik, eta egiazko damurik artu bage, baizik errezatu bear dezue espazioarekin, atenzioarekin eta, al dezuen dekozio guziarekin. Eta ori zuek errazago, eta frutu geiagorekin beti egiteko, eta damutasunera obeto mugitzeko egoki diran konsiderazioak edo pensamentu santuak gogoan erabiltzeko alegiñak egin bear dituzue; bada ezagutzen eztan gaitza ezertan artzen ezta.

G. Zer dira ordea konsiderazio oriek? **E.** Orain aiatu ditugunaz gañera, beste ezin kontatu ala liburuetan arkitzen dira, eta Aita San Ignazio Loiolakoaren ejerzioetako liburu preziatuan txit egokiak daude. Baña irakurten ezta kienai edo artako era onik ezta kienai esaten diet; biotz ona, gogo ona, eta egiazko penitentsia, eta bizitza arreglatu bat egiteko deseo eragillea badaukate: egunoro errezatu oi duen Kredoan, eta akto kontriziozkoan, au da, nere Jesu-Kristo esaten abiatzen dan orazio ederrean, arkituko dituela nai adiña konsiderazio gai, bear dan ezaguerarekin eta debozioarekin errezatzen baditue. Eta ori bear bezela aditzera ematea dotriña, eta sermoi luze askoren gaia bada ere, emen laburtxo aitatuko dizuet, zuek gero kontuz egin ditzaketzen konsiderazio gaiak.

Eta 1. Kredoak erakusten digu, eta guziok sinisten degu, Jaungoikoa dala guzion Aita, guztiz poderosoa, Zeruaren, eta lurraren Kreadorea edo egillea. Berez beti izan dana; iñori ezer zor eztiona, kaburik ez tuen perfekzio, eta anditasun guztien jabea; Jaun guzien Jauna, Errege guzien Erregea; bere exzelentzia, goratasun, anditasun, guziantasun, jakintasun, eta ontasun parebage, eta neurribageagatik; kreatura guzien amorririk, esker onik, errespetorik, eta erreberentziarik andiena berez merezi duena. Eta ala, bera danagatik bakarrik, beste motiborik ezpagendu ere, zor diogu gure biotzeko amorio guzi-guzia: Baña zer egin degu pekatu mortal bat egin degunean? Izanik gu kreatura ezerez batzuek; Jaungoikoaren izate Soberanoaren aldean, munduko arrak baña ezerezagoak, atrebitu gera aren Majestadea injuriatzera, despreziatzera, eta alako moduan ofenditzera, nun geiago estimatu degu gure buru miserablea, gure borondate, eta gogo gaiztoa, eta maiteago izan degu banidade ergel bat, interes labur bat edo gusto zikin bat Jaungoikoa bera baña: eta da, gure itxumenak bear bezela ezagutzea eragozten badigue ere; balanza, edo pisu batean alde batetik Jaungoikoa bere ondasun guziakin, eta beste aldetik gure gogo edo borondate gaiztoa paratu, eta

naiago izatea, eta geiago estimatzea gure gusto apur zikiña, Jaungoikoaren borondatea, eta gustoa baño.

Eta ori da injuria bat ain arrigarria, eta ain kabubagea, ze, ezin bear bezela mundu onetan ezagutu, eta aditzera eman ditekean orren pisutasuna, eta larritasuna. Badakizue alabaña, injuria bat anbat andiagoda, zenbat andiagoda, eta errespetagarriagoda dan persona ofenditua: eta argatik, Errege bati bere personan egiten zaion desprezioa, agitz da sentikorra, eta kulpadunagoda, persona baju, billau bati egiten zaiona baño: eta nola Jaungoikoaren Majestadeak, eta aunditasunak kaburik eztuen; argatik ari egiten zaion ofensa, da neurribagea, eta orri dagokan kastinguak izan bear du fin bagea edo betikoa: Eta San Anselmok esan oi zuen, Infernua baño gaiztoagoda dala pekatua, eta naiago zukeala Infernuan, ala bear baliz, pekatu bage egotea, ezenez Zeruan pekatuarekin egotea.

Nor bada ori ondo konsideratu ezkeru, bere barruan lotsatuko ezta, humillatuko ezta, eta damutuko ezta, ain ardurabage, eta ainbeste bider alako Jaungoiko maitagarriari orrenbeste ofensa, eta injuria egiñaz? Damu det, Jauna, zure Majestadea ofendituz; miserikordia arren Jauna nizaz. 2. Orobat Kredoak era-

kusten digu, ez bakarrik Jaungoikoak berez, eta beregan zer dan, baita ere bera dala gure Aita, guztiz maite gaituana, geran guzia, eta degun guzia berak emanik daukagula, bere antzera, eta semejanzara, eta eternidade guzian zorionekoak izateko egin gaituala; gu beretako, au da, bera ezagutzeko, amatzeko, eta serbitzeko eta eternidade guztian bera ikusteko, alabatzeko, eta bere gloriaz gozatzeko egin gaituala; eta Zeruan, eta lurrian ikusten ditugun beste kria-tura guztiak guretzat egin dituala; eta guretzat berritzen, eta konserbatzen dituala; begira egiezue eguzkiari, illargiari, eta izarrai: begira egiezue lurrari bere frutu, eta abere mota guziki-kin; gure arnasea konserbatzen, eta ainbeste on egiten digun aizeari; ainbeste arrai dauzkan itxasoari; erreka edo ibaiai, iturriai, eta bear orduan biraltzen dizkigun urai; eta suarekin egiten dizkigun mesede guztiz andiai; norainai begiak itzuli ditzatzuela, leku guzietan ikusiko dituzue Jaungoikoak gizonari egiten diozkan faboreak, eta gizonarekin duen probidenzia miragarria.

Baña, gizonak zer egiten du? Jaungoikoaz aztu, eskerrik eman ez, eta geiago dana, guztiz lotsagarri, eta nazkagarri dana, alako ongillea, alako Aita ona ofenditu, eta ez nolainai ofenditu, baizik egin diozkan

mesedeaz beraz, aren Majestadea ofenditzeko baliatu; Jaungoikoak bera serbitzeko eman diozkan bere adimentua, borondatea eta memoria, eta bere senti-
du, eta mienbro guziak ofenditzen enpleatu; Jaungoi-
koari berari zor dion guzien gañeko amorioa, bere
kreaturetan ipiñi; Izan diteke eskergabetasun andia-
gorik, itxusiagorik, eta iguigarriagorik? Nor lotsatuko
eta damutuko ezta, bada, txit benetan, ori ezagutu,
eta ondo kon sideratu ezker o? A! Jauna, zein pazienzia,
erruki, eta miserikordia miragarriaz usatu dezun, eta
usutzen dezun gizonarekin; eta zein arrigarria dan
gizonaren itxumena, zorakeria, eta gaiztakeria! Arren
argitu gaitzatzu, eta zenzatu gaitzatzu. Damu degu
Jauna oraindañoko gure esker gaiztoaz; eta zure gra-
ziarekin erremediatu nai gera; miserikordia arren
guzaz.

Orra Kredoaren lenbiziko Artikuluaren hitzetan
sarturik dauden Jaungoikoaren anditasunak, eta egin
dizkigun mesedeak; eta orra gure esker gabetasuna,
gutziz gure barruan lotsatu bear gaituana. Bada ondo-
rengo Artikuluelan obeto oraindik agiri da, Jaungoiko-
ak pekatuari dion gorroto guztizkoa, eta pekatua erre-
mediatzeko, eta desegiteko artu dituan medio arriga-
rriak; nola diran, 1. pekatu mortal bategatik ainbeste

milloi Aingeru eder betiko Infernura kondenatzea, eta Demonio itxusi, ikaragarri egiñik uztea; 2. Adanen, eta Ebaren pekatu mortal bategatik erentzat, eta guretzat eman zizten ain grazia, eta doai miragarriak galdu, eta ezin esan alako desditzak, miseriak, eta zorigaitzak erentzat, eta guretzat erakartea; hitz batean esateko, andik etorri dira munduko pekatu guziak, eta orien kastigu arrigarriak, ala oraingoak nola gerokoak edo betikoak, eta guziok kondenatu bearra, Jesu-Kristok erremedioa ekarri ezpaligu.

Orra Jaungoikoak pekatuari dion gorroto arrigarria: bada ori obeto ezagutzen da, pekatua erremediatzeko, eta desegiteko, aren justiziak, eta miserikordiak artu zuen medio guztiz miragarrian. Zein izan zan ori? Gizonak ezin iñota ere bere burua pekatutik, eta Demonioaren mendetik atera zezakean. Eta ainbesterañokoa izan da Jaungoikoaren gizonaganako amorioa, nun bere Seme maitea bera Aita eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin Jaungoiko egiazkoa betidadik zana, eman dio; gizon egiñik, gizonak bere biziaren, eta odolaren kostuan erredimitzeko, eta gizonai Zeruko bidea bere ejemplo, eta dotriñarekin erakusteko; eta gizonari, pekatuari alde egiteko, eta birtuteari

jarraitzeko, bear dituan sokorru, laguntasun, eta grazia mota guziak emateko.

Badakizue alabaña, nola Jesu-Kristo gure Jauna gugatik gizon egin zan Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan; nola jaio zan; nolako bizimodu pobrea, humilla, eta nekatua berariaz autu zuen, guri erakusteko, gure zoriona munduko ondasun, honra, eta atsegiñetan eztagoala, baizik Jaungoikoaren ezaguera egiazkoagan, eta aren borondatea orain egitean, eta gero betiko zoriona edo gloria Zeruan gozatzean; ori bera bere sermoi, eta hitzaldi guzietan erakutsi zigun, eta guzian on egiten bazien ere, eta mirari guziz aundiakin bere egiazko Jaungoikotasuna, eta gizatasuna, eta bere Zeruko dotriñaren egia probatu bazuan ere, nolako pagua mundu itxuak eman zion? Badakizue nola, eta zenbat padezitu zuen Ponzio Pilatosen agintearen azpian; nola izan zan guruzifikatua, illa, eta enterratua, nola Linbora jatxi zan beraren esperanza zeuden justuen animak libratzera; nola, berak lenaz esan zuen bezela, irugarren egunean piztu zan eriotzaren, eta biziaren Jabea zana bezela; nola Zerura igo zan, eta an dagoan bere Aita guztiz poderosoaren eskubiko aldetik, eta andik etorriko dan onak, eta gaiztoak

juzgatzeraz; onai betiko gloria ematera, eta gaiztoai betiko penak ematera, ez bakarrik animetan, baita piztuko diran gorputzetan ere.

Eta orobat dakizue, nola Espiritu Santua Zerutik biraldu zigun, eta beti komunikatzen digun, gure fedea, esperanza, eta karidadea piztuaz, eta bere doaiak emanaz, eta nola Sakramentu santuetan utzi zizkigun erremedio guztiz errazak, eta eragilleak, pekatuen barkazioa iristeko, eta bere grazia, eta betiko bizitza zorionekoa alkanzatzeko, eta betiko Infernutik libratzeko.

Egia oek guziok Kristauok sinisten ditugu, eta berez guztiz egokiak, eta indarsuak dira, gu argitzeko, eta gure biotzak pekatuaren iguitasunera, eta gorrotora, Jesu-Kristoganako esperanza bizi batera, eta Jaungoikoaren amoriora mugitzeko. Baña kontsideratzen ezpaditugu, gogora ekarten ezpaditugu, eta orazioarekin eta ondutzeko deseo egiazkoarekin laguntzen ezpaditugu; Zertako serbituko digu, gure kondenaio geiagorako baizik? Ala egia, Espiritu Santuaren esana da, eta sobra ekusten da, mundua dagoala galdurik, eta gaiztoturik kontsiderazioaren faltaz.

Konsideratu izatzue bada arren sarri egia aundi oek, eta batez ere, ill bearra, gutxiena uste degunean,

eta aren ondoko juizio ikaragarria, eta zuenzat dagoan edo betiko gloria edo betiko Infernua, eta Jesu-Kristoren gizon egitea; aren dotriña, aren bizimodua, eta aren pasio, eta eriotza santua; aztu bage edo beti gogoan daukazuela, nor zen Jesu-Kristo, zenbat padezitu zuen, zertako padezitu zuen, norgatik padezitu zuen, eta nolako amorioarekin padezitu zuen, eta gogora sarri ekarri ezazue, pekatariak alaitzeko, eta beragana ekarteko, nolako alegiñak egin zituan gure Jesus onak. Berak esaten digu, eztuala nai pekataria kondenatzea, baizik beregana biurtzea, eta salbatzea, Bera dela ardi galduaren billa dabillen Arzai ona, eta arkitzen duenean, bere sorbaldan artu, eta bere artaldera dakarrena. Bera dala Aita errukitsu, seme galdua, eta txit gaitzatu, humillaturik, damuturik, eta lotsaturik etxera biurtzen danean, pozik errezibitu, laztandu, eta bere grazian, eta adiskidetasunean artu zuena, eta ala konbertitzeko, eta bereala ondutzeko asmoak, eta deseo biziak, eta eragilleak bertatik artu itzatzue; luzatzen badezue, betiko galduak izateko arrisku aundian zaudete. Ekin bada konsiderazioari. Eta zuek arrizkoak edo kalzaiduzkoak bazerate ere Jaunaren graziarekin bigunduko zerate; egiazko gorrotoa pekatuari artuko diozue, eta egiazko penitentzia,

eta bizitza berria egingo dezue. Eta orretarako sarri akto kontriziozkoak biotzetik egingo dituzue, eta benetan Jaungoikoagana biurtu nai dezuela aditzera emateko, eta zuen pekatuen barkazioa obeto seguratzeko iru gauza txit probetxu andikoak egin bear dituzue; 1. bitartekoak Jaungoikoaren aurrean billatu; au da, Ama Birjiña Santisimari; zuen Aingeru guardakoari, eta zuen izeneko, eta deboziozko Santuai gogotik eskatu, arren alkanzatu degizuela bear dezuen Zeruko argia, eta grazia, egiazko damutasuna, proposittoa, eta barkazioa iristeko. 2. Da, penitenzia egin nai dezuelako señalean, bertatik asi, okasio gaiztotik alde egiten; iñori zer biurtu badezue, bereala biurtzen; zuen pasioak, eta gurariak mortifikatzen, eta zuen bizimoduari, ondo dagozkion penitenziazko obraren batzuek egiten. Eta 3. Jaungoikoak zuezaz errukia izan dezan, zuek ere errukia, eta karidatea al dezueneraño zuen projimoakin ejerzitate bear dezue, eta batez ere injuriatu zaituena biotzetik barkatu bear diezue, (eta limosnarik egiteko erarik ezpadezue,) erregutu biotzetik Jaungoikoari zuen lagun projimo guziakgatik, eta berezkiro edo espezialmente zuen gaizkilleakgatik, eta orrela zuen borondate ona agertuko dezue, eta Jaungoikoak errukiz begiratuko zaitue, eta bertatik

egiazko penitentzia, eta bizitza berri bat egiteko indarra, eta grazia emango dizue, eta orren ondoren betiko zoriona Zeruko Erreinuan. Amen.

ZORTZIGARREN DOTRIÑA

ETA BOSTGARRENA

PENITENZIAKO SAKRAMENTUAREN GAÑEAN.

*Konzienziaren examiña zer dan,
eta nola egin bear dan, eta zein diran
eskuarkiro ondo ezagutu bage,
eta gogoratu bage gelditu oi diran pekatuak.*

Penitenziako edo Konfesioko Sakramentu santua-
ren lenengo partea, au da, biotzeko kontrizioa edo
egiteko dolore, eta pekatuaren gorrotoa, eta ari
lagundu bear dion proposito firmea edo eragillea, ez
geiago pekaturik egiteko, aditzera eman dizuet aurre-
ko dotriñatan; orain aozko konfesioa azaldu bear
dizuet, eta nola pekatuak banaka konfesatuko badira,
lenago gogoratu bear diran; bada bestela ezin bear
bezela Konfessoreari agertu leizkizkio; gaur esan bear
dizuet, eta txit kontuz aditu bear dezue; pekatuak
gogoratzeko egin bear dan konzienziaren examiña zer
dan; nola egin bear dan, eta zein diran eskuarkiro
ondo examiñatu bagez eren pekatuak ezagutzen, eta

gogoratzen eztituenak, eta orrela ikasiko dezue, nola zuen konzienzia examiñatu bear dezuen.

G. Zer da bada konzienziaren examina? **E.** Da orain urrengo konfesio ona egin genduanetik oraingo konfesiarañoko bitartean egin ditugun pekatuaz akordatzeko edo oroitzeke edo gogoratzeko bear adiña alegin edo dilijenzia egitea.

G. Eta lenagoko konfesioa edo beste aurrekoren bat, gaizki egin bagenduan edo pekatu larriren bat lotsaz edo bildurrez konfesatu ez gendualako, edo egiazko damutasun, eta propositoa izan ez gendualako edo beste motiboren bategatik; orduan asko ote degu, azkeneko konfesio ezkeroko pekatuak bakarrik gogoratzea? **E.** Ez; gaizki egindako, konfesioakin pekaturik batere barkatzen ezta, baizik Sakrilejioko pekatu aundi bat beste pekatu ai egozten zaie, eta estadu orretan komulgatu bazan, Sakrilejioko beste andiago bat, eta pazkuako konfesio, eta komunioarekin kunplitzeko bazan, beste pekatu mortal bi geiago egin zituan; bada konfesio, eta komunio gaiztoarekin Elizako legearekin kunplitzen ezta. Eta orrelakoak pekatuen barkazioa iritxiko badu, nai ta ez konfesatu bear ditu ez bakarrik aizkeneko konfesio ezkeroko pekatuak, baña ere lenagoko ezkutatu edo esan bage

utzi zituanak, eta orrez gañera berritu bear ditu gaizki egindako konfesioak, au da, aetan esan zituan beste pekatu mortal guziak ere berriz konfesatu bear ditu, bada batere barkatu etzitzaion. Eta ala, antxitiko konfesio gaizto egin zuenetik, onerañoko pekatu mortal guziak konfesatu bear dituan ezkerro, guziak gogorra ekarteko, edo guzien examiña egiteko obligazioa dauka.

G. Konzienziako examina bear bezela egiteko zer egin bear degu? **E.** 1. Abiatu bear gera Jaungoikoari eskerrak ematen, egin dizkigun mesede guztiz andiakgatik, eta batez ere, zerren gure pekatuakgatik kastigatu ordean, eta Infernura bota ordean itxon nai izan digun, beragana deitzen gaituan, eta prestatzen bagera, bere grazia, eta pekatuen barkazioa Konfesio-ko Sakramentu santuan eman nai digun.

2. Ezagutu bear degu Jaungoikoaren argia, eta grazia bear degula, pekatuak ondo gogoratzeko; aen larritasuna ondo ezagutzeko, eta egiaz damutasuna, eta proposito irmoa gure biotzetan sortzeko, eta edukitzeko: eta ala, grazia ori Jaungoikoari benetan eskatu bear diogu Jesu-Kristoren izenean edo aren kabubageko merezimentuakgatik, eta asko baliatuko digu orretarako Maria Birjiña Santisima, gure Aingeru guar-

dakoa, eta gure izeneko, eta deboziozko Santuak, bitarteko billatzea Jaungoikoaren aurrean, eta baita limosnaren bat, eta mortifikazioaren bat, grazia ori iristeko, berariaz egiteak; eta 3. egin dituan pekatuak gogora ekarteko, bere bakartasunean edo Elizan, era onik badu edo bere bazterrean, bere buruari kontuak artu bear diozka, eta Jaungoikoaren legeko amar Mandamentu santuai, banaka begiratuaz, eta baita Elizako bost Mandamentuai, alegiñak egin bear ditu akordatzeko mandamentu bakoitzaren kontra zertan, eta zenbat bider utsegin duen; dala pensamentu edo deseoa gaizto konsentituakin, nola diran juizio gaiztoak edo gorrotozko deseoa edo lapurretazkoak, edo loikeriazkoak, osatu ezpazituan ere; dala hitz gaiztuakin, nola birau edo maldizioak, blasfemiak, juramentu falsoak, murmurazioak, txismeak edo esames gaiztoak edo gezur kaltegarriak; dala obrazko pekatuakin, nola jai egunetan premia egiatzko bage bearra egiñuz, gurasoai edo nagusiai errespetoa edo lotsa galduaz; projimoari golperen batzuek emanaz; jostatze edo jolas loi zikiñak egiñaz edo lujuriako edozein lan gaizto egiñaz, edo pekaturako bidea emanaz edo projimoari edozein kalte egiñaz, naiz ondasunetan, naiz estimazioan, naiz kredito, edo fama onean edo bere

buruari osasuna edo ondasuna edo juizioa edo zenzua galdu eragiñaz, erabageko jan-edanakin; gau beranduko tabernetako egoera luzeakin edo joku erabage askoren galgarri, eta ondagarri izan oi diranakin, eta Mandamentuen explikazioan, beste pekatu asko erraz ezagutu, eta gogoratuko dituzue.

G. Eta bere pekatuak obeto gogoratzeko, eta eza-gutzeko zeri geiago kontu artu bear dio? **E.** 1. Nolako lagunakin ibilli oi dan; nolako tratu edo artuemanak izan oi dituan; nolako okasioak batarekin edo bestea-rekin izan dituan. Eta 2. beregan zein duen bere pasio nagusi edo bizio agintaria, beste pekatu askoren sus-traia, eta ekarlea izan oi dana; batzuek dira emanak edo inklinatuak soberbiara, arrotasunera, eta banida-dera, beren buruak guztien gañean altxatu naia dute, eta ortik dator besteak despreziatzea, eta beste peka-tu guztiz asko. Beste batzuek dira gutiziosoak, diruzale erabageak, eta interesak edo irabaziak ainbestera-ño itxutu oi ditu, nun ardurabage joku, eta tratu gaiz-toak askoren kaltearekin egin oi dituan, eta beste pekatu asko ortik sortzen dira. Beste batzuek dira lujuriara edo deshonestidadera etziñak; Eta nork esan, ortik zenbat pekatu jaiotzen diran? Beste batzuek dira gulosoak, tripazai zikiñak, beti janean, eta edanean

eren gogo guzia duenak; eta ortik guztiz pekatu asko sortzen dira, eren buruen, eta familien ondamenarekin; beste batzuek dira asarrekorrak, ezer sufritu nai ez tuenak; kolera gaiztoa goitzeko erremediorik egiten ez tuenak, eta pakerik ez tuenak, ez eren buruakin eta ez eren lagunakin; beste batzuek dira enbidiosoak, guzia erendako nai duenak, besteren onaz naibage-tzen, eta besteren gaitzaz poztutzen diranak, eta aiz-kenik, beste batzuek dira, alper nagi andiak, munduko gauzetarako sotillak, eta azkarrak izan arren, Jaungoi-koaren eta animako salbazioaren lanetarako guztiz lotiak, pisuak, eta gogo urrikoak.

Ona zazpi pekatu edo bizio kapitalak edo burudu-nak beste pekatu askoren sustrai gaiztoak; guziak gure amorio propio erabagetik sortzen diranak, eta guziok ezagutu bear ditugunak, zein aldetatik geiena erren egiten degun ekusteko, eta artan erremedioa ifinteko. Eta zein de erremedio ori? Gure buruak ondo examiñatzea, eta ezagutzea; konfesio humilla; damu-tasun egiazko; ez berriz pekaturik egiteko asmo, eta proposito ziñezkoa, eta ori guzia errazago egiteko, gure pasio nagusi, eta agintaria goitzeko alegiñak egi-tea; Jaungoikoari artako indarra eskatuaz; kontuz bizi izanaz, eta batez ere, Jaungoikoaren beraren; eta

lagun projimoaren amorioan egunoro, eta geiago aurreratzeko alegiñak egiñaz: bada amorio orrek neke guzia arintzen du, eta berariazko gogoia ematen du, bizio, eta aztura gaiztoen kontra peleatzeko.

G. Eta zeri geiago begiratu bear dio, bere konzienzia ondo examinatu nai duenak, eta bere pekatuak ezagutu, eta gogoratu nai dituenak? **E.** Iru gisatako pekatuai, askok ondo ezagutzen, eta gogoratzen ezti-tuenai. Zein dira oriek? 1. Omisiozko edo utseginezko pekatuak. 2. Besteai egindako pekatuai: eta 3. Berez pekatu ez tiran gaietan modu onik, eta neurri onik gorde bagez egiten diran pekatuak. Eta ona dotriña luze askoren gaia bear bezela banaka pekatu oriek guziak esan bear balira; baña bakarrik zuei dagoki-zuen moduan esango dizuet gertatu oi dana.

Eta 1. omisiozko edo utseginezko pekatua da, Kristauari dagozkion obligazioak, ala jeneralak, nola bakoitzaren estadu, eta karguari dagozkion beargai edo obligazio partikularrak; 1. bere kulpaz ez jakitea, eta ez ikastea, eta 2. ez kunplitzea, dakizkialarik ere; eta ala, 1. Kristau guziok jakin bear degun dotriña santua ardurabagetasunez ondo ikasi eztuenak; eta ikas-teko aleginik egiten eztuenak, omisiozko edo utsegi-ñezko pekatu mortalean egon oi dira, Eta ortik zenbat

pekatu datozen, nor esan lezake? Eta nor orrezaz akusatzen, eta konfesatzen da? 2. Fedeko, Esperanza-ko, eta Karidadezko aktoak noiz edo noiz, txit luzatu bage egiten ezituenak, edo beinzat Kredoa, Aitagu-rea, eta Akto kontriziozkoa ondo errezzatzeko oiturarik ezituenak, omisiozko edo utseginezko pekatu aundi bat egiten due, eta bere salbazioaren ardurarik, ajolarik edo kuidadurik ez duela aditzera ematen due; bada gizona berez guztiz itxua, argala, eta gaitzera makurtua dago, eta ala kanpotik, nola barrutik animaren etsaiez inguraturik dago, eta Fedeak argitzen ezpadu, Esperanzak indartzen ezpadu, eta Karidadeak edo Jaungoikoaren eta projimoaren amorioak animatzen, alaitzen, eta tentazioak goitzen, eta Kristauaren lanak egiten laguntzen ezpadio, ezin pekatutik bere burua aterako du, eta ezin Jaungoikoaren grazian iraungo du. Eta ala, Kristau guziok degu obligazioa, gutxi edo asko, orazioa, eta konsiderazioa egiteko; eta Fedea, Esperanza, eta Karidadea, eta oriei darraion birtuteak, nola pazienza, humiltasuna, eta obediencia exerzitzeko; bada etsaien artean bizi, eta armatu bage, eta peleatu bage dagoana, benziturik, eta galdurik dago, eta ala guztiz negargarria da Kristau askoren ardura bagetasuna. 3. Jaungoikoari egindako promesak edo

orobat Jaungoikoaren honrarako, Ama Birjiña Santisimari edo beste Santuai egiñak, ardurabage kunplitzen eztituenak, edo motibo bage geiegi luzatzen duenak kunplitzea, omisiozko edo utseginezko pekatuan egon oi dira. 4. Meza santua zuen kulpaz edo borondatez jai egunetan ez enzutea, badakizue pekatu andia dala; bada orobat da Meza santua utsegiteko peligroan borondatez jartea, eta baita Meza santua atenzio bage, errespeto, eta erreberenzia bage enzutea, edo ardurabage kanpoko gauzatan pensatzen dagoala enzutea. 5. Gurasoak, nagusi-etxeakoandrak edo zuen kargua duen agintariak, ardurazko edo asko inporta duen gauzaren bat egitea agintzen dizuenean zuen salbaziorako, edo etxeako gobernu onerako; ez obedezitzea orduan, da omisiozko edo utseginezko pekatua, eta askotan mortala gai pisuan izan ezkerro; orobat gurasoai, eta beste agintariai zor zaien honra, eta errespetoa bear danean ez ematea: orobat gurasoak edo beste erozeñek testamentuan aginduak ez kunplitzea, edo geiegi luzatzea, da omisiozko edo utseginezko pekatua, kargudunak ardurabage edo motibo justu bage luzatzen badu. Orobat errestituzioak ez egitea, eta zor justua ez pagatzea, jabeak luzamena onzat ezpadarama da omisiozko edo utseginezko pekatua,

eta askotan mortala; batez ere neke puska batekin bada ere pagatu badezake. Eta aizkenik, ez geiegi orain luzatzeagatik, da omisiozko edo utseginezko pekatu andia, konfesoreak oitura edo aztura gaiztoren bat goitzeko edo menderatzeko penitentzia orde agintzen dituan erremedioak ez egitea. Bada konfesoreak agindu bage ere, pekatu mortala egiteko oitura edo aztura gaiztoa duenak berez du obligazio estua, eta larria alako oituraren kontra erremedioak artzeko; bada bestela beti dago borondatezko peligro gertu edo urrean, pekatu mortal berria egiteko, eta penitentziarik egin bage illzeko, eta kondenatua izateko. Eta orra omisiozko edo utsegiñezko pekatu banaka batzuek, eta orietatik beste asko ezagutu, eta gogoratu ditzaketzue, zuen obligazioak ardurabagez kunplitzen eztitutzuenean.

G. Eta badira omisiozko edo utseginezko pekatu geiago, bear bezela ezagutzen, eta gogoratzen ez tiranak? **E.** Bai, eta guztiz asko; eta dira bakoitzaren estadari, karguari, eta ofizioari dagozkion ofizioak, ondo jakiteko, eta kunplitzeko alegiñak egin bagez, egiten diran utsegiteak edo pekatuak. Guziak banaka aita tzeko, orain lekuri eztago, eta ezta bearrik ere. Eta bakarrik diot; 1. justiziako Jaunak, eta errietako kargu-

dunak badakiztela edo jakin bear dituela eren kargu-ko obligazio partikularrak, eta oriek kunplitzeko premia estua daukela, eta oriek ondo kunplitu bagez, sortzen diran edo eragozten eztiran eskandaloak, eta datozen kalteak, eren gain izango dituela. 2. Diot, gurasoak, eta nagusi, eta etxeakoandrak, eta besteren kargua duen guziak badituela eren obligazio bereziak edo partikularrak umeai, eta mirabeai dotriña santua erakusteko edo erakutsi eragiteko; Jaungoikoaren bildur santuan azitzeko; lagun gaiztoetatik, eta peligrizko okasioetatik alde eragiteko; ejemplo ona etxeo guziaz emateko, eta gaizki egiten duenean modu onarekin baña benetan korrejitzeko.

Examiñatu bear ditue bada eren konzienziak, eta begiratu ondo, ea ezertan obligazio oriei faltatu dien. 3. Ezkonduak ere baditue alkarrekiko eren obligazio berezi edo partikularrak, alkar amatzeko; alkar sufritzeko; alkarri laguntzeko, eta alkarri ejemplo ona emateko. Eta ala examiñatu bear ditue eren buruak obligazio orien gañean, eta begiratu ondo kunplitu dituen, edo ez. 4. Ofizio, eta enpleo mota guziak ditue eren obligazio bereziak edo partikularrak, eta oriek dituenak, 1. examiñatu bear ditue eren buruak, eta ikusi ia eren ofizioari edo enpleoari dagozkion obligazioak

ondo dakizten edo ardurabagez ikasi nai ez dituen; eta 2. ea bear dan leialtasunarekin kunplitzen dituen, kalterik iñori albaitez egin bage; eta 3. orobat seme, alabak, mirabeak, eta langiñak ditue eren obligazio partikularrak gurasoakiko, nagusi-etxekoandraekiko, eta soldata edo jornala edo saria ematen dien guziakiko. Humeak, obedezitu, errespetatu, eta sokorritu bear ditue eren gurasoak, eta guziak eren lanak egin bear ditue leialtasun andiarekin; ez bakarrik munduko errespetoakgatik, eta irabaziakgatik; bai prinzipal-mente begira dagokien guzion jabe, eta nagusi dan Jaungikoagatik, eta examiñatu bear dira, orretan egin dituen utsegiten gañean, eta kalte andirik egin edo eragin dien edo ez.

G. Eta konzienzia ondo examiñatzeko zeri geiago begiratu bear diogu? **E.** Gure kulpaz edo bitartez besteak egin dituen pekatuai; eta emen dator pekatu askoren beste erreskada edo lista andi bat. Eta 1. dira, erak pekatua, eren eskuz ez egin arren, pekatu egiteko agindu duenak; nola ostutzeko, makillatzeko, juramentu gezurrezkoa egiteko. 2. Ez agindu arren, artarako konsejua eman duenak. 3. Gauza gaiztoren bat egiteko edo ondo eztan karguren bat, artarako gai eztanari emateko, botoa edo iritzia eman duenak; 4.

Lausonjakin, eta hitz leunakin, edo bildurra edo lotsa emanaz, pekatu egitera besteak mugitzen dituenak. 5. Besteren pekatuak, nola lapurretak estaltzen dituenak. 6. Besteak egindako lapurretatan parte artzen duenak edo aprobetxatzen diranak. 7. Eragozteko edo salatzeko kargua, eta obligazioa daukealarik ere, nola mirabeak, besteren lapurretak isillik disimulatzen dituenak. 8. Kontu artu bagez besteren gauza galtzen edo ostutzen uzten dituenak, nola guardak, arzaia, mendizaiak, eta errietan ikusten diran dañuak edo kalteak, eragozten eztituen kargudunak. Eta 9. eren kalte aundi bage egin dezakeala, lapurrak edo aen asmo gaiztoak ziuru dakizkialarik ere, salatzen eztituenak; bada gutxianez karidadeak artara obligatzen gaitu. Eta aizkenik, besteren pekatuetan parte guztiz aundia due, pekatuak eskandaloa edo gaitz-bidea besteai eman dienak; eta examiñatu bear due zenbati, eta zer gaietan eskandalo eman dien; bada zirkuntantzia ori beti konfesatu bear da.

G. Eta badegu beste pekatu motarik zer examiñatu? **E.** Bai; eta da askoten gertatzen dana; berez pekatu eztiran gaietan pekatu egitea, modu onik, eta neurri onik gorde bagez. Eta ori 1. modako soñeko edo janrietan ikusten da. 2. Jan, edan erabagetan. 3. Joku

aundi erabagetan edo kaltegarrietan. 4. Jolas, jostatze, eta modestia bage egin oi diran danza arin, eta aringarri, eta lotsagarrietan: eta 5. nekazariak premia egiazko bage, oituraz, merkatutik merkatura dabiltzaila egiten dituen ibillera, eta tratoetan. Badakizue berez janzia, jan-edana, modu onean noiz edo noiz jokatzea; alkarrekin modu onean atsegin artzea, eta tratoak bear danean egitea, gauza onak dirala, eta pekatu bage egin ditezkeala: bana neurritik igaro ezkerro, guztiz kaltegarriak, eta pekatu askoren gaiak izan oi dira, eta ala ere txit erraz Kristau asko itxutzen dira, eta eren erabagetasuna, eta kulpa ezagutu nai eztaue; bada ignoranzia ori borondatezkoa due, bada Jaungoikoaren bildur santua duenak, erraz ezagutzen due. Eta ala examinatu bear due eren konzienzia; batez ere, eren apaindura, eta modako janziakin iñori pekaturako biderik emateko asmorik duen, edo ematen dioen, eren bizimoduari ez dagozkion gastuak, eta zorrak, premia bageko janziakin egiten, edo len egiñak ezin pagatu dituen moduan jarten diran. Bada ortik kalte andiak etorri oi dira, eta oriek sortzen dituen banidadea, eta puntu gaiztoa pekatu dira, eta ori bera gertatzen da jan-edanak bakoitzaren bizimoduari ez dagozkion moduan edo neurritik kanpora egi-

ten diranean, eta etxeok ondatzeko, ori bakarrik asko da. Bada erabageko jokuetatik datozen dañuak edo kalteak, nork kontatu litzake? Eta ala ere tranpa edo engañu andirik egiten ezpadue, pekaturik egiten duenik uste eztaue; baña ori itxumen andia, eta guztiz kulpaduna da: bada ezagutu bear due joku aundi orientatik datozela aserreak, burrukak, denpora galtzeak, aitatu bage, eren buruai, eta familiai ezeze, joku lagunai, eta aen obligazioai kalte andiak egiten diztela, edo egiteko peligro urrean edo gertuan jarten dirala, eta alkarri zor diogun karidade gai grabean ausitzen duela, eta ori ezagutzeko ezta konsiderazio aundirik bear, asko da pasioak edo bizioak itxuturik ez egotea. Eta ori bera diot, plazetan, eta baita etxe batzuetan egin oi diran modestia bageko danza zikiñ lotsagarriakgatik; bada badirudi asko danzari eztirala Kristauak edo Kristau izateaz lotsatzen dirala, eta deabruaren beraren lanak edo ofizioak egiten dituztela, pekaturako, ematen dituen eskandalo nabarbenakin. Jaungoikoak argitu ditzala, eta ondo examiñatzeko, erremediatzeko, eta konfesatzeko grazia diela.

Eta azkenik premia egiazko bage merkatutik merkatura, eta tratutik tratura, eta tabernatik tabernara dabilzan nekazari pobreak ezagutu bear due, urtea-

ren kabuan zenbat denpora alperrik galtzen duen; zenbat gastu alper egiten duen; zenbat kalte eren emazte, eta humeai egiten dien; zenbat arazeri, eta zenbat oker datozkien eren tratoetatik, eta nola komunkiro eren familiak ondatzen dituen: eren buruak galtzen dituen, eta zorigaiztoko paradero, eta zarzaro miserable bat izan oi duen; lenago zorrez, eta zorriz beterik illtzen ezpadira.

Orra bada, N.K. argirik asko zuen konzienziak ondo examiñatzeko. Eta ez geiegi orain luzatzeagatik, urrengo aldian esango dizuet, konzienzia ondo examiñatzeko zenbat denpora artu bear dezuen, eta nolako alegiñak egin bear dituzuen. Jaungoikoak arren digula guziori geren pekatuak, eta utsegiteak ondo ezagutze-ko, ondo konfesatzeko, eta aurrera erremediatzeko bere grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

BEDERATZIGARREN DOTRIÑA

*Eta seigarrena Penitenziako
Sakramentuaren gañean.*

Aurreko dotriña aldian esan nizuen, konfesatu baño lenago egin bear dan konzienziaren examiña zer dan; nola egin bear dan, eta zein diran, ondo ezagutu bage, eta examiñatu bage gelditu oi diran pekatuak. Orain aditu bear dezue, 1. Konzienzia ondo examiñatzeko, zenbat denpora artu bear dezuen: eta 2. nola-ko alegiñak egin bear dituzuen; pekatuen zenbatezkoa edo numeroa, eta aen zirkunstanziak ondo examiñatzeko.

G. Zenbat denporan aditu bear da konzienzia examinatzen edo bere pekatuak gogora ekarten? **E.** Orri zuzen eranzuteko, begiratu bear zaio 1. Kristauaren bizimoduari; 2. azkeneko konfesioa ezkerro igaro dan denporari, eta 3. examiñatu bear dan Kristauaren kapazidadeari edo buruari. Eta 1. badakizie Kristauaren bizimoduak guztiz dirala gisa, eta mota askotakoak. Batzuek dira txit onak, Jaungoikoaren bildur santuan, eta amorioan bizi diranak; mundu guziagatik

pekatu mortal bat, ezagueraz beinzat, egin nai eztuenak, eta pekatu benialak ere igui dituenak, eta komunkiro azkeneko konfesioa ezkerro pekatu mortalik egin eztuenak, edo argaltasunez tentazio esturen batean edo ustebageko okasio edo peligroren batean, pekatu mortalik egin badue, bereala biotzetik damutu, eta kontriziozko aktoak egiten aritu dira, eta ondo konfesatu artean sosegurik eztue. Onelakoak bada eren pekatuak gogoan dauzkate, eta examinatzeko denpora gutxi-asko due, eta eren buruak examiña luze batekin nastu ordean, enpleatu bear due denporarik geiena kontriziozko aktoak humiltasun, eta konfianza aundi batekin egiten. Beste batzuek dira Kristau epelak, pekatu mortalik ezaguera osoarekin egin nai eztuenak; baña pekatu benialaren bildurrik eztuenak; erraz gezurrak esaten dituenak, erraz aserratzen diranak; falso testimonio aundirik iñori ez jaso arren, dakizten besteren utsegiteak erraz erausten dituenak, askotan oartu ere bage, kalte andirik egiten dien edo ez, eta intenzio gaizto bage esaten dituelako erraz eskusatzen diranak, janean, eta edanean neurri onetik zerbait igarotzen diranak, kalte andirik egingo diela, ezagutzen eztuelako, ezagutzeko obligazioa daukelarik ere; eta beste onelako utsegite asko sarri

egiten dituzte. Eta eren konzienziaren kontu esturik eztuelako, erraz itxutzen dira; eta askotan berez pekatu mortalak diran utsegiteak, pekatu benialzat edo txikitzat dauzkate edo kezkatan jarten dira, zenbateraño kulpak edo malizia izan zuen ezin ezagutu duela; bada onelako pekatari epelak denpora geiago bear due eren pekatuak ezagutzeko, eta gogoratzeko, eta zenbat bider utsegin zuen kontua ateratzeko, eta batez ere pekatu mortalik egin duen edo fundamentuzko dudarik, eta kezkarik badue. Beste batzuek dira, pekatu mortal jakiñik egiteko oitura zarririk ez eduki arren, argaltasunez pekatu mortal batean edo bestean, tentazio-aldi batean edo bestean erorten diranak, eta orien ondoren kontriziozko aktoren bat edo beste egin arren, peligroan edo okasioan jarri ezkerok, erraz damutasuna, eta propositoa ostutzen zaienak, eta berriz pekaturatzen diranak. Eta onelakoak oraindio denpora geiago bear due eren pekatuaz ondo oroitzeke edo akordatzeko, eta ez gutxiago benetan damutzeko, eta bizitza on bat egiteko; propositoak artzeke, eta orazio humillari, eta konsiderazioari gogotik ekiteko, eta indarrak aurrerako iristeko. Beste batzuek dira pekatu larri mota batera edo askotara anziñatik oiturik daudenak; nola loikeri edo lujuriara;

edo ordikeriara; edo lapurretak ixillik egitera; edo aserrealdi guzietan birau edo maldizio gaiztoak Kristauai egitera; bendekura, gorrotora, eta beste pekatu mortal batzuetara, eta noiz edo noiz erremediatzeko asmo argal batzuek artzen baditu ere, benetako edo egiazko damutasunik, eta proposito irmo eragillerik beren oitura gaiztoa goitzeko eztuenak. Agindu arren beti bat diranak, erremedioak benetan artu bagez; eta onelakoak konfesio ona, eta frutuoso a egingo badue, aurretik egun batzuetan, besteak baño ere gogotiago orazioari, eta konsiderazioari jarraio bear dioe; bada oriek beste guziak baño itxuago, argalago, eta gaitzera etziñago daude, eta Zeruko argitasun eta laguntasun bage, ezin dateke eren buruak bear bezela ezagutzea, eta eren oitura zar gaiztoa eskuratzea; baño borondate edo gogo egiazkoa artzen badue, humillatzen badira, eta Jaungoikoari eta eren anima gaxoai zor diena ondo konsideratzen badue, eta esperanza oso batekin Jaungoikoari barkazioa eskatzen, eta erremedioak artzen edo egiten jarduten badue; alaitu, eta esforzatu bear dira. Eta kontrizioaren, eta propositoaren aldetik faltarik ezpadue, examiñaren aldetik uste duen baño neke gutxiago izango due; bada Jaungoikoak ezin egin datekean gauzarik, agintzen eztu, eta

konfesio jenerala egiteko premian egon arren Jaungoikoaren argitasun, eta graziarekin, eren alegiñarekin eta konfessore zinzo, eta prudentearen laguntasunarekin guzia erremediatu dezake, onek erakutsiko dion moduan prestatuarekin. 2. Begiratu ere bear zaio, examiñatzeko artu bear dan denpora gutxi gora bera neurritzeko, konfesio batetik bestera igaro dan denporari; (konfesio jeneralik edo urte askotakorik egiteko premiarik ezpadago) bada denbora gutxiko kontuak erraz garbitzen, eta ajustatzen dira, nola amabost edo illabetekoak edo ill bitik ill birakoak, kontu zarrak baño, nola urte guzikoak edo sei edo zortzi illabetekoak; batez ere bizimodu nastua, bein jaiki bein erori, pekatuak egin, bereala damutu, eta laster atzera biurtu dabillenean, eta baita irugarrena, begiratu bear zaio examiñatu bear danaren kapazidade edo buruaren argitasunari edo moteltasunari; bada batzuek denporaren erdian obeto ezagutzen, eta gogoratzen ditue eren pekatuak, buru txarrak dituenak baño. Diot bada, 1. ezin guziaz neurri bat edo erregla jeneral bat eman dakikeala. 2. Diot, esan dituan zirkunstanziak begiratu ta bakoitzak artu bear duela ondo dan ainbe denbora bere pekatuak gogoratzeko, ala pensamentuzkoak edo deseozkoak, konsentitu zituala badaki

edo dudatzen badu; nola hitz gaizto kaltegarriak; nola obrazko pekatuak; nola utsegiñezko edo omisiozko pekatuak, dituan obligazio jeneralak, eta partikularrak jakin bagez, ikasi bagez, eta kunplitu bagez, eta orobat besteai pekatu egiteko eman dien eskandaloak edo gaitzerako bideak; eta 3. diot, alako arreta, kuida-
du, alegiña edo dilijenzia ifini bear duela bere konzien-
zia examinatzen pekatu mortal ziertoak, eta dudako-
ak gogoratzeko, nolakoa ifiniko lukean, asko inporta-
dion auzi batean ondo irteteko, edo eman bear dituan baliozko kontu batzuek garbitzeko, eta ondo ajusta-
tzeko; eta ala batzuek asko due ordu erdi bateko exa-
mina; beste batzuek bearco ditue ordu bat edo bi;
beste batzuek egun bi edo iru, egunoro ordubete edo
geiago examiñatzen ari dirala, eta beste batzuek, eta
batez ere ardurabage, oitura gaiztoen mendean bizi
izan diranak, eta urtean bein baizik konfesatzen ezti-
ranak, eren kontuak garbitzeko, eta benetan konberti-
tzeko, eta bizimodu berri bat egitera jarteko bearco
ditue sei edo zortzi egun, egun bakoitzean ordu bi
gutxi gora bera examiñatzen eta Akto kontriziozkoak
biotzetik egiten, jarduten duela. 4. Diot, bakoitzaren
bizimoduari dagokion examiña prudente, eta kontuz-
ko bat egin ezkerro, aztutzen zaiozkan, eta ezin ezagu-

tu dituan pekatuak, konfesatu dituanakin batera barkatzen zaiozkala; eta bakarrik dauka obligazioa, gero akordatzen bazaizka, urrengo konfesioan esateko: bada Jaungoikoak eztigu agintzen, egin ditugun utsegite guziak nai ta ez ezagutzea, eta guziak gogora ekartea; bakarrik agintzen digu al deguneraño, geiegi gure buruak estutu bage, modu onean gure pekatuak gogora ekarteko, alegin prudente bat egitea, eta gure kulpa aundi bage aztutzen zaizkigunak, besteakin batera barkatzen dizkigu; eta esan det berariaz, gure kulpa aundi bage aztutzon zaizkigunak, zergatik pekatari lasai ardurabage asko dira, gaizki bizi arren, ain examiña laburra egiten duenak, nun-nai ta ez pekatu-rik asko eren kulpaz aztu bear zaizten, eta orrelakoak gaizki konfesatu oi dira, ala examiñaren faltaz, nola egiazko damutasunaren faltaz. Eta Konfesoreak, uste badu, bere laguntasunarekin aen utsegitea edo examiñaren laburtasuna ezin erremediatu dezakeala, agindu bear die, eren buruak obeto examinatzeko bear dan denbora arturik, obeto prestatu ditezela.

G. Eta ondo examinatzeko, eta konfesatzeko zer geiago egin bear du? **E.** Kontua atera bear du al due-neraño gai bakoitzean zenbat bider pekatu egin zuen, eta baitapekatu mota batean erori arren edo utsegin

arren, pekatu artan beste pekatu motarik sarturik dagoan begiratu bear du, edo gai batean bakarrik izan arren, ote duen pekatu ark zirkunstantzia aundiren bat, explikatuz bear danik, bere kulparen aunditasuna ezagutu eragiteko. Ori zeago gero aditzera emango dizuet.

Eta orain galdetzen det; Ezin akordatu bada zenbat bider gai bakoitzean pekatu egin zuen, zer egin bear du? Zenbatezko zierturik ezin ezagutu edo gogoratu badezake: gutxi gora bera zenbat aldiz izango zan, kontua ateratu bear du, eta orrela konfesatu, eta orrekin kunplitzen du; baña eztu asko esatea; banaka batzuetan, askotan edo gutxitan izan zala. Zergatik orrela konfesoreak ezin juizio zuzenik egin dezake; ezin ondo kargu egin liteke; bada batenzat iru edo lau bider, bere iritzian, izango da askotan, eta beste batenzat izango da gutxitan; eta beste batzuetan ogei edo geiago izango da bere ustean gutxitan, eta beste batzuenzat txit askotan.

Eta luzaroko oitura gaiztoaren bat eduki badu sarri edo egunoro pekatu mortalak egiteko, nola loikeriako pensantentu edo deseo zikiñak, edo gorrotozkoak edo birau edo maldizio larriak egiteko, eta ezin gutxi gora bera ere, konturik atera badu; Nola bere burua exami-

ñatu dezake? Orrelakoak ere gutxianez kontu atera bear du, zenbat denporan oitura gaizto ori eduki duen, eta bataz beste egunean edo astean zenbat aldiz deritzon pekatuan konsentitu zuela, eta denpora puskarren batean gutxi-asko erremediatu, eta atzera biurtubazan bere oitura gaiztora; ori ere konfesoari aditzera eman bear dio, obeto kargu egin dedin, eta orrela konfesatuarekin kunplitzen du, ondo damaturik badago, eta erremediatzeko alegin egiazkoak egiten ari bada.

G. Eta egin dituan pekatuak ezeze aetan arkitu ditezkean beste pekatu mota diferenteak examiñatu, eta konfesatu bear ditu? **E.** Bai; eta ala pekatu batean pekatu mota asko arkitu ditezke. Guraso bati gorroto edukitzea; birau egitea, edo gaitz andiren bat opatzea edo deseatzeta, alde bitati da pekatu, projimoa dalako, eta gurasoa dalako; eta ala ezta asko esatea, persona bati gorroto eduki diola, baizik esan bear du, gurasoari gorrotoa eduki ziola, eta orobat gurasoak humeari, senarrak emazteari, edo emazteak senarrari, edo senideak senideari. Kastidadearen kontra pensamentu edo deseo zikin loiak konsentitzea edo beste edozein loikeri egitea pekatu mortala da, edozein persona librerekin izan arren; baña aideakin, ezkonduakin edo

Jaungoikoari konsagraturik dauden edo kastidateko botoa egiñik dauken personakin alde bitatik da pekatu mortal diferentea, eta konfesatu bear da, ez bakarrik kastidatearen kontra pekatu egin zuela; baita ere zer estadutako personarekin seinalatu bage ordea zein zan; urlia edo berendia zan; bada bakarrik esan bear da estadia, eta ez izena, eta, orrenbesterekin konfesoreak ezagutuko badu pekatu laguna? Zer egin bear du? Bereala konfesatzeko premiarik ezpadu, eta erarik badu ezagutzen eztuen beste Konfesore bat billatu, eta onekin konfesatu bear du, lagunari famarik ez kentzeagatik. Bada konfesore ezagunarekin konfesatzeko premian badago, garbiro bere pekatua esan bear du, dan bezela bere zirkunstanziarekin; bada geiago inporta du konfesio osoa egiteak, sekretoan, eta premiarekin besteren utsegitea agertzeak baño. Orobat edozein lapurreta da pekatu; baño Elizako gauza ostutzea, edo Eliz barruan lapurreta egitea, da pekatu mota diferentea, eta zirkunstantzia ori esan bear da. Eta baita Eliz barruan iñor golpalu edo eritu, eta odolik ixuri eragitea, eta baita lujuriazko loikeri edo likitstasunik egitea; bada iru pekatu mota oriek Elizan egin ezkeru, Elizari zor zaion errespeto, edo erreberenziaren kontrako beste pekatu mota diferen-

te bat berekin due. Eta orobat pekatu batez baliatzen bada beste pekatu batzuek egiteko asmoarekin, explikatuz bear dira, egin zuen pekatua, eta zituen asmo gaiztoak, eta argatik batek ezpata bat edo eskopeta bat ostuko balu beste bat illtzeko, eta aren emaztea beretzeko, orra iru pekatu mortal diferenteak; bata lapurretakoa; bestea projimoa illtzeko deseozkoa, eta bestea adulterioari dagokana, iru Mandamenturen kontrakoak: ostuko eztezu; iñor illko eztezu; besteren emazterik deseatuko eztezu. Eta aizkenik, ez geiegi luzatzeagatik, pekatu mortal egiteko borondatezko okasio, peligro edo arrisku gertu edo urrean egon danak edo jarri danak, ori ere esan bear du; bada beste pekatuaz gañera orrelako peligroan egotea edo jarrea bera, berez da pekatu, eta iñori pekatu egiteko bidea edo laguntasuna eman dionak, eskandaloko zirkunstantzia ori konfesatu bear du; bada orretan beste pekatu bat egiten du, eta askori batetan pekatuak bidea eman badie, zenbati eman dien esan bear du.

G. Eta pekatu mota bat bakarrik danean, aren anditasun, pisutasun edo larritasun espeziala esan bear du? **E.** Ezagutzen badu edo oartzen bada, bai. Bestela asko du konfesorearen galdeai garbiro erantzutea, ezer maliziaz gutxitu bage. Eta ala peseta bat

edo bi ostutzea pekatu mortal bat bada ere, eta zortzi dukateko bat edo geiago batetan ostutzea pekatu mortal bat baizik ezpada ere, baldin kantidade aundia, eta dañu guztiz aundia dakarrena ostu badu, esan bear du zenbat ostu zuen; bada erremedio diferenteak, eta penitentzia aundiagoak alakoari eman bear zaizka. Eta orobat ordu erdi bateko edo egun guziko edo aste guziko gorrotoa pekatu mortal bat baizik ezpada ere, agitz diferentea da bataren, eta bestea- ren grabedadea edo pisutasuna, eta erremedio andia- goa eskatzen du luzaroko gorrotoak, bereala igaro dan batek baño: eta baita bere buruarekin edo beste- rekin pekatu mortala egiteko oitura, aztura edo kos- tunbre gaiztoa edo erraztasuna arturik eduki duenak, eta ori dala bitarte pekatuak egiteko okasio edo peli- gro gertua edo urrekoa bere barruan eduki duenak, ori goitzeko edo erremediatzeko izan duen arduraba- getasuna ere, ezagutzen, eta gogoratzen bazaio kon- fesatu bear du, eta bestela asko du Konfesoreak egin- go dion galdeari egiarekin eranzutea; bada kendu nai eztan oituratik datorren pekatua erraz egiten bada ere, larriagoa da, malizia geiago du; zerren boronda- tea artara geiago etziñik dagoan, eta erremedio andi- goa eskatzen du.

G. Eta pekatu mortal ziertoak bezela dudakoak ere examiñatu, eta konfesatu bear ditu? **E.** Arrazoizko edo fundamentuzko duda badu, eta ezin erabaki badu, 1. egin zuen pekatua mortala edo beniala zan, 2. pekatu mortalean konsentitu zuen edo ez, 3. lenago konfesaturik daukan edo ez; bere barruan dauzkan moduan duda oriek esplikatu bear ditu, bada bestela pekatu mortala konfesatu bage uzteko peligroan jarriko lizate, eta dudakoa bezela konfesatu ezkeru, argiro eza gutzen badu gero, pekatu mortal ziertoa zala, ziertoa bezela urrengo aldian konfesatu bear du. Eta batzuen desengañorako diot: berez pekatu mortal dan gauzaren bat egin zuenean, bere kulpa bageko ignorantziz uste bazuen edo pekatu etzala, edo beniala baizik etzala, etzuela pekatu mortalik egin ezagueraren faltaz: eta kontrara, berez pekatu etzan gauzaren bat edo beniala baizik etzana egin bazuen, pekatu mortala zalako ustean, orduan pekatu mortala egin zuen; bada borondateak artan konsentitu zuen, eta orobat egiteko denporan pekatu mortala zan, edo ez dudatzen bazuen, eta dudatik irten bage, egin bazuen, pekatu mortala egin zuen. Baña edo geiago zekien bati galdetuaz, edo indar andia egiten zion arrazoi edo fundamenturen bat gogoratuaz, dudatik irten bazan,

eta uste edo iritzi on batekin kezka bage obratu bazuen, pekatu mortalik orduan egin etzuen, eta zerren iruipen asko izan oi dituen batez ere eskrupuloak, dudako gauzetan orien erremediorik prinzipalena, eta bearrena da, eren iritzia, eta juizioa sujeta-tzea Konfesorearen juiziora.

Eta orra, N.K. gaurko dotriñarik asko: 1. ezagutze-ko gutxi gora bera, zenbat denpora bear dezuen zuen konzienziak examiñatzeko. Eta 2. nola pekatuen zenbategoa edo numeroa al dezueneraño gogoratu bear dezuen, pekatuetan arkitu oi diran zirkunstantzia diferenteakin, eta gertatu oi diran dudazko pekatuak nola gogoratu, eta konfesatu bear dituzuen. Eta urrengo aldian esango dizuet, aozko konfesioa nola egin bear dezuen: eta Jaungoikoak arren digula guziori bere argia, eta grazia Konfesioko Sakramentuaren frutua ugari errezibitzeko, eta bizimodu on batean eriotzako orduraño irauteko. Amen.

AMARGARREN DOTRIÑA

*Eta zazpigarrena Penitenziako
Sakramentuaren gañean.*

Aditu dezuen ezkerro aurreko dotriñetan, zein gauza premiazkoa dan egiazko penitencia, eta konfesio on bat egitea; pekatu mortal guzien barkazioa iristeko, eta nolakoak izan bear duen pekatuen damutasunak edo doloreak, eta ari lagundu bear dion, ez berriz pekatu egiteko proposito firmeak, eta eragileak, eta baita konzienziaren examina nola egin bear dan, gaur esan bear dizuet, eta txit kontuz aditu, eta gogoan artu bear dezue; nolakoak izan bear duen aozko konfesioak.

G. Zer da bada aozko konfesioa? **E.** Ondo examinatu ezkerro, ezagotu dituan, eta gogora ekarri dituan bere pekatu mortal guziak, ala ziertoak, nola dudakoak konfesoreari esatea, batere utzi bage lotsaz edo bildurrez, aen absoluzioa edo barkazioa iristeko edo alkanzatzeko esperanza osoarekin.

G. Eta era ona edo aukera eduki ezkerro konfeso-reen artean, edozeñekin kontentatu bear da? **E.**

Guziak onzat eduki bear baditugu ere, ezagutzen badegu, urlia dala jakintsuagoa, birtuosoagoa, eta animak ondo gidatzeko egokiagoa, alakoarekin konfesatzeko alegiñak egin bear ditugu; ara nola gorputzeko eritasunak sendatzeko, era duenak, Medikuri onena billatu oi du.

G. Eta obe ote da beti konfessore batekin berarekin konfesatzea? **E.** Eztago obligaziorik batere, eta ezin konfessoreak iñor artara beartu lezake; baña, komunkiro konfessore batekin ondo dijoakiola bere animako gauzetan ezagutu ezker, askoz obe da birtutean aurreratzeko arekin berarekin konfesatzea; bada errazago konfesatuko da bere berri ondo dakianarekin, eta seguruago gidatuko du, eta ala motibo bage konfessoreak aldatzen dabiltzanak, aditzera ematen due, birtutean aurreratzeko gogo gutxi daukeela.

Baña atzerapen andirik edukitzea gertatzen bazaio, okasio batean edo bestean bere konfessore artuarekin konfesatzeko, eta bildur bada edo etsaiak edo bere lotsak zerbait ezkutatzera ekarriko duela; beste batekin konfesatu diteke, bere argaltasunari begiratzen diola; baña obeto egingo luke, eta Jaungoikoaren aurrean askoz geiago irabaziko luke humillatuko baliz, eta bere lotsa, eta atzerapena goituko balu;

bada konfesorea ezin arritu diteke bere penitenteari argaltasun bat edo beste gertatu zaiola ikusi arren, eta obeto erremedioak emango diozka ezagutzen ez tuenak baño, eta ala egin oi due Kristau onak, egiaz humillaturik, eta damaturik daudenak. Eta komunkiro konfesore ezagunetatik iges egin oi due, oitura gaiztoen mendean bizi diranak, eta ondutzeko erremedio eragillerik artu nai ez tuenak; edo artu arren bereala aspertzen, eta largatzen dituenak.

G. Eta aozko konfesioak ona izateko nolakoa izan bear du? **E.** Izan bear du 1. humilla: 2. egiazkoa, eta 3. osoa. Iru kondizio oek orain aditzera eman bear dizkitzuet, eta gogoan ondo artu bear dituzue.

G. Zer esan nai du aozko konfesioak izan bear duela humilla? **E.** Txit asko esan nai du: soberbiak edo gure barruko arrotasunak: gure andinaiak: gure buruak estimatuak ikusi naiak, guziok agitz itxutzen gaitu, eta gure amorio propio erabageak, gure utsegitteak ezagutzea eragozten digu, eta ezagutu arren ere, edo ukatu nai ditugu, edo gutxitzen ditugu, edo edertu nai ditugu, gure barruko lotsa gutxitzeko: eta ortik dator konfesioan bear dan egiazko humiltasunaren falta: eta konfesio asko gaiztotzea, eta erremedioaren orde konfesioan bertan askok eren kondenazioa arki-

tzea: bada alde batetik munduarekin eta Elizako legearekin bada ere kunplitzeagatik, beste Kristauak bezela, nai due konfesatu, eta komulgatu: eta beste aldetik batzuek eren lotsa gaiztoa ez benzitzeagatik pekatuak ukatzen ditue, edo agertu bage usten ditue: eta oriei konbeni zaiena azkenean esango diet: beste batzuek eren kulpa gutxitzeko, besteai kulparik geiena egozten die: onelaroak dira aserrealdietan igui dien gauzaren bat esan dielako, edo egin dielako suak, eta garrak arturik, kolera bizian sarturik, gorrotoa, eta gaitziritzia bereala projimoaren kontra artzen duenak: eta arrazoi txar pisuak, eta bearbada deshonoragarriak esaten dituenak: eta pasioarekin itxuturik daudelako, eta erak miñik artzen eztuelako besteai miñ ematen badie ere, arrazoi daukeelako ustean gelditzen dira, eta pekatu andirik egin duela ezagutu nai eztue, Ebanjelio santuak pekatu anditzat badakar ere.

Eta ala bear dan konfesio humillik eztue egiten, eta ezta damutasunik artzen. Eta aen antzekoak dira akusatzen diranak, esanaz: Jaungikoak natural edo jenio gaiztoa, bizia, kolerikoa, eta aserrekorra eman diela, eta ezin erremediatu dirala: eta Jaungoikoari berari nolabait kulpa guztia egotzi nai dioe, eta eztue pensatu, eta ezagutu nai, Jaungoikoak ezin utsik egin

dezakeala: pekatu orijinalaren ondarrak dirala gure erabageko pasioak, eta Kristauaren lanik, eta egiteko-rik prinzipalena, eta premiazkoena dala, salbatu nai badu, bere pasioai gerra egitea, eta alegiñak egin nai baditu orazio egiñaz, konsiderazioak egiñaz, eta bere buruari indar egiñaz, bere pasioak ezi ditzakeala, eta ezi bear dituala: bere kulpa duela, eta kulpa andia pasio erabageak menderatzeko duen ardurabagetasuna, eta nagitasuna: beste batzuek deabruari kulparik geiena egozten dioe, eren buruak nolabait eskusatze-ko; eta dioe, deabruak ain biziro tentatu dituala, nun erraz engañatu dituan, eta argalak bezela erori dirala: orobat diobe beste batzuek, munduko errespetoak, eta bizi bearrak konsentitu eragin diela, eta baita aragiaren griña gaiztoak itxutu dituala, eta aren indarrari ezin atzera esan izan dioela.

Baña guziok ezagutu, eta sinistu bear degu, mundu onetan gauden artean gerra bizi batean gaudela, deabruarekin, munduarekin, eta aragiarekin, eta Jaungoikoak ematen digun laguntasunarekin, eskatu nai badiogu, gure animako etsai guztiak goitu ditzakegula, Kristau on askok goitu dituen, eta egunoro goitzen dituen bezela, eta ala gurea dala kulpa guzia: bada argalak izan arren, eztitugu prest dauzkagun

fedearen armak billatzen, eta usatzen etsaiak garaitzeko, baizik aen alde geur jarten gera, bearbada peli-groan erraz sartzen gerala, edo gutxianez ardurabageak gerala, eta Jesu-Kristok agintzen diguna egin nai eztegula: au da, tentazio guziak, goitzeko esna egotea: alerta egotea: eta orazio egitea, gure argaltasuna erremediatzeko, eta bear ditugun indarrak iristeko.

Eta ala konfesatzen geranean aitzakiak aurretik billatu ordean, garbiro, eta humillkiro gure kulpa autortu bear degu: eta ez beste askok bezela besteren kulpak esatera konfesiara etorri: eta au da humiltasuna falta dalako beste señaile andi bat: eta ala askotan ikusten da, senarrak bere kulpa gutxitzeko emaztearen falta guziak banaka esaten dituala: orobat emazteak senarrarenak: eta nagusi-etxeakoandreak eren mirabeanak: eta oek eren nagusi-etxeakoandranak: eta auzokoak auzokoarenak: bada guziak eren aldetik arrazoia daukela uste due, eta askotan eren pasioak, eren arrotasunak, eren kolera gaiztoak itxutzen ditu: eta zerbait humillagoak, eta sufrituagoak balira, eta berenaz bezela besteren argaltasunaz erruki piska bat baluke, eren utsegiteak ezagutuko lituzke, eta aitzaki bage, estalgarri bage, eta besteak konfesioan bertan ofenditu bage konfesatuko lirake: eta geiena konten-

tatuko lirate esanaz, persona batek ustebageko okasioa eman dit, eta pazienziarik iduki eztet, eta gaizki tratatu det: eta aurrerago igaro bada edo eskuak egotziaz, edo birauak egiñaz, edo gaitz andiren bat deseatuaz, ori guzia ere bere kulpa bezela konfesatu bear du, eta ez besteak okasio eman diolako bere burua garbitu, eta besteak zikindu: bada okasiorik, eta tentaziorik ezpaliz, ezagutuko ez genduke, birtuterik daukagun edo ez: Jaungoikoa amatzen degun edo ez, eta projimoarekiko egiazko karidaderik degun edo ez: eta alkarrekiko karidadean bizitzeko bear dan humiltasunik, eta pazienziarik degun edo ez. Eta ala utsegiten badegu, gure kulpez utsegiten degu: bada salbatzeko nai ta ez bear ditugun birtuteak gradurik bajueanean ere iristeko eta ejerzitzatzeko alegiñik egiten eztegu: eta au onela dan ezkerro, gure kulpa ezagutu, eta kulpadunak bezela humillatu, eta gure barruko lotsa, eta damu egiazko batekin konfesatu bear gera: eta ez beste batzuek bezela, dirudienak, iguitzen etsaien besteren gauza batzuek historia bat bezela, beren pekatuak kontatzen dituela; oztasun andi batekin, gaizki egindako penarik, eta damurik agertu bage, bada ori ere izan oi da, bere obena edo kulpa ondo ezagutzen eztuelako señailea: eta eztitut orain aita-

tzen oriek baño gaiztoago diran hipokrita andi batzuek, benetan erremediatzeko, eta bizimodu on bat gogotik egiteko asmo egiazkorik eztuenak: eta Konfesoarea engañatzeko, eta absoluzioa ateratzeko suspirioz, eta negarrez eztaukeen humiltasuna finjitzten edo iduritu eragiten duenak. Jaungoikoak arren guziok argitu gaitzala, eta digula egiazko humiltasuna, gure utsegiñak ezagutzeko, eta konfesatzeko ezeze, erremediatzeko gogo bizi, sendo, eta eragille batekin: bada orduan konfesio humilla ezeze, egiazkoa ere egingo degu.

G. Eta zer esan nai du konfesioak izan bear duala egiazkoa? **E.** Konfesioan gure pekatuak eztitugula ez azi, eta ez gutxitu bear: bada pekatu mortal bat bakarrik, geiago edo gutxiago jakiñaren gañean esatea, eta baita pekatu aundi bat txikia baliz bezela estaltzea, edo iruitu eragitea, da pekatu mortal berri bat egitea, eta konfesio alperra ezeze, Sakrilejio andi bat egitea.

G. Eta zer esan nai du konfesioak izan bear duela osoa? **E.** Aurreko dotriñan esan genduan bezela, konzientzia ondo examinatuzeko alegin zinzo edo prudente bat egin ezkerro, ezagutu dituan, eta gogoratu dituan pekatu mortal guziak osoro konfesatzea, ziertoak,

ziertoak bezela, eta dudakoak, dudakoak bezela; beren zenbatezkoarekin, eta agertu bear diran zirkunstantzia diferenteakin.

Eta pekatu nazkagarri bat edo asko egin dituan Kristau lotstiren batek, edo konfesorearen bildurra duen batek, edo egiazko penitentzia egiteko, eta artu bear dituan erremedioak egiteko, edo nai ta ez berea-la kunplitu bear dituan obligazioak osatzeko atzerapen andia duen batek, eta bere pekatuak diran bezela agertzeko lotsa guziz aundia, eta neke arrigarria bere barruan daukanak, eta batez ere pekatu larriak lenago lotsaz edo bildurrez isildu, ete ezkutatu dituanak, eta konfesio, eta komunio gaiztoak egin dituanak; zer egin bear due, lotsa gaizto ori, eta atzerapen andi ori goitzeko edo garaitzeko, eta bere pekatuak garbiro esateko, eta konfesio on bat egiteko? Erruki-garriak dira estadu triste orretan dauden Kristau ain lotsatiak, ain itxutuak, ain nagiak, ain ansiakabeak, eta ain alper andiak; nun eren zorion edo zorigaitz guzia oraingo, eta betikoa inporta dien egiteko onetan lo pisu batean bezela egotera atrebitzen diran. Orien itxumena, eta orien biotzeko soberbia, eta gogortasuna ain arrigarria da; nun Jaungoikoaren argitasun, eta grazia aundi bat bage, eta eren partetik esnatzeko,

pizkortzeko, eta eren amorio propioa goitzera animatzeko alegin aundiak egin bage, sorrera, eta lo pisu izugarri orretan biziko dira: eta illko dira: eta Infernura dira.

G. Eta badago oriendako erremediorik? **E.** Bai: benetan artu nai badue. Eta zer erremedio due? Gai onetan fedea erakusten dizkigun egia andiak ondo kontsideratzea, eta oriekin irazarririk, bildurturik, eta sendatzeko gogo bizi batekin Jaungoikoari humiltasun, eta esperanza andi batekin bere argia, grazia, eta indarra gogotik eskatzen aritzea Jesu-Kristoren ize-nean edo aren kabubageko merezimentuen bitartez: eta ona gogora sarri ekarri bear dituen egiak. 1. Bada-kizue, N.K. eta guziok fedeko egia, eta Jaungoikoaren beraren esana bezela sinisten degu, oraindano munduan egin diran, eta aurrera munduaren bukaeraraño egingo diran pekatu guziak baño, eta baita asmatu ditezkean gaiztakeri guztiak baño, infinitamente aundiagoa dala Jaungoikoaren ontasuna, eta miserikordia: eta orobat Jesu-Kristok bere Aita eternoaren justiziarri eman zion gure pekatuen satisfakzioa dala kabubagea, milla mundu, au baño gaiztoagoak erremediatzeko asko, eta sobra dana. Bada berdin da fedeko egia, Jaungoikoak bere aldetik eztuela nai pekatariak

kondenatzea, baizik salbatzea: eta dan pekatarririk
aundiena, izugarriena, nazkagarriena mundu guztiko
pekatuak berak egiñak baleuzka ere, egiaz humilla-
tzen bada, biotzetik damutzen bada; Jaungoikoagana
benetan biurtzen bada, eta Jesu-Kristoren izenean edo
aren merezimentuakgatik barkazioa esperanza bizi
batekin eskatzen badio, eta Jesu-Kristok agindu zuen
bezela konfesio humil, eta egiazko bat egiten badu;
seguru iritxiko duela pekatu guzien barkazioa, eta
Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasuna: eta libratu-
ko dala orain bere konzienziak ematen diozkan ortxi-
kada, eta erreprentio gogorretatik: eta gero betiko
edo eternidade guziko Infernuko tormentuetatik: eta
batez ere, betiko lotsatik, eta desesperaziotik: eta iri-
tsiko duela betiko bere barruko pakea, atsedena, eta
konsueloa, eta gero eternidade guziko poza, konten-
tua, eta gloria.

Orain bada fedea erakusten dizkigun egia konso-
lagarri aek ezin ukatu dituan Kristaia, nola izan dite-
ke ain soberbioa, ain itxua, ain gogorra, eta bere
buruaren ain etsai aundia, nun lotsa puska bat ez
garaitzeagatik, bere burua orain ez humillatzeagatik,
eta bere betiko salbazioagatik neke puska bat ez
artzeagatik naiago duen beti kezkatu bizi, eta betiko

zoriona galdu, eta betiko zorigaitza, eta kondenazio bere buruari ekarri? Ikusiko ezpaliz, nork sinistuko luke onelako itxumenik, onelako zorakeriarik, eta onelako ardurabagetasunik? A! zein egia aundia dan kon siderazioaren faltak, eta orazio humillaren faltak munda itxuturik, eta galdurik daukala; iregi itzatzue bada animako begiak, gauza oek ondo ezagutzeko, eta pisatzeko: eta erregutu egiozue Jaungoikoari humiltasun, eta esperanza aundi batekin Jesu-Kristoren ize nean, arren zuen soberbia, eta gogortasuna desegin dezala: eta konfesio humil, eta egiazko bat egiteko indarra, eta gogoia eman degizuela. 2. Bada bestela (eta ona beste kon siderazio guztiz indarsu bat) fedeko egiak ukatu nai ezpadituzue lotsa piska bat orain konfesioan benzitzen edo menderatzen ezpadezue, zeurok nai ta ez, zeuron buruari ekarriko diozue lotsa bat guztiz arrigarria, guztiz nabarbena, eta betikoa, iñoiz ere akabatuko eztana. Bada zuen pekatu estaliak orain zeurok, eta Jaungoikoak eta Aingeruak, eta Dea-bruak dakitzkizute, eta pekatu oriek guziak konfesio humil, eta damuzko batek desegiten, eta borratzen ezpaditu; ezin geiagoraño lotsatuko zaitue; 1. Jaungoikoaren tribunalean, juizio partikularrean, orduan dea-bruak salatuko zaituzte, eta guziak aurpegira botako

dizkitzute: ezin ukatuko dituzue, zuen konzienziak, eta zuen Aingeru guardakoak testigu leialak bezela autortuko ditue. Eta nork esan orduan izango dezuen lotsa arrigarria? Eta orduko zuen desesperazioa, eta arrabia, ezin esan al baño aundiagoa? Lenago konfesio humil batekin erremediatu zezakeala, erremediatu bagez? Bada 2. lotsa izugarri, eta penagarri ori zenbat aziko da, Juizio jeneralean zuen pekatu lotsagarri guziak ikusten dituzuenean mundu guziaren aurrean, zuen ezagun, eta adiskide guzien aurrean barreatuak edo publikatuak? Nolakoa izango da orduan zuen lotsa? Emen bertan Eliza onetan gauden guzion aurrean, eta zeuron aurrean, zuek konfessore bati biziaren penan, sekreto gordeko duan bati esatera atrebitzen etzeraten pekatuak, emendik publikatuko, eta barreatuko banitu, nolako estutasuna, nolako nairbagea, nolako pena izango etzenduke, zuen buruak nabarbenkiro deshonoratuak ikustean? Askorenzat bertan illik gelditzeko asko lizate.

Bada lotsa ori guztia, eta oraindio aundiagoa, eta nabarbenagoa nai ta ez ikusi, eta sufritu bearko dezue Juizio jeneralean, orain bear bezela zuen pekatuak konfesatzen, eta erremediatzen ezpadituzue. Eztago bitarterik edo ondo konfesatu edo betiko kondenatu,

eta betiko lotsatu, eta betiko desesperatu. Bai, N.K. zuen Juizio jeneralean (ondo konfesatzen ezpazerate) izango dezuen lotsa arrigarria, eta deshona izugarria ezta orduan bukatuko, edo akabatuko eternidade guzian lotsa ikaragarri ark iraungo du: Deabruak erak, orain konfesatzeko, ain lotsa aundia buruan ipintzen dizuenak, orduan burla, iskarnio, eta desprezio arrigarririk egingo dizkitzue, ain zoroak, ain zenzu bageak, ain itxuak, zeuron kulpaz izan ziñatelako. Eta orobat kondenatu guziak burlatuko, eta deshonoratuko zaituzte: eta zeurek izango zerate zuen borrarorik gogorrenak, desesperazio, eta arrabia izugarri batekin zeuron zorakeria kondenatzen dezuela, eta beti gogoratzen dezuela, zein erraz lotsa arrigarri artatik libratu zintezkean, eta zeuron kulpaz lotsa labur bat orain konfesioan ez sufritzeagatik, etorri zerate betiko lotsa, betiko deshona, eta betiko eskarnioak, eta burlak padeziterra. Kontsideratu itzatzue bada orain egia oek: eta zeuron buruak egiaz maite badituzue, bertatik erremedioa konfesio humil, eta egiazko batean billa ezazue.

3. Eta egia aundi oriek gogoratu, eta kontsideratu nai badituzue, eztezue izango ez Konfesorearen bildurrik: bada 1. Ezin Konfesorea arritu liteke zuen gaiztakeriak adituagatik, bada oriek erak, eta bearbada aun-

diagoak, eta ikaragarriagoak askotan aditurik dauzka: eta gutxianez irakurririk dauzka, ala Eskritura santuan, nola Elizako erakusle, edo Doktoeren liburuetan: eta badaki persona batek egin ditzakean gaiztakeri guziak egiteko, edozein persona, eta baita bera ere gai dala: ain arrigarria da guzion gaitzerako griña gaiztoa, Jaungoikoak gordeko ezpaginduz: eta ala arri-tu ordean ikusten bazaitue egiaz humillaturik, eta damaturik, bere artean poztuko da: konsolatuko da: atsegiñez beteko da: Jaungoikoa bera, eta Zerutar guziak postutzen diran bezela, pekataria egiaz konbertitzen danean: eta 2. badakizue konfesioko sekreto-a gordetzeko obligazio ain estua duela, nun munduko guzion salbazioa inporta balu ere, eta bere burua erretzen utzi bear balue ere, ezin konfesioan adituta-ko gauzarik batere esan lezake: ezta pekatariari bera-ri ere kondesiotik kanpora. Eta San Juan Nepomuzenok bere ejemploarekin dotriña ori erakutsi zigun: bada naiago izan zuen Martirioa padezitu, eta bizia galdu, ezenez konfesioko sekreto-a agertu, Errege gogor gaizto batek artara premiatu, eta beartu nai izan bazuan ere. Eta ala alde orretatik eztezue zer bil-durrik iduki.

Baña eztira bakarrik pekatuak agertzeko lotsak, eta Konfessorearen bildurak atzeratzen dituenak konfesio humil, eta egiazko bat egitetik: geiago dira ondo konfesatzera atrebitzen eztiranak; zerren gogorik eztuen, nai ta ez bear dituen erremedioak artzeko, eta ala batzuek pekaturako peligro, edo okasio gertuan egon arren, arriskutik irten nai eztue zerren konbenienziaren bat edo ondasunen bat galdu bear due: eta milla aitzaki asmatzen ditue, okasio gaiztoari ez largatzeko. Beste batzuek anziñako oitura gaiztoa, eta erraztasuna edo aztura gaiztoa arturik dauke moskortzeko edo orditzeko, edo joku aundi erabageak, eta kaltegarriak egiteko: loikeriako pekatu zikiñak edo bere buruarekin edo besterekin egiteko: edo betiko gorrotoan daude, eta etsaiak amatzera jarri nai eztue: eta beste batzuek gaizki irabaziak tratuan, saldu-erosian edo jokuan edo besteai egindako kalteak biurtzeko borondate egiazkorik eztue: eta premiazko penitentzia edo erremedioak artu nai eztitue. Oek guziok, eta beste onelako asko egon oi dira bertatik ondutzeko bear dan egiazko damutasun, eta proposito eragille bage. Pozik pekatuak konfesatuko lituzke, beste lanik ezpaliz: eta noizbait, eta batez ere aizkeneko eritasunean guzia erremediatuko duelako esperanza,

eta uste falso engaigarriarekin itxutzen dira. Eta bitartean komunkiro gaizki konfesatzen dira, edo pekatuak ezkututzen dituelako, edo benetan, eta bertatik erremediatu nai eztiralako.

G. Eta zer erremedio dago orrelakoenzat? **E.** Ezin besterik erakutsiko diet, sendatu nai badue, kontsiderazioa, eta orazio humilla baizik. Orien borondatezko itxumena, eta biotzeko gogortasuna arrigarria da: eta Jaungoikoak argitzen, ukitzen, eta biguntzen ezpaditu, gure esan, eta abisu guztiak alperrak dira: pekatuko okasio gertutik irteteagatik emango balie zortzi dukateko pare bat, bereala irteteko modua artuko luke: edo arrisku artan daudelako osasuna galdu bear balue, bereala irtengo lirite. Orobat oitura gaiztoa benitzeagatik aldiko diru zati andi bat emango balie, bereala erremedioak gogotik artuko lituzke: eta baita eren zorrak pagatzeagatik eskeñiko balie Maiorazko edo errenta andi bat, pozik pagatuko lituzke. Eta animako salbazioagatik; betiko zorionagatik; beti iraungo duen ondasunakgatik; betiko gloriagatik, ezer egin nai eztue. Orra fedearen illuntasuna; bada eztue iritxiko fedearen argitasuna, eta Zeruko grazia eragillea, eta indarsua, fedeko egia aundiak kontsideratu nai ezpaditue: eta humillaturik, eta esperanza on batekin alaitu-

rik orazio egiten ezpadue. Eta, zer kon sideratu bear due? Dotriña onetan bertan aitatu ditugun egiak asko dira, ondo kon sideratu nai baditue: eta batez ere gogoan erabilli bear due Jaungoikoaren guganako amorio guztizkoa: gu salbatzeko daukan dese o egiazkoa, ondu nai bagera: Jesu-Kristoren nekeak, Pasio, eta eriotza gure pekatuen zorra pagatzeko: ematen dizkigun erremedio guztiz eragilleak bere Sakramentuetan, eta bere dotriña santuan: eta eman nai digun betiko saria, betiko zoriona, edo betiko gloria: edo kontrara esker gaiztokoak, eta itxu gogorak bagera, nai ta ez emango digun betiko kastigu izugarria, eternidade guzian anima, eta gorputz Infernuko su irazeki, eta garretan kiskaltzen, eta ler egiten egon bearra, iñoiz ere alibiorik izateko esperanza bage: eta aizkenik bertatik Jaungoikoaren dei, eta inspirazio onari jarraio nai ezpadiogu, geroago ta itxuago, eta gogorago egingo gerala: geroago, eta Zeruko laguntasun gutxiago izango degula, eta ori gure kulpaz: eta supito illtzen ezpagere ere, edo zenzua galtzen ezpadegu ere askori gertatu zaion bezela, ez gerala komunkiro benetan, eta bear dan bezela eriotzako orduan konbertituko: eztegula orduan ere bear bezelako damutasun, eta proposito egiazkorik izango; zerren lenago

ardurabageak, eta esker gaiztokoak izan geran: eta
ala, N.K. humillatu gaitezen guztiok: zenzatu gaitezen
egia andi oen argiarekin: eta bertatik gure kontuak
zuzendu ditzakun: Jaungoikoari txit sarri orretarako
bere indarra, eta grazia eskatu degiogun, konfesio
ona, humilla, eta frutuduna egin dezagun: eta orrela
iritsiko degu betiko gloria. Amen.

AMAIKAGARREN DOTRIÑA

Penitenzia kunplitzearen, eta penitenziatzko obrak egitearen gañean.

LENBIZIKO PARTEA

Ikusi dezue N.K., Penitenziako edo Konfesioko Sakramentu Santuaren gañeko oraindañoko dotriñetan, egiazko penitenziaren, eta konfesio on baten bearra edo premia pekatuen barkazioa iristeko, betiko Infernutik libratzeko, eta eternidade guziko zoriona edo betiko gloria alkanzatzeko, eta baita, nolakoak izan bear duen pekatuen biotzeko dolore edo damutasunak; ez berriz pekaturik egiteko proposito egiazkoak, eta oriek iristeko egin bear diran alegiñak, eta konzienziaren examiña, eta aozko konfesioa, nola egin bear diran, eta gai guztiz premiazko oni narraiola, gaur esan bear dizuet, eta txit kontuz aditu bear dezue, konfesio on bat egiteko bear degun bostgarren gauza, au da, penitenzia kunplitzea edo obraen satisfakzioa zer dan, orren premia edo obligazioa nola dan; nundik datorkigun pekatuen zorrak pagatzeko obligazio ori, eta zerekin pagatzen diran, eta orra gaurko

dotriñaren gaia, eta erraz orain gure zorrak pagatzeko bideak, eta medioak gure Jaungoikoaren ontasunak nola ematen dizkigun, beste dotriña batean ugariago azalduko edo esplikatuko dizuet.

G. Zer da bada konfesio on baterako bear dan obraen satisfakzioa? **E.** Da Konfesoreak agintzen duen penitencia kunplitteko asmoa edo intenzioa eduki-tzea, eta ark agintzen duen moduan kunplitzea.

G. Penitencia kunplitzeko asmo bage konfesatuko baliz, pekatuen barkaziorik, absoluziorik, eta Sakra-menturik artuko ote luke? **E.** Ez luke artuko, eta sakri-lejioko pekatu mortal andi bat egingo luke; baita peni-tenzia kunplitzeko egiazko asmo bage edo intenzio bage, konfesatzen danak, ez dauka dolore, da propo-situ egiazkorik, eta ori bage milla bider absoluzioa emango baliobe ere, absolbitu bage, barkazio bage, eta Sakramenturik artu bage geldituko litzate, eta lenaz gañera pekatu mortal berri bat egingo luke.

G. Eta penitencia kunplitzeko asmoarekin edo intenzioarekin, ondo prestaturik, konfesatu ezkeru, penitencia gero kunplitzen ezpadu, balio du konfesio-ak? **E.** Bai, balio du, eta bakarrik dauka obligazioa, utsegite orrezaz damutzeko, eta konfesatzeko, eta baita Konfesoreak erakutsiko dion bezela, lengo peni-

tenzia osatzeko; bada bitartean lenagoko Sakramentua dauka mankaturik bezela, osatu bage; ara nola manku edo, beso bage dagoan gizon bat, egiazko giza-bizia dan; baña faltaduna; ala, penitentzia kunplitu artean, konfesio onarekin errezibitu zuen Sakramentua, dago faltaduna, eta osatu bear da; au da pekatuari (kulpa barkatu ezkerro) zor zaion pena denporala pagatu bear da.

G. Eta zer pekatu da Konfesoreak agintzen duen penitentzia ez kunplitzea? **E.** Bere kulpaz, au da, arduragabetasunez penitentzia pisua, grabea edo larria kunplitzen ezpada, pekatu mortala egiten du; nola izango litzatean errosario oso bat edo barau egun bat, edo Meza bat, edo erremedio, eta penitentzia orde onenbeste denporako bitartean, illean bein edo ill bitik ill bira, gutxi gora bera konfesatzea aginduko balio; edo onelako okasio edo pekatu larriko arrisku, eta peligro gertutik alde egiteko, edo artara ez biurtzeko aginduko balio; bada konfesoreak agindu bage ere, berez dauka edozeñek obligazio andia, eta estua, pekatu eragin oi dion okasiotik, eta lagunetatik al dueñeraño apartatzeko, eta baita aserreren bat izango badu ere edo konbenienziaren bat galdu bear balu ere, eta onelako penitenziak kunplitu bagez, beti bere

oñean daude pekatu andiak, eta oitura gaiztoak. Baña penitentzia arin bat pekatu benialakgatik eman oi dana, nola kredo bat, salbe bat, estazio bat edo kontriziozko aktoren bat, kunplitu bage uzten badu, pekatu benial izan oi da, gai txikia dalako, eta orobat penitentzia larria izan arren, aren parte gutxi bat baizik uzten ezpadu.

G. Eta Konfessoreari aztuko balitzaio penitentzia seinalatzea edo agintzea, penitenteak zer egin bear du? **E.** Oartzen bada Konfessoreari esan bear dio, penitentzia seinalatu degiola.

G. Eta penitentea ere orduan akordatzen ezpada, baña bai gero, zer egin bear du? **E.** Urrengo konfesioan esan bear du zer gertatu zitzaion, eta eskatu orduko Sakramentua osatzeko penitentzia; bada Konfeso-reak ori seinalatu bear du, zerren bere borondatez egi-ten dituan beste penitenziako obra onakin, pekatuen zorra pagatu balezake ere, baña ez luke Sakramentua osatuko.

G. Eta zer estadutan penitentzia kunplitu bear da? **E.** Graziatzko estaduan dagoala kunplitzeko alegiñak egin bear ditu; bada pekatu mortalean dagoala, ezin pekatuaren zor denporalaren satisfakziorik eman dezake, eta argatik, gertatuko balitzaio, penitentzia

kunplitu edo osatu baño lenago pekatu mortalean erortea. Jaungoikoaren grazian jarteko alegiñak egin bear ditu, gutxianez kontriziozko aktoa biotzetik lenago egiten duela.

G. Eta noiz kunplitu bear du konfesoreak agindu dion penitentzia? **E.** Señalatu badiozka eguna edo egunak, orduan kunplitu bear du, edo señalatu ezpadio noiz, luzatu bage modu onean kunplitu bear du. Eta nolana, lenago kunplitu eztuenak, gero kunplitu bear du; ara nola, zor bat, epe edo plazo jakiñean pagatzen ezpada, gero pagatu bear dan.

G. Eta Konfesoreak agintzen duen penitentzia, naita ez artu bear du penitenteak? **E.** Kunplitu dezakea bada, bai; bestela modu onarekin aditzera emen bear dio, daukan enbarazoa, penitentzia ura kunplitzeko, eta aren orde, eman degiola besto penitentzia bat.

G. Eta Konfesore bategandik penitentzia artu, eta beste bati gero eskatu leikio, penitentzia ura aldatu edo mudata degiola? **E.** Motibo edo arrazoi justurik badauka bai, bestela ez. Eta eztio bigarren Konfesoreak penitentzia aldatu edo mudatu bear, batez ere peligro gaiztotik irteteko edo oitura gaiztoaren bat ezitzeko, erremedio premiazkoa bezela emana bada, ondo kargu egin bage, zergatik, eta zertako peniten-

zia ura señalatu edo eman zion aurreko Konfesoreak, eta fin artarako lena bezin egokia dan beste penitenzia bat agindu bage.

G. Konfesio egiazko batekin, eta absoluzioarekin pekatuak barkatzen diran ezkerro, eta Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasuna, eta betiko gloriaren deretxoa iristen diran ezkerro; zertako da penitenziazko obrak agintzea, eta kunplitzea? **E.** Lenbizikoa, pekatuai dagokien pena denporala mundu onetan pagatu eragiñaz, Jaungoikoaren justiziari satisfakzio emateko; eta orrela Purgatorioko pena arrigarrietatik libratzeko. Eta bigarrena, aurrera penitenziazko obrak egiñaz, eta batez ere pekatua ez biurtzeko erremedio egokiak artuaz, gure argaltasuna erremediatzeko, eta pekatutik datozkigun griña gaiztoak goitu eragiteko, eta orrela pekatua biurtu bage. Jaungoikoaren grazian irauteko, eta pekatuen zorrak pagatuaz gañera, Zerurako ondasun andiak irabazi eragiteko.

G. Ez ditu bada Penitenziako Sakramentuak pekatu mortal guziak osoro barkatzen, eta baita benialak ere, aen damua eduki ezkerro? **E.** Pekatuan bi gauza arkitzen dira; bata da kulpa, au da Jaungoikoaren Majestade Soberanoari egindako ofensa, injuria edo agrabioa; eta orri darraio pekatuaren kontrako Jaun-

goikoaren aserrea, eta gorrotoa; eta bigarrena da pekatuari dagokion betiko kastigua edo Infernuko betiko pena, bada Penitenziako Sakramentu Santuak, ondo prestaturik errezibitu ezker, kulpa guziak, Jaungoikoari egindako ofensa guziak barkatzen dizkigu, eta berarekin adiskidetzen gaitu, eta baita betiko pena ere barkatzen digu, baña aren orde pekatuaren zor denporala edo mundu onetan edo purgatorioan pagatzeko kondizioarekin eta obligazioarekin. Eta onetan distingitzen dira Bateo Santuko Sakramentua, eta Penitenziako Sakramentua.

Bateo Santuan, Jaungoikoaren ontasunak kulpa guzia, eta pena guzia, ala betikoa, nola denporala, osoro barkatzen die, bateatzen diranai, pekatari guziz andiak izan badira ere, bear dan damuarekin bateatu ezker, eta bateatu, eta bereela illko balira, Purgatorioko penarik batere sufritu bage, Zeruko gloriara igoko lirateke: eta aren arrazoi prinzipala da, Jaungoikoaren probidenzia, eta justizia miragarriaren zuzentasuna, lenago ignoranziz edo jakin bagez itxuturik egon diranai, Jesu-Kristoren fedea, eta legea laztandu duenean, Jesu-Kristoren Pasio, eta Eriotza Santuaren frutua osoro aplikatu nai izatean, eta jaio bezela, inozenziako soñeko ederra ematean. Baña bateatu ezke-

ro, argira, eta ezaguerara etorri ezkerro, ain doai andiak, eta miragarriak errezibitu ezkerro, ain esker gaiztoarekin eranzun ezkerro, eta Espiritu Santua, tris-tatu, eta eren biotzetatik bota ezkerro, beste tratu bat Jaungoikoaren justiziagandik Kristau pekatarak merezi due. Mesederik asko egiten die, Penitenziako Sakramentu Santuan ain kulpa andiak, eta aei zegokien betiko pena barkatuaz, eta obligatzen baditu pena denporal batzuek sufritzera edo obra penagarri batzuek, aen orde mundu onetan egitera, ori ere Jaungoikoaren guganako amorioaren, eta erruki andiaren señaile da, bada penitenzierik eginkizunik ezpaliz, pekatu rik andienak ere, ezertan edukiko ez ginduzke, geroago ta itxuago, eta gogortuago egingo giñateke, eta erremedio bage kondenatuko giñate. Eta ala gure onagatik batez ere penitenziazko obrak egitea Jaungoikoak agintzen digu, eta ala pekatuaren zor denporala pagatu bear degu.

G. Etzion bada Jesu-Kristo gure Jaunak, Jaungoikoaren justiziari gure pekatu guzien satisfakzioa eman? Zertako guk ere pagatu bear degu, Jesu-Kristok gugatik eman zuen pagua, asko, eta sobra dan ezkerro? **E.** Zergatik, Jesu-Kristok berak ala disponitu edo ordenatu duen, gure Jabea danak bezela; ez bakarrik ezere-

zetik egin gaituelako, baita ere, bere odolaren neurri-
bageko kostuarekin, eta gugatik eman zuen paguare-
kin, erosi, erreskatatu, eta libratu gaitualako deabrua-
ren, eta pekatuaren katiberiotik, eta bere eskuan
dauka, nai duen kondizioakin bere grazia, eta gugatik
eman zuen satisfakzioa guri aplikatzea.

Eta ara nola Bateo santuan ere, kulpa guzia, eta
pena guzia barkatu arren, Adanen pekatutik datozki-
gun ondarretatik osoro libratzen ez gaituan; bada gel-
ditzen zaku ill bearra; gaitzerako griña gaiztoa, eta
onerako pisutasuna; gorputzean, eta animan senti-
tzen ditugun argaltasun askorekin, eta ori guzia, guri
humiltasuna gorde eragiteko, Zeruko graziaren, eta
laguntasunaren bearra erakusteko; ura, eskatu eragi-
teko, eta arekin batera bizioak edo gurari gaiztoak
goitu, eta birtuteak ejerzitzatzeko, eta orrela betiko
koroa, eta gloria irabazteko; ala bada, Peniteriziako
Sakramentuarekin kulpa guzien, eta betiko penaren
barkazioa iritsi arren; alpertu ez gaitezen, eta pekatu-
ra biurtu ez gaitezen, baizik birtutean iraun, eta aurre-
ratu gaitezen, agintzen digu Jesu-Kristo gure Jaunak,
al deguneraño penitenziako obra onakin pekatuari
dagokion zor denporala pagatzea edo satisfakzioa
ematea, eta ala ere berak orretarako geiena egiten

du; bada gerez bakarrik ez gera gai, pekatuen satisfakzioa emateko, eta bere graziarekin, egiten ditugun obra penagarriak, juntatzen ditu berak gugatik eman zuen kabubageko satisfazioarekin, eta bere Aita Eternoari guziak ofrezitzen diozka, gure pekatuen pagurako; eta ala guk ere Jesu-Kristoren merezimentuakin uniturik, gure obra on guziak, eta neke edo trabajuak ofrezitu bear diozkagu gure Jaungoikoaren justiziarik, gure pekatuen zorrak pagatzeko, eta aurrera bizimodu on baterako indarrak, eta grazia iristeko.

G. Eta zergatik geiago penitenziako obra onak egin bear ditugu? **E.** Jesu-Kristoren beraren antzekoak izateko; bera da guzion burua, eta guzion Maisua edo erakuslea, eta bera gugatik, au da, gure pekatuakgatik, eta guri erakusteagatik ainbeste nekatu zan ezkerro, gauza lotsagarria da, aren mienbroak edo zatiak, eta aren jarraitzalle, diszipulu edo eskolakoak generalarik, gure pekatuen zorra pagatzeko, eta pekatuen kontrako erremedioak artzeko, ain alperrak, eta nagiak izatea, eta nekatu bage Zerura joan nai izatea.

G. Eta zein dira egin bear ditugun penitenziazko obrak? **E.** Benik bein konfesoreak agintzen dizkigunak, baña eskuarkiro, pekatariak epelak, eta argalak diralako, izutu eztezen eta bearbada kunplitu bage utzi

ez ditzaten, penitentzia biguñak, eta ariñak denpora oetan eman oi zaie, lenagoko denporetan eman oi ziran penitentziaen aldean; eta argatik ez gera kontentatu bear, bakarrik konfesoreak agintzen digun penitentiarekin baizik, bizi geran artean (egunoro ainbeste utsegite edo andi edo txiki egiten degun ezker) pekatuen penitentzia egiten, eta gure zorrak pagatzen jardun bear degu, bada bestela Purgatorioan tormentu arrigarriakin pagatu bear ditugu, eta ori ondoana dijoakigula, bada bildur izateko da, penitenziazko obra onak, gure bizimoduari dagozkionak egiten ezpaditugu, pekatu andietan erori, eta betiko kondena gaitetzen.

G. Eta pekatuen zor denporala pagatzeko, eta bizimodu on bat egiteko, zer obra on egin bear ditugu? **E.** Iru dira, orretarako serbitzen duenak, eta dira, lenbizikoa, orazioa; bigarrena barau edo mortifikazioa, eta irugarrena limosna. Eta deitzen diegu, orazioari, baraubari, eta limosnari penitenziazko obrak edo penagarriak, eta zor degun pena pagatzeko egokiak, zerren gure amorio propio erabagea, eta ortik sortzen diran soberbia edo andinaia, abarizia edo ondasun gura erabagea, eta gorputzaren atsegin loi zikiñaren griña edo apetitoa, penatzen dira, tristatzen dira, eta

goitzen dira, birtute orien exerzizioarekin; baño ori gertatzen da abiaduran, asieran, oitu artean, ze, gero badira Kristau on asko, batere penatzen eztiranak, baizik poztutzen diranak, ala orazioarekin, nola pasio erabageak ezi, eta eskuratzearekin, nola karidadea edo al duen on guzia projimoai egiñarekin, eta penarik ez artu arren, eztue gutxiago irabazten, baizik askoz geiago, zerren gogotiago obra onak egiten dituzten.

G. Eta zer aditzen degu emen orazioaren izenaz?
E. Gure biotza Jaungoikoagana altxatzea, eta gure premia espiritual, eta denporal guzien erremedioa eskatzea, baña ez nolana, ezpada atenzioarekin, eta errespeto andi batekin, humiltasunarekin, esperanza irmo batekin, eta iraupenarekin Jesu-Kristo gure Jau-naren izenean. Eta ori guzia egiten degu, Aita gurea; akto kontriziozkoa; konfesio jenerala, bear dan eza-guerarekin, atenzioarekin, eta debozioarekin, erreza-tzen ditugunean; eta baita Maria Birjiña Santisima edo Santuak bitarteko arturik, erregutzen diegunean, alkanza degiguela Jaungoikoagandik, Jesu-Kristogatik, gure premia edo nezesidadeen erremedioa; eta orretarako *Abe Maria, edo Salbea, edo Aita gurea* orobat aen honran errezatzen degula.

G. Eta gure animako itxumenak argitzeko, gaitzerako griña gaiztoak, edo bizioak eskuratzeko; pekatuak benetan iguitzeko edo aborrezitzeko, eta birtuteari gogotik jarraitzeko; au da, egiazko penitentzia egiteko, eta bizimodu berri bat artu, eta artan irauteko, zer orazio mota egin bear degu? **E.** Kontsiderazioarekin batera egin oi da orazioa; au da orazio mentala edo gogozkoa; bada kontsiderazio bage ezer aurreratu ez degu.

G. Eta edozeñek orazio modu ori egin dezake? **E.** Bai, Kristauaren dotriña badaki, eta dotriñako egiak gogora ekarri, eta aen gaiñean bere pensamentuak edo kontsiderazioak egin nai baditu; bada, fedeko egiak jakin arren, kontsideratzen edo gogoratzen ezpadiu, eztue Kristauaren barrua argitzen, mugitzen, eta berotzen; baña bai ondo kontsideratu ezkeru, eta orren ondoren Jaungoikoaren ontasunari, bere grazia gogotik eskatu ezkeru.

G. Eta zein dira orretako kontsideratu bear ditugun egia prinzipalak? **E.** Ebanjelio Santuak erakusten dizkigunak, eta batez ere Kredoan bertan dauzkagunak. Eta lenbizikoa nor dan gure Jaungoikoa, eta zenbat zor diogun, ala bera danagatik, au da, bere anditasun, eta perfekzio kabubageakgatik, nola, guk merezi bage,

egin dizkigun on egiñakgatik edo mesede guztiz miragarriakgatik; bada geran guzia, eta degun guzia, berea degu, berak emana degu, eta izan ditekean zorionik, ditxarik edo felizidaderik andiena, eternidade guzian gozatzeko egin gaitu, eta ori guri emateko deseo edo borondate egiazkoarekin dago, guk bera ondo ezagutu, amatu, eta serbitu nai badegu; eta kontrara, alperrak, esker gaiztokoak, eta munduaren, eta aragiaren jarraitzalle itxuak bagera, betiko galdu bearrak, kondenatu bearrak, eta betiko zorigaiztokoak gure kulpaz izango gera.

Eta orra N.K., Fedeko egia andi bat, guziok sinisten deguna; baña ondo konsideratu bagez, ukitzen, mugitzen, eta zenzatzen ez gaituana. Zer erremedio bada? Konsiderazioa, eta orazioa. Bigarrena orobat guziok sinisten degu, Jesu-Kristo gure Jauna gugatik Gizon egin zala; gure pekatu guzien zorrak bere gain artu zituala, eta aen pagua edo satisfakzioa gure ordeztu Jaungoikoaren justiziarik emateko, ezin esan al baño neke, naigabe, oñaza edo dolore, eta tormentu arrigarriagoak sufritu zituala, eta gu pekatutik, eta deabruaren katiberiotik, eta betiko eriotzatik libratzeagatik, Gurutze batean ill nai izan zuela. Eta arrezkero pekatu mortala egiten duen Kristauak, Jesu-Kristoren

pasioko tormentu guziak, eta eriotza lotsagarria berri-
tzeko diña motibo ematen duela; bada ori ondo pen-
satuko, pisatuko, eta konsideratuko bagendu, nolako
damua pekatu egiñaz artuko ez genduke? Nolako
eskerrak Jesu-Kristori emango giñiozke? Nolako kon-
fianzarekin pekatuen barkazioa eskatuko giñioke? Eta
nolako alegiñak egingo ez ginduzkue, bizimodu on bat
egiteko, eta aurrera pekatuko peligrotik kontuz alde
egiteko, gure oitura gaiztoak ezitzeko, eta birtuteari,
eta batez ere Jesu-Kristok erakutsi zigun humilltasuna-
ri, pazienziari, eta alkarrekiko karidadeari jarraitzeko?
Bada ori guzia berekin ekarri oi du, Jesu-Kristoren
guganako amorioaren, eta bere pasio, eta eriotza San-
tuaren konsiderazioak, eta ari darraion orazio humi-
llak.

Baña konsideraziorik, eta oraziorik egiten ezpade-
gu, itxu batzuek bezela, ezer ez bagiñaki bezela; sinis-
tuko ezpagendu bezela; gure griña gaiztoen mendean
zoraturik bezela, biziko gera; eta gure kondenazio
geiagorako izango da, Jaungoikoak eman digun fedea,
aren argiaz baliatu nai izan ez geralako. Eta ori bera
pensatu bear dezue, Eriotzaren, Juizioaren, betiko
Infernuaren, eta betiko Gloriaren fedeko egia guztiz
indartsu, eta eragilleen gañean. Sarri gogoratzen

badituzue, mugituko, azkartuko, eta piztuko zaitue; baña ondo konsideratu nai ezpadituzue, zuen itxume-
nean, nagitasunean, eta lengo gogortasunean gelditu-
ko zerate. Jardun bada N.K., fedeko artikulu edo egia
andien konsiderazioan, eta zuek egiazko penitentzia
egingo dezue; eta orazioari juntatuko diozue baraba
edo mortifikazioa, eta baita alkarrekiko Kristau guziek
eduki bear degun errukia, eta orri darraion limosna
edo alkar sokorritzea, ez bakarrik premia denporale-
tan, baita espiritualetan ere; eta orrela pekatuen
zorrak erraz pagatuko dituzue, eta irabazi andiak
Zerurako egingo dituzue. Eta orretako beste dotriña
batean ugariago aitatuko dizuet, nola barauarekin,
eta limosnarekin, eta baita zuen neke guzien pazien-
ziarekin; Meza Santua ondo enzunarekin, eta Induljen-
ziak irabaziarekin, txit erraz mundu onetan pekatuen
zorra pagatu dezakezuen, eta Zeruko ondasunak ira-
bazi ditzaketzuen. Jaungoikoak grazia ori guziori digu-
la, eta betiko gloria. Amen.

AMABIGARREN DOTRIÑA

*Gure pekatuen zorrak erraz pagatzeko,
eta bizimodu on bat egiteko penitenziazko obrak,
eta egunoro Kristauaren lanak,
nola egin bear ditugun,
erakusten da bigarren partean.*

Konfesio on baten ondoren penitenziazko obrak egiteko ajolarik, arretarik edo kuidadorik eztuen Kristau nasai, ardurabageak, eren buruai ekarten dien kalterik andiena ezta, pekatuen zor denporala pagatu bage gelditzea; andiagoa da, pekatu mortalean berriz erorteko, gelditzen zaien erraztasuna, eta arrisku andia; bada gauza jakiña da, eriozko gaitz andi bate-tik libratu arren, gaitz aren sustraiak barruan gelditzen badira, eta aren kontrako erremedioak artzen ezpadira, laizter berriz gaixotuko dirala, eta lengo eritasuna biurtuko zaiela, eta ori sobra ikusten da animako eritasun espiritualetan. Bada konfesio on batekin pekatu mortalaren gaitz, eta eritasun izugarritik, eta kondenazioko estadutik libratu arren, pekataria berez da itxua, eta argala; gaitzera etziña, makurtua edo

inklinatua, eta onerako nagia, eta pisua, eta orrez gañera, galdu nai duen etsaiez inguraturik dago; deabruak, mundu gaiztoak, eta aragiak gelditzaka tentatzen due, eta pekatura berriz ekarri nai due. Nola bada egongo da pekatura biurtu bage, penitenziazko obrak egin bage, eta erremedioak aurrera artu bage? Eta Kristau on bati dagokion bezela, bere bizimodua zuzendu, moldatu edo arreglatu bage? Gaur bada azkeneko dotriñari narraiola, berrik hitz egin bear dizuet, penitenziazko obraen gañean, edo pekatura ez biurtzeko, artu bear ditugun erremedioen gañean; eta pekatuen zorrak erraz pagatzeko, eta Zerurako ondatsun andiak irabazteko, egin bear degun bizimodu onaren gañean. Eta aditu zenduen ezkerro, orretarako zein gauza bearra dan, orazio egitea, eta fedeko egiak gogora sarri ekartea, eta konsideratzea, aekin gure barrua argitzeko; pekatua iguitzeko, eta birtuteari gogotik jarraitzeko, orain galdetzen det: Zein da Orazioaren ondoren penitenziazko obra prinzipala? Da baraua.

G. Eta barauaren izenaz zer aditzen degu? **E.** Eztegu bakarrik aditzen, Elizako legeak agintzen dituan barauak, eta bijiliak gordetzea; ori obligaziozko egitekoa edo lana da, ez barautzeko motibo justurik eztuen

Kristau guzientzat, ogeta bat urte bete edo osatu ezke-
ro; baita ere barauaren izenaz aditzen degu, janean,
eta edanean, tenplanzako birtuteak agintzen digun
neurri ona, modu ona, eta fin ona gordetzea; gularen,
eta tenplazaren gañeko dotriñan explikatorik edo adi-
tzera emanik daukagun bezela; eta ezta ori ere baka-
rrik aditzen barauaren izenaz; orobat aditzen da, gure
sentiduen, eta eragabeko deseo, pasio, eta griña gaiz-
toen mortifikazioa; eta ala, egiazko penitentzia egiteko
ezeze, Jaungoikoaren lege santua gordetzeko, eta bir-
tutean irauteko; naitaez, gure sentiduen gurari eraba-
geak, peligrozkoak, eta pekatura erraz ekarri gaitza-
keanak ukatu, mortifikatu, eta menderatu bear ditu-
gu; begiai ukatu bear diegu loikeri, eta lujuriara ekarri
edo mugitu gaitzakean gauzak ikustea edo begira-
tzea: Belarriai ukatu bear diegu hitz loi, zikinak, eta
kanta edo koplak deshonestoak aditzeko gustoa; eta
baita murmurazioak aditzeko deseo gaiztoa; mingaña-
ri ukatu bear diogu, iñorzaz gaizki esatea; eta birau,
maldizio edo juramentuak esateko erraztasuna; eta
gustoari erabageko jan-edanen deseoa; eta orobat,
sudurrai bear eztiran usai gozoak billatzeko gogoia,
eta eskuai ukitze zikiñak egiteko griña gaiztoa, peka-
tu askoren sustrai gaiztoa edo madarikatua. Bada

gauza oetan mortifikatzen ezpagera, penitenziarik egin nai eztegelako señailea gerekin degu, eta konfesion asmo onak artu arren, erraz aztuko zaizkigu, eta erraz atzera biurtuko gera. Baña gorputzeko sentiduak ezeze, gere barruko pasio, eta griña gaiztoak ezitzeko edo mortifikatzeko alegiñak gogotik egin bear ditugu.

G. Eta zein dira goitu bear ditugun gure pasio, griña edo bizioak? **E.** Pekatu askoren sustrai gaiztoak diran zazpi pekatu kapitalak edo burudunak; au da, lenbizikoa soberbia edo andinaia, arrotasuna, banidadea, eta hipokresia. Bigarrena, abarizia edo gutizia edo ondasun edo interesaren gura edo apetito erabagea. Irugarrena, gorputzaren gusto zikin edo loikeriaren griña gaiztoa. Laugarrena, ira edo kolera gaiztoa. Bostgarrena, enbidia edo orri darraion projimoaren gorrotoa. Seigarrena, gula, jan-edan erabageak egiteko griña edo bizioa. Eta zazpigarrena, nagitasuna, au da, birtutearen iguia edo birtutezko lanak egiteko atzerapena edo alpertasuna.

G. Eta nola goituko ditugu zazpi bizio nagusi edo burudun gaizto oriek? **E.** Orretarako berariazko zazpi dotrina emanik dauzkagu, eta ezin orain guzia berriz esan dezakegu, eta bakarrik diot: gure buruaren amo-

rio erabagea edo desordenatua, pekatu orijinaletik guziori datorkiguna, dala, bizio orien guzien sustrai nagusia, eta beste guziak bere oñean dauzkana, eta indartzen dituana. Eta ala, gere buruaren amorio propio erabagea goitzen badegu, ortik sortzen diran pasio edo griña gaizto guziak, txit erraz menderatuko edo eskuratuko ditugu.

G. Eta gere buruaren amorio propio erabageko ori goitzeko edo eskuratzeko, zer egin bear degu? **E.** Askotan adituko zenduen, iltze batekin beste bat ateratzen edo kanporatzen dala. Bada orixe egin bear degu, amorio gaiztoa, eta kaltegarria gere biotzetik ateratzeko, amorio ona, eta probetxugarria gere buruai eduki; Jaungoikoak eztingu eragozten, baizik agintzen digu, gere buruak amatzea; Baña nola amatu bear ditugu gere buruak? Gure egiazko zoriona benetan billatzeko, alegiña egiñarekin. Eta gure egiazko zoriona nun arkituko degu? Ez gure amorio propio itxuak nai dituan, eta billatzen dituan munduko banidadetan, aberastasunetan, eta aragiaren edo gorputzaren atsegiñetan, bada oriek gozatzeko egiña ezta gure anima, eta munduko honra, ondasun, eta gusto guziak goza al balitza, ez litzate orregatik egiaz zorionekoa izango. Zertako egiña da bada gure anima, eta

zertan dago gure egiazko zoriona? Badakizue guziok, eta fedea argiro erakusten digu, gure egiazko zoriona dagoala Jaungoikoaren aurrean, orain onak izatean, au da, gure borondate gaiztoa ukatu, eta Jaungoikoarena egitean, eta Jaungoikoa bera, eternidade guzian Zeruko glorian argitasun guzian ikustean, amatean, alabatzean, eta gozatzean; gure anima asetzerano, kontentatzerano edo deseatu ditzakean poz, eta kontontu guziak betiko Jaungoikoagan gozaten ditugula.

G. Orrela, orain onak ezpagera, egiazko zorionik ez orain, eta ez gero izan dezakegu? **E.** Ala da egia, eta pasioarekin, eta munduko gauzen amorio erabagerekin itxuturik, eta gaiztoturik eztaudenak, erraz ori ezagutzen, eta autortzen due, eta eren barruan probatzen, eta nolabait ikusten due.

G. Eta Kristau onak izateko egiaz, eta oraingo, eta geroko egiazko zoriona iristeko, zer egin bear degu? **E.** Amorioa aldatu; Jaungoikoarenzat egiñak geran ezkerro, eta gure egiazko zoriona Jaungoikoagan bakarrik arkitzen dan ezkerro; Jaungoikoa biotz guztitik, eta gauza guzian gañetik amatu bear degu, eta Jaungoikoagatik, eta Jaungoikoagan gure animak edo gure buruak amatu bear ditugu, eta gere buruak bezela,

gere lagun projimoak, ala adiskideak, nola etsaiak, orobat Jaungoikoagatik amatu bear ditugu. Eta orduan, alde batetik, ala Jaungoikoarekin, nola gure buruarekin, nola gure lagun projimoarekin pake gozo batean biziko gera, eta betiko zorioneko pakea, eta deskansua seguratuko degu, eta beste aldetik, Jaungoikoaren, gere buruaren, eta projimoaren amorio santu orrek gure biotzetik aterako du edo gutxituko du, eta menderatuko du, gure barruan daukagun munduko honra, interes, eta atsegiñaren eragabeko amorioa, eta ortik datozkigun griña edo pasio gaiztoak erraz orduan azpiratuko edo goituko ditugu. Eta ala Jaungoikoaren, eta gure animaren amorio egiazkoak indarrak emango dizkigu, humillak izateko, eta munduko banidadeak despreziatzeko; gutizia gaiztoa goitzeko, eta liberalak edo emalle onak izateko; aragiari bere gusto zikiñak ukatzeko, eta animako, eta gorputzeko garbitasuna edo kastidatea gordetzeko. Kolera, ira edo aserretasuna ezitzeko, eta pazientzia ejerzitzeko. Enbidia, eta gorrotoak gure biotzetik aienatzeko, eta aren lekuan karidade egiazkoa edukitzeko. Gulako pasio edo griña gaiztoa, erabage, eta neurribage, jan-edanak billa erazotzen diguna benzitzeko, eta tenplanzako birtutea maite izateko, eta azkenik bizio

guzien etzanlekua, eta sortzalea dan nagitasuna aienatuko du gure biotzetik Jaungoikoaren amorio egiazkoak, eta gure egiazko, eta betiko zorionaren deseobizi eragilleak, eta azkartuko, pizkortuko, eta alaituko gaitu penitenziazko edo mortifikaziozko obrak egitera, eta batez ere gure argaltasuna, erorteko zorira edo pekatura ekarri lezakeen okasio edo peligroetatik kontuz alde egitera; gure oitura gaiztoak ezitzeko erremedioak benetan egitera; orazioarekin, eta konsiderazioarekin gure buruak argitzera, eta indartzera, eta baita al ditugun karidadezko obra onakin gere projimoak sokorritzera, eta Jaungoikoaren amorioan bizi naiduan kristauari dagokan bizimodu on bat egitera, eta ori da, pekatuen barkazio osoa erraz iristeko, eta orientzorrak pagatzeko, orain erakutsi bear dizuedana.

G. Zein da bada, orazioaz, eta barabaz edo mortifikazioaz gañera, penitenziako obra, geienik ejerzitate bear deguna? **E.** Limosna egitea. Eta zer aditzen da limosnaren izenaz? Gere lagun projimoak, gere buruak bezela, Jaungoikoagatik amatzen ditugula, karidadezko edo miserikordiazko obrakin erakustea. Eta ala, guziok gure Aitatzat Jaungoikoa bera daukagun ezkerro, Jesu-Kristoren senideak, eta alkarren senideak geran ezkerro; eta guziok Zeruko Erreinuaren

herederoak, eta alkarren zorioneko lagunak, Zeruan beti izateko egiñak geran ezker; alkarren errukia eduki bear degu; alkarri injuriak biotzetik barkatu bear diozkagu, eta bata bestea lagundu, eta sokorritu bear degu al deguneraño, eta ez bakarrik gorputzeko premietan edo nezesidade denporaletan, baita animakotan ere, miserikordiazko obrak ala gorputzari dagozkionak, nola espiritualak gogotik ejerzitatzen ditugula; bada ori, da, Jaungoikoa egiaz amatzen degulako, señale ona, ori da, Jaungoikoaren errukia guretzat irabazteko, bide segurua; ori da, pekatuen barkazioa edo orretarako egiazko penitenziaren doaia alkanzatzeko medio guztiz indarsua, eta baita pekatuaren zor denporala mundu onetan pagatzeko txit asko balio duena. Eta ori da, Eskritura Santuan Jesu-Kristok txit sarri erakusten digun egia konsolagarria, eta ala, Jaungoikoagatik, gere interesa propioagatik, eta lagunari zor diogun amorioagatik, karidadea gere lagun projimoarekin ejerzitzatzeko, gogo ona eduki, eta gere obra onakin erakutsi bear degu.

G. Eta gure pekatuen zorrak erraz pagatzeko, eta Jaungoikoaren amorioan irauteko, eta egunoro Zerurako irabazi andiak egiteko, zer geiago egin bear du Kristauak? **E.** Egunoro bere egitekoak edo lanak, esna-

tzen danetik, goizean jaikitzen danetik, oiratzerario Kristau onak egiten dituen moduan, kontuz egitea; eta ori da, orain erakutsi bear dizuedana; eta gogoan ondo artu bear dezuena. Zer egiten due bada antxitan Kristau onak esnatzen diranean? Eta zer egin bear degu guziok? Lenbizikoa ziñatu, eta santiguatu, espazioz, atenzioz, eta debozioz; eta bigarrena, oroitu edo akordatu Jaungoikoaren aurrean gaudela, eta Jaungoikoa begira dagokigula, eta bertatik Jaungoikoarekin hitz egiten abiatu, esaten diogula: nere Jaungoikoa adoratzeko zaitut, nere Jaun eta jabe Soberanoa bezela, eskerrak ematen dizut egin dizkidatzun mesede guziakgatik, eta batez ere gau onetan gorde, eta konserbatu nazulako; indazu arren zure grazia, egun onetan zu ondo serbitzeko.

G. Eta jaiki, eta janzi ezkerro, zer egiten due Kristau onak? Eta guk zer egin bear degu? **E.** Lenbizikoa, era ona izan ezkerro ur bedeinkatua artu, eta Jaungoikoari esan: garbitu nazazu arren nere pekatu guzietatik. Eta bigarrena, belauniko al badu edo era onik badu, eta ezpadu zuti edo al duen modurik onenean, beste lanak egiten asi bada lenago, orazio egin, au da, lenbizikoa Jaungoikoari eskerrak eman, egin dizkigun mesede edo fabore guztiz andiakgatik; bigarrena gere

buruak, eta lanak ofrezitu berari, eta 3. gere erreguak egin. Ara nola ori erraz, eta denpora gutxian egin dezakezuen. Nere Jaungoikoa, nere Jabe, eta nere ongille guztiz maitagarria, nere biotz guztitik eskerrak ematen dizut, zerren ezerezetik zure anzera, eta zu ezagutzeko, amatzeko, eta zure betiko gloriuz gozatzeko egin nazun, zerren fedearen argira ekarri nazun; zerren zure Seme maite Jesu-Kristoren odolaz pekatutik libratu, eta zure grazia eman didazun; zerren nere pekatuakgatik Infernura bota ez nazun; baizik, Aita errukitsu batek bezela itxon didazu; deitu nazu, eta zeregana ekarri nazu, eta betiko gloria eman nai didazu; Zerekin Jauna, zure ontasunari eranzungo diot? Naizan guzia, eta dedan guzia zurea det; eta guziaz zu serbitzen enpleatu nai det. Eskintzen dizut bada gaurko nere pensamentu, hitz, eta obra guziak, eta baita nere neke guziak. Jesu-Kristok bere lan guziak egin zituan, eta bere naigabe guziak sufritu zituan intenzioarekin berarekin; zure honra, eta gloria geiagorako, eta nere animaren salbaziorako, eta Jesu-Kristoren beraren izenean eskatzen dizut, nere oraindañoko pekatu guzien damu bizi bat, eta ez berriz pekatu egiteko proposito sendo eragille bat, eta guzien barbazioa; damu det Jauna, zu aiañ ona izanik, zu ofendi-

tua, eta lenago ill nai det, zu berriz ofenditu baño, eta proposito onetan irauteko, indazu arren zure grazia, eta indarra pekatuko arrisku edo peligrotik beti alde egiteko, nere oitura gaiztoak, eta batez ere geiena gaitzera nakarrena eskuratzeko; egungo nekeak, eta naigabeak nere pekatuen zorren pagurako, pazientzia andi batekin eramateko, eta nere lan, eta egiteko guzietan zuri atsegin egiteko, eta zu nere biotz guztitik amatzeko. Amen. Eta orren ondoren txit asko balio-ko dizue espazioz, eta atenzioz, eta debozioz erreza-tzea Kredoan, Aita gurea, eta Abe Maria, Akto Kontriziozkoa edo nere Jesu-Kristo Jauna &.: Eta konfesio jenerala edo ni pekataria, eta goizetik Ama Birjiña Santisimari; zuen Aingeru guardakoari; zuen izeneko, eta debozizko Santuai, eta zuen Elizako Patroi Santuai erregutu egiezue, arren Jaungoikoagandik iritsi degizuela bear dezuen laguntasuna, eta grazia, egun ori ondo igarotzeko, eta eriotza on baten ondoren betiko deskansua, eta gloria alkanzatzeko, eta orretarako berriz Aitagurea, eta Abe Maria errezatu itzake-tzue, eta baita, orduan bertan Jaungoikoari erregutu egiozue, zuen obligaziozko persona guziakgatik, ala biziakgatik, nola illakgatik, eta batez ere zuen ongi-illeakgatik, eta baita zuen etsaiakgatik ere, Jaungoiko-

ak guziok bereganatu gaitzan, emen karidadean edo alkarren amorioan bizi, eta gero betiko glorian bera alabatu, amatu, eta goza dezagun. Eta orra goizeroko orazioa Kristau onak txit kontuz egiten duena, eta batzuek konsiderazioarekin edo meditazioarekin egiten duena; bada bizierazotzen, eta azitzen due fedea, esperanza, karidadea, kontrizioa, humiltasuna, pazientzia, eta birtute guziak, eta indar andiak artzen dituzte animako etsaiak goitzeko; tentazioak errez benzitzeko; birtuteak exerzitzeko, eta pekatuen zorrak pagatuaz gañera, ondasun andiak Zerurako egunoro irabazteko.

G. Eta goizeko orazioaz gañera, beste aldi batzuetan ere Jaungoikoaz oroitzeko, eta bere laguntasuna, eta grazia eskatzeko, alegiñak egiten eztitue Kristau onak? **E.** Bai, eta sarri, eta gu ere errez artara oitu gaitzke, eta probetxu andia aterako degu, eta lenbizi-koa, edozein lan edo beargai asitzera guazenean Jaungoikoari ofrezitu bear diogu, eta esan biotzetik bada ere; Jauna, zure izenean, eta zure honrarako lan au egin nai det, edo fin orrekin esan, Gurutze Santua egiñaz: bigarrena ordua aditzen degunean orazio laburtxo bat egitera oitu bear gera, Ama Birjiña Santisimari bere anparoa eskatzen diogula, esanaz: Maria, gra-

ziaren Ama, misericordiaren Ama etsai gaiztotik libra gaitzatzu, eta eriotzako orduan anpara gaitzatzu, edo beste onen anzeko orazioren bat. Irugarrena, Eliza Ama Santak egunsentian, egun erdian, eta illunabarrean kanpaia jo eragiten du, eta ez alperrik, baizik Kristauai gogora ekarteko, Jaungoikoaren Semearen gizon egitea edo Enkarnazioko Misterio guztiz andia, Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan; bada egizue alegiña denpora orietan misterio ori gogora ekarteko, eta Eliza Ama Santak orretareko usatzen dituan orazioak esateko, eta ezpadakizkitzue; iru Abe Maria deboziaz errezatzeko, eta Induljenzia guztiz asko irabaziko dituzue. Laugarrena, zuen jatorduetan Jaungoikoaz oroitzeko edo akordatzeko, eta ematen dizuen alimentuaren eskerrak emateko arreta edo kuidadua eduki bear dezue, eta Eliza Ama Santak usatzen dituan orazioak ezpadakizkitzue, gutxienaz Aita gurea, eta Abe Maria eta gloria Aitari, jatorduaren asieran errezatu itzatzue, eta azkenean esan ezazue; Jaungoikoak bere ongilleai betiko ondasunak diela, eta Purgatorioan dauden anima fielai betiko pakea. Amen. Bostgarrena, era ona izan ezkerro Meza Santua egunoro deboziaz enzuteko alegiñak egin itzatzue, eta era onik ezpadezue, zaudeten tokitik edo lantegitik, egun

artako Meza guziak Jaungoikoari ofrezitu egiozkatzue, Jesu-Kristoren sakrifizioarekin batera zeuron buruak ofrendatzen diozkatzuela, zuen intenzioa uniturik Jesu-Kristorenarekin eta Eliza Ama Santarenarekin, eta Meza guzietan partedun izateko deseoarekin Aita gurea, eta Abe Maria errezatu itzatzue, eta zuen pekatuen zorrak erraz pagatuko dituzue, eta txit asko irabaziko dezue; baña nola jai egunetan guziok Meza Santua enzun bear dezuen eta jai egunak santifikatu Lbear dituzuen, eta oriek ondo edo gaizki gordetzetik, datorren eskuarkiro nekazarien, eta beste beargilleen edo salbazioa edo kondenazioa; egun orietan txit kontuz, eta astiro, Meza debozioz enzunaz gañera, orazio egiten, zuen konzienziak examinatzen, pekatuen barkazioa benetan eskatzen, eta aurrerako proposituak egiten jardun bear dezue, eta kontuz alde egin bear dezue tabernetatik, eragabeko jokuetatik, eta jolas edo danza peligrozkoetatik, eta ez Deabruari, askok egiten duen bezela, baizik Jaungoikoari, eta animako salbazioari konsagratu egun santu oriek. Seigarrena, orobat egunoro errosario santua atenzio, eta debozioarekin errezatzeko alegiña egin bear dezue; al bada etxeke guziakin batera, eta ezpada bakoitzak bere bakarrean; eta errosario santuko misterioak ondo

ikasi, eta gogoan erabilten badituzue, Aita Santo Doniingok Ama Birjiña Santisimagandik ikasi, eta era-kutsi zituan bezela, orazio mentala edo gogozkoa, eta orazio bokala edo aozkoa batetan, probetxu guztiz andiarekin egin dezakezue, eta Induljenzia asko irabazi ditzakezue; bada, au da, pekatuen zorrak erraz pagatzeko bide guztiz egoki bat, eta ala, alegiñak egin bear dituzue al dituzuen Induljenzia guziak irabazteko. (Zazpigarrena) baña orretarako graziazko estaduan bizitzeko alegin guziak egin bear dituzue; bada pekatu mortalean bazaudete, ezin Induljenziarik irabazi dezakezue; ezin pekatuen zorrik paga dezakezue, eta ezta Zerurako irabazirik egin dezakezue.

Baña graziazko estaduan bazaudete, Jaungoikoaren izenean egiten dituzuen obra on guziakin, eta eramaten dituzuen neke guziakin, naiz borondatezkoak izan, naiz gogoaren kontrakoak izan, pekatuen zorrak pagatu ditzaketzue, eta Zerurako ondasun guztiz andiak irabazi ditzaketzue; eta orretarako zuen langai guziak, eta zuen neke guziak ofrezitu bear diozkatzue Jaungoikoari alik sarriena. Jesu-Kristoren lanakin, eta nekeakin batera, eta Purgatorio orde serbituko dizue, eta gloriako zati edo grado andiak irabaziko dituzue. Eta argatik Jaunaren grazian irauteko, eta zuen salba-

zioa seguratzeko, iru gauza guziz probetxugarriak azkenik enkargatzen dizuet; lenbizikoa, Jesu-Kristok agintzen digun bezela, esna egotea, kontuz bizitzea; *Vigilate, et orate ut non intretis in tentationem*. Mundu onetan gauden artean, gerra bizian gaude; kanpotik, eta barrutik tentazioak beti izan oi ditugu; gerez argalak, eta gaitzera makurtuak edo inklinatuak gera; baña kontuz bizi nai badegu, eta estutasunetan, eta tentazioetan humildadearekin, eta konfianzarekin Jesu-Kristoren izenean, Zeruko laguntasuna, eta indarra eskatzen badegu, gure etsai guziak erraz goituko ditugu. Eta ori da, Jesu-Kristok berak erakutsi zigun, eta kontuz artu bear degun erremedioa. Eta bigarrena, iñoiz pekatu mortalean erorteko zorigaitza gertatzen bazaku, luzatu bage, gere kulpa ezagutu, eta akto Kontriziozkoa biotzetik egin bear degu, eta barkazioa obeto seguratzeko, laster konfesatzeko, era ona billatu. Eta irugarrena, goizean bezela, oira baño lenago orazio piska bat egitera oitu bear gera, eta lenbizikoa, Jaungoikoari eskerrak eman, egin dizkigun mesede guziakgatik, goizeko orazioan bezela; eta bigarrena, gere utsegiteak ezagutzeko, eta examinatzeko argia Jaungoikoari benetan eskatu, eta gere pekatuen examina egiten, barkazioa eskatzen, eta

damutasun egiazkoa, eta propositoak egiten, jardun bear degu; eta azkenik, sarri konfesatzera, eta komulgatzera oitu gaitzen, eta era onik badegu, Konfessore zinzo, eta zelo andiko bat autu dezagun, eta orrek erakutsiko dizue, zuen bizimodua nola moldatu; egiazko penitentsia, eta ez iruipenekoa edo azalekoa, nola egin, eta eriotza on bat, eta ari derraion betiko salbazioa edo betiko zoriona nola seguratu, eta ori da guziori deseaten dizuedana. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren, izenean, Amen.

AMAIRUGARREN DOTRIÑA

Konfesio jeneralaren gañean.

Konfesio on bat egiteko, eta arekin Jaungoikoaren grazia, eta pekatuen barkazioa iristeko bear diran bost gauzak, zeoro, eta argiro aditzera eman dizuet N.K., eta bildur naiz, zuen arteko batzuek kezka betirik arkituko dirala, oraindano konfesioak ondo egin dituen edo ez, ezin ezaguturik; eta beste batzuek oraindano gaizki konfesatu ziralako uste osoan, eta lengo utsegiteak erremediatzeko premia andiarekin, eta baderitzot, daudela bizitza guziko konfesio oso edo jeneral bat egiteko deseio egiazkoarekin. Nere asmoa da bada gaurko dotriñan, lenbizikoa, kezkatze-ko, eta eragabe bildurtzeko motibo justurik eztuenak konzienziako pakea, eta sosegua edukitzeko dituen arrazoiak, erakustea. Bigarrena, konfesio gaiztorik dakitela edo ezagueraz iñoiz egin eztuenai; baña pekatu mortaletan bein erori, bein jaiki beren ustean ibilli diranai konzienziako pakea, eta sosegua iristeko, eta pekatuen barkazioa obeto seguratzeko, zein probetxu andia dakarkian bizitza guziko konfesio oso, eta

jenerala egiteak. Eta irugarrena, konfesio gaiztoak ziertu zekitela edo gaizki egiten zituelako duda andiarekin egin zituanaenzat zein gauza bearra, premiazkoa, eta obligaziozkoa dan konfesio jenerala; eta nola prestatu bear diran ondo egiteko. Eta ona dotriña gaibat, zuen atenzio guzia ondo merezi duena, eta Jaungoikoari nai dakiola askoren erremediorako izatea.

G. Eta lenbizikoa, zer da konfesio jenerala? **E.** Da bizona guzian egin diran konfesioak berritzea, ala bear danean; edo da urte batzuetako konfesioak berritzea, urte aetan gaizki konfesatu zalako ezaguera edo bildurra dagoenean.

G. Eta nor dira konfesio jeneralik egiteko bearrik eztuelako juizio ona, eta arrazoizkoa egin dezaketenak, eta eren lenagoko konfesioakgatik kezkatzeko motibo justurik eztuenak? **E.** Lenbizikoa, txikitanik aziera ona, dotriña ona, eta Jaungoikoaren bildurra izan duenak, eta iñoiz argaltasunez pekatu mortalen bat edo besto egin bazuen, egiaz damaturik, eta ez berriz alakorik egiteko proposito egiazkoarekin, ezer ezkutatu bage konfesatu oi ziranak, eta konfesio ondoan proposito orretan irauteko alegiñak egin oi zituenak. Eta bigarrena, ark gutxiago kezkatu edo bildurtu bear dira, lenago denpora puska betean gaizki

bizi izan arren, bear dan Zeruko argiarekin, eren gaiz-
takeriak, eta arintasunak ezagutu, eta egiaz damutu-
rik, eta ondo prestaturik, eren eta Konfessorearen iri-
tsian, konfesio jeneral on bat, edo geiago egin ditue-
nak, eta arrezkero bizimodua aldatu, eta Jaungoikoa-
ren bildur santuan eskuarkiro bizi izan diranak. Bada
señale orietan ezagun da, benetan pekatua aborrezi-
tu izan zuela, eta barkazioa iritsi izan zuela. Eta orre-
lakoai, eta bestelako bildur geiegi daukenai iruitu
arren, bearbada pekatuen batzuek ondo ezagutuko,
eta examinatuko etzituela, eta berriz konfesio jenera-
la egiteko premian daudela, sosegatu bear dira, eta
ezagutzen dituan Konfessore zinzoaren iritsira jarri
bear dira batere kezka bage; bada bestela, konfesio
jeneral asko berrituagatik, iñoiz ere eskrupuluetatik,
eta eren iruipenetatik libratuko ez lirakeke, eta eren
buruari kalte andia egingo likiobe. Eta orrelako bildur-
tiegiak, Konfessorearen iritsira sujetatzen ezpadira,
iñoiz pakerik izango eztue. Eta itxu-itxuan obedezitua-
rekin Jaunaren borondatea egiten duela, sinistu bear
due; bada (Zeruko errebelazio bage ezin iñork jakin
badezake ere Jaunaren grazia, eta pekatuen barkazioa
ziertu iritsi duen edo ez) konfesio onak egiteko alegin
prudente batzuek egin ezkerro, esperanza osoa eduki

bear due, pekatuen barkazioa iritsi zuelakoa; bada fedeko egia da, nai bage, ezagutu etziran, eta kulpa bage gogoratu etziran pekatuak, ondo konfesatu ziran beste pekatuakin batera, barkaturik gelditu ziralara, eta asko da alako pekatu aztuak edo ezagutu bageak gero, argiro ezagutzen edo gogoratzen badira, urren-go konfesioan esatea, konfesio jeneralik berritu bage, eta ezin ondo ezagutu dituen pekatu guzien barkazioa eskatuarekin, eta guzien damutasun egiazkoa, eta ez berriz pekatuak egiteko propositu eragilleak benetan berritu edo egiñarekin kontentatu bear dira.

G. 2 Eta nor dira konfesio jeneralik egiteko premia ezagutarik edo obligazio esturik ez izan arren, ala ere probetxu guztiz andia, eta konzienziako pakea iristeko konfesio jenerala konbeni zaionak? **E.** Txit asko dira, eta lenbizikoa, iñoiz konfesio jeneralik egin ez tuenak, konfesorearen konsejuz ondo prestaturik egiten badue, frutu andia aterako due; bada eren buruak ondo ezagutzeko, Jaungoikoaren aurrean egiaz humillatzeko, eta lotsa santu bat artzeko, eta damutatsun biziago, eta propositu eragilleago, eta indarsuagoa artzeko, eta orretan aurrera irauteko, txit asko serbitzen die: bigarrena, konbeni zaie konfesio jenerala egitea, bizimodu santu bat egitera jarri nai duenai, au

da, birtutezko exerzizio edo lanetan perfekzio geiago-
rekin gogotik aurreratu nai duenai, eta estadu berria
artzeko dauden guziai, naiz fraile, naiz abade, naiz
monje edo naiz ezkondu egin bear duenai; alde bate-
tik lengo bizitzako utsegite guziak erremediatzeko,
eta bestetik bizimodu berriro kargak edo obligazioak
obeto ezagutzeko, eta oriek jasotzeko edo ondo gor-
detzeko bear dituen Zeruko argiak, eta laguntasunak,
eta indarrak iristeko; eta etzaie gutxiena konbeni kon-
fesio jenerala ezkondu bear duenai, eta batez ere
alkarren adiskide ibilli diran ezkongaiari, bada denpora
orretan, lenago birtuteari ezpadarraie, eta okasiotik
kanpora bizi ezpadira, pekatu asko Infernuko etsaiak,
eta aragiaren griña gaiztoak eragiten dizte, guztia
ezkonzarekin erremediatuko dalako ustean, eta gaiz-
toago dana ezkonzako Sakramentu Santua ondo pres-
tatu bage askok errezibitzen due. Eta nolakoa izango
da, Sakrilejioko pekatu mortalarekin asitzen dan bizi-
modua? Argatik bada ezkonzeko dauden guziai conse-
ju ematen diet, eztezela luzatu konfesatzea ezkonza-
ko egunetarako, baizik, deiak asi baño lenago, konfe-
sio on batekin betaz prestatu ditezela, ezkonzako
Sakramentu Santuaren frutuak ugari errezibitzeko,
eta aurrera bizimodu on bat egiteko. Irugarrena, batez

ere konfesio jenerala konbeni zaie, konfesio gaiztorik ziertu dakitela ez egin arren, dotriña laburra, eta aziera txarra txikitanik izan zuenai, bada eskuarkiro gazte denporan gaiztakeriak, eta pekatu larriak erraz egiten dira, nola jolas zikin lotsagarriak, eta lapurreta ixillak, eta beste pekatu asko, eta edo ainzat artzen eztira, eta konfesatzen eztira, edo bear bezelako damutasuna, dolore, eta proposito bage konfesatu oi dira; damutzeko motiboak ondo eztakiztelako edo kontsideratzen eztituelako, eta ezaguera andiagora datozeanean, zerbait kezkatu oi dira, eta ala ere orduan malizia andirik etzuelako; edo nolabait konfesatu ziralako aitzakiarekin, erraz konzienziako kezka onak itotzen ditue, eta eriotzako gaitza datorkienez larritzen dira, eta orduan alakoai konfesio jenerala egiteko deshea datorkie.

Zenbat obe due bada orrelakoak orain kezka orientatik libratu konfesio jenerak kontuzko batekin, eta bertako, eta ordurako pakea eren buruai ekarri? Laugarrena, orobat konfesio jenerala konbeni zaie eren konfesioen ondoren laster pekatu mortala egiteko lengo peligro edo arrisku andira eren borondatez biuritzen diranai; nola moskortegira; kalte andiko jokuetara; peligro andiko danza, eta jolas zikiñetara; edo len

pekatu mortal eragiten zien beste edozein okasio edo arriskura; bada damutu ziralako esan arren, eta erremediatuko ziralako ustean, eta asmoan konfesatu arren, denpora gutxiren barruan, peligro ezagutura len bezela biurtzen ziran, orien damuak, eta proposituak fruturik, au da, bizitza berriaren asieraren señalearik ezta-kartenak bezela, eskuarkiro izan oi dira iruipenekoak, eta ez egiazkoak; eta ori bera esan bear da, pekatu mortala egiteko oitura gaiztoak eduki dituenakgatik, nola moskortzekoak, loikeriakoak, lapurretazkoak edo lizito eztiran joku andiak edo irabazi logreriazko edo usurazkoak, edo birau andiak, edo gezurrezko juramentuak, edo murmurazio pisu kaltegarriak egiteko usadio edo kostunbre gaiztoak, eta orobat iñori egingdako kalte, dañu edo perjuizioak, dala ondasunetan, dala honra, fama edo kredito onean, erremediatu ditzakeala, erremediatzen eztituenak, edo agindu, eta ofrezitu arren, artako egiazko alegiñik egin ezituenak, dolore, eta proposito egiazkorik izan etzuelako señaleari andiak dauzkate. Eta ori bera gertatzen zaie gorrotoari txit larga bage, eta pakeak egin bage konfesatzen diran askori; bada orduan gaitzik nai eztiela, eta bar-katu diela esan arren, aurrera ere ezin alkar ikusi oi due, eta antxitiko okasioan barruko gaitz iritsia ager-

tzen due, orrelako guziak eren ustean ondo konfesatu arren, oitura gaiztoak eskuratzeko, eta goitzeko, eta eren obligazio andiak kunplitzeko, erremedioak benetan egiten ezpazituen, aditzera ematen zuen, damutasuna, eta propositoa eztirala egiazkoak, edo beinatzirala duda andikoak; bada askori, ezagutzen duelako dolorearen, propositoaren, eta Jaungoikoaren amorioaren premia, eta artarako motiboak ere dakiztelako, iruditzen zaye, biotzean daukalela egiazko dolorea, propositoa, eta amorioa, eta ez dauke biotzean, baizik imajinazioan, eta adimentuan; zerren biotzetik edo benetan nai dana edo igui dana obretan agertzen da; bada nola arbola bat ona dan edo ez frututik ezagun da, eta ez lora, eta orri utsetik bakarrik, ala penitentiaron dolore, eta propositoa, eta aren borondatea, gogoa, asmoa, eta determinazioa ezagutzen da, irmoa, eta eragillea dan edo ez, ez hitzetan, eta deseo argal iruipenkoetan, ezpada ematen dituan frutuetan, eragiten dituan obra onetan, nola diran peligro andi ezagututa bere borondatez ez biurtzean, eta oitura edo usadio gaiztoaren kontra erremedioak egiten aritzean.

Eta onelako premiazko erremedioak egiten ezti-tuenenzat probetxuzkoa ezeze, premiazkoa, eta obli-

gaziozkoa da konfesio jeneral bat ondo prestaturik egitea; batez ere ardurabage bizi, eta konfesio ondolan, askotan agindu arren, len bezin erraz batere erre-mediorik egiten aritu bage, peligro andiko okasiora edo oitura gaiztora biurtzen baziran; bada orrelakoai absoluziorik ezin eman dakike emiendaren edo erre-mediatzen diralako, eta aurrera ere erremedioak egingo dituelako pruebaren batzuek eman artean, eta orrela gogo ona agertu artean; zerren bestela eren hitza, eta propositoa laster gezurtatzen due; eta beti agindu, eta iñoiz ez kunplitu denpora dijoakie, eta konfesio jeneral on batekin benetan erre-mediatzen ezpadira, eta bizimodu berri bat artzen ezpadue, erioztzako orduan ere egiazko damutasun edo pekatuen gorroto bage, eta proposito eragille bage eskuarkiro konfesatuko dira, eta Zerura dijoatzelako ustean illko dira, bada betiko Infernura jatxiko dira. Kontu bada N.K., orain guzia erre-mediatu dezakezue Jaungoikoa-ren laguntasunarekin, eta zuen alegiñak benetan bertatik egiñarekin.

G. Eta nor dira, konfesio jeneralak nai ta ez bertatik egiteko premia estua, eta obligazio larria dakenak? **E.** Lenago konfesio gaiztoak edo alperrak egin dituen guziak. Eta oriek nor dira? Lenbizikoa, arrazoiaren adi-

nera, eta ezaguera etorri ezkeru premiazko dotriña jakin bage, eta batez ere Trinidadeko, eta Enkarnazio-ko misterioak onaenzat dagoan betiko gloria, eta gaiztoenzat dagoan betiko pena, eta konfesio on bat egiteko bear diran gauzak ondo ikasi bage konfesatu ziran guziak, gaizki edo alperrik konfesatu ziran; bada ignoranzizko estadu artan zeuden artean, ezin Fedeko, Esperanzazko, Karidadezko, eta damutasunezko aktoak egin zitzakean, eta ezin ondo konfesatu zitezkean, eta ala denpora artako konfesio guziak berritu bear ditue, ezaguerara etorri ziranean orduko utsegitueak konfesatu ezpazituen. Eta ori iñoiz gertatu ezpazate, eta geroko denporan ondo konfesatu ziralako ustean badaude, asko due jakineztasun edo ignoranzia arzaz, eta bitarte artan egin zituen pekatuaz orain konfesatzea, eta eztue obligaziorik geroko denporan uste onean edo ondo prestaturik egin zituen konfesioak berritzeko. Baña bai, bigarren konfesio jeneralaren bearra edo premia due gaizki bizi arren edo pekatu mortalak ardurabage egin arren, eren konzienziak ondo examinatzeke alegiñik batere egin bage edo examiña txit ariñarekin konfesatu oi ziranak, konfeso-reen galdeai eranzunaz beste bage, eta akto kontriziozkoa errezatuaz beste bage kontentu gelditzen

zirala: eta orobat due, irugarrena, konfesio jeneralaren premia andia batez ere pekatari ardurabage batzuek pekatua oituak; egiazko damutasuna, eta propositoa eren biotzetan artzeko edo formatzeko examina utsarekin kontentatu, eta pekatuaz iguitzeko, da proposito firmeak egiteko dauzkagun fedeko motiboak edo kontriziozkoak edo atriziozkoak kontsideratzen egon bage, eta orazorik egin bage, au da humildadearekin, eta konfianzarekin Jaungoikoari barkazioa biotzetik eskatzen aritu bage konfesatu oi ziranak, akto kontriziozkoa aoz esanaz, eta penitentzia kunplituaz kontentu gelditzen zirala; pekatuari egiazko gorrotorik artu bage; bizimodu gaiztoa benetan erremediatzeko borondate osorik, eta eragillerik eduki bage.

Bada askotan esan dizuedan bezela, gutxi edo asko fedea erakusten dizkigun motiboak kontsideratzen aritu bage, eta Jaungoikoari bere argia, eta grazia, eta barkazioa biotzetik eskatu bage, ezin pekatuaren egiazko dolore edo damutasunik, eta propositorek gure biotzean sortu liteke, eta ori bage aozko konfesioak, eta absoluzioak, batere serbitzen eztue. Eta orrelako konfesioak nai ta ez berritu bear dira; egiazko dolorea, eta propositoa benetan edukitzeko dilijen-

ziak egiñaz, erakutsi zatzuen bezela: eta orobat konfesio jeneralaren premia due, pekatu laguna borondatez eren etxean zuela, okasio gertua kendu bage, konfesatzen ziranak; bada negarrak zeriela konfesatu arren, borondatezko okasio edo peligro andian zeuden artean, egiazko dolorerik, eta propositorik etzuen. Eta peligroa edo arriskua ezin iñola ere apartatu eragin bazuen, nai ta ez artu bear zituen erremedio eragileak peligroaren indarra kentzeko, eta pekatu mortallik egin bage bizitzeko, oitura gaiztoak dituenak egin bear duen bezela, eta erremediorik egiten ezpazuen, dolore, eta propositorik eztzuen, eta orduko konfesioak berritu bear ditue.

G. Eta nork bestek lengo konfesioak berritzeko edo konfesio jenerala egiteko premia estua due? **E.** Lotsaz edo bildurrez pekatu mortalak iñoiz konfesatu bage utzi dituenak; nola izan oi diran, gaztetxoak zira-la pekatu zikiñak edo itxusiak berariaz begiratuaz, eta atsegin zikiña artuaz, edo ikuste loiak, eta jolas lotsagarriak egiñaz edo eren buruakin edo eren senide, eta ganaduakin, pekatu egin zuenak, edo lapurretaren bat egin zuenak, edo falso testimonio andiren bat iñori jaso, eta orrelako gauzak lotsaren pasiez konfesatu eztituenak; eta orobat berez pekatu mortal etzan gau-

zaren bat, baña pekatu mortalzat lotsaz edo bildurrez konfesatu bage utzi zuenak, nola Fedearen, Esperanzaren edo Karidadearen kontrako tentazio goaikarriak izan dituelako pekatu egin zuela uste edo duda andian jarri, eta konfesatu bage utzi zituenak, berez konsentimentu osorik eman ezpazuen ere; bada orrelakoak konfesio gaiztoak egin zituen, eta errezkero ori dakitela edo gogoan duela agertu bage egin dituen konfesio guziak izan dira sakrilejioko pekatu mortal arrigarriak, eta orobat estadu orretan egin dituen komunioak. Eta urteoroko Elizako legeaz ere kunplitu bage gelditu dira bitarte orretan; bada konfesio, eta komunio gaiztoarokin ezin paskoaz kunplitzeko legea osatu edo gorde liteke, eta konfesio jeneral on batekin grazia erremediatzoko premia estuan daude. Eta egiaz humillaturik, eta Jaungoikoaren aurrean lotsaturik, eta damaturik konfesio jeneral on bat egiten badue, kondenazioko peligro guztiz anditik libratuko dira, eta baita eren barruko sosegua, eta pakea alkanzatuko due, eta bestela beti kezkatan bizi bear due, eta geroago; eta neke geiago konfesio on bat egiteko izango due. Anima zaitezte bada arren bertatik zuen lengo konfesioak berritzeko premia ezagutzen dezuenok konfesio jeneral on bat egitera, eta etzaitezteala ika-

ratu, eta izutu ori egiteko nekeagatik; zuek gogo ona artzen badezue, uste dezuen baño errazago egingo dezue.

G. Nola prestatu bear dira bada konfesio jenerala ondo egin bear duenak? **E.** Lenbizikoa, badakizue N.K., zuen oraindañoko lotsa gaiztoa, eta Kristauaren lanak edo obligazio andiak kunplitzeko izan dezuen atzerapena etorri zatzuela zuen soberbiatik edo arrotasunetik, eta orrek dakarren itxumen anditik; bada orren erremedio prinzipala da biotzeko humiltasuna, eta orri juntatu bear diozue Jaungoikoaganako esperanza andi bat, eta humiltasunarekin, eta esperanza andi batekin, Jesu-Kristoren izenean edo aren kabubageko merezimentuakgatik Aita Eternoari eskatu bear diozue, arren zuen adimentuak argitu ditzala, zuen pekatuen anditasuna edo grabedadea ondo ezagutzeko, eta zuen buruak humillatzeko, eta zuen biotzetan berak sortu dezala, zuen pekatu guzien iguitasun edo aborrezimentu guztiz andi bat, eta aren Majestadea ofenditu dezuelako damutasun edo sentimentu andi bat, eta ez berriz pekaturik egiteko proposito sendo edo determinazio andi bat, pekatu mortal guziak, eza-gutu, eta gogoratu al ditzaketzuen moduan, ondo konfesatzeko, eta penitencia kunplitzeko deseo egiazkoa-

rekin batera. Zuek orazio humil ori Jaungoikoari sarri, eta gogotik egiten badiozue, bere argia, eta grazia pozik emango dizue; bada eztu nai zuek kondenatzea, baizik zuek humillaturik eta egiaz damaturik esperanza osoarekin, eta biotz onarekin beragana biurtzea; pekatuari largatzea, eta Zeruko bidean jartea; baña bigarrena, zeurok aritu bear zerate, egiazko humiltasuna, esperanza, eta damutasuna zuen biotzetan artzeko, eta edukitzeko egoki diran konsiderazioak egiten, eta ori nola egin askotan erakutsi dizuet, eta ala ere diot berriz gogoan ekarri bear dezuela alik sarriena Jaungoikoaren anditasun, guzialtasun, eta ontasun kabubagea, eta egin dizkitzuen mesede guziz andiak, eta batez ere gogoan erabilli bear dezue: Nola eternidade guzian bere gloriaz gozatzeko egin zaituen; nola Kristau egin zaituen; fede santuaren argira, eta ezaguerara ekarri zaituen; nola bere Seme propioa bera eman dizuen zuen Erredemptore, Salbadore, eta Maisu edo Zeruko gidari bere exemplo, eta dotriñarekin izateko, eta bere odolaren, eta biziaren kostuan zuek pekatutik libratzeko, nola bere pasio, eta eriotza santuaren frutua, eta zuenzat irabazi zuen grazia Sakramentu santuetan ematen dizuen, eta zuek bera berriz illerazotzeko diña motibo eman badezue ere,

bera agitz aserratu badezue ere, eta bere adiskidete-
suna, grazia, eta Zeruko deretxoa galdu, eta zeuron
kulpaz deabruaren menpekoak egin, eta betiko Infer-
nua merezitu badezue ere; etzaitue Infernura bota;
itxon dizue; askotan beregana deitu zaitue; orain ere
deitzen zaitue, ete zuek damuturik, eta ondurik ikus-
tea baizik nai eztu, zuezag errukitzeko, eta osoro bar-
katzeko, eta ala ere alako Jaungoiko batenzat esker
gaiztoa baizik izan eztezue; ezin kontatu ala bider
agitz ofenditu dezue, eta zuen anima gaixoak konde-
nazioko bidean ipiñi dituzue.

Orra bada alde batetik humillatzeko, eta bestetik
esperanza andi batekin barkazioa eskatzeko, eta bio-
tzeko dolore edo damutasuna benetan artzeko, moti-
borik asko; aritu zaitezte bada akto kontriziozkoak
sarri, eta gogotik egiten. Baña esango dezue; zuen
lanik andiena dala konfesio jeneral bat ondo egiteko
ainbeste urteko pekatu guziak gogora ekartea, eta
eztakizuela nundik, eta nola asi ere: bada nik diot kui-
dadu, eta arreta geiago bear dala egiazko damutasu-
na, eta propositoa biotzean artzeko, eta konserbatze-
ko, konzienziako examiña egiteko baño, eta askoz
geiago dirala damutasun egiazkoaren faltaz egiten
diran konfesio gaiztoak, konzienziako examiñaren fal-

taz egiten diranak baño; bada egiaz damuturik dagoana, eta benetan Jaungoikoaren grazia, eta pekatuen barkazioa deseatzten duena, bera larritzen da, konzienzia ondo examiñatzeko, eta orretarako alegin prudente batzuek egin ezker, eta gogogoraty zaizkan pekatuak konfesatu ezker, egiaz damuturik badago, seguru dauka pekatu guzien barkazioa, ala konfesatu dituanena, nola ezagutu eztituan, eta gogoratu etzaizkan guziena.

G. Baña bere pekatu guziak ondo examinatzen nolako alegiñak egin bear ditu? **E.** Orren gañean beste dotriña batean berariaz hitz egin genduan, eta zuen Konfesoreak esango dizue bakoitzaren adinari, kapazidadeari, eta bizimoduari ondo begiratuta, zenbat denporan konzienzia examinatzen aritu bear dezuen, eta nolako alegiñak egin bear dituzuen, eta baldin zeurok aurretik egun batzuetako examiña kontuzkoarekin, eta egiazko damutasun, eta proposito firmearekin prestaturik bazoazte, gauza bi enkargatzen dizuet: lenbizikoa, Konfesorea billatu dezazuela beste penitenteekin okupaturik eztagoan orduan, eta bigarrena, Konfesoreen artean billatu dezazuela alik egokiena zuen animako gaitzak ezagutzeko, eta sendatzeko, eta itxu-itxuan obedezitu degiozuela, obeto prestatze-

ko absoluzioa egun batzuetan luzatzen badizue; bada zuen probetxuagatik, eta onagatik bakarrik luzatzen dizue, eta berriz diot, Jaungoikoak prinzipalente begiratzen diola biotz humillari, egiaz damaturik dagoanari, ondu nai duenari, eta beragan esperanza guzia ipinten duanari, eta aurrera biotz guztitik bera amatu, eta serbitu nai duenari, eta nola dakian zuen memoriaren argaltasuna, eta zuen adimentuaren laburtasuna, ez dizue agintzen, ezin egin dezakezen gauzarik; baña ezin ezagutu, eta ezin gogoratu dituzuen pekatuen damu egiazkoa ere artu bear dezue. Eta Dabid Errege, eta Profeta Santuak, gizon guziz argitua, eta Jaungoikozkoa bazan ere, Jaungoikoari esaten zion bezela, zuk ere esaiozu; Jauna, nor da bere pekatu edo utsegite guziak ezagutzen dituana? Ezkututzen zaiztan guzietatik garbi nazazu Jauna. *Delicta quis intelligit? Ab oculis munda me Domine.* Eta kontrizio egiazkoa badezue guziak barkatuko dizkitzue.

Baña etzerate kontentatu bear konfesio jeneral on bat egiñarekin, zuen salbazioa aseguratzeke, Jaungoikoaren grazian aurrera irauteke, eta zuen pekatuen zorrak mundu onetan pagatzeko, alegin guziak egin bear dituzue, eta bizimodu on bati ekin bear diozue:

egunoro Jaungoikoari eskerrak eman, egin dizkitzuen mesede guztiz andiakgatik; egunoro konsiderazio pis-katxo bat, eta orazioa egin, eta orren ondoren kontri-ziozko edo damutesunezko aktoak, eta egiazko propo-sitoak berritzeko alegiña egin, eta sarri konfesatzera, eta komulgatzera oitu bear zerate.

Eta hitz gutxitan Kristau onak, eta santuak izateko bidea, ikasi nai badezue; Jesu-Kristoren iru hitz oek gogoan ondo artu itzatzue, eta ondo gorde itzatzue; *Abnega temet-ipsam; tolle Crucem tuam, et sequere me.* Lenbizikoa, pekatura mugitzen zaituen zuen borondate gaiztoa, eta erabageko pasio edo grisa gaiztoak egunoro edo beti ukatzeko, eta menderatze-ko alegiñak egin bear dituzue. Bigarrena, gertatzen zaizkitzuen naigabe, neke edo atsekabeak pazienzia-rekin eramateko, alegin guzia egin bear dezue; eta irugarrena, karidatea exerzitate bear dezue, au da, Jaungoikoa gauza guziak baño, eta zuen buruak baño geiago amatu, eta zuen buruak bezela zuen lagun pro-jimoak, ala ongilleak, nola gaitzgilleak Jaungoikoaga-tik amatu bear dituzue, eta guziakgatik Jaungoikoari erregutu, eta zuen egiteko, lan edo obra guziak Jaun-goikoaren honrarako, eta ari atsegin emateko asmoa-rekin, eta deseoarekin egitea, prokuratu bear dezue.

Eta zenbat obeto iru gauza oriek egiten dituzuen, anbat errazago zuen pekatuen zorrak pagatuko dituzue; anbat birtute, perfekzio, eta santidade geiago iritsiko dezue, eta anbat pake geiago munduan, eta sari, poz, eta gloria geiago Zeruan gozatuko dezue; Jaungoikoak orretako gogoa, indarra, eta grazia guziori digula. Amen.

AMALUGARREN DOTRIÑA

Sakramentuen gañean, eta lenbizikoa Komunioko, edo Aldareko Sakramentu guztiz Santuaren gañean.

Penitenziako edo Konfesioko Sakramentuari dagozkion dotriñaen ondoren, Komunioko edo Aldareko Sakramentu guztiz Santuari dagozkionak aditzera eman bear dizuet N.K.; gure Jaungoikoaren guzialtasunak edo poderio neurribageak, aren sabiduria kaburik eztuenak, eta bere guganako amorio, eta bere ontasun infinitoak gure alde egin dituan miragarritzko lanak, iñun baño obeto Sakramentu guztiz santu onetan agiri dira, eta ori argiro ikusiko dezue gaurko dotriñan; aditu ezazue bada arren kontuz.

G. Zertako da Komunioko Sakramentu guztiz santua? **E.** Bear dan diñatasunarekin edo prestaerarekin artzen degula, gure animak sustentatzeko, eta grazia geitzeko edo aumentatzeko.

G. Zeri deitzen diogu Komunioko Sakramentua? **E.** Komulgatzen geranean errezibitzen edo artzen degun Aldareko Sakramentu guztiz santuari.

G. Zer errezibitzen degu Komunioko Sakramentu guztiz santuan? **E.** Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, Aldareko Sakramentu guztiz Santuan egiaz dagoana.

G. Zergatik deitzen diogu Komunioko Sakramentua? **E.** Zergatik unitzen, bat egiten, eta juntatzen gaituan Jesu-Kristo gure Jaunarekin era miragarri batean, eta Kristau guziok alkarrekin alako moduan, nun Jesu-Kristo bera osoro egiaz gure biotzera dator, eta bear bezela errezibitzen badegu, Jesu-Kristo bera gudan dago, eta gu Jesu-Kristogan, au da, aren Espirituak animatzen gaitu, eta aren Espirituaz bizi gera; eta nola Jesu-Kristo, gure guzion burua dan, berarekin uniturik egon ezkerro, eta aren mienbro edo zatiak guziok geran ezkerro, guziok alkarrekin, uniturik edo bat egiñik egon bear gera; eta argatik alkarrekin gaitziritzian, etsaitasunean edo gorrotoan daudenak, ezin komulgatu ditezke, lenago alkarri barkatu bage, eta pakeak egin bage; bada bestela eren kondenaziorako Komunioko Sakramentua artuko luke, askori gertatu zaion bezela.

G. Eta zergatik deitzen zaio Aldareko Sakramentu Santua? **E.** Zergatik Sakramentu Santu au Aldarearen

gañean zelebratzen, eta egiten due Sazerdoteak meza ematen duenean.

G. Eta badu beste izenik Sakramentu Santu onek?

E. Bai, txit asko ditu; deitzen da Mai Santua; Konbite sagradua; Jaunaren Aparia; Zeruko Ogia; Aingeruen janaria; Zeruko mana gozoa; amorioaren Sakramentua, eta Sakramentu guzien andiena, eta miragarriena, eta orri dagokala esaten zaio Santisimoa edo guttiz Santua. Eta Sakrifizioa dan aldetik deitzen zaio Ostia Santua, eta esan nai du, Jaungoikoari ofrendatzen, eta sakrifikatzen zaion gauza bat, eta auxe da sakrifizio gairik baliosoena, Jaungoikoarenzat honragarriena, eta atsegingarriena, eta gizonarenzat probetxugarriena; mezako sakrifizioaren explikazioan esan nizuen bezela. Bada izenik jakiñenak, eta usatuenak dira, Eukaristia; Biatiko Santua, eta Jesu-Kristoren gorputz, eta odol preziosoaren Sakramentua.

G. Zergatik deitzen zaio Aldareko Sakramentuari Eukaristia? **E.** Zergatik Eukaristiak esan nai du grazia ona, eta esker ona, eta ala deitzen zaio, zergatik Sakramentu Santu au da, izan ditekean graziarik, eta doairik andiena, eta ugariena, beste grazia txit asko ematen dizkiguna, eta grazia guzien Jabea, eta emallea, Jesu-Kristo, Jaungoiko, eta Gizon egiazkoa bera

egiaz ematen diguna, eta Jaungoikoaren ontasun infinitoari zor diozkagun mesede, eta fabore guzien diñako eskerrak emateko ofrendarik andiena, eta baliosoena. Zergatik deitzen zaio Beatiko Santua? Zergatik dan bidezkoen sustentua, alimentua, eta indarra, eta eternidadera guziok egiten degun bide edo beaje onetan, ala bizitzako denporan, nola batez ere eriotzako denporan ematen dizkigu bear ditugun laguntasun, eta indar guziak; gure animako etsaiak goitzeko; bideko nekeak eramateko, eta betiko deskansua Zeruko glorian iristeko.

G. Eta zergatik deitzen zaio Aldareko Sakramentuari Jesu-Kristoren gorputz, eta odol preziosoaren Sakramentua? **E.** Zergatik Sakramentu Santu onetan ogiaren, eta ardoaren anz, etxura edo figuraren azpian, arkitzen da egiaz Jesu-Kristoren gorputz, eta odol guztiz preziosoa.

G. Nork ori ala dala sinistu eragiten, eta aseguratzen digu? **E.** Jesu-Kristok berak, Jaungoiko eta gizon egiazkoa danak; guzialtasun edo poderio guziaren jabeak; ontasun, eta jakinduria kabubagea duenak; nai duen guzia egiteko eskualdia, eta sabiduria duenak; ezin engañatu ditekeanak, eta ezin gezurrik esan lezakeanak berak, egia andi ori erakutsi zigun. Aren

Apostolu Santuak, eta oen ondorengo Obisko Santuak edo Erromako, eta mundu guziko Obispoak, eta Elizako erakusle edo Doktore Santuak beti ala erakutsi due, eta ori da Eliza Ama Santuak orain ere erakusten digun, eta munduak diraben artean beti erakutsiko duen fedeko misterio guztiz miragarria, eta ori sinistunai izan eztuen guziak herejetzat beti deklaralu, eta kondenatu izan ditu.

G. Noiz, eta nola egin zuen Jesu-Kristo gure Jaunak Sakramentu guztiz andi au? **E.** Lenagoko denporetan Sakramentu santu onen anzak edo figurak ugari eman zituen lege zarrean, eta Jesu-Kristok berak Apostolui, eta bere jarraitzalleai argiro esan zien; bera zala Zerutik etorritaro ogia, eta bere gorputza janaritzat eman-go ziela: eta promesa ori kunplitu zuen ostegun santuko gabean, bere pasio, eta eriotza santuaren besperan. Apostoluakin azkeneko aparia egiten ari zala, Sakramentu onen anza edo figura zan bildotsaren aparia bukatuta, dio presente zegoan San Mateo Ebanjelistak; artu zuen Jesu-Kristok ogia bere eskuetan; bedeinkatu zuen; zatitu edo puskatu zuen, eta Apostolui zati bana eman zien, esanaz, ar ezazue, eta jan ezazue; au da nere gorputza. Eta dio San Lukas Ebanjelistak, onen ondoren bereala esan ziela;

au berau zuek ere egin ezazue, nizaz oroitzen edo akordatzen zeratela; eta orobat diobe Ebanjelistak, bere eskuetan ardoarekin zegoan Kaliz bat artu zuela; bere Aita Jaungoikoari eskerrak eman ziozkala, eta Apostolui eman ziela, esanaz; edan ezazue guziok; au da nere odola, askoren pekatuen barkaziorako ixuriko dana. Eta San Pablo Apostolu andiak dio, dotriña au berau Jesu-Kristogandik ikasi zuela, eta munduak diraben artean Jesu-Kristoren eriotzaren memorian, misterio au zelebratuko dala; eta ala Apostoluak Jesu-Kristok berak eman zien eskualdiarekin, dotriña ori bera guziaz erakutsi ezeze, misterio andi ori zelebratzen, au da, ogia, eta ardoa konsagratzen, ota Meza-tako sakrifizioa egiten, eta Kristauai Jesu-Kristoren gorputz Santua Komunioan ematen asi ziran, eta aek bezela, eskualdiarekin berarekin gelditu ziran Obispoak, eta Sazerdoteak; ori bera oraindano denpora guzietan egin due, eta egiten due. Zer gertatzen da bada Sazerdoteak Meza ematen duen guzian, eta ogia, eta ardoa Jesu-Kristok eman zien eskualdiarekin, eta ark esan zituan hitzakin berarekin konsagratzen dituenen? Begiak ikusten duen ogiaren sustantzia edo izatea itzultzen da, aldatzen da edo mudatzen da, Jesu-Kristoren gorputz egiazkoa izatera, eta ardoaren

sustanzia itzultzen da, aldatzen da edo mudatzen da Jesu-Kristoren odol egiazkoa izatera, eta ori aditzera emateko galdetzen zaie dotriñaren ikasleai, eta onela zuen humeai, eta mirabeai erakutsi bear diezue.

G. Zer dago ostian konsagratu baño lenago? **E.** Dago ogia. Eta Sazerdoteak konsagraziozko hitzak esan ezkerro, zer dago? Arrezkero ostian eztago ogirik edo ogiaren sustanziarik edo izaterik, baizik dago Jesu-Kristoren gorputz santua. Eta bizirik dago? Bai; bada Jesu-Kristo betiko piztu zan edo erresuzitatu zan, eta Aita Eternoaren eskubian Zeruko glorian dagoan Jesu-Kristoren gorputza bera dago egiaz ostia konsagratuan. Eta Jesu-Kristoren odolik badago ostian? Bai; zerren, ezin dateke gorputza bizirik egotea odola bage. Eta an dago gorputzarekin Jesu-Kristoren anima? Bai. Eta zer besterik dago? Jesu-Kristoren Jaungoikotasuna, eta nola Jaungoikotasuna bat baizik eztan, Jesu-Kristorekin batera daude ostia santuan Aita Eternoa, eta Espiritu Santua. Eta zer diferenziarekin daude ostia santuan Trinitade Santisimoko iru personak? Semea, au da Jesu-Kristo dago Jaungoikotasunarekin, eta gizatasunarekin; zerren dan Jaungoiko egiazkoa, eta gizon egiazkoa. Baña Aita Eternoa, eta Espiritu Santua daude bakarrik Jaungoikotasunarekin;

bada Semea bakarrik egin zan gizon, eta ez Aita, eta ez Espiritu Santua.

G. Eta Kalizean zer dago konsagratu baño lenago?

E. Ardoa ur tanta batekin. Eta Konsagraziozko hitzak esan ezkerro, zer dago? Arrezkerro eztago Kalizean ardorik edo ardoaren sustanziarik edo izaterik; baizik dago Jesu-Kristoren odol guztiz preziosoa, eta dago bizirik, eta odolarekin batera kalizean daude Jesu-Kristoren gorputza, anima, eta Jaungoikotasuna, eta Trinitate Santisimoko iru persona Jaungoikozkoak; au da, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua, len esan dedan diferenziarekin Semea dago Jaungoikotasunarekin, eta gizatasunarekin, eta Aita eta Espiritu Santua Jaungoikotasunarekin bakarrik.

G. Eta konsagratu ezkerro badago ogirik ostia santuan edo ardorik kalizean? **E.** Ez. Ezta bada ikusten len bezela ogia, eta ardoa? Ala dirudi kanpotik; baño konsagratu ezkerro eztago an ogiaren, eta ardoaren egiazko izaterik edo sustanziarik, zerren aen lekuan jarten da Jesu-Kristoren egiazko gorputza, eta odola, eta aldaera edo mudanza orri deitzen dio Eliza Ama Santak transustanziazioa, au da, sustanzia bat, beste batera mudatzea, biurtzea edo aldatzea; ara nola Jesu-Kristok berak Kanango etsaietan egiazko ura, sei

onzitan ipini erazo, eta aginduaz edo nai izanaz beste bage aldatu zuen edo biurtu zuen egiazko ardo izatera. Eta lengo ogitik, eta ardotik ezta ezer gelditzen? Bai; gelditzen dira ogiaren, eta ardoaren akzidenteak esaten zaien anzak edo itxuruak, nola diran gustoa edo saborea, usaia, kolorea, eta kantidadea, edo anditasuna, eta txikitasuna.

G. Eta ostia konsagratua ausitzen edo puskatzen danean, puskatzen edo zatitzen ote da Jesu-Kristoren gorputz santua? Ez: bakarrik puskatzen da ogiaren itxura edo irudia, eta puska bakoitzean osoro gelditzen da, eta dago Jesu-Kristoren gorputz santua, bere odolarekin, animarekin, eta Jaungoikotasunarekin. Nola da bada ori? Zergatik Jesu-Kristo ostia santuan dago, eta orobat Kalizean sustanziaren legez, zatirik txikienean ere osoro, beti modu miragarri edo milagroso batean, gure adimentu laburrek ezin konprenditu ditzakean era miragarri batean; bada gauza bakoitzaren sustantzia orobat dago, eta egiaz dago naiz gauza andietan, naiz txikietan, eta gure anima ere orobat dago, eta guzia dago gorputz guzian, eta gorputzeko mienbro guzietan. Eta ala Jesu-Kristo dago egiaz, dago errealidade guzian, eta dago sustanzialmente, eta oso ostia konsagratu guzietan: eta ostia-

ron zatirik edo parterik txikianetan; an dago Maria Bir-
jiña Santisimagandik jaio zan, gurutze Santuan il zan,
irugarren egunean piztu edo erresuzitatu zan, Zerura
igo zan, eta bere Aita guztiz poderosoaren eskuieko
aldean dagoan Jesu-Kristo berbera bizirik, eta osorik.
Baña nola ori izan diteke, ogia, eta ardoa baizik an
ekusten ezpada? Orregatik da bada fedeko egia edo
misterioa, ikusi bage sinistu bear dana, eta sinisten
deguna; zerren len esan dedan bezela, egia bera dan
Jaungoiko guztiz onak, guztiz jakinsuak, eta guztiz
poderosoek, nai duen guzia egiteko eskua duenak,
mirari guzien miraria dan prodijio ori egin nai izan du,
eta ala dala erakutsi digu, eta ziurtu gaude, alde bate-
tik, guk ezagutu al baño infinitamente geiago beste
mirari askotan eginik daukela, eta geiago, eta geiago
egiteko eskua, eta poderioa daukela, eta bestetik egia
ori txit argiro errebelatu, agertu, eta bere Elizari era-
kutsi diola, eta prodijio guztiz andiarekin, eta ugaria-
rekin probatu duela; eta argatik, Jaungoikoak berak
ala aseguratzen gaitualako, osoro sinistu bear degu,
Jesu-Kristo berbera errezibitzen degula komulgatzen
geranean; bada aren Majestadeak ain maite izan ditu
gure animak, nun etzan kontentatu gure guzion salba-
zioagatik gizon egiazkoa, bera egiteaz; gure pekatuen

zorrak bere pasio, eta eriotzarekin pagatzeaz, eta gu pekatutik, eta deabruaren katiberiotik ateratzeaz, eta bere grazia, adiskidetasuna, eta Zeruko deretxoa guri biurtzeaz; baizik bere guganako amorio guztiz irazekia, eta miragarria azkenean geiago, eta geiago agertzeko, eta gure biotzak bere amorioan geiago, eta geiago irazekitzeko, gugatik ill, piztu, eta Zerura joan bear zuen aurretik, artu zuen modua, egiaz gurekin beti gelditzeko, eta gugatik artu zuen, eta gugatik eriotzara entregatu zuen gorputza bera, eta isuri zuen odola bera bakoitzari Sakramentu guztiz Santu onetan emateko, eta bere sakrifizioaren frutua bakoitzari ugari aplikatzeko. Orra nolakoak diran gure Jaungoikoen guziasuna, jakinduria, eta ontasun neurribagea; eta orra zenbateraño gure animak maite dituan, estimatzen dituan, eta honratzen dituan.

Baña bearbada esango dezue; asko da, Eliza Ama Santak, Espiritu Santuak argiturik, egia ori guri orrela erakustea, guk sinisteko; baña ala ere atsegin izango genduke egia orren pruebarako, Jaungoikoak egindako mirari edo prodijio zierturen bat aditzea; Jaungoikoen beraren esana da, sinistu eragin bear diguna; baña ezin kontatu ala dira, Jaungoikoak orretako egin dituan mirariak, eta ona bat San Antonio Paduaren

bizitzan eskribiturik dagoana, eta Santuari berari gertatua. Tolosa Franziaikoan ari zan okasio batean Santua fedeko misterio edo Sakramentu guztiz miragarri onen gañean predikatzen, eta hereje gogor zatar batek esan zion: alperrik predikatzen ziela; etzuela iñork ere sinistuko, Jesu-Kristo egiaz ostia konsagratuan zegoela, bere begiz milagro bat ikusten ezpazuen; ondo da esan zion San Antoniok; zeure autu ezazu nai dezun milagroa, eta herejeak eranzun zion; bada nik sinistuko badet, nere mulak txit goseturik dagoala, eta zaldalea eskeintzen zaiola, utzi bearko du lastoa, eta garagarra, eta belaunikaturik egon bearko du ostia konsagratuaren aurrean. Izan bedi bada ala esan zion San Antoniok; eduki ezazu zere mula bokadurik jan bage nai dezun denpora guzian. Iru egunean eduki zuen ezertxo ere jan bage, eta Ziudadeko jende guzia milagroaren testigo izan zan. Ostia konsagratua San Antoniok eskuetan zuela, eta beste batek galbai bat zaldalez beterik ekarri zuen mula gosetua ostia santuaren aurrera, eta bereala belaunikatu zan, eta ala egon zan batere bokadurik artu bage, eta ostia santua erretiratu artean ezin jan eragin izan zioben, eta orduan konbertitu zan herejea, eta arekin batera beste asko.

Jaungoikoari eskerrak, milagro berri bearrik eztegu Kristau Katolikoak izateko zoriona degunok, Sakramentu Santu orren egia sinisteko; baña bai, degu kon siderazioaren bearra, Jesu-Kristoren guganako amorioaren anditasuna, eta Sakramentu miragarri orretan egiten dizkigun mesede guztiz andiak ezagutzeko, eta mesede oriei esker onez eranzuteko, eta Sakramentu orrek dakazkigun probetxu, bentaja, eta frutuaz ondo baliatzeko, eta orretako al degun prestaerarik onenarekin beti errezibitzeko. Eta zerren ondo komulgatzeko bear dan prestaera edo dispozizioaren gañean urrengo dotriñan hitz egingo dizuet; orain laburtxo, Jesu-Kristo gure Jaunak, amorioa darion Sakramentu guztiz miragarri onetan egiten dizkigun mesede guztiz andiak aitatu nai dizuet, obeto, eta gogotiago, eta sarriago Sakramentu Santu au errezibitzera animatu, eta alaitu zaitezten, eta nola mesede oriek kaburik eztuen, eta esan al, eta aditzera eman al baño andi goak diran, gogora ekarriko dizuet bakarrik, Eliza Ama Santak Sakramentu guztiz andi onen ofizioko edo errezoko antifona labur batean erakusten dizkigunak. Dio bada onela: *iO, Sacrum Convivium, in quo Cristus sumitur; recolitur memoria Pasionis eius; mens impletur gratia, et futurae gloriae nobis pignus datur.* Eta

esan nai du; O! konbite Sagradua, zeñean Jesu-Kristo bera errezibitzen degun, zeñean beraren pasioaren memoria berritzen dan; zeñean anima graziaz betetzen dan, eta geroko gloriaren bai edo prenda ematen zakun. Ona hitz gutxitan konsiderazio gai andiak, eta guztiz gozoak, ondo prestaturik Komunioko Sakramentua errezibitzen duen guzientzat. Eta lenbizikoa. Zer due zer ikusi munduko konbiterik andienak, eta erregalatuenak konbite sagradu onen aldean? Bada aetan gorputzaren gustorako janari, eta edariak artzen dira, eta geienez onerako baño, kalte geiagorako serbitzen due; baño konbite onetan animaren, eta gorputzaren onerako, eta alimentu guztiz probetxugarrirako, Zeruaren, eta lurraren Jabe soberanoaren gorputz, anima, gizatasun, eta Jaungoikotasun guzia Kristauari ematen zaio. Konsidera ezazue ondo nor datorren Komunio santuan zuen biotzetara; zuek nor zeraten, eta zertara datorren, eta arriturik geldituku zerate, Jesu-Kristoren zuonganako amorioaren, eta mesedearen anditasunaz, eta zuen oztasunaz, epeltasunaz eta ardurabagetasunaz; komulgatzen bazerate zuen prestaera laburraz, ain Jaun andia zuen biotzetan ondo errezibitzeko; eta urtean bein beizik edo txit bakan baizik komulgatzen ezpazerate, zuen ajolaba-

getasunaz ain erremedio eragillea, eta alimentu probetxugarria errezibitzeko. Piztu ezazue bada arren zuen fedea: eta bigarrena konsidera ezazue ondo, Sakramentu Santu ori dala Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren memorial edo akordagarri bat, eta nola Jesu-Kristok zuek beti gogoan eduki zaituen, eta bere bizia Gurutze batean zuek gatik ain amorio andiarekin eman zuen; etzaitzeltela arren ain esker gaizto-koak izan, nun beraz azturik bizi izan zaitetztean; baik sarri edo beti gogoan erabilli ezazue aren zuengana-ko amorioa, eta amorio orrek artu eragin ziozkan neke arrigarriak, eta egizue alegiña esker onez, eta amorioz eranzuteko, eta Sakramentu onetan iñun ere baño ugariago aplikatzen dizuen bere pasio, eta eriotza santuaren frutua errezibitzeko; bada irugarrena, Sakramentu onetan anima graziaz betetzen da, eta ori nola dan aditzeko, eta ezagutzeko, kontu egizue, gorpuzak bere alimentua bear duen bezela, lenbizikoa egunoro flakotasuna edo argaltasuna erremediatzeko, eta bizia konserbatzeko, bada bestela illik legoke. Eta bigarrena indarrak, eta gusto artzeko, bere lanak gogotik egiteko, eta bere obligazioai kobru emateko ezeze, aurrerako ondasunak iristeko; alaxe gure anime bear du berari dagokion alimentua, animako

bizia edo grazia galduko ezpadu; bear ditu indarrak, eta barruko atsegiñak, bizitza onean irauteko; tentazio gaiztoak goitzeko; bere lanak gogotik egiteko; bere obligazio andiai kobru emateko, eta Zerurako ondasunak gogotik billatzeko, eta irabazteko.

G. Baña nolakoa da animak bear duen alimentua?

E. Modu bitakoa; bata da bere adimentua argitzeko; eta bestea da bere borondatea sendatzeko, zuzentzeko, alaitzeko, eta Zeruko bidean indartzeko. Badakizue alabaña N.K. Adanegandik, eta Ebagandik heredatu genduan pekatu orijinalak, Jaungoikoaren grazia, eta Zeruko deretxoa galdu eragin ezeze, gure animako potenziak edo almenak, au da, gure adimentua edo ezaguera, eta gure borondatea edo naimena guztiz gaixotu, eritu, itxutu, eta okertu zituala; arrezkero gure adimentuaren itxumena, salbaziorako bear dituan egiak ezagutzeko, guztiz andia da; eta gure borondatearen okertasuna, gaitzerako makurtasuna, eta onerako pisutasuna, atzerapena, eta nagitasuna guziok probatzen degu.

G. Bada zer erremedio, gure anima, eta bere potenziak argitzeko, sendatzeko, eta indartzeko? **E.** Bear degu Zeruko argia, eta grazia; oriek dira gure animari dagozkion, eta nai ta ez bear dituan alimen-

tuak, eta oriek dira, gure Jesus onak, gure Salbadore,
eta Zeruko erakusle edo maisuak ondo prestaturik
komulgatzen geranean, txit ugari ematen dizkigunak;
bada biziro argitzen du gure adimentua, fede santuko
egia andiak ezagutzeko; eta batez ere, Jaungoikoaren
ontasunari zor diozkagun mesede andiak ondo kon-
sideratzeko, eta ausnartzeko; beraren Majestadea orain
serbitzeko, eta gero Zeruko glorian beti gozatzeko
egin gaitualako; pekatutik, eta deabruaren katiberio-
tik, Jesu-Kristoren beraren odolaren kostuan, atera
gaitualako, eta Sakramentuetan bere grazia eman
digulako, eta bera dan guzia komunio santuan ematen
digulako; Zeruko bidea argiro erakutsi digulako, eta
beste milla mesede egin dizkigulako, eta beragana
gure biotzak ekarri nai ditualako, batzuetan condena-
zioko bildur santua emanaz; infernuko pena arriga-
rriak gogoratu eragiñaz; beste batzuetan Zeruko glo-
riaren esperanza, eta deseotan, ango ditxa andia kon-
sideratu erazoaz, eta beste askotan zein maite gai-
tuan, eta gure betiko zoriona zenbateraño deseaten
duen, ezagutu, eta konideratu eragiñaz; eta orra,
adimentuak argitzeko Jesu-Kristok ematen digun
Zeruko alimentua, Aldareko Sakramentu Santua ondo
errezibitzen degunean, edo aren ondoren, gure pre-

miak ala eskatzen duenean. Eta orobat gure borondatea sendatzen du; zuzentzen du, eta indartzen du; bada gaitzerako griña edo inklinazio portitza edo kentzen digu edo gutxitzen digu; gure pasio erabageak, nola soberbia, edo arrotasuna, abarizia edo gutizia gaiztoa, eta gure aragiaren gurari zikiñak goitzeko edo menderatzeko, indarrak ematen dizkigu; orobat kolera gaiztoa edo ira, eta aserretasuna, eta orri darraion enbidia eskuratzeko grazia ematen digu, eta gure biotzetan piztutzen, eta geitzen ditu bear ditugun birtuteak; fedea, esperanza, karidatea, humiltasuna, pazientzia, pekatuaren iguitasuna, eta birtutearen amorioa, eta debozioa edo Zeruko bideari jarraitzeko gogo bizia, eta eragilllea.

Orra nolako alimentuak, eta indarrak komunio santuan ematen diozkan Jesu-Kristok gure anima gaxoari, eta nolako graziaz betetzen duen; eta azkenik laugarrena, ematen dio betiko gloriaren bai edo prenda seguru bat: *Fururæ gloriæ nobis pignus datur.* Bada komunio santuan, Jesu-Kristok agertzen digun guganako amorio irazekiak, eta egiten dizkigun mesede guztiz andiak, munduko destierro triste onetan gauden bitartean, señaile ageriak edo klaroak dira, gure betiko zoriona osatzeko edo Zeruko gloria guri

emateko daukan deseoa andiarenak, eta ala, berak
esan zuen, nere aragia jaten duenak, eta nere odola
edaten duenak, betiko bizitza dauka, eta azkeneko
egunean nik erresuzitatuko dut. Edo animako, eta gor-
putzeko betiko, poza, eta kontentua emango diot.
Poztu gaitzen bada N.K., esperanza onekin, eta ale-
giñak egin ditzagun Komunioko Sakramentu guztiz
santua sarri, eta ondo prestatuak errezibitzeko, eta
orain, gure onagatik, eta guk errazago artzeko ogia-
ren, eta ardoaren idurian edo anzean ezkutaturik edo
estalirik dagoan gure Jesus, Jaungoiko, eta gizon
egiazkoa ikusiko degu argiro, eta arpegiz arpegi beti
Aita Eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin gozaten
duen betiko, eta neurribageko glorian. Amen.

AMABOSTGARREN DOTRIÑA

*Sakramentuen gañean, da bigarrena
Eukaristiako Sakramentu guztiz andiaren gañean.*

Jesu-Kristo gure Jaunaren gorputz santua Komunioan ondo, eta probetxu andiarekin guk errezibitzea, da Jesu-Kristorenzat berarenzat gauza guztiz atsegingarria, eta honragarria, eta gure animenzat guztiz ondasungarria, eta probetxugarria, eta argatik aurretik esan dizuedan ezkerro, Komunioa zertako dan, zer errezibitzen degun, eta nolako amorio guztizkoa Sakramentu santu orretan Jesu-Kristok agertu digun, gaur aditu bear dezue txit kontuz, nolako prestaera edo disposizioarekin errezibitu bear dezuen.

G. Ondo komulgatzeko zenbat gauza bear dira? **E.** Iru; lenbizikoa, gorputzaren aldetik barau naturalean egotea, eta modestiarekin, eta errespeto andi batekin Aldareko Sakramentu guztiz santua errezibitzea; bigarrena, estadu graziazkoan komulgatzea; eta irugarrena, zer errezibitzen duen ondo konsideratzea, eta konsiderazio orri dagozkion biotzeko afektoakin, eta

debozioarekin komulgatzea. Banaka iru gauza oek aditzera emango dizkitzuet.

Eta lenbizikoa. **G.** Zer esan nai du, komulgatu artean barau naturalean egotea? **E.** Gau-erditik, komulgatu artean, ezer ere jan bage, eta edan bage egotea. Baña Biatiko bezela, eri dagoanak, komulgatu bear badu, eta Sakramentu santua errezibitu bear badu, eztu baraurik egoteko obligaziorik.

G. 1 Eta zerk ausitzen du, komulgatzeko bear dan baraua? **E.** Janari edo edari gisa, borondatez artzen dan edozein gauzak, eta gauza txit txikia izan arren, ezagueraz artzen bada, asko da baraua ausitzeko, eta arrezkero ezin komulgatu diteke, eta jakiñaren gañean komulgatuko balitz, pekatu mortala egingo luke. Baña ortz artean, edo agiñ artean gelditu oi diran janari izpiak, txistuarekin edo arnasarekin irentsi arren, eztue baraurik galdu eragiten, zerren janari gisa artzen eztiran; ez eta arpegia edo aoa garbitzeko denporan, uste bage tantoren bat igaro arren, eztue baraua ausitzen, zerren eztuen berariaz tragatzen, ez eta janari edo edari gisa artzen.

G. Eta tabako orria edo autsa artu liteke komulgatu baño lenago? **E.** Autsa artzeak, eta orriaren kea bakarrik iragatzeak, estomagora izpirik igaro bage,

baraua ausitzen eztu; bada egiazko premia bage artzea, pekatu andia ezpada ere, gaizki dirudi, eta eskusatu bear lizate, errezibitu bear degun, Zeruaren, eta lurraren Jabe Soberanoari zor diogun errespeto guziz andiagatik, eta leku askotan eragotzirik ere dago, eta iñola ere tabako orria aoan erabilli, eta txupatu bear ezta; bada aren izpiak estomagora txistua-rekin nai ta ez igarotzen dira, eta baraua ausitzen duen edo ez, erabakirik eztago; eta duda orrekin ezin aoan erabilli liteke edo txupatu liteke.

G. Eta zer esan nai du modestiarekin, eta errespeto andi batekin komulgatzeak? **E.** Lenbizikoa, bakoitzaren bizimoduari edo estaduari dagokan erropa, janzi edo soñeko dezente, eta garbiakin komulgatu bear dala. Ez nolana, ondo janzi bage, manteliña batekin estaltzen diralako, eta bearbada bularrak ondo lotu bage, eta estali bage, eta aurpegia, eta eskuak garbitu bage, ardurabagetasunez komulgatzen diran emakume batzuek bezela; Jaungoikoaren aurrean, eta aren Majestadea bera errezibitzeko nolana, arlote batzuek egiñik: eta bisita batera edo plaza batera agertzeko, txit txukindurik, eta apaindurik, dituen soñekorik onenak janzirik; ori guzia da errespetoaren falta, eta fede bizirik eztaramelako señailea;

baña kontrara, komunio santua errezibitzeko, eztue ergelkeriz, eta banidadez edo arrotasunez beterik, eldu bear, bada extremo edo geiegi guziak eskusatu bear dira.

G. Eta zer geiago esan nai du, kanpoko edo gorputzeko errespeto andi batekin komulgatzeak? **E.** Erakutsi bear dala komunioaren aurretik, eta ondoren, kanpotik ere, barruan dagoan humiltasuna, mortifikazioa, eta garbitasuna; iñoiz ere baño kuidadu geiagorekin, gorputzeko sentiduak, nola begiak, mingaña, eta gustoa mortifikatuaz, eta batez ere ezkonduak, denpora orretan matrimonioaz usatu bage egonaz; bada erre-zibitu bear due eren biotzean, eta gorputzean, santi-dadearen, eta garbitasunaren jabea, eta maisua dana, Jaungoikoaren, eta Birjiña Santisimaren Semea; baño diferenzia onekin, ze, orduan matrinionioko zorra eskatzea itxusiago da, pagatzea bakarrik baño; bada lege zarrean ere Jaungoikoak gaitzat artzen zuen, jai egunetan artzekoak eskatzea, eta kobratzea, baño ez pagatzea. Eta janziaren gañean, eta mortifikazio, eta ezkonduen garbitasunaren gañean esan dedana; txit gauza egokia, eta probetxugarria bada ere, ezta pekatu mortalaren azpian agindurik dagoana; baizik errespeto geiagorekin, eta frutu geiagorekin, eta Sakra-

mento guztiz santu orien anditasunari dagokion erreberenziarekin komulgatzeko.

G. Eta zer esan nai du, estadu graziazkoan komulgatzeak? **E.** Pekatu mortalik batere zierturik edo dudakorik bere barruan edo konzienzian senti badu edo ezagutzen badu, ezin komulgatu ditekeala, lenago bear dan prestaerarekin konfesatu bage, eta pekatu guzien barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia iristeko alegin guziak egin bage; bada San Pablo Apostoluak erakusten digu; komulgatu baño lenago, bakoitzak bere burua probatu, edo bere konzienzia examinatu bear duela, eta pekatu mortalean dagoala komulgatzen bada, bere juizioa edo kondenazioa jaten edo errezibitzen duela. Eta Eliza Ama Santak agindurik dauka, pekatu mortalean dagoala eztedilla iñor komulgatu, lenago ondo konfesatu bage.

G. Ezta bada asko izango, akto kontriziozko batekin pekatu mortalaren barkazioa, eta Jaunaren grazia iristeko, alegiñak egitea? Eta konfesatu bage komulgatzea? **E.** Ez: ezta asko; nai ta ez, lekurik badu, lenago konfesatu bear du, eta ondo konfesatu bear du; bada bestela sakrilejioko pekatu mortal arrigarri bi egingo ditu; bata konfesio gaiztoarekin, eta bestea komunio gaiztoarekin, eta komunioak ematen duen

graziaren aumentua, eta frutua galduaz gañera, injuria arrigarri bat Jesu-Kristori egiten dio, eta bere burua kondenatzeko arrisku guztiz andian ipiniko du.

G. Eta komunio aurrean konfesatzen diran guziak, pekatuaren barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia errezibitzen ote due? **E.** Ondo konfesatzen badira bai; bestela ez. Nor dira eskuarkiro ondo konfesatzen diranak, eta nor ez? Zeoro esanik dago, Penitenziako edo Konfesioko Sakramentuaren explikazioan, eta zerren askotan berritzea, eta gogora ekartzea konbeni dan, diot bakarrik, (konfesio gaiztoa jakiñaren gañean egiten duenak, aitatu bage) beste asko dirala, aozko konfesioarekin bakarrik; bizimodu gaiztoa egiaz iguitu, eta aborrezitu bage, eta bizimodu berri bat egiteko egiazko borondate eragille bage, azaleko penitentsia, eta ez biotz osokoa egiten duenak, eta ala ere sosegu, eta pake iruipeneko batean gelditzen diranak, eta orrela komulgatzen diranak; bada orrelakoak ondo prestatu bagez, gaizki konfesatzen dira, eta gaizki komulgatzen dira. Eta eskuarkiro izan oi dira, gorrototan besterekin aspaldian daudenak; afizio edo amorio zikiña norbaiti artu, eta al duela, argandik apartatu bage bizi nai duenak; besteren ondasunak batetan, al duela, edo aldiko zati edo parte bat biurtu nai ez-tue-

nak; iñori egindako kalteak edo dañuak, naiz ondasu-
netan, naiz fama onean edo estimazioan, erremediatu
nai eztituenak, eta pekatu mortalak egiteko oitura,
aztura edo kostunbre gaiztoa benetan erremediatze-
ko, goitzeko edo eskuratzeko erremedio eragilleak
artu nai eztituenak, edo egingo dituela esan arren,
bereala aspertzen diranak, eta proposito sendorik, eta
eragillerik ezuelako señale klaroak ematen dituenak;
nola izan oi diran, sarri moskortzen diranak; juramen-
tu gezurrezkoak ardurabage egiten dituenak; birau
edo maldizio larriak biotzetik esan oi dituenak; eraba-
geko joku andi kaltegarriak utzi nai eztituenak; danza
zikiñak edo jostatze loiak edo lujuriazko peligro andia
dakardenak, ardurabage egiten dituztenak. Eta beste
onelako asko; erraz agindu bai, erremediatuko dirala;
baña erremedio eragillerik egin ez: pekatua igui duela
diobe, baña pekatu gaia utzi nai ez tue; bada orien
propositoak dira aizezkoak, iruipenekoak, ez egiazko-
ak, eta ondo konfesatu, eta komulgatu nai badira,
desengañatu bear dira: damutasun egiazkoa, eta pro-
posito firme eragillea, nolakoak izan bear duen, ondo
ikasi bear due, eta benetan iristeko alegiñak egin bear
ditue, eta orrela ondo konfesatu, eta estadu graziaz-
koan komulgatuko dira.

G. Baña alako damutasun egiazkorik, eta bertatik ondutzeko proposito firmerik eztuenak, eztue obe, izango, konfesatu bage, eta komulgatu bage egotea, urte guzian ezeze, urte askotan ere? Zertako gaizki konfesatu, eta komulgatu? Eta Infernurako sugai, eta tormentu geiago eren buruai erakarri? **E.** Orrelako itxu, fedea illik daukaten zorigaizlokoak eztue beste erremediorik, eren estadu triste, errukigarria, ondo konsideratzea baizik, alde guzietatik estumena baizik ikusten eztue, bada pakea orain, eta gero izango badue, bertatik eren buruak erremediatu bear ditue, eta benetan prestatu bear dira ondo konfesatzeko, eta komulgatzeko, bada jakiñaren gañean gaizki komulgatzea, da, izan ditekean gaiztakeriarik arrigarriena; Jesu-Kristorenzat deshonoragarriena, eta animarenzat kaltegarriena.

Eta orobat, ez komulgatzea premiazko denporan, da, pekatu mortal guztiz andia egitea, eta beti Deabruaren mendean egotea, eta eren buruak Infernura botatzea. Eta ala, komunio gaiztorik iñola ere ez egiteko, eta komunio ona egitera prestatzeko, piztu bear due daukaten Kristauaren fedea, eta onek erakusten dizkigun motibo guztiz andiak, gogora ekarri, eta ausnartu bear ditue; eta lenbizikoa, konsideratu bear due,

komunio gaiztoa egiten duenak, Jesu-Kristori berari, Zeruaren, eta lurraren Jabe Soberanoari, bere Egille, Erredentore, Salbadore, eta Maisu guztiz maitagarriari egiten dioten injuria, desprezio, eta billaukeri edo traizio arrigarria, eta nazkagarria; bada badakie, eta sinisten due, Kristauak, pekatu mortalean dagoanak, bere biotzaren jabe egiñik daukala demonioa bera, eta bere biotza edo anima estatu orretan, munduan izan ditekean monstruorik itxusiena, eta izugarriena dala, eta tokirik ustelena, eta kiratsdunena, eta ala ere, ain toki itxusi, zikin, eta nazkagarrian paratzen due, ipintzen due, sartzen due, Jesu-Kristoren persona bera, bere gizatasun, eta Jaungoikotasun guziarekin; eta ori, zergatik? Munduko errespeto edo honra zital bategatik; interes edo ondasun labor bategatik; aragiaren gusto edo atsegin loi zikiñ bat, ez uztegatik; gorroto edo bendeku gaizto bati, ez largatze gatik edo pekatuko aztura gaiztoa, ez menderatze gatik; bere borondate txarra ukatzera, ez jarte gatik, eta konfesio on bat egiteko pena edo neke laborra, ez artze gatik. Eta sinistu liteke, ikusiko ezpaliz, Kristau batek orrelako gaiztakeria, eta lotsabagekeria egiten duenik? Eta Judas salzalle, traidore billauaren maldade arrigarria bera berritzen duenik? Eztago bada N.K.,

dударик, Judasek bere Maisu Jesu-Kristo Juduai saldu, eta entregatu zienean, illerazotzeko, egin zuen gaiztakeria bera, egiten du, gaizki komulgatzen dan Kristau lotsabage esker gaiztokoak; bada Judasek bezela, adiskidearen anzarekin muiñ egiñaz, errezibitzen du Jesu-Kristoren gorputz santua, bere mingaiñ madarikatuaren gañean, eta sartzen du bere etsairik amorratuenaen erdian; demonioaren aldean ipinten du: Nor arritzen ezta onelako ausardiaz? Eta zer mereziko du ori egiten duenak? Eskuarkiro datorkio orrelakoari, animako itxumen andi bat, Jaungoikoaren deiarenzat gorreri andi bat, eta biotzeko gogortasun izugarri bat Judasi bezela, bada ark lenengo komunio gaiztoa egin zuen, eta bereala, desesperatu bat bezela, bera urkatu zan, eta infernura betiko jatxi zan. Kontu bada arren N.K. dotriña onekin; erabaki ezazue arren, milla bider illtzea, komunio gaizto bat egitea baño, eta iñoiz alakorik egin badezue, bertatik penitenzia egiazkoa egizue.

G. Eta asko da pekatu mortalak ondo konfesatzea, eta estadu graziazkoan jartea, ondo komulgatzeko? **E.** Bai asko da, mandamentuarekin, eta premiazko obligazioarekin kunplitzeko; baño orrez gañera, frutu geiago ateratzeko, eta Sakramentu guztiz andi orri,

eta or errezibitu bear degun Jesu-Kristo gure Jabe, eta Errege Soberanoari dagokion garbitasunarekin, eta errespetoarekin komulgatzeko, pekatu benialetik ere gure anima edo biotza garbitzeko, alegiñak egin bear ditugu; eta orren bearra, konparazio edo antzorde onekin, erraz ezagutuko dezue, zuen fedea piztu nai badezue; zuek bisitatzera, honratzera, eta mesedez betetzera, zuen etxera etorri nai balu Españaiko Erregeak edo beste Prinzipe andi batek, eta baziñakie noiz etorri bear duen; etziñateke kontentatuko, bakarrik aren etsai gaiztoak zuen etxetik ateratzearekin; ori gauza premiazkoa da; bada bestela, zeurok ere aren etsaiak zeratela, aditzera emango zenduke; baizik, zeuron etxetik aterako zenduke, Erregeari begietan edo igui emango likion loikeri, zikinker, eta autskeriguzia, eta al dezuen ondoena, zuen etxea garbituez ezeze, apainduko zenduke, alako Jauna errezibitzeko. Ala bada, etzerate kontentatu bear, zuen Errege Jesu-Kristoren bizilekua izan bear duen biotzetik ateratzearekin, aren, eta zuen etsairik andiena, au da, pekatu mortala, eta onekin batera, zuen jabe egiñik zegoan demonioa bera: Bada nor (gutziz itxuturik, eta gogorturik ezpadago), atrebituko da, Jesu-Kristoren Majestadea bera, eta demonioa toki batean juntatzera, eta

edukitzera? Baizik zuen biotzetan (pekatu mortala konfesio on batekin bota ezker) arkitzen diran pekatu benialaen zikinkeriak kendu bear dituzue, zuen Errege, eta Jabe Soberanoari atsekaberik edo sentimenturik ez emateko, eta pekatu benial guziak, batez ere, ignoranziaz edo argaltasunez, ustekabeen bezela egin oi dituzuenak, ezin eskusatu badituzue, gutxianez pekatu benial guzien iguia eduki bear dezue, eta ezagueraz edo oarmenaz edo adbertentzia oso-osoarekin pekatu benialik ez egiteko asmoa edo proposito egiazkoa artu bear dezue, nola, gauza txikirik ere ez ostutzeko; gezur txikirik ere ez esateko; murmuraziorik gai txikietan ere ez egiteko; janean, eta edanean neurri onetik ezagueraz ez igarotzeko; aserrealdia datorkizuenean, hitz gaiztorik edo mingarririk ez esateko, bendekurako mugida edo griña gaiztoak bereala itotzeko; alperkerian denpora ez igarotzeko, aserra erazotzen zaituen jokuak eskusatzeko, zuen egunoroko Kristau lanak, nola orazioak, errosarioak, eta beste ejerzizio onak, ez nolana, ezpada betaz, al dezuen atenzio, eta debozioarekin egiteko; zuen nekabide, eta lanetan aserratu bage, baizik pazienziarekin, eta Jaungoikoaren izenean, eta aren honrarako zuen egitekoak, eta beargaiak ondo egiteko asmoa, eta kuida-

dua artuaz, eta berrituaz, eta beste utsegite txiki edo ariñak eskusatuaz, erakutsi bear dezue, pekatu benialak igui dituzuela, eta borondatez beinzat egin nai eztituzuela, eta argalak bezela askotan utsegite txikiak egin arren, damu dezuela, eta erremediatu nai zeratela. Bada bestela, pekatu benialak ezertan eztauzkenak, ardurabage egiten dituztenak, Jesu-Kristori atsegin emateko, eta eren biotzetan toki garbia prestatzeko, deseorik eztue; nolabait ofenditzen, eta atsekabetzen due, eta eskuak lotutzen diote, Kristau bildurti, eta biotz garbikoai egiten dien mesede ugarriak ez egiteko; eta orra zergatik eskuarkiro Kristau epelak frutu gutxi komunio santutik atera oi duen, eta gero tentazio larriak datozkienean errazago pekatu mortalean erortzen diran, eta kontrara, Kristau kontuzkoak irauten due eren asmo, eta proposito sendoetan.

G. 2 Eta zer geiago bear degu ondo, eta frutu edo probetxu andiarekin komulgatzeko? **E.** Zer errezibitzen degun ondo konsideratzea, eta konsiderazio onidagozkan afektoakin edo debozioarekin komulgatzea. Eta orretako piztu bear degu fedea, eta berritu esperanza humilla, esker ona, karidadea, eta egin gereburuaren ofrenda osoa Jesu-Kristori. Eta lenbizikoa,

fedea piztutzeko, gogora ekarri, eta sinistu ezazue biziro, bere Aitarekin, eta Espiritu Santuarekin betidanik, Jaungoiko egiazkoa dan Jesu-Kristo berbera, Aita Eternoaren Seme bakarra, zuen salbazioagatik gizon egin zana, zuekgatik jaio, eta neke guztiz askoren ondoren Gurutze batean bere bizia zuek erosteko, eta deabruaren mendetik ateratzeko eman zuena; bere birtutez piztu, Zerura igo, eta bere Aita Eternoaren gloriatzko tronuan aren eskubitik dagoana, eta guziok juzgatzera etorri bear duen Juez Soberanoa; Zeruaren, eta lurraren Jabea. Errege guzien Erregea, Jaun guzien Jauna, santidade guziaren ispillu bizia, eta doai guzien Jabea, eta emallea, egiaz dagoala, (ezkutuan badago ere) zuek errezibitu bear dezuen ostia konsagratuan. Eta orrela sinisten dezuela (aditzera emateko) zuen animako erreberenziarik al dezuen andienarekin, begiz ikusiko bazendue bezela, adoratu esazue ostia santuan dagoan zuen Jabe Soberano ori, eta esaiozue fede bizi, eta humill batekin: adoratzen zaitut, eta eza-gutzen zaitut, Sakramentuan zauden nere Jesus ona, nere Jaungoiko, nere Kriadore, eta Erredentore egiazkoa zeran bezela; eta sinisten det, zerren zeurk aseguratzen diguzun, eta Eliza Ama Santak onela erakusten digun, Sakramentu guztiz santu, eta miragarri

orretan egiaz gelditu nai izan zenduela, gure animen janari, eta sustentu izateko, zere pasio, eta eriotza santuaren memoria berritzeko; gureganako dezun amorio guztizkoa, guri akorda eragiteko, gure biotzak zure amorioan irazekitzeko; orretako bear degun zure grazia gugan geitzeko, eta betiko gloriaren bai edo prenda seguru bat guri emateko.

Orra N.K., fedeak erakusten dizkigun gauza miragarriak, biziro sinistu, eta beti gogoan eduki bear ditugunak, eta batez ere komunio aurrean ondo kontsideratu bear ditugunak, eta orrela erraz gure biotzetan piztuko da, fede bizi orri darraion esperanza humilla, eta au da, komunio aurrean ejerzitate bear degun bigarren birtutea.

Eta orretako alde batetik gogora ekarri bear degu, gure Jesus maitearen, eta bere Aita Eternoaren ontasun, eta miseriakordia kabubagea; eta agertu digun guganako amorio guztiz andia, eta bestetik, gure eze-reza, gure txarkeria, gure itxumena, eta esker bagetasuna, eta gure Jaungoiko maitea ofenditzeko, eta ainbeste aldiz, eta ain andizkiro edo grabemente ofenditzeko izan degun ausardia, eta gerez gauza onik ezin egin ala, beraren grazia, eta laguntasun bage, baña ala ere, esperanza onarekin, eta humiltasunarekin

gure salbaziorako bear deguna, eskatu ezkerro, pozik emango digula. Egia oek ekarri bear ditugu gogora, eta Jesu-Kristori biotzetik esan bear diogu; Jauna, zu zera, munduko pekatuak kentzera edo desegitera etorri zeran bildots inozentea, gure pekatuen barkaziorako, Gurutze santuan sakrifikatu nai izan zenduena. Ori esaten digu zure Ministroak, zure gorputz santua komunioan ematen digunean. *Ecce Agnus Dei, ecce qui tolit peccata mundi.* Ona Jaungoikoaren arkume edo bildotsa, munduko pekatuak kentzen dituana; zugan daukat bada nere esperanza guzia nigatik ixuri zenduan odol guztiz prezioso orrekin, garbitu ezazu arren nere biotza; eztet nik merezi, zure Majesdea nere biotzean edo nere animako etxe onetan errezibitzea; baña asko da zuk nai izatea, eta agintzea, nere anima sendaturik gelditzeko. *Domine non sum dignus, ut intres sub tectum meum, sed tantum dic verbo, et sanabitur anima mea.* Orra, nola esperanza humillarekin alaiturik edo esforzaturik komulgatu bear zeraten. Eta esperanza ori geiago azitzeko, eta esker ona, eta karidatea exerzitzeko, konsideratu itzatzue astiro, Jaungoikoaren ontasunari zor diozkatzuen mesede guztiz andiak; ala naturalak, nola graziazkoak edo naturalezaz gañekoak; eta batez ere, nola zeraten

guzia; eta dezuen guzia Jaungoikoak emana dezuen; nola, izan ditekean ditxarik, eta zorionik andiena. Zeruan beti gozatzeko egin zaituen; nola, Kristau egin, eta Jesu-Kristoren fede egiazkoa erakutsi dizuen, nola Jesu-Kristoren biziaren edo odolaren kostuan erredimitu zaituen; nola, Sakramentu santuetan bere grazia eman dizuen, eta zuen esker bagetasunagatik betiko kondenatu ordean, beregana deitu zaituen, eta berriz, erremedio ugariak, eta eragilleak zuenzat prestaturik dauzkan, egiaz ondu, eta aprobetxatu nai bazerate. Eta azkenik, nolako amorioarekin zuen biotzetara, Jesu-Kristo bera, komunio santuan datorkizuen, zuen animen sustenturako, eta grazia geiago zueri emateko; eta ori guzia ondo pensatu ezker, alde batetik lotsatuko, eta humillatuko zerate, eta bestetik esperanza bizi batekin poztuko zerate; zuen pekatuak, eta esker gaiztoak iguituko dituzue; pekatuen damu fiña, eta egiazkoa, eta ez berriz pekaturik egiteko proposito firme, eragilleak artuko dituzue; konfianza andi batekin Jaungoikoari barkazioa eskatuko diozue, eta ain maite zaituen zuen Jaungoiko guztiz ona, eta ongi-ilea, biotz guztitik, eta gauza guziena gañetik amatuko dezue, eta beragatik zuen lagun projimo guziak, ala onak, nola gaiztoak amatuko dituzue, eta guziona sal-

bazioagatik Jaungoikoari benetan erregutuko diozue, eta azkenik, erraz zuen buruen, eta zuen gauza guziena ofrenda osoa Jesu-Kristori egingo diozue.

Zorionekoak gu guziok N.K., gure borondatea osoro Jesu-Kristori ematen badiogu, eta gure erabageko deseo guziak ukatzen baditugu, eta aren gustoa, eta nai santua gauza guzietan billatzen badegu. Orduan, Jesu-Kristo izango da egiaz gure biotzaren Jabea, eta gu Jesu-Kristogan biziko gera; eta San Pablo Apostoluak bezela egiarekin esango degu; ez naiz ni bizi, baizik Jesu-Kristo bizi da nigan: eta orixe da, komunio santu baten fin prinzipala, eta orixe da, Jesu-Kristori geiena, eta gogotiena eskatu bear diogun mesederik andiena, au da, bere borondate santua gauza guzietan egiteko grazia, eta pozik emango diguna, guk humiltasunarekin, konfianza osoarekin, eta iraupenarekin eskatzen badiogu. Presta gaitzen bada orretarako biotzeko garbitasunarekin; pekatu mortalak ezeze, benialak ere aborrezituaz al ditugun obra on guziak egiñaz; eta batez ere, fede bizi batekin, esperanza humil batekin, esker onarekin, eta Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio irazeki batekin, eta gere buruaren edo borondatearen ofrenda osoa Jesu-Kristori egiñarekin; eta orrela gure pekatu

guziak desegingo ditugu; Jaungoikoaren grazian iraungo degu; bizimodu pakezko bat egingo degu, eta Zerurako ondasun andiak orain irabazi eta gero betiko glorian gozatuko ditugu. Amen.

AMASEIGARREN DOTRIÑA

*Sakramentuen gañean, eta irugarrena
Aldareko Sakramentu guztiz Santuaren gaiñean.*

Aditu dezuen ezkerreko aurreko dotriña bietan, zer errezibitzen degun komulgatzen geranean; zertako errezibitzen degun, eta nolako prestaera edo disposizioarekin komulgatu bear geran; gaur erakutsi nai dizuet, komunio ondoko denpora preziatua, zertan igaro edo enpleatu bear dezuen; komunio santutik bear dan frutua edo probetxua ateratzeko; bada nere artean askotan lotsatu, eta tristatu naiz, ikusirik Kristau asko, komulgatu ta bereala Elizatik irteten; zer mesede andia Jesu-Kristok egin dien pensatzen, eta berari eskerrak ematen, eta bear dituen laguntasunak aurrerako eskatzen, gutxienaz ordu laurden bat aritu bage; eta nola utsegite ori datorren askoren ignoranziatik, zer egin bear duen astiro, esan nai diet: eta orren ondoren sarri, eta ondo kumulgatzea zein gauza probetxugarria dan, eta sarri komulgatzeko nolako disposizioa bear dan, laburtxo esango dizuet.

G. Zer egin bear degu bada, Jesu-Kristo gure Jauna Komunionan errezibitu degun ondoan? **E.** Ez gera izan bear desatentoak, deskortesak, eta esker bageak Jesu-Kristorekin, Kristau, fede laburra, eta debozio laburragoa duen asko bezela; badirudi, eztakiela nor dauken eren biotzetan, zergatik gorputzeko begiak inikusten eztuen, eta gutxiago dakitela, zenbat zor dioben, nolako mesede, eta honra egin dien, eta nolako premian dauden, ondo biziko badira, eta salbatuko badira, mesede berriak, eta grazia, eta laguntasun berriak Jesu-Kristori eskatzeko, eta beragandik iristeko. Erregearen Majestadea bera zuen etxera zuek honratzera, eta mesedez betetzera etorri, eta zuen maian jarri orduko, hitzik ere egin bage, ezer eskatu bage, eta eskerrik ere eman bage, bakarrik utziko bazenduke, eta alde egingo bazenduke, egunoroko zuen beste lan, gutxi inporta duenak egiteagatik; Nolako sentimentua emango etziñioke? Nolako desprezioa egingo zinioko? Nolako kalteak zeuron buruai ekarriko etzinieke? Eta ain esker gaiztoarekin tratatzen dezuen zuen Kriadoreagandik mesede berriak esperatzera, eta eskatzera ere, nola atrebituko ziñateke? Piztu ezazue bada arren zuen fedea, eta sinisten dezuen ezkerro, Jesu-Kristo bera, Errege guzien Erre-

gea, Zeruairen, eta lurraren Jabe Soberanoa, eta zuen Aita, eta Ongille guztiz maitagarria, egiaz, eta ez nolainai, ezpada bere persona bera, gizatasun, eta Jaungoikotasun guziarekin zuen biotzean daukazuela, ongi-ettorri egiozue, eskerrak betaz emaiozue, zuen premiak edo nezesidadeak, ala espiritualak edo animarenak nola gorporalak edo gorputzarenak, erakutsi egiozkatzue; guzien erremedioa, humiltasunaz bai, baña konfianza oso batekin eskatu egiozue; eta zuen buruak edo zuen biotza, eta borondatea osoro konsagratu egiozue. Eta orduan bai Jesu-Kristori atsegin andi bat emango diozuela, eta txit ugari aren doaiak, eta bear dituzuen laguntasun guziak errezibituko dituzuela. Zergatik uste dezue, ainbeste Kristau epel bertutean aurreratu bage arkitzen dirala? Beti, bere pasio, eta griña gaiztoak ezi bage, beti puntua darienak, aserrekorrak, enbidiosoak, nagiak, jan-edanera geiegi emanak, gorputz-gilleak, ezertan mortifikatu nai ez tuenak, egiazko humiltasuna, pazientzia, eta alkarrekiko karidadea ejerzitzatzeko ain nekezak, ondo ikasi bageak, eta gutxi usatuak? Galdetu egiozue Santa Teresa de Jesus, gauza espiritualetan ain Doktoorea, erakusle edo Maistra andi, eta argituari; eta esango dizue, ori guzia datorrela, komunio ondoan bear

dan bezela Jesu-Kristori eskerrak eman bagez, eta gure animako premien edo nezesidadeen erremedioa ondo eskatu bagez.

Ebanjelio santuan irakurten degu, Samaritana bat, lenago emakume galdua, Jesu-Kristorekin denpora piska bat hitzketan edo konbersazioan egon zalako, alako denporan trukatu edo mudatu zala, nun ez bakarrik fede bizi bat, eta Jesu-Kristoganako amorio irazeki bat iritsi zuen; baizik, bere erritar, eta ezagun guziak Jesu-Kristoren ezaguerera, eta amoriora erakarteko, alegin andiak egin zituen. Orobat, Zakeoren etxean Jesu-Kristo sartu zalako, eta maian eduki zuelako, Zakeo bera, eta bere etxeko guziak bendizioz, eta mesedez bete zituan. Nai dituzuen tesoro guziak diru-tokitik ateratzeko giltza emango balizue; Nolako alegiñak egingo etzinduzke, al dituzuen guziak ateratzeko? Bada Jesu-Kristo gure Jaunak, tesoru espiritual guzien Jabeak, bere gorputza, odola, anima, eta Jaungoikotasuna emanaz, bere kabubageko merezimentuak, eta ondasun espiritual guziak ateratzeko, eta zeuronganatzeko giltza ematen dizue; fedea, esperantzea, eta karidatea berritu, piztu, eta exerzitate baizik eztezue.

Baña batzuok esango didazue, gu, jakiñez edo ignorante batzuok gera; Jesu-Kristori zer esan, eztakigu, komulgatu ezkerro, beste zer egiñik ezteguna uste degu; etxerako presa degu, eta geiena, komunio ondoan estazioak errezatu edo Aldareak bisitatu ezkerro, asko egin degula uste degu; Zer geiago egin bear degu? Eta zuek Kristauak zerate? Kristauaren fedea edo sinistea, alperrik edukitzeko, eman dizuela uste dezue? Bada sinisten dezu ezkerro, Jesu-Kristo gure Jauna bera, zuen biotzera, zuek merezi bage, egiaz etorri zatzuela, mesede andi ori nolabait ezagutzen dezuela, aditzera emateko, zuen pensamentu guziak, zuen deseio guziak, zuen amorio guziak, zuen barruan daukazuen Jesu-Kristogana itzuli itzatzue; eta errespeto guztiz andi batekin esaiozue; Jauna, nundik niri onenbeste ditxa, eta fabore! Izanik zu Zeruaren, eta lurraren Jabe Soberanoa, iñoren bearrik ezertako ezteguna, eta izanik ni kriatura billau bat, itxu, pobre bat, esker gaiztoko bat, ala ere nere biotz gogor orietara etorri nai izan dezu! Zerk Jauna ekarri zaitu ain toki txar batera? Nere anima tristeari diozun amorio geiegia baizik? Ongi-etorria izan zaitezela bada; nik adoratzeko zaitut, eta nere Jaungoikotzat, eta nere Jabe Soberanotzat ezagutzen zaitut; Zeruko Aingeru, eta

Santu guziak, eta aen Erregiña andi Maria Birjiña Santisimak arren alabatu, eta bedeinka zaitzela, eta nere ordeztu, zor dizudan alabanzak, eta eskerrak eman degizuela; onela edo al dezuen moduan, biotz, eta borondate onarekin erakutsi egiozue Jesu-Kristori zuen esker ona; bada esker gaiztokoak igui dituan bezela, esker onekoak txit maite ditu, eta mesedeak estimatzen dakiztenai, mesede berriak egiten dizte, eta esker bageai ukatzen dizte. Baña, eskerrak ematearekin etzerate kontentatu bear; bera obeto amatzeko, esker onez eranzuteko, eta bere borondatea ondo egiten ikasteko, eta kunplitzeko; zeuronez ain itxuak, eta pobreak zeraten ezker, humiltasun, eta konfianza andi batekin eskatu egiozue, arren zuen adimentuak argitu ditzala, berak erakutsi dizkigun bere Ebanjelio eta dotriña santuko egia andiak ezagutzeko, eta bere graziarekin zuen borondateak bere amorioan berotu ditzala, eta indartu ditzala, aren nai santua, au da, aren lege santua gogotik, eta osoro gordetzeko. Orretarako, beti, baña batez ere komunio ondoko denpora preziatu orretan Jesu-Kristori biotzetik esan egiozue... Jauna, zuk itxuak sendatu dituzu, animako, eta gorputzeko argia, eta bista emanarekin; eta orobat elbarrituai, errenai, gorrai, mutuai, eta eri

mota guziaz osasuna, eta indarra ematen ziñien. Ona bada gu egiazko itxuak, eta eriak; munduak, deabruak, gure aragiak, eta gure amorio propio erabageak, eta emendik datozkigun gure griña edo erabageko pasioak, gure andinaiak, gure gutziak, gure kolera edo irak; gure enbidiak, gure nagitasunak, eta ez fedearen, eta arrazoiaren argiaz batera, ezpada gure sentiduen gurariaz eta apetitoaz batera garabiltzan gure deseoen itxumenak, gure adimentuak dauzkate illundurik; eta gure obligazioak, eta bearren ditugun salbazioko egia andiak ezagutzea eragozten digue, eta gure borondatea beragana daramate; argitu gaitzatu bada arren Jauna, eta itxumen onetatik libra gaitzatu; eta orobat gure eritasunetatik, eta argaltasunetatik sendatu gaitzatu; iguzu arren bear degun grazia, eta indarra gure borondate gaiztoa, eta deseo erabage guziak ukatzeko, eta zure borondatea ezagutzeko, eta gauza guzietan egiteko; eta batez ere, egin gaitzatu zure anzekoak, humillak, mansoak, sufrituak, pakeosoak, eta orretarako sortu ezazu, eta geitu ezazu gure biotzetan guganako amorio santua, eta gure lagun projimo guziakiko egiazko karidadea, errukia, eta miserikordia. Ona N.K. guk bearren ditugun animako ondasunak, betiko zoriona ekarriko digu-

tenak, eta Jesu-Kristori gogotiena, eta sarriena, eta batez ere komunio ondoan eskatu bear diozkagunak. Eta orren ondoren eskatu ere deizkiogu, bera obeto serbitzeko, eta gure animako salbaziorako konbeni bazaizkigu gorputzeko osasuna, eta bear ditugun ondasunak, bizitza miserable au ondo igarotzeko, eta obra onak egiten enpleatzeko. Baña guzien gañean billatu, eta deseatu bear degu, Jaungoikoaren borondate santua egitea, Jesu-Kristok egin zuan bezela. Eta ori obeto egiteko, ona komunio ondorako beste exerzizio bat guztiz egokia, Jaungoikoarenzat txit atsegin-garria, eta honragarria, eta guretzat txit probetxugarria; eta orretara orain oitu, eta azkeneko gaitza datorkigunean, Biatiko santuaren ondoren egiten badegu, eriotza on bat iristeko, txit asko balioko diguna.

G. Zer exerzizio da ori? **E.** Da gere buruen, eta gere gauza guzien sakrifizio edo ofrenda oso bat Jaungoikoari egitea; bada ez nolana, baizik, Jesu-Kristok Kurutze santuan egin zion bere biziaren sakrifizioarekin uniturik; zuen intenzioa bada, Jesu-Kristorenarekin bat egiñik, esan deikeozue Aita Eternoari; ona nere Jaungoiko Soberanoa, zure kriatura bat, duen guzia zuri zor dizuna: baña egingal guziarekin, zure Majesta-

de Soberanoari, eta ontasun neurribageari zor dionari, ezin berez eranzun leikiona; baña zure Seme maittea bera, bere merezimentu infinitoakin eman didazun ezkerro, nere buruaren ofrenda pozik egiten dizut, Jesu-Kristok egin zizun ofrenda edo sakrifizioarekin batera; ura bakarrik da, zure Majestadearen diñakoa; naizan guzia bada, nere anima, eta gorputza, nere memoria, adimentu, eta borondatea, eta nere sentidu guziak, eskintzen, eta ofrezitzen dizut, Jesu-Kristok Gurutze santuan egin zizun, bere buruaren sakrifizio guztiz baliosoarekin batera. Lenbizikoa, guzion, eta nere egille, nere Jabe, eta nere Jaun, eta Errege Soberanoari bezela; ezagutzen det alabaña, O! nere Jaungoiko guztiz poderoso, eta andia, zor zatzula honra, eta gloria guzia, eta ala zure borondatea gauza guzietan egin nai det, eta eztet neretzat bizi nai, ezpada zuretzat. Eta bigarrena, ofrenda ori bera egiten dizut, Jauna, nere ongille guztiz maitagarriari bezela; bada ezagutzen det, ezin esan alak dirala, nik merezi bage, egin dizkidazun mesede, onarte edo benefizioak; ala naturalak, nola graziazkoak edo naturalezaz gañekoak. Kriatu nazulako, konsertatu nazulako, erredimitu nazulako, deitu nazulako, justifikatu edo pekatutik atera, eta zure grazia eman didazulako; eta askotan,

eta andizkiro, zure Majestadea ofenditu arren, eta betiko gloria galdu, eta betiko infernua merezitu ezkerro, kondenatu izan ez nazulako; eta berriz, eta berriz, eta askotan Sakramentu santuetan pekatuaren barkazioan eta zure grazia, eta adiskidetasuna, eta zure Seme maitea bera komunio santuan janaritzat eman didazulako, Zerekin bada eranzungo diet onelako mesedeai, eta oriek eragin dizkitzun niganako amorio ain andiari? Milla bizitza banitu ere, eta guziak zugatik sakrifikatuta ere, beti zordun geldituko nitzake, nere burua baizik zer ofrezitu ezpanu; baita naizan apur au, lurreko ar bat baño ere gutxiago izanik zure Majestade Soberanoaren aldean, pozik eskeintzen, eta ofrendatzen naitzatzu osoro, egin dizkidatzun mesede andien esker onerako, Jesu-Kristok guziokgatik, eta nigatik eman zizkitzun esker guztiz atsegingarriakin eta egin zizun bere biotzaren ofrendarekin batera, eta indazu arren zure grazia, oraindaño baño esker obekoa aurrera izateko. Eta irugarrena, barkaitzkidatzu oraindañoko nere esker bagetasunak, eta egin dizkitzudan ofensa guziak; bada nik ez merezi arren, zure Seme maiteak berak guzien pagua edo satisfazioa eman zizun, gurutzean egin zigun ofrenda guziz preziosoarekin; eta arekin batera ofrezitzen dizut nere

bizitza, nere obrak, eta nere neke, eta trabaju guziak nere pekatuen satisfakziorako. Eta laugarrena, nola zure graziaren laguntasun bage, ezin gauza onik egin dezakedan, eta ori ere Jesu-Kristok bere ofrenda guztiz baliosoarekin irabazi zigun, ofrenda ura bera, eta arekin batera, nere eginal guziak ofrezitzen dizut, eta Jesu-Kristoren izenean eskatzen dizut, lenbizikoa, nere oraindañoko pekatuen egiazko damutasunean, eta ez berriz pekatu egiteko propositoan irauteko doaia, eta indarra. Bigarrena, nere oitura gaizto guziak, eta batez ere geiena pekatu ekarri oi nabena goitzeko, eta menderatzeko grazia. Irugarrena, birtuteari, eta bizimodu on bati jarraitzeko gogo bizia, eta batez ere humiltasuna, pazientzia eta karidatea gogotik exercitatzeko, eta nere karguko obligazio edo egiteko guziak, ala jeneralak, nola partikularrak, ondo ezagutzeko, eta kunplitzeko argia, eta grazia; eta laugarrena, eriotza on bat, eta ari darraion betiko gloria iristeko grazia guzien grazia, eta mesede guzien osagarria, Jesusen izenean eskatzen dizut. Eta azkenik neretzat bezela erregutzen dizut, Elizako nezesidade espiritual, eta denporal guzien erremedioagatik; nere guraso, senide, adiskide, ongille, eta gaizgille guzien salbazioagatik; eta purgatorioko anima guzien, eta batez ere

nerre obligaziokoen sufrajio edo alibioagatik. Erama itzatzu arren len baño len zure gloriako deskansura. Amen. Eta orra N.K., aitatu edo ikutu baizik egin eztiendan komunio ondorako esker bideak, erreguak edo orazioak, eta Jaungoikoari bere Seme maitearekin batera egin bear diozkagun ofrendak. Egin itzatzue bada arren kontuz komulgatzen zeraten aldi guzietan; gutxiena ordu laurden bat orretan igaro ezazue. Lan santu orrek geiago balioko dizue, munduko beste irabazbide guziak baño; ori ondo egiñarekin, zenbat irabazi dezakezuen, eta ori egin bagez, zenbat galtzen dezuen, begiz ikusiko bazendue; munduko tesoro guziak irabazteko baño leia, eta ansia geiago izango zenduke, komunio santu batetik, atera ditzaketzen ondasunak, ateratzeko. Ala esango likezue, ondo probatu zuenak bezela, Santa Teresa batek, Santa Katalina Senako batek, eta bear dan ezaguerarekin, esker onarekin, eta amorioarekin orain ere komulgatzen diran beste kristau on askok, eta ala lotsatu zaitezte N.K., oraindañoko eman fedearen, eta debozioaren urritasunaz, eta aurrera zuen anima gaixoak argitu, sendatu, eta aberastu itzatzue komunio santurako obeto prestatuaz, eta komunio ondoko denpora preziatua obeto aprobetxatuaz; eta orretara obeto, eta

lasterrago oitutzeko, eta bide nabar ondasun espiritual andiagoak irabazteko egunoro, eta egunean askotan beste komunio bat erraza, eta probetxu andikoa egitera jarri zaitezte.

G. Zer komunio mota da ori? **E.** Da gogozko edo deseozko komunio espirituala, eta ori egiten da, egiaz eta aoz komulgatu bear balu bezela, biotzez, deseoz, eta gogoz Jesu-Kristori eskatuaz, arren bere graziarekin datorkiola, bere biotzaren Jabe izatera; argitu dezala, sendatu dezala, eta bere amorioan irazeki dezala; bada zenbat sarriago, eta debozio geiagorekin ori egiten duen, anbat ondasun espiritual geiago irabaziko ditu; eta bere denporan obeto, eta frutu geiagorekin aoz komulgatzeko, prestatuago arkituko da. Eta ori da ekiera edo exerzizio bat, Santuak, eta kristau onak txit usatua, eta guziok erraz egin dezakezue-na; orretarako, naiz Mezako denporan, naiz zuen etxeetan, naiz zuen neke lanetan edo bidetan akto kontriziozko batekin zuen biotzak garbitu, eta Jesu-Kristori, bera zuen biotzetan arkitzeko gogo edo deseoa agertu egiozue, eta txit asko irabaziko dezue.

Eta orain jakin naiko dezue, gutxiena urtean bein komulgatzeko lege edo mandamenturik baizik eztagoan ezkerro; sarri aoz, eta egiaz komulgatzea obe dan,

eta noiztik nora komulgatzea kristauari konbeni-
zaion? Lenbizikoa, diot, sarri, eta ondo komulgatzea
dala Jesu-Kristorenzat gauza txit atsegingarria, eta
kristauarenzat esan ditugun, eta esan al baño probe-
txu geiago dakazkiona, eta orretan dudarik batere
eztago. Bigarrena, diot, gauza bat dala, premiazko
prestaerarekin, au da, estadu graziatzkoan dagoala
komulgatzea; eta beste bat, frutu geiagorekin, eta
Jesu-Kristoren atsegin geiagorekin, obeto disponiturik,
fede bizi, esperanza humil, karidade bero, eta pekatu
mortalaren ezeze, pekatu benialaen iguitasun andi
batekin, biotzeko garbitasun geiagorekin, eta Jesu-
Kristoganako esker on, eta amorio irazekiarekin
komulgatzea. Mandamentuarekin kunplitzeko, asko
da, eta nai ta ez bear da, estadu graziatzkoan komul-
gatzea; eta orrelakoak ere urtean bein edo bakan
komulgatu arren, errezibitzen du Sakramentu Santuak
berez ematen duen graziaren aumentua, inpedimen-
turik edo eragotzgarririk ipinten etzaionean. Baña,
askoz grazia ugariagoak, eta birtuteari jarraitzeko
argitasun, laguntasun, eta indar andiagoak artzen
ditu, sarriago, eta ezaguera geiagorekin, eta konside-
razioarekin argiturik, debozio geiagorekin, eta Jesu-
Kristorekin, bat egiteko edo unitzeko deseo biziagoa-

rekin komulgatzen danak; eta komunio ondoan esker obeak, eta Jaungoikoaren amorioan irauteko, eta aurreratzeko deseo andiagoak, eta orazio beroagoak agertzen edo egiten dituanak, eta zenbat debozio geiago, anbat ondasun espiritual geiago iristen ditu; ara nola, iturrira dijoanak, onzi txikia badarama, eta bakan badijoa, ur gutxi artzen du, eta onzi andia bada-rama, eta sarri badijoa, ur asko artzen du, eta zenbat onzi andiagoa daraman, anbat ur geiago etxera dakar; orrela bada, Aldareko Sakramentu santua, iñoiz ere aitzen eztan iturri guztiz ugaria bezela da; kaburik eztuen ondasunak beregan dauzka; Jesu-Kristo, aek guri emateko, deseoarekin dago; eta gugan dago edo gutxiago edo geiago errezibitzea, gure biotzeko, onzia prestatzen edo disponitzen degunaz konforme, eta askotan edo gutxitan komulgatzen geranaz batera. Diot bada irugarrena, ondo, eta sarri komulgatzeko alegiñak egitea, guziori konbeni zatzuela; eta illean bein edo ill bitik bira komulgatzea prokuratu bear dezue, edo konfesoreak esaten dizuenean; baña Jesu-Kristori atsegin emanaz gañera, frutu andi bat ateratzeko, asi bear dezue pekatu mortaletatik ezeze, pekatu benial jakiñetatik zuen buruak libratzen, eta garbitzen; nola gezurrak esatetik, banidadetik, jan eta

edan geiegitik, murmuraziotik, &. bada bestela zuen epeltasunean beti iraungo dezue, Jesu-Kristok nai duen bezelako biotz garbia, eztiozue prestatuko, eta ala bere graziak, eta faboreak ere urriago edo eskasago artuko dituzue, biotza pekatu andietatik, eta txikietatik ondo garbiturik daramanak baño. Orrez gañera, laugarrena diot, zortzi egunetik zortzira komulgatzeko, San Franzisko Sales Maisu espiritual andiak nai du, eta eskatzen du, pekatu benialaganako afizioa edo inklinazio ezagutua kentzea, eztu eskatzen pekatu benialik egin bage egotea, batez ere argaltasunezko-rik; bada iñor ere orrelako garbitasun, eta santidade-ra eldu oi ezta; baizik pekatu benialak ezagueraz, eta borondatez egiteko erraztasuna goitzeko alegiñak egi-ten aritzea; eta ori ezagun da, birtuteak iristeko, eta exerzitzeko egin oi diran alegiñetan. Eta azkenik diot, astean bi edo iru bider edo geiagotan, Jesu-Kristori zor diogun errespetoarekin, eta animako probetxu andiarekin komulgatzeko, erabageko pasioa goitzen edo eskuratzen jardun bear degula; eta birtuteak exerzitzeko arreta edo kuidaduarekin bizi bear degula; egunoro konsiderazioak, eta orazio jakiñak egiñaz, eta Jesu-Kristoren, eta Santuen exenploai jarraituaz; batez ere Jaungoikoaren, eta projimoaren

amorioan aurreratuz; eta humiltasuna, eta pazientzia naigabeetan, ala andietan, nola txikietan exerzitatuz, eta orretarako Jesu-Kristori berari berariazko grazia, eta indarra eskatuaz; bada gure egiazko zoriona dago, gero borondatea ukatu eta Jaungoikoarena egitean. Eta ori ondo egiteko, ala gai onetan, nola animako beste egitekoetan, jarraio egiozue, zuen konfessore zinzo, eta argituak ematen dizuen konsejuari, eta ark esaten dizuen denporetan komulgatuaz, azertatu-ko dezue, eta txit aberasturik Zerura igoko zerate. Amen.

AMAZAZPIGARREN DOTRIÑA

Extrema-unzioko Sakramentuaren gañean.

Jesu-Kristo gure Jaunak, bere guganako amorio guztiz andia, eta gu salbatzeko daukan deseo guztizkoa, ondo erakutsi zigun, ez bakarrik, guri Zeruko bidea bere hitz, eta ejemploarekin erakutsi zigunean, eta gu erredimitzeko bere bizia Gurutze batean eman zuenean; baita ere, jaiotzen geranetik, illtzeko puntu-raño bere Sakramento Santuakin bear ditugun erre-medio guziak emanaz: eta ez gutxiena estutasunik andienerako Olio Santuaren Sakramentua edo Extrema-unzioa ordenatuaz: eta ona, zerk izan bear duen gaurko hitz-gaia, zuen atenzio guzia ondo merezi duena. Eta 1. esan dezagun, gure dotriña laburrak erakusten diguna, eta Sakramentu onen explikazioa: eta ondoren 2. esango dizuet, gure dotriñako erres-puesta edo eranzuera laburraren explikazioa.

G. Zertako da Extrema-unzioa edo azkeneko oleadura? **E.** Iru gauzatarako. Zein dira? 1. Igaroko bizitza gaiztoaren errelikiak, arrasto edo kutsuak kentzeko. 2. Demonioaren tentazioen kontra animari indarra ema-

teko. Eta 3. gorputzari osasuna emateko, animarako konbeni bazaio.

G. Olio Santua bera Sakramentua da? **E.** Bera bakarrik ezta Sakramentua; baizik Sakramentuaren gaia: zerren Olio Santuarekin egiten diran unzio edo gantxidurakin, eta Sazerdoteak, orduan orazio gisa esaten dituan hitzakin, egiten edo osatzen du Sakramentua: Sazerdoteak bada gantxitzen edo unjitzen du eria edo gaixoa bere sentiduetan; begietan, belarrietan, sudurrean, ezpañatan, eskuetan, eta oñetan. Eta orduan bertan orazio eginaz esaten du «Unzio santu onegatik, eta bere miserikordia guztiz errukitzalleagatik barkatu degizula Jaungoikoak begiakin egin dituzun pekatu guziak»: eta orrela egiten du, eta esaten du beste sentiduetan.

G. Nork disponitu edo ordenatu zuen Olio Santuarekin ematen dan Sakramentu ori? **E.** Jesu-Kristo gure Jaunak.

G. Eta nork erakutsi zuen Sakramentu ori noiz, eta nola eman, eta zertako dan? **E.** Apostoluak mundu guzian erakutsi zuen: eta ordutik Eliza guzian ala usatu da. Baña Santiago Apostoluak Kristauai egin zien, eta Eskritura Santuan dagoan karta preziatu batean erakutsi zuen zeoro ori guzia. Eta dio onela:

zuetatik bat gaxotzen bada, Elizako Sazerdoteai deitu begie, Jaungoikoari orazio egin degioben, Oleoarekin Jaunaren izenean gantxituaz, eta fedearekin egiten dan orazioak eria sendatuko du: Jaunak alibiatuko du, eta pekaturik badu barkatuko zaizka. (Jacobi V.) Eta Sakramentu onen antz edo figura bat lenago ikusi zan, Jesu-Kristoren ordenaz, eta bera bizi zala, Apostoluak egin zuen misio batean. Bada San Markos Ebanjelistak (613) dio, ze, orduan mirari andiak Apostoluak egin zituela: eta olioaz gaixo edo eriak gantxitu, eta sendatu zituela.

G. Eta zergatik deitzen zaio Sakramentu oni Extrema-unzioa edo azkeneko oleadura? **E.** Zergatik da Kristauak errezibitzen dituan Unzio edo oleazioetatik azkenekoa. 1. Artzen du Bateo santuan. 2. Konfirmazioan. 3. Sazerdoteak, Obispo Jaunak, eta baita Erregeak ere eren konsagrazioetan, eta azkenekoa kristau guziok artzen degu, peligrozko gaitza edo eritasuna datorkigunean.

G. Nolako olioarekin egiten da azkeneko oleazioa? **E.** Obispo Jaunak Ostegun Santuz urteoro konsagratzen duen olibazko olioarekin: eta ezta besterekin edo konsagratu bagearekin egin bear.

G. Eta olioak zer aditzera ematen du? **E.** Olioak birtute andiak ditu. Olioak serbitzen du argitzeko: zau-riak sendatzeko: eriak konfortatzeko, eta baita susten-tatzeko. Eta efeko oriek Extrema-unzioak egiten dituala kristauaren animetan, eta gorputzetan aditze-ra ematen du.

G. Nori dagokio olio santuaren Sakramentu au ematea edo administratzea? **E.** Parrokia bakoitzeko Bikario edo Erretore edo kura jaunari: eta aren baime-naz edo estutasunean edozein Sazerdoteri.

G. Nori eman bear zaio Olio santua? **E.** Peligrozko gaitzarekin edo eritasunarekin dagoan Kristau pekata-riari: eta ala, etzaie eman bear gaixotu bage gerrara dijoazenai: itxasoan ondatzeko, eta itorik illtzeko peli-groan daudenai: eta justiziak illeragiten dituanai: bada oriek eztira gaixoak edo eriak. Eta orobat etzaio eman bear, iñoiz pekaturik batere egin eztuen aur ino-zenteai: ez eta zenzurik edo juiziorik batere iñoiz izan eztuenai: baña bai arrazoiaren argira etorri diran aur-txoai: eta baita lenago juizioarekin bizi izan, eta gero zoratu diranai ere, lenago Kristau gisa bizi izan bazi-ran: eta ezta iñor gaiztotzat eduki bear, prueba ziertu-rik aren kontra eztagoanean.

G. Noiz eman bear zaio Olio santu eri dagoanari?

E. Illzeko peligroan dagoanean: baña ezta etxoron bear txit etxirik egotera: eta are gutxiago azkeneko arnasetan edo agonian olio santua ematera. Egia da, lenago ezin eman izan bazaio, orduan ere eman bear zaiola: baña olio santuaren probetxu guziak ezin erre-zibituko ditu naiz animerako, naiz gorputzerako, bere buruaz, au da, adimentuaz, eta borondateaz ondo baliatzeko gai ezpadago, eta ezta osasunik ere, gorputza illik badago, eta milagro bage ezin sendatu baditeke: bada olio santuak gorputzari osasuna emateko birtutea dauka, ez bakarrik animarako konbeni-zaionean, baita ere, milagro bage gorputza alibiatze-ko edo alibioa errezibitzeko gai dagoan artean: eta ala, askotan ikusi da, olio santuarekin gaixoak berea-la alaitzea, esforzatzea, obera ematea, eta gero sendatzea. Eta ortik kontu atera dezakezue, zein itxu-men, eta erakeri aundia dan, olio santua muga onean errezibitzeko askoren iguitasuna, eta atzerapena; olio santua artu ezkerro erremedio bage ill bear balu beze-la: eta zein kalte andia dakarren atzerapen orrek, ala animarako, nola gorputzerako: eta argatik Trentoko Katezismo edo dotriñak dion bezela, pekatu aundi bat egiten due, olio santua ematea eragozten duenak,

probetxuarekin artu ditekean denporan, eta ori geiegi ikusten da, batez ere aberatsen artean, eriak erak olio santua eskatzen ezpadue: eta kontrara, Kristau pobreak iguirik erakutsi ezeze, erak larritu oi dira, olio santua mugaz errezibitzeko: eta orixe egin bear degu Kristau guziok, olio santuak dakazkigun ondasun andiak iristeko.

G. Eta olio santua errezibitzeko obligaziorik bada-go? **E.** Era onik ezpadu errezibitzeko, salbatu diteke olio santua artu bage: baña, era ona izan ezkeru, ez artu nai izatea, da berez pekatu mortala: bada ezertan eztaukala edo despreziatzen duela aditzera ematen du, eta eskandaloa ere kausatzen du: baña oraindio egiazio premiarik eztuelako ustean luzatzen badu, gero errezibitzeko asmoarekin, pekatu mortalik egiten eztu, Olio santu bage ilko baliz ere, lekurik izan bagez: baña atzerapena olio santua errezibitzeko izan oi da zerbait kulpaduna: eta aren probetxuak galduaz gañe-ra, kastigatzen da txit gogorkiro purgatorioan, exen-plo askorekin ikusi dan bezela.

G. Eta zenbat aldiz artu diteke olio santua? **E.** Peli-grozko eritasun bakoitzean bein baizik ezin artu dite-ke: baña obero eman ezkeru, eta iltzeko peligrotik libratu ezkeru, txit sendatu ez arren, berriz peligroa

biurtzen danean, berriz olio santua eman dekiok: eta peligrotik irten zan edo ez, duda badago, obe da berriz ematea, probetxu geiago dakarrelako.

G. Eta olio santua frutu, eta probetxuarekin errezi-bitzeko, zer disposizio eduki bear du Kristauak? **E.** Egon bear du graziazko estaduan: bada oleadura santuak ematen du berez graziaren aumentua, eta barkatzen ere ditu pekatu benialak; batez ere aen damutasuna gaixoak bere biotzean badauka: eta argatik, pekatu mortalik baleuke, olio santua artu baño lenago konfesatu bear du: eta pekatu mortalik ez izan arren, konbeni da konfesatzea, frutu geiagorekin olio santua errezibitzeko.

G. Eta konfesatzeko lekurik izan ezpadu; eta pre-saka olio santua ematen badiobe, zer egin bear du? **E.** Al duan moduan, keñuz baizik ezpada ere, konfesioa eskatu bear du, eta deseatu bear du absoluzioa: eta bere barruan pekatuen kontriziozko dolore edo damutasuna artu, eta Jaungoikoari barkazioa benetan eskatu bear dio: eta gerta liteke orduan, Jaungoikoaren grazia iristeraño, aren kontrizioa iritxi ezpazan, baña egiaz damuturik badago, olio santuaren Sakramentuak ematea lenengo grazia edo pekatu mortal guzien barkazioa, eta olio santuarekin salbatzea, bestela kon-

denatuko zana: eta orra probetxu bat esan al, eta ponderatu al baño aundiagoa.

G. Eta zer geiago egiten du olio santuaren Sakramentuak? **E.** Gure dotriña laburrak erakusten diguna: eta aurretik esan deguna. 1. Pekatuen erreliki, ondar, arrasto edo kutsuak kentzea. 2. Deabruaren tentazioen kontra peleatzeko, gure animari esforzua edo indarra ematea. 3. Gorputzari osasuna ematea, animako salbaziorako konbeni danean.

G. Zer dira olio santuak kentzen edo gutxitzen dituan pekatuen erreliki edo ondar gaiztoak? **E.** Guzioi pekatutik datorkigun gaitzerako griña edo inklinazio gaiztoa: eta onerako degun argaltasuna, pisutasuna, nagitasuna, eta atzerapena, eta erioaren bildur geiegia. Orra gure animak zerk dauzkan desalaiturik, eta gaixoturik: bada olio santuaren Sakramentuak argitzen gaitu; esforzitzen gaitu; indartzen gaitu: eta gogoa, eta animoa ematen digu, pekatuari kontra egiteko, eta birtuteak exerzitzeko: eta batez ere Jaungoikoaren borondatearekin konformatzeko.

G. Eta nola esforzitzen, eta indartzen du olio santuak eri edo gaxo dagoanaren anima Deabruaren tentazioen kontra peleatzeko? **E.** Fedea, Esperanza, eta Karidatea bizitu eragiñaz. Infernuko Deabruak era

askotara beti tentatzen gaitu: bada iñoiz ere baño alegin geiago egiten ditu azkeneko eritasuna, eta illzeko zoria, eta ordua datorkigunean, gu betiko galtzeko: eta eri tristeari ekarten diozka burura batzuetan fedearen kontrako pensamentu, eta tentazio goaitkariak; beste batzuetan arrotasun edo presunpziozkoak edo banidadezkoak, bere obra onetan satisfazio geiegi artu eragiteko, eta egiazko humiltasuna galdu eragiteko: eta beste milla modutan galdu nai gaitu. Eta argatik iñoiz ere baño Zeruko laguntasunaren premia geiago degu orduan, etsai gaiztoaren tentazioai kontra egiteko eta nola gure Jesus onak ain maite gaituan, estutasun orreton bear ditugun laguntasunak, edo sokorruak ematen dizkigu, aekin gu ondo baliatu nai bagera.

G. Zer egin bear degu bada alako tentazioen kontra gogotik peleatzeko, gure bizitzako denporan, eta batez ere eriotzako peligroa datorkigunean? **E.** Fedearen kontrako pensamentu edo tentazioek etsaiak burura ekarten badizkigu, gero barruan gelditu eragiñaz bezela? Nola egia izan diteke onelako edo alako gauza, erakusten duen bezela? **E.** Eztegu disputatzen, eta arrazoiak ematen jarri bear etsaiarekin: nazkatuko ginduzke, eta zorabiatuko ginduzke fedeko gauza

bakoitzaren gañean, arrazoietan jarriko bagiña: arrazoi genero bat asko degu, etsaia lotsaturik bidaltzeko, eta gure fedean irmo egoteko. Eta, zein da arrazoi jeneral ori? Eranzun bear diogu; Jaungoikoak orrela Eliza Ama Santari erakutsi dio; guri erakusteko kargua eman dio; eta utsik iñoiz ere egin eztezan, bere argia, eta laguntasuna agindu dio: eta lenago Zerua, eta lurra faltatuko dira, Jaungoikoaren hitza baño: eta ala, ez tet geiago bear, Eliza Ama Santak erakusten duena osoro sinisteko: eta nik fede onetan bizi, eta ill nai det. Eta orra fedearen kontra pensamentu, eta tentazio goaitkarriak erraz benzitzeko bide segurua: baño nola gerez bakarrik gauza onik egin ezin dezakegun, Jesu-Kristori eskatu bear diogu gogotik, irmatu, eta azi dezala gudan bere fede santua.

G. Eta etsaiak ekarten dizkigun desesperazio, eta tentazio txarrak, nola goituko ditugu? **E.** Esperanza humil bat Jaungoikoaren ontasun, eta miseriakordia kabubageagan, eta bere Seme Jesu-Kristo gure Jaunaren neurri bageko, eta fin bageko merezimentuetan artuaz, eta edukiaz. Etsai gaiztoak alde onetatik gerra fortitza egin oi die Kristau mota biri, bildurtiegi izan oi diranai, eta erabageko esperanza banoan bizi izan diranai. Antxitikoai, beti izan duen bildur geiegi ura,

orain ere azitzen die: desanimatzen ditu: eta goait eragin; etsi eragin; eta desesperaziora erakarri nai izaten ditu: eta orrelako bildurriak alegin guzia egin bear due, gogora sarri ekarteko gure Jaungoikoaren kabubageko ontasuna, miserikordia, eta guziok salbatzeko daukan borondate egiazkoa: eta bere Seme propioa bera guri emanaz, gure Salbadore, Erredentore, eta Maisu izateko, erakutsi digun guganako amorio miragarria: eta gure ezereza, gure txarkeria, eta esker gaiztoa guziz andia izan arren, humiltatzen bagera; damaturik bagaude; eta hume bat ofenditu duen bere aita onagana, konfianza osoaz biurtzen danean, pozik errezibitzea duen bezela, gure Jaungoikoak bere grazian, eta adiskidetasunean artuko gaituela: eta gure pekatu guziak barkatuko dizkigula. Eta pensamentu santu oriekin alaiturik, Jaungoikoari esan bear diogu: Jauna, zu zera nere Aita ona: askotan, eta andizkiro ofenditu zaitut: aitortzen det nere kulpa andia, eta ez tet nerez merezi barkaziorik: baña zure piedadea, eta errukia neurribagea da: zeurk aseguratzen didazu, eztezula nai pekatariaren kondenazioa, baizik zureganana biurtu eragitea: eta ori bera zure Seme maite Jesu-Kristok esaten dit: eta berak nigatik gurutzean erregutu zizun, esanaz «Nere Aita, barkatu egiezu, bada

eztakie ondo, zer egiten duen». Misericordia bada arren ni pekatariak: zugar, Jauna, ipinten det konfianza guzia: eta nere pekatuen barkaziorako, eta satisfakziorako eskeintzen dizkitzut nere alegin, eta neke guziak; eta Jesu-Kristok berak Gurutzean nere orde eman zizun pagua, eta satisfakzioa: eta bitarteko ipinten dizut pekatarien, eta zure Ama Birjiña Santisima; bere esposo San Jose gloriosoa, nere Aingeru guardakoa, eta nere izeneko, eta debozioko Santuak, eta Zerutar guziak. Arren guziok gorde nazazue, eta anpara nazazue, etsai gaiztoaren eskuetan erori ez nadin; baizik zuen betiko zorioneko lagun izan ñadin.

Eta onela animatu bear da Kristau gaixo bildurtia: alik esperanzarik andiena artuaz, Jesu-Kristoren merezimentu infinitoakgatik, pekatuen barkazioa, Jaungoikoaren grazia, eta betiko gloria iritxiko degulako; baña esperanza orrek izan bear du humilla, eta ez Kristau arro, presumitu batzuek izan oi duen bezelakoa: bada batzuek geiago fiatzen dira eren obra onetan, Jaunaren erruki, eta misericordian baño, eta eztue pensatzen, egiten duen on guzia, Jaungoikoaren grazia, eta aren laguntasanari zor dioela: edo uste due, Jaungoikoak doarik, eta graziaz egiten dien faboreak, eren obra onakgatik dituela, edo aen saria

duela: eta orrela infernuko etsaiak, egiazko humiltasuna ezin ikusi duenak, bere antzeko arroak, eta soberbioak izatera erakarten ditu: eta tentazio gaizto orri atzera esateko, Jesu-Kristok Apostoluai esan ziena, beti gogoan eduki bear degu: au da, ni gabe ezin ezer txo ere egin dezakezue: *Sine me nihil potestis facere*. Eta orri dagokala, San Agustin andiak esan oi zuena, gere obra onak ere, eta merezimentu guziak ere Jaungoikoaren doaiak dirala; bada aren grazia merezi erazotzen digu. Eta zenbat ori obeto ezagutzen degun, anbat humillago izango gera: eta anbat esperanza seguruagoa, eta irmoagoa Jaungoikoaren ontasunean, eta Jesu-Kristoren merezimentuetan edukiko degu: eta etsaiaren tentazioak errazago benzutuko ditugu.

G. Eta nola tentatu oi ditu deabruak illzeko peligrora datozenean, arako Kristau nasai, erara edo gustora, pekatuak ardurabage egiñaz, munduan bizi izan diranak, esperanza gezurti, eta bano batean fiaturik, gure Jaungoikoa onegia dalako; aren miserikordiak kaburik eztuelako; Jesu-Kristo guziokgatik ill zalako, eta noiznai barkazioa eskatu ezkeru, salbatuko ditualako? **E.** Orrelakoai, Judasi bezela, azkenean esperanza ona, eta humilla kentzeko, alegin guziak egiten ditu etsaiak: gogora ekarten die, Jaungoikoaren miserikor-

dia dala, Jaungoikoa bera geiago amatzeko, ete penitencia egiazkoa egitera gu mugitzeko: eta eztala pekatu geiago egiteko aitzaki, pretestu, eta kapa orde bezela artu duanaenzat; ezpada, argalak bezela iñoiz utsegiteak egin arren, egiaz humillaturik, eta damuturik, konfianza on batekin Jaungoikoari barkazioa eskatzen dioenezat: eta lengo esperanza gaizto ura itzuli oi die orain egiazko desesperazio batera: eta, nola oiturik ezteuden esperanza ona edukitzera, gero ere eztue salbatzeko bear dan esperanza humillik artu oi: eta eskuarkiro alakoak kondenatu oi dira. Eta, ezta orienzat erremediorik? Bai; Jaunaren miseriordia infinitoari berari egin dioben injuria arrigarria ondo eza-gutzen badue: eta egiaz humillaturik, eta damuturik, eta esperanza onarekin alaiturik, barkazioa benetan eskatu, eta ondo konfesatu edo penitencia egiazkoa egiten badue: eta orra bertatik, eta gogotik guziok egin bear deguna, eriotzako orduan burlaturik arkitu ez gaitzen, eta deabruak berekin Infernura eraman ez gaitzan.

G. Eta deabruaren tentazio gaiztoak benzitzeko indarrak emanaz gañera, zer beste probetxurik dakar-kigu Extrema-unzioak? **E.** Ematen digu gorputzeko osasuna, animarako konbeni danean.

G. Eta zergatik esaten degu animarako konbeni danean? **E.** Zergatik, eztakigu, gure salbaziorako bizi-tzea edo illzea konbeni zakun: eta Sakramentuak prinzipalmentean animaren salbaziorako, Jesu-Kristo gure Jaunak ordenatu zituan. Eta ala, eztegu ansia geiegi eduki bear, gorputzeko osasuna, eta bizia konserbatzeagatik. Lenago edo geroago, nai ta ez ill bear degun ezkerro, animako betiko bizitza, eta betiko gloria aseguratzeke alegin guziak egin bear ditugu: eta orretarako, beti, eta batez ere gaxo gaudenean, fedea, esperanza, eta karidatea exerzitateke kontuan egon bear degu: birtute orien aktoak sarri egin bear ditugu: eta batez ere Akto Kontriziozkoak humiltasun, eta konfianza andi batekin berritu, ete gere nekeak, naigabeak, eta trabajuak pazienza andi batekin sufritu bear ditugu: eta Jesu-Kristok gugatik sufritu zituanakin batera, gure pekatuen pagu edo satisfakziorako ofrezitu bear diozkagu Jaungoikoaren justiziarri: eta azkenik, txit asko Zerurako irabazteko, eta erio-tza pakezko bat iristeko, gere biziaren, eta gere gauza guzien ofrenda osoa Jaungoikoaren Majestadeari egin bear diogu, azkeneko dotriña santuan erakutsi nizuen bezela, Jesu-Kristok bere Aita Eternoari Gurutze santuan egin zion ofrenda edo sakrifizioarekin batera jun-

taturik edo uniturik gure burua osoro Jaungoikoari ofrezituaz. 1. Gure Jabe Soberanoari bezela: 2. Gure ongille guztiz andiari bezela: 3. Gure pekatuen zorra pagatu, eta satisfazioa eman bear diogunari bezela: eta 4. on guzien, eta doai guzien emalleari bezela, ezagutzen, eta aitortzen degula, geran guzia, eta degun guzia Jaungoikoari bakarrik zor diogula: eta ala, bere borondatea gauza guzietan egin nai degula: egiñal guziak egin arren, ez gerala gai, egin dizkigun mesede guztiz andiai zor zaien eskerrak emateko, Jesu-Kristok eman ziozkanakin juntatuta baizik: orobat, gerez pekatuen barkaziorik eziñ iritxi genzakeala, Jesu-Kristok merezi izan ezpaligu; eta gure zorrak pagatu ezpalitu: eta azkenik, orien barkazio osoa, eta aurrera grazien irauteko, eta eriotz on bat iristeko, doai guzien andiena izango badegu, Jesu-Kristoren bitartez, Aita Eternoak eman bear digula; baña eztingula ukatuko, aren izenean eskatu ezkerro, eta gure buruak Jesu-Kristorekin batera berari ofrezitu edo eskeñi ezkerro.

Egin dezagun bada, N.K. gogotik, eta sarri ofrenda ori: eta bertatik pake andi bat, eta gero betiko zorioneko bizitza Zeruko glorian gozatuko degu. Amen.

EMEZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Sakramentuen gañean eta oraingo
Ordenako Sakramentuen gañean.*

Ordenako Sakramentu santuaren explikazioa Elizgizonenzat, egokiagoa da, puebloarenzat baño. Ala ere guziai konbeni zaie jakitea, zer dan Ordenako Sakramentua: eta zertako Jesu-Kristo gure Jaunak disponitu zuen: nolako disposizioarekin errezibitu bear dan: eta nolako honra, errespetoa, eta obediencia Elizgizonai, eta batez ere Sazerdoteai, eta Elizako Arzaiai, eta erakusleai zor zaien: eta orra gaurko dotriña gaia.

G. Ordenako Sakramentua zer da? **E.** Da Jesu-Kristok berak disponitu edo egin zuen Sakramentu bat, Elizgizonak ordenatzeko edo konsagratzeko; nola diran, Sazerdoteak, Diakonoak, Subdiakonoak, eta beste gañerakoak: eta oriei eren lanek ondo egiteko eskua edo potestadea, eta grazia emateko.

G. Ordenako Sakramentu asko dira? **E.** Ezta bat baizik: baña ditu gradu diferenteak: ara nola eskillara

batek malla asko ditu, eta batetik bestera igo bear da: baña eskillara bat baizik ezta.

G. Zenbat grada edo ordena mota arkitzen dira Ordenako Sakramentu santuan? **E.** Zazpi: eta goitik bera kontatzen ditugula, guzien goenekoa edo burua da Sazerdotearen edo Apaizarena: eta ordena onetan aditzen dira Obispoak ere; beste Sazerdoteak baño eskualdi andiagoak badituzte ere eta orregatik batzuek Obispoaren ordena aparte kontatzen due. 2. Da, Diakonoarena: edo bestela, Ebanjelioko ordenarena. 3. Da, Subdiakonoarena; edo Epistolaz ordenatzen danarena: eta iru ordena oei deitzen zaie ordena sagraduak, eta ordena aundiak: eta oen azpikoai deitzen zaie ordena txikiak: eta dirade Exorzista: edo demonioak konjuratzeko eskua duenak: Lektoreak; edo Eskritura Santako lekzioak Elizan irakurteko kargua duenak: Akolitoak edo mezatarako binajerak, eta argiak ipintzeko, eta erabiltzeko kargua duenak: eta Hostiarioak edo Elizako atea zaitzeko, eta fededunai edo Kristauai iregitzeko, eta fedebageai Elizako sarre-ra eragozteko kargua duenak.

G. Eta zergatik antxitiko edo goeneko ordenak deitzen dira andiak, eta sagraduak? eta beste laurak ordena txikiak? **E.** Lau oei deitzen zaie txikiak, zerren

urrutiagotik serbitzen due Mezako Sakrifizio santua ondo zelebratzeko bear diran gauzetarako: eta zergatik eztuo enbarazorik ezkontzeko: eta ez obligaziorik Ofizio Dibinoa errezatzeko Benefizio edo Kapellaniarik ezpadue: eta beste iru ordenak deitzen dira andiak, eta sagraduak, zergatik gertutik Mezako Sakrifizio santua zelebratzeko laguntzen due: bada Subdiakonoak Epistola kantatuaz gañera konsagraziorako serbitzen duen onzi edo baso sagraduak ukitu, eta preparatu ditzake: eta Diakonoak, orrezaz gañera Ebanjelio santua solemnidadearekin kantatu dezake: eta estutasunean Sazerdotearen faltan Komunio santua edo Jesu-Kristoren Korputz santua ere eman dezake: eta Sazerdoteak beste guzien lanak egiteko eskualdiaz gañera, ditu berak bakarrik beste podere edo eskualdi miragarri bi: bata da Jesu-Kristoren Korputz edo Odol preziosisimoa konsagratzeko; berak errezibitzeko, eta Kristauai administratzeko: eta bestea da pekatariak absolbitzeko, Obispo Jaunaren lizenzia lenago iristen duela, eta eriotzako orduan edozein Sazerdotek lenago lizenziarik ezpazuen ere, dauka fakultadea edo eskualdia, batez ere beste konfesorerik erara ezpadago, pekatu mota guzietatik, eta Exkomunioetatik absolbitzeko: baita Aita santuak berak; Obispo Jau-

nak, edo Inkisizioko tribunal santuak erreserbatuak edo erak bakarrik absolbitzeko gorderik dauzkanetatik ere. Bada eriotzako orduan erreserbaziorik eztago. Eta 2. deitzen dira iru ordena oriek sagraduak; zergatik betiko kastidatea gordetzera, eta egunoro Ofizio Dibinoa errezatzera obligatzen diran: eta ezin ezkondu ere ditezke.

G. Eta Elizako Ministro edo Eliz-gizonen artean, badira batzuek nagusiago diranak, eta kargu edo aginte andiagoak dituztenak besteak baño? **E.** Bai: Elizako gobernu gaia guziz miragarria da, Jaungoikoak berak ordenatua bezela. Eliza da gure Jaungoikoaren etxea, palazioa: eta Elizako Ministroak dira bere serbitzari eskojituak, ez bakarrik bera serbitzeko, honratzeko, eta mundu guzitari ezagutu erazotzeko; baita ere bere legea erakusteko, eta graziazko bere ondasun miragarriak beste Kristauai komunikatzeko: eta, nola Zeruko palazioan Aingeruak dauden partiturik iru Jerarki edo ordena ederki zuzenduetan, eta bederatzi Koruetan, eta batzuek dituzten eskualdi, eta perfekzio andiagoak besteak baño; ala lurreko Jaunaren palazio, etxe eta familian arkitzen dira iru Jerarki edo ordena ederki disponituak: eta orietan beste ministro edo serbitzari asko: eta iru ordena prinzipalak dira: 1. Obispo-

ak: 2. Apaiz edo Sazerdoteak: eta 3. beste ministroak; nola Diakonoak, eta beste gañerakoak: eta goitik bera kontatuaz, 1. Obispoak Aita santuarekin Eliza gobernatzen due: guzien burua edo beste guziaz agintzeko kargua edo eskualdia duena da Erromako Obispoa, Aita santua esaten dioguna, edo Sumo Potifizea, Jesu-Kristoren Bikario edo ordeko nagusia; Eliza guzia gobernatzeko Jesu-Kristok berak esleitua: zergatik Aita San Pedro eskojitu zuen Jesu-Kristok Apostolu guzien, eta Eliza guziaren buru izateko: eta Aita San Pedro Apostolua izan zan Erromako lenengo Obispoa, eta San Pedrok zituan eskualdi guziak dauzka orain ere Erromako Obispoak edo Sumo Pontifize Erromakok. Eta orren urrena dira munduko beste tokietan dauden Obispo Jaunak; bakoitzak bere Obispaduan edo señalaturik dauzkan bere mendeko Elizatan agintzeko, eta gobernatzeko eskualdiarekin: eta Konfirmazioa emateko, eta Elizarako bear diran Sazerdoteak, eta beste Eliz-gizonak ordenatzeko, eta konsagratzeko podere, eskubide, eta fakultadearekin: eta Obispo Jaunaren urrengoak dira Eliza edo Parrokia bakoitzeko Bikario, Erretore edo kura Jaunak: eta orien ondoren beste Sazerdoteak, naiz sekularrak, naiz erregularrak

edo errelijiosoak, eta konfesore, predikadore edo dotriña erakusleak, eta Elizako beste ministroak.

G. Noiz abiatzen da bat Eliz-gizon izaten, eta Obispo Jaunaren mendean jarten? **E.** Prima tonsura edo lenengo Koroia errezibitzen duenean. Eta prima tonsura ori ordena da? Eztala ordena erakutsi oi due: baizik ordenetarako prestaera edo disposizioa: ara nola, errelijioso izateko, lenago nobizio izan bear dan: eta errelijioan profesatu baño lenago prestatu bear du nobiziaduko ejerzizioakin.

G. Ordenako Sakramentua errezibitzeko, eta Elizako ministro izateko, zer disposizio bear da? **E.** Disposizio asko, eta andiak bear dira: baño prinzipalak edo bearrenak dirade oek. 1. Estadu orretarako bokazioa edo Jaungoikoak orretara deitzea: bada egiazko bokazioa bage Elizako lanak bere gañ artzen baditu, bere obligazioak eskuarkiro ondo kunplituko eztitu: eta bere burua ezeze, beste asko kondenatzeko peligro andian jarriko da. Eta orretan azertatzeko, ezin bere buruaz, eta iritziaz zer fiatu: baizik bere konfesore edo beste gizon jakintsu, argitu, eta zinzo bati, ezer ez ditxoan bati conseju eskatu bear dio, bere barruko disposizioak, asmoak, eta deseoa agertzen diozkala: eta Jaungoikoaren borondatea jakiteko, orazio humilla

egin bear du, bere argia, eta grazia Jaungoikoari gogotik eskatuaz: eta Maria Birjiña Santisima, bere Aingeru Guardakoa, eta bere izeneko edo debozioko Santuak Jaungoikoari bitarteko ipiñiaz, ainbeste inporta duen egiteko orretan ez utsegiteko.

2. Bokazio onaren señailea izan oi dan fiñ ona edo intenzio santuak eduki bear ditu Eliz-gizon egiteko. Eta, zein da orretako izan bear duen fiñ prinzipala? Jaungoikoaren honra, eta gloria billatzea: bere anima estadu orretan salbatzea: eta bere lagun projimoai salbazioa iristen laguntzea: orretako dira Elizako Ministroak: eta ala, errenta ona izateagatik; erara bizi-tzeko modua izateagatik, edo eren guraso, senide, edo aideai laguntzeagatik prinzipalente Abade, Apaiz edo Sazerdote egiten diranak, eztue egiazko bokaziorik: eta Elizako lanak egiteko baño, mundukoak egiteko egokiagoak dira. Eta gurasoak edo guraso-ordekoek txit gaizki egiten due; eta Jaungoikoa agitz ofenditzen due, bokaziorik eztuen eren humeak motibo oriekatik Elizgizon izatera nolabait premiazen baditue.

3. Izan bear du aurretik bizimodu arreglatua, eta ejemplo onekoa: eskandalorik eman bagea: eta bere obligazioai edo karguari dagozkion estudioetara apli-

katua: bada Elizgizon izateko ezta asko beretzat baka-
rrik ona izatea; baizik besteai ere erakutsi bear die
eren salbaziorako bear duena. Eta argatik pekatu
mortal egin oi due, Benefizio, eta Bikaritarako Eliza
ondo serbitzeko egoki eztiranak, talentu gutxi duelako
edo prudenziarik, eta birtuterik eztuelako, ala ere non-
bratzen dituenak. Eta ortik datozen kalte guziak eren
gaiñ izango ditue. Eta azkenik 4. egon bear du estadu
graziazkoan Ordenako Sakramentua errezibitzeko:
bada onek ematen dio graziaren aumentua, lenago
grazian dagoanari: eta baita estadu berriaren lanak
ondo kunplitzeko, berariazko laguntasuna: eta pekatu
mortalean dagoala ordenatzen bada, ori guzia galtzen
du, eta sakrilejio aundi bat egiten du.

G. Eta zer beste gauzarik ematen du Ordenako
Sakramentuak? **E.** Karaktera deitzen zaion señale edo
marka espiritual bat animan betiko ezarten edo inpru-
mitzen dana, iñoiz ere desegingo edo borratuko ezta-
na: eta bere karakter edo dignidadeari dagokan beze-
la bizi izan danarenzat guztiz honragarria, eta pozga-
rria izango da Zeruan: eta kontrara, bere karakter, eta
dignidadeaz azturik bizi izan diranenzat izango da
guztiz lotsagarria, deshonoragarria, eta damugarria
edo penagarria Infernuan.

G. Eliz-gizonak, eta batez ere Apaiz edo Sazerdoteak nolako obligazioak dituzte? **E.** Guztiz asko, eta andiak dituzte: baña dotriña oek eztira oriei erakusteko egiñak: badituzte berariazko liburuak nun ikasi. Eta Apaiz edo Sazerdoteen aldera, eta batez ere eren animako Arzaien aldera; zer obligazio dituzte munduko beste kristauak? Balekite ondo Sazerdotearen diñata-suna edo dignidatea nolakoa dan, eta Jaungoikoak eman dien potestadea edo eskualdia zein miragarria dan, zer erakutsirik ez legoke Sazerdoteak, eta animako Arzaiak bear bezela honratzeko: ez bakarrik santuak, jakinsuak, eta ongilleak, hitzez, eta obraz ondo orakusten duenak diranean; baita gizonari darraion argaltasunagatik edo pasio erabageen itxumenagatik bear bezin onak eztiranean edo gaiztoak diranean ere. Bada Jesu-Kristo gure Jaunak berak erakutsi zuen eka-
rri bear zaien errespetoa, eta honra; agindu zuenean Jaunaren legea explikatzeko kargua zuen eskriba, eta fariseoak erak ere honratzeko, eta oei obedezitzeko Jaunaren partez erakusten zien gauza guzietan: eta zerren eztiran erak onak, baizik arroak, soberbioak, eta hipokrita batzuek; esan zuen: Aen esanak egitzazue, baña aen obrai ez jarraitu. Eta argatik alakorik ikusiko bazendue ere, eztituzue Jaunaren Ministroak

despreziatu bear; baizik zor zaien errespetoa, ekarri bear diezue: eta karidaderik zuen biotzetan badago, aezaz murmuratu ordean, aen argaltasunaz errukitu bear zerate: eta Jaungoikoari benetan eskatu, argitu ditzala, eta bere Ministro eskojituai dagokien birtutea, eta santidadea eman degiela.

Ala egia, N.K. ezin ponderatu liteke graziazko legean Sazerdoteak duen diñatasuna, eta eskualdi miragarria, dala Jesu-Kristo gure Jaunaren gorputz edo odol preziosoa Aldarearen gañean sortu eragiten duenean konsagrazioko hitzak esanaz beste bage, erak, eta beste Kristauak Zeruko janari orrekin alimentatzeko: eta Jaungoikoaren Majestadeari esan ditekean sakrifiziorik andiena, baliosoena, eta atsegingarriena ofrendatzeko: dala pekataririk andienak absoluzioaren hitz indarsu, eta eragileakin pekatuaren, eta deabruaren katiberio edo mendetik libratuarekin: dala Bateo Santua Kristau egiteko: eta olio santua Kristauai ondo illtzen laguntzeko emanarekin: dala Jesu-Kristoren legea, eta Zeruko bide zuzena erakutsiarekin: hitz batean guzia esateko, Sazerdoteak dira mundu onetan Jesu-Kristoren beraren ordekoak: Jesu-Kristok berak gizonak argitzeko, eta santifikatzeko egin zituan lan prinzipalak, munduan egiten dituenak: eta

ala zor zaie honra, errespetoa, eta obediencia animako gauzetan: eta baita eren estadu, eta kargu andiari, eta eren nekeai dagokien sustentua, eta saria ere.

G. Eta zer probetxu atera bear degu guziok dotriña labur onetatik? **E.** Jaungoikoaren Ministroak, eta Jesu-Kristoren ordekoak geran Sazerdoteak alegin guziak egin bear ditugu Jesu-Kristoren antzekoak izateko: aren ejenploak beti gogoan erabilteko: eta aren pausoai jarraitzeko: geur egunoro santuago izateko: eta gure Jaungoikoaren honra, eta gloria, eta gure lagun projimo guzien salbazioa gogotik billatzeko. Eta zuek, N.K. Jaungoikoari alde batetik eskerrak eman egiozkazue, Ordenako Sakramentuarekin eman dizue-lako zuen salbaziorako bear dituzuen Ministroak, Sazerdoteak, eta erakusleak: eta bestetik erregutu bear diozue benetan, arren bere Elizari eman degiola beti Ministro onak, eta santuak: Jaunaren legean txit argituak: eta eren lanak ondo egiteko txit egokiak: (eta erregu edo orazio ori egin bear dezue Ordenako Sakramentua Obispo Jaunak ematen duen lau denpo-retan:) eta Jaunaren Ministroak honratu itzatzue: eta erakusten dizuen Jesu-Kristoren legeari jarraio egiozue: eta orrela guziok bata bestearokin leia santu batekin gure Jaungoikoaren borondatea egiten degu-

la, betiko zoriona edo eternidade guziko gloria Zeruko
Erreinuan gozatuko degu. Amen.

EMERETZIGARREN DOTRIÑA

Sakramentuen gañean eta

1. Matrimonioko Sakramentuaren gañean.

Gure Jaungoikoak mundu onetan estadu, eta bizi-modu mota asko disponitu ditu: eta guzietan Kristaua salbatu diteke; artzen duen estaduari dagozkion obligazioak kunplitzen baditu. Egia da berez birjinidadea edo animako, eta gorputzeko garbitasuna gordetzen duenaren estadia dala ohea, Jaungoikoa serbitzeko; perfekzioan aurreratzeko, eta santidade andi batera iristeko: baña eztitu guziak artara deitzen gure Jaungoikoak: eta ezkonduen artean izan oi dira, eta badira santu asko: eta aurrera ere izango dira, ondo preslaturik ezkontzen badira, eta ezkonduen obligazioak kunplitzen baditue.

Ezkonza santu batetik datozen probetxu guztiz andiak, eta ezkonza erabageko batetik datozen kalte arrigarriak, edozeñek dakizki: bada guziz dira nabarmenak edo publikoak: eta ala ere, asko dira munduan, ezkonzako estadia ezaguera bage, eta prestaera on bage errezibitzen duenak; eta estadu orretan gaizki

bizi diranak: eta eren buruak ezeze, eren ondorengoak ere infernura daramazkienak. Orrelakorik gerta eztaizuen, aditu, eta ikasi bear dezue gaur ondo ezkongaiak, eta ezkonduak, nola prestatu, ezkonza on bat iristeko: eta estadu orretan nola bizi, zuen salbazioa, eta ondorengoena albaitez aseguratzeko.

G. Zertako da Matrimonio santua edo ezkonzako Sakramentua? **E.** Ezkonzeko, eta ezkondueri grazia emateko, alkarrekin pakean, eta amorioan bizitzeko, eta izaten dituen aurrak Zerurako azitzeko: ona hitz gutxitan dotriña aundia; baña ondo aditzeko, eta eza-gutzeko zeago explikatu bear dana.

G. Matrimonioa edo ezkonza zenbatera edo modutara konsideratu, eta izan diteke? **E.** Modu bitara: 1. senar-emazteen arteko kontratu edo konbenio natural bat dan aldetik, alkarrekin ill artean, bizitzera obligatzen dituana. Eta 2. Sakramentua dan aldetik. Kontratu dan aldetik fedebageen artean ere arkitzen da: baña Sakramentua dan aldetik bakarrik Kristauen artean arkitzen da: bada bateatu bageak beste Sakramenturik errezibitzeko gai ez dira.

G. Kontratu naturala dan aldetik noizkoa da ezkonza edo Katrimonioa? **E.** Mundua asi zanetik: antxitiko

senar-emazteak izan ziran guzior lenengo gurasoak Adan, eta Eba.

G. Nork disponitu edo ordenatu zuen aen Ezkonza?

E. Jaungoikoak berak: eta gero bear zuen ezkonzako Legea eta kondizioak Jaungoikoak Moisesi aditzera eman, eta eskribitu eragin ziozkan.

G. Eta nork gero ezkonza edo Matrimoniao jaso zuen Sakramentu izateraño? **E.** Jesu-Kristo gure Jau-nak graziazko bere Lege berrian; bere presenziarekin Kanango errian egin ziran eztei batzuek honratu nai zituan, eta ezkondu berrien premia erremediatzeko bere Ama Santisimaren erreguz, orduan egin zuen lenbiziko milagro ageria: eginduaz beste bage, sei onzi andi urez bete eragin, eta ardora itzuli zituan: eta bere poderio neurribagea agertzen abiatu zan: eta gero bere legean explikatu zuen, aurrera Matrimoniao biren artean bakarrik izan bear zuela, antxititik izan zan bezela: eta eragotzi zuen, senar batek emazte bat baño geiago edukitzea; Juduak arteraño eduki zituen bezela.

Eta altxatu edo jaso zuen ezkonzako edo Matrimonioko kontratu naturala Kristauen artean Sakramentu izatera, bear dan prestaera edo disposizioarekin ezkonzen ziranai grazia emateko; ezkonzako kargak,

eta obligazioak ondo kunplitzeko. Eta ala, Kristauen ezkonza da egiazko Sakramentua: 1. zergatik grazia ematen dien: eta 2. zergatik San Paulo Apostoluak erakusten duen bezela, senar-emazteen arteko unioak errepresentatzen edo aditzera ematen duen Jesu-Kristoren, eta bere Elizaren arteko unio edo junta miragarria: bada Jesu-Kristo gizon egin zanean, unitu zan betiko gure naturalezarekin, eta ainbesteraño maite izan ditu bere Eliza, eta Elizako mienbroak edo Elizaren zati edo parte geranok; nun bere biziaren kostuan erosi, eta deabruaren, eta pekatuaren kautiberiotik atera, bere grazia, eta doai miragarriak eman, eta iñoz ere bere Eliza desanparatu eztu, eta munduak dirauen artean, desanparatuko eztu. Eta Elizak bere aldetik Jesu-Kristori gordetzen dio zor dion errespetoa, obediencia, eta amorioa. Eta orra senar-emazte onak egiten duena, eta guziak egin bear duena: senarrak emazteari beti lagundu bear dio bere premia guzietan, Jesu-Kristok bere Elizari bezela: eta emazteak honratu, errespetatu, obedezitu, eta amatu bear du bere senarra, Elizak Jesu-Kristo bezela.

G. 2 Eta iñoiz desegin liteke Kristauen arteko ezkonza? **E.** Ezin desegin liteke, bata edo bestea ill artean: eta ezin alkargandik apartatu ere litezke moti-

bo edo arrazoi justurik edo zuzenik artako ezpadue: eta apartatu arren, orduan ere ezkonzak badirau: eta aetatik edozein, ixillik, beste batekin ezkonduko baliz, lengo senarra edo emaztea bizi dala, ez luke ezkonza orrek balioko, eta lengo lagunegana biurtu bearke luke: eta alarguntzen bada ere, ezin gaizki ezkondu zanarekin berarekin ezkondu diteke: bada Eliza Ama Santak eragotzirik dauka gaiztakeri orren kastiguan.

G. Zer adiñetan ezkondu diteke? **E.** Senargaiak bear ditu gutxianez amalau urte osatuak: eta emaztegaiak amabi urte osatuak.

G. Eta Ezkonza on bat egiteko, Jaungoikoaren bokaziorik edo artara deitua izaterik bear ote due? **E.** Nola ere bear duen. Bada Jaungoikoari dagoka, bakoitzari ondo bizitzeko, eta salbazioa seguratzeko, ondo dagokion estadia, eta bizimodua esleitu edo autu eragitea: eta estadu orretako kargak kunplitzeko bear dituan laguntasunak edo sokorruak ematea: eta nola ezkonzako estadia peligro edo arrisku andiak, eta karga pisuak dituan; ezkondu baño lenago, artarako, 1. Jaungoikoak deitzen dion edo ez, jakiteko, alegiñak egin bear ditu; argia Jaungoikoari berari eskatuaz; obra onak, ori iristeko, egiñaz, eta Kondesoreari Konseju eskatuaz, eta bere guraso edo kargudunakin

pasioak itxutu bage, komunikatuaz: bada bestela Jaungoikoari eta animako salbazioari begiratu bage, lurreko, eta aragizko motiboakgatik bakarrik ezkonzen bada, eskuarkiro naibage andiak munduan ikusi bear-ko ditu: eta bere animako salbazioa arrisku andian ipi-niko du. Eta 2. ezkonzea autatzen badu, alegin guziak egin bear ditu, estadu orretan pakezko bizimodu bat egiten, eta animako salbazioa iristen lagunduko dion senar edo emazte on bat aututzeko; geiago begira-tzen diola bere betiko lagun izan bear duenaren birtu-teari, juizioari, zinzotasunari, eta jenio edo natural onari; edertasunari, ondasunari, eta munduko estima-zioari baño: bada birtuteak, juizioak, zinzotasunak, eta jenio onak beti dirabe eskuarkiro: baño gorputzeko, eta munduko ondasunak, eta edertasunak, ganbiako-rrak, mudakorrek, aldakorrek dira: eta galtzen eztira-nean ere, arazeri andiak dakazte: eta askotan pakera-ko baño, arrotasunerako geiago serbitzen due.

G. 1 Zer asmo, motibo edo intenzio eduki bear ditue, ezkondu nai duenak? **E.** Iru dira prinzipalak, Trentoko Katezismo edo dotriñak erakusten dituenak. 1. Da, alkarri laguntzea, eta batak bestearen nekeak, naigabeak, eta trabajuak arintzea: eta batez ere, eren eritasunetan, eta zarzaroan alkar konsolatzea. 2. Da,

humeak izateko deseoa; ez bakarrik eren ondasunak aei uzteko; bai batez ere, eren antzeko Kristau on batzuek; Jaungoikoaren serbitzariak, eta Zeruko Erreinuaren herederoak ondoren uzteko. Eta 3. da, pekatu jatorrizko edo orijinaletik etorri zakun aragiaren griña, apetitu edo inklinazio erabageari erremedio egoki bat Matrimonio santuan ematea. Iru motibo edo asmo oriek edo gutxianez, orietatik bat eduki bear ditue ezkondu nai duenak.

6. Eta oriez gañera ezin billatu ditzake ezkonzaren bitartez edo personaren edertasuna, ondasuna, honra, estimazioa, edo enpleo edo kargu probetxugarriak? **E.** Oriek modu onean, eta fin onarekin billatzera eragotzirik eztago: baña eztue izan bear ezkonzeko motibo prinzipalak, baizik ondorengoak: eta bat ezkonduko baliz, bakarrik aragizko amorio itxua beste personari diolako, libertade guziarekin erabageko, eta abareen antzeko apetitu loi, eta gurari, eta atsegin zikiñak gustatzeagatik; gertatu leikio, Rakelen alaba Sarak izan zituan zazpi senarrai gertatu zitzaiena: bada zazpirak bata besteen ondoren deabruak ill zituan, ezkondu ziran gabeen bertan: zerren animailien gisa, beste fiñik etzeramen, eren aragiaren gusto zikiña abereen antzera kunplitzea baizik. Ala esan

zion San Gabriel Aingeruak Tobias Santuari, Sara ura bera bere emaztetzat artu bear zuela, aditzera eman zionean. Eta erakutsi zion, nolako motiboekin eta prestaerarekin ezkondu bear zuen, alako naibagerik gertatu etzekion: eta Jaungoikoaren bendizioa iritxi zezan. Eta Matrimonioak edo ezkonzak kontratu bat bakarrik zanean, alako errespetoa merezi bazuan; nolako errespetoa zor etzaio, Sakramentu Santu bat izateraño, Jesu-Kristok altxatu zuen ezkerro? Eta ondo prestaturik ezkonzen diranai, grazia emateko birtutea daukan ezkerro?

G. Zer prestaera edo disposizioekin errezibitu bear da Matrimonio santua? **E.** 1. Eztue izan bear, ezkonza eragozten duen eragozgarri, inpedimentu edo enbarazorik: eta dudarik edo kezkarik batere badue, konfesoreari edo beste persona jakinsu bati konseju eskatu bear diobe. 2. Egon bear due graziazko estaduan: bada bestela, pekatu mortalean daudela ezkonduko balira, sakrilejiozko pekatu andi bat egingo luke: eta Jaunaren graziaren, eta bendizioaren lekuan, bere maldizioa izango luke: eta alako asiera txarrari bizimodu txarra, eta bukaera txarragoa eskuarkiro darraio. 3. Bere lagunzat artzen duenari eztio egin bear kalterik ekarri leikion engañurik: baizik garbiro

esan bear dio, jakitea konbeni zaion guzia, ezkondu baño lenago: Sararen Aita Rakelek Tobiasi esan zion bezela: au da, nola aren alabarekin ezkondu ziran aurreko zazpi senarrak errenka zorigaiztoan ill ziran, ezkondu ziran antxitiko gabeen. Eta 4. ezkongaiak eduki bear ditue ondo ikasirik Kristauaren dotriña santua, eta ezkonduen obligazioak.

G. Eta ezkonzaren aurretik ondo prestatzeko zer egin bear da? **E.** 1. Jaungoikoari bere laguntasuna, eta bendizioa gogotik, eta sarri eskatu. 2. Al diran obra on guziak orretako egin. 3. Bizimodu on bat egiteko deseo andi batekin, lenagoko utsegiteak konfesio on batekin erremediatu: eta lenago iñoiz konfesio jeneralik edo bizitza guzikorik egin eztuenari estadu berria artu baño lenago agitz konbeni zaio, konfesio jeneral on bat egitea: baña al badu, Elizako deiak edo pregoiak egiten asi baño lenago; edo beinzat, ezkonzako egunerako utzi bage: bada orduan arazeri geiegi izan oi due, bear dan azti, eta konsiderazioarekin konfesatzeko.

G. Eta alkarrekin ezkonzeko trataturik edo hitzik emanik daukenak, nola bizi bear due ezkondu arteko denporan? **E.** 1. Eztue etxe, eta tellatupe batean biak iñola ere bizi bear: 2. eztue alkarrekin bakarrik komu-

nikazio librerik edo peligrizkorik izan bear: eta ala, eztue testigu bage alkarrekin tratatu bear: eta gurasoak edo guraso-ordekoak txit esna, eta ernai egon bear due: bada bestela infernuko deabruak, eta alkarrekiko kariño edo amorio geiegiak erraz itxutzen ditu, eta pekatu mortal asko egiten due: eta obrazko pekatu lotsagarriren batzuek ez egin arren, ukitze loiak, musu emateak, laztanak, eta aragizko gusto zikiñak erraz artzen ditue, eta pekatu mortalak egiten dituzte: bada alkarrenzat geroko agindurik egon arren, eztue alkarrekiko jabetasunik ezkondu artean: ez eta libertade edo lizenziarik, orrelako gauza zikiñik egiteko. Eta argatik 3. orduan iñoiz ere baño orazio geiago, eta obra on geiago egin bear ditue, tentazio gaiztoak goitzeko, eta Jaungoikoaren bendizioa iristeko.

G. Ezkonzako Sakramentua errezibitzen duen denporan, eta Elizako bendizioak artzen dituenean, zer egin bear due? **E.** Ezkontzen diranak erak Jaungoikoari gogotik, eta biotzetik eskatu bear diobe, estadu orretan eren animak salbatzeko, eta aren Majestadea ondo serbitzeko berariazko grazia, eta laguntasuna: eta ori bera presente dauden lagunak ezkon-berrienzat Jaungoikoari eskatu bear dioe.

G. Nun, eta norgandik errezibitu bear daezkonza-ko Sakramentua? **E.** Naiz senargaiaren, eta naiz emaztegaiaren Parrokian; ango Erretore edo Bikario Jauna-gandik, edo aren lizenziarekin beste Sazerdote edo Apaiz bategandik.

G. Eta nola igaro bear da ezteietako eguna? **E.** Ori da egun santu bat, Kristau onak, eta zinzoak gastu alper erabagekoak egiten, eta erakerizko banidade-tan, danza zikiñetan, ordikerietan enpleatu ordean, obra onak egitean; pobreak sokorritzean, eta geroko zorrik egin bage, eren aide, eta adiskideakin zinzoro atsegin artzen modu onean enpleatu bear duena, Jaungoikoaren ofensa bage, eta eren animen kalte bage. Baña nola usadio txarrak, puntuak, eta banida-deak indar andia duen Kristau asko itxutzeko, eta era-keria andiak eragiteko; munduaren esamesaz kasorik egin bage, artu bear dituzue neurri onak, alako moduan, zuen gastuak zuzentzeko, eta moldatzeko; nun gero damutu eztakizuen zorrak egiñaz, eta zuen obligazioai ezin eranzunaz; eta egun bateko zorake-riakgatik urte guztiko edo askotako damugaia zeuron buruai ekarriaz.

G. Eta zein dira ezkonduen alkarrekiko obligazio-ak? **E.** Asko, eta andiak dira: baña prinzipalenak dira

iru oek: 1. alkar amatzea, eta estimatzea: 2. alkarreki-ko fidelidadea edo leialtasuna: eta 3. alkar sufritzea, edo pazienza aundi bat edukitzea, pakean bizitzeko.

G. Nolakoak izan bear du ezkonduen arteko amorioak? **E.** Alkar amatu bear due; ez amorio aragizko batekin, baizik Jaungoikoagatik: au da, 1. amorio santu batekin alkar leiatuaz, amatuaz, eta ekarriaz eren ejemplo onarekin, eta birtutearekin Jaungoikoa obeto serbitzera, eta eren animako salbazioa iristera: batez ere, sarri konfesatu, eta komulgatuaz, eta bizi-modu ondo arreglatu edo moldatu bat egiñaz. 2. Alkar amatu bear due amorio garbi batekin; ezkonduen oiari, dagokan kastidadeari, eta honestidadeari kalterik batere egin edo eragin bage, edo Matrimonio Santuari dagokion modestiarekin eta garbitasunarekin alkar tratatuaz: eta 3. amorio irmo, firme, eta iraupe-neko batekin; au da, bizitzako denpora guzian, eta aldarte guzietan alkar estimatuaz, eta alkarri lagun-duaz eriotzako orduraño.

G. Eta alkarri zor dioen fieltasun edo leialtasunak zertara obligatzen ditu? **E.** Ez bakarrik leialak izatera eren ondasunak ondo enpleatzean, eta bata besteari kalterik ez egitean; alde batetik, erabageko jokuzaleak, tabernazabeak, eta alpertasunari eman, eta

merkatutik merkatu, egiazko premia bage dabiltzan tratozaleak egin oi duen bezela familia guziaren ondamenarekin: eta bestetik, ez gutxiago emakume apaindurari, eta banidadeari gusto artu, eta etxeak ondartzen dituztenak bezela.

G. Nola orrelakoak alkarri kalte aundiak egin bage bizi ditezke, eta ezkondu onak, eta leialak izan ditezke? **E.** Baña ezta ori bakarrik alkarrekiko leialtasunak eskatzen duena: obligatzen ditu batez ere Matrimonioko zor justua alkarri ondo pagatzera, eta arrazoi andi bage ez ukatzera, batak besteari pekaturako biderik eman bage: eta Matrimonioko santidadearen kontra izan ditekean gauzarik batere ez eren artean, eta ez beste iñorekin iñoiz ere egin bage: jakiñik, ez bakarrik besterekiko obrazko pekatu lotsagarriakin; baita ere bestelako jostatze zikin, eta hitz loiakin, eta deseio edo pensamentu konsentituakin edo erabakia-kin alkarrekiko leialtasunari aundizkiro faltatzen dioela, eta alde bitatik pekatu mortal egiten duela: bata kastidade santuaren kontra, eta bestea Matrimonioko lege edo fedearen kontra: eta oni deitzen zaio adulterioa, pekatu guztiz nazkagarria, lege zarrean probatu ezkerro, arrika illzeko kastigua zuena: eta lege berrian (askotan ikusten ezpada ere) eskuarkiro animako itxu-

menarekin eta betiko kondenaioarekin gure Jaungoikoak kastigatzen duena. Ez egin, ze aitatu ere bear ez lizateke Kristauen artean orrelako gaiztakeri itxusi, eta deshonoragarririk.

G. Eta alkarrekiko amorio, eta leialtesunaz gañera, zer beste gauzarik ezkonduak alkarri zor dioe? **E.** Alkar sufritzea; alkarrekiko pazienza aundi bat edukitzea; birtute au Kristau guziok, eta persona mota guziakin exerzitate bear degu: bada batez ere ezkonduak birtute orren premia guztiz andia due, zerren beti alkarrekin tratatu bear due, eta bata bestearen utsegiteak gertutik, eta txit sarri ikusten ditue: eta deabruak era askotara tentatzen ditu, pakea galdu eragiteko: eta pazientiaz armaturik ezpadaude, ezin pakerik izango due: beti gerra bizian arkituko dira, eta mundu onetan infernukoan anzeko bizimodu triste bat izango due, eta gero iñoiz ere bukatuko eztan Infernua sufritu beariko due. Argatik bada ezkonduak Jaungoikoari txit sarri, eta gogotik erregutu bear dioe, alkar biotzetik amatzeko, eta estimatzeko grazia; eta orri darraion alkarren errukia, eta alkarren arteko pazienza, eta pakea. Eta batez ere senarrak bere emaztea estimatu bear du, eta utsegiterik egiten badu, modu onarekin aserre bage ondo dagokiona erakutsi edo aditzera

eman bear dio: eta emazteak bere senarra beti errespetatu bear du, eta gauza on guzietan obedezitu bear dio, eta gizona zenzu gutxikoa izan arren, eztu iñoiz ere despreziatu bear. Eta erabageko jokularia, ordia, gastatzallea, eta artoa, eta aserrekorra bada, ezti ezer esan bear? Ez koleran dagoanean, eta ezta aserrea erazotzeko modu gaiztoan ere: Nola bada? Santa Monikak, San Agustinen Amak, Patrizio bere senararekin egin oi zuen bezela. Senarra aserre zegoanean, orduan ixiltxorik egon; ez gaizkirik esan; eta gero Jaungoikoari bere grazia eskatu, bere senarra erremediatzeko eta bere konseju, eta exenplo onarekin ura zenzatzeko, eta ondutzeko alegiñak egin zituen. Eta orrela bere senar kolerikoa, aserrekorra, eta erabagea Jaungoikoarenzat irabazi zuen: eta emakume ezkonduai, zer egin bear zuen, erakutsi zien.

Baditue ezkonduak beste obligazio asko: batez ere guraso izatera datozenean: nola diran: 1. eren seme-alabak mantentzea: 2. eren buruak aurrera mantentzeko, ondo dagokien ofizio edo langaia erakustea edo ikasi eragitea: 3. Jaungoikoaren bildur santuan aitzitza: eta orretako 4. dotriña santua ondo erakustea, eta exenplo ona ematea: eta 5. modu onean aen utsegiteak korrejitzea: maña gaiztoak kentzea: eta peka-

tuko arrisku, eta lagun gaiztoetatik aparta eragitea, eta estadu egokia artzen laguntzea: baña obligazio oriek laugarren Mandamentu Santuaren explikazioan zeoro esanik daude.

Aditu dituzue bada ezkongaiak, eta ezkonduak, ezkonza on batetako nola prestatu bear zeraten: eta ezkonzako estaduan nola bizi bear dezuen: estadu orretan bizi izan diran Santuen exenploak gogora ekarri bear dituzue, eta aei jarraio: eta batez ere zuen bizimodua, eta zuen langaiak izan zituen San Isidro, eta bere emazte Santa Mariaren, eta beste ezkondu Santu askoren alkarrekiko amorio santua, eta leialtasuna; eta eren naigabeetan izan zuen pazienza aundia, gogoan erabilli itzatzue: eta ezkondu guzien ispillu miragarriak izan ziran Maria Birjiña Santisima eta Aita San Jose bere esposoa; San Joakin eta Santa Ana, eta San Zakarias, eta Santa Isabel San Juan Baupartista-ren guraso Santuak bitarteko ar itzatzue, Jaungoikoa-gandik iristeko zuen salbaziorako egokiena dan ezkonza santu bat, eta orri darraion betiko pakea, eta saria Zeruko glorian. Amen.

OGEIGARREN DOTRIÑA

Sakramentuen gañean eta

2. Matrimonioko Sakramentuaren gañean.

Ezkonza on baterako nola prestatu; eta ezkonzako estaduan nola ondo bizi, erakutsi nizuen aurreko dotriña batean: eta nola ezkonza asko gaizki egiten diran Eliza Ama Santaren, eta Erregearen legeak, ezkonzari dagozkionak, ondo jakin bagez: eta Trentoko Katezismoak Aita San Pio bostgarrenak atera eragin zuenak, agintzen duen Matrimonio santuaren inpedimentuak edo eragotzgarriak puebloari aditzera ematea; gaur laburtxo, baña argiro guziok jakitea konbeni dana, aditzera emango dizuet: eta uste det atenzio edo arreta andi batekin adituko dezuela.

G. Ezkonzako edo Matrimonioko Sakramentua errezibitzera eragozten duen inpedimentuak zein dira? **E.** Era bitakoak dira: batzuek ondo ezkontzea eragozten duenak, baña ezkonza desegiten ez-tuenak, Sakramentua gaizki edo pekatuko estadu gaiztoan errezibitu arren, egiaz ezkondurik gelditzea, eragozten ez-tuenak: beste inpedimentu batzuek dira, ondo

ezkontzea eragotzi ezeze, ezkontzea desegiten duenak, alako moduan, ze oetako batekin ezkonzen dana, egiaz ezkondu bage gelditzen da.

G. Zein dira ondo ezkontzea eragozten duen inpedimentuak baña ezkontzea desegiten eztuenak? **E.** Dirade lau oek: kastidatea gordetzeko beto edo promesa, Jaungoikoari egiñik edukitzea: eta orobat ordena sagraduak, nola Epistolaz, Ebanjelioz edo Mezaz ordenatua izateko bere edo promesa egiñik edukitzea: orrelakoak dispensa lenago iritxi bage ezkontzen badira, ezkonduak gelditzen dira; baña pekatu mortala egiten due. Eta ezkonzaz usatzeko dispensa bearra due. 2. Dira Errelijioso edo Errelijiosa izateko beto edo promesa egiñik edukitzea: oriek ere dispensa iritxi bage ezkontzen badira, ezkonduak gelditzen dira; baña pekatu mortal egiten due: eta ezkonza osatu bage dauden bitartean, beto edo promesa kunplitzeko obligazioan daude. 3. Dira, beste bati ezkonzako hitza emanik, eta arturik edo alkarri agindurik daudela, ari larga, motibo, justu bage edo hitzak desegin, eta libertatea iritxi bage, beste batekin ezkontzen bada, ezkonduak gelditzen da: baña pekatu mortala egiten du: eta kalterik erakarri badio lenago hitzak eman zionari, errestituzioa egin bear die. 4. Inpedimentua ondo

ezkontzeko, baña ezkonza desegiten eztuena da, Elizak eragozten duenean, ezkontzea: nola dan edo lenago bear diran deiak edo pregoiak egin bage edo dispensa Obispo Jaunagandik atera bage, ezkontzea; edo Eliza Ama Santak eragotzirik dauzkan denporetan ezkontzea, Elizak berak disponiturik dauzkan bendizioakin, zeremoniak, eta ezkonduen Mezarekin. Eta diot, ezkonza eragozten duen inpedimentua dakitenak duela obligazio pisua edo larria pekatu mortalaren azpian, inpedimentua agertzeko edo deklaratzeko, ezkondu bear dituan Bikario Jaunari edo edozein erritan deiak egiten dituanari.

G. Ezkondu nai duen mutillak, eta neskatxak badue obligaziorik hitzak alkarri eman baño lenago, eta ezkondu baino lenago, gurasoai edo guraso-ordekoai kontu emateko, eta lizenzia eskatzeko, eta iristeko? **E.** Ori Jaungoikoaren legeko laugarren Mandamentu santuaren esplikazioan esanik dago: eta orain gauza orren gañean dagoan legea esango dizuet: gurasoai, familiako buruai bezela dagokie, eren humeak ondo akomodatzeko, alegin guziak egitea: baña guraso asko izan oi dira gai orretan ardurabageak: eta beste asko eren interesari geiago begiratzten dioenak, eren seme-alaben akomodu, eta onari

baño: eta orobat gazte asko dira erenez burukoiaik, eren pasioari, eta iritzi itxuari baizik jarraio nai ezti-
nak: eta gurasoen arrazoi justuari kasorik egin bage, ezkondu nai duenak: eta nola eztan erraz, alde bate-
tik, eta bestetik datozen kalteak, eta naigabeak, era-
bat erremediatzea; guziari ondo begiraturik, eta kon-
sejero, eta gizon jakintsu askoren iritziak aditurik,
gure Errege Jaun Karlos laugarrenak apirillaren amar-
garren egunean, milla zortzireun, eta irugarren
urtean, eman du lege berri bat: eta agintzen du bere
Erreinu, eta mendeko erri guzietan gorde dedilla: eta
zerren lege ori jakitea guzioi konbeni zatzuen, legea-
ren beraren hitzakin esango dizuet.

Agintzen det, dio Erregearen Majestadeak, Aitaren
lizenzia bage edo eren baimena bage, ezin ezkondu
ditezkeala ogeita bost urte ez dauzkaten familiako
semeak; eta ogeta ta iru urte eztituen alabak; edozein
klase edo kondiziokoak izan ditezela: eta Aitak, aek
nai duen ezkonza onzat ezpadarama, eta ezkonzeko
lizenzia eman nai ezpadie, ezin obligaziorik izango
arrazoia emateko edo lizenzia ukatzeko dituan moti-
boak esplikatzeke: baña ogeita bost urte osatuak
dauzkaten semeak, eta ogeita iru osatuak dauzkaten
alabak, ezkondu ditezke nai duen bezela: eta ez tue

Aitaren konseju eta lizenzia bearrik izango. Aitarik ezpadue, aren eskualdiak izango ditu Amak: baña orduan nai duen bezela ezkonzeko libertadea izango due urtebete gutxiagorekin au da semeak ogeita lau urte, eta alabak ogeita bi urte osatu ezkerro: Aitarik, eta Amarik ezpadue, aen eskualdia izango due Aita aldeko Aitonak: eta au bizi ezpada, Ama aldeko Aitonak: baña orduan Aita duenak baña urte bi gutxiagorekin eren erara ezkonzeko libertadea izango due: au da, semeak ogeita iru urte, eta alabak ogeita bat urte osatuak dituenen. Aitarik, eta Amarik, eta Aitonarik ezpadue, oen guzien eskualdia izango due tutoreak, edo aita-ordekoak, ezkonzeko lizenzia emateko edo ukatzeko: eta tutore edo aita-ordekorik ezpadue, eren erriko Juezak; au da, Alkate Jaunak, guziak arrazoi edo motiboak explikatzeo obligazio bage: baña orduan ere eren aukeraz edo borondatez ezkonzeko libertadea izango due, gizakumeak ogeita ta bi urte, eta neskatxak edo emakumeak ogei urte betetzen dituanen. Lege au guzientzat aditzen da: eta orrez gañera, Aitarren edo aren ordekoen lizenziez ostean, Erregearen edo eren Agintarien lizenzia oraindaño bear izan duen guziak, naiz urte geiago, naiz gutxiago izan ditzatela, bear due aurrera ere eskatu (oraindaño bezela) Erre-

gearren beraren edo eren agintarien lizenzia ezkonzeko: eta eren gurasoak edo guraso-ordekoak lizenzia eman nai ezpalie, eta agrabio egiten dielako ustean badaude, Erregearren Majestadeari berari edo eren agintariai ezkonzeko lizenzia eskatzeko deretxoa gelditzen zaie: eta ondo informaturik edo emango die, edo ukatuko die: eta orobat gurasoen edo guraso-ordekoen lizenzia baizik bear eztuen beste guziak: baña ori ezin iritxi izan duenak, akuditu dezake ezkonzeko lizenziaren eske Tribunal nagusietako Presidente edo Errejenteagana. (Alde oetan Valladoliko Kanzillariako Presidenteagana) Era ark ondo informaturik, eman deikie edo ukatu leike bear duen lizenzia: eta ematen badie, ezkondu ditezke gurasoen edo guraso-ordekoen lizenzia bage. Eta esan ditugun kondizioak gorde bage, ezkonzaren bat autorizatzen badue Eliz-Bikarioak, eta orrela ezkonzen diranak erak, kastigatuak izango dira, Españaiko Erreinetatik kanpora irten bearrak, eta eren ondasunak galdu bearrak. Eta ezkonzeko hitz, promes edo alkarri aginduaren gañean demandarik edo auzirik batere artuko ezta; ez Elizako Tribunaletan; ez eta Erregearnetan ere; ezkonzeko lizenziarekin edo esan ditugun urtekin habilitaturik daudela hitzak edo promesak alkarri

eman ezpadioe: eta ori ez nolana, ezpada Eskritura publiko baten azpian. Eta orduan auzia segituko da, eta erabakiko da; ez gauza kriminala edo nastua bezela Obispo Jaunaren tribunetean; ezpada gauza zibil bat bezela Erregeak dituan Juezaen aurrean. Eta lege onen publikaziotik aurrera ezkonza guzietan gordeko dira, esan diran kondizioak: eta ez lenagoko legeetan agindurik zegoena.

G. Eta zer probetxu atera bear due lege onetatik ala gurasoak, nola seme-alabak? **E.** Gurasoak naigabe andiak ikusi nai ezpaditue, alegin guziak egin bear ditue: 1. eren humeak dotriña onean, eta Jaungoikoaren bildur santuan azitzeko: eta orrela, beti zor zaien errespeto, honra, eta obediencia ekarriko die: eta 2. eren libertadeaz nai duen bezela usatzeko denpora, edo urteak osatu baño lenago, beren seme, alabak (Jaungoikoak artara deitzen baditu) ondo akomodatzeko neurriak artu bear ditue. Eta gazteak eztira iñoiz aztu bear libertadeaz, ezkonzeko adiñetara elduagatik: eta Erregearen legearen aldetik kastigurik ez izan arren, Jaungoikoaren legeak obligatzen dituala; ez eren gogoaren kontra, gurasoak nai duenarekin nai ta ez ezkonzera; baña bai gurasoai kontu ematera, eta konseju eskatzera: eta arrazoi andiak, eta justuakin

atzeratzen baditue asmaturik edo pensaturik dauka-
ten ezkonzatic, baita obedezitzera ere: zerren bestela
erabageko ezkonza batekin gazteak eren buruai
ezeze, gurasoai, eta familia guziari naibage andiak,
eta kalte pisuak ekarri oi dizte: eta Jaungikoaren
aurrean pasioaren itxumenak libratuko eztitu pekatu-
tik: bada beti due obligazioa arrazoiari, justu danari,
eta Jaungoikoaren legeari geiago begiratzeko, eren
deseo itxuari baño: eta orrelako aldietan Konfesorea-
rekin edo gizon jakintsu, eta prudente edo zinzo bate-
kin komunikatzea, gauza bearra da, itxu-itxuan erake-
ririk ez egiteko.

G. j Eta zein dira ezkonza eragotzi ezeze, ezkonza
desegiten edo anulatzen duen inpedimentuak? **E.**
Dirade amalau: eta guziak ondo aditzera emateko
dotriña asko, eta luzeak bear liratezke: baño guzien
berri zeoro jakitea, ezta zuenzat gauza bearra edo
premiatzkoa: eta gauzarik bearrenak laburtxo aditzera
emango dizkitzuet. Eta 1. da, personaren gañean
engañua gertatzen danean: nola dan, uste izatea, per-
sona batekin, au da, urliarekin ezkontzen dala, eta
aren orde beste bat jarriko balitz, orduan ezkonzak
balio eztu; zerren arekin ezkonzeko borondaterik
eztaukan. 2. Da, personaren kondizioa. Eta esan nai

du, ezkonza erabaki badu, persona batekin, librea dalako ustean, eta gero jakiten du, esklaboa edo besteren menpekoa dala, eztu ezkonzak balio, artako dauden motibo andi askogatik. 3. Da indarrezko ezkonza: borondate bage egiten dana; zerren bildurtzen duen, bestela bizia kenduko dioela, edo indar andia egiten duen bildurrarekin, ezkonzera obligatzen duen. Eta orrelako ezkonzak balio izan oi eztu, libertadea falta dalako, konsentimentua borondatez emateko. 4. Da, emakumeren bat ezkondu eragiteko, libre zegoan tokitik, indarrez eramaten duenean, gizonaren mendean dagoan etxe edo beste tokira, eta andik atera bage, eta gizonaren mendean eztagoan beste toki libre seguru batera itzuli bage, ezkondu eragiten badue, ezkonzak balio eztu: baña bai leku librean jarri ezkerro, ezkondu nai izan badu. 5. da, Parrroko edo Elizako Arzaiaren, eta testigu biren aurretik egiten ezpada ezkonza, onek balio eztu. 6. Da erreligioan egiten dan boto solemnea: eta ala, profesatu dan Frailea edo Monja zein ezkondu ditezke: eta ezkonduko balitz, ezkonzak balio eztu. 7. Orobat, Ordena sagraduak artu dituen Eliz-gizonak, nola Sazerdotea, Diakonoa, eta Subdiakonoa ezin ezkondu ditezke: eta ixilik ezkonduko balira, ezkonzak balio eztu. 8. Batekin

ezkondurik dagoana, ura bizi dala, beste batekin ezkonduko baliz, ezkonza onek balioko ez luke. 9. Da Matrimonioaz usatzeko gai edo kapaz ez izatea: eta ezkondu baño lenago inpedimentu ori bazuen, ezkonzak balio eztu: eta fundamentuzko dudarik badu, komunikatu edo konsultatu bear du Konfesorearekin eta zer egin esango die. 10. Da, fededuna edo batea-tua fedebagearekin; au da, Kristaua dana, Kristau eztanarekin ezin ezkondu diteke: eta ezkonzen bada, balio eztu ezkonza orrek. 11. da, honestidade hubli-koa: eta esan nai du; ezkonzeko hitzak alkarri emanik edo agindurik daudenak, ezin ezkondu ditezkeala, hitzak eman diozkanarekin, odolezko aide lenengo gradoan daudenakin, nola dan alakoarekin, Aita, Ama, seme edo alaba edo senideakin. Eta dispensa bage ezkonduko balitz, Ezkonzak balioko ez luke. Eta honestidadeko inpedimentu au orobat dator osatu bageko Matrimoniotik: eta orduan eltzen da senarra-ren, eta emaztearen odolezko aide laugarren gradora-ñoetara: eta senarra, eta emaztea iltzen bada, ezin alarguna ezkondu diteke besteren odolezko aideakin, dispensa iritxi bage: bada bestela ezkonzak balio eztu. 12. Da, Matrimonio Santuaren kontrako gaizta-keri edo kulpa señaletu batzuek egitea: eta oek dira,

eta 1. da, adulterioa; eta senarrak emaztea edo emazteak senarra illzea edo illeragitea, bestearekin ezkonzeko: eta orrelakorik egin duena, alako pekatuzko lagunarekin ezkonduko baliz ezkonza orrek balioko ez luke. 2. Da, adulterieko pekatuak ez egin arren, alkarren konsentimentuarekin bataren, eta bestearen senarra edo emaztea iltzea edo illeragitea, alkarrekin ezkonzeko asmoarekin: eta ori egin duenak, ezin alkarrekin ezkondu ditezke: eta ezkonduko balira, orien ezkonzak balio eztu. 3. Da senarrak edo emazteak beste batekin adulterioko pekatu osatu bat egitea, alargunzen danean, arekin ezkonzeko kondizioaren azpian; pekatu ori, eta tratu ori batetan egin zuela, alargundu arren, ezin alkarrekin ezkondu ditezke eta ezkonduko balira, orien ezkonzak balio eztu. Eta 4. da, senarra, eta emaztea bizi dirala, beste batekin, beste toki batean jakiñaren gañean ezkonzea: eta orduan, ez bakarrik ezkonza orrek balio eztu, baizik alargundu arren, ezin alkarrekin ezkondu ditezke, eta berriz ezkonduko balira orien ezkonzak balioko ez luke. 13. Da, odolezko aidetasuna 4. graduraño edukitzea: seni-deak daude lenengo gradoan: lengusuak bigarrean: bestengusuak irugarrean: eta erangusuak laugarrean: eta oek guziok ezin alkarrekin ezkondu ditezke

Erromako Aita Santuaren dispensa bage: eta eztago dispensarik senidenzat. Eta bestenzat eztu ematen Aita Santuak dispensarik motibo justoak, eta egiazkoak ezpaditu: eta ori da gai bat gizon jakintsuakin komunikatu bear dana; eta baita ezkonza eragozten duen, eta desegiten duen aidetasuna dator Bateo santutik, eta Konfirmaziotik: eta ala aita pontekoak edo arra pontekoak (eren artean inpedimenturik sortzen ezpazaie ere) Bateoan jaso duenarekin eta aren gurasoakin ezin ezkondu ditezke dispensa bage, aide espiritualak egin diralako: eta orobat Konfirmazioan padriño izan diranak. Eta azkenik 14. inpedimentua da, afinidadea deitzen zaion odolezko aidetasuna: eta au da modu bitara: bata pekatu bage Matrimonio Santutik datorrena: eta bestea aragizko edo lujuriazko pekatu osatutik datorrena: eta ala senar-emazteak Matrimonioa osatu ezkeru, egiten dira aideak, senarra emaztearen odolezko aide guztiakin laugarren gradoraño, eta emaztea, orobat, bere senarraren odolezko aide guztiakin laugarren gradoraño: eta bata, eta bestea alarguntzen badira, ezin ezkondu ditezke Erromako Aita Santuaren dispensa bage, senarraren edo emaztearen aideakin eta aidetasun ori eltzen da erangu-suetaraño.

Ala aragizko edo lujuriazko pekatu osatutik zer aidetasun sortzen da, eta noraño allegatzen da? Pekatu ori egin duen edozein gizon edo motilla egiten da bere pekatu-lagun neskatxaren edo emakumearen odolezko aideen, aide 2. gradoraño: eta orobat emakume edo neskatxa gizakume edo motillaren odolezko aide guzien aide 2. gradoraño: eta ala, ez bata, ez bestea ezkondu ditezke dispensa bage, bestearen odolezko aideekin 1. eta 2. gradoan daudenekin, eta ala, ezin ezkondu diteke bere pekatu lagunaren, ez Aitarekin, ez Amarekin, ez seme edo alabarekin; ez eta senidearekin, eta ez lengusuarekin: baña bai bestengusu edo erangusuarekin. Eta inpedimentu ori zeukala, dispensa bage, ezkondu bazan, ezkonzak balio eztu: eta ignoranziaz egin bazuen ere, ezkonzak balio eztu: baña Erromara bage, erremedioa arkitu lezake orrelakoak, ori jakin ezkeru, Konfessorearekin komunikatzen badu: eta ala egiteko obligazioa dauka. Eta orobat fundamentu aundiko kezkarik edo dudarik duen guziak, egiñik dauken edo eginkizun daukaten ezkonzaren gañean, pekatu mortalaren azpian due obligazioa galdetzeko edo konsultatzeko, eta dudatik irteteko. Eta inpedimentuak dakiztenak, kontu emateko obligazio larria edo aundia due: eta artarako pro-

klamak edo deiak Elizan egiten dira: eta dispensa be-
rra duenak, aurretik klaru hitz egin, eta konseju eska-
tu bear due. Eta gauza guzien gañetik alegiñak egin
bear dituzue konzienziako pakea, eta Jaungoikoaren
grazia iristeko, eta artan beti irauteko: eta orrela
zuenzat izango da geroko betiko pakea, eta betiko
zoriona Zeruko glorian.

BUKAERA